

URREZKO ABARRA II

Dionisos

Aurreko kapituluetan ikusi dugunez, antzinatean Asiako mendebaldeko eta Egiptoko nazio zibilizatuak jainkoen bizitzako pasadizo gisa irudikatzen zituzten urtaroen aldaketak, eta bereziki landaretzaren urteroko hazkundera eta gainbehera: errito dramatikoak ospatzen zituzten haien heriotza tristea eta piztuera zoriontsua; doluz eta alaitasunez, hurrenez hurren. Baina ospakizuna formaz dramatikoa bazen ere, funtsean magikoa zen. Alegia, landareen eraberritzea eta animalien ugaltzea zituen helburu, sinpatiazko magiaren printzipioen arabera, neguaren erasoek mehatxatzen zituztela iruditu eta gero. Mundu zaharrean, ordea, halako ideia eta erritoak ez ziren mugatzen Babilonia eta Siriako, Frigia eta Egiptoko herri sortaldekoetara; ez ziren Ekialde amestiaren mistikotasun erlijiosoaren emaitza berezia; Egeoko kostaldeetan bizi ziren arrazek ere, fantasia biziagoko eta temperamentu erneagoko arrazek, bazuten halako erritorik. Ez daukagu zertan pentsatu, zenbait ikertzaile zahar eta modernok bezala, Mendebaldeko herriek Ekialdeko zibilizazio zaharragotik mailegatu zutela hiltzen eta pizten zen jainkoaren ideia, eta ideiarekin batera ideia hori gurtzaileen begien aurrean antzeppen bidez adierazten zuen erritual larria. Litekeenago da, alde horretatik, guk, eskuarki baina oker, halabeharrak ekarritako kointzidentzia deitu ohi duguna izatea Ekialdeko eta Mendebaldeko erlijioek beren artean izan dezaketen antza: kausa berdinek ondorio berdintsuak izango lituzkete giza gogoaren eraketan lurralde eta zerupe desberdinetan. Grekoek ez zuten lurralde urrunetara bidaiatu beharrik izan urtaroen gora-beheren berri izateko, Siriako arrosaren edertasun iheskorraz, ale urre-kolorearen loria iragankorraz, mahats purpuren betegintzarre higakorraz ohartzeko. Urtez urte, bere lurrean ikusiko zuten, tristuraz noski, udako edertasun distiratsua neguko goibelean eta hilduran; eta urtez urte, pozez agurtuko zuten bizi berriaren lehertzea udaberrian. Naturako indarrak nortzen ohituta, naturako abstrakzio hotzak irudimenaren apaingarri epelez tindatzen eta errealitate biluziak fantasia mitikoaren arropa ikusgarriez janzten ohituta, jainko eta jainkosen prozesioa eratu zuten berentzat, izpiritu eta iratxoena, urtaroen ikuspegi aldakorretik at, eta haien patuen urteroko gora-beherak jarraituko zituzten emozio aldakorrez: bozkarioz eta malenkoniaz, alaitasunez eta tristuraz; eta emozio horiek adierazpide naturala izango zuten errito hurrenez hurren alai eta doluzkoetan, pozezko eta penazkoetan. Hala hil eta atzera pizten ziren Greziako zenbait jainko-jainkosari erreparatzeak hainbat irudi pareko emango dizkigu, Adonis, Atis eta Osirisen irudi tristen aldamenean jartzeko. Dionisosekin hasiko gara.

Dionisos edo Bako jainkoa ezagunagoa zaigu mahastiaren eta mahats-muizioak eragindako bozkarioaren pertsonifikazio gisa. Badirudi haren gurtza -eromenezko dantza, musika eta mozkorraldien artean- Traziako tribu zakarretan sortu zela. Tribu haiek nabarmen emanak ziren mozkorrala. Haien doktrina mistikoak eta errito bitxiak arrotzak zitzaizkien funtsetik arraza grekoaren adimen argiari eta temperamentu zuhurrari. Baina misterio-zaletasunari eta basatasunera itzultzeko joerari deitzen zenez, hots, gizon gehienengan sortzezko diruditen gauzei, erlijio hura sua bezala zabaldu zen Grezian barrena, harik eta Homerok doi aipatutako jainkoa panteoiko irudi ezagunena bihurtu arte. Haren istorioak eta zeremoniek Osirisenekin duten antzak eramanez dituzte zenbait ikertzaile, bai antzinako eta bai moderno, esatera Dionisos Osiris mozorro bat besterik ez zela, Egiptotik Greziara zuzen-zuzenean eramana. Baina datu ugariak seinalatzen dute traziar jatorria, eta oinarri dituzten ideia eta ohituren arteko antzak nahikoa argi azaltzen du bi gurtzen arteko zerikusia.

Dionisosen agerkerak ezagunena mahats-landarea bere luku eta guzti bazen ere, zuhaitzen jainkoa ere bazen, oro har. Hala, kontatu zaigunez, ia greko guztiek eskaintzen zizkieten sakrifizioak "zuhaitzeko Dionisosi". Boezian haren tituluetakoa bat "Dionisos zuhaitzekoa" zen. Haren irudia haga zuta izan ohi zen askotan, besorik gabekoa, baina estalki batean bildua, maskara bizartsu batek burua irudikatzen ziolarik, eta abar hostotsuak burutik edo gorputzetik irteten zitzaizkiolarik, jainkoaren izaera erakusteko. Haren irudi halamoduz eginga zuhaixka batetik irteten ageri da buztinezko ontzi batean. Magnesiar, Meandro ibaian, Dionisosen irudia aurkitu omen zuten haizeak hautsitako sikomoro batean. Zuhaitz landatuen zaindaria zen: otoitzak eskaintzen zitzaizkion zuhaitzak haz zitezen; eta baserritarrek ohoratzen zuten bereziki, batez ere frutalaboreak: motxondo bat jartzen zuten haren irudi gisa beren baratzetan. Berak aurkitu omen zituen frutarbola guztiak; besteak beste, sagarrak eta pikuk aipatzen dira bereziki; eta "fruitutsua", "fruitu hezeduna" eta "fruitua hazarazten duena" deituz aipatzen zuten. Haren tituluetakoa bat "emankorra" edo "ugaria" zen; eta Atikan eta Akaiako Patraen bazen Dionisos Loretsu bat. Atenastarrek sakrifizioak eskaintzen zizkieten luraren igaliak ugariak izan zitezen. Hari eskaintako zuhaitzetako bat, besteak beste, mahats-landareaz gainera, pinua zen. Delfosko orakuluak pinu jakin bat gurtzeko agindu zien korintotarrei, "jainkoaren berdina", eta haiek Dionisosen bi irudi egin zituzten hartatik, aurpegi gorri eta gorputz urre-kolorekoak. Arte-lanetan, muturrean pinaburua duen makilatxoan eraman ohi dute jainkoak edo gurtzaileak. Orobat, huntza eta pikondoa bereziki lotuta zeuden jainkoarekin. Atikako Akarnaen bazen Dionisos Huntzarena; Lazedemoniar Dionisos Pikuaarena zegoen; eta Naxosen, non pikondoei meilika deitzen zieten, bazen Dionisos Meilikiosen irudi bat, aurpegia pikondo-zurez eginga zuena.

Bestalde, badira Dionisos nekazaritzaren eta laborearen jainkoak sumatzen zutelako seinaleak, gutxi baina esanguratsuak. Nekazari baten lana egingo bailuen hitz egiten dute hartaz; lehena izan omen zen idiak goldeari lotzen, aurrez goldea eskuz erabiltzen baitzen; eta zenbaitek hor aurkitu izan du hura batzuetan idi-itxuran agertu izanaren azalpena; izan ere, ikusiko dugunez, jainkoa horrelaxe agertzen omen zitzairen bere gurtzaileei. Beraz, goldea gidatzeari eta hazia haizetara zabaltzeari dagokienez, Dionisosek nekazariaren lana erraztu omen zuen. Gainera, kontatu zaigunez, bisalteen lurraldean -Traziako tribu bat dira bisalteak- Dionisosen jainkotegi handi ederra omen zegoen, eta bertan argi distiratsu batek argitzen zuen haren jain, gauean, jainkoak emandako uzta oparoaren seinale gisa; baina urte hartan uzta txarra izango bazen, argi mistikoa ez zen agertzen, iluntasunak inguratzen zuen jainkotegia, ohi bezala. Gainera, Dionisosen enblema artean galbahea zegoen, hau da, pala-itxurako saski bat, nekazariak garai modernoetaraino erabili izan dutena alea lastotik bereizteko. Nekazal tresna sinple hori agertzen zen Dionisosen errito mistikoetan; hain zuzen, jainkoa galbahe batean jarri omen zuten jaiotzean, sehaska batean bezala; arte-lanetan, hala sehaskaratutako haurtxo baten gisa irudikatu ohi da; eta tradizio eta irudikapen horietatik etorri zaio Liknites deitura, hau da, "Galbahekoa".

Landaretzaren beste jainko batzuek bezala, Dionisosek ere heriotza bortitza izan zuela uste zen, baina atzera bizira ekarri zutela; eta haren sufrikarioa, heriotza eta piztuera errito sakratuetan jokatzeko ziren. Nono poetak honela kontatzen du haren istorio tragikoa. Zeusek Persefone bisitatu zuen sugogorri baten itxura hartuta, eta Persefone Zagreoz erditu zen, hau da, Dionisosez, haur adardun batez. Jaio eta berehala, haurra aitaren tronura igo eta jainko handiarena egin zuen eskuan tximistak hartuta. Baina ez zen tronuan luzaroan egon; Titan traidoreak, aurpegiak igeltsuz zurituta, eraso egin zioten labanez hura ispilu batean bere buruari beha zegoelarik. Aldi batez izkina egin zien, itxura desberdinak hartuz: Zeus eta Kronosena, gizon gazte batena, lehoi batena,

zaldi batena eta sugedorri batena. Azkenez, zezen baten itxuran, etsaien labana hiltzaileek zehatu egin zuten. Kretako mitoa, Firmiko Maternok kontatu bezala, honelakoa da. Jupiter izeneko kretatar errege baten seme sasikoa omen zen. Errege hura kanpora joan zen batean, Dionisos gazteari utzi zizkion tronua eta aginte-makila, baina, jakinik bere emazte Juno jeloskorrak haurra gorrotatzen zuela, goardia batzuen zainpean utzi zuen Dionisos, haien leialtasunaz fidatuta. Junok, ordea, goardiak erosi zituen eta, haurra txintxarri batez eta trebeki landutako ispilu batez erakarriz, tranpa batera eraman zuen eta han, Junoren laguntzaile Titanek eraso egin zioten: atalez atal zatikatu, gorpua zenbait belarrez egosi eta jan egin zuten. Baina Minerva arrebak, parte hartu baitzuen hartan, anaiaren bihotza hartu eta Jupiterri eman zion erregea itzuli zenean, eta krimenaren historia osoa kontatu zion. Amorruez beterik, Jupiterrek torturatu eta hil egin zituen Titanak eta, semea galtzeak emandako tristura ematzeko, haren irudia egin eta bertan gorde zuen haurraren bihotza, eta gero tenplua eraiki zuen haren ohorez. Aldaera honetan jite evemerista eman zaio erritoari, Jupiter eta Juno (Zeus eta Hera) Kretako errege-erreginak bailiran jainko eta jainkosa bihurtu aurretik. Aipatutako goardiak mitoko kureteak dira, Dionisos haurraren inguruan gerra-dantza bat egin zutenak, Zeus haurraren inguruan egin omen zuten bezala. Oso aipagarria da Nonok eta Firmikok jasotako kondaira bat, haurretan Dionisos aldi labur batez bere aita Zeusen tronuan eseri zela dioena. Hala, Proklok dioskunez, "Dionisos izan zen Zeusek izendatu zuen jainkoen azken erregea. Aitak tronuan ezarri baitzuen, eta aginte-makila jarri zion eskuan, eta munduko jainko guztien errege egin zuen". Kondaira horiek ohitura bat seinalatzen dute, erregearen semea aldi baterako errege izendatzekoa, aitaren ordezkari sakrifikatu aurretik. Granadak Dionisosen odoletik sortuak omen dira, hala nola anemonak Adonisen eta bioletak Atisen odoletik; horregatik, emakumeek ez zituzten jaten granada-haziak Tesmoforietako jaialdian. Zenbaitek diotenez, Dionisosen atal zatikatuak Apolok bildu omen zituen, Zeusek hala aginduta, eta Parnason ehortzi zituen. Dionisosen hilobia Delfosko tenpluan erakusten zen, Apoloren urrezko estatua baten ondoan. Hala ere, beste kontakizun baten arabera, Dionisosen hilobia Tebasen zegoen, han zatikatu omen zuten eta. Orain arte ez da aipatu bortxaz hildako jainkoaren piztuerarik, baina mitoaren beste aldaera batzuetan era askotara kontatzen da hori. Aldaera batean Zeusen eta Demeterren seme gisa ageri zen Dionisos, eta amak puskak bildu eta atzera gazte bizi bihurtu zuen. Beste batzuetan esaten da, besterik gabe, ehorzketaren ondoren hildakoen artetik jaiki zela eta zerura igo zela; edo Zeusek jaso zuela hiltzorian zetzanean; edo Zeusek Dionisosen bihotza irentsi zuela eta gero berriro sortu zuela Semelerekin, gehien zabaldutako elezaharrean hau ageri baita Dionisosen ama gisa. Edota bihotza haustu eta Semeleri eman zitzaiola edabe batean, eta hartara hura berriro ernaldtu zela.

Mitotik erritualera pasatuz, badakigu kretatarrek jaialdi bat ospatzen zutela bi urtez behin, Dionisosen nekaldia xehetasun osoz antzezten zutelarik. Bere azken uneetan egin edo jasan zuen guztia antzezten zen gurtzaileen begien aurrean; haiek zezen bizia zatikatzen zuten beren hortzez, eta basoetan barrena ibiltzen ziren ikaragarritzko deiadarrak eginez. Aurrean kaxatxo bat eramaten zuten, Dionisosen bihotza zeukana nonbait, eta xirulen eta zinbaloen musika basatiak haurra bere galbidera eraman zuen arranbera imitatzen zuen. Mitoaren osagai zen lekuetan, piztuera ere antzezten zen erritoetan, eta are piztueraren edota gutxienez hilezkortasunaren doktrina orokor bat ere erakusten zitzaien, nonbait, gurtzaileei. Hain zuzen, Plutarkok, alaba hiltzean, emazteari idazten diolarik kontsolatzeko, arimaren hilezkortasunaren pentsamenduaz adoretzen du, tradizioak irakatsi eta Dionisosen misterioetan erakutsi bezala. Dionisosen heriotza-pizteen mitoaren beste aldaera bat hauxe da, hura Hadesera jaitsi zela bere ama Semele hildakoen artetik jasotzera. Greziako elezahar baten arabera, Alziongo lakutik jaitsi

omen zen; eta azpi-mundutiko itzulera, bestela esan, haren piztuera, urtero ospatzen zuten bertan grekoek: tronpetei puzka deitzen zioten, eta arkume bat jaurtitzen zuten lakura, hildakoen zaindariarentzako eskaintza gisa. Ez dago esaterik hau udaberriko jaia ote zen ala ez, baina lidiarrek udaberrian ospatzen zuten Dionisosen etorrera; jainkoak berekin ekartzen omen zuen urtaro hori. Landaretzaren jainko-jainkosak, urtearen parte bat lurpean pasatzen omen dute-eta, azpimunduko edo hildakoen jainko-jainkosatzat hartzen dira naturalki. Horrela sumatzen zituzten Dionisos eta Osiris.

Dionisosen izaera mitikoaren ezaugarri bat, lehen begiratuan landaretzaren jainko izatearekin bat ez datorrena, zera da, askotan animalia baten itxuran sumatu eta irudikatua zela, batez ere zezen baten itxuran, edo gutxienez adarrekin. Hala da aipatua, "behitik jaioa", "zezena", "zezen-itxurakoa", "zezen-aurpegikoa", "zezen-burukoa", "zezen-adarduna", "adarduna", "bi adarrekoa". Sinesten zuten zezen-itxuran ageri ohi zela, batzuetan bederen. Haren irudiak zezen-itxurakoak izaten ziren maiz, Zizikosekoa kasu, edota zezen-adarrak zituztenak; eta pintatu ere adarrez pintatzen zuten. Dionisos adardunaren imajinak aurkitu dira antzinateko monumentuetan. Estatuatxo batean zezen-larruz jantzita ageri da, atzean burua, adarrak eta oinak zintzilik dituela. Orobat, haur gisa irudikatua dago, mahats-lukuak loki-inguruetan eta txahal baten burua dituela, eta adar erne berriak buruaren atzealdean. Irudi gorridun ontzi batean, txahal-burudun haur gisa ageri da jainkoa, emakume baten altzoan eserita. Zinaetako herriak Dionisosen jai bat ospatzen zuen neguan; gizonek, gorputzak hartarako olio zantzutu ondoren, zezen bat apartatzen zuten taldetik eta jainkotegira eramaten zuten. Dionisosek zezen jakin bat aukerarazten omen zien; jainkoa bera ordeztzen bide zuen zezen hark, zeren eta bere jaietan zezen-itxuran agertzen zela sinesten baitzuten. Elisko emakumeek zezen gisa aldarrikatzen zuten, eta bere zezen-oinarekin etortzeko erregutzen zioten. Hala abesten zuten: "Zatoz hona, Dionisos, zatoz itsasertzeko tenplu santu honetara; zatoz Graziekin zure tenplura, zure zezen-oinaz korrika, oi zezen ona, oi zezen ona!". Traziako Bakanalek adarrak janzten zituzten jainkoaren antzo. Mitoaren arabera, zezen baten itxuran zatikatu zuten Titanek; eta kretatarrek, Dionisosen sufrikarioa eta heriotza antzeztan zituztenean, beren hortzez zatikatzen zuten zezen bizi bat. Hain zuzen, zezen biziak eta txahalak zehatzea eta jatea Dionisosen erritoen ezaugarri betiko bat izan bide zen. Kontuan hartzen baditugu Jainkoa zezen gisa edota animalia horren ezaugarri batzuekin irudikatze ohitura, errito sakratuetan gurtzaileei zezen-itxuran agertzen zitzaielako sinestea, eta zezen-

itxuran zatikatu zutelako elezaharra, ez daukagu duda egiterik: jaialdian zezen bizi bat zehatu eta jatean jainkoa bera hiltzen ari zirela sinesten zuten Dionisosen gurtzaileek, haren haragi-odolak jaten eta edaten ari zirela.

Beste abere baten itxura ere hartzen zuen Dionisosek: akerrarena. Haren izenetako bat, hain zuzen, "antxumea" zen. Atenasen eta Hermionen "aker-larru beltza duena" tituluaz gurtzen zuten, eta kondaira baten arabera, behin batean titulu hori eman zion larruaz jantzita agertu omen zen. Ardo-lurra den Phlius barrutian, non mahasti zimelen hosto berde eta horiztek udazkenean oraindik ondo estaltzen duten lautada, ba omen zen aspaldian aker baten brontzezko irudi bat, nekazariak urrezko hostotxo estaltzen zutena, beren mahastiak gorrinetik babesteko. Imajina hark, beharbada, mahatsaren jainkoa bera irudikatuko zuen. Heraren gorrotetik salbatzeko, aita Zeusek antxume bihurtu zuen Dionisos gaztea; eta jainkoek Egiptora aldegin zutenean Tifonen suminari ihesi, Dionisos aker bihurtu zen. Horregatik, haren gurtzaileek aker bizia zatikatu eta gordinik jaten zutenean, sinetsita egongo ziren jainkoaren gurputza eta odola jaten ari zirela. Animalien eta gizakien gorputzak zatikatu eta gordinik jateko ohitura erlijio-errito gisa praktikatu izan dute basatiek garai modernoetan. Beraz, ez daukagu

antzinakoek esana, alegia, Bakoren gurtzaile erotuek antzeko erritoak zituztela, ipuin hutsa delakoan baztertzetik.

Aurrerago xeheago aztertuko dugu jainko bat animalia forman hiltzeko ohitura; giza kulturaren etapa oso goiztiar bati dagokio, eta gaizki uler daiteke gerora. Pentsamenduaren aurrerapenak joera bat du: animalia eta landare-jainkoak beren animalia eta landare ezaugarriez gabetu ahala, giza ezaugarriak besterik ez uztea (horiek baitira beti ikusmolde horren muina). Bestela esan, animalia eta landare-jainkoak antropomorfiko huts bihurtu ohi dira. Erabat edo neurri handi batez horrelako bihurtu eta gero, hasieran jainkoak berak zirene animalia eta landareek, oraindik gordetzen dute halako lotura lauso eta gaizki ulertu bat berengandik sortutako jainko antropomorfikoekin. Jainkoaren eta animaliaaren arteko erlazioaren sorrera ahaztua izaki, hainbat istorio asmatzen dira erlazio horren azalpena emateko. Azalpen horiek bi bide hartzen dute, animalia edo landare sakratua ohiko ala ohituraz kanpoko eran tratatzea kontu. Animalia sakratua errespetatu egin ohi zuten, eta salbuespen gisa bakarrik hil ohi zuten bortxaz. Beraz, mitoak horixe esplikatu behar zukeen: zergatik errespetatzen zuten edo zergatik hiltzen zuten. Lehen xederako asmatua zenean, mitoak animaliak jainkoari egindako faboreren bat kontatuko zuen; bigarren xederako asmatua zenean, berriz, mitoak animaliak jainkoari egindako irainen bat kontatuko zuen. Dionisosi akerrak sakrifikatzea bigarren motako mitoaren adibide da: mahats-landareari irain egin ziotelako sakrifikatzen omen zituzten, hala esan ohi zen. Baina akerra, ikusi dugun bezala, hala gorpuztutako jainkoa bera zen jatorriz. Baina jainkoak bere animalia itxura erantzi eta gizantzeko bihurtu zenean, haren gurtzan akerra hiltzea ez zen hartu jainkoa bera bortxaz hiltzea bailitzan, baizik eta hari eskainitako sakrifizioztat; eta arrazoiren bat eman behar zenez akerra eta ez beste abererik sakrifikatu beharraz, argudiatzen zen akerrari mahats-landarea iraintzeagatik ezarritako zigorra zela, jainkoaren arreta berezia merezi zuen landarea iraintzeagatik, alegia. Hortaz, hara zer ikuskizun bitxia: jainko bat bere buruari sakrifizioan eskainia, bere buruaren etsaia zela eta. Eta jainkoak berari eskainitako biktimatik jaten duela jotzen denez, ondorioz, biktima jainkoa bera denean, jainkoak bere haragia jango du. Horregatik, Dionisos jainko akerra aker-odol gordina jaten irudikatzen da; eta Dionisos jainko zezenari "zezen-jale" deitzen zaio. Adibideon analogiaz, pentsa genezake jainko bat animalia jakin baten jale gisa deskribatzen denean, animalia hori jatorriz jainkoa bera zela. Aurrerago ikusiko dugunez, zenbait basatik, hartzak eta baleak hiltzen dituztenean, beren (hartz eta bale horien) gorputzen zatiak eskainiz eztatzen dituzte animaliak.

Horrek guztiak, ordea, ez du argitzen zergatik agertzen zen animalia itxuran landaretzaren jainko bat. Baina puntu horri buruz aurrerago jardungo dugu, Demeterren izaera eta tasunak jorratu ondoren. Bien bitartean, haxe besterik ez dugu aipatuko, alegia, zenbait lekutan, animalia baten orde, gizaki bat zatikatzen zutela Dionisosen erritoetan. Horixe zen ohitura Kios eta Tenedosen; eta Beoziako Potniaen, tradizioak zioenez, lehenago ohitura omen zen Dionisos aker-zigortzaileari haur bat sakrifikatzea, eta gerora akerrak ordezkatu omen zuten haurra. Orkomenon, ikusi dugun bezala, erregearen leinuko familia zahar bateko emakumeen artean aukeratzen zen giza opagaia. Zezen edo aker bortxaz hilak jainko eraila ordeztu zenez, pentsa genezake giza opagaiak ere huraxe ordeztu zuela.

Penteo eta Likurgoren heriotzen elezaharrak ere -bata Bakanalek eta bestea zaldiek zehatu zituzten bi erregerenak, alegia- Dionisosen erritoen kontra egoteagatik, arrasto itxuraldatuak izan litezke, lehenago iradoki dudan bezala: alegia, jainkoen erregeak Dionisos zirelakoan sakrifizioan eskaintzeko eta gorputz zatikatuak soroetan zehar barreiatzeko ohitura baten arrastoak, sorok emankortzeko. Ez dateke kointzidentzia hutsa Dionisos bera ere Tebasen zatikatu izana. Kondairaren arabera, leku hartantxe

jasan zuen Penteo erregeak patu berdina, mahastien jainkoaren jarraitzaile erotuen eskuetara.

Hala ere, baliteke batzuetan giza sakrifizioei buruzko kondaira bat sakrifizio-erritual baten interpretazio okerra izatea, erritual horretan opagaia gizakitzat hartzen zelako. Adibidez, Tenedosen, Dionisosi eskaintzen zitzaion txahal jaio berriari bortzegiak janzen zizkioten, eta behi ama erditzen ari zen emakume baten gisan etzaten zuten. Erroman giza opagaia bailitzan sakrifikatzen zioten Vedijovis-i ahuntz bat. Bestetik, ordea, baliteke, eta agian litekeenagoa da, errito bitxiok giza opagaiak eskaintzeko beste ohitura zaharrago eta zakarrago baten segida ematuak izatea, eta geroragoko joera - eskainitako opagaiak gizakiak bailiran tratatzea, alegia- on beharrez egindako izuntzea izatea, jainkoari gizon eta emakume biziak bezain baliotsuak ez ziren opagaiak eskainiz. Interpretazio honekin bat datoz ezbairik gabeko hainbat eta hainbat kasu, zeinetan animaliek ordeztu dituzten giza opagaiak.

xliv

Demeter eta Persefone

Dionisos ez zen bere istorioaz eta erritualaz landaretzaren gainbehera eta berpiztea islatzen zuen Greziako jainko bakarra. Itxura eta aplikazio desberdinez, Demeterren eta Persefoneren mitoan berragertzen da kondaira zaharra. Funtsean mitoa Siriako Afrodita (Astarte) eta Adonisen, Frigiako Zibeles eta Atisen eta Egiptoko Isis eta Osirisen mitoan berdin-berdina da. Greziako fabulan, Asiako eta Egiptoko beste horietan bezala, jainkosa batek lantua jotzen du maitearen galeragatik; honek landaretza nortzen du, bereziki laborea, neguan hil eta udaberrian pizten dena. Alde bakarra, sortaldeko asmakizunean maite galdua maitale edo senar hil gisa ageri zela, bere maitale edo emazteak erosta egiten ziolarik; grekoen irudimenak, aldiz, forma samurrago eta aratzagoan gorpuztu zuen ideia bera: ama saminduak dolu egiten dion alaba hilaren itxuran.

Demeter eta Persefoneren mitoa kontatzen duen literatur agiri zaharrena Demeterren Himnoa da, himno homeriko ederra, kritikoek gure aroaz aurreko zazpigarren mendekotzat jotzen dutena. Poemaren helburua Eleusisko misterioen sorrera esplikatzeko da, eta poetak Atenasi eta atenastarrei buruz aipurik ez egiteak, gerora jaialdi hartan parte nabarmena izan zuten arren, pentsarazten digu himnoa askoz lehenago konposatu zela, Eleusis artean hiri-estatu independentea zenean, eta Misterioen prozesio itzaltsua, iraileko egun distiratsuetan, desfilatzen hasi aurretik, Eleusisko ale-lurra eta Atenasko zabaldi olibondoz jantzia bereizten dituzten muino harritsu soilen lerro baxuaren gainetik. Nolanahi ere den, himnoak erakusten digu nola sumatzen zituen idazleak bi jainkosen izaera eta betekizuna; bien berezko itxurak nahikoa nabarmen ageri dira imajina poetikoen belo finaren azpian. Persefone gaztea, hala dio kondairak, zelai berde batean arrosak eta liliak, bioletak eta azafrai-loreak, hiazintoak eta narzisoak biltzen ari zelarik, lurra ireki eta Pluton, Hildakoen Jauna, amildegitik irten eta eramane egin zuen urrezko gurdian, bere emaztegai eta erregina izan zedin lurpeko mundu ilunean. Haren ama saminduak, Demeterrek, bere trentza urre-koloreak dolu-zapi ilun batez estalita, zeru-lurretan zehar bilatu zuen alaba, eta Eguzkiak alabaren patua kontatu zionean, sumin handiz erretiratu zen jainkoengandik, eta Eleusisen hartu zuen egoitza; han erregearen alabei aurkeztu zitzairen atso baten itxuran, olibondo baten itzalean triste eserita, Neskutsaren Iturriaren ondoan; haraxe joanak baitziren neskak brontzezko pitxerretan aitarene etxerako ur bila. Jasaten zuen zorigaitzagatik suminduta, ez zuen uzten hazia haz zedin, lurpean ezkutatuta edukitzen zuen, eta aldarrikatzen zuen inoiz ez zuela oinik ezarriko Olinpoan eta inoiz ez ziola utziko laboreari ernetzen, harik eta alaba galdua itzuli arte. Alferrik herrestatu zituzten idiek goldeak batera eta bestera soroetan; alferrik erein zuen ereileak garagar-hazia ildo nabarretan; ezer ez zen etorri lur elkor eta

mokortu hartatik. Are rariar lautada ere, Eleusistik gertu, uzta horiz kulunkatu ohi zena, antzu eta gorri zegoen. Gizadia akabatu egingo zen gosez eta jainkoak zor zaizkien sakrifizioerik gabe geratuko ziren baldin eta Zeusek, larrituta, Plutoni agindu ez balio bere harrapakina jaregiteko eta bere emazte Persefone Demeter amari itzultzeko. Hildakoen jaun kopetilunak irribarrez obeditu zion, baina erregina urrezko gurdian gora bidali aurretik, granada baten hazia eman zion jatera, hartara beragana itzuliko zelakoan. Baina Zeusek ebatzi zuen handik hara Persefonek urtearen bi herenak amarekin eta jainkoekin emango zituela goiko munduan, eta heren bat senarrarekin beheko munduan, eta urtero itzuliko zela handik lurra udaberriko loreez alaitzen zen garaian. Hala, pozik itzuli zen alaba eguzki-argitara, pozik hartu eta besarkatu zuen amak; eta galdutako hura bereganatu zuelako bozkarioz, Demeterrek goldatutako soroetako mokorretatik sorrarazi zuen laborea eta lur osoa bete zuen hostoz eta lorez. Eta berehala joan eta erakutsi zien ikusmira zorioneko hura Eleusisko printzeei, Triptolemoni, Eumolposi, Dioklesi, baita Zeleo erregeari berari ere, eta gainera bere erritoak eta misterioak erakutsi zizkien. Bedeinkatua izan bedi, dio poetak, gauza hauek ikusi dituen gizakia, baina bizi artean horietan parterik ez duena inoiz ez da zoriontsu izango hiltzean, hilobiko iluntasunera jaitzikoan. Beraz, bi jainkosak Olinpoko jainkoekin lorian bizitzera abiatu ziren; eta bardoak Demeterri eta Persefoneri egindako otoitz jaieratsu batez amaitzen du himnoa, arren eman diezaiotela bizimodu ona bere kantuen ordain.

Denek onartu dute, eta ez dirudi zalantzarako leku handirik dagoenik, poetak himnoa konposatzerakoan hartu duen gaia Demeter jainkosak Eleusisko misterioak sortu zitueneko tradizioa dela. Poema osoa horretara doa, transformazio-eszenara, zeinetan Eleusisko lautadaren zabaldi hostogabe antzua, jainkosaren borondatez, labore gorritz betetako izara zabal bilakatzen den bat-batean; jainkosa ongileak hartzen ditu Eleusisko printzeak, erakusten die zer egin duen, irakasten dizkie errito mistikoak, eta alde egiten du zerura alabarekin. Misterioen erakuspenak ematen dio garaipenezko bukaera piezari. Konklusio hau berretsi egiten du poemaren azterketa xeheago batek, frogatzen baitu poetak, misterioen sorreraren kontakizun orokorra bakarrik ez, errito partikular batzuen sorreraren azalpen mitikoak ere eman dituela hizkera gutxi-asko lausotuan, hau da, jaialdiaren ezaugarri funtsezkoak, arrazoi osoz sinets dezakegunez. Poetak honako errito hauen aipu esanguratsuak egiten ditu, besteak beste: iniziatu-gaien aurreko kandidatuen baraua; lastargiekiko prozesioa; gau osoan itzarririk egotea; iniziatu-gaiak ardi-larruz estalitako aulkien gainean eserita egotea, aurpegia estalita eta isilik; hizkera gordina erabiltzea; trufa lizunak egitea, baita jainkosarekiko komunio itzaltsua ere, kaliz sakratu batetik garagar-ura edanez.

Baina bada beste sekretu sakonago bat misterioetan, poemaren egileak bere kontakizunaz estaliz gaztigatu bide diguna. Esaten digu nola, jainkosak Eleusisko lautadaren zabaldi gorri antzua ale urre-kolorez betetako sail bihurtu bezain laster, Triptolemoren eta Eleusisko beste printze batzuen begiak alaitu zituen labore-hazia erakutsiz. Istorioaren parte hau bigarren mendeko idazle kristau batek -Hipolitok- adierazitakoarekin konparatzen badugu, hots, misterioen muin-muina iniziatuari galburu ebaki bat erakustea zela, ez daukagu duda egiterik: himnoa sortu zuen poetak ondo asko izango zuen errito itzaltsu horren berri, eta beraren sorrera azaltzen saiatuko zen, nola, eta misterioetako beste errito batzuk azaldu zituen bezalaxe, hau da, Demeter zeremonia bere buruan egiten irudikatuz. Hortaz, mitoak eta erritoak elkar esplikatzen dute. Gure aroaz aurreko zazpigarren mendeko poetak mitoa ematen digu -sakrilegiorekin egin gabe ez zeukan errituala azaltzerik-; aitalahehen kristauak errituala erakusten digu, eta haren erakuspena guztiz bat dator poeta zaharrak emandako adierazpide lausotuarekin. Oro har, beraz, onar genezake, jakitun moderno askorekin batera, Alexandriako Klemente

aitalehen kristauak adierazitakoa, alegia, Demeter eta Persefoneren mitoa drama sakratu gisa antzezten zela Eleusisko misterioetan.

Baina mitoa Grezia zaharreko errito erlijioso ospetsu eta itzaltsuenen parte gisa, parte nagusi gisa agian, antzezten bazen, oraindik ere galdetu beharrean gara: zer zen, bada, geroragoko eranskinez gabetuta, mitoaren jatorrizko muina, geroagoko garaietan beldur eta misterio-kutsuz inguratua eta antzaldaturia ageri dena? Baldin eta gai honetan literatur aditurik zaharrenak, hots, Demeterren himnoaren egile homerikoak emandako argibideei men egiten badiegu, asmakizuna ez da argitzen zaila; bi jainkosen irudiak, ama-alabak, laborearen pertsonifikazio dira. Hori argi dago behinik behin Persefone alabarentzat: urtero hiru edo -mitoaren beste aldaera baten arabera- sei hilabete hildakoekin lurpean eta beste hilabeteak bizien goiko munduan ematen dituen jainkosa izaki; bera falta denean garagar-hazia lurpean ezkutaturik eta soroak biluzik eta mokortuta daudelarik; udaberrian goiko mundura itzultzen denean laborea mokor artetik ernetzen eta lurra hostoz eta lorez gizontzen delarik, jainkosa hori, seguruenik, ez da landaretzaren gorpuzte mitikoa besterik, eta bereziki laborearena. Hau ere lurpean izaten da neguko zenbait hilabetez, eta atzera bizira etortzen da, hilobitik bezala, udaberriro ernetzen diren ale-buruetan eta zabaltzen diren loreetan eta hostotzan. Ez dirudi Persefoneren beste azalpen arrazoizko eta egiantzekorik eman daitekeenik. Eta alaba jainkosa aurtengo labore gaztearen pertsonifikazio bada, ez ote da ama jainkosa iazko labore zahar, uzta berriei erdituaren pertsonifikazio? Demeterren ikuspegi horri kontrajar dakiokkeen aukera bakarra zera litzateke, lurraren pertsonifikazioa dela jotzea, beronen altzo zabaletik etortzen baitira labore eta beste landare guztiak, hartara egoki asko har daitezkeelarik haren alabatzen. Demeterren jatorrizko izaeraren beste ikuspegi hori bere egin dute zenbait idazle modernok zein antzinakok, eta arrazoizkoa dirudi. Baina badirudi himno homerikoaren egileak ez duela onartzen: Demeter eta Lurra bereizi ezezik, elkarri guztiz kontrajarririk kokatzen ditu. Beraren arabera, Lurra bideratu zuen Persefone bere patura, Zeusen borondatearekin bat etorritik eta Plutoni atsegin emateko, narzisoak hazaraziz eta jainkosa gaztea belardi ederrean barrena laguntzarik izan ez zezakeen lekuraino. Hala, himnoko Demeter ez da Lur jainkosa inondik ere; bere etsai gaiztoena ikusiko zuen jainkosa hau, beronen joko maltzurari esker galdu baitzuen alaba. Eta himnoko Demeter ez bada lurraren pertsonifikazio, laborearen pertsonifikazio izan behar, ez dago beste aukerarik.

Onorio hau monumentuek berresten dute; arte zaharrean Demeterrek eta Persefonek labore-jainkosen ezaugarriak dituzte biek: buruan daramaten labore-koroa eta eskuetan dituzten labore-zurtainak. Orobat, Demeterrek erakutsi zien atenastarrei laborearen sekretua eta barreiatu zuen aurkikuntza onuragarria batera eta bestera, Triptolemoren jardunaren bitartez, hau bidez bide bidali baitzuen emaria gizadi osoari jakinaraztera. Arte-monumentuetan, batez ere ontzietako pinturretan, errege hori eginkizun horretan agertzen da Demeterrekin batera, eskuan labore-buruak dituela eta gurdian eserita; batzuetan gurdiak hegoak ditu eta beste batzuetan herensugeek eramaten dute; bertatik ere in omen zuen hazia mundu osoan zehar, airez zihoalarik. Emari ezin hobeagatik esker ona erakutsi nahiz, Greziako hiri askok denbora luzez jarraitu zuten garagarren eta gariaren lehen fruituak bi jainkosei -Demeter eta Persefoneri- eskaintzen Eleusisen, non bihitegiak eraiki baitziren lurpean eskaintza ezin ugariagoak gordetzeko. Teokritok kontatzen digu nola Kos irlan, udako eguraldi urrintsuan, nekazariak uztaren lehen igaliak Demeterri eramaten zizkion, larraina garagarrez betetzen ziolako, eskuetan beraren irudi baldarrak azaoak eta mitxoletak zituela. Antzinakoek Demeterri emandako deitura askok laborearekin duen zerikusia nabarmentzen dute erarik argiengan.

Zirkunstantzia batek adierazten digu Demeter laboreen jainkosarekiko fede hau zenbateraino zegoen sartuta antzinako grekoen gogoan: hemeretzigarren mendearen

hasieran ere iraun egiten zuen haien ondorengo kristauen artean Eleusisko jainkotegi zaharrean. Hain zuzen, Dodwell bidaiari ingelesak Eleusis bisitatu zuenean, bertakoek bere nahigabea azaldu zioten Demeterren irudi eskerga galdua zutelako, Clarkek 1802an eraman eta Cambridgeko unibertsitatean aurkeztu baitzuen. Oraindik ere han da. "Greziara egin nuen lehen bidaiari" diosku Dodwellek, "jainkosa babesle hura bere loriarik beteenean zegoen, larrain baten erdian, bere tenpluaren hondakinen erdian. Bertakoak erabat sinetsita zeuden uzta ugariak jainkosaren esku zabalari zor zizkiotela, eta hura eraman zutenetik ugaritasuna, halaxe esan zidaten, desagertua da". Beraz, laborearen jainkosa Demeter Eleusisko larrainean zutik eta gurtzaileei laborea ematen ageri zaigu Kristo ondorengo hemeretzigarren mendean, hain zuzen Kos irlako larrainean, Teokritoren garaian, haren irudiak gurtzaileei laborea ematen zien bezala. Eta Eleusisko herriak hemeretzigarren mendean uztaren urritzea Demeterren irudia galtzeari egozten zion bezala, halaxe antzinatean siziliarrek ere, labore-lanera eta laborearen bi jainkosen jaierara emandako herri hark, deitoratzen zuten herri askotako uztak galdu egin zirela Erromako gobernadore gupidagabeak Demeterren irudia gaiztoz eraman zuelako Hennako tenplu famatutik. Eska ote genezake grekoek garai modernoetaraino izan duten sineste hau baino froga argiagorik, Demeter laborearen jainkosa zela egiaztatzeko? Alegia, uztak jainkosaren presentziari eta esku zabalari lotuta zeudela, eta galdu egin zirela haren irudia eraman zutenez geroztik?

Hortaz, baldin eta, oro har, antzinakoek berek emandako datuei atxikitzen bagatzaizkie Eleusisko erritoei dagokienean, beharbada bat etorriko gara arkeologo zaharretan jakitunena denarekin, Varron erromatararekin. San Agustinek haren iritziaz dioena hona aldatuz, "[Varronek] Eleusisko misterioak Zeresek (Demeterrek) aurkitutako laborearekin eta Plutonek berekin eramandako Proserpinarekin (Persefonerekin), lotzen zituen bere osoan. Eta Proserpinak berak, dio Varronek, ereindakoaren emankortasuna esan nahi du, zeinen hutsegiteak garai batean lurrari dolua erakarri baitzion bere antzutasunagatik eta, horregatik, iritzi bat sorrarazi zuen, alegia, Zeresen alaba - emankortasuna bera- Plutonek bahitu zuela beheko munduan; eta gosetea publikoki deitoratua izan ondoren eta emankortasuna berriz ere itzuli zenean, jendea alaitu egin zen Proserpina itzuli zelako, eta errito itzaltsuak ezarri ziren. Honen ondoren dio" jarraitzen du San Agustinek, Varronen hitzak aldatuz, "gauza asko irakasten zirela haren misterioetan, laborearen aurkikuntzarekin eta ez beste ezerekin lotuta daudenak".

Honaino, onartu egin dut gehienbat Demeterren eta Persefoneren arteko izaera berdina: ama-alaba jainkosek bere bikoiztasunean pertsonifikatuko lukete laborea, alegia, iaz hazitarako utzitako laborea eta aurtengo galburu ebakiak, eta ama-alaben arteko funtsezko batasun honen ikuspegia agerian uzten dute arte grekoan dituzten irudietan: askotan hain dira antzekoak, non ia bereiztezinak diren. Demeterren eta Persefoneren tipo artistikoen artean halako antz handiak izatea frogatzen da beste ikuspegiaren kontra, alegia, jainkosa bat lurra eta bestea lurretik sortzen den landaretza, bi gauza hain desberdin eta bereizgarriren gorpuzte mitikoak direla dioen ikuspegiaren kontra. Greziako artistek ikuspegi hau onartu izan balute Demeter eta Persefonez, seguruenera bi jainkosen arteko bereizketa sakona adieraziko zuten bien tipo artistikoetan. Eta Demeterrek ez bazuen lurra pertsonifikatzen, jar ote daiteke zalantzan ezen, alabak bezala, berak ere laborea pertsonifikatzen zuela, alegia, Homeroren garaitik aurrera hain maiz beraren deituraz izendatzen zuten laborea? Ama-alaben arteko funtsezko berdintasuna iradokitzen du, bien tipo artistikoen antz handiak ezezik, "bi jainkosak" titulu ofizialak: titulu horixe jasotzen baitzuten Eleusisko jainkotegian, bataren eta bestearen tasun eta tituluen artean inolako bereizketarik egin gabe, bata eta bestea jainkozko gai bakar batean batu bailiran.

Datuak bere osoan aztertuta, esan dezakegu greko gehienek gogoan bi jainkosak laborearen pertsonifikazioak zirela funtsean, eta ernamun horietan esplikatu duela inplizituki haien erlijioaren loratze osoa. Baina hori baieztatzean ez dugu ukatzen erlijioaren bilakaera luzean ikusmolde moral eta izpiritual garaiak txertatu zirela jatorrizko enbor horretan, eta garagarren eta gariaren loreak baino lore ederragorik eman zutela. Izan ere, lurrean ehortzitako haziaren ideiak, bizitza berri eta garaiagora esnatzeko, laster iradokitzen zuen giza patuarekiko konparazioa, eta indartu egiten zuen gizonarentzat ere hilobia bizitza hobe eta zorientsuago baten hasiera izan daitekeelakoa, mundu distiratsuago ezezagunaren batean. Gogoeta sinple eta natural horrek nahikoa dirudi Eleusisko laborearen jainkosa heriotzaren misterioarekin eta hilezkortasun zorientsuaren itxaropenarekin lotzeko. Izan ere, badirudi haien arteko idazle ondo informatuek egindako aipuek, alegia, inizatuek zain zeukatela zoriona, zera frogatzen dutela, antzinakoek Paradisuko ateak irekitzeko giltzatzen hartzen zutela Eleusisko misterioetako inimiziazioa. Ezbairik gabe, guri erraza zaigu halako itxaropen garaien oinarri logikoen ahulari erreparatzea. Baina itotzen ari dena iltze goriari ere atxikitzen zaio, eta ez daukagu zertan harritu grekoek ere, guk bezala, aurrean heriotza eta bihotzean biziarekiko maitasun handia zutelarik, giza hilezkortasunaren aldeko eta kontrako argudioak tentu gehiegiz pisatu ez izateagatik. San Pablok askiatsi zuen arrazoiketa, milaka eta milaka kristau saminduri, beren maiteen zerraldo edo hilobi ondoan zeudelarik, lasaitasuna eman dien arrazoiketa, egokia zen antzinako paganoei ere onar zezaten, haiek ere burua saminaren astunaren mende makurtzen zutenean eta, biziaren garra itzali ahala, aurrean ezezagunaren iluna ikusten zutenean. Beraz, ez dugu sumindu behar Demeter eta Persefoneren mitoarengatik -heriotzaren itzalak eta misterioak grekoen jeinuaren distira eta argitasunarekin gurutzatzen direneko mito bakanetako bat-, haren jatorria naturaren alderdi ezezagunetako eta, hala ere, beti zirrargarrietako batean jartzen dugunean: gainbehera doan udazkenaren malenkonia goibelean eta udaberriaren freskotasun, distira eta hezetasunean.

xlvi

Laboreen ama eta laboreen neskutsa Ipar Europan

W. Mannhardtek argudiatu zuen Demeterren izenaren lehen parteak deai kretatar hitzetik eratorria dela, "garagarra" esateko hitzetik, alegia, eta beraz, Demeterrek "garagarren ama" edo "laborearen ama" esan nahi duela hain justu; izan ere, badirudi hitzaren erroa hainbat ale-mota izendatzeko erabili dutela ariarren adarrek. Kreta Demeterren gurtzaren egoitza zaharrenetakoa izan bide zenez, ez litzateke harritzekoa izena kretatar jatorrikoa izatea. Baina etimologiari arrazoi larriak kontrajarri zaizkio eta, beraz, seguruagoa da horretan indar gehiegi ez egitea. Nolanahi ere den, guk bestelako arrazoiak aurkitu ditugu Demeter laboreen amarekin identifikatzeko, eta Greziako erlijioan jainkosarekin zerikusia duten bi labore-motetarik -hots, garagarra eta garia-, garagarra liteke beharbada jatorrizkoa; izan ere, garai homerikoetan grekoen oinarritzko janaria izateaz gainera, badira arrazoiak pentsatzeko ariar arrazak landutako alerik zaharrenetarikoa dela, zaharrena ez bada. Antzinako hinduen eta antzinako grekoen erlijio-erritualetan garagarra erabiltzeak argudio indartsua eskaintzen du kultibo horren antzintasun handiaren alde; gauza jakina da Europan, Harri Aroan, lakuetako palafitoetan bizi zirenek ere kultibatu zutela.

Grezia zaharreko laboreen amaren edo garagarren amaren analogia ugari bildu ditu W. Mannhardtek Europa modernoko folkloean. Segidakoek adibide gisa balioko dute.

Alemanian laborea eskuarki pertsonifikatu ohi da laboreen ama izenaz. Hala udaberrian, laborea haizetan kulunkatzen denean, nekazariak esaten omen dute: "Hor dator laboreen ama" edo "laboreen ama soroan korrika doa", edo "laboreen ama labore

artean dabil". Haurrek soroetara joan nahi dutenean labore-lore urdinak edo mitxoleta gorriak hartzera, esaten zaie halakorik ez egiteko, laboreen ama labore artean dagoela eta harrapatu egingo dituela. Orobat, ereina nolakoa den, zekale-ama edo ilar-ama ere deitzen diote, eta hurrei abisu ematen zaie zekale artean edo ilar artean urrun ez daitezen, zekale-amaren edo ilar-amaren beldurrez. Berebat, laboreen amak uzta ugaltu egiten duela sinesten da. Magdeburgeko inguruetan, esate baterako, haxe esan ohi da batzuetan: "Urte ona izango da lihoarentzat; liho-ama ikusi dute". Estiriako herri batean esaten dute laboreen ama ikusi egin daitekeela gauerdian soroetan, azken azaoaz egindako panpin eme baten itxuran eta zuriz jantzita, eta haietan zehar pasatzean emankortu egiten dituela; baina nekazariren batekin haserre badago, hondatu egingo du haren labore guztia.

Gainera, laboreen amak parte handia du uztaroko ohituretan. Sinestea da soroan azkena uzten den labore-eskutadan izaten dela hura; eta azken eskutada hori ebakitzean harrapatu, edo iraitzi edo hil egiten dute. Lehen kasuan, azken azaoa bozkariotan eramaten dute etxera eta jainkozko izakia bailitzan ohoratzen dute. Bihitegian jartzen dute, eta alea jotzean labore-izpiritua berriro agertzen da. Hannover aldeko Hadeln barrutian, igitariak azken azaoaren biran jartzen dira eta makilatu egiten dute laboreen amak aldegin dezan, honelakoak esanez elkarri: "Hortxe zegok! Kontuz, ez ahal zaituzte harrapatuko!". Makilaketak ale guztia jo arte irauten du; ustea da orduan laboreen amak alde egiten duela. Danzig inguruetan azken buruak ebakitzen dituen pertsonak panpina egiten du haiekin, eta panpinari laboreen ama edo emakume zaharra deitzen diote, eta etxera eramaten dute azken gurdikadan. Holsteingo zenbait aldetan, azken azaoa emakume-arropaz janzten dute, eta laboreen ama deitzen diote. Azken gurdikadan etxeratzen dute, eta urez erabat blaitzen. Urez blaitzea euri-xarma da ezbaierik gabe. Bruck eskualdean, Estirian, azken azaoari -laboreen ama deitzen diote- emakume-itxura ematen dio herrian urte gehien ezkontuta daraman emakumeak, berrogeita hamar edo berrogeita hamabost urteko adinekoak. Bururik finenak kentzen zaizkio eta sorta bat egiten dute, lorez txirikordatua, eta herriko neskari politenak eramaten dio buruan baserritar edo etxajaunari, laboreen ama bihitegian uzten duten bitartean, arratoiak uxatzeko. Barruti hartako beste herrixka batzuetan, uztaroa amaitzean, bi mutilek eramaten dute haga baten muturrean. Sorta jantzita daukan neskaren atzetik joaten dira etxajaunaren etxera, eta hark sorta hartu eta sarreran esekitzen duen bitartean, laboreen ama egur-pila baten gainean ipintzen dute, eta uztaroko afarian eta dantzaldian erdi-erdian izaten da. Gero bihitegian esekitzen dute eta han geratzen da ale-jotzeak amaitu arte. Idaurraz azken kolpea jotzen duen gizonari laboreen amaren semea deitzen diote; berari lotu, kolpatu eta herrixkan zehar ibiltzen dute. Sorta hurrengo igandean bedeinkatzen da elizan; eta Bazko-jaiaren bezperan aletu egiten du zazpi urteko neskato batek, eta ale hori labore gaztearekin nahasten dute. Eguberrietan sortaren lastoa asketan jartzen da ganadua gizen dadin. Kasu honetan argi eta garbi ageri da laboreen amaren emankortze-ahala bere gorputzetik hartutako hazia labore berriarekin nahasten baita (sorta laboreen amaz eginga izaki); eta aziendengan duen eragina lastoa asketan jartzeak adierazten du. Eslaviarren artean ere azken azaoari zekalearen ama, gariaren ama, oloaren ama, garagarraren ama eta abar deitzen diote, zein ale-mota erein den. Tarnoweko eskualdean, Galitzian, azken landareez egindako sortari gariaren ama, zekalearen ama edo ilarraren ama deitzen diote. Neska baten buruan ipintzen dute eta han irauten du udaberrira arte; orduan, ale batzuk hazitarako laborearekin nahasten dira. Kasu honetan ere laboreen amaren emankortasun-ahalmena adierazten da. Frantzian ere, Auxerre inguruetan, azken azaoari gariaren ama, garagarraren ama, zekalearen ama edo loaren ama deitzen diote. Zutik uzten dute soroan azken gurdikada ia etxeratzeko dagoen unera arte. Orduan panpina egiten dute

berarekin, baserritarraren arropen jantzi eta koroa batez eta gorbata urdin edo zuri batez apaintzen dute. Zuhaitz-abar bat sartzen dute panpinaren bularrean, eta Zeres deitzen diote. Arratseko dantzaldian Zeres hori zoru erdian jartzen dute, eta igitari bizkorrenak neskari politena lagun hartuta egiten du dantzan. Dantzaren ondoren su-meta egiten dute. Neska guztiek, nork bere koroa duelarik, panpina desegiten dute, puskatu eta su-metara botatzen dute apaingarri dituen loreekin batera, eta otoitz egiten diote Zeresi urte oparoa eman diezaien. Kasu honetan, Mannhardtek dioenez, ohitura zaharrak bere hartan iraun du, nahiz Zeres izenak sasijakituratik pixka bat baduen. Britainia Garaian azken azaoari giza itxura ematen zaio beti; baina baserritarra gizon ezkondua bada, irudi bikoitza egiten da: labore-panpinatxo bat beste handiago baten barruan. Honi ama-azaoa deitzen diote. Baserritarraren emazteari ematen zaio, eta honek askatu eta ordainetan edanerako dirua ematen du.

Batzuetan azken azaoari laboreen ama ez baina uztaren ama edo ama handia deitzen diote. Osnabrück probintzian, Hannoverren, uztaren ama deitzen diote; emakume-itxuran egiten dute, eta gero segalariek haren inguruan egiten dute dantza. Westfaliako zenbait aldetan zekale-uztako azken azaoa astunago egiten dute, harriak itsatsiz. Azken gurdikadan etxeratzen dute eta ama handia deitzen diote, nahiz ez dioten itxura berezirik ematen. Erfurt eskualdean, oso azao astun bati deitzen diote ama handia, ez azkenari nahitaez, eta azken gurdian eramaten dute bihitegira, eta han denek eskutan erabiltzen dute txantxa eta trufa artean.

Batzuetan, azken azaoari amona deitzen diote, eta lorez, zintaz eta emakume-mantalez apaintzen dute. Ekialdeko Prusian, zekale edo gari-uztan, segalariek azken azaoa lotzen ari den emakumeari honela esaten diote oihuka: "Amona zaharra lotzen ari zara". Magdeburg inguruetan morroi eta neskameak amona deitutako azken azaoa nork izango lehiatzen dira. Hartaz jabetuko dena hurrengo urtean ezkonduko da, baina senar edo emazte zaharra izango du: neska batek bereganatzen badu, alargun batekin ezkonduko da; gizonezko batek bereganatzen badu, atso zahar batekin ezkonduko da. Silesian Amonari -azken azaoa ebaki zuen pertsonak hiruzpalau azaoz egindako sorta eskerga bati- lehenago halamoduzko giza itxura ematen zitzaion. Belfast inguruetan azken azaoak batzuetan granny (amama) izena izaten du. Ohi bezala ebaki beharrean, igitari guztiek beren igitaiak jaurtitzen dizkiote, ebakitzen saiatuz. Txirikordatu eta udazkenara arte gordetzen dute. Hura eskuratzen duena urte horretan ezkonduko da.

Sarritan, azken azaoari emakume zaharra edo gizon zaharra deitzen diote. Alemanian emakume-itxuran jantzen dute, eta hura ebakitzen edo lotzen duen pertsonaz esaten da "emakume zaharra duela". Altisheimen, Suabian, etxalde bateko labore guztia, zerrenda bat izan ezik, ebakita dagoenean, igitari guztiak ilaran jartzen dira zerrenda horren aurrean; nork bere parte ebakitzen du bizkor, eta azkena moztu duenak "izaten du emakume zaharra". Azaoak gabikotan biltzen ari direnean, emakume zaharrari, hots, azarrik luze eta sendoenari heldzen dion pertsonari, trufa egiten diote besteek, eta hala esaten diote: "Berak dik emakume zaharra eta berak gorde dezala". Azken azaoa lotzen duen emakumeari ere batzuetan emakume zaharra deitzen diote, eta hurrengo urtean ezkonduko dela esaten da. Neusaassen, Prusiako mendebaldean, biei deitzen zaie emakume zaharra: azken azaoari -jaka, kapelua eta zintak jantzen dizkiote- eta bera ebakitzen duen emakumeari. Elkarrekin eramaten dituzte etxera azken gurdian, eta urez blaitzen dituzte. Alemaniako iparraldeko zenbait aldetan uztako azken azaoaz giza irudia egiten da, eta "gizon zaharra" izendatzen dute; eta lotu duen emakumeaz "gizon zaharra duela" esaten da.

Prusiako mendebaldean, azken zekalea eskuareaz biltzen ari direnean, andre eta neskak bizkor aritzen dira lanean, inork ez baitu azkena izan nahi eta "gizon zaharra" bereganatu, hau da, azken azaoaz egindako panpina; beste igitarien aurrera eraman

behar du azkena bukatu duen pertsonak. Silesian azken azaoari emakume zaharra edo gizon zaharra deitzen diote, eta trufa ugariren gai izaten da; ohi baino luzeagoa egiten da, eta batzuetan harri bat itsatsita astuntzen dute. Wenden artean, gari-uztan, azken azaoa lotzen duen gizon edo emakumeaz esaten dute "gizon zaharra duela". Gariaren lasto-aleez panpina egiten dute, gizon-itxurakoa eta lorez apaindua. Azken azaoa lotu duen pertsonak garraiatu behar izaten du gizon zaharra etxera, besteek barre eta txantxa egiten dioten bitartean. Panpina etxaldean esekitzen dute, eta han egoten da hurrengo uztan beste gizon zahar bat egin arte.

Ohitura hauetako batzuetan, Mannhardtek azpimarratu bezala, azken azaoaren izena ematen zaion eta azken gurdikadan beraren ondoan esertzen den pertsona, bistan denez, azao horrekin identifikatzen dute; gizon edo emakume hori azken azaoarekin batera harrapatutako labore-izpirituaren ordezkaria da; bestela esan, labore-izpirituak bi ordezkari izaten ditu, gizakia eta azaoa. Azken azaoa ebakitzen edo lotzen duen pertsona azao horrekin biltzeko ohiturak are argiago uzten du pertsonaren eta azaoaren arteko identifikazioa. Esate batera, Silesiako Hermsdorfen, azken azaoa moztutako emakumea berarekin lotu ohi zuten. Weidenen, Bavarian, azken azaoa ebaki duena lotzen dute, ez lotu duena. Kasu horretan laborean bildutako pertsonak labore-izpiritua ordezten du, abar edo hostotan bildutako pertsonak arbola-izpiritua ordezten duen bezalaxe.

Emakume zaharra izeneko azken azaoa, bere tamainaz eta pisuaz bereizten da askotan besteetarik. Hala, Prusiako mendebaldeko zenbait herrixkatan emakume zaharra azao arrunta baino bi aldiz luzeagoa eta lodiagoa egiten da, eta harria jartzen zaio erdian. Batzuetan hain astun egiten dute, non gizon batek nekez jaso dezakeen. Samlandeko Alt-Pillauen, zortzi edo bederatzi azao lotzen dituzte maiz elkarrekin emakume zaharra egiteko, eta hura jasotzen duen gizona kexu eta marmarka aritzen da pisuagatik. Saxonia-Coburgeko Itzgrunden, zabala egiten dute azken azaoa, emakume zaharra deitua, hartara hurrengo urtean uzta ona segurtatzeko asmo argi eta garbiaz. Beraz, azken azaoa ohi baino handiagoa edo astunagoa egiteko ohitura xarma bat da, sinpatiazko magiaz funtzionatzen duena, hurrengo uzta ugaria izan dadin.

Eskozian, azken laborea Santu Guztien ondoren ebakitzen zenean, harekin egindako emakume-irudiari Carlin edo Carline deitzen zioten, hau da, emakume zaharra. Baina Santu Guztiak baino lehen ebakitzen bazen, neskutsa deitzen zioten; eguzkia ezkutatu ondoren moztuz gero, berriz, sorgina, eta zori txarra zekarrela uste zen. Eskoziako Highlandsekoek, uztan ebakitako azken laboreari emazte zaharra (Cailleach) edota neskutsa deitzen diote; oro har, lehen izena mendebaldeko eskualdeetan da nagusi, eta bigarrena erdiko eta ekialdeko eskualdeetan. Neskutsaz aurrerago hitz egingo dugu; orain emazte zaharraz arituko gara. Ohitura honetaz ondoren datorren kontakizun orokorra ikertzaile arretatsu eta ondo informatu batek emana da, J. G. Campbell jaunak, Hebridetako Tiree irla urruneko eliz artzainak: "Uztako emazte zaharra (a Cailleach) .- Uztaroan zalaparta izaten zen epaiketari azkena ez izatearren, eta laborantza denen artean egin ohi zenean, gertatu izan zen inoiz lur-sailen bat soildu gabe geratzea (inork ez zuen beretzat aldarrikatzen) besteen atzetik joateagatik. Beldur izaten ziren "baserriko goseari" (gort a bhaile) jaten eman beharko ez ote zioten, atso baten (cailleach) itxuran, hurrengo uztara arte. Planta eta txantxa asko egiten zen emakume zahar haren beldurra zela eta... Lehenengo amaitzen zuenak "emazte zaharra" deitutako arto-hostozko panpina egiten zuen, eta aldamenekoari pasatzen zion. Honek ere, amaitzean, beste geldoago bati pasatzen zion, eta azkena eskuratzen zuen pertsonak urte osoan gorde behar izaten zuen "emakume zaharra"".

Islay uhartean ebakitako azken laboreari emazte zaharra (Cailleach) deitzen diote, eta uztan bere egitekoa egin duenean hormatik esekitzen dute, eta han geratzen da soroak

hurrengo urtean goldatzeko garaia iritsi arte. Orduan hormatik eraisten dute eta, gizonak goldatzera doazen lehen egunean, etxekoandreak denen artean banatzen ditu. Beren poltsikoetan hartzen dute eta zaldiei ematen diote jatera sorora iristean. Hurrengo uztan zorte ona izateko egiten omen da hori, eta emazte zaharraren benetako azkena izaten dela jotzen da.

Era beretsuko azturak omen dira Galesen ere. Pembrokeshireko iparraldean, adibidez, ebakitako azken laborearen eskutada bat txirikordatzeko dute, sei eta hamabi hazbete arteko luzerakoa, eta sorgina (Wrach) deitzen diote; eta oraindik ere bizi diren pertsona askok gogoan dituzte haren inguruko ohitura zahar bitxiak. Igitariak oso urduri egoten ziren laborearen azken landareetara iristean. Denek txandaka, igitaiak jaurtitzen zizkieten, eta ebakitzea lortzen zuenak etxean egindako pitxer bat garagardo izaten zuen. Ondoren, sorgina (wrach) egin eta presaka eramaten zuten auzoko baserriren batera, han igitariak artean beren lanean ari baziren. Goldatzaileak egin ohi zuen hori gehienetan; baina kontu handia izan behar zuen auzokoek ikus ez zezaten; ikusi eta beraren asmoen susmorik txikiena egiten bazuten, laster atzeraraziko baitzuten. Isil-isilik, hesi baten atzetik arrastaka, auzoko igitarien arduraduna bere parean eta eskumenean egon arte itxaroten zuen. Orduan, bat-batean hesiaren gainetik jaurtitzen zuen sorgina; ahal izanez gero, arduradunaren igitaiaren gainera. Hori eginda lasterrari ematen zion bere ahal osoan, eta pozik egon zitekeen harrapatzen ez bazuten edo igitari haserretuek jaurtitako igitaiak zauritzen ez bazuten. Beste batzuetan sorgina etxera ekartzen zuen igitarietako batek. Ahalak eta bost egiten zituen etxera lehorrak eta inork ikusi gabe iristeko; baina etxekoek nahi bezala erabil zezaketen haren asmoen berri bazuten. Batzuetan arropa guztiak erantzten zizkieten, beste batzuetan urez blaitzen zuten, aurrez, kontu handiz, ontzietan hartarako ura gorde ondoren. Baldin eta sorgina lehorrak eta inork ikusi gabe eramatea lortzen bazuen, etxajaunak eskupekoa eman behar izaten zion; edo batzuetan ekarleak pitxer bat garagardo eskatzen zuen "horma ondoko upelatik", garagardorik onena han egoten omen zen eta. Sorgina iltze batetik esekitzen zuten sarreran edo beste nonbait, eta han edukitzen zuten urte osoan. Oraindik ere Pembrokeshireko iparraldeko zenbait baserritan bada sorgina (wrach) etxera ekartzeko eta esekitzeko ohitura, baina deskribatu ditugun antzinako zeremoniok jadanik ez dira egiten.

Antrim kondebarrian, orain urte batzuk arte -segak igitaiak ordezkatu zuen arte, alegia- elkarrekin txirikordatzeko ziren soroan zutik utzitako labore-landare bakanak; gero igitariak, begiak estalita, igitaiak jaurtitzen zizkieten txirikordatutako laboreari, eta ebakitzea lortzen zuenak etxera eramaten eta ate gainean jartzen zuen. Labore-eskutada hari Carley deitzen zioten, jatorriz Carlin hitz berbera, apika.

Antzeko ohiturak dituzte herri eslaviarrek. Polonian, adibidez, azken azaoari Baba deitu ohi zaio, hau da, emakume zaharra. "Azken azaoan dago Baba" esan ohi da. Azaoari berari ere Baba deitzen diote, eta batzuetan hamabi azao txikiz osatua izaten da. Bohemiako zenbait aldetan Babak, azken azaoak eginda, lastozko kapelu handia duen emakume baten itxura izaten du. Azken gurdikadan etxeratzen dute, eta han bi neskak etxajaunari ematen diote, lore-sorta batekin batera. Azaoak lotzerakoan, emakumeak azkenak ez izaten saiatzeko dira; izan ere, azken azaoa lotzen duenak haurra izango omen du hurrengo urtean. Batzuetan uztagileek "horrek Baba du" edo "hori Baba da" esaten dute azken azaoa lotu duen emakumeaz. Krakoviako eskualdean, azken azaoa gizon batek lotzen duenean, esaten dute: "Aitona dago eserita hor"; emakume batek lotzen duenean, berriz, esaten dute: "Baba dago eserita hor", eta emakumea bera azaoan biltzen dute, burua besterik ageri ez zaiolarik. Hala bilduta, azken gurdikadan eramaten dute etxera, eta han urez blaitzen du familia osoak. Azao barruan egoten da dantza amaitu arte, eta urte osoan berea izaten du Baba izena.

Lituanian azken azaoaren izena Boba da (emakume zaharra), polonierazko Baba izenaren oso antzekoa. Boba azkena uzten den laborean eserita egoten omen da. Azken azaoa lotzen edo azken patata ateratzen duen pertsonari adar-jotze eta txantxa asko egiten zaizkio, eta zekalearen atsoa edo patataren atsoa deitzen zaio. Azken azaoari - Bobari- emakume-itxura ematen diote, herrian zehar eramaten dute itzal handiz uztako azken gurdikadan, eta urez blaitzen dute baserrian; gero denek egiten dute dantza berarekin.

Errusian ere azken azaoari emakume-itxura eman eta emakumez jantzen dute askotan, eta dantza eta kanta artean eramaten dute baserrira. Bulgariarrek panpina egiten dute azken azaoaz, eta laboreen erregina edo laboreen ama deitzen diote; emakume-soinekoz jantzita, herrixkan zehar eramaten dute eta gero ibaira jaurtitzen dute, nahikoa euri eta ihintz izan dadin hurrengo urteko uztarentzat. Edota erre egiten dute, eta errautsak soroetan barreiatzen dira, lurra emankortzeko noski. Azken azaoari ematen zaion erregina izenak bere analogiak ditu Europako erdialdean eta iparraldean. Hala, Austriako Salzburgen, uzta-amaieran prozesio handia egiten da, eta han labore-buruen erregina (ährenkonigin) eramaten dute orgatxo batean mutil gazte batzuek. Uzta-erreginaren ohitura arrunta izan omen da Ingalaterran ere. Miltonek ezagutuko zuen noski, zeren eta Paradisu galdua-n hauxe baitio:

"Adanek, bitartean,

Antsiaz zain hura noiz itzuliko, ehundua zuen

Lore aukeratuz sorta bat,

Haren jantziak apaintzeko, eta haren nekazal lanei buru emateko,

Igitariak Uzta-erreginarekin egin ohi duten bezala".

Sarritan, era honetako ekintzak soroan ez baina larrainean egiten dira. Laborearen izpirituak, igitarien aurrean ihesi hauek uzta heldua ebakitzen ari direlarik, ebakitako laboretik aldegin eta bihitegian hartzen du babes, eta han azkena jotako azaoan agertzen da, eta idaur-kolpeen menpe hil edota handik auzoko baserri batean artean jo gabe duten laborera ihes egiten du. Hala, azkena jotako laboreari ama-laborea edo emakume zaharra deitzen diote. Batzuetan idaurraz azken kolpea jotzen duen pertsonari deitzen diote emakume zaharra, eta azken azaoaren lastoan biltzen dute, edota lasto-eskutada bat lotzen diote bizkarrean. Lastotan bilduta nahiz lastoa bizkarrean daramala, herrixkan zehar garraiatzen dute denen algaren artean. Bavarian, Turingian eta beste zenbait lekutan, azken azaoa jotako gizonaz emakume zaharra edo laboreen atsoa duela esaten da; lastoz lotzen dute, herrian zehar eramaten, eta azkenez gorotz-pilara botatzen edo auzoko baserritar baten larrainera eramaten dute, ale-jotzea artean amaitu ez badu. Polonian, larrainean azken kolpea jotzen duen gizonari Baba deitzen zaio (emakume zaharra); laboretan biltzen dute eta gurdi batean eramaten herrixkan zehar. Batzuetan Lituanian azken azaoa ez da jotzen; emakume-itxura eman eta auzoko baten bihitegira eramaten da, artean ale-jotzea amaitu ez badu.

Suediako zenbait aldetan, larrainean emakume arrotzen bat agertzen denean, idaur bat jartzen zaio gorputz inguruan, labore-zurtoinak lotzen zaizkio lepoan, eskutada bat ale ipintzen zaio buruan, eta jotzaileek esaten dute: "Begira labore-andreari". Kasu horretan bat-batean agertzen den emakume arrotza labore-izpiritutzat hartzen da, idaurrek labore-landareetatik iraitzi berri. Beste kasu batzuetan etxekoandreak ordeztzen du labore-izpiritua. Hala, Salignéko herrian (Vendéen), etxekoandrea azken azaoarekin batera lotu eta izara batean biltzen dute; anda batzuetan jarri, jotzeko makinara eraman eta haren azpira bultzatzen dute. Gero emakumea atera eta azaoa jotzen dute, baina baita emakumea izaran astindu ere, haizatuko balute bezala. Ez dago argiago adierazterik emakumearen eta laborearen arteko identifikazioa, bera jotzearen eta haizatzearen imitazio bizi horren bidez baino.

Ohitura hauetan, ebakitako laborearen izpiritua zahartzat hartzen da, edota adinekotzat bederen. Horregatik izenak: ama, amona, emakume zaharra eta abar. Baina beste kasu batzuetan labore-izpiritua gazte sumatzen dute. Hala, Saldernen, Wlofenbuttelen ondoan, zekalea ebaki ondoren, hiru azao lotzen dituzte soka batez, panpina egiteko moduan, labore-buruak haren burua bailiran. Panpina horri neskutsa edo labore-neskutsa deitzen diote. Batzuetan labore-izpiritua haur sumatzen dute, igitai-kolpe batek amagandik bereizia. Azken ikuspegi hau ageri da laborearen azken eskutada ebakitzen duen gizonari "zilborrestea ebaki duk" esateko poloniar ohituran. Prusiako mendebaldeko zenbait eskualdetan azken azaoaz egindako irudiari sasikoa deitzen diote, eta mutil bat biltzen dute harekin. Azken azaoa lotzen duen emakumeaz, laboreen ama ordezten duenaz, esaten dute aurki erditzeko dela; garrasika jarduten du, haurgintzalanetan ariko balitz bezala, eta emakume zahar batek, amona bailitzan, emaginarena egiten du. Azkenean garrasi bat botatzen dute, haurra jaio dela; eta azaoan bildutako mutilak negar eta marraska egiten du haur batek bezala. Amonak zaku batean biltzen du, haur-oihaletan bezala, eta pozik eramaten dute bihitegira, aire zabalean hotz ez dadin. Alemaniako iparraldeko beste alde batzuetan azken azaoari, edota berarekin egindako panpinari, haurra, uzta-haurra eta abar deitzen diote, eta azken azaoa lotzen duen emakumeari "haur bat duzu" esaten diote.

Eskoziako zenbait aldetan, baita Ingalaterrako iparraldean ere, soroan ebakitako eskutadari kirn esaten zioten, eta hura eramaten zuen pertsonak "kirna irabazi zuela" esaten zen. Haur-panpina baten gisan janzen zuten, eta kirn-umea, kirn-panpina edo neskutsa deitzen zioten. Berwickshiren, hemeretzigarren mendearen erdialdera arte, lehia gogorra izaten zen igitarien artean, zutik zegoen laborearen azken eskutada nork moztuko. Haren inguruan biltzen ziren distantzia gutxira, eta igitaiak jaurtitzen zituzten txandaka, eta moztean lortzen zuen gizonak berak nahi zuen neskari ematen zion. Neskak kirn-panpina egiten zuen hala ebakitako laboreaz, eta jantzi egiten zuen, eta gero panpina baserrira eramane eta eseki egiten zuen hurrengo uztara arte; orduan kirn-panpin berri batek ordezten zuen. Berwickshireko Spottiswoodeen uztan azken laborea ebakitzeari "erregina ebakitzea" esaten zitzaion "kirna ebakitzea" bezain maiz. Hura ebakitzeko modua ez zen igitaiak jaurtiz. Igitarietako bati begiak estaltzen zitzaizkion, eta lagunek igitaiak eman eta bizpahiru aldiz jirarazi ondoren, bultza egiten zioten kirna motz zezan. Haren haztamuka ibiltzea eta igitaiak itsumustuan kolpeka aritzea oso barregarri gertatzen zen. Nekatuta, lanari uzten zionean, beste igitari bati estali begiak eta hark ere bilaketari jarraitzen zion, eta horrela bata bestearen atzetik, harik eta kirn-a ebaki arte. Hura lortzen zuena bibaka haizatzen zuten beste uztagileek. Kirn-afarirako gela apaintzeko, Spottiswooden, baita dantzaldirako bihitegia apaintzeko ere, bi emakumek kirn-panpinak edo erreginak egiten zituzten urtero; eta labore-izpituaren halamoduzko irudi haietako asko batera ikusten ziren zintzilik.

Eskoziako Highlandseko zenbait lekutan, igitariak baserri batean ebakitako laborearen azken eskutadari neskutsa deitzen diote, gaelikoz Maidhdeanbuain, hots, "ebakitako neskutsa". Hainbat superstizio daude neskutsa irabazteaz. Pertsona gazte batek eskuratzen badu, hurrengo uzta baino lehen ezkonduko delako seinale. Arrazoi horregatik edo beste batzuegatik, lehia izaten da igitarien artean, nork neskutsa bereganatuko, eta hainbat jukutrietara jotzen dute hori lortzeko. Bat, adibidez, labore-eskutada bat ebaki gabe uztea eta lurrez estaltzea izan liteke, beste igitariengandik ezkutatzeko, harik eta beste labore guztia ebaki arte. Bat baino gehiagok egin dezakete tranpa bera, eta orduan hotzenak eta luzeen eusten dionak lortuko du irrikatutako bereizgarria. Hura ebaki ondoren, neskutsa zintaz janzen dute panpina moduko baten itxuran eta baserriko horma batean zintzilikatzen. Eskoziako iparraldean neskutsa kontu handiz gordetzen da Eguberri eguneko goizera arte, eta orduan ganaduaren artean

banatzen da, "urte osoan gizen daitezen". Balquhiddel inguruetan, Perthshireen, soroko neskari gazteenak ebakitzen du laborearen azken eskutada, eta panpin eme baten itxura ematen zaio, paperezko soinekoa jantziz eta zintaz apainduz. Neskutsa deitzen diote eta baserrian gordetzen da, gehienetan tximiniaren gainean, denboraldi luze batez, batzuetan hurrengo urteko neskutsa ekarri arte. Liburu honen idazle hau neskutsa ebakitzeko zeremoniaren lekuko izan nintzen Balquhiddelren, 1888ko irailean. Andere adiskide batek jakinarazi zidan neska gazte zelarik zenbait aldiz ebaki zuela neskutsa, Perth inguruetako igitariak hala eskatuta. Neskutsaren izena ematen zitzaion geratzen zen laborearen azken eskutadari; igitari batek eskutadari gainetik heltzen zion, berak ebaki zezan. Gero eskutada txirikordatu, zintaz apaindu eta sukaldeko horman ageri-agerian esekitzen zen, hurrengo neskutsa bertan eseki arte. Uzta-afariari ere neskutsa deitzen zioten inguru hartan; igitariak dantza egiten zuten.

Dumbartonshireko Garelocheko zenbait baserritan, 1830 urtea aldera, geratzen zen laborearen azken eskutadari neskutsa deitzen zioten. Bitan banatzen zen; txirikordatu eta gero igitaiak ebakitzen zuen neska batek; zoriontsu izango zela eta laster ezkonduko zela pentsatzen zen. Ebaki ondoren, igitariak bildu eta airera jaurtitzen zituzten beren igitaiak. Neskutsa zintaz jantzi eta sukaldean esekitzen zuten, sabaitik gertu, eta han edukitzen zuten zenbait urtez, data jarrita. Batzuetan bost edo sei neskuts ikus zitezkeen batera, gakoetatik zintzilik. Uzta-afariari kirn deitzen zioten. Garelocheko beste baserri batzuetan laborearen azken eskutadari neskuts-burua edo burua deitzen zioten; ederki txirikordatzen zuten, batzuetan zintaz apaindu ere bai, eta sukaldean esekitzen zuten urtebetez, eta orduan alea oiloei ematen zitzaien.

Aberdeenshiren "azkena ebakitako azaoa, edo "neskutsa", prozesio alaiaren eramatzen dute etxera uztagileek. Etxekoandreari aurkezten diote, eta hark jantzi eta gorde egiten du lehen behorak umea egin arte. Orduan neskutsa hartu eta behorari jartzen zaio lehen janaritarako. Hori ahazteak ondorio txarrak izango lituzke umearentzat, eta ondorio ezin txarragoak sasoi hartako baserri lanetan, oro har". Aberdeenshireko iparrekialdean azken azaoari clyack azaoa deitzen zaio eskuarki. Neskari gazteenak ebaki ohi zuen, eta emakume gisa jantzen zuten. Bozkarioz etxeratu eta gero, Eguberri goizera arte gordetzen zuten, eta orduan umedun zegoen behor bati ematen zitzaion, baserrian halakorik bazen; edota ez bazen, umedun zegoen behi zaharrenari. Beste leku batzuetan azaoa behi eta txahal guztien artean banatzen zen, edota baserriko zaldi eta azienda guztien artean. Fifeshiren laborearen azken eskutada, neskutsa, neska gazte batek ebakitzen du, eta panpin baten halamoduzko irudia egiten da hartaz, zintaz lotuta, eta baserriko sukaldeko horman esekitzen da hurrengo udaberrira arte. Inverness-shiren eta Sutherlandshiren ere gordetzen zen uztaroan neskutsa ebakitzeko ohitura.

Adin helduagoa, nahiz artean gaztea, egozten zaio labore-izpirituari emaztegaia, olo-emaztegaia eta gari-emaztegaia deitzen bidez. Alemanian, batzuetan bai azken azaoarentzako eta bai hura lotzen duen emakumearentzako erabiltzen dira. Gari-uztan, Moraviako Muglitzetik gertu, gari pixkatxo bat uzten da ebaki gabe beste guztia ebaki ondoren. Utzitako pixka hori ebaki egiten du ondoren, "igitarien bozkarioz, buruan galburuz egindako koroa bat daraman neska gazte batek, gari-emaztegaia deitzen diotenak". Urte horretan benetako emaztegaia izango dela jotzen da. Roslin eta Stonehavendik gertu, Eskozian, azken labore-eskutadari "emaztegai" deitzen zioten, eta bress edo tximinia gainean jartzen zuten; zinta bat izaten zuen lotuta ale-buru ugarien azpian, eta beste bat gerriaren jiran.

Batzuetan emaztegaia izenak gordetzen duen ideia argiago azaltzen da landaretzaren emankortasun-ahalak emaztegai eta senargai gisa irudikatuz. Hala, Vorharzen, ologizon batek eta olo-andre batek, lastotan bilduta, dantzan egiten dute uzta-afarian. Saxoniako hegoaldean, olo-senargai bat eta olo-andregai bat elkarrekin joaten dira

uztako ospakizunean. Olo-senargaia olo-lastotan erabat bildutako gizon bat izaten da; olo-andregai, berriz, emakume arropaz jantzitako gizon bat, baina lastotan bildu gabea. Gurdi batean eramaten dituzte garagardotegira, eta han dantzaldia izaten da. Dantza hastean dantzariak tira egiten diete olo-senargaiaren lastoei banan-banan, hark kontra egiten dielarik, harik eta azkenek den-denak kendu eta biluzik uzten duten arte, lagunarteko barre eta txantxa artean. Austriako Silesian "Gari-emaztegaiaren" zeremonia ospatzen du gazte-jendeak uztan amaitzean. Azken azaoa lotutako emakumeak gari-emaztegaiarena egiten du, buruan galburuz eta lorez egindako uztan-koroa eramanez. Hala apainduta, senargaiaren ondoan gurdi batean, eta ohorezko dontzeilak lagun dituela, idi-pare batek eramaten du, ezkontza-prozesio batean bezala, tabernara, eta han dantzan jarduten dute goizaldera arte. Sasoia zerbait aurreratuxeago denean, olo-emaztegaiaren ezkontza ospatzen da berdintsuko punpeziak. Neisse aldean, Silesian, olo-erregea eta olo-erregina, ezkontza-bikote bat bezala bitxi jantzita, eskailera batean eseri eta idiek eramaten dituzte herrixkara.

Azken adibide horietan labore-izpiritua bitara irudikatzen da, ar eta eme gisa. Baina batzuetan izpiritu hori eme-itxura bikoitzean agertzen da, zahar eta gazte gisa, grekoen Demeter eta Persefone bezalaxe, jainkosa horiez egin dudak interpretazioa zuzena bada. Ikusi dugunez, Eskozian, batez ere gaelikoz hitz egiten duen biztanleriaren artean, azkena ebakitako laboreari emazte zaharra deitzen diote batzuetan, eta neskutsa beste batzuetan. Baina Eskoziako beste zenbait aldetan biak, emazte zaharra (Cailleach) eta neskutsa ebakitzen dituzte uztan. Ohitura horren kontakizunak ez dira nahikoa argiak, baina badirudi arau orokorra dela ezen, bai neskutsa eta bai emazte zaharra (Cailleach) egiten dituztenean uztan ebakitako laboreaz, neskutsa zutik geratutako azken landareez egiten dutela, eta lur horren jabe den baserritarrek gordetzen duela; emazte zaharra, aldiz, beste landare batzuek egiten dute, batzuetan ebakitako lehen landareez, eta beti atzeratuago dabilen baserritar bati pasatzen diote, auzoko bizkorragoek bere labore guztia ebaki ondoren artean segan ari den bati. Hala, baserritar bakoitzak bere neskutsa gordetzen badu ere, laborearen izpiritu gazte emankor gorpuztua bailitza, emazte zaharra lehenbailehen pasatzen dio auzokoari, eta hala, andere zaharra baserriz baserri eskualde osoan zehar ibil daiteke bere buru agurgarriak atsedean hartzeko lekua aurkitu baino lehen. Egoitza hartzen duen lur horretako baserritarra, jakina, inguru osoan bere lurrak azkena segatu dituen izaten da eta, beraz, emakumeari ostatu emateko grazia ez da oso gogokoa izaten. Pobreziara kondenatuta dagoela pentsatzen da, edota "herriko gosea mantentzera" behartuta geratzen dela hurrengo sasoiari. Era berean, ikusi dugu ezen Pembrokehiren, ebakitako azken laboreari neskutsa ez baina sorgina deitzen dioten lekuan, ahalik lasterren pasatzen zaiola auzokoren bati artean soroan lanean ari delarik, eta honek ez duela batere pozik hartzen bisitari adindua. Emazte zaharrak joan den urteko labore-izpiritu ordezten badu, eta halaxe dateke neskutsari kontrajarria den leku guztietan, ulertzekoa da haren xarma higuak erakarmen gutxiago izatea nekazariarentzat alabaren forma beteak baino; hau ale horiaren ama bilakatzeko espero izaten dute urtea pasa eta beste udazken bat etortzean. Desira berbera, laborearen ama meheaz beste batzuei pasatuz libratzekoa, argi ageri da ale jotzea amaitutakoan izaten diren beste zenbait ohituratan, bereziki auzoko nekazari bati, laboreak jotzen ari den artean, lasto itxuragabetua pasatzeko ohituran.

Deskribatu berri ditugun uztaroko ohiturak lan honetan lehenago ikusi ditugun udaberriko ohituren oso antzekoak dira. 1) Udaberriko ohituretan zuhaitz-izpiritu zuhaitz batek eta pertsona batek ordeztzen duten bezala, halaxe uztaroko ohituretan ere, labore-izpiritu azken azaoak eta bera moztzen edo lotzen edo jotzen duen pertsonak ordeztzen dute. Pertsonaren eta azaoaren baliokidetasuna erakusten du biei izen bera emateak; pertsona azaoan biltzeak; eta zenbait lekutan gordetzen den arauak, alegia,

azaoari ama deitzen zaionean, emakume ezkondu zaharrenak eman behar diola giza itxura, baina neskutsa deitzen zaionean, neskari gazteenak ebaki behar duela. Hemen labore-izpirituaren giza ordezkariaren adina labore-izpirituak ustez duen adinari dagokio; hain zuzen, mexikarrek artoa haz zedin eskainitako giza opagaiak artoak zuen denborari egokitzen zitzaizkion bezalaxe. Izan ere, mexikar ohituran, europarrean bezala, gizakiak labore-izpirituaren ordezkari ziratekeen, ez berari eskainitako opagai.

2) Orobat, zuhaitz-izpirituak landaretza, ganadua eta are emakumeak emankortzeko ustez duen ahalmen bera egozten zaio labore-izpirituari ere. Hala, landaretzan ustez duen eragina erakusten du azken azaoko aleen parte bat (azken azaoan omen da-eta labore-izpirituak) hartu eta labore gaztearekin edo hazitarako laborearekin nahasteko ohiturak. Animalengan omen duen eragina erakusten du azken azaoa umedun dagoen behorrari edo behiari, edota goldeari lehen aldiz lotutako zaldiei emateak. Azkenez, emakumeengan duen eragina adierazten du ama-azaoa, emakume haurdun baten itxuran, baserriarraren emazteari emateko ohiturak; baita azken azaoa ebakitzen duen emakumeak hurrengo urtean haurra izango duelako sinesteak ere; baita hura duen pertsona laster ezkonduko delako ideiak ere.

Argi dago, beraz, udaberriko eta uztaroko ohitura horiek antzinako pentsaera-modu berberetan oinarritzen direla, eta paganotasun primitibo berberaren parte direla; gure gurasoek, ezbairik gabe, historiaren egunsentia baino askoz lehenago praktikatu zituzten. Besteak beste, lehen erritualaren marka hauek seinala ditzakegu:

1. Ez da pertsona-klase berezirik erritoak burutzeko; bestela esan, ez da apaizik. Erritoak edonork burutu ditzake, abaguneak eskatu bezala.

2. Ez da leku berezirik erritoak burutzeko; bestela esan, ez da tenplurik. Erritoak edonon burutu daitezke, abaguneak eskatu bezala.

3. Izpirituak onartzen dira, ez jainkoak. (a) Jainkoengandik desberdinak izaki, izpirituak naturako sail jakin batzuetara mugatuta daude. Izen orokorrak dituzte, ez indibidualak; bestela esan, izpiritu-kopuru mugagabea dago klase bakoitzean, eta klase bat osatzen dutenak elkarren oso antzekoak dira; ez dute indibidualtasun markaturik; ez da tradizio onartu eta arruntik haien jatorriaz, bizitzaz, menturez eta izaeraz. (b) Bestalde, jainkoak, izpirituetatik desberdinak izaki, ez dira mugatzen naturako sail jakin batzuetara. Egia da badela, oro har, sailen bat bereago dutena; baina ez daude derrigor hartan hesituta; naturako eta bizitzako beste hainbat alderditan erabil dezakete beren ahalmena onerako edo kalterako. Orobat, nork bere izena du, hala nola Demeter, Persefone, Dionisos; eta mito arruntek eta arte-adierazpenek ezarri dituzte bakoitzaren izaera eta historia.

4. Erritoak magiazko dira propizitzaile baino gehiago. Bestela esan, desiratutako gauzak ez dira lortzen jainkoen aldekotza eraginez sakrifizioen, otoitzen eta erreguen bitartez, zeremoniez baizik; azaldu dudana bezala, naturaren nondik-norakoaren gainean eragina badutela sinesten da, zuzenean sinpatia fisikoaren bitartez edo erritoaren eta errito horrek eragin nahi lukeen efektuaren arteko antzaren bitartez.

Proba hauen arabera juzkatuta, oso primitibotzat jo beharra dauzkagu Europako nekazarien uztaroko eta udaberriko ohiturak. Ez da pertsona berezirik edo leku berezirik behar haiek burutzeko; edonork burutu ditzake, jauna edo gizon arrunta izan, andere nahiz neskutsa, mutila nahiz neska; tenplu eta elizetan ez baina baso eta zelaietan burutzen dira, errekonduetan, bihitegietan, soroetan eta etxaldeetan. Horietan onartzen diren naturaz gaineko izakiak izpirituak dira, ez jainkoak: naturako sail jakin batzuetara mugatzen dituzte beren betekizunak; izen orokorrak dituzte, hala nola olo-ama, emakume zaharra, neskutsa, ez Demeter, Persefone, Dionisos bezalako izenak. Ezagunak dira haien tasun generikoak, baina historia eta izaera indibidualak ez dira mitoen gaiak. Klaseka existitzen dira, ez indibidualki, eta klase bakoitzeko kideak bereiztezinak dira elkarrengandik. Adibidez, baserri bakoitzak du bere laboreen ama,

edo bere emakume zaharra, edo bere neskutsa; baina laboreen ama oro beste edozein laboreen ama bezalakoa da, eta berdin emakume zahar eta neskutsei dagokienean ere. Azkenez, uztaroko eta udaberriko ohitura hauetan, errituala magikoa da, ez propiziatzailea. Hauxe erakusten dute laboreen ama ibaira botatzeak, ereinentzako euria eta ihintza segurtatzeko; emakume zaharra astuntzeak, hurrengo urtean uzta handia izateko; azken azaoaren aleak udaberrian erein berrien artean sakabanatzeak eta azken azaoa ganaduari gizen dadin emateak.

xlvi

Laboreen ama herrialde askotan

1. Laboreen ama Amerikan

Europako herriak, antzinakoak eta modernoak, ez dira originalak izan laborea jainkosa ama gisa nortzean. Ideia sinple berberak eragin die beste nekazal arraza batzuei ere munduko alde urrunetan, eta garagarra eta garia ez bezalako beste zereal batzuetan aplikatu izan dute. Europak bere gariaren ama eta garagarraren ama dituen bezala, Amerikak artoaren ama eta Ekialdeko Indiek arrozaren ama dituzte. Orain nortze horien adibideak emango ditut; Amerikako artoaren nortzearekin hasiko naiz.

Ikusi dugunez, Europako herrietan gauza arrunta da azken azaoaren zurtoinak txirikordatuta baserrian gordetzea, edota haiekin eratutako panpina gordetzea, uztatik uztara. Ezbairik gabe, asmoa hau da, edota zen jatorriz: izpiritua bera bizirik eta jardunean mantentzea urtean zehar, labore-izpirituaren ordezkaria gordez. Ohituraren interpretazio hau oso litekeena bihurtzen du antzinako perutarrek zuten ohitura antzeko batek; honela deskribatzen du Acosta espainiar historialari zaharrak: "Beren baserrietan hazten den artoaren ale onenetako puska bat hartu eta Pirua deitzen dioten bihitegi batean jartzen dute, eta hiru gauzez beila egiten diote; arto hori beren jantzi aberatsenez jantzen dute, eta hala jantzita eta apainduta, jaiera handiz gurtzen dute Pirua hori, esanez beren lurretako artoaren ama dela, eta horri esker artoa ugaritu eta iraun egiten duela. Hilabete horretan [seigarren hilean; gure maiatzari dagokio] sakrifizio bat egiten dute, eta sorginak galdetzen dio Piruari ea aski indar duen hurrengo urtera arte irauteko; eta hark ezetz erantzuten badu, orduan arto hori atzera baserrira eramaten dute erretzeko, gizon bakoitzak duen ahalaren arabera; gero beste Pirua bat egiten dute, zeremonia berberekin, esanez hura artoaren hazia gal ez dadin berritzen dutela, eta hark erantzuten badie irauteko nahikoa indar baduela, hurrengo urtera arte uzten diote. Erokeria horrek iraun egiten du gaur egun ere, eta oso arrunta da indiarren artean Pirua horiek edukitzea".

Ohituraren deskribapen honetan hutsegiteren bat dagoela dirudi. Beharbada peruarrek jantziz apaindutako arto-eskutada gurtzen zuten eta hartzen zuten artoaren amatzat, ez bihitegia (Pirua). Peruarren ohituraz beste iturri batzuetatik dakigunak uste hori berresten digu. Peruarrek, esan zaigu, sinesten zuten landare baliagarri guztiak jainko batek biziartzen zituela eta hazartzen zituela. Landarea zein izan, jainko horiei Arto-ama (Zara-mama), Kinoa-ama (Quinoa-mama), Koka-ama (Coca-mama), eta Patata-ama (Axo-mama) deitzen zieten. Jainkozko ama horien irudiak egiten ziren arto, kinoa eta kokaren hostoz, hurrenez hurren; emakume-arropaz jantzi eta gurtu egiten zituzten. Hala, Arto-ama arto-landareen zurtoinez egin eta emakume jantzitako panpin batek ordeztzen zuen; eta indiarrek sinesten zuten ezen "ama zenez, arto asko emateko ahala zuela". Baliteke, beraz, Acostak informatzaileari gaizki ulertu izana, eta deskribatzen duen artoaren ama bihitegia (Pirua) ez izatea, baizik eta jantzi ederrez apaindutako arto-eskutada. Artoaren ama peruarra, Balquhidderkoko uzta-neskutsa bezala, urtebetez gordetzen zen, beraren bidez laborea hazi eta ugal zedin. Baina beraren indarra hurrengo uztara arte iraungo ote zuen jakiteko, urtean zehar zer moduz zegoen galdetzen zitzaion, eta ahul zegoela erantzuten bazuen, erre egiten zuten eta artoaren ama berria egiten

zuten, "arto-hazia gal ez dadin". Kasu horretan, ikus daitekeenez, lehenago emandako ohitura baten esplikazioaren berrespen indartsua dugu: jainkoa erailtzearena, aldi jakin baten buruan nahiz aldi jakinik gabe. Artoaren amari urtean zehar bizitzen uzten zitzaion ohiki, horixe izaki haren indarra bere onenean irauten zuen aldia; baina indarra galtzen hasia zelako zantzuren bat agertuz gero, hil egiten zuten, eta artoaren ama berri eta indartsu batek hartzen zuen aurrekoaren lekua, bere menpean zegoen artoa zimel eta gal ez zedin.

2. Arrozaren ama Ekialdeko Indietan

Irakurleak oraindik zalantzarik badu Europako nekazariak egin izan dituzten eta oraindik bizi direnek gogoratzen dituzten uztaroko ohiturek duten esanahiaz, zalantza horiek ezabatu egingo zaizkio agian Ekialdeko Indietako malakarek eta daiakak arrozaren uztaroan dituzten ohiturekin konparatuta. Izan ere, sortaldeko herri haiek ez dira aurreratu ohiturok sortu zireneko maila intelektualetik, gure nekazariak aurreratu diren bezala. Haien teoria eta praktika batera doaz oraindik. Haientzat, errito harrigarriak, Europan aspaldi fosildu eta xelebreen denbora-pasa eta ikasien buruhausgarri bihurtuak, errealitate biziak dira oraindik, eta era ulergarri eta benetako eman dezakete haien kontu. Horregatik, haiek arrozaz dituzten sineste eta usadioen azterketak argitu egin dezake Grezia zaharreko eta Europa modernoko laborearen erritualak zuen esanahia.

Malakarek eta daiakak arroza dela-eta duten erritual osoa ikusmolde sinple batean oinarritua dago: haien ustez, gizadia biziarazten duena bezalako arima batek biziarazten du arroza ere. Arrozaren ugaltzea, haztea, gainbehera eta hiltzea, fenomeno horiek gizakiengan esplikatzen dituzten printzipio berberetan oinarrituz esplikatzen dituzte. Imajinatzen dute landarearen zuntzetan, gizon baten gorputzean bezala, badela bizi-elementu bat, hain independentea landaretik, non aldi batez guztiz bereizia egon daitekeen harengandik ondorio txarrik gabe, baina gabezia hori neurri batetik gora luzatuko balitz, landarea ihartu eta hil egingo litzatekeela. Elementu biziarazle baina bereizgarri horixe deituko diogu landarearen arima, hitz hoberik ezta, gizonaren arima ere gisa horretako elementu biziarazle eta bereizgarria den bezalatsu; eta landarearen arimaren teoria edo mito horren gainean eraikitzen da zerealen gurtza osoa, hildakoen gurtza osoa giza arimaren teoria edo mitoaren gainean eraikitzen den bezalaxe: gainegitura garai-garaia, oinarri ahul eta badaezpada koaren gainean eraikia.

Indonesiarrek beren kideei erakusten dieten begiruneaz tratatzen dute arroza, sinetsiz gizonarena bezalako arima batek biziarazten duela. Adibidez, loratutako arrozaren aurrean haurdun dagoen emakume baten aurrean bezala jokatzeko dute; ez dute eskopetarik disparatzen edo zarata handirik ateratzen soroan, arrozaren arima beldur ez dadin eta alea gal ez dezan; eta arrazoi berberetatik ez dute hitz egiten gorpuez edo deabruetz arroz-sailetan. Gainera, arroz loratua emakume haurdunentzat ere ontzat jotzen diren hainbat eratako janariz bazkatzen dute; eta arroz-aleak eratzen hasten diren unean, haurtzat hartzen dituzte, eta emakumeak soroetan zehar ibiltzen dira landareak arroz-ahiaz bazkatzen, haurtxoak bailiran. Landare umegilearen eta emakume haurgilearen arteko konparazio natural eta bistako hauetan, ale gaztearen eta haur gaztearen artekoetan, grekoen antzeko ikusmoldea ikusi behar da: laboreen ama eta labore-alaba, Demeter eta Persefonerena. Baina arrozaren arima eme beldurtia alea galtzeraino ikara badaiteke zaratotsengatik, erraza da imajinatzen zer-nolako sentipenak izango dituen uztaroan, jendea labanaz arroza ebakitzeko beharrean denean. Halako sasoi larrian neurri guztiak hartu beharra dago nahitaezko ebakuntza ahalik eta oharkabeen eta oinaze gutxienaz egiteko. Hori dela eta, arroz-hazia forma berezi bateko labanaz ebakitzen da: ahoa ebakitzalearen eskuan ezkutuan geratzen da, arroz-izpiritua azken-azken unera arte ez beldurtzeko, ia bera ohartu baino lehen burua ebakitzen zaion

arte, alegia; hori dela eta, igitariak hizketa berezia erabiltzen dute soroan lanean, arroz-izpirituak ulertuko ez duena, gertatzen denaz kezkarik edo errezelorik izan ez dezan, harik eta arroz-buruak saskiratu arte.

Arroza horrela nortzen duten Indonesiako herriak ditugu, besteak beste, Borneo erdialdeko kayan edo bahausak. Arrozaren arima hegaldaria segurtatzeko eta atxitzeko, kayanek hainbat bitarteko erabiltzen dituzte. Tresna hauez baliatzen dira, besteak beste: eskailera txiki bat, espatula bat eta saski bat, gakoak, arantzak eta sokak dituenak. Emakume apaizak arrozaren arima kolpatzen du espatulaz eskaileratxoan behera saskian sartu arte, eta han gakoek, arantzek eta sokek heltzen diote; eta arima hala harrapatu eta atxilotu ondoren, arroz-gordetegira eramaten du. Batzuetan banbuzko kaxa bat eta sare bat erabiltzen dira xede horretarako. Eta hurrengo urterako uzta ona segurtatzeko, beharrezkoa da arima atxitzea ezezik, lurrera eroritako edo oreinek, tximinoek eta zerriek jan duten arroz guztiaren arima erakartzea eta berreskuratzea. Horretarako, hainbat eratako tresnak asmatu dituzte apaizek. Esate baterako, banbuzko ontzi bat, frutarbola bateko zurez egindako lau gako dituenak; gakoek bitartez, falta den arroz-arima gaketu eta ontzian sar daiteke, eta gero ontzia itxi eta etxean zintzilikatzen da. Batzuetan, frutarbola baten zurez egindako bi esku erabiltzen dira horretarako. Eta etxekoandre kayan batek bihitegitik arroza hartzen duen bakoitzean, etxean erabiltzeko, arrozaren arimak eztitu beharko ditu bihitegian, ez daitezen haserre beren gaia lapurtu zaiela eta.

Arrozaren arima segurtatzeko premia berbera, ereinak gizenduko badira, bizi-bizi sentitzen dute Birmaniako karenek. Arroz-sail bat loratzen ez denean, pentsatzen dute arrozaren arima (kelah) arrozetik aparte atxitua dela nolabait. Arimari deitzen ez bazaio, ereinak galdu egingo dira. Honako formula hau erabiltzen dute arrozaren arimari (kelah) deitzeko: "Oi zatoz, arrozaren kelah, zatoz! Zatoz sorora. Zatoz arrozero. Zatoz mendebaldetik, zatoz ekialdetik. Txoriaren eztarritik, tximinoaren ahotik, elefantearen eztarritik. Zatoz ibaien iturri eta bokaleetatik. Zatoz shanen eta birmaniarren lurretatik. Zatoz urruneko erreinuetatik. Bihitegi guztietatik, zatoz. Oi arrozaren kelah, zatoz arrozero".

Europako nekazarien laboreen amak bere parekoa du Sumatrako minangkabauerren arrozaren ama. Minangkabauerrek argi eta garbi egozten diote arima arrozari, eta batzuetan esango dizute ohiko moldez irindutako arrozak zapore hobea duela errota batean ehotakoak baino, zeren eta errotan arrozaren gorputza hainbeste hebaindu eta jipoitu baitute, non arimak alde egin dion. Javatarrek bezala, pentsatzen dute arroza Saning Sari izeneko izpiritu eme batek bereziki zaintzen duela; izpiritu hori landarearekin hain bat egina sumatzen da, non askotan arrozari beraren izena ematen zaion, erromatarrek ere laboreari Zeres deitu ohi zioten bezala. Bereziki, indoea padi - hitzez hitz, "arrozaren ama"- deritzen zurtoin batzuek ordeztzen dute Saning Sari. Izen hori ematen zaio askotan izpiritu zaindariari berari. Arrozaren ama deritzan izpiritu hori dela eta, hainbat zeremonia egiten dira arrozaren ereite-uztetan, baita bihitegian gordetzerakoan ere. Arrozaren hazia mintegian erein behar denean -soroetara aldatu aurretik hezetasunari esker erne dadin-, ale hoberenak aukeratzen dira arrozaren ama egiteko: aleok mintegi erdian ereiten dira; hazi arrunta, berriz, inguruan. Arrozaren amak eragin handiena omen du arrozaren hazkundean. Zimeltzen edo galtzen bada, uzta txarra izango da. Arrozaren ama mintegian ereiten duen emakumeak ileak solte uzten ditu, eta gero bainatu egiten da, uzta oparoa segurtatzeko bide gisa. Hazia mintegitik sorora aldatzeko unea iristen denean, arrozaren amak leku berezia izaten du, soroaren erdian edo izkina batean, eta otoitz edo xarma bat esaten zaio, honela: "Saning Sari, betor arroz-neurri bat zurtoin bakoitzetik, eta saskikada bat ale sustrai bakoitzetik; ez zaitzatela beldur tximistek edo paretik pasatzen den jendeak! Eguzkiaren argiak poz

zaitzala; ekaitzarekin bakean egon zaitez; eta euriak aurpegia garbi diezazula!". Arroza haztean, arroz-amatzat hartu izan den landarea ezkutatu egiten da besteen artean; baina uzta aurrean beste arroz-ama bat aurkitzen dute. Uzta ebakitzeko prest dagoenean, familiako emakumerik zaharrena edo sorgin bat haren bila irteten da. Haizexkak makurtzen ikusitako lehen zurtoinak dira arroz-ama, eta batera lotzen dira, baina ez dira ebakitzen soroko lehen fruituak etxeratu arte, familiarentzat eta lagunentzat oturuntza bat egiteko; baita etxabereentzat ere, Saning Sariren gogoa baita abereek ere bere oparietan parte izan dezaten. Oturuntzaren ondoren, arroz-ama etxeratu egiten dute dotore jantzitako pertsonak; kontu handiz eramaten dute eguzkitako baten azpian, ederki landutako poltsa batean bihitegiraino, eta han erdi-erdian kokatzen dute. Sinesmen eskuarra da bihitegiko arroza babesten duela, eta ugaltu ere asko ugaltzen duela.

Celebes erdialdeko tomoriek arroza landatu behar dutenean, betel pixka bat lurperatzen dute soroan, arroza hazarazten duten izpirituentzako eskaintza gisa. Leku horren inguruan landatutako arroza azkena ebakitzen dute uztan. Ebakitzen asteen, arroz-leku horretako zurtoinak elkarrekin lotzen dira azao batean, eta "arrozaren ama" (ineno pae) izendatzen dute, eta arroza, hegaztien gibela, arrautzak eta beste uzten dizkiote aurrean eskaintza gisa. Soroko beste arroz guztia ebaki ondoren, "arrozaren ama" ere ebaki eta zor zaion ohorez eramaten dute bihitegira, eta han zoruan uzten dute, eta beste azao guztiak gainean pilatzen dituzte. Tomoriek, esan zaigunez, ilargian bizi den Omonga arroz-izpirituari egindako eskaintza berezizat daukate arrozaren ama. Izpiritu hori zor zaion begiruneaz tratatzen ez bada -esate baterako bihitegitik arroza hartzen dutenak behar bezala jantzita ez badaude-, haserretu egiten da eta zigortu egiten ditu iraingileak, haiek hartutako arrozaren doblea janez; zenbaitek entzun ere entzun izan omen du haren ezpain-hotsa bihitegian, arroza jaten ari zela. Bestalde, Celebes erdialdeko toradjek, haiek ere bai baitute arroz-amaren ohitura, uzta osoaren benetako amatzat daukate eta, beraz, kontu handiz zaintzen dute, gordetako arroza ezereztu eta desager ez dadin.

Orobat, Eskozian laborearen izpiritu zaharra eta gaztea, hurrenez hurren, emakume zaharrak (Cailleach) eta neskutsak ordeztzen dituzten bezala, halaxe Malakako penintsulan ere, arrozaren ama eta bere haurra ikusten ditugu azao edo eskutada desberdinek ordeztuta soroan. Arrozaren arima ebaki eta etxeratzeko zeremoniaren lekuko izan zen W. W. Skeat jauna Selangorko Chodoin, 1897ko urtarrilaren hogeita zortzian. arrozaren amaren arimatzat erabiliko zen eskutada edo azaoa aurrez identifikatu zuten, marka berezi batzuei edo buruen formari esker. Azao hartatik sorgin zahar batek, handikiro, zazpi buruko sortatxoa ebaki zuen, olioztatu, hari koloreanitzez lotu, intsentsuz keztatu eta, zapi zuri batean bilduta, saski obal batean jarri zituen. Zazpi buru haiek arrozaren arima haurra ziren, eta saskitxoa haurraren sehaska. Beste emakume batek, haurtxoa eguzki-galdatik babesteko eguzkitakoa zeramalarik, baserritarraren etxera eraman zuen. Etxera iristean, familiako emakumeek ongi etorria egin zioten arrozaren haurrari, eta sehaska eta guzti utzi zuten koltxoi berri batean, burualdean burkoa ere bazuelarik. Gero, baserritarraren emazteari irakatsi zitzaion hiru egunez zenbait arau gorde behar zituela; arau horiek, alderdi askotatik, benetako haurra jaiotzean hiru egunez gorde behar izaten diren berberak ziren. Jaio berriari bezala, gurasoari ere -hura sortutako azaoari, alegia- egiten zaio xera pixka bat. Azao hori, soroan geratua arrozaren arima etxeratu eta oheratu eta gero, ama erditu berria bailitzan tratatzen dute; alegia, arbolan kimu berriak txiki-txiki egin eta inguruan barreiatzen dizkiote arratsaldero hiru egunez, eta hiru egunok iragandakoan, hartu koko baten esnea eta "ahuntz-loreak" deritzenak, nahastu dena eta azukre pixka batekin jaten dute, eta nahasketatik pixka bat arroz artera tukatzen dute. Halaxe benetako jaiotza baten ondoren ere, ogi-arbolaren kimu berriak, arrosa-sagarra, banana-mota batzuk eta koko gazteen esnea nahasten dira arrain lehor, gatz, ozpin, izkira-gozagarri eta halako gauza gozoekin

entsalada modukoa atontzeko, eta ama-umeei ematen zaie hurrengo hiru egunetan. Azken azaoa baserritarraren emazteak ebakitzen du; etxera eramaten du, eta han jo eta arrozaren arimarekin nahasten du. Orduan baserritarak hartu arrozaren arima eta saskia eta malakarrek erabiltzen duten azpil handi biribilean jartzen du, azken azaoak emandakoarekin batera. Arrozaren arimaren ale batzuk hurrengo urterako haziarekin nahasten dira. Malakako penintsulako arrozaren ama eta arrozaren haur hauetan, Grezia zaharreko Demeter eta Persefoneren parekideak eta, nolabait, prototipoak ikus genitzake.

Orobat, labore-izpiritua emaztegai-senargaien itxura bikoitzean irudikatzeko ohitura europarrak ere bere parekoa du Javan arroz-uztan egiten duten zeremonia batean. Igitariak arroza ebakitzen hasi aurretik, apaiz edo sorgileak hainbat arroz-landare aukeratzen ditu, eta elkarrekin lotu, ukendu batez igurtzi eta lorez apaintzen ditu. Hala apainduta, buruei padi-penganten deitzen diete, hots, arrozaren emaztegaia eta arrozaren senargaia; ezteiak ospatzen dira, eta ondoren arroz-ebakitzeari ekiten zaio. Aurrerago, arroza gordetzerakoan, ezkongela bat bereizten dute bihitegian, eta koltxoi berri batez, lanpara batez eta garbiketarako era guztietako gauzez hornitzen dute. Arroz-azaoak jartzen dira arrozaren emaztegaiaren eta arrozaren senargaiaren ondoan, ezteiliarrak irudikatzeko. Hori egin baino lehen ez dago uzta osoa bihitegian gordetzerik. Eta arroza gorde ondorengo lehen berrogei egunetan, inork ez dauka bihitegian sartzerik, bikote ezkonberriari enbarazu egiteko beldurrez.

Bali eta Lombok uharteetan, uztaroa iristen denean, soroaren jabeak berak ematen dio hasiera, "arroz nagusia" bere eskuz ebakiz eta bi azao eginez. Azao bakoitza ehun eta zortzi zurtoinez osatua da, beren hostoak eta guzti. Azao batek gizona irudikatzen du, eta besteak emakumea, eta "senar-emazteak" deitzen zaie. Azao arra hariz lotzen dute hostoak ez ikusteko moduan; azao emeak, aldiz, kanpoaldera izaten ditu hostoak, emakume baten ile-mototsa bezala lotuta. Batzuetan, hobeto bereizteko, lastozko idunekoa lotzen diote azao emeari. Arroza sorotik etxera eramaten dutenean, emakume batek buruan eramaten ditu senar-emazteak irudikatzen dituzten bi azaoak, eta azkenak uzten ditu bihitegian. Han erdi-zutik ipintzen ditu, edota arroz-lastozko burko baten gainean. Atonketa osoak, jakinarazi zaigunez, arroza bihitegian ugalaraztea du helburu, jabeak sartu zuena baino gehiago atera dezan bertatik. Horregatik, Balikoek bi azaoak, senarra eta emaztea, bihitegira ekartzen dituztenean, hala esaten dute: "Ugal zaitezte etengabe". Bihitegiko arroz guztia erabili ondoren, senarra eta emaztea irudikatzen dituzten bi azaoak bihitegian geratzen dira, pixkanaka desagertu edo arratoiek jaten dituzten arte. Goseak batzuetan bi azao horietako arroza jatera behartzen du bat edo beste, baina hori egiten duten zirtzilak gaizki ikusiak dira eta zerri eta zakurren arteko egiten dituzte. Inork ez lituzke inoiz bi azao horiek salduko beste senide profanoekin batera.

Arroza ahalmen ar eta eme batzuei esker ugaltzearen nozio berbera ageri da Birmania Garaiko szien artean. Paddy-a, hau da, oraindik azala duen arroza, lehortu eta jotzeko pilatzen dutenean, etxekoen lagun guztiak gonbidatzen dira larrainera, eta janariak eta edariak ekartzen dira. Paddy-pila bitan banatzen da: erdi bat jotzeko zabaltzen da, eta beste erdia pilatuta uzten. Pila janaria eta izpirituak daude, eta zaharretako batek, "paddy-landarearen aita-amei" ari zaiela, uzta oparoa eskatzen die, eta hazia ugalkorra izan dadila erregutzen. Gero denek jan, edan eta festa egiten dute. Larraineko zeremonia hori da jende horrek "paddyaren aita-amei" dei egiten dien aldi bakarra.

3. Laborearen izpiritua gizakiengan gorpuzturik

Beraz, Europako laboreen amarengan, laboreen neskutsarengan eta abarretan ereinen izpiritu bizigarri landare-itxura hartua ikusten duen teoria, erruz berresten dute munduko beste alde batzuetako herrietako datuek: herri horiek, garapen mentalean

europar arrazen atzetik geratu direnez, nekazal erritoen jatorrizko motiboak zentzu beteagoz gorde dituzte horrexegatik; gure artean, aldiz, errito horiek esanahirik gabeko aztarnen mailara eroriak dira. Baina irakurleak gogoan izango du ezen, Mannhardtek dioenez -beronen teoria ari bainaiz azaltzen- laborearen izpiritua, landare-forman ezezik, giza forman ere agertu ohi dela; azken azaoa ebakitzen duen edo azken kolpea jotzen duen pertsona laborearen izpiritu gorpuztutzat hartu ohi da aldi batez, berak ebaki edo jotako ale-eskutada bezala. Orain arte azaldu ditugun usadioetan -Europaz kanpoko herrienetan, alegia- ereinen izpirituak landare-forman soilik agertu dira. Beraz, frogatzeko dugu ezen, gure europar nekazariak bezala, beste arraza batzuek ere ereinen izpiritua gizon eta emakume biziengan edo gizon eta emakumeek ordeztua sumatu dutela. Halako frogatik bat, gogoratuko diot irakurleari, guztiz bat dator liburu honetako gaiarekin; izan ere, landareen bizia edo izpiritu bizigarria ordeztzen duten gizakien zenbat eta adibide gehiago aurkitu, hainbat eta zailtasun gutxiago izango dugu horien artean Nemiko Basoko Erregea sailkatzeko.

Iparramerikako mandan eta minnitariek jaialdi bat izaten zuten udaberrian, emakumeen arto-sendagaiaren jaialdia deitzen zutena. Uste zuten emakume zahar hilezkor batek hazarazten zituela ereinak eta, hegoaldean nonbait bizi zenez, uretako hegazti migratzaileak bidaltzen zituela bere sinbolo eta ordezkari gisa. Txori-mota bakoitzak indiarrek lantzen zuten erein-mota bat ordeztzen zuen: basantzarek artoa, beltxarek kalabazak, eta basahatek baberrunak. Hala, udaberrian, emakume zaharren mezulari lumadunak pasatzen hasten zirenean, indiarrek emakumeen arto-sendagaiaren jaialdia ospatzen zuten. Oholtzak eraikitzen zituzten, eta jendeak okela lehorra eta beste gauza batzuk jartzen zituen haietatik zintzilik, emakume zahararentzako eskaintza gisa; eta egun jakin batean tribuko emakume zahar guztiak, emakume zahar hilezkorren ordezkari gisa, oholtzetan biltzen ziren, bakoitzak artaburu bat zeramala eskuan, ziri batetik lotuta. Lehenik ziri horiek lurrean sartzen zituzten, gero dantza egiten zuten oholtzen inguruan, eta azkenez berriro eskuetan hartzen zituzten ziriak. Bitartean, agureek danborrak jo eta marakei eragiten zieten, lagungarri gisa, emakume zaharrek beren egitekoa burutu bitartean. Gainera, gizon gazteak etorri eta okela lehorra ematen zieten ahora emakume zaharrei, eta trukean artale sagaratu bat jasotzen zuten jateko. Arto santuaren hiru edo lau ale jartzen ziren emakume gazteen plateretan, eta gero kontu handiz nahasten ziren haziarekin, emankortu egingo zutelakoan. Oholtzetan zintzilik jarritako haragi lehorra emakume zaharrentzat zen, emakume zahar hilezkorren ordezkariak izaki. Antzeko labore-sendagaiaren jaialdia egiten zen udazkenean ere, bufalo-saldoak erakarri eta nahikoa okela izatearren. Garai hartan emakume guztiek arto-landare erauzi bat eramaten zuten besoetan. Biei, artoari eta lurraren igalien sinbolotzat zeuzkaten txoriei ematen zieten izen hura -emakume zahar hilezkorra alegia-, eta otoitz egiten zieten udazkenean, esanez: "Ama, erruki zakizkigu! Ez bidali hain laster hotz gogorra, agian ez dugu-eta aski jaki izango! Ez ezazu eraman ehiza guztia, negurako zerbait izan dezagun!". Udazkenean, txoriak hegoaldera abiatzen zirenean, indiarrek pentsatzen zuten atzera etxera itzultzen zirela, emakume zahararentzako, eta oholtzetan zintzilikatutako eskaintzak eramaten zizkiotela, batez ere okela lehorra, hark jan zezan. Beraz, laborearen izpiritua edo jainkosa emakume zahar gisa sumatua eta benetako emakume zaharrek gorpuztua ikusten dugu hemen; emakume zaharrek ere, haren ordezkari diren aldetik, harentzako eskaintza batzuk bederen jasotzen dituzte.

Indiako zenbait aldetan, neska ezkongabe batek eta baltsamo-landareen sorta batek, emakume-itxuran paratuak eta maskaraz, soinekoz eta apaingarriz jantziak, irudikatzen dute batera Gauri uzta-jainkosa. Jainkosaren giza eta landare-ordezkariak, biak gurtzen dituzte, eta zeremonia osoaren xedea arroz-uzta ona segurtatzea da.

4. Laborea bitara norturik, ama eta alaba gisa.

Alemaniko labore-amarekin eta Eskoziako uzta-neskutsarekin konparatuta, Greziako Demeter eta Persefone beranduagoko sorkariak dira, erlijioaren bilakabidean zehar. Baina ariar familiako kide direnez, grekoek ere antzeko uzta-ohiturak izango zituzten noizbait, zeltek, teutoiek, eslaviarrek izan zituzten bezalatsukoak eta, ariar munduko mugez askoz harantzago, Peruko indiarrek eta Ekialdeko Indietako herri askok izan zituzten bezalatsukoak. Horra, bada, nahikoa frogara, ohitura horien oinarrian dautzan ideiak ez direla arraza batenak, baizik eta nekazaritzara emandako herri zibilizatugabe orotan berez agertu direla. Baliteke, beraz, Demeter eta Persefone, Greziako mitologiako irudi itzaltzu eta eder horiek, oraindik ere gaur egungo nekazarien artean dirauten sineste eta ohitura sinple berberetatik sortuak izatea, eta azao horiez egindako panpin traukilek irudikatu izana uzta-soro askotan, Fidias eta Praxitelesen maisu-eskuek haien irudi biziak brontzean eta marmolean egin baino askoz lehenago. Antzinatasun horren arrasto bat -urrin bat, nolabait esan- geratu zen Persefoneri eskuarki eman ohi zitzaion Neskutsa (Kore) tituluan. Beraz, Alemaniko labore-ama Demeterren aitzindaria bada, Persefoneren aitzindaria uzta-neskutsa da, oraindik ere Balquhiddelko Braesen, azken azaoaz, udazkeneko egiten dutena. Hain zuzen, antzinako Greziako nekazari eta baserritarrez gehiago jakingo bagenu, beharbada aurkituko genuke haiek ere, aro klasikoan, urtero egiten zituztela beren uzta-soroetan laboreen amak (demeterrak) eta neskutsak (persefoneak) labore-landareez. Baina zoritxarrez guk ezagutzen ditugun Demeter eta Persefone hiritarrak ziren, tenplu itzaltsuetako biztanle maiestatezkoak; jainko horientzat bakarrik zituzten begiak antzinateko idazle finek; ez ziren ohartu ere egin nekazariak soroetan burututako errito zakarrez. Ohartu baziren, inoiz ez zuten pentsatu inolako loturarik zegoenik uztondo eguzkitsuan labore-zurtoinez egindako panpinaren eta tenpluko itzal hotzean zegoen marmolezko jainkosaren artean. Baina are pertsona hiritar eta kulturadun haien idatziek ere eskainiko digute noiz edo noiz Demeterren irudiren bat, Alemaniko herririka urrun bateko traukilena bezain traukila. Esate baterako, Jasoni buruzko kondaira bat, alegia, Demeterrengandik Pluton ("aberastasuna", "ugaritasuna") izeneko semea izan zuela hirutan goldatutako soro batean, Prusiako mendebaldeko usadio batekin konpara daiteke: soroan haur bat alegiaz jaiotzearekin. Prusiako ohitura horretan amak laboreen ama (Zytniamatka) ordeztu du; haurrak laboreen haurra ordeztu du, eta zeremonia osoa hurrengo urteko uzta segurtatzeko xarma da. Usadioak eta kondairak praktika zaharrago bat iradokitzen dute: benetako edo antzeztutako umegintza burutuko zen udaberrian ernetzen ziren erainen edota udazkeneko galtzuen artean; ikusi dugunez, halako zeremonien bidez lehen gizonak bere bizi-endarra eman nahi izaten zion ahul eta gainbehera zihoan naturari. Aurrerago, nekazal jainkosa horien beste alderdi batez arituko garenean, ikusiko dugu basatasunak Demeter zibilizatuaren azpian luzatzen duen beste errainu bat.

Irakurlea ohartuko zenez, herri-ohitura modernoetan laboreen ama batek (emakume zaharrak e.a.) ala neskuts batek (uzta-haurrak e.a.) ordeztu du gehienetan labore-izpiritua; ez biek batera, laboreen amak eta neskutsak, bietako batek baizik. Hortaz, zergatik irudikatzen dute grekoek laborea ama-alaben bitartez?

Bretainiako usadioan, ama-azaoak -azken azaoaz egindako irudi handi bat, barruan labore-panpin bat zuena- argi eta garbi ordeztu ditu biak, laboreen ama eta laboreen alaba, bigarren hori artean jaio gabea. Orobat, azaldu berri dugun Prusiako usadioan, laboreen amarena egiten duen emakumeak ale heldua ordeztu du; haurrak hurrengo urteko laborea ordeztu bide du aurtengo laborearen haurtzat har baitaiteke, noski, hurrengo urtekoa aurtengo uztako hazitik etorriko denez. Gainera, ikusi dugu Malakako penintsulakoek eta batzuetan Eskoziako Highlandsekoek alearen izpiritua emakume-itxura bikoitzean irudikatzen dutela, zahar eta gazte, uzta heldutik hartutako buruen bidez; Eskozian laborearen izpiritu zaharra Carline edo cailleach izenaz ageri da;

izpiritu gaztea, berriz, neskuts izenaz. Malakako penintsulakoen artean, aldiz, arrozaren bi izpirituak elkarri lotuta daude nabarmenki, ama eta haur gisa. Analogia horien arabera, Demeter aurtengo uzta heldua litzateke; Persefone, berriz, bertatik hazitarako hartutako alea, udazkenean erein eta udaberrian agertzekoa. Persefone azpi-mundura jaitea, beraz, hazia ereitearen adierazpide mitikoa litzateke; udaberrian agertzeak labore gaztearen ernetzea esan nahi bide du. Honela, urte bateko Persefone hurrengo Demeter bihurtuko litzateke, eta haxe izan bide zen mitoaren jatorrizko forma. Baina erlijio-pentsaera aurreratzean labore pertsonifikatu zutenean -alegia, ez urtebete ziklo osoa, iragaiten zuen izaki gisa (hots, jaio, hazi, ugaltu eta hil), baizik eta jainkosa hilezko gisa-, nahitaezko gertatu zen bi pertsonifikazioetako bat, ama ala alaba, ezabatzea. Ordea, laborearen ikusmolde bikoitzak -ama eta alaba gisa-, oso aspaldi eta sakonegi errotua behar zuen herri-gogoan logikak erauz zezan eta, beraz, eraberritutako mitoan bientzako, ama-alabentzako, lekua asmatu behar izan zen: Persefoneri udazkenean ereiten eta udaberrian ernetzen den laborearen izaera eman zitzaion, eta Demeter, nolabait, laborearen ama bihurtu zen, alaba urtero azpiko munduan desagertzen delako lantu egiten duena eta udaberrian agertzen delako alaitzen dena. Hala, jainkosen hurrenkera erregularraren ordeztasun -alegia, bakoitza urtebetez biziz eta gero ondorengoari bizia emanez-, eraberritutako mitoan bi jainkosa hilezko ageri dira, bata urtero lurtean desagertu eta lurretik agertzen dena, eta bestea lantua egitea eta alaitzea beste zereginik ez duena, noiz zer komeni den.

Greziako mitoan laboreak pertsonifikazio bikoitz hori duelako teoriak ontzat ematen du bi pertsonifikazioak (Demeter eta Persefone) jatorrizkoak direla. Baina pentsatuz gero mito grekoa pertsonifikazio bakar batez hasi zela, bigarren pertsonifikazioaren garapena segidan azalduko dugun bezala azaldu daiteke. Aztertutako ditugun uzta-ohiturei begirada bat emanez, oharretako gara labore-izpirituaren bi ikusmolde desberdin daudela horietan. Izan ere, ohitura batzuetan labore-izpirituak laborean bertan balitz bezala ageri da, eta beste batzuetan laboretik at balitz bezala. Hala, azaldu bati labore-izpirituaren izena ematen zaionean, eta jantzi eta jaietaz tratatzen dutenean, argi dago izpirituak laborean bertan dagoela jotzen dela. Baina esaten denean izpirituak ereinak hazarazten dituela haien artean pasatuz, edo alea herdoiltzen duela jabearen kontra auziren bat bada, laboretik bereizitza jotzen da, nahiz laborearen gainean boterea izan. Bigarren modu honetan sumatuta, labore-izpirituak erraz bihurtuko da laborearen jainko, ordurako bihurtu ez bada. Bi ikusmolde horietatik, labore-izpirituak laborean bertan dagoela jotzen duena da zaharrena; izan ere, dirudienek, natura naturan bertan dautzan izpirituak animatzen dutela jotzen duen ikuspegia, natura kanpoko jainkoen menpe dagoela jotzen duen ikuspegia baino lehenagokoa da; laburrago esanda: animismoa deismoa baino lehen izan zen. Europako gure nekazarien uzta-ohituretan, badirudi labore-izpirituak batzuetan laborean bertan balego bezala eta beste batzuetan kanpoko zerbait balitz bezala sumatu dela. Greziako mitologian, bestetik, Demeter laborearen jainkosatzat hartu izan da, ez bertan datzan izpiritutzat. Ikusmolde-modu batetik bestera daraman pentsaera-prozesua antropomorfismoa da, hots, izpiritu inmanenteak gero eta giza ezaugarri gehiagotz janztea. Gizakiak basatasunetik irteten ahala, beren jainkoak gizatiartzeko joera indartu egiten da; eta jainko horiek zenbat eta gizatiarrago bihurtu, zabalagoa da hasieran izpiritu edo arima huts ziren gauza naturaletatik bereizten dituen tartea. Baina aurrerabide horretan belaunaldi bereko gizakiak ez dira parean joaten; eta jainko antropomorfiko berriek gogo garatuenen desira erlijiosoak ase ditzaketelarik, komunitateko kide atzeratuagoak nozio animista zaharrei atxikiko zaizkie. Laborea den bezalako gauza natural baten izpirituari giza nolakotasunak erantsi zaizkionean, gauzatik bereizi denean, eta bera kontrolatzen duen jainko bihurtu denean, gauza hori bera, izpirituak aldegin dionek, animagabe geratzen da; nolabait esan, hutsune izpiritual

bihurtzen da. Baina herri-fantasiak hutsune hori eraman ezinez, hots, zer animagabetzat jotzeko gai ez denez, berehala sortzen du izaki mitiko berri bat, eta berarekin betetzen du gauza hustua. Hartara, gauza natural bera bi izaki desberdinek irudikatuko dute mitologian: lehenik izpiritu zaharrak, orain beragandik bereizi eta jainko-mailara igoak; bigarren, izpiritu berriak, alegia, herri-fantasiak izpiritu zaharra goragoko mailara igotzean hutsik utzitako lekua betetzeko sortutakoak. Halakoetan, mitologiak honako problema hauxe izaten du: gauza batek berak bi pertsonifikazio desberdin dituelarik, zer egin horiekin? Nola ezarri bien arteko erlazioak, eta nola aurkitu bientzako lekua mitologi siteman? Izpiritu zaharra edo jainko berria gauzaren sortzaile gisa sumatzen denean, erraz ebazten da problema. Gauza hori izpiritu zaharrak sortua eta berriak animatua denez, berriak, gauzaren arima den aldetik, lehenari zor dio izatea; hartara, izpiritu zaharraren eta berriaren arteko erlazioa sortzailearen eta sorkariaren artekoa da, hau da, mitologian, gurasoaren eta hauraren artekoa; eta bi izpirituak eme sumatzen badira, bien arteko erlazioa ama-alabena izango da. Beraz, laborea eme sumatzetik hasita, fantasia mitikoak haren pertsonifikazio bikoitza iritsiko zukeen denboraren harian, ama eta alaba gisa. Ausartegia nintzateke Demeter eta Persefoneren mitoa modu horretan eratu zela esango banu; baina bidezko aierua da jainko-bikoizketak -eta Demeter eta Persefone horren adibide dira- esandako eran agertu direla batzuetan. Adibidez, lan honetan lehenago aztertu ditugun jainko-jainkosa bikoteen artean, erakutsi dugu badela arrazoirik Isis eta beraren jainko laguna, Osiris, laborearen pertsonifikaziotzat hartzeko. Orain iradokitako hipotesiaren arabera, Isis litzateke labore-izpiritu zaharra, eta Osiris berria. Izpiritu berriak zaharrarekin duen erlazioa hainbat eratan azalduko litzateke: anaia gisa, senar gisa eta abar; izan ere, mitologian beti dago bi jainkoren artekoa era bat baino gehiagotan azaltzea. Ez da ahaztu behar, ordea, Demeter eta Persefone edo Isis eta Osiris bezalako bikoteez proposatutako azalpen hau aieru hutsa dela, eta aieru gisa ematen dugula.

xlvi

Litierses

1. Igitarien kantak

Aurreko orrialdeetan saiatu gara Europako iparraldeko laboreen ama eta uzta-neskutsa Demeter eta Persefoneren aitzindariak direla erakusten. Baina oraindik ezaugarri funtsezko bat daukagu antz hori osatzeko. Greziako mitoan azaltzen den gertaera behinen bat Persefoneren heriotza eta piztuera da; gertaera horrexek -eta Persefone landaretzaren jainkosa izateak- lotzen du mitoa Adonis, Atis, Osiris eta Dionisosen gurtzeekin; eta gertaera horri esker aurkitzen du mitoak leku bat Hiltzen den Jainkoaren azterketa honetan. Hauxe geratzen zaigu, beraz, frogatzeko: jainko baten urteroko hiltze-berpizteen ikusmoldeak, Greziako eta Sortaldeko gurtza horietan hain nabarmen ageri baita, ez ote duen berak ere sorrera edo analogia igitarietako eta mahastizainetako gabikoen eta mahatsondoen artean egindako erritoetan.

Aitortu dugu oro har ez ditugula ezagutzen antzinakoen herri-superstizio eta ohiturak. Baina antzinako erlijioaren hasi-masien gaineko iluntasun hori, zorionez, ezabatu egiten da neurri batean kasu honetan. Osiris, Adonis eta Atisen gurtzek, ikusi dugun bezala, Egipton, Sirian eta Frigian zituzten beren gurtzalekuak; eta lurralde horietako bakoitzean gauza jakina da zenbait uzta eta mahaste-usadio izan direla, eta elkarren artean eta errito nazionalekin zituzten antzek antzinatarrak berak ere harritu egin zituztela; eta gaur egungo nekazarien eta barbaroen uzta-ohiturekin konparatzean, esango genuke errito horien sorreran argi pixka bat egiten dutela.

Aipatu dugu lehenago, Diodororen hitzetan, antzinako Egipton igitarietako lantua egiten zutela lehen azaoa ebakitzean, alegia, Isisi dei egiten ziotela, laborearen aurkikuntza zor zioten jainkosa zen aldetik. Egiptoko igitarietako abestu edo esandako lantu-kanta edo

negarrari, Maneros deitzen zioten grekoek, eta izen horren azalpena emateko istorio hau kontatzen zuten: Manerosek, Egiptoko lehen erregearen seme bakarrak, nekazaritza asmatu zuen eta, garaia baino lehen hil zenez, jendeak dolu egiten zuen. Alabaina, badirudi Maneros izena mââ-ne-hra ("zatoz guregana") formula, gaizki ulertzeari zor zaiola; formula hori Egiptoko zenbait idatzitan aurkitu da, hala nola Hildakoen Liburuan, Isisen hil-kantan hain zuzen. Horregatik, pentsa genezake mââ-ne-hra erosta kantatzen zutela igitariak laborea ebakitzean, labore-izpirituaren (Isisen edo Osirisen) heriotzagatiko hil-kanta gisa eta arren itzul zedila eskatzeko otoitz gisa. Erosta lehen ale-buruak ebakitzean egiten zenez, egiptoarrek sinesten bide zuten labore-izpiritua ebakitako lehen laborean zegoela, eta igitaiaren menpe hiltzen zela. Ikusi dugunez, Malakako penintsulan eta Javan lehen arroz-buruak arrozaren arima edo arrozaren emaztegaia eta arrozaren senargaia irudikatzeko hartzen dira. Errusiako zenbait aldetan, beste leku batzuetan azken azaoa tratatzen duten bezala tratatzen dute lehen azaoa. Etxekoandreak berak ebakitzen du, etxera eramane eta ohorezko leku batean ipintzen du, irudi santuen ondoan; gero aparte jotzen dute, eta ale batzuk hurrengo urteko haziarekin nahasten dira. Aberdeenshiren, ebakitako azken laborea gehienetan clyack azaoa egiteko erabiltzen bazen ere, batzuetan -gutxitan-, ebakitako lehen azaoa janzten zuten emakume-arropaz, eta zeremonia artean eramaten zuten etxera.

Fenizian eta Asiako mendebaldean eresi bat kantatzen zuten mahastean, Egiptoko igitariak kantatzen zutena bezalakoa, eta beharbada (analogiaren arabera) baita uztaroan ere. Feniziako kanta horri Linos edo Ailinos deitzen zioten grekoek, eta azalpena ematerakoan, Manerosen kasuan bezala, Linos izeneko gazte baten heriotzagatiko lantua zela esaten zuten. Istorio baten arabera, artzain batek hazi omen zuen Linos, baina haren zakurrek zehatu omen zuten. Maneros bezala, baina, Linos edo Ailinos izena ere hitzak gaizki ulertzetik sortua omen da, eta ai lanu aiene-hitzak besterik ez omen dira, "ai ene!" hain zuzen, feniziarrek Adonisengatik lantua jotzean esaten zituztenak; badirudi Safok behintzat baliokidetzat jotzen zituela Adonis eta Linos.

Bitinian antzeko eresi triste bat kantatzen zuten mariandiniar igitariak, Bormos edo Borimos zeritzana. Bormos gazte eder bat izan omen zen, Upias erregearen edo beste gizon aberats eta printzipal baten semea. Udako egun batean, igitariak soroetan lanean nola ari ziren begira zegoela, haientzako ur bila joan omen zen, eta harrez gero haren arrastoa betiko galdu zen. Hortaz, igitariak haren bila hasi ziren, ahaire tristez deituz; gerora ere beti kantatu omen zituzten ahaire haiek uzta-garaian.

2. Laborearen izpirituaren hilketa

Litierses deitzen zioten Frigian uztagileek segan eta alea jotzean kantatzen zuten kantari. Istorio baten arabera, Frigiako Midas erregearen seme sasiko bat zen Litierses, eta Zelenen bizi omen zen. Laborea ebakitzen omen zuen, eta apetitu izugarrikoa omen zen. Atzerritarren bat bere soroan sartu edo ondotik pasatzen zenean, Litiersesek jaten eta edaten ematen zion ugari, Meander ibaiaren ertzeko soroetara eramane eta berekin batera epaitzera behartzen zuen. Azkenez, atzerritarra azao batean biltzen omen zuen, lepoa igitaiaz moztu eta gorputza labore-zurtoinetan bilduta eramane zuen. Baina halako batean Herkulesek onartu omen zuen berarekin batera igitaitzea, berak moztu zion lepoa igitaiaz, eta gorputza ibaira bota omen zuen. Herkulesek Litierses hark beste aurrekoak hil zituen bezala hil zuenez, pentsa genezake Litiersesek ere ibaira jaurtitzen zituela biktimen gorpuak. Istorioaren beste aldaera baten arabera, Litiersesek, Midasen seme batek, erronka egin ohi zion jendeari nork bizkorrago segan egin, eta irabazten bazien eultzitu egiten omen zituen; baina egun batez igitari indartsuago batekin egin omen zuen topo, eta hark hil egin omen zuen.

Bada funtsik uste izateko Litiersesen istoriook Frigiako ohitura bat deskribatzen digutela. Ohitura horren arabera, zenbait pertsona, batez ere uzta-sorotik pasatzen ziren

atzeritarrak, laborearen izpiritu gorpuztutzat hartzen ziren eta, halakoak zirelakoan, igitariak bahitu, azaotan bildu eta lepoa moztzen zieten, eta gorpuak labore-zurtoinez lotu eta gero uretara botatzen zituzten euri-xarma gisa. Hori uste izateko arrazoiak bi dira: bat, Litiensesen istorioaren eta Europako nekazarien uzta-ohituren arteko antza; eta bi, arraza basatiek askotan giza opagaiak eskaintzea soroen emankortasuna bultzatzeko. Hurrenez hurren aztertuko ditugu funtsok, lehenengotik hasita.

Istoria Europa-ko uzta-ohiturekin konparatzean, hiru puntuk merezi dute arreta berezia: I. Segalehiaketa eta pertsonak azaoetan lotzea; II. Labore-izpiritua edo labore-izpirituaren ordezkariak hiltzea; III. Bisitariei edo arrotzei uzta-soroan ematen zitzaien tratamendua.

I. Lehen puntuari dagokionez, ikusi dugu Europa modernoan azken azaoa ebakitzen, lotzen edo jotzen duen pertsona gogor hartzen dutela lankideek. Alegia, azken azaoan biltzen dute eta, horrela bilduta, eraman, jo, urez blaitu, gorotz-putzu batera bota eta abar egiten dute. Edo barregarrikeria hauek guztiak egiten ez bazaizkio, gutxienez trufa egiten zaio edo urtean zehar zorigaitzen bat izango duela pentsatzen da. Horregatik, uztagileek beldurra izaten diote igitaiak edo larrainean, edota azken azaoa lotzean, azken kolpea jotzeari eta lana amaitzerakoan beldur horrek norgehiagoka sortzen du langileen artean: nor baino nor saiatzeko dira beren egitekoa lehenbailehen burutzen, azkena izatearen berezkuntza gorrotagarri horri ihes egiteko. Adibidez, Prusiako Mittelmark eskualdean, zekalea moztu eta gero, azken azaoak lotu behar dituztenean, lotzaileak bi ilaratan jartzen dira aurrez aurre, emakume bakoitzak bere azaoa eta lastozko soka dituelarik. Seinalea emandakoan, denek lotzen dituzte beren azaoak, eta azkenari barre egiten diote besteek. Horrez gainera, haren azaoari giza itxura ematen zaio, eta gizon zaharra deitzen, eta emakumeak baserrira eraman behar izaten du, eta han uztagileek biribilean egiten dute dantza beraren eta azaoaren inguruan. Gero, hartu gizon zaharra eta honako hitz hauekin ematen diote etxajaunari: "Etxajaunari ematen diogu gizon zaharra. Eduki beza berak beste bat izan arte". Ondoren gizon zaharra arbola baten kontra ipintzen dute, eta han egoten da denbora luzean, burla asko jasoz. Bavariako Aschbachen, segaldia ia amaitzear dagoenean, uztagileek honela esan ohi dute: "Orain gizon zaharra iraitziko dugu". Bakoitzak sailtxo bat ebakitzeari ekiten dio, ahalik bizkorren; azken eskutada edo azken zurtoina ebakitzen duena oihu alai batez agurtzen dute besteek: "Zuk duzu gizon zaharra". Batzuetan maskara beltza lotzen diote aurpegian, eta emakume-arropaz janzten dute. Gero dantza egiten da. Ale-jotzaileei emandako afarian, koilara handiaz jan eta asko edan behar izaten du. Gainera, era guztietako trufak eta adar-jotzeak egiten dizkiote, pattarra edo garagardoa edatera gonbidatzen ez dituen bitartean.

Adibide hauetan uztagileen artean, segan, alea jotzean eta lotzean izaten diren norgehiagokak ageri dira, azkena amaitzen duenak jasan behar izaten duen adar-jotzea eta deserosotasuna nahi ezta. Gogoratu behar da sega-lanean, azaoa lotzean edo alea jotzean azkena den pertsona laborearen izpirituaren ordezkariatzat hartzen dutela, eta ideia hori are hobeto adierazten du hura labore-zurtoinetan lotzeak. Eman dira azken ohitura horren adibideak, baina banaka batzuk erantsiko ditugu. Kloxinen, Stettindik gertu, uztagileek oihu egiten diote azken azaoa lotzen duen emakumeari: "Zuk duzu gizon zaharra, eta gorde egin behar duzu". Hemeretzigarren mendearen azken arte emakumea bera ilar-lastotan biltzea zen ohitura, eta musika artean baserrira eramatea; han uztagileek berarekin egiten zuten dantza, harik eta ilar-lastoa erori arte. Stettin inguruko beste herrixka batzuetan, azken gurdikada zamatzekoan, lasterketa egiten dute emakumeek, eta denak saiatzeko dira azkena ez izaten. Gurdian azken azaoa ipintzen duenari gizon zaharra deitzen diote, eta labore-zurtoinetan biltzen dute erabat; lorez ere apaintzen dute, eta loreak eta lastozko kaskoa jartzen diote buruan. Prozesio

larrian eramaten dio uzta-koroa ugazabari, eta honen gainean mantentzen du, desira onak adieraziz hitzaldia egiten duen bitartean. Ondorengo dantzaldian, gizon zaharrak bere dantza-laguna aukeratzeko eskubidea izaten du; ohorea da berarekin dantza egitea. Gommernen, Magdeburgetik gertu, azken labore-buruak ebakitzen dituen segalaria labore-zurtoinetan biltzen dute maiz, hain ondo bildu ere, non zaila izaten den han gizonik den jakitea. Hala bilduta, beste segalari indartsu batek eramaten du bizkarrean, eta soroan zehar garraiatzen du uztagileen oihu alaien artean. Neuhausenen, Merseburgetik gertu, azken azaoa lotzen duen pertsona olo-burutan bildu eta olo-gizona bailitzan agurtzen dute, eta besteek dantza egiten dute haren inguruan. Isle de Franceko Brien, baserritarra bera lotzen dute lehen azaoan. Dingelstedten, Erfurt eskualdean, hemeretzigarren mendearen lehen erdira arte ohitura zen gizon bat azken azaoaz lotzea. Gizon zaharra deitzen zioten, eta azken gurdikadan eramaten zuten etxera, oihu eta musika artean. Baserrira iritsitakoan bueltaka erabiltzen zuten bihitegi inguruan, eta urez blaitzen. Bavariako Nordlingenen, alea jotzerakoan azken kolpea jotzen duen gizona lastotan bildu eta larrainean zehar bueltaka ibiltzen dute. Bavarian, Oberpfalzeko zenbait aldetan, esaten da "gizon zaharra berak duela"; lastotan bildu eta oraindik ale-jotzea amaitu ez duen auzoko batengana eramaten dute. Silesian, azken azaoa lotzen duen emakumeak trufa eta txantxa ugari jasan behar izaten du. Bultza egiten diote, lurrera bota eta azaoan lotzen dute, eta labore-panpina deitzen diote (Kornpopel).

"Kasu hauetan guztietan, honako uste hau dago: laborearen izpiritua -landaretzako gizon zaharra- azkena ebakitako edo jotako laboretik iraitzia dela, eta bihitegian bizitzen dela neguan zehar. Ereiteko sasoiari berriro irteten da soroetara, erretzen den laborearen biziarazteko egitekoari berriz ekitera.

II. Litiensesen istorioaren eta europar uzta-ohituren arteko konparazioko bigarren puntura pasatuz, ikus dezagun orain europar uzta-ohituretan sinesten duten laborearen izpiritua sega-lanean edo ale-jotzean hiltzen dutela. Norvegiako Romsdalen eta beste alde batzuetan, belar-biltzea amaitutakoan, jendeak esaten du "belargizon zaharra erail dutela". Bavariako zenbait aldetan eultziari azken kolpea jotzen dion gizonak labore-gizona, olo-gizona edo gari-gizona hil duela esaten da, ereina zein den. Tilloteko kantoian, Lorrainen, azken laborearen jotzerakoan gizonak batera astintzen dituzte idaurrak, oihuka: "Emakume zaharra hiltzen ari gara! Emakume zaharra hiltzen ari gara!". Etxean emakume zaharrik bada, esaten zaio kontuz ibiltzeko eta gordetzeko, kolpeka hilko dutela eta. Ragnitetik gertu, Lituaniar, azken labore-eskutada ebaki gabe uzten dute, hitz hauek esanez: "Emakume zaharra (Boba) hemen dago eserita". Gero uztagile gazte batek igitaiaren ahoa ezartzen dio eta, kolpe azkar batez, eskutada ebakitzen du. Orduan esaten da hark "lepoa moztu diola Bobari"; eta opari bat jasotzen du baserritarragandik eta baldekada bat ur burutik behera ugazabaren emazteagandik. Beste kontakizun baten arabera, lituanier segalariak beren egitekoa amaitzen lehiatzen dira, zekale-andre zaharra bizi baita azken zurtoinetan, eta azken zurtoinak ebakitzen dituenak zekale-andre zaharra hiltzen du, eta hura hilez arazoak ekartzen dizkio bere buruari. Wilkischkenen, Tilsit eskualdean, azken laborearen ebakitzen duen gizonari "zekale-emakumearen hiltzailea" deitzen diote. Lituaniar ere, labore-izpiritua alea jotzerakoan eta ebakitzeko hiltzen dela sinesten dute. Labore-pila bakar bat geratzen denean jotzeko, jotzaile guztiak urrats batzuk atzeratzen dira bat-batean, agindu bati men eginez bezala. Gero lanari ekiten diote berriro, idaurrak ahalik eta bizkorren erabiliz, harik eta azken eskutadara iritsi arte. Haserre bizian oldartzen zaizkio azken horri, gihar guztiak atezuan, jo eta jo, harik eta buru egiten duenak "geldi!" hitza ozenki esan arte. Aginduaren ondoren, berehala inguratzen dute denek azkena erortzen den idaurra duen gizona, "zekale-atsoa hil dik kolpeka" oihukatuz. Horren truke, pattarra edatera gonbidatu behar ditu beste guztiak; eta azken laborearen ebakitzen duen

gizonari bezala, berari ere "zekale-atsoaren hiltzaile" deitzen diote. Lituania, batzuetan, panpin batek irudikatzen zuen laborearen izpiritu eraila: emakume-irudia egiten zuten labore-zurtoinez, arropak janzten zizkioten, eta larrainean ipintzen zuten, azkena jo behar zen gabikoaren azpian. Gero azken kolpea jotzen zuenak "kolpeka hiltzen zuen emakume zaharra". Jadanik eman ditugu zenbait adibide labore-izpiritua ordeztzen duen irudia erretzeaz. Yorkshireko East Ridingen "Sorgin zaharra erretzea" deritzan ohitura bat dute uztaroko azken egunean. Labore-azaoxka bat erretzen dute soroan galtzuz egindako sutan; su horretan ilarrak erre eta garagardo ugariz lagunduta jaten dituzte; neska-mutilak gar artean saltoka ibiltzen dira, eta elkarren aurpegiak belztuz dibertitzen dira. Batzuetan gizon batek ordeztzen du laborearen izpiritu: azken laborearen azpian etzaten da, eta haren gorputzaren gainean jotzen dute alea, eta jendeak esaten du "gizon zaharra hil arte jotzen dutela". Ikusi dugu batzuetan baserritarraren emaztea alea jotzeko makinaren azpian jartzen dutela azken azaoarekin batera, bera ere jo behar bailuten, eta gero haizatzeko keinua ere egiten dutela. Tirolgo Voldersen labore-azalak jartzen dizkiete lepo atzean azken kolpea jotzen duen gizonari, eta lastazao batez estutzen diote lepoa. Garaia bada, uste izaten da hurrengo urteko laborea ere luzea izango dela. Gero azao batez lotu eta ibai batera botatzen dute. Karintian azken kolpea jo duenari eta larrainean azken azaoa askatu duen pertsonari eskuak eta hankak lotzen dizkiete lastoz, eta lastozko koroak jartzen dizkiete buruan. Gero lera batean lotzen dituzte, elkarri begira, herrixkan zehar herrestan eramane eta erreka batean sartzen dituzte. Labore-izpirituaren ordezkaria uretan sartzeko ohitura, urez blaitzearena bezala, euri-xarma izan ohi da.

III. Honaino, azken laborea ebakitzen, lotzen edo jotzen duen gizona edo emakumea izan da laborearen izpirituaren ordezkaria. Orain labore-izpiritu uzta-sorotik pasatzen den arrotzak (Litiensesen ipuinean bezala) edo han lehen aldiz sartzen den bisitari batek ordeztzen dueneko kasuak ikusiko ditugu. Alemania osoan zehar ohitura da segalariek edo jotzaileek pasaeran diren arrotzei heldu eta labore-zurtoinez egindako soka batez lotzea, isun bat ordaindu arte; eta baserritarra bera edo bere gonbidatuetakoa bat soroan edo larrainean lehen aldiz sartzen denean, berdin tratatzen dute. Batzuetan soka besoan edo hankan edo lepoan lotzen diote bakarrik. Baina beste batzuetan osorik biltzen dute laboretan. Hala, Norvegiako Solorren, soroan sartzen den edonor, ugazaba izan nahiz arrotza izan, azao baten barruan lotzen dute eta zerbait ordaindu beharra izaten du, askatuko badute. Soesteko inguruetan, baserritarrak liho-erazuleei lehen aldiz bisita egiten dienean, goitik behera biltzen dute lihotan. Era berean, emakumeek pasatzen direnak inguratu eta lihoz lotzen dituzte, eta pattarretara gonbidatzera behartzen dituzte. Nordlingenen, arrotzak lastozko sokeaz harrapatu eta azao baten barruan lotzen dituzte isuna ordaindu arte. Haselbergeko alemaniarren artean -Bohemiako mendebaldean, alegia- baserritar batek larrainean jotzeko zen azken laborea eman bezain laster, bertan biltzen zuten eta, bere burua askatuko bazuen, gozopila oparitu beharra zeukan. Potangesko kantoian, Normandian, lurjabea azken azaoan edo garitan lotzeko plantak egiten dira oraindik, edo orain mende laurden bat bederen egiten ziren. Eginkizun hori emakumeei dagokie bakarrik. Jabeari oldartzen zaizkio, heltzen diote besoetatik, zangoetatik eta gorputzetik, lurrera bota eta azken azaoaren gainean jartzen dute. Gero, lotzen dutelakoa egiten dute, eta uzta-afarian bete beharreko baldintzak esaten dizkiete. Hark onartzen dituenen, askatu eta jaikitzen uzten diote. Brien, Isle de Francen, etxekoa ez den norbait uzta-sorotik pasatzen denean, segalaria atzetik joaten zaizkio. Harrapatzen badute, azao batean lotu eta bekokian kolpatzen dute, batek bestearen atzetik, esanez: "Soroko giltza eramango duk". "Giltza izatea" uztagileek hainbat lekutan erabiltzen duten esaera da, azken azaoa ebakitzea edo lotzea edo jotzea esan nahi duena. Horregatik, "gizon zaharra daukak" eta "gizon zaharra haiz" esaldien

baliokidea da, azken azaoa ebaki, lotu edo jotzen duenari esaten zaizkion esaldien baliokidea, alegia. Beraz, arrotzen bati, Brien bezala, azao batean lotu eta "soroko giltza eramango duela" esatea, gizon zaharra dela esatea bezalakoa da, hots, labore-izpiritu gorpuztua dela. Lupulu-bilketan, ondo jantzitako arrotzen bat lupulu-sailetik pasatzen bada, emakumeek heldu egiten diote, etzanarazi eta ontzi batean sartzen dute, hostoz estalita, eta ez diote joaten uzten isun bat ordaindu arte.

Beraz, antzinako Litiersesek bezala, Europako segalari modernoek pasatzen zen arrotzari heldu eta azao batean biltzeko ohitura izan dute. Pentsatzekoa da ez dutela antz hori lepoa moztetaino eramango; baina hain gauza gogorra egiten ez badute ere, haien hizkera eta keinuak halakorik egiteko desiraren adierazle dira behinik behin. Adibidez, Mecklenburgen, lehen sega-egunean, ugazaba edo emaztea edo arrotzen bat soroan sartzen bada, edota ondotik pasatu besterik egiten ez badu, segalari guztiak begira geratzen zaizkio, eta segak zorrozten dituzte, zorroztarriak segen kontra joz denek batera, segan egiteko prest baileuden. Gero segalarien buru den emakumea aurreratu eta zerrenda bat lotzen dio ezkerreko besoan. Besteak bere burua aska dezake isun bat ordainduz gero. Ratzeburgetik gertu, ugazaba edo itzaleko beste norbait soroan sartu edo ondotik pasatzen bada, uztagile guztiak lanean tenk egin eta beragana joaten dira batera, gizonak segak aurrean dituztela. Harekin topo egitean lerroan jartzen dira denak, gizon eta emakume. Gizonak lurrean sartzen dituzte segen kirtenak, zorrozterakoan bezala; gero, erantzi txapela eta segatik zintzilik jartzen dute; buru egiten duenak aurreratu eta hitzaldia egiten du. Amaitu ondoren, segak zorrozten dituzte denek, erritmikoki eta oso poliki, eta ondoren txapelak jantzen dituzte. Emakume lotzaileetako bi aurreratzen dira orduan; batek labore-buruz edo zetazko zerrenda batez lotzen du ugazaba edo arrotza (etorri dena nor den, bata ala bestea); besteak eskaintza botatzen dio bertsotan. Ondorengoak segalariak halakoetan egin ohi dituen hitzaldien lagin batzuk dira. Pomeraniako zenbait aldetan, pasatzen diren pertsona guztiak gerarazten dituzte, bidean labore-soka bat jarritz. Segalariak biribilean jartzen dira eta segak zorrozten dituzte, buru egiten duenak hau esaten duelarik:

"Gizonak prest daude,

Segak gertu,

Laborea handia eta txikia da,

Jauna segatu behar da".

Gero segak zorrozten dituzte berriro. Raminen, Stettingo eskualdean, honela zuzentzen zaizkio arrotzari, segalariak biran dituela:

"Jauna joko dugu

Gure ezpata biluziaz,

Zeinez segatzen baititugu zelaiak eta soroak.

Printzeak eta jaunak segatzen ditugu,

Laborariak egarri izaten dira maiz;

Jaunak garagardo eta pattarretara gonbidatzen

bagaitu,

Jolasa laster amaituko da.

Baina gure erregua gogoko ez badu,

Ezpatak eskubidea du kolpatzeko".

Larrainean ere arrotzak labore-izpiritu gorpuztutzat hartzen dira, eta horren arabera tratatzen. Schleswigeko Wiedingharden, arrotz bat larrainera etortzen denean, galdera egiten zaio: "Irakatsiko al dizut idaur-dantza?". Baietz erantzuten badu, idaurraren besoak lepo inguruan jartzen dizkiote labore-azaoa bailitza, eta estutu egiten dituzte ia konortea galtzen duen arte. Wermlandeko zenbait parrokiatan, Suedian, arrotz bat lanean ari diren larrainean sartzen bada, "alea jotzeko dantza irakatsiko diotela" esaten

diote. Idaurra jartzen diote lepo inguruan, eta lastozko soka bat gorputzean zehar. Orobat, ikusi dugun bezala, emakume arrotz bat sartzen bada larrainean, jotzaileek idaurra jartzen diote gorputz inguruan, eta labore-zurtoinezko sorta bat lepo inguruan, eta oihu egiten dute: "Begira labore-andrea! Begira! Horrelakoa da labore-neskutsa!" Beraz, Europa modernoko uzta-ohitura hauetan, laborearen izpiritu gorpuztua bailitzan tratatzen dute azken laborea ebakitzen, lotzen edo jotzen duen pertsona: azaotan bildu, nekazal tresnez hiltzen dutelako plantak egin eta uretara botatzen dute. Litiensesen istorioarekin dituen antzok frogatuko lukete istorio hori Frigiako uzta-ohitura baten deskribapen jatorra dela. Baina adibide modernootan labore-izpirituaren ordezkoko pertsona hiltzea, ezinbestean, ezabatu egiten denez edo alegiaz jokatzeko denez, erakutsi behar litzateke gizarte zibilizatu gabeen gizakiak hil egin izan dituztela, soroen emankortasuna eragiteko nekazal zeremonia gisa. Segidako adibideok argituko dute hori.

3. Uztaren aldeko giza opagaiak

Guayaquilko indiarrek, Ekuadorren, giza odola eta gizonen bihotzak eskaintzen zituzten sakrifizioetan soroak ereiten zituztenean. Cañarko jendeak (gaur egun Cuenca, Ekuadorren) ehun haur sakrifikatu ohi zituen urtero uzta-garaian. Kitoko erregeak - Peruko Inkak, alegia-, eta gero espainiarrak denbora luzez, ez ziren gai izan errito odoltsu hura ezabatzeko. Uzta-jaialdi mexikar batean, sasoiko lehen igaliak eguzkiari eskaintzen zitzaizkionean, kriminal bat bi haitz handiren artean jartzen zuten; harriak bata besteari kontra balantzatu eta elkarren kontra erortzean zapaldu egiten zuten gizona. Haren gorpua ehortzi egiten zuten eta ondoren oturuntza eta dantza etortzen ziren. Sakrifizio hari "bi harriek topo egitea" deitzen zioten. Ikusi dugu jadanik antzinako mexikarrek ere giza opagaiak eskaintzen zituztela artoaren hazialdi guztietan, biktimen adina laborearen adinaren arabera izaten zelarik: jaioberriak sakrifikatzen zituzten ereitean, haur koxkortuagoak alea ernetzen zenean, eta horrela ondo heltzen zen arte; orduan agureak sakrifikatzen zituzten. Zalantzarik gabe, biktimen adinen eta laborearen egoeraren arteko zerikusiak sakrifizioaren eraginkortasuna areagotzen zuela jotzen zen.

Pawnee indiarrek urtero sakrifikatzen zuten giza opagai bat udaberrian, soroak ereiten zituztenean. Sakrifizioa goizeko izarrak agindua omen zen, edota goizeko izarrak mezulari gisa bidali zien txori batek. Txoria diseatuta gordetzen zuten talisman ahaltsu baten gisan. Pentsatzen zuten sakrifizio hori egiten ez bazen, ereindako arto, baberrun eta kalabazak galdu egingo zirela denak. Biktima sexu bateko zein besteko katibua izaten zen. Arroparik alai eta garestienez janzten zuten, janari aukerakoenek elikatzen, eta kontu handia izaten zuten bere patuaren berri izan ez zezan. Nahikoa gizen zegoenean, bidegurutze batera eramaten zuten jendetza guztiaren aurrera, dantza itzaltsu bat dantzatu eta lepoa moztu zioten tomahawk batez, eta gezikatu egiten zuten. Merkatari baten arabera, squawek (emakumeek) haragi-puskak ebakitzen zizkieten biktimaren gorputzari, eta beren aitzurrak gantzutzen zituzten haiekin; zeremonian izan zen beste merkatari batek, ordea, ukatu egin zuen hori. Sakrifizioaren ondoren, berehala, jendeak soroetan landatzeari ekiten zion. Kontakizun bat gorde da, pawneek neska siux bat nola sakrifikatu zuten 1837 edo 1838ko apirilean. Neskak hamalau edo hamabost urte izango zituen, eta sei bat hilabetez eduki zuten, ondo tratatuz. Sakrifizioa baino bi egun lehenago wigwamez wigwam eramane zuten, buruzagi eta gerrarien kontseilu osoa lagun zuela. Bizitza bakoitzean zur-puska bat eta pintura pixka bat ematen zioten, eta berak ondoan zuen gerrariari ematen zizkion. Era honetan wigwam guztietatik pasatu zen, bakoitzean zur eta pintura-opari berdinak jasoz. Apirilaren hogeita biko sakrifikatzeko atera zuten gerrariak, bakoitzak neskaren eskuetatik hartutako bi zur-puska zeramatzalarik. Neskaren gorputz erdia gorritz eta beste erdia beltzez pintatuta

zegoen; urkamendi moduko batera lotu zuten eta, denbora batez su ez-titan erre ondoren, geziz hil zuten. Gero sakrifikatzaile nagusiak bihotza erauzi eta jan egin zion. Artean haragia bero zegoela, puska txikitan ebaki zuten hezurretatik bereiziz; saskitxoetan jarri eta ondoko labore-soro batera eraman zuten. Han buruzagiak haragi-puska bat hartu zuen saski batetik eta odol pixka bat zipriztindu zuen jarri berri ziren labore-aleen gainera. Ondotik beste guztiek ere gauza bera egin zuten, harik eta hazi guztia odolez zipriztindu arte; orduan lurrez estali zuten. Kontakizun baten arabera, biktimaren gorpua ore bihurtu zuten, eta hartaz igurtzi edo zipriztindu zituzten, artoa ez ezik, patatak, baberrunak eta beste hazi batzuk, emankortzeko. Sakrifizio haren bitartez uzta oparoa hartzea espero zuten.

Afrikako mendebaldeko erregina batek gizon bat eta emakume bat sakrifikatu ohi zituen martxoan. Ez-pataz eta aitzurrez hiltzen zituzten, eta gorpuak laboratu berri zen soro baten erdian ehortzen ziren. Gineako Lagosen ohitura zen urtero neska gazte bat bizirik paluztatzea udaberriko ekinozioa iragan eta laster, uzta ona segurtatzeko. Berarekin batera sakrifikatzen ziren ardiak eta ahuntzak eta, ñame, artaburu eta platanoeekin batera, hesoletatik esekitzen zituzten neskaren bi alboetan. Giza biktima haiek erregearen harenean hazten zituzten xede harekin, eta haien gogoak hain zeuden gizon fetitxeek hartara jarriak non pozik joaten baitziren beren patura. Antzeko sakrifizio bat eskaini ohi zen urtero Beninen, Ginean. Marimoek, betxuanen arteko tribu batek, gizaki bat sakrifikatzen dute uzta ona izateko. Aukeratutako biktima gizon motz indartsua izan ohi da gehienetan. Indarrez menperatu edo sorgortu egiten dute, eta soroetara eramaten, eta han gari artean hiltzen dute "hazitarako" (halaxe diote haiek). Odola eguzkitan gatzatu denean, kopetezurrarekin eta beroni datxekion haragiarekin eta garunarekin batera erretzen dute; errautsak lurrean zabaltzen dira, zorua emankortzeko. Gorpuaren beste atal guztiak jan egiten dituzte.

Mindanaoko bagogoek, Filipinetan, giza opagai bat eskaintzen dute arroza erein aurretik. Esklabo bat izaten da biktima, basoan aizkoraz hiltzen dutena. Bontocekoak, Luzongo barrualdean -Filipinetako beste irla bat da hau ere-, oso zaletuak dira giza buruen ehizara. Buru-ehizarako sasoi nagusiak arroza birlandatzekoa eta moztekoa dira. Uzta ona izan dadin, baserri bakoitzak giza buru bat izan behar du gutxienez birlandaketan, eta beste bat ereitean. Buru-ehiztariak binaka edo hiruak joan ohi dira; biktimaren zain egoten dira, gizona nahiz andrea; lepoa, eskuak eta oinak moztzen dizkiote, eta herrixkara eramaten dituzte arrapaladan, eta han bozkario handiz hartzen ditu jendeak. Lehenik kaskezurrak bi edo hiru zuhaitz iharturen abarretan erakusten dira, herri guztietan den zabalune batean, eserlekutarako erabili ohi diren harri batzuen erdian. Orduan jendeak haien inguruan egiten du dantza, eta jan eta edan egiten du horditu arte. Burua haragirik gabe geratutakoan, lepoa moztu duen gizonak etxera eraman eta erlikia bailitza gordetzen du, eta lagunek gauza bera egiten dute esku eta oinekin. Antzeko ohiturak ikusi izan dira apoyaoen artean ere, Luzongo barrualdeko beste tribu batean, alegia.

Lhota Naga tribukoen artean -Brahmaputra ibaiaren haran aberatseko mendi artean bihurritzen diren ibarxka malkar eta bihurrien sakonetan bizi diren tribu basatietako bat da hau-, ohitura arrunta zen aurkitzen zuten jendearen buruak, eskuak eta oinak erauztea, eta soin-atal haiek beren soroetan makila baten puntan jartzea uzta ona segurtatzeko. Ez zuten inolako borondate txarrik begirune gutxiko modu hartan hartzen zituzten pertsonen kontra. Behin bizirik larrutu zuten mutil bat, zatikatu eta haragia herriko guztien artean banatu zuten, eta ondoren kutxetan jarri, zorte txarra saihestu eta uzta ugaria segurtatzeko. Indiako gondek (herri dravidiar bat) mutil brahmanak bahitu eta biktima gisa gordetzen zituzten, abagune berezietan sakrifikatzeko. Ereitean eta uzta-garaian, prozesio larri baten ondoren, mutiletako bat gezi pozoitu batez hiltzen

zuten. Haren odola soro goldatuaren edo uzta helduaren gainera isurtzen zuten; eta haragia, berriz, jan egiten zuten. Chota Nagpurko oraon edo uraonek Anna Kuari izeneko jainkosa bat gurtzen dute, uzta onak eman eta gizona aberats dezakeena, baina hori egin dezan giza opagaiak eskaini behar zaizkio. Gobernu britainiarraren zaingo eta guzti, oraindik ere egiten omen da halako sakrifizioak. Biktimak haur deslaidak eta galdutakoak izaten dira, desagertuta ere inoren arreta erakartzen ez dutenak. Apirilean eta maiatzean ibili ohi dira ehiztari horiek kuxketan. Garai horretan arrotzak ez dira lurralde horretan bakarrik ibiliko, eta gurasoek ez diete utziko hurrei basora joaten edo ganadua zaintzen. Ehiztari horietako batek bere biktima aurkitzen duenean, lepoa moztu dio eta eri nagia goi-partea eta sudurra hartzen ditu. Sakrifizioa eskaini dion gizon ororen etxean hartzen du egoitza jainkosak, eta handik hara gizon horren soroek bi aldiz gehiago emango dute. Jainkosak haur txiki baten itxura hartzen du etxean. Etxajaunak azala kendu gabeko arroza etxeratzen duenean, hartu jainkosa eta arroz-pilaren gainean bueltaka ibiltzen du, arrozaren tamaina bikoizteko. Baina hura laster hasten da urduritzen, eta giza opagaien odol berria eskaini behar zaio bakerik izango badu.

Baina uzta onak segurtatzeko giza sakrifizioen kasurik ezagunena, sistematikoki eskainia, khond edo khandena da, Bengalako beste herri dravidiar batena, alegia. Haietaz dakiguna britainiar ofizialek idatzitako kontakizunetatik jaso dugu, hemeretzigarren mendearen erdi aldean herri hori menperatzen jardun zuten eta. Lur jainkosari eskaintzen zizkieten sakrifizioak, Tari Pennu edo Bera Pennuri, eta hala uzta ona zekarrela eta gaixotasun eta ezbehar orotarik libratzen zuela sinesten zuten. Bereziki, kurkumaren landaketan jotzen ziren beharrezko. Khondek esaten zuten kurkumak ez zuela kolore gorri-gorriak izango odolik isuri gabe. Jainkosak opagaia edo meriah -hala deitzen zioten- onartuko bazuen, jazarria izan behar zuen, edota opagai gisa jaioa -hots, aita opagai zuena edo aitak edo begiraleak haurretan opagaitarako eskainia. Zorigaitzean eroritako khondek beren haurrak opagaitarako saltzen zituzten askotan, "haien arimak santutuko zirelakoan, eta haien heriotza, gizateriaren mesedetan, zitekeenik ohorezkoena zelakoan". Behin Panua tribuko gizon bat ikusi zuten khond bati irainka; azkenez tu egin zion aurpegira, khond hark bere haurra opagaitarako saldua zuelako; panuak harekin ezkondu nahi baitzuen. Khond-talde bat, hura ikustean, berehala aurreratu zen saltzailea kontsolatzera, esanez "zure haurra mundua bizi dadin hil da, eta Lur jainkosak berak xukatuko dizu aurpegiko tu hori". Sarritan urteetan gordetzen zituzten opagaiak, sakrifikatu aurretik. Izaki sagaratutzat zeuzkatenez, xera handiz eta begirunez tratatzen zituzten, eta ongi etorria egiten zitzairen, noranahi joaten zirelarik ere. Gazte meriah bati emaztea ematen zitzaion gehienetan, garaia zenean; emaztea ere meriah edo opagaia izan ohi zen; eta emaztearekin batera lur-zatia edo ganadua jasotzen zituen. Haien haurrak ere opagaiak izaten ziren. Giza sakrifizioak tribuek, tribu-adarrek edo herrixkek eskaintzen zizkieten Lur jainkosari, bai aldikako jaialdietan eta bai abagune berezietan. Tribuek edo tribu-zatiek aldika antolatzen zituzten sakrifizioak, familiburu bakoitzak, urtean behin bederen, haragi-puska bat izan ahal zezan bere soroetarako, gehienetan uzta nagusia ereiten zen garaian.

Hona tribuaren sakrifiziook egiteko modua. Sakrifizioa baino hamar edo hamabi egun lehenago, sagaratu egiten zuten biktima, ordura arte ukitu gabeko ilea moztuz. Gizon eta emakumeen saldo handiak biltzen ziren sakrifizioa ikusteko; inor ezin zen kanpoan utzi, sakrifizioa gizateria osoaren alde baitzen. Aurrez, zenbait egunez, orgia basatia eta lizunkeria gordina izaten zen. Sakrifizioaren aurreko egunean herrixkatik ateratzen zuten opagaia, jantzi berri batez, prozesio larrian, musikak eta dantzak lagunduta, meriahren zuhaiztira, hots, herritik aparte zegoen tantai-multzo aizkorak ukitu gabe

batera. Han zutabe batean lotzen zuten. Zutabe hori batzuetan sankissar izeneko zuhaixka biren artean jartzen zuten. Olio, gantzez (ghee) eta kurkumaz igurtzitzen zuten, eta lorez apaintzen; eta "halako begiramen moduko bat, gurtzatik bereizkaitza" erakusten zioten egun osoan zehar. Sekulako istiluak sortzen ziren haren pertsonatik erlikiarik txikiena lortzeko; igurtzitako kurkuma-orearen pittin bat, edo listuaren tanta bat, bertute zoragarritzko jotzen zituzten, batez ere emakumeek. Jendetzak zutabearen inguruan egiten zuen dantza, lurrari esanez "Oi Jainko, sakrifizio hau eskaintzen dizugu; emaitziguza uzta eta urtaro onak eta osasuna"; gero opagaiari esaten zioten "Prezio batean erosi zaitugu, ez zaitugu lapurtu; orain ohituraren arabera sakrifikatzen zaitugu, eta ez da bekaturik gudan".

Azken goizean berriro ekiten zitzaion orgiari, gau osoan ia etenik gabe iraun ondoren, eta eguerdira arte jarraitzen zuen; orduan amaitu egiten zen, eta bildutakoek sakrifizioa burutzen zuten. Opagaiari olio ematen zioten berriro, eta denek ukitzen zioten olioztatutako aldea, eta gero nork bere buru gainean lehortzen zuen olio. Leku batzuetan biktima prozesioan eramaten zuten herrian zehar, aterik ate, batzuek ileak erauzten zizkiotelarik burutik, eta beste batzuek biktimaren listuaren tanta bat eskaka, harekin beren buruak igurtzitzeko. Biktima lotzerik ez zegoenez, eta berak jarkitzerik ez zeukanez, besoetako hezurak eta, behar izanez gero, hanketakoak hausten zizkioten; baina askotan ez zen beharrezko izaten halakorik, opioz sorgortuta egoten zelako. Hura hiltzeko modua aldatu egiten zen lekutik lekura. Modurik erabilienetako bat iratotzea izan bide zen. Zenbait oineko zartadura egiten zuten zuhaitz heze baten abarrean erdiraino; biktimaren lepoa (beste leku batzuetan, bularra) jartzen zen zartaduran, eta apaiza, laguntzaileekin batera, bere indar osoaz saiatzen zen zartadura ixten. Gero zauri arin bat egiten zion biktimari aizkoraz, eta une hartan jendetza gizajoari oldartu eta haragia hezurretatik erauzten zion, burua eta sabelaldea ukitu gabe. Batzuetan, bizirik zegoela zatikatzen zuten. Chinna Kimedyn soroetan zehar eramaten zuten herrestan, jendetza inguruan zuela. Haragia labanaz erauzten zioten gorputzetik, burua eta hesteak salbu, eta halaxe hiltzen zen. Sakrifikatzeko beste modu oso erabili bat, eskualde hartan, biktima ardatz tinko baten inguruan bueltaka zebilen zurezko elefante baten proboszideari lotzea zen; hura jiratu ahala, jendetzak haragia ebakitzen zion biktimari, bizia geratzen zitzaion bitartean. Herrixka batzuetan Campbell majorrak halako hamalau elefante ere aurkitu zituen, sakrifizioetarako erabilitakoak. Eskualde batean opagaia astiro hiltzen zuten sutan: bi isurialdetako oholta baxua eraten zen, teilatu baten gisakoa; gainean jartzen zuten biktima, beso eta zangoak sokaz lotuta beraren ahaleginak gutxitzeko; sua piztu eta abar beroak hurbiltzen zizkioten, batera eta bestera bihurtziko zedin ahalik eta luzeen; izan ere, zenbat eta malko gehiago isuri, hainbat ugariago izango baitzen euria. Biharamunean, gorputza zatikatu egiten zuten.

Opagaiari ebakitako haragia berehala eramaten zuten etxera herrixka bakoitzetik ordezkari joandako pertsonak. Laster iristea segurtatzeko, batzuetan gizonak erreleboetan eramaten zuten, eta postaren bizkortasunaz garraiatzen zuten laurogei edo ehun kilometroz. Herrixka bakoitzean geratutako guztiek barau zorrotza egiten zuten haragia heldu bitartean. Eramaleak herri-asanbladaren lekuan uzten zuen haragia, eta han hartzen zuten apaizak eta familiburuek. Apaizak erdibitu egiten zuen, eta erdi bat Lur jainkosari eskaintzen zion zulo batean sartuz, bizkarra emanda eta begiratu gabe. Gero gizon bakoitzak lur pixka bat botatzen zion gainera, eta apaizak ura isurtzen zuen basa-kalabaza batetik. Beste haragi-puska etxeko buruak zenbat, hainbat zati egiten zen. Etxeko buru bakoitzak hostotan biltzen zuen bere haragi-pusketa, eta soro aukeratu batean ehortzen zuen, lurrian bizkarra emanda ipiniz, begiratu gabe. Leku batzuetan, gizon bakoitzak bere soroak ureztatzen zituen erreka eramaten zuen bere haragi-pusketa, eta han haga batetik zintzilik jartzen zuen. Hurrengo hiru egunetan ez zen

etxerik garbitzen; eta eskualde batean erabateko isiltasuna gordetzen zen, ezin zen surik egin, ez egurrik ebaki, ez bisitari arrotzik hartu. Talde handiek zaintzen zituzten giza opagaiaren hondarrak (burua, hesteak eta hezurak, alegia) sakrifizioaren ondorengo gauean; eta hurrengo goizean erre egiten zituzten, ardi batekin batera, hileta-pila batean. Errautsak soroetan zehar sakabanatzen ziren, ore bihurtuta jartzen ziren etxe eta aletegien gainean, edo labore berriarekin nahasten ziren hura zomorrotatik gordetzeko. Batzuetan, ordea, burua eta hezurak ehortzi egiten ziren, ez erre. Giza sakrifizioak galarazi eta gero, beste opagai batzuek ordezkatu zituzten gizakiak zenbait lekutan; esate baterako, Chinna Kimedyko hiriburuan ahuntz batek hartu zuen giza opagaiaren lekua. Beste batzuek bufaloa sakrifikatzen dute. Zutabe batean lotzen dute zuhaizti sakratu batean, dantza basatia egiten dute inguruan labanak eskutan hartuta eta, animalia biziaren gainera oldartuz, txiki-txiki egiten dute minutu batzuetan, elkarrekin borrokatuz haragi-hondar bakoitzagatik. Gizon batek zati bat bereganatu orduko, lasterrari ematen dio bere soroetan ehorzteko, ohitura zaharraren arabera, eguzkia sartu baino lehen, eta batzuek urrun joan behar dutenez, oso bizkor ibili behar izaten dute. Emakume guztiek lur-puskak jaurtitzen dizkiete gizon lasterkariei, eta batzuek baita bete-betean jo ere. Laster zuhaizti sakratua, puntura arte arrabotsez betetako lekua izan dena, isilik eta hutsik geratzen da, zenbait pertsona izan ezik; haiek han geratzen dira bufalotik geratu dena begiratzeko, hau da, burua, hezurak eta urdaila; zeremonia batean erretzen dituzte zutabearen oinean.

Khonden sakrifizioetan, adituek Lur jainkosa eztitzeko eskaintako biktima gisa aurkezten dizkigute meriahak. Baina biktimek hil aurretik eta hil ondoren zuten trataeraren arabera, badirudi ohitura ez dagoela esplikatzerik jainko-jainkosak eztitzeko sakrifizio huts gisa. Zalantzarik gabe, haragiaren parte bat Lur jainkosari eskaintzen zitzaion, baina beste partea bere soroetan ehorzten zuen etxajaun bakoitzak, eta gorputzaren beste parteen errautsak soroetan barreiatzen ziren, aletegi gainetan zabaltzen ore gisa, edo labore berriarekin nahasten. Ohiturok adierazten dute meriahen gorputzei berezko ahal bat egozten zietela, ereinak hazaraztekoa, jainkoaren borondate ona erakartzeko eskaintza gisa zukeen eraginkortasun zeharkakoaz gainera. Bestela esan, opagaiaren haragiak eta errautsek lurra emankortzeko ahal magiko edo fisikoa zutela sinesten zen. Berezko ahal horixe egozten zitzairen meriaharen odol eta malkoei: odolak kurkumaren gorria eragiten zuen eta malkoek euria ekartzen zuten; zalantzarik gabe, jatorriz bederen, malkoek euria erakartzen zutela uste zen, euria iragartze hutsaz gainera. Era berean, meriaharen haragi ehortziaren gainera ura isurtzeko ohitura, ezbairik gabe, euri-xarma zen. Orobat, ahal magikoa zen Meriaharen beste tasun bat: haren pertsonarengandik zetorren edozerk, hala nola ileak edo listuak, bertute bikaina zuela uste zen. Ahal hori Meriahari egozteak adierazten du jainkoren bat propiziatzeko sakrifikatutako gizon hutsa baino askoz gehiago zela. Berriz ere, hari erakusten zioten begiramen handiak ondorio bera aterarazten digu. Campbell majorrak, meriahaz ari dela, "gizaki hilkor bat baino zerbait gehiagotzat zeukatela" dio, eta Mcpherson majorrak dioenez, "halako begiramen moduko bat, gurtzatik bereizgaitza dena, erakusten diote". Labur esanda, jatorriz Lur jainkosa ordeztuko zuen edo, agian, landaretzaren jainkoren bat; gerora, ordea, jainkoari eskaintako opagai gisa ikusiko zuten, ez jainko hezur-mamitu gisa. Azken ikuspegi honek -meriah biktimatzat eta ez jainkotzat hartzeak- behar baino enfasi handiagoa jasoko zuen khonden erlijioa deskribatu zuten idazle europarrengandik. Beranduagoko ideia batera ohituta egonik, alegia, sakrifizioa jainkoari egindako eskaintza dela beraren aldekoa lortzeko, europar behatzaileek erlijiozko hilketa oro zentzu horretan interpretatzeko joera dute; suposatzen dute ezen, halako hilketarik gertatuz gero, hiltzaileek sinesten dutela jainkoren bati derrigor gogoko zaiola halako hilketa bat. Hala, idazle horien alde

aurretiko ideiek, oharkabeen, koloreztatu eta desbideratu egiten dituzkete errito basatien deskribapenak.

Jainko baten ordezkoa hiltzeko ohitura bera, zeinen arrastoak ageri diren khonden sakrifizioetan, ikus liteke, agian, lehenago deskribatu ditugun beste giza sakrifizio batzuetan: eraildako marimoaren errautsak barreiatzen ziren soroetan; mutil brahmanaren odola jartzen zen soroan; eraildako nagaren odola gordetzen zen aletegian; eta neska siuxaren odola tantaka isuri zuten haziaren gainean. Orobat, biktima laborearekin identifikatzea -bestela esan, hura laborearen gorpuzte edo izpiritua delako ikuspegia-, ageri zaigu haren eta hark gorpuzten edo ordezten duen gauza naturalaren artean egokitasun fisikoa segurtatzeko hartzen diren arduretan. Hala, mexikarrek biktima gazteak hiltzen zituzten labore gaztearentzat, eta zaharrak labore helduarentzat; marimoek gizon motz eta lodi bat sakrifikatzen dute "hazitarako", motza izatea labore gazteari dagokiolarik, eta lodia izatea ereinentzat nahi den loditasunari; eta pawneek seguruenik asmo berberaz gizentzen zituzten beren biktimak. Orobat, biktimaren eta laborearen arteko identifikazioa ageri da hura laiaz eta aitzurrez hiltzeko afrikar ohituran, eta opagaiak, laborea bailitzan, bi harriren artean xehetzeko mexikar ohituran. Beste puntu batek ere merezi du aipamena ohitura basati hauetan. Buruzagi pawneeak neska siuxaren bihotza jan zuen, eta marimoek eta ghondek biktimaren haragia jaten zuten. Biktima jainkotzat bazeukaten, eta horixe uste dugu guk, berez dator haren haragia jatean gurtzaileek sinesten zutela beren jainkoaren gorputza jaten zutela.

4. Laborearen izpiritua bere giza ordezkariengan erail

Orain arte deskribatutako errito barbaroek badituzte analogiak Europako uzta-ohiturekin. Hala, labore-izpirituari egotzitako emankortze-ahalmena berdin ageri da biktimaren odola edo errautsak hazitarako alearekin nahasteko ohitura basatian eta azken azaoaren alea udaberriko labore gaztearekin nahasteko ohitura europarrean. Orobat, gizakia laborearekin identifikatzea berdin agertzen da biktimaren adina eta altuera uztaren adinari edo altuera benetako nahiz espero denari egokitzeke ohitura basatian. Agertzen da, halaber, Eskoziako eta Estiriako arauetan: labore-izpiritua neskuts gisa sumatzen denean, azken laborea neskuts gazte batek ebaki behar duela; baina laboreen ama gisa sumatzen denean, emakume zahar batek ebaki behar duela. Agertzen da Lorenan emakume zaharrei ematen zaien abisuan ere, alegia, beren buruak babes ditzatela, emakume zaharra erailtzen dutenean, hau da, azken laborea jotzen denean. Baita Tirolgo itxaropenean ere: larrainean azken kolpea jotzen duen gizona altua bada, hurrengo urteko laborea ere garaia izango dela. Gainera, identifikazio berori ageri da labore-izpirituaren ordezkoa aitzurrez edo laiaz, edota bi harriren artean zanpatuta, hiltzeko ohitura basatian; baita europar ohituran ere, ordezkoa segaz edo idaurraz hiltzeko plantak egiten dituztenean. Berebat, khonden ohitura, biktimaren haragi ehortziaren gainera ura isurtzea, europar ohituren parekoa da, labore-izpirituaren pertsona ordezkarien gainera ura isurtzeko edo bera erreka batean sartzeko ohiturena, alegia. Biak, khonden ohitura eta Europakoa, euri-xarmak dira.

Itzul gaitezen Litiensesen istoriora. Erakutsi dugu gizarte hezigabeetan gizakiak uzten hazkundera bultzatzeko erail izan direla. Beraz, ez da ezinezkoa noizbait antzeko xederen batez erailak izana Frigian eta Europan; eta Frigiako elezaharrak eta Europako herri-ohiturok, biak ere elkarrekin bat etorririk, gizonak hala hiltzen zituztelako konklusioa seinalatzen dutenean, konklusio hori onartu beharrean gara, behin-behinekoz bederen. Gainera, bai Litiensesen istorioa eta bai Europako uzta-ohiturak bat datoz honetan: biktima labore-izpirituaren ordezkari zelako erailtzen zen. Eta hori egoki dator zenbait basatik biktimaz duten ikuspegiarekin, hots, uztak hazarazten dituela. Oro har, beraz, pentsa genezake bai Frigian eta bai Europan labore-izpirituaren ordezkoa urtero erailtzen zutela uzta-soroan. Jadanik eman ditugu frogak sinesteko Europan ere urtero

erailtzen zutela zuhaitz-izpirituaren ordezkoa. Bi ohitura nabarmen eta guztiz analogo hauen frogak guztiz independenteak dira elkarrekiko. Kointzidentzia hori bien aldeko argudio berri bat da.

Labore-izpirituaren ordezkoa nola aukeratzen ote zen galderari, emana diogu erantzun bat. Bai Litiensesen istorioak eta bai Europako herri-usadioek erakusten dute pasatzen ziren arrotzak labore-izpirituaren agerpentzat hartzen zirela, ebakitako edo jotako laboretik ihesi zihoazenak, eta horregatik harrapatzen eta erailtzen zituztela. Baina hori ez da datu horrek iradokitzen duen erantzun bakarra. Frigiako elezaharraren arabera, Litiensesen biktimak ez ziren handik pasatzen ziren arrotzak besterik gabe, baizik eta hark lehenik epaitze-lehiaketan irabazi, gero labore-hostotan bildu, eta azkenik lepoa moztu zienak. Horrek iradokitzen du labore-izpirituaren ordezkaria uzta-soroan egiten zen norgehiagoka baten bitartez aukeratzen bide zela, eta galtzaileak zorigaitzeko ohorea onartu behar izaten zuela. Uste hori Europako uzta-ohiturek indartzen dute. Ikusi dugu European batzuetan norgehiagoka izaten dela segalarien artean azkena ez izateko, eta norgehiagoka horretan galtzen duen pertsona, hots, azken laborea ebakitzen duena, zakar tratatzen dutela maiz. Egia esan, ez dugu aurkitu hura hiltzeko plantak egiten direnik; baina bai larrainean azken kolpea jotzen duen gizona, hau da, ale-jotzean galtzen duena, hiltzeko plantak egiten direla. Planta horietan azken laborearen jotzailea labore-izpirituaren ordezkari gisa erailtzen dutenez, eta (ikusi dugunez) ordezkari-tza bera dagokienez azken laborea ebakitzen, lotzen eta jotzen dutenei ere, eta uztagileek gorroto berdina erakusten diotenez lan horietako edozeinetan azkena izateari, pentsa genezake azken laborea ebakitzen, lotzen eta jotzen duten pertsonak hiltzeko plantak egin izan direla eskuarki, eta antzina benetan hiltzen zituztela. Uste hori superstizio arrunt batek egiaztatzen du, alegia, azken laborea ebakitzen duen oro laster hilko dela. Batzuetan pentsatzen da soroan azken azaoa lotzen duen pertsona hurrengo urtean hilko dela. Labore-izpirituaren ordezkari-tza azken laborearen ebakitzailerik, lotzaile edo jotzaileari egozteko arrazoia honako hauxe izan liteke. Uste denez, labore-izpiritu ahal duen bitartean ezkutatzen da labore artean, ebakitzailerik, lotzaile eta jotzaileen aurrean atzera eginez. Baina azken laborea ebakitzean edo azken azaoa lotzean edo azken aleak jotzean, bere gordelektatik derrigor bidaltzen dutenean, beste itxura bat hartu beharra dauka nahitaez, ordura arte izan duen landareena ez bezalakoa. Eta zer forma hartuko du errazago, bera (labore-izpiritu) iraitzi duten laboretik gertuen dagoen pertsonarena baino? Pertsona hori azken laborea ebaki, lotu edo jo duena izan behar nahitaez. Hura harrapatzen dute, beraz, eta labore-izpiritu bera bailitza tratatzen dute.

Hala, uzta-soroan, labore-izpirituaren ordezkari zelakoan, hiltzen zuten pertsona, handik pasatzen zen arrotzen bat izango zen, edota ebakitzen, lotzen edo jotzen azkena izandako uztagilea. Baina bada hirugarren aukera bat ere, antzinako kondairak eta herri-ohitura modernoak seinalatzen dutena. Litiensesek arrotzak hiltzeaz gainera, bera ere hil egin zuten, eta nonbait berak besteak hiltzen zituen bezalaxe, hau da, labore-hostotan bilduz, lepoa moztuz eta ibai batera botaz; eta hori bere lurtean gertatu zitzaion Litiensesi, ez dago esan beharrik. Era berean, uzta-ohitura modernoetan hiltzeko plantak ugazabaren (baserritar edo etxaldearen jabearen) gainean egin bide ziren arrotzen gainean beste. Gogoratzen dugunean Litiensesez esaten zela Frigiako errege baten semea zela, eta kontakizun batean berari ere errege deitzen diotela, eta horri lotzen badiogu hil egin zutela -labore-izpirituaren ordezkari gisa, nonbait-, pentsatu beharrean gara errege jainko-zko edo apaiz haietako bat urtero hiltzeko ohituraren beste arrasto bat dugula hor -Asiako mendebaldeko alde askotan eta bereziki Frigian gobernu izpirituala zuten apaiz haietako bat-. Badirudi ohitura, ikusi dugun bezala, aldatu egin zela leku batzuetan, eta erregearen semea hiltzen hasi zirela erregearen beraren ordezkari. Beraz, aldatutako ohituraren arrasto bat izango zen Litiensesen istorioa, bertsio batean bederen.

Atzera ere Frigiako Litiensesen eta Frigiako Atisen arteko erlazioa itzuliz, gogoratu behar da Pessinoko hirian -errege apaizak zeuden leku batean- apaiz nagusia urtero hiltzen zutela Atis, landaretzaren jainko bat, zelakoan, eta antzinako batek "ebakitako labore-burua" hitzez deskribatu zuela Atis. Hala, Atis, labore-izpirituaren gorputze gisa, bere odezkararen pertsona urtero eraila, Litienses bera zela pentsatuko zuten azken batean, hau nekazal irudia izango zelarik, eta beronetatik garatuko zelarik Atisen estatu-erlijioa. Halaxe izan zitekeen; baina bestetik, Europako herri-ohiturekiko analogiak abisatzen digu jende horren artean landaretzaren bi jainko desberdinek beren ordezkari pertsonal bereziak izango zituztela, eta biak hilko zituztela jainko ziren aldetik urteko bi une desberdinetan. Zeren eta Europan, ikusi dugunez, badirudi gizon bat zuhaitz-izpiritua zen aldetik hiltzen zutela udaberrian, eta beste bat labore-izpiritua zen aldetik udazkenean. Frigian ere halaxe izango zen. Atis zuhaitz-jainkoa zen bereziki, eta laborearekiko lotura zuhaitz-izpirituaren ahalaren luzapen bat besterik ez zen izango, maiatzeko uztako ohituretan adierazten dena bezalakoa. Orobat, Atisen ordezkaria udaberrian hilko zuten; Litienses, aldiz, udan edo udazkenean hilko zuten, Frigian uztaroa zein sasotian den kontu. Oro har, beraz, Litienses Atisen aitzindaritzat hartzerik ez badugu ere, biak ideia erlijioso berberaren emaitza paralelotzat hartu behar dira, eta elkarren artean zegoen erlazioa Europan uztaroko gizon zaharraren eta udaberriko basagizonaren, hosto-gizonaren eta abarren arteko erlazioa izango zen. Biak ere landaretzaren izpirituak edo jainkoak ziren, eta urtero hiltzen zituzten bien ordezkari pertsonalak. Baina Atisen gurtza estatu-erlijioaren mailara iritsi zen bezala, ez dirudi Litiensesen erritoez jatorrizko Frigiako mugak inoiz gainditu dituztenik; erritook beti izan zuten laborariek uzta-soroan burutzen zituzten nekazal zeremonien itxura. Gehienez ere, herrixka batzuk bilduko ziren, khonden artean bezala, giza biktima bat eskuratu eta labore-izpirituaren ordezkari gisa hiltzeko, denen on-beharrez. Halako biktimak errege edo erregea apaizen familietatik aterako zituzten, eta horrek esplikatzeko luke kondairako Litienses Frigiako errege baten semea edota bera ere errege izatea. Herrixkak biltzen ez zirenean, herrixka edo baserri bakoitzak eskuratuko zuen labore-izpirituaren ordezkaria, handik pasatzen zen arrotzen bat edota azken azaoa ebakitzen, lotzen edo jotzen zuen uztagilea hilez. Baliteke antzina batean giza buruak ehizatze ohitura, laborearen hazkundera bultzatzeko bitarteko gisa, hedatuta egotea Europako eta Asiako mendebaldeko biztanleen artean, oraindik ere, edo ia oraintsu arte, Assam, Birmania, Filipinak eta Indiar artxipelagoko nekazal tribuen artean den bezala. Ez dago erantsi beharrik Frigian, Europan bezala, uzta-soroan edo larrainean gizon bat hiltzeko ohitura barbaroa planta huts bihurtuko zela aro klasikoa baino askoz lehenago, eta beharbada segalariek eta jotzaileek bere txantxa gogaikarritzat hartuko zutela; uzta etxeratzeko sasotian loturarik gabe jokatze aukera emango zien pasatzen zen arrotzen batekin, kide batekin edota ugazabarekin berarekin.

Luzatu egin naiz Litiensesen kantan, hainbat konparagai ematen dituelako Europako eta herri basatietako ohiturekin. Asiako mendebaldeko eta Egiptoko beste uzta-kantak, gorago jorratuak, askoz laburrago azter daitezke orain. Bitiniako Bormosen eta Frigiako Litiensesen arteko antzak laguntzen digu bigarrenaz emandako interpretazioa berresten. Bormos, zeinen heriotza, edo hobeto esan, desagertzea urtero deitoratzen baitzuten segalariek lantu-eresi batean, errege baten semea edo gutxienez gizon aberats eta puntako baten semea izango zen, Litienses bezala. Behatzen zituen segalariek haren soroetan jardungo zuten lanean, eta haiantzako ur bila joan zen batean desagertu zen; istorioaren aldaera baten arabera, ninfek eraman zuten, ura hartu nahi zuen iturri edo putzu edo ibaiko ninfek, zalantzarik gabe. Litiensesen istorioaren edo Europako herri-ohituraren argitan ikusita, Bormosen desagertzea hori baserriarra bera labore-azao batean bildu eta uretara botatzeko ohituraren aztarrena izan liteke. Laborariek kantatzen

zuten aire tristea, ebakitako laborean edo giza ordezkorekin batera hildako labore-izpirituaren heriotzagatiko lantua zatekeen; eta egiten zioten deia otoitz bat izango zen, hurrengo urtean indarberriturik itzul zedin.

Feniziako Linosen kanta mahaste-garaian kantatzen zen, gutxienez Asia Txikiko mendebaldean, Homerorengandik ikasi dugunez; eta horrek, Lileoren elezaharrek batera, iradokitzen digu antzinako garaietan mahats-biltzaileek Litienses segalariak erabiltzen omen zituen bezala erabiliko zituztela bidaiari arrotzak. Lileo lidiarrak, hala dio elezaharrek, bere mahastian aitzurtzera behartzen zituen bidaiari arrotzak, harik eta Herkules etorri eta hil egin zuen arte, eta ondoren mahats-landareak sustraitik erauzi. Litiensesena bezalako elezabar baten zirriborroa dirudi; baina ez idazle zaharrek ez herri-ohitura modernoak ematen digute bide xehetasunak osatzeko. Baina gainera, feniziar igitariak ere kantatuko zuten Linosen kanta, zeren eta Herodotok Manerosen kantarekin konparatzen baitu; ikusi dugunez, kanta hori Egiptoko igitariak ebakitako laboreari egindako lantua zen. Gainera, Linos Adonisekin identifikatzen zuten, eta Adonisek badu eskubiderik batez ere labore-jainkotzat hartua izateko. Hala, Linosen lantua, uztaroko kanta gisa, Adonisen lantuen berdina zatekeen; bata eta bestea igitariak laborearen buru ebakien gainean egindako lantuek ziratekeen. Baina Adonis, Atisen antzera, mitologiaren irudi larri bihurtu bazen ere, Feniziako sorterritik urrun zeuden hiri ederretan ere gurtua eta dolu egiten ziotena, aldiz Linos segalariak eta mahats-biltzaileak laborearen eta mahats-landareen artean kantatzen zioten jainkoa baizik ez bide zen. Litiensesen eta Europako nahiz basatien herri-usadioaren analogiak iradokitzen du Fenizian noizbait giza biktimak batek ordezkatzeko zuela eraildako labore-izpiritua -Adonis hila-; eta iradokizun horri Harrango elezabar batek laguntzen dio: bere jaun ankerrak hil omen zuen Tammuz (Adonis), eta hezurak errota batean eho eta haizetara eman zituen. Mexikon, ikusi dugunez, uztaroko giza opagaia bi harriren artean zanpatzen zuten; eta Afrikan eta Indian soroetan barreiatzen zituzten biktimaren errautsak edo bestelako hondarrak. Baina Harrango elezaharra laborearen erroten ehotzearen eta hazia zabaltzearen adierazpide mitikoa besterik ez dateke. Merezi luke iradokitzea ezen Babiloniako Sacaea jaialdi urterokoan, Lous izeneko hilaren hamaseigarren egunean hiltzen zuten txantxazko erregeak, Tammuz bera ordeztuko zuela. Beroso, jaialdi horren berriak eta data dakartzan historialariak, Mazedoniako egutegia erabili bide zuen, bere historia Antioko Soterri eskaini zionez; eta haren garaian Mazedoniako Lous hilabetea Babiloniako Tammuz hilabetea zatekeen. Aieru hori zuzena bada, pentsa daiteke Sacaeako txantxazko erregea jainko gisa hiltzen zutela. Askoz datu gehiago ditugu Egipton labore-izpiritu eraila -Osiris hila- giza opagai batek ordeztzen zuela frogatzeko; segalariak uzta-soroan hilko zuten, eta hil-kanta batean deitoratzeko zuten haren heriotza; grekoek, hitzak gaizki ulertuz, Maneros izena emango zioten hil-kanta hari. Busirisen elezaharrek egiptoarrek Osirisen gurtzarekin lotuta eskaintzen zituzten giza sakrifizioen arrastoa gordeko luke. Busiris Egiptoko errege bat izan omen zen, atzeritar guztiak Zeusen aldarean sakrifikatzen zituen. Ohituraren jatorria Egiptoko lurra bederatzi urtez hartu zuen lehorte batean zegoen. Txipreko azti batek gatzigatu zion Busirisi lehortearen amaitu egingo zela gizon bat urtero Zeusi sakrifikatzen bazion. Hala, Busirisek sakrifizio hori ezarri zuen. Baina Herkules Egiptora etorri zenean, eta aldarera zerratelarik sakrifikatzeko, hautsi bere lokarriak eta Busiris eta beronen semea hil zituen. Beraz, badugu elezabar bat, dioena Egipton urtero giza opagai bat sakrifikatzen zela ereinak gal ez zitezen; eta ideia bat dakar berekin: sakrifizioa ez egiteak antzutasuna ekarriko zuela, hain zuzen urteroko sakrifizioaren bidez saihestu nahi zen antzutasuna. Halaxe pawneek ere, ikusi dugunez, sinesten zuten landatzerakoan giza sakrifizioa egin ezean ereinak erabat galduko zirela. Busiris izena, berez, hiri baten izena zen, pe-Asar, "Osirisen etxea"; Osirisen hilobia

bertan zegoelako deituko zioten horrela hiri horri. Hain zuzen, aditu moderno zenbaitek sinesten dute Busiris zela Osirisen jatorrizko izena, eta beraren gurtza handik zabaldu zela Egiptoko beste aldeetara. Haren hilobian eskaintzen omen ziren giza sakrifizioak; biktimak gizon ile-gorriak izaten omen ziren, eta haien errautsak haizemaile handi batzuez zabaltzen zituzten. Monumentuek berresten dute Osirisen hilobian eskainitako giza sakrifizioen tradizio hau.

Aurreko eztabaidaren argitan, Egiptoko Busirisen tradizio horrek azalpen egoki eta egiantzekoa ametitzen du. Osiris, labore-izpiritua, arrotz batek ordeztu zuen urtero uztan, bere ile gorriak labore helduaren ordezeko egoki bihurtzen zuelako. Gizon hura, ordeztu zuenagatik, uzta-soroan hiltzen zuten, eta lantua jotzen zioten segalariek, eta aldi berean otoitz egiten zuten labore-izpiritua indarberriturik berpiztu eta itzul zedin (mâa-ne-rha, Maneros) hurrengo urtean. Azkenez, erre egiten zuten biktima, edo haren parteren bat, eta errautsak haizemaile handi batzuen bidez zabaltzen zituzten soroetan, emankortzeko. Kasu honetan, biktima -ilegorria- laborearekin zuen antzagatik aukeratzea bat dator jadanik deskribatutako Mexikoko eta Afrikako ohiturekin. Era berean, Mexikon udaburuko sakrifizioan laboreen amatzat hiltzen zen emakumeak gorritz eta horiz pintatuta izaten zuen aurpegia laborearen koloreen sinbolo gisa, eta kartoizko mitra bat eramaten zuen, gainean lumak zituen kulunkari, artoaren mototsaren antzo. Bestalde, Arto Zuriaren Amaren jaietan, mexikarrek legendunak sakrifikatzen zituzten. Erromatarrek txakurkume ilegorriak sakrifikatzen zituzten udaberrian, Ipar izarraren eragin herdoiltzaitetik gordetzeko, sinetsiz hartara ereinak heldu eta gorritu egingo zirela. Harrango paganoek giza opagaiak eskaintzen zituzten eguzkiari, ilargiari eta planetei, ortziko gorputz horien antza zutelakoan aukeratu eta gero; adibidez, apaizek, gorritz jantzita eta odolez bustita, gizon ilegorri eta musugorria eskaintzen zioten "Martitz planeta gorriari", zintzilikario gorriak zituen tenplu gorritz pintatu batean. Biktima jainkoarekin edo ordeztu duen fenomeno naturalarekin berdintzeko kasu hori eta antzekoak, homeopatiatzko edo antzezko magiaren printzipioan oinarritzen dira azken batean: lortu nahi dena errazago lortuko da sakrifizio baten bitartez, sakrifizio horrek eragin nahi den efektuaren antza badu.

Osirisen gorputzaren zatiak sakabanatuta zeudela eta Isisek aurkitutako lekuetan ehortzi zituela dioen istorioa baliteke khondek zutena bezalako ohitura baten aztarna izatea - giza biktima zatikatu eta puskak soroetan ehorztearena, alegia-, nahiz bataren eta bestearen artean kilometro asko egon.

Zuzen banago, Osirisen misterioen giltza Egiptoko igitarien erosta malenkoniazkoak ematen du; erromatarren garaira arte urtez urte entzungo zen soroetan zehar, labore-izpituaren heriotza iragarritz, Osirisen nekazal aitzindariarena, alegia. Ikusi dugunez, antzeko erostak entzuten ziren Asiako mendebaldeko soro guztietan. Antzinakoek diotenez, kantak omen ziren; baina Linos eta Maneros izenen analisiaren arabera, baliteke hitz bakan batzuk besterik ez izatea, oso urrunetik entzun zitekeen nota musikal luzatu batean esanak. Erosta ozen eta luzatu haiek, ahots indartsu ugari batera jaurtita, zirrara eragingo zuten, eta entzuten zituzten ibiltari guztien arreta erakarriko zuten ezbairik gabe. Hotsak, behin eta berriz errepikatuak, erraz samar atzemango ziren urrunetik ere; baina Asian edo Egipton bidaiari zebilen grekoari hitz arrotzek ez zioten esanahirik adieraziko gehienetan, eta igitariak deitzen zioten norbaiten izena zela pentsatuko zuen, bidezkoa zenez (Maneros, Linos, Litienses, Bormos). Eta bidaiari herrialde bat baino gehiagotan zehar ibiltzen bazen, hala nola Bitinian eta Frigian, edo Fenizian eta Egipton, laborea mozten ari ziren garaian, herri horien uztaroko erostak konparatzeko aukera izango zuen. Hala, erraz uler dezakegu zergatik grekoek jasotzen zituzten hain maiz uztaroko erosta horiek eta elkarrekin konparatzen zituzten. Kanta arruntak izan balira, ez zituzketen entzungo halako distantzietara eta, beraz, ez zuten

bidaiarien arreta erakarriko; eta gainera, ibiltariak entzungo balitu ere, ez zituen hain erraz jasoko hitzak.

Devonshireko uztagileek ere antzeko oihuak jaurti izan dituzte ia oraintsu arte, eta, oker ez banago, Osirisen erritoen sorburukoak diren zeremonien guztiz berdintsuak burutzen zituzten soroan. Oihua eta zeremonia honelaxe deskribatzen ditu hemeretzigarren mendearen lehen erdian idatzi zuen behatzaile batek: "Gari guztia ebaki ondoren, Devonon iparraldeko baserri gehienetan uztagileek "lepoa aldarrikatzeko" ohitura dute. Ez dut uste ohitura horri jarraitu gabe geratu direnik lurralde hartako ezein baserri handitan. Honela egiten dute: gizon zahar bat, edo abagune hartako (laborariak azken galsoroan ari direneko) zeremoniak ondo ezagutzen dituen norbait, gabiko eta azaoetara hurbiltzen da eta aurkitzen dituen buru ederrenen eskutadaxo bat hartzen du; eskutada hori kontu handiz lotzen du eta oso gustu onez txirikordatu eta paratzen ditu lastoak. Horri gariaren edo galburuen "lepoa" deitzen zaio. Soro guztia ebaki ondoren eta pitxerraz beste erronda bat egin eta gero, igitariak, lotzaileak eta emakumeak biribilean jartzen dira. "Lepoa" duen pertsona erdian jartzen da, hura bi eskuez helduta daukala. Lehenik makurtu eta lurretik gertu eusten dio, eta gizon guztiek, biribilean, kapelak erantzten dituzte, makurtu eta lurrerantz jartzen dituzte bi eskuez. Gero denak batera hasten dira tonu luze harmoniatsuan "Lepoa!" oihuka, poliki-poliki zutitu ahala, eta besoak eta kapelak buru gainetik altxatzen dituztelarik; "lepoa" duen pertsona ere zutitu egiten da. Hiru aldiz egiten dute hala. Gero aldatu egiten dute oihua, "Wee yen!" "Way yen!", aurrekoan bezala modu luze eta mantsoan botaz, harmonia eta efektu bereziz, hiru aldiz. Azken oihu horri gorputz eta besoen mugimendu berberaz laguntzen diote, "lepoa" oihukatzerakoan bezala... "Lepoa" hiru aldiz errepikatu ondoren, eta "wee yen" edo "way yen" beste hainbestetan, denak barre-algaraka hasten dira, txapel-kapelak airera jaurtiz, saltoka eta zilipurdika, baita neskei musu ematen ere. Orduan laborarietako batek hartu "lepoa" eta bere ahal osoan ematen dio lasterrari baserri alderantz; han esnezalea edo emakumezko zerbitzari gazteetako bat atean izango da balde bat bete ur gertu duela. "Lepoa" duenak etxean inork ikusi gabe edota neska dagoen atetik ez beste nonbaitetik sartzea lortzen badu, orduan mutilak zilegi du neska musukatzea; bestela, honek burutik behera hustuko dio baldekada. Udazkeneko arrats eder batean "lepoa aldarrikatzeak" eragin zoragarria du urrunera, turkiar muezinarena baino askoz ederragoa, Lord Byronen hainbeste goraiatzen bazuen ere, eta kristau-herrietako kanpai guztiak baino ederragoa dela badio ere. Behin edo bitan entzun izan ditut hogeit bat gizon oihuka, eta inoiz beste hainbeste emakumerekin batera ere bai. Orain hiru bat urte, muino batzuetan, gure jendea uzta-lanean ari zelarik, sei edo zazpi "lepo" aditu nituen gau batean, eta seguru dakit haietako batzuk zazpi bat kilometrora zeudela. Eguraldi narean distantzia handietara ere entzun ohi dira batzuetan". Orobat, Bray andreak dioskunez, Devonshiren zehar zebilela, "uztagile-talde bat ikusi zuen biribilean jarrita muinotxo batean, igitaiak altxatuta zeuzkatela. Batek, erdian jarrita, labore-buru batzuk zeuzkan lorez lotuta, eta taldeak hiru aldiz oihukatu zuen (berak honela idazten duen hau): "Arnack, arnack, arnack, we haven, we haven, we haven". Etxera joan ziren lore-eskutadak zeramatzaten emakume eta hurrekin batera, oihuka eta kantuan. Bray andrearen zerbitzariak esan zuen "jendearen jolasak besterik ez zirela haiek, beti egiten ziotela hura uztaren izpirituari". Kasu honetan, Burne andereñoak ohartarazten gaituenez, "Arnack, we haven!" hitzek zera esan nahi dute, noski, Devongo dialektoan: "A neck! We have un! (Lepoa! Lepo bat dugu!)"

Ohitura zahar horren inguruko beste kontakizun batek, Truro izeneko herrian 1839an idatziak, honela dio: "Heliganen, labore guztia ebakitzen dutenean, baserriko gizonak eta neskak etxaurrera joaten dira, eta labore-azao txiki bat eramaten dute, ebakitako azkena, zintaz eta lorez apainduta, eta oso estu lotzen diote alde bat, lepo baten antza

emanez. Gero oihu egiten dute: "Gure (nire) aldea, gure aldea", ahalik eta ozenen; orduan neska esnezaleak baserriko etxajaunari ematen dio lepo hura. Honek hartu eta, oso ozen, hiru aldiz esaten du: "Badut, badut, badut". Beste baserritar batek erantzuten dio oihuka: "Zer dugu? Zer dugu? Zer dugu?" Eta lehenak berriz: "Lepoa, lepoa, lepoa". Eta hau esaten duenean jende guztiak garrasi handi bat egiten du. Hiru aldiz egiten dute hala, eta garrasi izugarria jaurti ondoren afaltzera joaten dira, eta dantzan eta kantuan egiten dute". Beste kontakizun baten arabera, "denak joan ziren sorora azken laborea ebaki ondoren, "lepoa" zintaz eta lorez lotuta zegoen, eta haren inguruan dantzatu ziren, eta sukalde handira eramán zuten, eta gero afaldu egin zuten. Hitzak aurreko kontakizuneko berberak ziren, eta "hip, hip, hack, heck, badut, badut, badut". Atarian eseki zuten". Beste kontakizun batek dio gizon bat sorotik korrika abiatu zela azken azaoarekin, besteak atzetik zituela urez betetako ontziekin, eta azaoa bihitegian sartu aurretik bustitzen saiatu zirela.

Ohitura horietan guztietan onartzen da galburu-sorta bat, gehienetan zutik egondako azkena, labore-izpirituaren lepoa dela eta, beraz, izpirituari lepoa mozten zaiola sorta hori ebakitzean. Era berean, Shropshiren "lepo" izena edo "antzararen lepoa" eman ohi zitzaion soro erdian utzitako azken eskutadari, beste labore guztia ebaki ondoren. Txirikordatu egiten zen, eta igitariak, hamar edo hogeit bat pausora jarrita, igitaiak jaurtitzen zizkieten. Ebakitzen zuenak antzarari lepoa mozten omen zion. "Lepoa" baserritarraren emazteari eramaten zitzaion, eta hark zorte ona izateko gordetzen omen zuen etxean hurrengo uztaroa etorri arte. Trèves inguruan, azken laborea mozten duen gizonak "ahuntzaren lepoa mozten du". Faslanen, Garelochen (Dumbartonshiren), "burua" deitzen zioten azken labore-eskutadari. Aurichen, East Frieslanden, azken laborea segatzen duen gizonak "erbiaren buztana mozten du". Frantziako uztagileek, soroko azken izkinara hurbiltzean, honela esan ohi dute baztuetan: "Katua buztanetik harrapatuta daukagu". Bressen (Borgonian) azken azaoak azeria irudikatzen zuen. Ondoan buru-sorta bat uzten zen zutik, buztan-itxuran, eta igitari bakoitzak, urrats batzuk atzeratuta, igitaiak jaurtitzen zion. Mozten zuenak "azeriaren buztana mozten zuen", eta oihu egiten zen haren ohorez: "You cou cou!". Devonshire eta Kornuallesko adibide horiek nahikoa argitzen dute "lepo" hitzaren esanahia, azken azaoa izendatzean. Labore-izpiritua giza edo animalia itxuran sumatzen da, eta azken laborea haren gorputz-atal bat da: lepoa, burua edo buztana. Baztuetan, ikusi dugunez, zilbortzat hartzen da azken laborea. Azkenez, Devonshireko ohituretako bat, "lepoa" daraman pertsona urez blaitzea, euri-xarma da, aipatu ditugun beste hainbat bezala. Horren parekoa zen, Osirisen misterioetan, Osirisen irudiaren edo haren giza ordezkariaren gainera ura botatzeko ohitura.

xlvi

Laborearen izpiritua animalia itxuran

1. Laborearen izpirituaren animalia gorputzean

Azken azaoari ematen zaion "lepo" hitzak duen esanahia ezartzeko eman ditudan adibide baztuetan, labore-izpiritua animalia itxuran agertzen da: antzara, ahuntz, erbi, katu eta azeri gisa. Horrek segidan aztertuko dugun labore-izpirituaren alderdi berri bat agertzen digu. Honela, jainkoa hiltzearen adibide berriak izateaz gainera, Adonis, Atis, Osiris, Dionisos, Demeter eta Virbioren mito eta gurtzetan oraindik ilun dauden zenbait puntu argitzea espero dugu.

Labore-izpirituak itxura hartzen dien animalia ugarien artean, otsoa, zakurra, erbia, azeria, oilarra, antzara, galeperra, katua, ahuntza, behia (idia, zezena), zerria eta zaldia ditugu, besteak beste. Labore-izpiritua itxura hauetako batean edo bestean omen dago presente laborean, eta azken azaoan harrapatzen edo hiltzen omen dute. Laborea ebaki ahala, animaliak ihes egiten du uztagileen aurrean, eta uztagile bat soroan gaixotzen

bada, uste izaten da ustekabeen labore-izpirituarekin topo egin duela, eta honek horrela zigortu duela sarkin lotsa gutxikoa. "Zekale-otsoak heldu dio" esaten da, edo "uzta-ahuntzak talka egin dio". Azken laborea ebakitzen edo azken azaoa lotzen duen pertsonak animalia izena hartzen du, zekale-urdeme, olo-ahuntz eta abar, eta batzuetan urte osoan gordetzen du izen hori. Orobat, azken azaoaz edo zurez, lorez eta abarrez egindako panpinak irudikatzen du sarritan animalia; etxera eramaten dute azken gurdikadan barre alaien artean. Azken azaoari animali itxura ematen ez bazaio ere, zekale-otsoa, erbia, ahuntza eta horrela deitzen zaio maiz. Gehienetan ale-mota bakoitzak bere animalia omen dauka; azken azaoan harrapatzen dute, eta zekale-otsoa, garagar-otsoa, olo-otsoa, ilar-otsoa edo patata-otsoa deitzen diote, alea zein den; baina batzuetan animalia irudia behin bakarrik egiten da, eta uztaroko azken ale-motarekin batera hartzen. Batzuetan uste da izaki hori igitai edo segaren azken kolpeak hiltzen duela. Baina are sarriago pentsatzen da bizirik irauten duela laborea jo gabe dagoen artean, eta jotako azken azaoan harrapatzen dela. Horregatik, idaurraz azken kolpea jotzen duen gizonaz esaten da berak duela labore-urdemea, larrain-zakurra edo horrelakoren bat. Larraineko lanak amaitutakoan, animalia itxurako panpina egiten da, eta azken azaoa jo duenak auzoko baserri batera eramaten du, han artean larrain-lanetan ari badira. Horrek erakusten duenez, laborea jotzen ari diren artean labore-izpiritua bizirik dagoela uste da. Batzuetan azken azaoa jotzen duenak berak ordeztzen du animalia; eta oraindik larrainean ari diren auzoko baserrikoek harrapatzen badute, ordeztzen duen animalia bailitzan tratatzen dute, zerri-kortan atxilotuz, zerriei egin ohi zaizkien oihuak eginez eta abar. Adierazpen orokor horien adibideak emango ditugu segidan.

2. Laborearen izpiritua otso- edo zakur-itxuran

Otso edo zakur gisa sumatzen den labore-izpirituarekin hasiko gara. Ikusmolde hori gauza arrunta da Frantzian, Alemanian eta herri eslaviarretan. Hala, haizeak laborea mugitzen duenean, nekazariak esan ohi dute "otsoa dabil labore artean", "zekale-otsoa lasterka doa soroan zehar", "otsoa labore artean dago", "zakur eroa laborean dago", "zakur handia han dago". Hurrek labore-soroetara joan nahi dutenean, ale-buruak hartzera edo nabar-loreak biltzera, halakorik ez egiteko esaten zaie, zeren eta "zakur handia laborean baitago", edo "otsoa labore artean eserita dago, eta puskatan zatituko zaitu", "otsoak jan egingo zaitu". Hurrei kontu egiteko esaten zaien otso hori ez da otso arrunta, askotan aipatzen baitira labore-otsoa, zekale-otsoa edo antzekoak; honelakoak esan ohi dituzte: "zekale-otsoa etorriko da zuek jatera, haurrak!", "zekale-otsoak eraman egingo zaituzte", eta abar. Ordea, otso baten itxura osoa du. Feilenhof inguruan (Prusiako ekialdean), otsoa soroan korrika ikusten zutenean, nekazariak buztana airean altxata ala lurrean herrestan zeraman begiratzen zuten. Lurrean herrestan bazeraman, atzetik joan eta eskerrak ematen zizkieten onura zekarkielako, are jaki gozoak ere jartzen zizkieten aurrean. Baina buztana jasota bazeraman, jazarri egiten zioten eta akabatzen saiatzen ziren. Kasu horretan otsoa emankortasun-ahala buztanean duen labore-izpiritua da.

Zakurra eta otsoa labore-izpiritu gorpuztu gisa ageri dira uzta-ohituretan. Esate baterako, Silesiako zenbait aldetan, azken azaoa ebakitzen edo lotzen duen pertsonari gari-zakurra edo ilar-zakurra deitzen zaio. Baina Frantziako iparrekialdeko uzta-ohituretan ageri da argien labore-zakurraren ideia. Hala, uztagile batek, gaixorik dagoelako edo gogorik ezaz edo alferkeriaz, ezin badio jarraitu bere aurrekoari, esan ohi dute "zakur zuria pasa da horren ondotik", "zakur zuria du horrek", edo "zakur zuriak hozka egin dio". Vosgeetan uzta-maiatzari "uztako zakurra" deitzen zaio, eta albitzaren edo gariaren azken eskutada ebakitzen duen pertsonaz esaten da "zakurra akabatu duela". Jurako Lons-le-Saulnieren, azken azaoari zakurra deitzen diote. Verdun

inguruetan segaldia amaitzeko esamolde arrunta "zakurra hiltzera doaz" da; eta Epinalen, ale-motaren arabera, "gari-zakurra hil behar dugu", edo "zekale-zakurra", edo "patata-zakurra" esaten dute. Lorenan azken laborea ebakitzen duen gizonaz "uztako zakurra akabatzen ari da" esaten da. Tirolgo Duxen, larrainean azken kolpea jotzen duen gizonaz "zakurra bota duela" esaten da; eta Ahnebergenen, Stadetik gertu, ale-motaren arabera, labore-txakurra, zekale-txakurra, gari-txakurra deitzen zaio.

Otsoari dagokionez ere beste hainbeste. Silesian, segalariak zutik geratzen den azken labore-saila segatzeko biltzen direnean, esaten da "otsoa harrapatzekotan direla". Mecklenburgeko zenbait aldetan, non labore-otsoaren sinestea bizi-bizirik dagoen, denek diote beldurra azken laborea ebakitzeari, otsoa bertan omen dago eta; horregatik, segalari bakoitzak ahalak eta bost egiten ditu azkena ez izateko, eta emakume guztiek diote beldurra azken azaoa lotzeari, zeren eta "otsoa bertan baitago". Hala, lehia izaten da bai segalarien eta bai lotzaileen artean, azkena ez izatearren. Eta Alemanian, oro har, badirudi gauza arrunta dela "otsoa azken azaoan dagoela" esatea. Leku batzuetan "kontuz otsoarekin" esaten zaio segalariari; edota "otsoa laboretik botatzen ari dela" esaten da. Mecklenburgen zutik dagoen laborearen azken sortari berari deitzen zaio otsoa, eta hura ebakitzen duen gizonak "otsoa du", eta animalari zekale-otso, gari-otso, garagar-otso deitzen diote, ale-mota zelakoa den. Azken laborea segatzen duenari berari ere otsoa edo zekale-otsoa deitzen diote, ereina zekalea bada, eta Mecklenburgeko alde askotan izaera horri atxiki behar izaten zaio halakoa, beste uztagileei hozka egiten dielakoa eginez edo otsoek bezala ulu eginez. Laborearen azken azaoari otsoa, edo zekale-otsoa edo olo-otsoa deitzen zaio, ale-mota zein den, eta hura lotzen duen emakumeaz esaten da "otsoak hozka egin diola", "otsoa duela", "otsoa bota behar duela" (labore-sailetik). Gainera, berari ere otsoa deitzen diote; "otsoa zara" esaten diote garrasika, eta urte osoan eraman behar izaten du izen hori; batzuetan, ale-mota zein den, zekale-otsoa edo patata-otsoa deitzen diote. Rugen irlan, azken azaoa lotzen duen emakumeari otsoa deitzen diote, eta etxeratzen denean hozka egiten die etxekoandrearari eta giltzazainari, eta okela-puska handia jasotzen du horregatik. Baina inork ez du otsoa izan nahi. Emakume bat bera izan daiteke zekale-otsoa, gari-otsoa eta olo-otsoa, baldin eta zekale, gari eta oloaren azken azaoak lotzea tokatu bazaio. Buiren, Koloniako eskualdean, lehenago ohitura zen azken azaoari otso-itxura ematea. Bihitegian gordetzen zen, labore guztia larrainean jo arte. Orduan baserritarrari eramaten zitzaion eta hark garagardoz edo pattarrez busti behar zuen. Mecklenburgeko Brunsauptenen, azken gari-azaoa lotzen zuen emakume gazteak landare-eskutada bat hartu ohi zuen handik, eta "gari-otsoa" egiten zuen; otso baten irudia izaten zen, bi oin luze eta oin erdi garai, hankak zurtain zurrunez irudikatzen zituztelarik, eta buztana eta zurdak galburuek. Emakume berak eramaten zuen gari-otso hori herrira uztagileen buruan; leku garai batean jartzen zen baserriko egongelan, eta han geratzen zen denbora luzean. Leku askotan, otsoa deritzan azaoari giza itxura eman eta arropak janzten dizkiote. Labore-izpiritua giza eta animalia itxuran sumatzeak ideia-nahasketa adierazten du. Gehienetan otsoa azken gurdikadan eraman ohi da etxera oihu alaiaren artean. Horregatik, azken gurdikadari berari ere otsoa deitzen diote.

Orobat, uste da otsoa bihitegiratutako laborean gordetzen dela, harik eta azken eskutadan idaur-kolpeek ateratzen duten arte. Horregatik, Wanzlebenen, Magdeburgetik gertu, larrain-lanaren ondoren nekazariak prozesioan joaten dira, lastotan bildutako gizon bat katea batetik lotuta daramatelarik eta otsoa deitzen diotelarik. Labore-izpiritua irudikatzen du, larrainean jotako laboretik ihes egiterakoan harrapatua. Treves eskualdean sinesten dute labore-otsoa larrainean hiltzen dutela. Gizonek lasto xehatu bihurtu arte jotzen dute azken azaoa. Horrela, pentsatzen dute inolako zalantzarik gabe hil dutela labore-otsoa, azken azaoan ezkutuan baitzegoen.

Frantzian ere labore-otsoa uztaroan agertzen da. Azken laborea epaitu duenari "otsoa harrapatuko duzu" esaten zaio. Chambéry inguruetan biribila egiten dute geratzen den azken laborearen biran, eta "hor dago otsoa" oihukatzen dute. Finisterren, segaldia amaitzeaz dagoenean, uztagileek "hor dago otsoa; harrapatu egingo dugu" oihukatzen dute. Bakoitzak ilara bat hartzen du, eta lehena amaitzen duenak "otsoa harrapat dut" oihukatzen du. Guyennen, azken laborea ebaki ondoren, zikiroa eramaten dute soroaren biran. "Soroko otsoa deitzen diote. Adarrak lore-korua batez eta galburuz apainduak izaten ditu, eta lepoa eta gorputza ere lore-sortaz eta zintaz. Segalari guztiak atzetik joaten zaizkio, kantuan. Gero soroan hiltzen dute. Frantziako alde horretan azken azaoari coujoulage esaten diote; zikiro, alegia, bertako hizkeran. Horregatik, zikiroa hiltzeak azken azaoan presente dagoen labore-izpirituaren heriotza irudikatzen du; baina labore-izpirituaren bi ikusmolde -otso eta zikiro gisa- nahasten dira elkarrekin.

Batzuetan badirudi uste dela otsoa, azken laborean harrapatuta, baserrian bizi izaten dela neguan zehar, udaberrian atzera labore-izpiritu gisa berrekiteko prest. Horregatik, negu-minean, luzatzen hasten diren egunek udaberria badatorrela iragartzen hasten direnean, otsoa berriro agertzen da. Polonian gizona eramaten dute Eguberri egunean, otso-larrua buru gainetik duela; edo otso diseatua eramaten dute diru-bilketan aritzen diren pertsona batzuek. Badira ohitura zahar baten arrastoak: otsoa deitzen zioten gizon bat eramaten omen zuten hostotan bilduta, dirua bildu bitartean.

3. Laborearen izpirituak oilar-itxuran

Labore-izpirituak beste forma bat hartu ohi du askotan: oilarrarena. Austrian haurrei labore-soroetan kontuz ibiltzeko esaten zaie urrunduz gabe, labore-oilarra han dela eta begiak aterako dizkiela mokoka. Alemaniako iparraldean esan ohi dutenez, "oilarra azken azaoan dago"; eta azken laborea ebakitzera segalariek oihuka esaten dute: "Orain oilarrari esetsiko diogu". Ebaki ondoren, esaten dute: "Harrapatu dugu oilarra". Trantsilvaniako Brallerren, segalariak azken labore-sailera iristen direnean, oihu egiten dute: "Hementxe harrapatuko dugu oilarra". Furstenwalden, azken azaoa lotzerakoan, ugazabak saskian gordeta eduki duen oilarra jaregiten du soroan. Uztagile guztiek esesten diote, harrapatu arte. Beste leku batzuetan uztagile guztiak azken laborea ebakitzeko saiatzen dira; lortzen duenak kukurrukua jo behar du, eta oilar deitzen diote. Wendtarren artean ohitura da, edo zen, baserriarrak oilar bat bizirik ezkutatzea azken azaoaren azpian, soroan; eta laborea biltzean, azao hartara iristen zen uztagileak oilarra beretzat hartzeko eskubidea zuen, baldin eta harrapatzen bazuen. Hori izaten zen uzta-jaialdiaren amaia, eta "oilar-harrapaketa" deitzen zitzaion; uztagileei sasoi hartan zerbitzatzen zitzaion garagardoa "oilar-garagardo" izenez ezagutzen zen. Azken azaoari oilar, oilar-azao, uzta-oilar, uzta-oilo, udazkeneko oilo deitzen diote. Bereizi egiten dira gari-oilarra, baberrun-oilarra eta abar, alea zein motatakoa den. Turingiako Wunschensuhlen, oilar-itxura ematen zaio azken azaoari, eta uzta-oilarra deitzen. Oilar baten irudia jartzen dute uzta-gurdiaren aurrean, egurrez, kartoiz, labore-buruz eta lorez egina, batez ere Westfalian, non oilarrak lurraren igali-mota guztiak eramaten dituen mokoan. Batzuetan oilar-irudia lotzen da maiatz-arbola baten puntan, azken uzta-gurdikadaren gainean. Beste leku batzuetan oilar bizia, edo oilar baten irudia eransten zaio uzta-korua bati eta haga batean garraiatzen da. Galitzian eta beste leku batzuetan, ale-buruen sortari edo loreei lotzen zaie oilar bizi hori, eta emakume segalarien arteko nagusiak eramaten du buru gainean, uzta-prozesioaren aurrean doalarik. Silesian oilar bizia plater batean aurkezten zaio ugazabari. Uzta amaierako afariari uzta-oilarra, galtzu-oilarra eta abar deitzen zaio, eta afari horretako plater nagusia, leku batzuetan behintzat, oilarra izaten da. Orgazain batek uzta-orga bat iraultzen badu, "uzta-oilarra irauli duela" esaten da, eta oilarra galtzen du, hau da, uzta-afaria. Uzta-gurdia gainean oilar baten irudia duelarik eramaten dute baserriaren biran, bihitegian sartu aurretik.

Gero etxeko atearen gainean edo ondoan iltzatzen dute oilarraren irudia, edota goi-habeen, eta hurrengo uztara arte geratzen da bertan. Frienslandeko ekialdean, larraineen azken kolpea jotzen duen pertsonari oilo klokaria deitzen zaio, eta artalea zabaltzen zaio aurrean, oiloa bailitzan.

Orobat, labore-izpiritua oilar-itxuran hiltzen dute. Alemania, Hungaria, Polonia eta Pikardiako zenbait aldetan, segalariak oilar bizia jaregiten dute azkena ebaki behar den labore artean, eta soroan zehar esesten diote, edo leporaino lurperatzen dute; gero lepoa moztzen diote igitaiak edo segaz. Westfaliako alde askotan, uztagileak baserritarrari zurezko oilarra eramaten diotenean, hark oilar bizia ematen die, eta zigorkadaz edo makilakadaz akabatzen dute hegaztia, edota lepoa moztzen diote ezpata zahar batez, edo bihitegian jaurtitzen diete neskei, edo etxekoandreari ematen diote uzta-oilarra irauli ez bada -hau da, gurdirik irauli ez bada-, uztagileak etxeko oilarra harrika edo lepoa moztuz akabatzeke eskubidea izaten dute. Ohitura hori galdu den lekuetan, oraindik ere gauza arrunta da baserritarraren emazteak oilar-salda egitea segalarientzat, eta zopa hori egiteko akabatutako oilarraren burua haiei erakustea. Trantsilvaniako Klausenburg-en oilarra ehortzen dute soroan, burua besterik uzten ez dutelarik agerian. Gizon gazte batek sega hartu eta lepoa moztzen dio kolpe bakar batez. Huts egiten badu, oilar gorria deitzen diote urte osoan, eta jendea beldur izaten da hurrengo urteko uzta txarra izango ez ote den. Udvarhely inguruan, Trantsilvanian, oilar bizia lotzen dute azken azaoan, eta burduntzi batez akabatzen dute. Gero lumatu eta larrutu egiten dute. Haragia bota egiten da, baina azala eta lumak hurrengo urtera arte gordetzen dira; eta udaberrian azken azaoko alea oilarraren lumekin nahasten da, eta laboratuko den soroan zabaltzen. Beste ezerk ez du argiago adierazten oilarraren eta laborearen izpirituaren arteko identifikazioa. Oilarra azken azaoan lotu eta akabatzeak adierazten du oilarra laborearekin identifikatzen dutela, eta hura hiltzea laborea ebakitzearekin. Lumak udaberrira arte gorde eta gero oilarra lotzeko erabilitako azaotik bertatik hartutako haziarekin nahasiz, are gehiago nabarmenarazten da hegaztiaren eta laborearen arteko identifikazioa; eta hegaztiak labore-izpirituaren gorpuzte gisa duen ahalmen bizkortzaile eta emankortzailea modurik argienean burutzen da. Beraz, uztaroan akabatzen dute oilar-itxurako labore-izpiritua, baina berriz jaiotzen da udaberrian. Orobat, hegaztia burua agerian duela ehortzi eta (labore-buruak bezala) lepoa segaz mozteko ohiturak aurrekoak bezain argi adierazten du oilarraren eta laborearen baliokidetzat hori.

4. Laborearen izpiritua erbi-itxuran

Erbi gisa ere agertzen da gorpuztuta labore-izpiritua. Gallowayn, zutik geratzen den azken laborea ebakitzeari "Erbia ebakitzea" esaten zaio. Hona nola ebakitzen duten. Beste labore guztia epaitu ondoren, eskutada bat uzten da zutik erbia eratzeko. Hiru partetan banatu eta kordatu egiten da, eta buruak korapilo batean lotzen dira. Segalariak metro batzuk atzeratzen dira eta bakoitzak bere igitaiak jaurtitzen dio txandaka erbiari, harik eta batek zurtoinak korapiloaren azpitik ebakitzea lortzen duen arte. Gero erbia etxera eramaten da eta sukaldeko neskame bati ematen zaio, eta hark barruan jartzen du, sukaldeko atearen gainean. Batzuetan erbia horrela edukitzen zen hurrengo uztarora arte. Minnigaffeko parrokiaren, erbia ebakitzen zutenean, uztagile ezkongabeak beren ahal osoan abiatzen ziren lasterka, eta lehena iristen zena lehena izango zen ezkontzen. Alemanian ere, azken azaoaren izenetako bat erbia da. Anhalteko zenbait aldetan, adibidez, laborea ebaki eta zurtoin bakan batzuk bakarrik geratzen direnean zutik, "laster etorriko da erbia" esan ohi da, edo segalariak oihukatzen diote bata besteari: "Begira nola datorren erbia saltoka". Prusiako ekialdean esaten dute zutik geratzen den azken labore-sailean dagoela erbia, eta azken uztagileak atera behar duela. Segalariak bizkor aritzen dira lanean, denak ere larri, "erbia atera" beharrik ez izateko; izan ere, hori egiten duen gizonari, hau da, azken laborea ebakitzen duenari, burla handiak egiten

zaizkio. Aurichen, ikusi dugunez, azken laborea ebakitzea adierazteko esamolde bat "erbiaren buztana moztea" da. Alemanian, Suedian, Holandan, Frantzian eta Italian "erbia akabatzen ari da" esan ohi da azken laborea ebakitzen duen gizonaz. Norvegian "erbia akabatu" duela esaten zaion gizonak "erbiaren odola" eman behar die edatera lagunei pattar-itxuran. Lesbosen, segalariai elkarren ondoko bi sorotan lanean ari direnean, alde batekoak eta bestekoak lehenak amaitzen saiatzen dira, erbia auzokoaren sorora eramateko; hori egitea lortzen duten segalariek uste izaten dute hurrengo urteko uzta hobe izango dela. Azaotxo egin eta santuren baten irudi margotuaren ondoan jartzen da hurrengo uztarora arte.

5. Laborearen izpiritua katu-itxuran

Orobat, batzuetan labore-izpirituak katu baten itxura hartzen du. Kielen ondoan hurrei labore-soroetara ez sartzeko esaten zaie, "katua dabilela han". Eisenach Oberlanden, "labore-katua etorriko da eta harrapatu egingo zaitu" esaten da; "labore-katua labore artean dabil". Silesiako zenbait aldetan, azken laborea ebakitzera, "katua harrapatuta dago" esaten dute; eta larrinean, azken kolpea jotzen duen gizonari katua deitzen zaio. Lyons inguruetan azken azaoari eta uzta-afariari, biei deitzen diete katua. Vesoul aldean, azken laborea ebakitzen dutenean, "katua buztanetik daukagu" esaten dute. Briançonon, Dofinerrian, segaldia hastean, katu bat apaintzen dute zintaz, lorez eta labore-buruz. Bola-larruzko katua deitzen diote (le chat de peau de balle). Segalari bat zauritu egiten bada lanean, katuari zauria miazkarazten diote. Segaldia amaitzean katua berriro apaintzen dute zintaz eta labore-buruz; gero dantza eta festa egiten dute. Dantza amaitutakoan, neskek bere apaingarri guztiak kentzen dizkiote katuari itzal handiz. Grunebergen, Silesian, azken laborea ebakitzen duen segalaria katar izendatzen dute. Zekale-zurtoinetan eta zume hezetan biltzen dute, eta buztan luze kordatua eransten diote. Batzuetan gizon bat izaten dute lagun, berdin jantzita, eta gizon horri katemea deitzen zaio. Bien egitekoa jendearen atzetik ibiltzea da, ikusten dituzten guztiak makila luze batez jotzea. Amiens inguruan uzta amaitzeko esamoldea "katua akabatzerako" da; eta azken laborea ebakitzen denean katu bat akabatzen dute eskortan. Alea jotzean, Frantziako zenbait aldetan, katu bizia ipintzen dute jotzeko dagoen azken labore-mordoaren azpian, eta idaurrez kolpeka akabatzen dute. Gero igandean erre eta jai-egunean jaten dute. Vosge mendietan belar-moztearen edo uztaren amaiari "katua harrapatzea" esaten zaio, "zakurra akabatzea" edo, bakanago, "erbia harrapatzea". Katua, zakurra edo erbia gizena ala flakoa izango omen da, uzta ona ala txarra izatearen arabera. Azken belar edo gari-eskutada ebakitzen duen gizonaz esaten da katua edo erbia harrapatu dituela, edo zakurra akabatu duela.

6. Laborearen izpiritua ahuntz-itxuran

Labore-izpiritua ahuntz baten itxuran ageri da askotan. Prusiako zenbait aldetan, haizeak laborea makurrarazten duenean, "ahuntzak elkarren atzetik dabiltza" esan ohi dute, edo "haizeak labore artean darabiltza ahuntzak", "ahuntzak muskilak jaten ari dira hor zehar", eta oso uzta ona espero izaten dute. Orobat, "olo-ahuntza olo-soroan dabil" esaten dute, edo "labore-ahuntza zekale-soroan dabil". Hurrei abisu ematen zaie labore-soroetan ez sartzeko nabar-lore bila, edo baberrun artean gardulatz bila, zekale-ahuntza, labore-ahuntza, olo-ahuntza edo baberrun-ahuntza han dautzalako, eta eraman edo hil egingo dituztelako. Uztatile bat gaixotu edo lanean atzeratu egiten denean, esaten dute "uzta-ahuntzak bultza egin dio", "labore-ahuntzak bultza egin dio". Braunsberg inguruetan (Prusiako ekialdean), uztatile guztiak saiatzen dira oloak lehenbailehen lotzen, "labore-ahuntzak bultza ez ditzan". Oefotenen, Norvegian, segalari bakoitzak bere saila izaten du. Segalari batek bere saila amaitu ez bada auzokoek amaitu dutenean, "irlan geratu da" esaten diote. Eta atzeratutakoa gizonezkoa bada, akerraren marrua imitatzen dute; emakumea bada, ahuntz baten marruaz deitzen

diote. Straubingen ondoan, Bavaria Beherean, azken laborea ebakitzen duen gizonaz esaten da "labore-ahuntza ebaki duela, edo gari-ahuntza, edo olo-ahuntza", zer ale-mota den. Gainera, bi adar jartzen dira azken labore-pilan, eta pilari "ahuntz adarduna" deitzen diote. Kreutzborgen, Prusiako ekialdean, azken azaoa lotzen ari den emakumeari "ahuntza azaoan dago" esaten diote. Gablingenen, Suabian, baserri bateko azken olo-soraa segatzen ari direnean, segalariek zurezko ahuntza egiten dute. Olo-buruak jartzen dizkiote sudurzuloetan eta ahoan, eta lore-sortaz apaintzen dute. Soroan zutik jartzen dute, eta olo-ahuntza deitzen diote. Uztaroa amaitzear dagoenean, segalari bakoitza bere saila lehenengo amaitzen saiatzen da; azkena amaitzen duenak bereganatzen du olo-ahuntza. Orobat, azken azaoari berari ahuntza deitzen zaio. Hala, Wiesenteko haranean, Bavarian, soroan lotutako azken azaoari ahuntza deitzen zaio, eta badute erretra bat ere, "soroak ahuntz bat izan behar du". Spachbrucken, Hessen, moztutako azken labore-eskutadari ahuntza deitzen diote, eta hura ebakitzen duen gizonari burla handiak egiten dizkiote. Durrenbuchigen eta Mosbach inguruan ere, Badenen, azken azaoari ahuntza deitzen diote. Batzuetan azken azaoari ahuntz-itxura ematen diote, eta esaten dute: "Ahuntza dago bertan". Orobat, azken azaoa ebaki edo lotzen duen azaoari ahuntza deitzen diote. Hala, Mecklenburgeko alde batzuetan azken azaoa lotzen duen emakumeari "uzta-ahuntza zara" esaten diote. Uelzen inguruan, Hannoverren, "uzta-ahuntza eramateak" ematen dio hasiera uztaroko jaiari; alegia, azken azaoa lotzen duen emakumea lastoz biltzen dute, uzta-koraa janzten diote eta orgatila batean eramaten dute herrira, eta han dantzaldia egiten da. Lunegurg inguruan ere, azken laborea lotzen duen emakumea labore-buruzko koraa batez apaintzen dute, eta labore-ahuntza deitzen diote. Badengo Munzesheimen, azken arto edo olo-eskutada ebakitzen duen segalariari artoaren ahuntza edo oloaren ahuntza deitzen diote. Saint Gall kantoian, Suitzan, azken eskutada ebakitzen duen edo azken gurdikada bihitegira eramaten duen pertsonari artoaren ahuntza edo zekalearen ahuntza deitzen diote, edota ahuntza, besterik gabe. Thurgau kantoian laborearen ahuntza deitzen zaio; txintxarri bat izaten du lepoan, ahuntzek bezala; garaipen-hotsean eramaten dute, eta pattarrez bustitzen. Estiriako zenbait aldetan ere, azken azaoa ebakitzen duen gizonari artoaren ahuntza, oloaren ahuntza edota horrelako zerbait deitzen diote. Arau gisa, artoaren ahuntza izena bereganatzen duen gizonak urte osoan eraman behar izaten du hurrengo uztara arte.

Ikuspegi baten arabera, labore-izpiritua, ahuntz baten edo bestelako itxuran harrapatu dena, baserrian edo bihitegian bizi izaten da neguan. Hortaz, baserri bakoitzak labore-izpirituaren gorpuzte bat izaten du. Baina beste ikuspegi baten arabera, labore-izpiritua jeinu edo jainko bat da, ez bakarrik baserri bateko laborea, labore guztia baizik. Horregatik, baserri batean labore guztia ebakitzen dutenean, hark oraindik labore guztia ebaki gabe duten beste batera aldegiten du. Ideia hori Skyen zuten uzta-ohitura batean ageri da. Segalana lehenik amaitzen zuen baserritarrek gizon edo emakume bat bidaltzen zuen azao batekin artean amaitu ez zuen auzoko baserritar batengana; honek ere, amaitutakoan, artean sega-lanean ari zen auzoren bati bidaltzen zion azaoa; eta horrela, azaoa baserriz baserri ibiltzen zen labore guztia ebakita zegoen arte. Azaoari goabir bhaugh deitzen zioten, hau da, ahuntz herrena. Dirudienez, ohitura hori ez da desagertu oraindik, ez dira urte asko Skyetik beraren berri eman zutela. Labore-izpiritua laborea ebakitzeko elbarritzen zutelako irudikatuko zen herrenduta. Batzuetan azken azaoa etxeratzen duen emakume zaharrak hanka bakarrean joan behar izaten du.

Baina batzuetan jotzen da igitaiak edo segak hil egiten duela uzta-soroan labore-izpiritua, ahuntz baten itxuran. Hala, Bernkastel inguruetan, Mosela ibaiaren ondoan, segalariek zotzetara erabakitzen dute ordena, nor noren atzetik arituko den. Lehenengoari buruko segalaria deitzen diote, azkenari buztanekoa. Segalari batek

aurrekoa pasatzen badu, beronen biran segatzen du, segalari motelagoa sail batean isolatu arte. Sail horri ahuntza deitzen zaio; eta era horretan "ahuntza ebaki dioten" segalariari burla eta iseka ugari egiten zaio egun osoan. Buztaneko segalaria azken labore-buruak ebakitzen ari denean, esaten da "lepoa mozten ari zaiola ahuntzari". Grenoble inguruetan, sega amaitu baino lehen, ahuntz bizi bat apaintzen dute lorez eta zintaz, eta soroan jaregiten dute. Segalariak jazarri egiten diote eta harrapatzen saiatzen dira. Harrapatutakoan, etxajaunaren emazteak gogor heldu eta etxajaunak lepoa mozten dio. Ahuntzaren okela uzta-afarirako izaten da. Okela-puska bat gatzundu eta hurrengo uztara arte gordetzen da, beste ahuntz bat hiltzen den arte. Gero uztagile guztiek jaten dute okela. Egun horretantxe ahuntzaren larruaz bizkar-atorra egiten dute, eta baserritarrak, bere morroi eta langileekin lanean ari denean, beti jantzita behar izaten du uztaroan euria edo eguraldi txarra bada. Baina segalari batek bizkarreko mina badu, baserritarrak ahuntzaren larrua jantz dezan uzten dio. Horren arrazoia, nonbait, hauxe da: bizkarreko mina labore-izpirituak erakarri dionez, sendatu ere berak senda dezakeela. Era berean, ikusi dugu beste leku batzuetan, segalari bat zauritu egiten denean segatzerakoan, katu bati miazkarazten diotela zauria, labore-izpirituaren ordezkaria delakoan. Mon irlako estoniar segalariak uste dute uztaroan lehen ale-buruak ebakitzen dituen gizonak bizkarreko mina izango duela, labore-izpiritua lehen zauri hori gehiago sentitzen duelako edo; eta, bizkarreko minari ihes egiteko, Trantsilvaniako saxoniar segalariak ondo biltzen dituzte beren giltzurrunak ebakitako lehen eskutadez. Kasu honetan ere labore-izpiritua sendatzeko edo babesteko erabiltzen da, baina bere jatorrizko landare-eran, ez ahuntz edo katu baten itxuran.

Bestalde, ahuntz-itxurako labore-izpiritua bihitegian gordetako laborearen artean ezkututzen dela uste izaten da batzuetan, idaurrak handik ateratzen duen arte. Hala, Badenen, larrainean jotzeko azken azaoari arto-ahuntza, galxuri-ahuntza edo olo-ahuntza deitzen diote, zein ale-mota den. Orobat, Marktl ondoan -Bavaria Garaian, alegia-, azaoei lastahuntzak edota ahuntzak, besterik gabe, deitzen diete. Pila handi batean uzten dira soroan, eta gizonak bi ilaratan jarrita jotzen dituzte; idaurrak astintzerakoan, kanta bat kantatzen dute, esanez lastahuntza ikusten dutela zurtoinen artean. Azken ahuntza, hau da, azken azaoa, bioleta-sorta batez eta beste lore batzuez apaintzen dute, baita elkarrekin kordatutako opiltxoaz ere. Pilaren erdi-erdian jartzen dute. Jotzaile batzuek korrika joan eta daukan onena kentzen diote; beste batzuek idaurrak astintzen dituzte, hain arduragabe, non batzuetan kazkar hautsiak ere izaten diren. Tirolgo Oberinntalen, azken jotzaileari ahuntza deitzen diote. Esate baterako, Haselbergen, Bohemiako mendebaldean, larrainean oloari azken kolpea jotzen dion gizonari olo-ahuntza deitzen diote. Wurtenburgeko Tettnangen, azken azaoari itzuli baino lehen azken kolpea jotzen dion jotzaileari akerra deitzen diote, eta "akerra bidali duela" esaten da. Azaoa itzuli ondoren azken kolpea jotzen dion pertsonari ahuntza deitzen diote. Ohitura horretan sineste hau datza, laborean bi labore-izpiritu bizi direla, bat arra eta bestea emea.

Bestalde, labore-izpiritua, larrainean alea jotzerakoan ahuntz baten itxuran harrapatua, artean larraineko lana amaitu ez duen auzokoari pasatzen zaio. Franche Comté larrainekoak burutu bezain laster, gazte-jendeak ahuntz baten irudia egiten du lastoz oraindik jotzen ari den auzoko baten eskortan. Honek ardoa edo dirua eman behar die ordainetan. Wurtemburgeko Ellwangen, ahuntz baten irudia egiten dute larrainean azken labore-azaoaz; lau makilak hankak osatzen dituzte, eta bi makilak adarrak. Idaurraz azken kolpea jotzen duen gizonak oraindik jotzen ari den auzokoren baten bihitegira garraiatu behar du ahuntza eta haren larrain barrura bota behar du; hori egitean harrapatzen badute, ahuntza bizkarrean lotzen diote. Antzeko ohitura dute Indersdorfen, Bavaria Garaian; lastozko ahuntza auzokoaren bihitegian jaurtitzen duen

gizonak ahuntzaren bekerekea imitatzen du; harrapatzen badute, aurpegia belzten diote eta bizkarrean lotzen diote ahuntza. Alsaziako Savernen, baserritar bat auzokoak baino astebete edo gehiagoko atzerapenez dabilenean larrain-lanetan, ahuntz disekatua edo azeria jartzen diote ate aurrean.

Batzuetan, laborearen izpiritu ahuntz-itxurakoa larrainean hiltzen dutela sinesten da. Traunsteingo eskualdean, Bavaria Garaian, pentsatzen dute olo-ahuntza oloaren azken azaoan dagoela. Kirtena lurrean sartu eta zutik jarritako arrastalu zahar baten bidez irudikatzen dute, buruaren lekuan pote zaharra duela. Haurrei esaten zaie olo-ahuntza hiltzeko.

7. Laborearen izpiritua zezen-, behi- edo idi-itxuran

Labore-izpirituak zezen, behin edo idi baten itxura hartu ohi du askotan. Haizeak laborearen gainetik jotzen duenean, honela esan ohi dute Prusiako mendebaldeko Conitzen: "Txekorra dabil labore artean korrika"; laborea lodia eta sendoa denean, Prusiako ekialdeko zenbait aldetan honela esan ohi dute: "Zezena datza labore artean". Uztagile bat jota geratu eta zabuka dabilenean, Prusiako mendebaldeko Graudenzeko eskualdean "zezenak adarka egin dio" esan ohi dute; Lorenan "zezena du" esaten dute. Bi esamoldeek esan nahi dute estropezu egin duela oharkabea jainkoazko labore-izpirituarekin, eta honek flakiaz zigortu duela sarkin profanoa. Cambéry ondoan ere, uztagile batek bere burua igitaiaz zauritzen duenean, esaten da "idiaren zauria" duela. Bunzlaueko eskualdean (Silesian) azken azaoari idi adardun baten itxura ematen diote, iztupaz bete eta labore-burutan biltzen dute. Irudi horri gizon zaharra deitzen zaio. Bohemiako zenbait aldetan azken azaoari giza itxura ematen zaio, eta bufalo-zezena deitzen diote. Kasu hauek labore-izpirituaren giza eta animali formen nahasketa erakusten dute. Nahasketa hori zikiri bat otso izenez hiltzea bezalakoa da. Suabia osoan zehar, soroan geratzen den azken azaoari behia deitzen diote; azken buruak ebakitzen dituen gizonak "behia du", eta berari ere behi edo garagar-behi edo olo-behi deitzen diote, ale-motaren arabera. Uzta-afarian lore-sorta bat eta labore-buruak jasotzen ditu, eta besteek baino ardo gehiago, baina burla eta iseka egiten diote. Horregatik, inork ez du behia izan nahi. Batzuetan labore-buruz eta labore-lorez egindako emakume baten irudiak irudikatzen zuen behia. Azken labore-eskutada ebaki zuen gizonak eramaten zuen baserrira. Haurrak haren atzetik joaten ziren eta auzokoek barre egiten zioten, harik eta baserritarrek behia hartzen zion arte. Hemen ere nabaria da labore-izpirituaren giza eta animali itxura. Suitzako zenbait aldetan azken labore-buruak ebakitzen dituen segalariari gari-behi, arto-behi, olo-behi edo txekor-behi deitzen diote, eta denen trufagai izaten da. Rosenheim eskualdean, ordea, Bavaria Garaian, baserritar bat auzokoak baino beranduago dabilenean uzta bihitegiratzen, lastozko zezena jartzen diote bere lurretan. Galtzuz eta zurajez egindako zezen handi baten irudia izaten da, lorez eta hostoz apaindua. Kopla kaxkar batzuk idatzita dituen etiketa izaten du erantsita, lastozko zezena jarri deneko lurraren jabearen irrigarri.

Orobat, labore-izpiritua, zezen edo idi baten itxuran, uzta-soroan hiltzen dute segaldia amaitzean. Pouillyn, Dijondik gertu, azken labore-buruak moztera doazenean, zintaz, lorez eta labore-buruz apaindutako idia eramaten dute soroan zehar, segalari-talde osoak dantzari jarraitzen diolarik. Gero deabruz moztarotutako gizon batek azken labore-buruak ebakitzen ditu, eta segidan idia hiltzen du. Aberearen okelaren parte bat uzta-afarian jaten dute; beste parte bat adobatu eta gorde egiten da udaberriko lehen ereite-egunera arte. Pont à Moussonen eta beste leku batzuetan, segaldiko azken egunaren arratsaldean, lorez eta labore-buruz apaindutako txahal bati hiru bira emanarazten dizkiote eskortan, aurrean beita jarrita edo gizonak akuiluz eramanda, edo baserritarren emazteak sokatik. Zeremonia horretarako aukeratutako txahala urte horretako udaberrian jaiotako lehena izaten da. Atzetik segalari guztiak izaten ditu beren

lanabesekin. Gero jaregin egiten dute; segalariek jazarri egiten dute, eta harrapatzen duenari txahalaren erregea deitzen zaio. Azkenez, itzal handiz hiltzen dute. Lunéwillen, herriko merkatari judutarrak egiten du harakinarena.

Batzuetan labore-izpiritua labore ebakiaren artean gordetzen da bihitegian, eta larrainean agertzen da zezen- edo behi-itxuran. Turingiako Wurmlingenen, esate baterako, larrainean azken kolpea jotzen duen gizonari behia deitzen diote, edota garagar-behia, olo-behia, ilar-behia edo antzeko zer bait, jotako ale-motaren arabera. Lastotan biltzen dute goitik behera; buruan makila batzuk eransten dizkiote adarrak bailiran, eta bi mutilek sokatik eramaten dute iturrira edatera. Harainoko bidean behi batek bezala egin behar du marru, eta gerora ere, denboraldi luzean, behi deitzen diote. Suabiako Obermedlingenen, labore-jotzea amaitzeaz dagoenean, gizon bakoitzak kontu handia izaten du azken kolpea ez emateko. Ematen duenak "behia izaten du", hots, lastozko irudi bat, gona zahar zarpail batzuk, txanoa eta galtzerdiak jantzita dituenak. Bizkarrean lastozko soka bat izaten du lotuta; aurpegia belztuta, eta lastozko sokaz orgatila batera eramanik, herrian zehar erabiltzen dute. Kasu honetan ere, beste ohitura batzuetan ikusi dugun nahasketa aurkitzen dugu, labore-izpirituaren giza eta animalia itxuren artekoa. Schaffhausen kantoian azken laborea jotzen duen gizonari behia deitzen diote; Thurgau kantoian, labore-zezena; Zurich kantoian, larraineko behia. Azken barruti horretan, lastotan bildu eta baratzako zuhaitz batean lotzen dute. Araden, Hungarian, larrainean azken kolpea jotzen duen gizona lastotan eta adarrak dituen behi-larru batean biltzen dute. Pessnitzen, Dresden eskualdean, idaurraz azken kolpea jotzen duen gizonari zezen deitzen diote. Lastozko gizona egin behar izaten du, eta auzokoren baten leihotik aurrean zutik jarri. Hemen, dirudienek, beste hainbat kasutan bezala, labore-izpiritua larrain-lanak amaitu ez dituen auzoko bati pasatzen zaio. Herbrechtingenen ere, Turingian, atso zarpail baten irudia sartzen dute larrain-lanetan azkena izan den baserritarraren bihitegian. Hura jaurtitzen duen gizonak oihu egiten du: "Hemen duzu behia zuretzat". Jotzaileek harrapatzen badute, gau osoan atxikita edukitzen dute, eta uzta-afaririk gabe utziz zigortzen dute. Azken ohitura horietan labore-izpirituaren giza eta animalia formen arteko nahasketa ageri zaigu berriz ere.

Bestalde, zezen-itxurako labore-izpiritua larrain-lanean jotzen dela sinesten da batzuetan. Auxerren, azken labore-azaoa jotzean, hamabi bider oihukatzen dute "zezena hiltzen ari gara". Bordeleko inguruetan, harakin batek idia hiltzen duenean soroan segaldia amaitu eta berehala, esaten da larrainean azken kolpea jotzen duen gizonak "zezena hil duela". Chambéryn, azken azaoari idi gaztearen azaoa deitzen zaio, eta segalari guztiek lasterketa egiten dute hartaraino. Larrainean azken kolpea jotzen denean "idia hil da" esaten dute; eta ondoren, benetako idia hiltzen du azken laborea ebaki duen segalariak. Idiaren okela afaritan jaten dute segalariek.

Ikusi dugunez, batzuetan sinesten da labore-izpiritu gaztea, zeinen egitekoa hurrengo urteko labore bizkortzea baita, labore-ume gisa jaiotzen dela uzta-soroan. Era berean, Beryn jotzen dute labore-izpiritu gaztea soroan txahal-itxuran jaiotzen dela; lotzaile batek nahikoa soka ez duenean labore guztia azaotan lotzeko, alde batera uzten du geratzen den garia eta behiaren marrua imitatzen du. Horrek "azaoak txahala egin du" esan nahi du. Puy-de-Dôme, lotzaile batek ezin jarraitu dionean aurretik duen segalariari, hauxe esaten dute: "Hori txahala egiten ari da". Prusiako zenbait aldetan sinesten dute txahal mitiko bat (Muhkalbchen) ikusten dela udaberrian erretzen den laborearen artean, eta hurrei adarka egiten diela; haizeak laborea kulunkatzen duenean, "txahala dabil" esaten dute. Argi dago, Mannhardteko dioen bezala, udaberriko txahal hori gero segaldian hiltzen duten abere bera dela sinesten dutela.

8. Laborearen izpiritua zaldi- edo behor-itxuran

Batzuetan labore-izpiritua zaldi edo behor baten itxuran agertzen da. Kalw eta Stuttgarten artean, haizeak laborea makurrarazten duenean, "hor doa zaldia korrika" esaten dute. Böhlingenen, Badengo Radolfzelldik gertu, azken olo-azaoari olo-garainoa deitzen diote. Hertfordshiren, segaldia amaitzean, zeremonia bat egiten da edo egiten zen, "behorraren irrintzia" izenekoa. Zutik geratzen diren azken labore-landareak batera lotu eta behorra deitzen zaie. Uztagileak tarte batera jartzen dira eta igitaiak jaurtitzen dizkiote; ebakitzen duenak "saria jasotzen du txalo eta biba artean". Ebaki ondoren, uztagileek ozenki oihukatzen dute hiru aldiz, "badut!". Beste batzuek hirutan erantzuten diete, "zer duzu?". "Behorra! Behorra! Behorra!". "Norena da?" galdetzen da ondoren hiru bider. "Urliarena", irabazlearen izena esanez hiru bider. "Nori bidaliko diozu?". "Sandiari", artean labore guztia ebaki ez duen auzokoren bati, alegia. Ohitura horretan behor-itxurako labore-izpiritua labore guztia ebakitako baserri batetik oraindik ebaki gabe dagoen beste batera pasatzen da, labore-izpirituak hor babes bilatuko duelakoan. Shropshiren ohitura antzekoa da. Uzta azkena amaitzen duen baserriarraz, behorra beste inori bidali ezin dionez, "negu osoan gordeko duela" esaten da. Batzuetan, atzeratuta zebilen auzoko bati txantxetan eskaintzen zitzaion behorra, eta hark onartu egiten zuen txantxetan. Behin, agure batek honela esan omen zion galdegile bati: "Gu afaritan geundela, gizon bat etorri hede batez eta eramanez egin zuen". Leku batean benetako behorra bidali ohi zuten, baina gainean joaten zen gizona zakar tratatzen zuten bisita atsegin hura hartzen zuen baserrian.

Lille inguruetan zaldi-itxurako labore-izpirituaren ideia ondo gorde da. Uztagile bati alferkeria nagusitzen bazaio lanean, "zaldiaren nekea duela" esaten dute. Lehen azaoari "zaldiaren gurutzea" deritza; ezepe arruntaren zurez egindako gurutzean jartzen dute bihitegian, eta baserriko zaldirik gazteenak jo beharko du. Segalariek azken labore-landareen inguruan egiten dute dantza, "begira, zaldiaren hondarrak" oihukatuz. Azken landare horiez egindako azaoa herriko zaldirik gazteenari ematen zaio jaten. Zaldi gazte horrek, Mannhardtek dioten bezala, hurrengo urteko labore-izpiritua irudikatzen du, labore-moxala, labore-zaldi zaharraren izpiritua bereganatzen duena ebakitako azken laborea janez; izan ere, labore-izpiritu zaharrak azken azaoan hartzen baitu babes, ohi bezala. Azken azaoa jotzen duenaz esaten da "zaldia jotzen duela".

9. Labore-izpiritua zerri- (ordots edo urdeme) itxuran

Aipatuko dugun labore-izpiritu gorpuztuaren azken animalia zerria da (ordotsa edo urdemea). Turingian, haizeak labore gaztea mugiarazten duenean, hala esaten dute batzuetan: "Ordotsa korrika dabil labore artean". Oesel irlako estoniarrek azken azaoari zekale-ordotsa deitzen diote, eta hura duen gizona "zekale-ordotsa duzu bizkarrean!" oihukatuz agurtzen dute. Erantzun gisa, hark kanta bati ekiten dio, uzta ugaria izan dadin erregutuz. Kohlerwinkelen, Augsburgetik gertu, uztari amaia ematean, segalari guztiek ebakitzen dute azken eskutada, landarez landare, txandaka. Azken landarea ebakitzen duenari zekale-urdeme edo gari-urdeme deitzen diote, zein ale-mota den; eta Badengo Rohrenbachen, azken azaorako azken besakada ekartzen duen pertsonari labore-urdeme edo olo-urdeme deitzen zaio. Suabiako Friedingenen, larrainean azken kolpea jotzen duenari urdeme deitzen zaio, garagar-urdeme, arto-urdeme edo antzekoren bat, ale-motaren arabera. Onstmettingenen, larrainean azken kolpea jotzen duen gizonak "urdemea du"; askotan azao batean lotu eta soka batetik herrestan eramaten dute. Eta Suabian, oro har, idaurraz azken kolpea jotzen duen gizonari urdeme deitzen zaio. Hala ere, badauka batere irrikagarri ez den bereizgarri hori saihesterik, urdemearen ezaugarri den lastozko soka auzoko bati pasatuz gero. Etxe batera joan eta lastozko arropa botatzen du barrura, oihukatuz: "Hemen dakarkizuet urdemea". Etxeko guztiek jazartzen diote; eta harrapatuz gero, egurtu, ordu batzuetarako zerri-kortan atxilotu, eta atzera "urdemea" eramatera behartzen dute. Bavaria Garaiko zenbait

aldetan larrainean azken kolpea jotzen duen gizonak "zerria garraiatu" behar du -alegia, zerri baten lastozko irudia edota lastozko soka batzuk bakarrik. Larraineko lana amaitu ez duten auzoko baserri batera garraiatzen du, eta bihitegira botatzen. Larrainekoek harrapatzen badute, gaizki erabiltzen dute: jo, aurpegia belztu edo zikindu, zabor artera bota, urdemea bizkarrean lotu eta abar; urdemea daramana emakumea bada, ilea mozten diote. Uzta-bazkari edo afarian, "zerria eramane duen" gizonari zerri-formako irin-opil batzuk ematen zaizkio. Neskameak irin-opilak zerbitzatzen dituenean, mahaikide guztiek "suz, suz, suz!" egiten dute, zerriei deitzeko oihua, alegia. Batzuetan, afalondoan, "zerria eramane duen" gizonari belztu egiten diote aurpegia, eta gurdi batean jarri eta herrian zehar eramaten dute lagunak, atzetik jendetza duela "suz, suz, suz!" oihuka, zerri-talde bati deika ariko bailiran. Batzuetan, herrian zehar erabili eta gero, goroztegira botatzen dute.

Orobat, zerri-itxurako labore-izpirituak bere egitekoa izaten du erein-arogan, uztaroan bezala. Courlandeko Neuatzen, garagarra urtean lehen aldiz ereiten dutenean, baserritarraren emazteak zerri baten bizkarrezurra egosten du isats eta guzti, eta ereileari eramaten dio sorora. Honek jan egiten du, baina isatsa moztu eta soroan sartzen du; labore-buruak isatsa beste haziko omen dira, hala da sinestea. Kasu horretan zerria da labore-izpiritua, baina bere ahalmen emankortzailea batzuetan bereziki isatsean duela uste da. Zerri gisa jartzen dute lurrian erein-arogan, eta zerri gisa agertzen da ale helduaren artean uztaroan. Auzoko estoniarren artean, ikusi dugunez, azken azaoari zekale-ordotsa esaten zaio. Ohitura antzeko samarrak dituzte Alemanian. Salza eskualdean, Neiningendik gertu, zerriaren hezur bati "haizegiledun judua" deitzen diote. Hezur horren okela astearte-ihautean egosten da, baina hezurra auzokoek San Pedro egunez (otsailaren hogeita bati) opari gisa elkarrekin trukatzeko dituzten errautsen artean jartzen da, eta gero haziarekin nahasten. Hesse osoan, Meiningenen eta beste eskualde batzuetan, jendeak ilar-zopa jaten du zerri-saiheski kezkatuekin Hausterre egunez edo Kandelario egunez. Hezurak jaso eta gela batean jartzen dituzte zintzilik erein-aroga etorri arte, eta orduan ereindako soroan sartuta uzten dituzte, edota hazia duen zakuan, liho-hazitan. Uste da hau gai ezin hobea dela lurreko zomorro eta satorren kontra, eta lihoa ondo eta garai etorriko dela.

Baina zerri-itxuran gorpuztutako labore-izpirituaren ideia inoiz ez da Eguberriko ordotsaren ohitura eskandinaviarrean baino argiago adierazi. Suedian eta Danimarkan, Eguberrietan, ordots baten itxurako ogia egiteko ohitura dago. Eguberriko ordotsa esaten diote. Azken azaoaren aleak erabiltzen dira askotan hura egiteko. Eguberrietako egun guztietan, Eguberriko ordotsa mahai gainean egoten da. Sarritan udaberriko erein-aroraino edukitzen dute, eta orduan parte bat haziarekin nahastu eta beste parte bat goldatzaileari eta bere zaldi edo idiei ematen zaie jaten, uzta ona izango delako esperantzaz. Ohitura horretan labore-izpiritua, azken azaoan, neguburuan agertzen da azken azaoaren aleez egindako ordots baten itxuran; eta eragin bizkortzaile hori erakusten du Eguberriko ordotsa haziarekin nahasteak, eta parte bat goldatzaileari eta bere ganaduari jaten emateak. Era berean, ikusi dugu labore-otsoa negu erdian agertzen dela, urtea udaberriantzez makurtzen hasten denean. Lehenago benetako ordotsa sakrifikatzen zen Eguberrietan, eta baita gizon bat ere, nonbait, Eguberriko ordotsaren ordezkari. Horixe atera daiteke behintzat oraindik ere Suedian gordetzen den Eguberrietako ohitura batetik. Gizon bat larru batean biltzen dute, eta ordots baten zurdak diruditen lasta-izpiak izaten ditu ahoan. Labana bat ekartzen dute, eta atso batek, aurpegia belztuta, hura sakrifikatzen duelakoa egiten du.

Estoniako Oesel irlako zenbait aldetan, opil luze bat erretzen dute Gabon egunean, bi muturrak gora begira dituenak. Eguberrietako ordotsa deitzen diote, eta mahai gainean izaten da Urte Berri eguneko goizera arte; orduan ganaduari ematen zaio. Irlako beste

alde batzuetan Eguberriko ordotsa ez da opila izaten, martxoan jaiotako txerrikumea baino, etxekoandreak ezkutuan hazten duena, askotan bere familiakoek ere ezer ez dakitelarik. Gabon egunean txerria ezkutuan hil, labean erre eta mahai gainean jartzen dute lau hanken gainean, eta han geratzen da horrela egun batzuetan. Irlako beste alde batzuetan, orobat, nahiz Eguberriko opilak ez izan ordots izena ez itxura, Urte Berrira arte edukitzen dute, eta orduan opil-erdia etxekoen eta lauhankakoen artean banatzen da. Beste erdia erein-aroa etorri arte gordetzen da, eta orduan berdintsu banatzen da goizean, gizakien eta abereen artean. Estoniako beste alde batzuetan, orobat, Eguberriko ordotsa -halaxe deitzen diote- uztaroan ebakitako lehen zekalea errez egiten da; forma konikoa izaten du, eta gurutzea egiten zaio zerri-hezur batez edo giltza batez, edo hiru marka egiten zaizkio burdin-zati edo ikatz-puska batez. Ondoan argi bat duela egoten da mahai gainean jaiak iragan bitartean. Urte Berri egunean eta Erregeenetan, egunsentia aurretik, opil pittin bat gatzaz nahastu eta ganaduari ematen zaio. Bestea gorde egiten da ganadua udaberrian lehen aldiz larratzera ateratzen den arte. Unaiaren morralean jartzen da, eta arratsaldean ganaduari ematen zaio, magiatik eta kalteetatik babesteko. Leku batzuetan Eguberriko ordotsa etxeko zerbitzarien eta ganaduaren artean partitzen da garagarra ereiteko garaian, hartara uzta oparoagoa izango delakoan.

10. Laborearen izpirituaren animali gorpuzteez

Animaliengan gorpuztutako labore-izpirituaz jardun dugu, Europako iparraldeko herri-ohituretan aurkeztzen zaizkigun bezala. Ohitura horiek argi azaltzen dute uzta-bazkariaren sakramentu-izaera. Batzuetan, labore-izpiritu animalia batengan gorpuztuta sumatzen da; jainkoen animalia hori hil egiten dute, eta uztagileek okelatik eta odoletik hartzen dute. Beraz, uztagileek sakramentalki jaten dituzte oilarra, erbia, katua, ahuntza eta idia, eta goldatzaileek sakramentalki jaten dute zerria udaberrian. Beste batzuetan, jainkoen izakiaren benetako okelaren orde, ogia edo irin-opilak egiten dira haren irudira, eta sakramentalki jaten dira; hala, zerri-itxurako irin-opilak jaten dituzte uztagileek, eta ordots-itxurako ogiak (Eguberriko ordotsa) jaten dituzte udaberrian goldatzaileak eta bere ganaduek.

Honezkero irakurlea ohartuko zen labore-izpiritu giza eta animali forman sumatzearen arteko paralelismo osoaz. Labur-labur azalduko dugu paralelismo hori. Haizeak laboreak kulunkarazten duenean esaten da laboreen ama edo labore-otsoa, edo dena delakoa labore artean dabilela. Haurrei abisu ematen zaie labore-soroetan gal ez daitezen, laboreen ama edo labore-otsoa edo dena delakoa han dela eta. Ebakitako azken laborean edo jotako azken azaoan, laboreen ama, labore-otsoa e.a. daudela jotzen da. Azken azaoari berari laboreen ama, labore-otsoa edo horrelako izenez deitzen zaio, eta emakume baten, otso baten edo dena delakoaren itxura ematen zaio. Azken azaoa ebaki, lotu edo jotzen duen pertsonari emakume zaharra, otsoa edo beste zerbait deitzen zaio, azaoari berari zein izen ematen zaion arau. Nola zenbait lekutan azao bat -giza itxuran paratua eta neskutsa, artoaren ama edo beste zerbait deitua-, uzta batetik bestera arte gordetzen den labore-izpirituaren onuraren jarraipena segurtatzeko, halaxe leku batzuetan uzta-oilarra eta beste batzuetan ahuntzaren okela ere, gorde egiten dira xede horrekin uzta batetik bestera. Leku batzuetan laboreen amagandik hartutako alea haziarekin nahasten den bezala udaberrian uzta ugaria izan dadin, halaxe zenbait lekutan oilarraren lumak, eta Suedian Eguberriko ordotsa, gorde egiten dira udaberrira arte, eta haziarekin nahasten dira xede berberekin. Nola laboreen amaren edo neskutsaren parte bat ganaduari ematen zaion Eguberrietan edo zaldiei lehen goldaketan, halaxe Eguberriko ordotsaren parte bat ere, goldeari lotzen zaizkion zaldiei edo idiei ematen zaie udaberrian. Azkenez, labore-izpirituaren heriotza haren giza edo animali ordezkaria hilez edo hiltzen delakoa eginez irudikatzen da; eta gurtzaileek sakramentalki hartzen dute jainkoaren ordezkariaren gorputz-odoletatik, edota haren antzera egindako ogitik.

Labore-izpirituak hartutako beste animali itxura batzuk azeria, oreina, orkatza, ardia, hartza, astoa, sagua, galeperra, zikoina, beltxarga eta mirua dira. Galdetuko baligute zergatik pentsa litekeen labore-izpirituak animali itxuran agertzen dela, eta hainbeste animalia itxuran gainera, erantzun genezake lehen gizonarentzat animalia edo txori bat labore artean agertze hutsa aski dela seguruenik, izaki horren eta laborearen artean lotura misteriotsua dagoela pentsatzeko; eta ez daukagu harritu beharrik labore-izpirituak are abereekin ere identifikatu zutelako, hala nola zaldiaekin eta behiarenekin, gaur egun, salbuespenak salbu, halakorik ezin aurki badaiteke ere Ingalaterrako sororen batean galduta. Azalpen hori indar bereziz egokitzen zaio animalia batean gorpuztutako labore-izpirituak azken laborean ezkutatzen dela uste deneko kasu arruntari. Izan ere, uztan hainbat animalia basatik, hala nola erbiek, untziek eta eperrek, geratzen den laborearen azken zatira jotzen dute segaldiak aurrera egin ahala, eta hura ere ebakitzean ihes egiten dute bertatik. Hala, maiz gertatu ohi da segalaria eta beste batzuk laborearen azken zatia inguruan jartzea makilak edo armak eskuetan dituztela, eta arma haiez akabatzea animaliak, landareen arteko azken babeslekutik kanpora egiten dutenean. Bestalde, lehen gizonari, magiazko itxuraldaketak guztiz sinesgarri baitzaizkio, oso berezkoa iruditzen zaio laborearen izpirituak, ale helduarekin batera etxetik botata, ihes egitea laborearen azken zatitik korrika irteten ikusten duten animalia itxuran, igitaria hara iristean. Labore-izpirituak animalia batekin identifikatzea, eta labore-izpirituak bertatik pasatzen den arrotzen batekin identifikatzea, antzeko kasuak dira. Arrotz bat labore-soroan edo larrainean bat-batean agertzea, lehen gizonaren gogoarentzat, hura ebaki edo jotako laboretik ihesi doan labore-izpiritu iheslariarekin identifikatzeko aski den bezala, halaxe labore ebakitik irteten den animalia bat-batean agertzea aski da animalia hori hondatu dioten etxetik ihesi doan labore-izpirituarekin identifikatzeko ere. Bi konparazioak hain dira analogoak, non apenas bana daitezkeen elkarretarik edozein azalpen-saiotan. Bigarren identifikazioa azaltzeko hemen iradokitako printzipioa ez baina besteren bat ikusten dutenek, beraz, erakutsi beharko dute beren teoriak lehen identifikazioa ere argitzen duela.

xlix

Landareen antzinako jainkoak abere-itxuran

1. Dionisos, ahuntza eta zezena

Nolanahi esplikatuta ere, kontua da nekazal folklorean labore-izpirituak animali itxuran sumatzen eta irudikatzen dela oso sarri. Horrek ez ote du esplikatzen zenbait animaliak landaretzaren jainko-jainkosekin -hots, Dionisos, Demeter, Adonis, Atis eta Osirisekin-duten erlazioa?

Dionisosi ekingo diogu lehenik. Ikusi dugu batzuetan ahuntz gisa eta beste batzuetan zezen gisa irudikatzen zutela. Ahuntz gisa apenas bereiz daitekeen zenbait jainkoxkatatik. Pan, satiroak eta silenoak estuki elkarturik daude berarekin, eta gutxi-asko osorik irudikatzen dira ahuntz forman. Hala, Pan ahuntz baten aurpegi eta hankekin azaltzen zuten eskultura eta pinturretan. Satiroak ahuntz-belarridun pintatzen zituzten, eta batzuetan adarñoz eta isats laburrez. Batzuetan ahuntzat jotzen ziren, besterik gabe; eta drametan ahuntz-larruz jantzitako gizonak egiten zuten haiena. Sileno ahuntz-larruz jantzita ageri da artean. Gainera, faunoak, Greziako panen eta satiroen parekideak, erdi ahuntz deskribatzen dira, ahuntz-oinez eta ahuntz-adarrez. Orobat, ahuntz formako jainkoxka horiek oihaneko jainkoak dira denak nabarmen samar. Hala, arkadiarrek Basoko Jauna deitzen zioten Pani. Silenoek lagun egiten zieten zuhaitzetako ninfei. Faunoei oihaneko jainko deitzen zaie argi eta garbi; eta izaera hori are argiago ageri du Silvanorekin eta silvanoekin duen loturak, are identifikazioak; horien izenak adierazten duen bezala, basoetako izpirituak dira. Azkenez, satiroak sileno, fauno eta silvanoekin elkartzeak frogatzen du satiroak ere oihaneko jainkoak zirela. Basoetako

ahuntz formako izpiritu horiek beren parekideak dituzte Europako iparraldeko folklorea. Hala, Errusiako izpiritu basotarrak, Ljeschie deritzenak (ljes, "baso" hitzetik), partez giza itxuran agertzen direla sinesten da, baina ahuntzen adar, belarri eta hankekin. Ljeschieak bere gogara alda dezake altuera; basoan dabilenean zuhaitzak bezain garai izaten da; zelaietan dabilenean, berriz, ez da belarra baino altuagoa izaten. Ljeschie batzuk laborearen izpirituak ere izaten dira, basokoak ezezik. Uzta aurrean labore-landareak bezain altuak izaten dira, baina ondoren galtzuaren luzeraraino txikiagotzen dira. Horrek agerian uzten du aurrez azpimarratu duguna: zuhaitz-izpirituen eta labore-izpirituen arteko lotura estua; eta erakusten du zein erraz nahasten diren lehenak bigarrenekin. Era berean sinesten zen faunoek ere, basoko izpirituak izan arren, ereinen hazkundera bizkortzen zutela. Ikusi dugu jadanik zein maiz irudikatzen den labore-izpiritua ahuntz gisa herri-ohituretan. Oro har, beraz, Mannhardtek argudiatzen duen bezala, pan, satiro eta faunoak agian ahuntz-itxuran sumatutako basoko izpirituen sail oso zabal batekoak dira. Ahuntzek basoetan batera eta bestera ibiltzeko eta zuhaitzen azala karraskatzeko duten zaletasuna -hartara zuhaitz asko hondatzen dituztelarik- arrazoi argia eta agian nahikoa da basoko izpirituek ahuntz-forma hartzen dutela suposatzeke. Landaretzaren jainkoak berak nortzen duen landaretza horretatik bizibidea ateratzeak ez du harritzen lehen gizonen gogoari. Inkongruentzia horiek agertzen dira jainkoa, landaretzan bertan izateari utzita, beraren jabe edo ugazaba gisa ikusten denean; landareen jabe izatearen ideiak berez baitarama haietatik bizibidea ateratzeko ideiara. Batzuetan labore-izpiritua, jatorriz laborean bertan izaten sumatua, gerora haren jabetzat hartzen dute, hartatik bizi delarik eta pobrezian eta beharrean erortzen delarik hura kentzen bazaio. Horregatik, sarritan "gizon pobrea" edo "emakume pobrea" izenak ematen zaizkio. Inoiz, azken azaoa soroan uzten da "atso pobrearentzat" edo "zekaleko atsoarentzat".

Hala, badirudi basoko izpirituak ahuntz-forman irudikatzea guztiz zabalduta dagoela, eta berezkoa zaiola lehen gizonaren gogoari. Beraz, aurkitzen dugunean, aurkitu dugun bezala, ezen Dionisos -zuhaitz-jainko bat- ahuntz-forman irudikatzen dutela, ezin beste ondoriorik atera, ezpada irudikatze hori zuhaitz-jainko izatearen parte bat besterik ez dela, eta ez bi gurtza desberdin eta independienteren bategitea, batean jatorriz zuhaitz-jainko gisa eta bestean ahuntz gisa agertzen zelarik.

Ikusi dugunez, Dionisos zezen baten itxuran ere irudikatzen zuten. Orain arte esandakoaren arabera, pentsa liteke zezen-forma landaretzaren jainko izatearen beste adirazpide bat besterik ez dela, bereziki zezena Europako iparraldean labore-izpirituaren gorputze arrunta denez gero; eta Eleusisko misterioetan Dionisos Demeter eta Persefonerekin estuki elkartzeak erakusten du gutxienez lotura handiak zituela nekazaritzarekin.

Ikuspegi horren bidezatasuna areagotu egingo litzateke erakutsiko balitz Dionisosenak ez ziren beste errito batzuetan antzinakoek idia hiltzen zutela landaretzaren izpirituaren ordezkari gisa. Halaxe egin bide zuten "idiaren hilakintza" (bouphonia) zeritzan Atenasko sakrifizioan. Ekainaren azken aldera edo uztailaren hasieran izaten zen, hau da, Atikan larraineko lanak ia amaituta daudenean. Tradizioaren arabera, sakrifizio hori lurralde hura jotzen zuten agortea eta gosetean amai zitezen ezarri zen. Erritualak ondorengo hauxe izaten zen. Garagarra eta garia nahastuta, edo ale horiez egindako opilak, uzten ziren Zeus Polieosen brontzezko aldarearen gainean, Akropolisean. Idiak erabiltzen zituzten aldarearen biran, eta aldarera joan eta eskaintza jaten zuen idia sakrifikatu egiten zuten. Aberea hiltzeko erabiltzen zituzten aizkora eta labana "urketari" zeritzen neskutsek ekarritako urez bustitzen ziren aurrez. Armak zorroztu eta harakinei ematen zitzaizkien, eta haietako batek aizkorakadak ematen zizkion idiari, eta besteak lepoa moztzen zion labanaz. Idia bota bezain laster, lehenak aizkora jaurti eta

hanka egiten zuen; eta lepoa moztu zion gizonak ere gauza bera egiten zuen. Bitartean, idia larrutu eta bertan ziren guztiek haren okelatik jaten zuten. Gero, larrua lastoz bete eta josi egiten zuten; ondoren, lastozko animalia bere oinen gainean ipini eta golde batean lotzen zuten, goldatzen ariko bailitzan. Orduan epaiketa izaten zen, epaimahiaren buru Erregea (halaxe deitzen zitzaion) zelarik, idia nork hil zuen erabakitzeko. Ura ekarria zuten neskutsek aizkora eta labana zorroztu zituzten gizonak salatzen zituzten; aizkora eta labana zorroztu zituzten gizonak tresna haiek harakinei eman zizkieten gizonak botatzen zieten errua; tresnak harakinei eman zizkietenek harakinei botatzen zieten errua; eta harakinek aizkorari eta labanari; ondorioz, tresnok jotzen ziren erruduntzat: kondenatu eta itsasora botatzen zituzten.

Sakrifizioaren izenak - "idiaren hilkintza"-, hilketan parte hartutako pertsona bakoitzak errua besteri botatzeko hartutako lanak, baita epaiketa formala egiteak eta aizkora edo labana, edo biak, zigortzeak ere, frogatzen dute idia ez zela hartzen jainkoari eskainitako opagaitzat besterik gabe, bera ere izaki sakratutzat hartzen zela, eta bera hiltzea sakrilegioa edo eraiketa zela. Horixe ateratzen da Varronen adierazpen batetik ere: idi bat hiltzea krimen larria omen zen antzina Atikan. Biktima hautatzeko moduak iradokitzen digu laborea probatzen zuen idia labore-jainkotzat hartzen zutela, berea zuenaz jabetzen baitzen. Interpretazio hori ondorengo ohitura honek sendotzen du. Beaucen, Orleanseko eskualdean, apirilaren hogeita lauan edo hogeita bostean, lastozko gizon bat egiten dute, "mondard handia" deritzana. Esaten dute mondard zaharra hil egin dela eta beste bat egin beharra dagoela. Lastozko gizona prozesio larrian eramaten dute herrian zehar, eta azkenean sagarrondorik zaharrenean jartzen dute. Han geratzen da sagarrak bildu arte, eta orduan hartu eta uretara botatzen dute, edota erre eta errautsak uretara jaurtitzen dira. Baina lehen fruitua jasotzen duen pertsonari ere "mondard handia" titulua ematen zaio. Kasu honetan lastozko irudiak, "mondard handia" izenez eta udaberrian sagarrondo zaharrenaren gainean ipintzen dutenak, arbolaren izpiritua ordeztzen du, neguan hilda egon ondoren, arbolaren abarrak loratzean berpizten dena. Beraz, arbolatik lehen fruitua jasotzen duen pertsona -horregatik "mondard handia" titulua hartzen duena- arbola-izpirituaren ordezkariatzat hartu behar da. Herri primitiboek uko egin ohi diote urteko lehen igaliak probatzeari, edozein klasetakoak direlarik ere, harik eta zeremonia bat burutu arte. Zeremonia horrek arriskurik gabea eta jaierazkoa bihurtzen du haiek probatzea. Uko egite horren arrazoa sineste bat litzateke, alegia, lehen fruituak jainko batena direla edo jainko hori daukatela. Beraz, gizaki edo animalia bat lehen igali sakratuez ausarki jabetzen dela ikusten dutenean, jainkoa bera dela jotzen dute, giza edo animali itxuran, eta berea duenaz jabetzen dela. Atenasko sakrifizioaren sasoiak, larrain-lanak amaitzean edo, iradokitzen digu aldare gainean utzitako garia eta garagarra uztako eskaintza zirela; eta ondorengo oturuntzaren jite sakramentalak -denek jaten baitzuten jainkozko animalia okelatik- Europa modernoko uzta-bazkarien pareko egingo luke oturuntza hori. Uzta-bazkariotan, ikusi dugunez, uztagileek labore-izpiritua ordezkatzeko duen animalia okela jaten dute. Orobat, sakrifizioa agorriari eta goseari amaia emateko ezarri zelako tradizioa ere, sakrifizio hori uztaroko jaitzat hartzearen alde dago. Labore-izpirituaren piztuera, lastozko idia zutik jarri eta goldean lotzean antzeztzen dena, labore-izpiritua bere ordezkari den Basagizonaren pertsonan piztearekin konpara daiteke.

Idia labore-izpirituaren ordezkari ageri da munduko beste alde batzuetan. Gineako Great Bassamen, bi idi hiltzen dituzte urtero uzta ona izateko. Sakrifizioak eragina izango badu, nahitaezko da idiek negar egitea. Beraz, herriko emakume guztiak abereen aurrean jartzen dira, kantuan: "Idiak negar egingo du; bai, negar egingo du!". Aldika-aldika, emakumeetako bat abereei inguratzen zaie eta manioka-irina eta palmondoaren ardoa jaurtitzen die, batez ere begietara. Begietatik malko-jario hasten direnean, jendeak dantza egiten du kantuan:

"Idia negarrez dago! Idia negarrez dago!". Gero, bi gizonak abereen buztanak hartu eta kolpe batez mozten dituzte. Sinestea da zoritxar handia gertatuko dela urtean zehar buztanak kolpe bakar batez ebakitzen ez badira. Ondoren, hil egiten dituzte idiak, eta buruzagiek okela hartatik jaten dute. Kasu horretan idien malkoak, khonden eta azteken giza biktimenak bezala, euri-xarma dirateke. Ikusi dugu animala itxuran gorpuztutako labore-izpirituaren bertutea buztanean datzala jotzen dela batzuetan, eta laborearen azken eskutada batzuetan labore-izpirituaren buztantzat jotzen dela. Mitraren erlijioan ikusmolde hori nabarmen adierazten da hainbat eta hainbat eskulturatan: Mitra belauniko ageri da zezen baten bizkar gainean, saihetsean labana bat sartzen ari zaiolarik; monumentu horietako batzuetan zezenaren buztana hiru labore-zurtoinetan amaitzen da, eta monumentu batean odolaren ordeztu labore-zurtoinak irteten dira labanak egindako zauritik. Halako irudikapenek ez bairik gabe iradokitzen dute ezen zezena, zeinen sakrifizioa ezaugarri nagusietako bat baitzen Mitraren erritualean, labore-izpirituaren haragiztapen gisa sumatzen zela, haren aldaera batean bederen.

Txinako probintzia eta eskualde guztietan udaberriaren etorrerari ongi etorria egiteko burutzen den zeremonia batean, are argiago ageri da idia labore-izpirituaren pertsonifikazio gisa. Udaberriko lehen egunean, otsailaren hiruan edo lauan gehienetan, txinatarren Urte Berri eguna ere izaten den hartan, hiriko gobernadore edo prefeta prozesioan joan ohi da hiriko ekialdeko atera, eta sakrifizioak eskaintzen dizkio Jainkozko Nekazariari, giza gorpuztutako eta zezen-burudun irudikatzen denari. Idi, behi edo bufalo baten irudi handia prestatu da abagune horretarako, eta irudi hori zutik egoten da ekialdeko atetik kanpo, ondoan nekazal lanabesak dituela. Paper-puska koloreanitzek osatzen dute irudia, gizonitsu baten edo nigromante baten aginduei jarraituz zuraje batean pegatuak. Paperaren koloreek iragartzen dute hurrengo urtearen nolakoa: gorria bada nagusi, su asko izango dira; zuria bada, uholdeak eta euriak izango dira; eta horrela beste koloreei dagokienez ere. Mandarinak idiaren jiran ibiltzen dira poliki, gogor jotzen dutelarik urrats bakoitzean hainbat kolore-ñabarduratako makilez. Bost ale-motaz beteta egoten da hura, eta makila-kolpeen ondorioz irudia hausten denean, lurrean zehar barreiatzen dira. Paper-puskak suari ematen zaizkio, eta suak hartutako pusken atzetik hasten dira, jendeak uste baitu horietakoren bat harrapatzen duena zorioneko izango dela urte osoan zehar. Bufaloa hiltzen dute ondoren, eta okela mandarinen artean banatzen da. Kontakizun baten arabera, idiaren irudia buztinezkoa izaten da eta, gobernadoreak makilaz astindu ondoren, herritarrek harrika egiten diote puskatu arte, "pusketatik urte oparoa espero baitute". Kasu honetan ageri denez, aiez betetako idiak labore-izpirituaren ordeztu du argi eta garbi, eta, beraz, haren puskek emankortasuna omen dakarte.

Oro har, konklusio hau atera genezake, bai ahuntz eta bai zezen gisa, Dionisoren landaretzaren jainkoa zela funtsean. Txinako eta Europako ohiturek argitu egingo lukete Dionisoren erritoetan zezena edo ahuntza zehatzeko ohitura. Animalia zatikatu egiten zuten, khondek biktima zatikatzen zuten bezalaxe, gurtzaileek jainkoaren eragin bizi-emaile eta emankortzailearen zati bat bereganatu ahal zezaten. Okela gordinik jaten zen sakramentu gisa, eta pentsa genezake parte bat etxera eramaten zela soroetan ehorzteko, edota bestela landaretzaren jainkoaren eragin bizkortzailea lurreko igalietara bideratzeko. Dionisoren piztuera, mito horretan kontatua, idi hila lastoz betez eta zutik jarritu jokatuko zen, Atenazko bouphonia-n egiten zen bezala.

2. Demeter, zerria eta zaldia

Demeter labore-jainkosarengana pasatuz, eta gogoratuz Europako herri-folklorean zerria labore-izpirituaren gorpuzte arrunta dela, galde genezake ea zerria, hain estuki lotua izaki Demeterrekin, ez ote zen jatorriz jainkosa bera animala itxuran. Zerria hari sagaratuta zegoen; arte-lanetan zerria eramaten edo zerriarekin batera irudikatzen zuten

jainkosa; eta zerria sakrifikatu ohi zuten haren misterioetan, emandako arrazoia haxe zelarik: zerriak kalte egiten diola laboreari eta, beraz, jainkosaren etsaia dela. Baina animalia bat jainko gisa sumatu denean, edo jainkoa animalia gisa, gertatu ohi da batzuetan, ikusi dugunez, jainkoak animali itxura galdu eta giza itxura hartzen duela, eta orduan animalia, lehenik jainkoa zen aldetik erailtzen bazuten ere, jainkoari eskainitako opagaitzat ikusten dela, jainkoaren etsaia delakoan. Horixe gertatu zitzaion Dionisosi, eta baliteke Demeterri ere gauza bera gertatzea. Eta egia esan, Tesmoforietako - Demeterren jai batzuetako- erritoak indartu egiten du hasieran zerria labore-jainkosa bera gorpuztuta zelako ikuspegia, Demeter edo beronen alaba eta doble Persefone, alegia. Atikako Tesmoforiak udazkeneko jaiak ziren, urrian emakumeek bakarrik ospatua, eta badirudi doluzko erritoekin antzezten zela Persefone (edo Demeter) azpimundura jaistea, eta alaitasunez hura hildakoen artetik itzultzea. Horregatik, Jaitsiera edo Igoera izena ematen zitzaion lehen egunari, eta kalligeneia (ondo jaioa) izena ematen zitzaion jaien hirugarren egunari. Tesmoforietan ohikoa zen zerriak, ore-opilak eta pinu-abarrak botatzea "Demeter eta Persefoneren arrailletara", leize edo harpeetara, alegia. Leize edo harpe horietan omen zeuden sugeek leizea begiratu eta bertara botatuko zerri-okela eta ore-opilak jaten zituzten. Geroago -hurongo urteko jaietan, nonbait- zerri, opil eta pinuen hondakin ustelak biltzen zituzten "garbitzaileak" zeritzen emakume batzuek; hiru egunez zeremoniazko araztasun-arauak gorde ondoren, leizeetara jaisten ziren eta, sugeak esku-zartaka uxatuz, hondakinak jaso eta aldarean ipintzen zituzten. Haragi eta opil ustelen puskaren bat bereganatzen zuenak, sorotan haziarekin batera ereiten bazuen, uzta ona izango zuen seguru.

Tesmoforietako erritual zakar zaharra esplikatzeko, honako elezahar hau kontatzen zen. Plutok Persefone eraman zuenean, Euboleo izeneko urdezain bat omen zebilen bere urde-taldearekin leku hartan, eta urde-taldea ere Pluto Persefonerekin desagertu zen arrail berak irentsi zuen. Horren arabera, Tesmoforietan zerriak jaurtitzen ziren urtero leizeetara, Euboleoren urde-taldearen desagertzearen oroigarri. Horren ondorioa haxe da, Tesmoforietan harpeetara zerriak jaurtitzea Persefone azpimundura jaistearen antzeztearen parte zela; eta Persefoneren irudirik jaurtitzen ez zenez, pentsa genezake zerriak jaistea ez zela haren jaitsieraren lagungarria, ezpada jaitsiera bera; laburki, zerriak Persefone zirela. Gero, Persefonek edo Demeterrek (biak baliokide baitira) giza itxura hartu zuenean, arrazoi bat aurkitu behar izan zioten jaietan zerriak leizeetara jaurtitzeko ohiturari; eta haxe asmatu zuten, Plutok Persefone eramanean urde batzuk zeudela han zehar uxarrean, eta neskarekin batera irentsiak izan zirela. Istorio hori saio bortxatu eta ahula da, noski, labore-izpirituaren ikusmolde zaharraren -zerri gisa- eta ikusmolde berriaren -jainkosa antropomorfitik gisa- arteko zubia osatzeko. Ikusmolde zaharraren arrasto batek iraun zuen elezahar batean: ama tristea desagertutako Persefoneren aztarnen bila ari zelarik, zerri baten oinatzek haren oinatzak ezabatu zituztela. Beraz, pentsa liteke jatorriz zerriaren oinatzak Persefoneren eta Demeterren oinatzak zirela. Zerriaren eta laborearen arteko lotura estuaren kontzientzia erdizkutan ageri da Euboleo urdezaina Triptolemoren anaia zela dioen elezaharrean; honi jakinarazi baitzion Demeterrek laborearen sekretua. Hain zuzen, istorioaren aldaera baten arabera, Euboleok berak, bere anaia Triptolemorekin batera, jaso zuen laborearen oparia Demeterrengandik, Persefoneri gertatua gaztigatu ziotelako eskertza gisa. Gainera, ohartu behar da Tesmoforietan emakumeek urdekia jaten zutela, nonbait. Janaria, zuzen banago, sakramentu itzaltsu edo komunioa izango zen, gurtzaileek jainkoaren gorputzetik jatea, alegia.

Horrela azalduta, Tesmoforiek badute antzik lehenago deskribatu ditugun Europako iparraldeko herri-ohiturekin. Tesmoforietan bezala -udazkeneko jai batzuk labore-jainkosaren omenez- zerriaren parte bat jan egiten zuten, eta beste parte bat leizeetan

gordetzen zuten hurrengo urtera arte, eta orduan hartu eta haziarekin batera ereiten zuten soroetan uzta ona izan zedin; halaxe Grenoble inguruetan ere, uzta-soroan hildako ahuntza jan egiten dute partez uzta-bazkarian, eta partez ondu eta hurrengo uztara arte gordetzen dute; halaxe Poullyn ere, uzta-soroan hildako idia partez jan egiten dute uztagileek, eta partez ondu eta gorde egiten dute udaberriko lehen ereite-egunerako, seguruenik orduan haziarekin nahasteko, edo goldatzaileek jateko, edo bietarako; halaxe Udvarhelyn ere, uztako azken azaoan hiltzen duten oilarraren lumak udaberrira arte gordetzen dira, eta orduan haziarekin batera ereiten soroan; halaxe Hessen eta Meiningenen ere, zerriak jaten da Hauster egunean edo Kandelario egunean, eta hezurak ereite-sasoira arte gordetzen dira; orduan ereindako soroan jartzen dituzte, edo zakuan bertan nahasten dituzte haziarekin; halaxe, azkenez, gordetzen dute Eguberriak arte azken azaoaren alea, eta ordotz-itxura ematen diote, eta gero hautsi eta udaberrian ereiteko haziarekin nahasten dute. Beraz, oro har, labore-izpirituak animalia forman hiltzen dute udazkenean; okelaren parte bat jan egiten dute gurtzaileek sakramentu gisa, eta parte bat hurrengo erein-arora arte edo uztarora arte gordetzen dute, labore-izpirituaren indarrak iraungo duela edo berrituko delako berme gisa.

Dasta zorrotzeko pertsonak adieraziko balute grekoei inoiz ez zitzaizela bururatuko Demeter eta Persefone zerri-itxuran gorpuztu izana, erantzun lekieke ezen Figaliako leizean, Arkadian, Demeter Beltza zaldiairen burua eta emakumearen gorputza zituela irudikatu zutela. Jainkosa bat zerri gisa irudikatzearen eta emakume zaldi-buru gisa irudikatzearen artean ez dago alde handirik barbarotasunari dagokionez. Figaliako Demeterren elezaharrak adierazten du zaldia zela labore-izpirituak Grezia zaharrean, Europa modernoan bezala, hartzen zuen formatako bat. Alabaren bila zebilelarik, Demeterrek behor baten itxura hartu omen zuen Poseidonen lausenguak saihesteko eta, haren nahiek gogaiturik, jainkosa Figaliatik gertuko leize batera erretiratu omen zen haserre, Arkadiako mendebaldeko mendialdera. Han, beltzez jantzita, hain luze egon zen, non lurreko igaliak galtzen hasi baitziren, eta gizateria gosez hilko zen baldin Panek jainkosa sumindua ematu eta leizetik irteteko konbentzitu ez balu. Gertaera horren oroitzapenez, figaliarrek Demeter Beltzaren irudia jarri zuten leizean; jantzi luzedun emakumea irudikatzen zuen, zaldiairen burua eta zurdak zituena. Demeter Beltza, zeinen ezean lurraren igaliak galdu egiten diren, adierazpide mitikoa da argi eta garbi, udako estalki berdeaz biluztutako neguko lur soilarentzat.

3. Atis, Adonis eta zerria

Atzera Atis eta Adonisengana pasatuz, egintza bakan batzuk azalduko ditugu erakusteko landaretzaren jainko horiek ere, mota bereko beste jainko batzuek bezala, animalia gorpuzteak zituztela. Atisen gurtzaileek ez zuten zerrikerik jaten. Horrek adieraziko luke zerria Atisen gorpuztetzat hartzen zela. Eta Atis ordotz batek hil zuelako elezaharrak gauza bera adieraziko luke. Dionisos ahuntzaren eta Demeter zerriaren adibideen ondotik, ia arautzat hartu behar litzateke ezen, animalia batek jainkoren bat iraindu zuela esaten denean, animalia hori jatorriz jainkoa bera zela. Beharbada "Hyes Attes! Hyes Attes!" oihua, Atisen gurtzaileek esaten zutena, "Atis zerria! Atis zerria!" besterik ez litzateke, hyes hitza, seguruenik, grekozko hys, zerri, hitzaren aldaera frigiarrak izaki.

Adonisi dagokionez, animalia horrek hil zuelako istorioak ez du beti esplikatzen ordotsarekiko lotura. Beste istorio baten arabera, ordots batek Adonis haurraren jaioleku izan zen zuhaitzaren azala puskatu zuen. Beste baten arabera, berriz, hura Efestoren eskuz hil zen Libano mendian, basurde-ehizan zebilela. Elezaharraren aldaerek erakusten digute ezen, ordotsaren eta Adonisen arteko lotura egiazkoa zelarik, loturaren arrazoiak ez zela ulertu eta, beraz, istorio desberdinak asmatu zirela hura esplikatzeko. Zalantzarik gabe, zerria animalia sakratua zen siriarrentzat. Eufrates ondoko Hierapolis erlijio-hiriburu handian zerriak ez ziren inoiz sakrifikatzen ez jaten, eta inork zerria

ukitzen bazuen, egun osorako zikinduta geratzen zen. Zenbaitek zioten hori zerriak zikinak zirelako zela horrela; beste zenbaitek, berriz, zerriak sakratuak zirelako. Iritzi desberdinok adieraziko lukete pentsaera erlijiosoa ez zela batere argia, santutasun eta zikintasun ideiak artean ez zirelako zehatz bereizten; biak nahastu egiten ziren guk tabu deritzogun halako soluzio lainotsu batean. Horri ondo egokitzen zaio beste uste hau, zerria Adonis jainkoa zela gorpuztuta, eta Dionisosen eta Demeterren analogiek bide ematen dute pentsatzeko animaliak jainkoari herra ziolako istorioa ikuspegi zaharraren - jainkoa zerri-gorputza hartzen zuela- interpretazio okerra dela. Atisen eta, seguruenik, Adonisen jarraitzaileek zerririk ez sakrifikatzen ez jaten zutelako arauak ez du ukatzen erritual haietako abagune larrietan zerria jainkoaren ordezkari zen aldetik hiltzea, eta gurtzaileek sakramentuan jatea. Hain zuzen, animalia bat sakramentuz hiltzeak eta jateak esan nahi du animalia hori sakratua dela eta, oro har, errespetatu egiten dela.

Juduek zerriarengana zuten jarrera siriar paganoek animalia horrengana zutena bezain anbigua zen. Grekoek ezin zuten erabaki juduek zerria gurtu ala gorrotatu egiten zuten. Alde batetik ez zeukaten zerria jaterik; baina bestetik ez zeukaten hura hiltzerik. Eta lehen arauak lohikeria adierazten badu, bigarrenak are indartsuago adierazten du animalia santutasuna. Hain zuzen, bi arauak azal daitezke, eta arau bat derrigor azaldu behar da, zerria sakratua zelako ustearen arabera; aitzitik, bietarik bat ere ez da derrigor azaldu behar, eta bietarik bat ezin da inolaz ere azaldu, zerria lohia zelako ustearen arabera. Beraz, baldin eta lehen ustea nahiago badugu, ondorioztatu behar dugu ezen, hasieran bederen, israeldarrek adei egiten ziotela zerriari, ez zutela erdeinatzen. Iritzi hori berresten digu ikusteak Isaiasen garaietaraino zenbait judu sekretuan bildu ohi zirela baratzetan zerrikia eta sagua jateko erlijio-errito gisa. Ezbairik gabe, hori oso zeremonia zaharra zen, bai zerria eta bai sagua jainkozkotzat joz jauresten zituzteneko garaien batetik zetorrena, haien okela abagune bakan eta itzaltsuetan sakramentuz partitzen zutenetik, jainkoen gorputz-odolak zirelakoan. Eta, oro har, esan liteke lohi deitzen diren animalia horiek jatorriz sakratuak zirela; haiek ez jateko arrazoia horixe zen, jainkozkoak zirela.

4. Osiris, zerria eta zezena

Egipto zaharrean, garai historikoetan, zerriak Sirian eta Palestinan zeukan leku zalantzazko bera zuen, nahiz lehen begiratuan haren lohitasuna santutasuna baino agerianago izan. Egiptoarrez esan izan dute idazle grekoek zerria erdeinatzen zutela, animalia satsua eta higuingarria zelako. Batek zerria ukitu besterik egiten ez bazuen pasatzean, ibaian sartzen zen arropa eta guzti, orbana garbitzeko. Zerri-esnea edateak legenarra ekartzen omen zion edaten zuenari. Zerrizainek, egiptoar izanik ere, debekatua zuten tenpluetan sartzea, eta horretan bakarrak ziren. Inork ez ziokeen alaba emaztetzat emango zerrizain bati, inor ez zen ezkonduko zerrizain baten alabarekin; zerrizainak beren artean ezkontzen ziren. Baina urtean behin egiptoarrek zerriak sakrifikatzen zizkieten ilargiari eta Osirisi, eta sakrifikatu ezezik, haien okela jaten zuten, urteko beste edozein egunetan ez sakrifikatu ez zerrikirik jango ez bazuten ere. Zerria eskaintzeko pobreegiak zirenek irin-opilak egiten zituzten, eta haiek eskaintzen zituzten orde. Hori ez dago esplikatzerik aieru hau eginez ez bada, alegia, zerria animalia sakratua zela, eta beraren gurtzaileek urtean behin sakramentuan jaten zutela.

Garai modernoetakoontzat ustez alderantzizkoa frogatzen duten egintzek berresten dute Egipton zerria sakratua zelako iritzia. Adibidez, egiptoarrek pentsatzen zuten, ikusi dugunez, zerri-esnea edateak legenarra zekarrela. Baina ikuspegi berdin-berdinak dituzte basatiek ere sakratutzat dauzkaten animalia eta landareez. Hala, Wetar irlan (Ginea Berriaren eta Celebesen artean) jendeak uste du basurde, suge, krokodilo, dortoka, zakur eta aingiren jatorrikoak direla; inork ezin du jan bere jatorrikoa den animaliarik; hala egiten badu, legenardun bihurtu eta erotu egingo omen da.

Iparramerikako Omaha indiarren artean, altzea totemtzat duten gizonek sinesten dute altze arraren okela janez gero zuldarrez eta zetaka zuriz zakartuko litzaiekeela gorputza. Tribu horretantxe, arto gorria totemtzat duten gizonek sinesten dute arto gorria janez gero legarrez beteko litzaiekeela aho-ingurua. Surinamgo bush beltzek, totemismoa praktikatzen baitute, sinesten dute capiai delakoa (zerriaren antzeko animalia bat) jango balute, legenardun bihurtuko liratekeela; beharbada capiai hori dute beren totemetako bat. Siriarrek, antzina, arraina sakratutzat baitzeukaten, pentsatzen zuten arraina janez gero gorputza zorne-zorroz beteko litzaiekeela, eta hankak eta urdaila puztu egingo litzaizkiekeela. Orissako chasatarrek sinesten dute beren animalia totemikoa irainduko balute legenarrak joko lituzkeela eta beren askazia osoa hilko litzatekeela. Adibideok sineste hori frogatzen dute, alegia, animalia sakratua jateak legenarra edo azaleko beste gaixotasun batzuk ekartzen dituela; horrenbestez, Egipton zerria sakratua izan behar zuelako ustea sendotzen dute, zerri-esnea edateak ere legenarra ekartzen zuela sinesten zenez gero.

Orobat, zerria ukitu ondoren gizon batek bere burua eta arropak garbitu behar dituela dioen arauak ere zerria santu delako ikuspegiaren alde egiten du. Izan ere, uste arrunta baita objektu sakratu baten ukituaren efektua indargetu beharra dagoela, garbitzearen bidez nahiz bestela, gizona bere kideekin harremanetan jarri aurretik. Esate baterako, juduek eskuak garbitzen dituzte eskritura santuak irakurri ondoren. Bekatuen barkamenerako eskaintzaren ondoren tabernakulutik irtenaurretik, apaiz nagusiak bere burua garbitu behar izaten zuen, eta leku santu hartan soinean izandako arropak erantzi behar izaten zituen. Grekoen erritualean arau bat zen, pekamenezko sakrifizioa eskaintzean, sakrifikatzaileak ezin zuela opagaia ukitu, eta eskaintza egin ondoren, gorputza eta arropak garbitu behar izaten zituen ibai edo iturriren batean, hirira edo bere etxera itzuli aurretik. Polinesiarrek behar handia sentitzen dute beren buruak objektu sakratuak ukitzean hartzen duten kutsu sakratutik jaregiteko, hala deitzerik balego. Hainbat zeremonia egiten ziren kutsu hori indargetzeko. Ikusi dugu, adibidez, nola Tongan, inork buruzagi sakraturen bat edota hari zegokion zerbait ukituz gero, zeremonia bat egin behar izaten zuena bere eskuz bazkatu ahal izan aurretik; bestela, uste zen puztu eta hil egingo zela, edota gutxienez gangailenak edo beste gaixotasunen batek joko zuela. Ikusi dugu, halaber, zer-nolako ondorio gaiztoak segitzen zaizkion Zeelanda Berrian objektu sakratu bat ukitzeari. Laburtuz, lehen gizonak sinesten du sakratu dena arriskutsu dela; halako santutatsun elektriko batek hartua dela, eta santutasun horrek hura ukitzen duen edonor astintzen duela, are hiltzen ez badu ere. Horregatik, basatiak ez du ukitu edo ikusi ere egin nahi izaten bereziki santutzat daukana. Hala, krokodiloaren klaneko betxuanek pentsatzen dute "gorrotagarria eta zoritxarrekoa" dela krokodilo bat topatzea edo ikustea; ikusiz gero, begiak hanpatzen omen dira. Ordea, krokodiloa dute izakirik sakratuena; aita deitzen diote, haren izenean zin egiten dute, eta jaiak ospatzen dituzte haren omenez. Ahuntza da Madenassana boskimanoen animalia sakratua; ordea, "hari begiratzeak lohitu egingo luke gizona, eta halako larritasun zehazgabe bat eragingo lioke". Omaha indiarren arteko altzearen klanak sinesten du altze arra ukitze hutsaren ondotik zuldarrez eta mantxa zuriz beteko litzaiekeela gorputza. Narrastien klaneko kideek, tribu berorretan, pentsatzen dute beretako batek sugea ukitu edo usaintzen badu, ilea urdinduko zaiola. Samoan, jainkotzat tximeleta dutenek sinesten dute tximeleta bat harrapatuz gero hil egingo liratekeela. Orobat, Samoan, bananondoaren hosto gorritzak janariarentzako plater gisa erabili ohi ziren; baina basausoaren klaneko kideren batek horretarako banana-hostoak erabili balitu, sinetsita zeuden hanpadura erreumatikoak edo baztangaren antzeko erregosiak izango zituela gorputz osoan zehar. Bhiltarren mori klanak, Indiako erdialdean, indioilarra gurtzen du totemtzat, eta ale-eskaintzak egiten dizkio; baina

klaneko kideek sinesten dute oinik ezarriko balute indioilar baten oinatzetan, gaixotasunen bat izango luketela segidan, eta emakume batek indioilarra ikusten badu, aurpegia estali eta beste norabait begiratu behar duela. Beraz, lehen gizonen gogoak birus arriskutsutzat dauka santutasuna, dirudienez; gizon zuhurak ahalik urrutien saihestuko du, eta kutsatua gertatzen bada, bere burua desinfektatuko du kontu handiz, arazteko zeremoniaren baten bitartez.

Paralelotasun hauen argitan, egiptoarrek zerriaz zituzten sineste eta ohiturak animalia hori erabat santua zelako iritziak esplikatuko lituzke, ez erabat lohia zelako iritziak; edota, zuzenago adierazteko, paralelo horiek esan nahi dute animalia hori, izaki kirastun eta higuingarria izateaz gainera, naturaz gaindiko ahalmen garaiak zituelakoan zeudela eta, horrenbestez, izuikara erlijiosozko sentimendu primitiboaz hartzen zutela, jaurespenezko eta erdeinuzko sentimenduak erdibana nahasita. Antzinararrak berak ohartzen ziren bazela beste alderdi bat zerriak egiptoarrei eragiten zien laborriaz gainera. Izan ere, Eudoxo astronomo eta matematikari grekoa, Egipton hamalau urtez bizi izana eta hango apaizekin hitz eginga, iritzi honetakoa zen, alegia, egiptoarrek higuina ziotelako ez, laborantzarako zuen balioagatik uzten zutela bakean zerria; Eudoxo horrek dioenez, Nilo ibaiaren urak behera egiten zuenean, zerri-saldoak jaregiten omen zituzten soroetan zehar, hazia zanpatuz lur hezetan sar zezaten. Baina izaki batez sentimendu nahasi eta aldi berean kontrajarriak direnean, esan liteke izaki hori oreka ez-egonkorrean dagoela. Denboraren harian sentimendu kontrajarrietako bat besteari gainezkatuko zaio, eta gailentzen den sentimendu hori jaurespenezkoa ala higuinezkoa izan, izakia jainko-mailara igo edota deabru bihurtuko da. Bigarren zori horixe izan zuen zerriak Egipton, oro har. Garai historikoetan badirudi zerriarenganako izuikarak noizbait izan zioten jaurespena eta gurtza gainditu zituela, nahiz inoiz ez galdu hauen aztarnak, are bere egoera erori horretan ere. Seten edo Tifonen -egiptoar deabru eta Osirisen etsaiaren- gorpuzte gisa ikusten hasi ziren egiptoarrak zerria. Izan ere, zerri beltz baten itxuran zauritu zuen Tifonek Horus jainkoaren begia; honek, berriz, erre egin zuen hura, eta zerriaren sakrifizioa ezarri zuen, Ra eguzki-jainkoak aberea nardagarri aldarrikatu ondoren. Orobat, Tifonen istorioa, alegia, basurde bat ehizatzen ari zelarik Osirisen gorputza aurkitu eta zehatu zuela, eta horrexegatik sakrifikatzen zirela zerriak urtean behin, beste istorio zaharrago baten aldaera modernotua da argi eta garbi: basurde batek hil edo zehatu zuela Osiris, Adonis eta Atis bezala, edota Tifonek berak hil edo zehatu zuela, basurde baten itxura hartuta. Beraz, Osirisi urtero zerria sakrifikatzea jainkoa hil edo zehatu zuen animalia etsaiaren gainean hartutako mendeku gisa interpreta daiteke naturalki. Baina, lehenik, animalia bat horrela hiltzen denean, urtean behin bakarrik opagai eskainita, gehienetan edo beti animalia hori jainkozkoa delako seinale izaten da; urte osoan zehar gorde edo errespetatzen da jainko gisa, eta hiltzen dutenean, jainkoa den aldetik hiltzen dute. Bigarren, Dionisos eta Demeterren adibideek -Atis eta Adonisenek ez eta- erakutsi digute jainko bati etsai duelakoan sakrifikatzen zaion animalia, jatorriz jainkoa bera izan zitekeela, eta seguruenik hala zela. Beraz, Osirisi urtero zerri bat sakrifikatzeak, animalia horrek jainkoari omen zion etsaigoarekin batera, erakusten du, lehenik, hasieran zerria jainko zela, eta bigarren, jainko ezezik Osiris bera zela. Beranduagoko garaietan, Osiris antropomorfiko bilakatu zenean eta zerriarekiko lehen erlazio hori ahaztua zenean, animalia bereizi egin zen harengandik, eta gero mitologoek kontrajarri egin zuten, etsaia bailitzan, abere bat jainko baten gurtzarekin lotuta hiltzeko arrazoirik aurkitu ezinik, salbu eta abere hori jainkoaren etsaia zela. Plutarkok dioen bezala, jainkoek maite dutena ez, jainkoen kontrakoa sakrifikatu behar da. Beranduagoko etapa horretan, basurde batek laboreetan egiten duen triskantzak arrazoi onargarri bat ematen du hura labore-izpirituaren etsaitzat hartzeko, nahiz jatorriz, zuzen banago, basurdeak labore

artean zuen askatasuna, bere nahierara ibiliz, labore-izpirituarekin identifikatzera bultzatu jendea, geroago etsaitzat hartuko bazuen ere.

Zerria Osirisekin identifikatzen duen ikuspegiarentzat ez da oinarri txikia zerriak jainkoari Osiris bera hil zuten egunean sakrifikatzea, tradizioaren arabera; zeren eta zerria hiltzea Osiris hiltzearen urteroko antzezpena baitzen, Tesmoforietan zerriak leizezuloetara botatzea Persefone azpiko mundura jaistearen urteroko antzezpena zen bezala; eta bi ohitura horiek Europako usadioen pareko dira; ahuntza, oilarra eta abar, labore-izpirituaren ordezkoko gisa, uztaroan hiltzeko usadioa, alegia.

Orobat, zerria -alegia, hasieran Osiris bera- gerora Osirisen etsai zen Tifonen gorpuzte gisa hartu zutelako teoria, gizon ilegorriek eta idi gorriek Tifonekin duten antzeko erlazioak sendotzen du. Izan ere, ikusi dugu gizon ilegorriak erre eta errautsak haizemailez barreiatzen zituztela; ikusi dugu badela oinarririk sinesteko ezen, jatorriz, Erroman udaberrian hiltzen zituzten txakurkume ilegorriak bezala, labore-izpirituaren beraren ordezkokoak zirela, hau da, Osirisenak, eta laborea gorritzeko xede zehatzaz hiltzen zituztela. Alabaina, geroago gizon horiek Osirisen ordezkotzat ez baina beraren etsai Tifonen ordezkotzat hartu zituzten, eta haiek hiltzea jainkoaren etsaiaren gainean hartutako mendekutzat. Era berean, egiptoarrek sakrifikatutako idi gorria Tifonekin zuen antzagatik eskaintzen omen zen; haatik, litekeenagoa da jatorriz Osiris labore-izpirituarekin zuten antzagatik hil izana. Ikusi dugu idia labore-izpirituaren ordezkoko arrunta zela eta horrenbestez hiltzen zutela uzta-soroan.

Osiris Menfiseko Apis eta Heliopoliseko Mnevis zezenekin identifikatu ohi zuten. Baina zail da esaten zezen horiek hura labore-izpiritua zen aldetik gorpuzten ote zuten, idi gorriek bezala, ala jatorriz ez ote ziren jainko guztiz desberdinak, eta geroxeago Osirisekin bat egin zutenak. Bi zezen horien gurtzaren unibertsaltasunak beste plano batean jarriko lituzke, tokian tokiko animalia sakratu arrunten aldean. Baina zena zela Apisen eta Osirisen arteko hasierako erlazioa, bada lehenengoari dagokion egintza bat ezin isil daitekeena, jainkoa hiltzeko ohitura jorratzen ari garelarik. Nahiz Apis zezena jainko gisa gurtzen zuten, itzal handiz eta jaurespen sakonez, ez zitzaion uzten denboraldi batetik haratago bizitzen; liburu sakratuek agintzen zuten denboraldi hori amaitzean, iturri santu batean itotzen zuten. Denboraldi hori, Plutarkok dioenez, hogeita bost urtekoa zen; baina ez zuten beti errespetatuko: Apis zezenen hilobiak aurkitu dira azken urteotan, eta haietako hilartitzetatik atera daitekeenez, hogeita bigarren dinastian bi idi santu hogeita sei urte baino gehiago bizi izan ziren.

5. Virbio eta zaldia

Orain aieru bat iradokitzeko moduan gara lehenago ikusitako kondaira batez. Kondaira horren arabera, Virbio, Ariciako basoko lehen errege jainkozkoa, zaldiek hil omen zuten Hipolitoren izaeran. Aurkitu dugu, lehenik, laborearen izpirituak zaldien itxuran irudikatzen direla ez gutxitan; eta bigarren, geroagoko elezaharren arabera, batzuetan jainkoa zauritu omen zuen animalia jainkoa bera zela jatorriz. Beraz, aieru egin genezake Virbio edo Hipolito hil omen zuten zaldiak Virbioren beraren gorpuzteak zirela benetan, landaretzaren jainkoa zen aldetik. Zaldiek hil zutelako mitoa haren gurtzaren zenbait ezaugarri esplikatzekeo asmatua dateke; besteak beste, zaldiak haren zuhaizti sakratutik kanpo uzteko ohitura. Izan ere, mitoa aldatu egiten baita ohiturak berean irauten duelarik; gizonak beren arbasoek egin izan dutena eginez jarraitzen dute, nahiz arbasoek egiten zutenaren arrazoiak aspaldi ahaztuak izan. Erlijioaren historia ohitura zaharrak arrazoi berriz janzteko saio luzea da, praktika burugabeentzat teoria arrazoizkoak aurkitzeko saioa. Aurrean dugun kasuan, seguru egon gaitezke mitoa ohitura baino modernoagoa dela, eta inola ere ez duela ematen zaldiak zuhaiztitik kanpo uzteko jatorrizko arrazoiak. Kanpo uzte horretatik atera beharko litzateke zaldiak ezin direla izan zuhaiztiko jainkoaren animalia sakratu edo gorpuzturak. Baina hori ez

litzateke ondorio zuhurra. Ahuntza Atenaren animalia sakratua eta gorpuztura zen aldi berean; hori atera daiteke jainkosa ahuntz-larraz (aegis) estalita irudikatzeko ohituratik. Baina ahuntza inoiz ez zitzaion sakrifikatzen arau gisa, eta ez zitzaion uzten hark Atenasko Akropolisean zuen jainkotegi handian sartzen. Horretarako arrazoi hau ematen zen, ahuntzak olibondoa kaltetzen zuela, Atenaren zuhaitz sakratua, alegia. Beraz, ahuntzaren eta Atenaren arteko erlazioa zaldiaren eta Virbioren artekoaren parekoa da: bi animaliak jainkoari egindako kalteagatik uzten dira jainkotegitik kanpo. Baina Varronengandik dakigunez, ahuntza Akropolisetik at uzten zuen arauak bazuen salbuespen bat. Urtean behin, dio Varronek, ahuntza eramaten zuten Akropolisera derrigorrezko sakrizioa egiteko. Aurrez esan dugun bezala, animalia bat urtean behin, eta behin bakarrik, sakrifikatzen denean, baliteke jainkoari eskainitako biktima gisa ez baina jainkoaren beraren ordezkio gisa hiltzea. Beraz, pentsa genezake ezen, urtean behin ahuntza sakrifikatzen bazen Akropolisean, Atena bera zelakoan sakrifikatzen zela; eta sakrifikatutako animalia haren jainkosaren estatuaren gainean ipintzen bide zen, aegisa eratuz, eta urtero modu hartan berrituko zen. Era berean, Egiptoko Tebasen ahariak sakratuak ziren eta ez ziren sakrifikatzen. Baina urteko egun batean aharia hiltzen zuten, eta haren larrua Amon jainkoaren estatuaren gainean ipintzen zuten. Ariciako zuhaiztiko erritualak hobeto ezagutuko bagenu, agian aurkituko genuke zaldiei zuhaiztian sartzen ez uzteko arauak, ahuntzei Atenasko Akropolisean sartzen ez uzteko arauak bezala, salbuespen bakar bat izaten zuela urtero: urtean behin zaldi bat eramaten zuten zuhaizti barrura, eta Virbio jainkoaren gorpuztura bailitza sakrifikatzen zuten. Ohiko gaizkiulertua dela medio, hala hildako zaldia kalte egin zion jainkoari opagai eskainitako etsaitzat hartuko zen denboraren harian, Demeter eta Osirisi sakrifikatutako zerria edo Dionisosi, eta beharbada baita Atenari ere, sakrifikatutako ahuntza bezala. Hain erraza da idazle batek arau bat arauaren salbuespenaz ohartu gabe jasotzea, non ez dugun harritu beharrik Ariciako zuhaiztiko araua nik iradokitakoa bezalako salbuespenaren batere aipurik gabe jaso zelako. Ateneo eta Plinioren adierazpenak besterik ez bagenitu, Atenari ahuntzak sakrifikatzea debekatzen zuen eta ahuntzei Akropolisean sartzen uzten ez zien araua besterik ez genukeen ezagutuko, Varronen lan zorionez gordeak erakutsi digun salbuespen garrantzitsuaren berririk gabe.

Urtean behin Ariciako zuhaiztian zaldia zuhaizti hartako jainkoaren ordezkari gisa sakrifikatzen bide zutelako aieruak babes pixka bat hartzen du Erroman urtean behin izaten zen zaldi baten antzeko sakrifizioetik. Urriaren hamabostean, urtero, zalgurdien lasterketa izaten zen Martitzen Soroan. Lantza batez zatzatuta, talde irabazleko eskuineko zaldia sakrifikatzen zitzaion Martitzi uzta ona izateko, eta lepoa moztu eta burua ogi-zarta batez apaintzen zuten. Ondoren, bi auzotako biztanleak -Bide Sakratukoak eta Suburakoak- nor baino nor aritzen ziren burua bereganatzeko. Baldin eta Bide Sakratuko jendeak bereganatzen bazuen, erregearen etxeko horma batetik zintzilikatzen zuten; Suburakoek bereganatzen bazuten, Mamalia dorretik eskitzen zuten. Zaldiaren buztana ere moztu egiten zen eta erregearen etxera eramaten zuten, hain bizkor, non odol-jarioa etxeko zoru gainera erortzen zen. Gainera, badirudi zaldiaren odola gorde egiten zela apirilaren hogeita bata arte, eta orduan birjina vestaleek sei egun lehenago sakrifikaturiko txahal jaiogabeen odolarekin nahasten zutela. Nahaste hura artzainen artean banatzen zen, eta haiek beren aziendak keztatzeko erabiltzen zuten.

Zeremonia hartan, zaldiaren buruaren apaindurak -ogi-zartak, alegia- adieraziko luke zaldia labore izpirituaren ordezkio gisa hilko zutela, beste hainbeste adibidetan ikusi dugun bezala. Zaldiaren isatsa mozteko ohitura Afrikako beste ohitura haren antzekoa da: idien isatsak moztu eta idiak sakrifikatzen zituzten uzta ona izateko. Bai Erromako eta bai Afrikako ohituretan, badirudi animalia labore-izpirituaren ordezkioa dela, eta

haren emankortasun-ahala bereziki isatsean datzala. Azken ideia hori ageri da, ikusi dugunez, Europako folklorea ere. Orobat, udaberrian aziendak zaldiaren odolaz keztatzeko ohitura, zaldiei udaberrian edo ganaduari Eguberrietan, emakume zaharra, neskutsa edo clyack izeneko azaoa jaten ematearekin konpara daiteke, eta Eguberrietako ordotsa goldeko idi edo zaldiei udaberrian jaten ematearekin. Usadio horiek guztiek helburu bat zuten: labore-izpirituak baserria eta bertakoak bedeinka zitzala, eta beste urtebetez bertan iraun zezala.

Erroman egiten zen urriko zaldiaren sakrifizioak, halaxe baitzeritzan, lehenagoko egunetara garamatza. Subura, gerora metropoli handiaren auzo txiro eta behartsua, herritxo bat zen artean, eta hango biztanleak adiskidetasunezko lehian aritzen ziren soroan Erromako auzoekin, hau ere nekazal herria izaki. Martitzen Soroa, hantxe izaten baitzen zeremonia, Tiber ibaiaren ondoan zegoen, eta erregearen ondarearen parte izan zen monarkia ezabatu arte. Kondairak dio ezen, azken erregea Erromatik bidali zuten garaian, laborea helduta zegoela igitaiaren zain ibaiondoko erret lurretan; baina inork ez zuela jan ale madarikatu hura eta ibaira bota zutela, halako piletan non, udako beroak ura mehetua zuenez, irla eratu baitzuen. Zaldiaren sakrifizioa, bada, udazkeneko ohitura zaharra zen, uzta amaitzean erregearen labore-soroetan egiten zena. Zaldiaren isatsa eta odola, labore-izpirituaren ordezkaren parte nagusiak, erregearen etxera eramaten ziren, han gordetzeko; halaxe Alemanian ere, uzta-oilarra goi-habetik esekitzen da, edota baserriko atearen gainean; eta halaxe Eskoziako Highlandsen ere, azken azaoa - neskutsa, alegia- etxera eramaten da eta supazterraren gainean edukitzen. Beraz, labore-izpirituaren bedeinkazioa eramaten zen erregearen etxera eta lurretara, eta haren bitartez, bera buru zuen komunitatera. Era berean, Europako iparraldeko udaberriko eta udazkeneko ohituretan, maiatz-haga alkatearen etxe aurrean ezartzen da batzuetan, eta uztako azken azaoa eramaten zaio alkateari, herriko buru den aldetik. Baina isatsa eta odola erregeari zegozkion bezala, Suburako auzo-herriari, behinola antzeko zeremonia izan baitzuen ezbairik gabe, utzi egiten zitzaion, sari gisa, zaldiaren buruagatik lehiatzen. Mamalia dorrea, zeinetatik suburatarrek zaldiaren burua zintzilikatzen baitzuten, bereganatzea lortzen zutenean, Mamalia familia zaharraren dorretxe edo egoitza izana bide zen, herriko jauntxoena. Herri osoaren eta auzo-herriaren izenean erregearen soroetan eta etxean egindako zeremoniak, beste garai batera garamatza: herri bakoitzak antzeko zeremonia bat egingo zuen orduan bere soroetan. Lazioko nekazal barrutietan herriek ohitura hori gordeko zuten, zeinek bere lurrian, Erromako herrixkek beren uzta-lekuak erregearen lurretako ospakizun amankomunean bat egin eta askoz geroago ere. Litekeena da Ariciako zuhaitzi sakratua, Erromako Martitzen Soroa bezala, uzta-ospakizun amankomun baten gertaleku izana, eta ospakizun hartan zaldi bat sakrifikatzea errito zakar berberekin auzo-herrien mesedetan. Zaldiak zuhaitzaren eta laborearen izpiritu emankorra ordeztuko luke, bi ideiak elkarrekin nahasten baitira, uzta-maiatza bezalako ohituretan ikusi dugun bezala.

1

Jainkoa jatea

1. Lehen igalien sakramentua

Ikusi dugu labore-izpiritu batzuetan giza itxuran eta beste batzuetan animalia itxuran irudikatzen dela, eta bi kasuetan ordezeko horiek hilez hiltzen zutela, eta sakramentuz jaten. Labore-izpirituaren giza ordezkaria benetan hiltzearen adibideak aurkitzeko, arraza basatietara jo behar izan dugu; baina Europako nekazarien uzta-bazkariak ezbairik gabeko adibideak eman dizkigute, animaliak labore-izpirituaren ordezkari gisa sakramentuz jateaz. Horrez gainera, pentsa zitekeen bezala, labore berria bera ere jaten da sakramentuz, hau da, labore-izpirituaren gorputz gisa. Suediako Wermlanden, baserritarraren emazteak azken azaoaren alea erabiltzen du neskato baten itxurako ogia

egiteko; ogi hori etxeko guztien artean partitzen da, eta denek jaten dute. Kasu honetan ogiak neskuts gisa sumatutako labore-izpiritua ordeztzen du; Eskozian labore-izpiritua berdintsu sumatzen da, eta emakume-itxuran egindako eta neskutsa izena duen azken azaoak ordeztzen du. Ohi bezala, uste da labore-izpiritua azken azaoan bizi dela eta, beraz, azken azaoetik egindako ogia jatea labore-izpiritua bera jatea dela. Era berean, La Palissen, Frantzian, irin-orez egindako gizon bat esekitzen dute izai batetik, eta izaia azken uzta-gurdian garraiatzen dute. Zuhaitza eta orezko gizona nagusiaren etxera eramaten dira, eta han gordetzen mahats-bilketa amaitu arte. Gero uzta amaitzea ospatzeko oturuntza egiten da, eta han nagusiak orezko gizona zatikatu eta zatiak jendeari ematen dizkio jateko.

Adibide horietan labore-izpiritua giza itxuran irudikatzen eta jaten da. Beste kasu batzuetan, labore berritik giza itxurako ogirik egiten ez den arren, hala ere, hura jateko egiten diren zeremonia itzaltsuak aski dira sakramentuz partitzen dutela adierazteko, hau da, labore-izpirituaren gorputz gisa. Adibidez, ondoko zeremonia hau egiten zuten Lituaniako nekazariak labore berria jatean. Udazkenean ereiterakoan, labore guztia bildu eta larraineko lana hasita zegoenean, baserritar bakoitzak jai bat ospatzen zuen, Sabarios zeritzana, hau da, "nahastea edo batera botatzea". Bederatzi eskutada eder hartzen zituen labore-mota bakoitzetik -garia, garagarra, oloa, lihoa, baberrunak, dilistak eta beste-, eta eskutada bakoitza hiru partetan banatzen zuen. Hogeita zazpi parteak pila batera bota eta dena nahasten zen. Erabilitako aleak lehenen jotakoa eta haizatutakoa izan behar zuen, aparte ipinia eta hartarako gordea. Hala nahastutako alea ogitxoak egiteko erabiltzen zen, ogitxo bat etxeko bakoitzarentzat; beste guztia garagar edo olo gehiagorekin nahasten zen garagardoa egiteko. Nahasketa hartatik egindako lehen garagardoa etxajaunak, emazteak eta umeek edateko zen; bigarrena, zerbitzariarentzat. Garagardoa prest zegoenean, baserritarrak kanpokorik espero ez zen arratsalde bat aukeratzen zuen. Belaunikatu garagardo-upelaren aurrean, pitxer bat bete eta upelaren tttutta gainera isurtzen zuen, esanez: "Oi lur emankor, egizu zekalea eta garagarra eta labore-mota guztiak lora daitezen". Ondoren pitxerra salara eramaten zuen, emaztea eta haurrak zain zituen lekura. Salaren zoru gainean oilar zuria edo beltza edo nabarra (ez gorria), eta kolore bereko eta txitaldi bereko oiloa egoten ziren, urte hartantxe jaioak. Baserritarra pitxerra eskuan zuela belaunikatzen zen, eskerrak ematen zizkion Jainkoari uztagatik, eta otoitz egiten zuen hurrengo urtea ona izan zedin. Ondoren, denek jasotzen zituzten eskuak, esanez: "Oi Jainkoa, eta zu, oi lur, oilar eta oilo hauek eskaintzen dizkizuegu gure borondate onaren adierazle". Hori egitean, baserritarrak zurezko koilaraz jota hiltzen zituen hegaztiak, ezin baitzien leporik moztu. Lehen otoitzaren eta bi hegaztiak hil ondoren, garagardoaren heren bat isurtzen zuen. Gero emazteak hegaztiak egosten zituen aurrez inoiz erabili gabeko ontzi berri batean. Hori egindakoan, saski bat jartzen zen ipurdiz gora zoruan, eta han ipintzen ziren gorago aipatu bederatzi ogitxoak eta hegazti egosiak. Gero garagardo berria ekartzen zen, baita zali bat eta hiru godalet ere, abagune hartan bakarrik erabiltzen zirenak. Baserritarrak garagardoa hiru godaletetara atera ondoren, familia belaunikatu egiten zen saskiaren inguruan. Aitak otoitz egiten zuen eta hiru godaletetako garagardoa edaten zuen. Besteek gauza bera egiten zuten. Gero ogiak eta hegaztien okela jaten zituzten, eta segidan atzera garagardoaren txanda izaten zen, harik eta godalet bakoitza bederatzina aldiz husten zuten arte. Ez zen janaririk geratu behar; baina ezer sobratzen bazen, biharamun goizean jaten zen zeremonia berberekin. Hezurak zakurrari ematen zitzaizkion; hark jaten ez bazituen, ukuiluko gorotzetan ehorzten ziren. Zeremonia hori abenduaren hasieran egiten zen. Egun hartan ezin zen hitz zatarrik esan.

Halakoxea zen ohitura orain berrehun bat urte edo. Gaur egun, Lituanian, patata berria edo labore berriaz egindako ogia jaten denean, mahaikide guztiek tira egiten diete

elkarri ileetatik. Azken ohitura honen esanahia iluna da, baina antzeko ohitura zuten ezberrik gabe lituanier paganoek beren sakrifizio itzaltsuetan. Oesel irlako estonier askok ez dute labore berriaz egindako ogia jaten aurrez burdin tresna bat hozkatu gabe. Kasu honetan, burdina xarma bat da argi eta garbi, laborean datzan izpirituak minik egin ez dezan. Sutherlandshiren, gaur egun, patata berria ereiten denean, familia osoak probatu behar izaten du, bestela "haitan [patatetan] dautzan izpirituak iraindu egiten dira, eta ez litzateke patatarik etorriko". Yorkshireko parte batean oraindik ere ohitura da apaizak lehen laborea ebakitzea; eta nire informatzaileak sinesten du hala ebakitako laborea komuniorako ogia egiteko erabiltzen dela. Ohituraren azken partea ondo emana bada (eta analogia guztiz aldeko du), erakusten digu komunio kristauak Kristautasuna baino askoz zaharragoa den sakramentua bereganatu duela.

Japoniako aino edo ainuek zenbait artatxiki-mota ezagutzen omen dituzte, batzuk arrak eta besteak emeak, eta "zereal senar-emazte jainkozkoak" (Umurek haru kamui) deitzen diete mota horiei. "Beraz, artatxikia birrindu eta denentzako opilak egin aurretik, agureek gurtzeko hartzen dituzte batzuk. Prest daudenean, otoitz egiten diete sentimendu handiz, esanez: "Oi zu, jainko zereala, gurtzen zaitugu. Ondo hazi zara aurten, eta zapore gozoa izango duzu. Ona zara. Suaren jainkosa pozik egongo da, eta guk ere atsegin handia hartuko dugu. Oi jainko, oi jainkozko zereal, bazka ezazu herria. Jan egingo zaitut orain. Gurtzen zaitut eta eskerrak ematen dizkizut". Hala otoitz egin ondoren, gurtzaileek opil bat hartu eta jan egiten dute, eta une horretatik aurrera herriak badauka artatxiki berria jatea. Eta hala, omenezko keinu eta otoitz ugariz, janari-mota hori ainuen ongizaterako enplegatzen da. Ezberrik gabe, zerealaren eskaintza jainkoari egindako ordainketa gisa hartzen da, baina jainko hori hazia bera da; eta giza gorputzarentzat ona den heinean da jainko".

Arrozaren uzta amaitzean, Indiako ekialdeko Buru irlan, klan bakoitza oturuntza sakramentalean biltzen da, klaneko kide bakoitzak arroz berri pixka bat jarri behar duelarik. Oturuntza horri "arrozaren arima jatea" deritza, eta izen horrek argi adierazten du otorduaren sakramentu-izaera. Arroz pixka bat aparte uzten da izpirituari eskaintzeko. Minahassako alfuren artean, Celebesen, apaizak lehen arroz-hazia erakusten du, eta soro bakoitzeko lehen arroz heldua biltzen. Arroz hori txigortu eta birrindu egiten du, eta etxeko bakoitzari ematen dio pixka bat. Bolang Mongondon, Celebesko beste eskualde batean, arrozaren uzta baino pixka bat lehenago, txerrikumea edo hegaztia eskaintzen da. Gero apaizak arroz pixka bat biltzen du, lehenik bere soroan eta gero auzokoenetan. Hala bildutako arroz guztia berearekin lehortzen du, eta atzera jabeei ematen die, eta haiek eho eta egosi egiten dute. Egosi dagoenean, emakumeek arrautza batekin batera ematen diote berriz apaizari, eta apaizak sakrifizioan eskaintzen du arrautza, eta arroza atzera itzuli egiten die emakumeei. Familikide guztiek jan behar dute arroz horretatik, baita haur txikienek ere. Zeremonia horren ondoren, has daitezke arroza biltzen.

Burgher edo bagaden artean -Indiako ekialdeko Neilgherry Hillseko tribu bat da hau-, curumbartar batek -beste tribu bateko gizon batek, alegia- ereiten du haziaren lehen eskutada eta ebakitzen du lehen azaoa, burgherrek sorgintzat baitauzkate Curumbar tribukoak. Lehen azaoko alea "janari bihurtzen da egun horretan, opilak egiten dira hartatik eta, lehen igalien opagai gisa eskainita, sakrifikatutako animalia hondarrek batera, burgherrak eta bere familia osoak jaten dituzte, eskaintza eta sakrifizio amankomun baten mui gisa". Indiako hegoaldeko hinduen artean arroz berria jatea Pongol izeneko famili jai baterako abagune izaten da. Arroz berri lapiko berri batean egosten da, eguerdian piztutako sutan, astrologo hinduen arabera eguzkia Kaprikornioko tropikoan sartzen den egunean. Egoste hori larriduraz behatzen du familia osoak, zeren eta, esnea nola egosten den, halaxe izango baita hurrengo urtea ere. Esneak bizkor irakiten badu, urtea oparoa izango omen da; baina alderantziz gertatuko omen da esneak

poliki irakiten badu. Egositako arroz berri pixka bat Ganesaren irudiari eskaintzen zaio; gero denek hartzen dute hartatik. Indiako iparraldeko zenbait aldetan, uzta berriaren jaiari Navan deritza, hau da, "ale berria". Uzta helduta dagoenean, jabeak aztarrenak ateratzen ditu, sorora joaten da, garagarraren bost edo sei buru biltzen ditu udaberriko uztan eta artatxikiaren buru bat udazkeneko uztan. Etxera eramanean, ihartu eta nahastu egiten ditu azukre birrindu gabearekin, gurinarekin eta gatzatuarekin. Nahastetik pixka bat sutara botatzen du herriko jainkoen eta arbasoen izenean; beste guztia familiak jaten du.

Onitshan, Niger ibaian, honela deskribatu zaigu ñame berriak jateko zeremonia: "Buruzagi bakoitzak sei ñame ekartzen ditu, eta palma-hostoen abarrak moztu eta bere ate aurrean ipintzen ditu, hiru ñame erre eta kola-intxaur batzuk eta arraina jiratzten ditu. Ñamea erre ondoren, libia edo paraje hartako osaginak ñamea hartu, irin modukoa atera arte karraskatu, eta erdibitu egiten du; gero puska bat hartu eta ñame berria jango duen pertsonaren ezpainen ipintzen du. Jaleak gorantz putz egiten du ñame berotik sortzen den lurrina, eta ondoren ahoan hartzen du dena, eta hauxe esaten du: "Eskerrak Jainkoari ñame berria jaten uzten didalako"; gero arretaz murtxikatzeari ekiten dio, arrainarekin batera".

Afrikako ekialde britainiarreko nandien artean, udazkenean ale eleusiarra heltzen denean, soro baten jabe den emakume oro bertara joaten da bere alabekin, eta denen artean ale heldu pixka bat biltzen dute. Emakume bakoitzak ale bat bere idunekoa tinkatu eta beste bat murtxikatu egiten du, eta gero honetaz bekokia, lepoa eta bularra igurtzitzen ditu. Ez dute inolako alaitasun-aztarrenik agertzen; tristeki, labore berritik saskikada bat ebakitzen dute, eta etxera eramaten dute ganbaran ihartzen uzteko. Hango zorua zumezkoa denez, ale asko erortzen da zirrituen artetik sutara, eta han lehertu egiten dira zirtaka. Jendeak ez du ezer egiten ale horiek guztiak alferriki ez galtzeko; aleek sutan egiten duten zirta-hotsa hildakoen arimak ere handik jaten ari direlako seinaleztat hartzen baitute. Handik egun batzuetara morokila egiten dute ale berriaz, eta arratseko otorduan ateratzen dute. Familiakide guztiek hartzen dute morokila, eta etxoletako hormak eta sabaiak gantzutzen dituzte hartaz; ahoratu ere egiten dute pixka bat, eta tu egiten dute ekialdera eta etxolen kanpoaldera. Gero, ale pixka bat eskuan edukiz, familiburuak otoitz egiten dio Jainkoari osasuna eta indarra eskatuz, baita esnea ere, eta han diren guztiek errepikatzen dituzte haren hitzak.

Natal eta Zululandiako kafreen artean, inork ezin dezake fruitu berririk jan kafreen urtearen hasiera seinalatzen duen jai bat iragan arte, abenduaren azkenean edo urtarrilaren hasieran. Jende guztia biltzen da erregearen etxean, eta han jan eta dantza egiten dute. Barreiatu baino lehen, "herriaren dedikazioa" izaten da. Lurraren hainbat fruitu, hala nola laborea, artatxikia eta kuiak erretzen dituzte ontzi handietan, sakrifikatutako animalien okelarekin eta "sendagaiarekin" nahastuta, eta janari horren pixka bat jartzen du erregeak berak gizon bakoitzaren ahoan. Bedeinkaturiko fruituetatik jan ondoren, gizona santututa geratzen da urte osorako, eta ondoren berehala joan daiteke bere ereinetara. Haien santutasunaren arabera, norbaitek fruitu berriak jaiaren aurretik jango balitu, hil egingo omen litzateke; antzemango balute, hil egingo lukete, edota gutxienez ganadua kenduko liokete. Arau batek argi asko adierazten du igali berrien santutasuna, doi hartarako eta ez bestetarako erabiltzen den ontzi berezi batean egosi behar direla, baita su berri batean ere, magia-gizon batek bi makilatxo, "senar-emazteak" deritzenak, elkarrekin igurtziz piztu ondoren.

Betxuanek araua dute uzta berrietatik jan aurretik beren buruak araztea. Arazte hori urte berriaren hasieran izaten da, buruzagiak erabakitzen duen urtarrileko egun batean. Tribuko etxe handian hasten da, han biltzen baitira heldu guztiak. Bakoitzak hosto batzuk hartzen ditu bertakoek lerotse deitzen dioten kui batetik (kuiaren eta

kalabazinaren arteko itxura omen du) eta, hostook saka-saka eginez ateratzen zaion muztioaz, erpuruak eta zilborra igurtzitzen ditu; jende askok gorputzeko giltzadura guztiak igurtzitzen ditu muztioaz, baina ondoen informatutakoek diotenez, hori ohitura zaharraren okertze bat besterik ez da. Etxe handiko zeremonia honen ondoren, nor bere etxolara joaten da, eta han bere familiarekin bildu, gizon, emakume eta haur, eta denak igurtzitzen ditu lerotse-hostoen muztioaz. Hosto batzuk birrindu egiten dira, zurezko erratilu batean esnearekin nahastu eta zakurrei ematen zaie miazka dezaten. Gero familikide bakoitzaren morokil-platera igurtzitzen dute lerotse-hostoez. Arazte hori burutu ondoren, ez lehenago, jendea libre geratzen da uzta berritik jateko.

Brasilgo bororo indiarrek uste dute seguru-seguru hilko lirakeela arto berria osaginak bedeinkatu aurretik janez gero. Bedeinkazio-zeremonia honelakoxea da. Artaburu erdi helduak garbitu eta osaginaren aurrean jartzen dituzte; hura, hainbat orduz dantzan eta kantuan jardunez, eta etengabe errez, halako estasi-egoera batera iristen da, eta orduan artaburuei hozka egiten die, soin-atalak dardara batean eta noizean behin oihi eginez. Antzeko zeremonia bat egiten da abere edo arrain handiren bat hiltzen dutenean. Bororoak etsita daude ezen, norbaitek bedeinkatu gabeko artoa edo haragia zeremonia osatu baino lehen ukituko balu, hura eta tribu osoa hil egingo lirakeela.

Iparramerikako creek indiarren artean, busk-a edo lehen fruituen jaia izaten zen urteko zeremonia nagusia. Uztailean edo abuztuan izaten zen, artoa helduta zegoenean, eta urte zaharraren amaia eta berriaren hasiera markatzen zuen. Hura baino lehen, indiarrek ez zuten jango ez erabiliko uzta berriaren parterik. Batzuetan herri bakoitzak ospatzen zuen bere buska; beste batzuetan hainbat herri biltzen ziren denen artean ospatzeko. Buska ospatu baino lehen, jendeak arropa berriak eta etxeko lanabes eta altzari berriak jiratzen zituen; arropa zaharrak eta hondakinak biltzen zituzten, sobratutako ale eta beste hornizio zaharrekin batera; jarri denak pila batean, eta sutan erretzen zituzten. Zeremoniarako prestakuntza gisa, herriko su guztiak itzali eta errautsak garbitzen ziren. Bereziki, tenpluko aldareko sutegia zulatu eta errautsak ateratzen ziren. Gero apaiz nagusiak "botoi-suge landarearen (*Egrium aquaticum*) zenbait sustrai jartzen zituen sutegiaren hondoan, tabako-orri berde batzuekin eta fruitu berrien pixka batekin batera, eta gero buztin zuriz estaltzeko eta ur garbiz hezetzeko agintzen zuen. Zuhaitz gazteen abar hezez egindako gereta sendoa jartzen zen aldare gainean. Bitartean, emakumeek beren etxeak txukuntzen zituzten, supazterrak berrituz eta sukaldeko ontzi guztiak garbituz, prest egon zitezen su berria eta fruitu berriak hartzeko. Herriko plaza edo plaza sakratua arreta handiz eskobatzen zen, aurreko jaietako apur txikienak ere garbitzeko, "lehen fruituen eskaintzak satsutzeko beldurrez". Horrez gainera, amaitzen zen urtean janaria edukitako edo erabilitako ontzi guztiak ateratzen ziren tenplutik eguzkia sartu baino lehen. Gero, ustez lehen fruituen legea eta ezkontzaren legea hautsi ez zuten gizon guztiei deitzen zien pregonari batek plaza santura sartzeko eta barau larria egiteko. Baina emakumeei (sei atso salbu), haurrei eta gerrari-maila lortu ez zutenei debekatu egiten zitzairen plazan sartzea. Begiraleak ere jartzen ziren plazaren bazterretan, lohitutzat jotzen ziren pertsona guztiei eta animalia guztiei sartzeko ez uzteko. Barau gogorra egiten zen bi gau eta egun batez, debotek botoi-sugearen sustrai egosien salda edaten zutelarik "botaka egin eta beren gorputz bekatariak garbitzeko". Plazaz kanpoko jendea ere arazteko, agureetako batek tabako berde asko uzten zuen plazaren bazter batean; atso batek jaso eta kanpoko jendearen artean banatzen zuen; mastekatu eta irentsi egiten zuten, "beren arimak zigortzeko". Barau orokorrak irauten zuen bitartean, emakumeei, haurrei eta gizon ahulei eguerdia ondoren uzten zitzairen jaten, ez lehenago. Baraua amaitzen zen goizean, emakumeek urte zaharreko janariaren kantitate bat plaza sakratutik kanpo eramaten zuten. Hornizio haiek bildu eta jendetza gosetuaren aurrean jartzen ziren, baina hondar guzti-guztiek desagertu behar zuten eguerdia baino lehen.

Eguzkia behera hasten zenean, pregonari batek etxe barruan egoteko agintzen zion jende guztiari, gaiztakeriarik ez egiteko, eta su zaharraren ilinti guztiak itzali eta jaurti zituztela segurtatzeko. Isiltasun osoa nagusitzen zen. Orduan apaiz nagusiak su berria pizten zuen bi egur-puska elkarrekin igurtziz, eta aldarean jartzen zuen gereta hezearen azpian. Su berri hark ordura arteko krimen guztiak garbitzen omen zituen, hilketa salbu. Ondoren, fruitu berriz betetako saskia eramaten zuten; apaiz nagusiak fruitu-mota bakoitzetik pixka bat hartu, hartz-olioz igurtzi eta eskaini egiten zion, okela pixka batekin, "suaren izpiritu sakratu oparoari, lehen fruituen opalkuntza gisa, eta bekatuen urteroko barkamenerako". Gainera, oka-eragile sakratuak sagaratzen zituen (botoi-sugearen sustraia eta cassina -Ilex vomitoria- edo edari beltza), haietako pixka bat sutara botaz. Kanpoan egondako pertsonak hurbildu egiten ziren orduan plaza sakratura, baina sartu gabe; eta apaiz nagusiak hitzaldia egiten zuen, jendeari errito eta ohitura zaharrak gordetzeko eskatuz, iragarritz jainkozko su berriak iragan urteko bekatuak garbituak zituela, eta emakumeei arren eskatuz ezen, inork ez bazuen su zaharra itzali, edo lohituta bazegoen, berehala aldegin behar zuela, "jainkozko suak bera eta herria suntsi ez zitzaizkion". Su berri pixka bat jartzen zen plaza santutik kanpora; emakumeek etxera eramaten zuten pozik, eta beren sutei ezin garbiagoetan jartzen zuten. Zenbait herri biltzen zirenean jaia ospatzeko, su berria kilometroetako distantziara eraman behar izaten zen. Fruitu berriak su berrietan maneatu eta hartz-olioz lagunduta jaten ziren, olio hori nahitaezkoa jotzen baitzen. Jaiaren une batean gizonek esku artean igurtzitzen zuten arto berria, gero aurpegian eta bularrean. Ondorengo jaiaren zehar, gerrariak, beren gerra-jantzi basatiak aldean, buruak lumatxa zuriz estalita eta eskuetan ere luma zuriak zituztela, su berriaren gaineko gereta sakratuaren inguruan egiten zuten dantzan. Zeremoniak zortzi egun irauten zuen, eta denboraldi horretan kontinentziarik estuenari eusten zioten. Jaia amaitze aldera, gerrariak alegiazko borroka egiten zuten; gizonek eta emakumeek batera, hiru zirkulutan, dantzan egiten zuten su sakratuaren inguruan. Azkenez, buztin zuriz gantzutzen zuten denek burua, eta erreka batean bainatzen ziren. Uretatik irteten ziren sinetsiz ez zitzaizkion gertatuko ezer txarrik iraganeko hutsegiteengatik. Hartara, pozik eta bakean aldegitzen zuten.

Gaur egun ere, Floridan geratzen diren seminola indiarrek -creeken etorki bereko herri bat- Arto Berdearen Dantza deritzan arazte-jaia izaten dute urtero, zeinetan arto berria jaten den. Lehen jai-egunaren arratsaldean, "edari beltz" higuigarri bat -halaxe deritza- irensten dute, okarazle eta garbitzaile baliatzen zaiena; sinesten dute likore hura edaten ez duenak ez daukala arto berdea arriskurik gabe jaterik, eta gainera gaixotu egingo dela urtean zehar. Likorea edan bitartean, dantza hasten da, eta osaginak ere bertaratu egiten dira. Biharamunean arto berdea jaten dute; hurrengo egunean barau egiten dute, beharbada urdaileratutako janari sakratua janari arruntarekin nahastuta satsutzeko beldurrez; baina hirugarren egunean oturuntza handia egiten dute.

Are lurra lantzen ez duten tribuek ere, batzuetan antzeko zeremoniak izaten dituzte sasoiko lehen fruitu basakak edo lehen sustraiak biltzen dituztenean. Hala, Iparramerikako mendebaldeko salish eta tinneh indiarren artean, "gazte-jendea, sasoiko lehen ale edo sustraiak jan aurretik, beti zuzentzen zitzaion fruitu edo landareari, eta bere aldekatza eta laguntza eskatzen zion. Zenbait tributan lehen fruituen zeremoniak egiten ziren urtero basafruituak edo sustraiak biltzeko sasoian, baita tribu izokin-jaleen artean ere, "solomo urdineko" izokinak ibaietan gora hasten zirenean. Zeremonia horiek ez ziren eskerregiteak, eskuratu nahi zen zer horren uzta edo hornizio oparoa segurtatzeko arierak baizik; behar bezala eta jaurespenez egiten ez baziren, arriskua zegoen gauzen "izpirituei" irain egiteko, eta haiek gabe geratzeko". Adibidez, indiar horiek basa-mugurdien lehen kimu edo muskilen oso zaleak dira, eta zeremonia solemnea egiten dute sasoiko lehenak jatean. Kimuak eltze berrian egosten dira. Jendea

bildu eta biribil handi batean jartzen da, begiak itxita, buruzagi edo osaginak landarearen izpirituari dei egiten diolarik, erregutuz aldeko izan dakiela eta muskil-hornizio ederra berma diezaiela. Zeremoniaren parte hori amaitu ondoren, egositako muskilak ematen zaizkio buru ari denari plater landu berri batean, eta pittin bat ematen zaio bertan direnetako bakoitzari, eta begirunez eta lotsaz jaten dute denek.

Columbia Britainiarreko thompson indiarrek eguzkilorearen sustraia (Balsamorhiza sagittata, Nutt.) egosten eta jaten dute, baina landare hori izaki misterioetsutzat hartu ohi zuten, eta hainbat tabu zituzten bera zela eta; adibidez, sustraia ateratzen edo egosten aritzen ziren emakumeek kontinentzia gorde behar izaten zuten, eta gizonek ez zeukaten hurbiltzerik emakumeak sustraia erretzen ari ziren labera. Gazte-jendeak sasoiko lehen ale, sustrai edo bestelakoak jaten zituenean, otoitz egiten zioten eguzkilorearen sustraiari, honela: "Gaztigatzen dizut zu jan asmotan naizela. Lagun nazazu, arren, beti igotzen, mendi-gailurretara iritsi ahal nadin, eta inoiz ez nadila baldartu! Horixe eskatzen dizut, eguzkilorre-sustrai. Denetan misterioetsuena zara". Otoitz hori ez esateak alfertu egingo luke jalea, goizean lotan geratuko litzateke berandu arte.

Thompson indiarren eta Iparramerikako mendebaldeko beste tribu batzuen ohitura horiek oso argigarriak dira, sasoiko lehen fruituak jateko egindako zeremonien azpiko motiboa, edo motiboetako bat, erakusten baitigute. Motibo hori, indiar horien kasuan, sineste bat da, landarea bera izpiritu kontziente eta gutxi-asko indartsu batek biziarazten duela, eta izpiritu hori propiziatu egin behar dela jendeak ustez haren gorputzaren zati diren fruitu edo sustraieetatik arriskurik gabe jan aurretik. Eta hori egia bada basafruitu eta sustraiei dagokienez, pentsa genezake egia dela halaber gizonak landutako fruitu eta sustraiei dagokienez ere, hala nola ñamea, eta bereziki zerealak: garia, garagarra, oloa, arroza eta artoa. Kasu guztiotan arrazoizkoa dirudi pentsatzea edozein uztatako fruituak jatean basatiek ageri dituzten eskrupuluek, eta eskrupulu horiek gauditutako aurretik izaten dituzten zeremoniek, ideia hauek dituztela oinarri neurri handi batean: landarea edo zuhaitza izpiritu batek edo are jainko batek biziarazten duela, eta jainko edo izpiritu horren baimena lortu behar dela, edo berorren aldekotza erregutu, uzta berritik arriskurik gabe jan aurretik. Halaxe esaten da argi eta garbi ainoez: artatxikiari "jainkozko zereala", "zereal jainkoa" deitzen diote, eta errezatu eta gurtu egiten dute artatxiki berriaz egindako opilak jan aurretik. Eta lehen fruituetan bizi den jainkoa espreski aipatzen ez denetan ere, irudi luke haiek jateko prestaketa larriek, baita agindutako errituala bete gabe jatera ausartzen diren pertsonak ustez duten arriskuek ere, jainko hori inplikatzeko dutela. Kasu horietan guztietan, beraz, ez geundeke oso oker fruitu berriak jatea jainkoarekiko edota izpiritu indartsu batekiko komunioaren sakramentu gisa deskribatuko bagenu.

Ondorio horretara garamatzate, besteak beste, usadio hauek: lehen fruituak ontzi berri edo berezietan edukitzeko ohitura, eta komunio-hartzaileak araztekoak, jainkoarekiko komunio itzaltsuan legez eta behar bezala sartu aurretik. Halako abaguneetan arazteko modu guztietatik, creek eta seminolen jokabideak jartzen du batez ere agerian erritoaren bertute sakramentalak: arto berria irentsi aurretik garbigarri bat hartzen dute. Asmoa janari sakratua ez satsutzea da, urdailean janari arruntarekin nahastuta ez satsutzea, alegia. Arrazoi berberetatik egiten dute katolikoek ere barau eukaristikoa; eta Afrikako ekialdeko artzain masaien artean, gerrari gazteak, okelaz eta esnez bakarrik bizi direnak, hainbat egunetan esnea besterik ez hartzera behartzen dituzte, eta gero beste hainbat egunetan okela besterik ez jatera, eta jaki batetik bestera pasatu aurretik seguru egon behar dute janari zaharretik ezer ez zaiela geratzen urdailean; horretarako garbigarri eta okarazle indartsu bat irensten dute.

Aztertu ditugun jai batzuetan, lehen fruituen sakramentua lehen fruituok jainko edo izpirituei aurkezteko sakrifizioarekin batera egiten da, eta denboraren harian lehen

fruituen sakrifizioak itzal egingo dio sakramentuari, are ordezkatu ere egingo du. Lehen igaliak jainko edo izpirituei eskaintze hutsa nahikoa prestakuntza kontsideratuko da orduan labore berria jateko: goiko ahalmenek beren parte hartu ondoren, gizona libre da beste guztiaz gozatzeko. Fruitu berriak ikusteko modu horrek adierazten du jadanik ez direla hartzen jainkozko bizia bailuten, baizik eta jainkoek gizonari emandako opari gisa; gizona, beraz, jainko ongileei bere esker ona eta omena adieraztera behartuta dago, haiek emandakoaren parte bat atzera berei itzuliz.

2. Jainkoa jatea, azteken artean

Ogia sakramentuz -jainkoaren gorputza bailitzan- jateko ohitura, espainiarrek Mexiko aurkitu eta konkistatu aurretik ere egiten zuten aztekek. Urtean bitan, maiatzean eta abenduan, Huitzilopochtli Mexikoko jainko handiaren irudia egiten zuten irin-orez, eta gero zatikatu eta handikiro jaten zuten gurtzaileek. Maiatzeko zeremonia honela deskribatzen du Acosta historialariak: "Mexikarrek maiatzean egiten zuten Vitziliputzli jainkoaren omenezko jai nagusia, eta jaia baino bi egun lehenago, lehen aipatu ditudan birjinek (tenpluan bertan gordeta zeuden; mojak bezalakoak ziren) erremolatzaren hazia ehotzen zuten arto txigortuarekin batera, eta gero eztiarekin nahasten zuten, eta idoloa egiten zuten ore hartaz, zurezkoa balitz bezain handia, begien lekuan kristal berde, urdin edo zurizko bikorrak ezarriz; eta hortzen lekuan artaleak, esan dudan apaingarri eta hornidura guztiekin jarrita. Hori amaitu ondoren, noble guztiek jantzi bikain aberatsa ekartzen zuten, zurezko idoloarena bezalakoa, eta hura janzten zioten. Hala jantzita eta apainduta, eserleku urdin batean eta anda batzuetan jartzen zuten, beren sorbalda gainetan eramateko. Jaiaren goiza iristean, eguna urratu baino ordubete lehenago, neskuts guztiak etortzen ziren zuri jantzita, apaindura berriekin, eta egun hartan Vitziliputzliren arrebak deitzen zitzairen. Arto txigortu eta lehertuaren sortez koroatuta etortzen ziren, azahar edo laranja-loreak ziruditela; eta lepo inguruetan gai bereko korda handiak eramaten zituzten, ezkerreko besaperaino. Masailak gorritz tindatuta izaten zituzten; besoak, ukalondotik eskuturreraino, loroen luma gorritz". Gizon gazteek, arropa gorritz eta birjinak bezala artoz koroatuta, idoloa bere andetan garraiatzen zuten piramide-itxurako tenplu handiaren oineraino, eta eskailmaila piko eta estuetan gora jasotzen zuten xirula, turuta eta danborren musikaz. "Idoloa jasotzean, jende guztia jaiara eta beldur handiz egoten zen patioan. Gora jaso ondoren, eta prest zeukaten arrosazko toki batean ipini ondoren, gizon gazteak etorri eta lore koloreanitz ugari botatzen zituzten, eta haiez betetzen zuten tenplua, barrualdea eta kanpoaldea. Hori egin ondoren, birijina guztiak irteten ziren komentutik, idoloa bezala erremolatzaz eta arto txigortuz egindako ore-puskak ekarriz, hezur handien itxurakoak. Gizon gazteei ematen zizkieten, eta haiek idoloaren oinetan uzten zituzten, toki hura osorik bete arte, gehiago hartu ezin izateraino. Ore-pusketa haiei Vitziliputzliren haragia eta hezurak deitzen zieten. Hezur haiek utzi ondoren, tenpluko zahar guztiak etortzen ziren, apaizak, tenplu-zaintzaileak eta beste ministro guztiak, bata bestearen ondoren, beren maila eta antzinatasunen arabera (zeren eta ordena zehatza baitzegoen haien artean), kolore eta eite anitzetako beloekin, nor bere maila eta ofizioaren arabera, buru gainean lore-sortak eta lepoan lore-kordak zituztela; ondotik, gurtzen zituzten jainko eta jainkosak etortzen ziren, itxura anitzetakoak, jazkera berdinez; eta ordenan jarritik ore-pusketa haien inguruan, zenbait zeremonia egiten zituzten kantatuz eta dantzatuz. Horren ondotik bedeinkatuak eta sagaratuak geratzen ziren idoloaren haragiaren eta hezurren kariaz. Bedeinkatze hori amaitu ondoren (zeinen bidez idoloaren haragia eta hezurtzat hartzen baitzituzten ore-puskak), puska haiek beren jainkoa bezala ohoratzen zituzten... Hiri osoa izaten zen ikuskizun eder hartan, eta bazen lurralde osoan zorrotz gordetzen zen agindu bat, alegia, Vitziliputzliren idoloaren jaieguna hartan ez zutela jan behar idoloak egiteko erabilitako ore hura baizik, eztiarekin batera. Eta hura eguna urratsean jan behar

zen, eta ez zuten urik ez beste ezer edan behar eguerdira arte; zantzu txartzat zeukaten, sakrilegiotzat, bestelakorik egitea; baina zeremonia amaitu ondoren, zilegi zuten edozer jatea. Zeremonia hark iraun bitartean, ura ezkutatzen zieten haur txikiei, eta abisu ematen zieten arrazoidun guztiei urik ez edateko; halakorik egin balezate, Jainkoaren hira eroriko zela haien gainera, eta hil egingo zirela; eta arreta handiz eta hertsiki gordetzen zuten araua. Zeremoniak, dantza eta sakrifizioa amaitutakoan, beren jantziak eranztera joaten ziren, eta tenpluko apaiz eta buruek orezko idoloa hartzen zuten, apaindura guztiez gabetu eta puska asko egiten zituzten, hala idolotik nola sagaratuak zituzten zatietatik, eta komunio gisa ematen zizkieten jendeari, handienetatik hasita, gizon, emakume eta haurtxoei. Jendeak malkoz eta beldurrez eta jaieraz hartzen zuen, gauza miresgarria bailitzan, esanez Jainkoaren haragia eta hezurak jaten zituztela, hartarako nor ez baziren ere. Gaixotasunen bat zutenek beren alde eskatzen zuten, dena jaurespenez eta jaieraz eginez".

Pasarte interesgarri horretan ikus dezakegunez, antzinako mexikarrek, are misiolari kristauak iritsi aurretik ere, oso ezaguna zuten transubstantziazioaren doktrina, eta hartan oinarritzen ziren beren erlijioaren errito itzaltsuetan. Sinesten zuten apaizek ogia sagaratuz beren jainkoaren gorputz bihur zezaketela, eta ogi sagaratutik jaten zuena jainkoarekiko komunio mistikoan sartzen zela, haren jainkozko gaia bere baitan hartuz. Transubstantziazioaren doktrina, edo ogia haragi bihurtze magikoa, ezaguna zuten antzina Indiako ariarrek ere, Kristautasuna hedatu eta are sortu ere baino askoz lehenagotik. Brahmanek irakasten zuten sakrifizioan eskainitako arroz-opilak gizakien ordezkioak zirela, eta gizonen benetako gorputz bilakatzen zirela apaizaren maneioen ondoren. Irakurtzen dugunez, "hura (arroz-opila) arroz-irina denean, ilea da. Apaizak gainera ura isurtzen dionean, azal bihurtzen da. Nahasten duenean, haragi bihurtzen da, orduan trinkotzen baita, haragia bezala. Labean erretzen denean, hezur bihurtzen da, orduan gogortzen baita, hezurra bezala. Eta atera eta urez ziprirtintzen duenean, muin bilakatzen du. Horixe da, osorik, animala sakrifizio boskoitza deitzen dutena".

Orain guztiz ondo uler genezake, halaber, zergatik, jainkoarekiko komunio itzaltsuaren egunean, mexikarrek beren jainkoaren haragia eta hezur benetakoak zirelakoan gurtzen zuten ogi sagaratu besterik ez zuten jaten, eta zergatik ezin zuten ezertxo ere edan eguerdira arte, ezta urik ere. Beldur baitziren, zalantzarik gabe, Jainkoaren zatia beren urdailetan laidotzeko, gauza arruntekin nahastuta. Antzeko beldur jaierazko batek eramaten zituen creek eta seminola indiarrek, ikusi dugunez, bide eraginkorrago bat hartzera, beren gorputzak garbitzaile indartsu batez arazteko, lehen fruituen sakramentutik jaten ausartu aurretik.

Neguko solstizioko jaian, abenduan, aztekek lehenik iruditan hiltzen zuten beren jainko Huitzilopochtli, eta ondoren jan egiten zuten. Zeremonia itzaltsu hartarako prestakuntza gisa, jainkoaren irudia egiten zen giza itxuran, hainbat motatako haziak nahastuz eta haurren odolez orezuz. Arkaziaren zur-puskek irudikatzen zituzten jainkoaren hezurak. Irudi hura tenpluko aldare nagusian ipintzen zen, eta jai-egunean erregeak intsentsua eskaintzen zion. Biharamun goizean jaitsi eta bere oinen gainean jartzen zuten areto handi batean. Apaiz batek, Quetzalcoatl jainkoaren izena izan eta jainko horrena egiten zuenak, hartzen zuen dardo sukarri-puntaduna eta orezko irudiaren bularra sastakatzen zuen behin eta berriz. Horri "Huitzilopochtli jainkoa hiltzea, beronen gorputza jan ahal izateko" zeritzan. Apaizetako batek irudiaren bihotza ebaki eta erregeari ematen zion jaten. Irudiaren beste guztia puskatxotan zatitzen zen, eta gizonezko guztiek, handi zein txiki, are sehaskan zeuden mutikotxoek ere, puskatxo bat hartzen zuten jateko. Baina emakumeek ez zeukaten mokadurik probatzerik. Zeremoniari teoqualo zeritzan, hau da, "jainkoa jatea".

Beste jai batean mexikarrek gizon-itxurako iruditxoak egiten zituzten, mendi lainoz estaliak adierazten zituztenak. Irudi haiek hazi-mota askoz egindako oretan moldatuak ziren, eta paperezko apaingarriz jantzita izaten ziren. Zenbaitek bost egiten zituen, beste batzuek hamar, beste batzuek hamabost ere bai. Egin ondoren, etxe bakoitzeko otoilekuan ipini eta gurtu egiten zituzten. Gauean lau aldiz janari-eskaintzak eramaten zitzaizkien ontzitxoetan; eta jendeak kantatu eta xirula jotzen zuen haien aurrean, eguna argitu arte. Eguna urratzean apaizek sastakatu egiten zituzten irudiak, ehuntzeko tresna batez; lepoa moztu eta bihotza ateratzen zieten, eta etxeko nagusiari aurkezten zioten platertxo berde batean. Etxeko guztiek jaten zituzten irudien gorputzak, batez ere zerbitzariak, "zertarako eta haiek janda zenbait gaitzetatik gordetzeko; izan ere, haien ustez, jainkoak gurtzeaz arduratzen ez ziren pertsonak gaitz haietara emanak baitziren".

3. Manio ugari Arician

Orain gai gara "Manio asko dira Arician" atsotitzaren azalpen bat iradokitzeko. Gizon-itxuran egindako ogi batzuei maniae deitzen zieten erromatarrek, eta badirudi ogi-mota hori Arician egiten zela batez ere. Ordea, Mania, ogi horietako baten izena, izpirituaren amaren edo amonaren izena ere bazen, eta berari eskaintzen zitzaizkion gizon eta emakumeen irudi artilezkoak Compitalia jaian. Irudi haiek Erromako etxe guztietako ateetan esekitzen ziren; irudi bat esekitzen zen etxeko pertsona libre bakoitzeko, eta beste bat, desberdina, esklabo bakoitzeko. Arrazoia zera zen, egun hartan hildakoen izpirituak ustez han zehar ibili ohi zirela noraezean, eta espero zen ezen, apropos nahiz oharkabean, ateetako irudiak eramango zituztela etxean bizi ziren pertsonen ordezt. Tradizioaren arabera, artilezko irudi haiek aurreko ohitura baten -gizakiak sakrifikatzearen- ordeztokoak ziren. Hain datu zatikako eta zalantzazkoen gainean ez dago fidagarritasunez jarduterik; baina pentsa liteke Arician egiten ziren giza itxurako ogiak ogi sakramentalak zirela, eta antzina batean, Basoko Errege jainkozkoa urtero hiltzen zutenean, haren itxurako ogiak egiten zirela, Mexikon jainkoen orezko irudiak bezala, eta gurtzaileek sakramentuz jaten zituztela. Huitzilopchtliaren ohorezko mexikar sakramentuek ere giza opagaiak izaten zituzten lagun. Beraz, Ariciako zuhaizti sakratuko fundatzailea Manio izeneko gizon bat izan zela eta Manio askoren arbaso izan zela dioen kondaira, mito etimologikoa litzateke, ogi sakramental hauetara ematen zitzaizkien maniae izena esplikatzen asmatua. Beste istorio batean ere jaso daitezke agian ogiek giza sakrifizioekin jatorriz zuten loturaren oroitzapen ilun batzuk. Compitalia jaian Maniari eskaintzen zitzaizkion irudiak giza opagaien ordeztokoak zirela dio istorio horrek. Istorioak berak, ordea, ez duke oinarri sendorik, zeren eta izpiritu edo deabruen arreta pertsona bizietatik bestetatzeko panpinak jartzeko usadioa maiz samar ageri baita.

Esate baterako, tibetarrak beldur handia diete Khon-Ma ama zaharraren aginduetara dauden kontak ezin ahala deabru lurrekori. Jainkosa hori, Erromako Mania izpirituaren ama edo amonaren pare jar daitekeena, arropa horiz jantzita dago, lakioa darama eskuan, eta ahari baten gainean eserita dabil. Khon-Ma ama zaharra nagusi duten deabru lohiak etxean ostantu har dezaten galarazteko, argimutil baten itxura duen egitura landua tinkotzen da ate gainean etxearen kanpoaldetik. Ahari baten burezurrea, hainbat bitxi, hala nola urrezko horristoak, zilarra eta turkesa, janari lehor pixka bat, hala nola arroza, garia eta babak, eta azkenez gizon baten, emakume baten eta etxe baten eskulturak edo pinturak edukitzen ditu. "Gizonaren, andrearen eta etxearen irudion zertarakoa deabruak engainatzea da, eskaintza horiek egin arren etorriko balira: aipatu pinturak etxeko biztanleak direla sinets dezaten, beren haserre zurezko puska horietan ase dezaten, eta hartara benetako biztanleak salba daitezten". Dena prest dagoenean, apaiz batek otoitz egiten dio Khon-Ma ama zaharrari, arren onar ditzala eskaintza ederrok eta itxi ditzala lurreko ateak, deabruak handik irten eta etxea betetz kalte egin ez diezaienten.

Irudiak erabiltzen dira askotan gaixotasunei aurea hartzeko edo sendatzeko ere; gaixotasunaren deabruak nahastu egiten dituzte irudiak pertsona biziekin, edota haietan sartzera behartzen dira, benetako gizon-emakumeak oso eta sendo utziz. Hala, Minahassako alfurek, Celebesen, batzuetan beste etxe batera eramango dute gizon gaixoa, eta haren ohean burko batez eta arropaz egindako panpina utziko dute. Panpin hori gizon gaixoarekin nahastuko omen du deabruak, eta hartara hura sendatu egingo da. Horrelako sendatze edo aurrez zaintzeari arreta berezia eskaintzen diote Borneokoek. Hala, izurritea sortzen denean, Katoengouw ibaiko daiak zurezko irudiak jartzen dituzte ateetan, izurritearen deabruak huts egin dezaten eta jendearen ordeiz irudiak eraman ditzaten. Borneoko Oloh Ngadju tribukoen artean, gizon gaixo bat ustez izpiritu baten erasopean dagoenean, irin-orezko edo arroz-irinezko panpinak egiten dira, eta etxe azpira botatzen gaixoaren ordeizko gisa, eta hartara hura izpiritutik libratzen da. Borneoko mendebaldeko eskualde batzuetan, gaixotasun batek bat-batean eta indar handiz norbait hartzen duenean, sendagileak -munduko alde hartan emakume zahar bat izan ohi da gehienetan- zurezko irudia eratu eta hartaz gaixoaren burua ukitzen du zazpi aldiz, esanez: "Irudi honek gizon gaixoaren lekua hartzeko balio du; gaixotasun, pasa zaitez irudira". Gero, arroz pixka bat, gatza eta tabakoa saskitxo batean jarrita, izpiritu gaiztoa gizonarengan sartu omen zen lekura eramaten dute ordeizkoa. Han lurrean jartzen dute zutik, sendagileak izpirituari honela dei egin ondoren: "Oi deabru, hemen da irudi bat gizon gaixoaren ordeiz. Jaregin ezazu gizon gaixoaren arima eta gaixo ezazu irudia, hau hura baino politagoa eta hobea da eta". Magia-gizon batak gaixoaren gorputzetik bananondo batez egindako, giza aurpegia duen eta belar magikoetan bildutako irudira pasaraz dezakete gaixotasunaren deabrua; irudia bizkor eraman eta botatzen dute, edota herriko mugetatik kanpo ehorzten dute. Batzuetan irudia, gizon edo emakume jantzia -pazientearen sexuaren arabera-, bidegurutze batean edo beste bideren batean jartzen da, handik pasatuko den batek, hura ikustean, oiho hau egingo duelako esperantzan: "A! Halako hil da"; zeren eta honelako aldarriak gaixotasunaren deabrua nahastuko baitu, bere asmo gaiztoa bete duela sinestaraziz, eta hartara deabruak alde egingo du eta sufrimendutan dagoenari oneratzeko utziko dio. Malakako penintsulako Mai Darat izeneko tribu sakai batekoek, gaixotasun-mota guztiak egozten dizkiote nyani deitzen dieten izpirituen lanari; zorionez, ordea, magia-gizonak behartu egin ditzake izaki gaizto horiek pertsona gaixoaregandik irtetera eta belarrezko irudi zakarretan ostatu hartzera. Irudiak etxeen kanpoaldeetan jartzen dira kanpai-erako zizkutxo makila zurituz apainduetan. Baztanga-epidemia batean ewe beltzek batzuetan sail bat soildu eta garbituko dute herritik kanpo, eta han muinotxo batzuk eraikiko dituzte, eta herrian diren pertsonak hainbat buztin-iruditxo ez estaliko. Janaria eta ura ere uzten dituzte, baztangaren izpiritua freska dadin. Izpiritu horrek buztinezko irudiak hartu eta bizidunak bakean utziko ote dituen esperantzan egiten dute hori; eta are seguruago izateko, herrirako bidean barrikada jartzen dute haien kontra.

Adibideok aurrean ditugula, pentsa genezake artilezko irudiak, antzinako Erroman Compitaliaren jaian etxe guztietako ateetatik zintzilik ikus zitezkeenak, ez zirela lehenago sasoi hartan sakrifikatzen ziren giza opagaien ordeizkoak, baizik eta izpirituen ama edo amonari aurkeztutako ordeizko eskaintzak, hirian zehar egiten zituen jira haietan irudiak onartu edo etxeetako biztanleak zirelakoan hartuko zituelako esperantzan, hartara bizidunei beste urtebetez barkatuko zielarik. Baliteke kanaberaz egindako panpinek, maiatzean pontifize eta birjina vestaleek Erromako Sublizio zubitik Tiberrera botatzen zituztenek, esanahi berbera izatea jatorriz; alegia, baliteke hiria deabruzko eraginetaik libratzeko pentsatuak izatea, deabruen arreta gizakietatik panpinetara aldatuz eta orduan saldo beldurgarri hura buruz behera ibaira botaz, handik laster itsasoraino joango baitziren. Hain zuzen, berdin-berdin garbitzen zuten Calabar

Zaharrekoek beren hiria hura mukuru betetzen zuten deabruetz, deabru burugabeak txorimalo itsusi batzuetara erakarriz eta ondoren txorimaloek ibaira botaz. Erromako ohituraren interpretazio hori Plutarkoren datu batek bermatzen du neurri batez, zeremonia hari "arazterik handiena" deitzen baitio.

li

Okelaren homeopatiatzko magia

Jainko bat hiltzeko usadioaren arrastoa ikusi dugu gizartearen nekazal estadioa lortu duten herrien artean. Ikusi dugu laborearen izpiritua, edo beste landare batzuen, giza edo animali itxuran irudikatzen dela arrunki, eta zenbait lekutan ohitura batek iraun duela, urtero jainkoaren giza edo animali ordezkaria hiltzekoa. Labore-izpiritua horrela, bere ordezkoaren bidez, hiltzeko arrazoi bat eman dugu inplizituki lan honetan lehenago: pentsa genezake intentzioa hura zahardadearen ahuleziaz gordetzea zela, izpiritua osorik eta indarrean dagoen bitartean ondorengo gazte eta kementsu baten baitara aldaraziz. Haren jainkozko indarrak berritzeko desiraz gainera, labore-izpiritua nahitaezkoztat joko zuten uztagileen igitaien edo labanen menpe hiltzea eta, beraz, gurtzaileak halabehar triste hari men egitera behartuta sentituko ziren. Baina, gainera, aztura hedatu bat aurkitu dugu, jainkoa sakramentuz jatekoa, dela jainkoa ordeztzen duen gizonaren edo animalia formen, dela giza edo animali itxuran egindako ogi gisa. Jainkoaren gorputza jateko arrazoiak, lehen gizonen ikuspuntutik, aski sinpleak dira. Basatiak sinesten du animalia edo gizon baten haragia janez animalia edo gizon horren ezaugarri fisikoak ezezik, ezaugarri moral eta intelektualak ere bereganatzen dituela; hala, izaki hori jainkozkoztat jotzen denean, gure basati sinpleak beronen jainkotasun-puska bat irenstea espero izaten du haragiarekin batera. Ondo dagoke fede amankomun horren etsenpluak ematea, mota askotako bertute edo bizioak animali jakien bitartez lortzeaz, are jaki horiek jainko baten gorputz edo odolatzat hartzen ez direnean ere. Doktrina hau oso zabal adarkatua den sinpatiazko edo homeopatiatzko magiaren sistemaren parte da.

Adibidez, creek, cherokee eta Iparramerikako indiar azalgorrien tribuek "sinesten dute naturak halako propietatea duela, gizon eta animaliei jaten dutenaren tasunak pasartzeko, edota haien zentzuen aurrean jartzen diren gauzena; oreinak jaten dituen, haien sistema fisikoaren arabera, bizkorragoa eta zuhurragoa da hartz baldarraren okela janez bizi den gizona baino, edo eskortako hegazti armagabeak, edo azienda eskukoi hanka-geldoa, edo zerri astun lokaztatua. Horrexegatik gomendatzen eta esaten dute haien arteko zaharrek, lehenago buruzagi handiek arau bat gordetzen zutela beti beren dietan, eta gutxitan jaten zutela animalia dorperik, edo gorputzez astuna zenik, uste zutelako horrek dorpezia eragiten ziela sistema osoan, eta ezgaitu egiten zituela beren zeregin gerrako, zibil eta erlijiozkoetan indartsu eta kemenez aritzeko". Ekuadorreko zaparo indiarrek "gehienetan ez dute jango haragi astunik, hala nola tapirra eta pekaria, behar gorrian izan ezik; txoriak, tximinoak, oreinak, arrainak eta abar jatera mugatzen dira, batez ere -diote berek-, haragi astunagoek astun bihurtzen dituztelako, haragi hori ematen dieten animaliak bezain astun, arintasuna kenduz eta ehizarako ezgaituz". Era berean, Brasilgo indiar batzuek ez lukete lasterka, hegan edo igerian poliki egingo lukeen abere, txori edo arrainik jango, haren okelatik janez gero, beren zalutasuna galduko luketelako eta beren etsaiengandik ihes egiteko gauza izango ez liratekeelako. Karibeek ez zuten zerrikerik jaten, zerriek bezalako begi txikiak ez izatearren; eta uko egiten zioten dortokak jateari, hala egitera animalia hori bezain astun eta ergel bilakatuko ote ziren beldurrez. Afrikako mendebaldeko fangen artean, gizon gazteek inoiz ez dute jaten dortokarik arrazoi berdintsuagatik; uste dute hala egingo balute, galdu egingo lituzketela indarra eta hanka-arintasuna. Baina gizon zaharrek jaten dituzte dortokak,

zeren eta lasterka egiteko ahala galdua dutenez, ez baitute kalterik izango izaki hanka-motel horren haragia janda.

Basati asko animalia hanka-motelen okela janda berak ere hanka-motel bihurtuko ote diren beldur badira ere, Hegoafrikako boskimanoek apropos jaten zuten halako animalien okela, eta hartara basatien filosofiaren finezia bitxia azaltzen zuten. Pentsatzen zuten jazartzen zioten ehizakinari ehiztariaren gorputzean zegoen janariak eragingo ziola sinpatiaz: ehiztariak animalia hanka-arinak jaten bazituen, ehizakina ere hanka-arina izango zen eta ihes egingo zion; baina animalia hanka-motelak jaten bazituen, ehizakina ere hanka-motela izango zen, eta berak aurea hartu eta hil egingo zuen. Hori dela eta, orix-ehiztariak bereziki saihesten zuten gazela bizkor arinaren okela-jatea; ukitu ere ez zuten egiten, uste zutelako gazela oso izaki bizia zela, gaez lo egiten ez zuena, eta hura janez gero orixak ere, antzera, ez zuela lo egin nahiko ezta gaez ere. Eta nola harrapatu orduan?

Namaquek ez dute erbikirik jaten, horrek erbia bezain izuti egingo lituzkeelakoan. Baina jaten dute lehoikia, eta edaten dute leopardoaren edo lehoiaren odola, piztia horien adorea eta indarra izateko. Boskimanoek ez diete ematen txakalaren bihotza haurrei, horrek txakala bezain izuti bihur ez ditzan; baina ematen diete leopardoaren bihotza, leopardo bezain ausart izan daitezen. Afrikako ekialdeko gizon wagogo batek lehoia hiltzen duenean, bihotza jaten dio lehoia bezain ausarta izateko; pentsatzen du oiloaren bihotza jateak berau bezain izuti bihurtuko lukeela. Gaixotasun larriren batek zuluen etxe bat jotzen duenean, sendagileak zakur zahar-zahar baten hezurra hartu, edota behi, zezen edo beste animalia oso zaharren batena, eta gaixoei nahiz osasuntsuei ematen die, zertarako eta hezurra jan dioten animalia bezain zaharra izatera irits daitezen. Halaxe, Aeson zaharra gaztarora itzularazteko, Medeak orein zahar baten gibel egosiaren eta bederatzi giza belaunaldiz bizi izan zen bele baten buruaz egindako salda sartu zion zainetan.

Borneoko iparmendebaldeko daiaken artean, gizon gazteek eta gerrariak ez dute ehizarik jaten, janez gero orkatza bezain izuti bihurtuko liratekeelako; baina emakumeek eta agureek jan dezakete. Ordea, eskualde bereko kayanen artean, ehiza jatearen ondorio txarrez ikuspegi bera badute ere, gizonak jan dezakete haragi arriskutsu hori, baldin eta aire zabalean atondua bada; izan ere, orduan animalia izpiritu herabetiak ihes egiten omen du oihanera, eta ez da sartzen jalearengan. Ainoek uste dute ur-zozoa oso azkarra dela, eta bere hizkeran oso hitzuna dela txori hori. Beraz, hiltzen dutenean, ireki, bihotza kendu eta irentsi egiten dute, hoztu baino lehen edo inolako kalterik jasan baino lehen. Gizon batek horrela irensten badu, oso berbalau eta azkar bihurtuko da, eta kontrako guztiak hizketan garaitzeraino iritsiko da. Indiako iparraldean jendeak imajinatzen du ezen, hontzaren begiak janez gero, jalea hontza bezain gai izango dela ilunean ikusteko.

Kansas indiarrek gerrara joan behar zutenean, oturuntza egiten zuten buruzagiaren etxolan, eta plater nagusia zakur-okela izaten zen, zeran eta, hala esaten zuten indiarrek, bere nagusiaren defentsan bizia galdu eta zatikatua izateraino iristen den animaliak kemena eman behar baitu. Buru eta Aru uharteetako gizonak -Ekialdeko Indietan- zakurren okela jaten dute gerran bihoztai eta arin izateko. Port Moresby eta Motumotu eskualdeetako papuarren artean, Ginea Berrian, gizon gazteek zerri indartsuak, walabia eta arrain handiak jaten dituzte, animalia horien indarra izateko. Australiako iparraldeko batzuek uste dute kanguruaren edo emuaren haragia janez gero gai izango direla lehenago baino jauzi handiagoak egiteko edo bizkorrago korritzeko. Assamgo miriek gizonentzako janari gisa preziatzen dute tigreen okela: indarra eta ausardia ematen die. Baina "ez da egokia emakumeentzat, horrek independenteegiak bihurtuko bailituzke". Korean tigreen hezurrek leopardoaren baino prezio altuagoa dute ausardia

emateko. Txinatar batek, Seulen, tigre osoa erosi eta jan egin zuen, bere burua ausart eta suhar bihurtzeko. Eskandinaviako elezahar batean, Ingiald, Aunund erregearen semea, izutia zen gaztetan, baina otso baten bihotza jan ondoren oso ausart bihurtu zen; Hialtok indarra eta bihotza bereganatu zituen hartz baten bihotza janez eta odola edanez.

Marokon gaixo oso erkinduei inurriak ematen dizkiete irents ditzaten, eta lehoikia jateak ausart bihurtuko omen du koldarra; baina jendeak ez ditu jaten hegaztien bihotzak, janez gero izuti bihurtuko bailirateke. Haur bat hizketan ikasteko motel dabilenean, Asia Erdiko turkiarrek txori jakin batzuen mihiak ematen dizkiete jatera. Iparramerikako indiar batek uste zuen brandyak bihotz eta mihi egosien salda izan behar duela, "zeren eta", zioen berak, "hura edan ondoren, ez baitiot izaten beldurrik ezeri, eta zoragarri hitz egiten dut". Javan bada zizaretxo bat, noizbehinka hots kirrinkaria ateratzen duena, iratzargailu baten txirrina bezalakoa. Horregatik, neska dantzari bati bere lanean eztarria marrantatu zaionean, taldeburuak zizare horietarik ematen dio jaten, ustez hartara bere ahotsa lehengora etorriko zaiola eta, haiek irentsi ondoren, beti bezain oihu kirrinkariak egiteko gai izango dela. Afrikako erdialdeko Darfur eskualdekoek uste dute gibela arimaren egonlekua dela. "Animalia bat hiltzen dutenean, gibela atera eta jan egiten diote, baina jendeak kontu handia izaten du eskuez ez ukitzen, sakratutzat daukatelako; puska txikietan zatikatu eta gordinik jaten dute, puskatxoak labanaren puntan edo ziri baten mutur zorrozatuan ahoratuz. Inork gibela nahi gabe ukitzen badu, debekatu egiten zaio hartatik jatea, eta debeku hori zoritxar handitzat daukate besteek". Emakumeei ez zaie uzten gibela jaten, arimarik ez dutela eta.

Orobat, hildakoen haragia eta odola jan eta edan egiten dira, hildakoa famatu duten ausardia, zuhurtzia edo beste tasun batzuk norbereganatzeko, uste baita tasunok jandako parte horretan dutela beren egonleku berezia. Hala, Afrikako hegoekialdeko tribu menditarren artean, gazteak anaidi edo logietan eratzen dira zeremonia batzuen bidez, eta inimizazio-erritoen artean bada bat gizongaiei ausardia, buru argia eta beste tasun batzuk emateko. Ausardia nabarmenez borrokatu den etsairen bat hiltzen dutenean, hainbat atal ebakitzen dizkiote erre baino lehen: gibela, ausardiaren egonlekutzat daukatena; belarriak, buru argiaren egonleku omen direnak; bekokiko azala, setaren egonlekutzat jotzen dutena; barrabilak, indarraren egonleku omen direnak; eta beste atal batzuk, beste bertute batzuen egonlekutzat dauzkatena. Errautesak zezen baten adarrean gordetzen dituzte kontu handiz, eta erdaintzako zeremonietan beste gai batzuekin nahasten dira ore modukoa osatzeko, eta tribuko apaizak gazteei ematen die. Hartara, hildakoaren indarra, ausardia, buru argia eta beste bertute batzuk jaleengana pasatzen omen dira. Mendialdeko basutoek etsai guztiz bihoztoia hiltzen dutenean, berehala ateratzen diote bihotza eta jan egiten dute, hartara hark borrokan azaldutako indarra eta ausardia jasoko dituztelakoan. Ashantiek 1824an Sir Charles M'Carthy hil zutenean, ashantien armadako buruzagiek bihotza jan omen zioten, hartara haren ausardia bereganatuko zutelakoan. Haragia lehortu eta ofizialen artean banatu zuten helburu berberaz, eta hezurak luze gorde zituzten Coomassien, fetitxe nazional gisa. Granada Berriko naura indiarrek jan egiten zituzten espainiarren bihotzak hartarako egokiera zutenean, zaldizko gaztelar beldurgarriak bezain bihoztoi bihurtuko zirelakoan. Siux indiarrek hauts bihurtzen zuten etsai ausartaren bihotza, eta irentsi egiten zuten, hartara hildakoaren ausardia bereganatuko zutelako esperantzan.

Baina gauza arrunta bada giza bihotza jatea, jaleari bihotz horren jabearen tasunak sar dakizkion, ez da hartarako jaten den gorputz-atal bakarra, jadanik ikusia dugunez. Hala, Theddora eta Ngarigo tribuetako gerrariak, Australiako hegoekialdean, hiltzen zituzten etsaien eskuak eta oinak jan ohi zituzten, uste izanik hildakoen tasun batzuk eta ausardia bereganatzen zituztela. Hego Gales Berriko kamilaroiek gizon adoretuen gibel-bihotzak jaten zituzten, haien adorea izateko. Tonkinen ere bada herri-superstizio bat,

gizon adoretuaren gibelak adoretu bihurtzen duela hartatik jaten duen oro. Xede berberaz, txinatarrek irentsi egiten dute urkamendian hildako gaizkile ospetsuen behazuna. Sarawakeko daiak hiltzen zituztenen esku-ahurrak eta belaunetako haragia jan ohi zituzten, beren eskuak eta belaunak indartzeko. Tolalakiek, Celebesko erdialdeko buru-ehiztari ospetsuek, odola edaten eta garunak jaten dizkiete biktimei, berak bihoztoi bilakatzeko. Filipinetako italoneek hiltzen dituzten etsaien odola edaten dute, eta buruen atzealdearen eta erraien parte bat jaten dute gordinik, adorea bereganatzeko. Arrazoi berberagatik, efugaoek,- Filipinetako beste tribu bat- etsaien garunak irensten dituzte. Era beretsuan, Alemaniar Ginea Berriko kaiek, hiltzen dituzten etsaien garunak jaten dituzte, haien indarra bereganatzeko. Afrikako mendebaldeko kimbunden artean, errege berria tronuratsen denean, gerra-presoa adoretuaren bat hiltzen dute erregeak eta nobleak haren haragia jan ahal dezaten, eta hartara haren indarra eta adorea beregana ditzaten. Matuana buruzagi zulu ospetsuak hogeita hamar buruzagiren behazuna edan zuen, haien herriak suntsitu eta gero, hartara indartsu bihurtuko zelakoan. Fantasia zulu baten arabera, etsai baten bekokiaren erdialdea eta bekainak janez gero, etsaiari tinko begiratzeko ahala lortzen omen da. Gerra-espeditzio bakoitzaren aurretik, Celebesko Minahassakoei hildako etsai baten bilokak uretan egosteko ohitura zuten, haren ausardia ateratzeko; salda hura edaten zuten gerrariak. Zeelanda Berrian "buruzagia atua (jainko) zen, baina baziren jainko ahaltsuak eta jainko ahalik gabeak; denek izan nahi zuten lehen motakoak, noski; hartarako bidea besteen izpirituak beren izpirituari erantzea zen; esate baterako, gerrari batek buruzagi bat hiltzen zuenean, berehala erauzten zizkion begiak eta irentsi egiten zituen, atua tonga edo jainkotasuna organo haietan zeutzelakoan; hala, gorputza hiltzeaz gainera, etsaiaren arimaz ere jabetzen zen, eta ondorioz, zenbat eta buruzagi gehiago jan, hainbat eta jainko handiagoa bihurtzen zen".

Orain erraza da ulertzea zergatik jan nahi lukeen basatiak jainkozkotzat daukan animalia haren edo gizonaren haragia. Jainkoaren gorputza janez jainkoaren tasunak eta ahalak bereganatzen ditu. Eta jainko hori laborearen jainkoa denean, labore du gorputz; eta mahats-jainkoa denean, mahatsaren muztioa haren odola da; eta hartara, ogia janez eta ardoa edanez, gurtzaileak jainkoaren benetako gorputz-odolak jaten eta edaten ditu. Hala, Dionisos mahats-jainkoaren erritoetan ardoa edatea ez da parranda egitea, sakramentu itzaltsua baizik. Ordea, denboraren joanean arrazoidun gizonei zail egiten zaie ulertzea nola bere onean dagoen inork pentsa dezakeen ogia janez edo ardoa edanez jainkoaren gorputza eta odola jaten dituela. "Zeresi labore eta Bakori ardo deitzen diegunean" dio Zizeronek, "hizketako irudi arruntak erabili ohi ditugu; baina nola imajinatu inor hain burutik eginga egotea, jaten duena jainkoa dela sinestearino?"

lii

Animalia jainkotiarren hilkintza

1. Putre sakratuaren hilkintza

Aurreko kapituluetan ikusi dugu komunitate askok, beren bizibidea batez ere nekazaritzatik ateratzeraino aurreratu direnek, beren irin-jainkoak hiltzeko eta jateko ohitura izan dutela, dela arto, arroz eta abarren itxuran, dela animalia eta gizonen itxuran. Orain beste hau geratzen zaigu erakusteko, alegia, ehiztari eta artzain-tribuek ere, nekazal herriek bezala, gurtzen zituzten izakiak hiltzeko ohitura izan dutela. Ehiztari eta artzainek gurtzen eta hiltzen dituzten izaki edo jainkoen artean, halako izenik merezi badute bederen, animalia hutsak ditugu, ez beste izaki naturaz gaindiko gorpuztutzat hartzen diren animaliak. Gure lehen adibidea Kaliforniako indiarrengandik hartua da: herrialde emankorrean eta ortzi nare eta epelaren azpian bizi izanik, hala ere basatien artean mailarik baxuenean daude. Acagchemem tribuak putre handia gurtzen zuen, eta urtean behin jai handia ospatzen zuten haren ohoretan, Panes edo txoriaren jai

izenekoa. Jaia egiteko aukeratutako eguna bezperako arratsaldean jakinarazten zitzaion jendeari, eta berehala hasten ziren tenplu berezi bat (vanquech) eraikitzeke prestaketak: hesolaz osatutako hesi biribil edo obala, nonbait, eta koiote edo ordeketako otso baten larrua gereta baten gainean ipinita, Chinigchinich jainkoa irudikatzeko. Tenplua prest zegoenean, txoria ekartzen zuten prozesio itzaltsu batean, eta hartarako eraikitako aldarearen gainean uzten zuten. Gero emakume gazte guztiak, ezkonduak eta ezkongabeak, hara eta hona hasten ziren, zorabiatuta bezala, batzuk alde batera eta besteak bestera, gizon eta andre zaharragoak begira zituztelarik isilik, eta kapitainek, pintatuta eta lumaz apainduta, gurtutako txoriaren jiran dantzatzen zutelarik. Zeremonia horiek amaitutakoan, hartzen zuten txoria eta tenplu nagusira eramaten zuten, denak batera desfile handian, eta kapitainak dantzari eta kantuan zihoazela prozesioaren buruan. Tenplura iritsitakoan, txoria akabatzen zuten odol-tantarik isurtzeke. Osorik larrutzen zuten, eta lumak erlikia gisa gordetzen zituzten, edo jairako jantzia (paelt) egiteko asmoz. Gorputza tenpluko zulo batean ehorzten zen, eta emakume zaharrak hilobiaren inguruan biltzen ziren negarrez eta aieneka saminki, hazi-mota desberdinak edo janari-puskak botatzen zituztelarik, oihuka: "Zergatik aldegin diguzu? Ez al zeunden hobeto gure artean? Pinole (morokil modukoa) izango zenukeen, guk bezala, eta aldegin ez bazenu, ez zinen bihurtuko Panes", eta abar. Zeremonia hori amaitutakoan, dantzari ekiten zioten berriro, hiru egunez eta hiru gauez. Esaten zuten Panes hori emakume bat zela, mendietara aldegina eta han Chinigchinich jainkoak txori bihurtua. Txoria urtero sakrifikatu arren, hura piztu egiten omen zen urtero, eta mendietako etxera itzultzen omen zen. Gainera, pentsatzen zuten ezen, "zenbat eta txori gehiago hil, hainbat eta gehiago ugaltzen zirela; urtero kapitain guztiek ospatzen zutelako Panesen jaia, eta uste osoa zuten txori sakrifikatuak eme bakar bat eta bera zirela".

Kaliforniarrek hala postulaturiko "batasun anitza" oso ohargarria da, eta jainkozko txoria hiltzeko motiboa esplikatzeke balio digu. Espezie baten bizia eta banako batena desberdinak izatea, guri erraza eta begi-bistakoa iruditzen bazaigu ere, Kaliforniako basatiek ez omen dezakete uler. Haiek ez dira gai espeziearen bizia banakoaren biziaz bestera sumatzeko eta, beraz, uste dute espeziea ere banako baten bizia mehatxatzen eta azkenean suntsitzen duten arrisku eta kalte berberen mehatxupean dagoela. Nonbait, imajinatzen dute espezie bat bere kasa utzita zahartu eta hil egingo dela, banako bat bezala, eta beraz, zenbait urrats eman behar direla berek jainkozkotzat dauzkaten espezie horiek desager ez daitezen. Kalte hori saihesteko, espezie horretako kide bat hiltzea besterik ez zaie bururatzen, bizia zainetan indartsu dabilkion eta artean zahardadearen urloetan gelditu ez zaion kide bat. Hala desbideratutako bizia freskoago eta libreago isuriko da, hala uste du basatiak, beste bide batetik; bestela esan, hildako animalia piztu eta beste bizialdi batean sartuko da, gaztetasunaren indar eta kemen osoaz. Guri arrazoibide hori erabat burugabea iruditzen zaigu, baina halakoa da ohitura ere. Esan beharra dago antzeko nahasketa egiten zutela samoarrek ere banakoaren biziaren eta espezieen biziaren artean. Familia bakoitzak animali espezie jakin bat izaten zuen; eta animalia haietako bat hiltzeak, hontza esate batera, ez zekarren jainkoaren heriotza, "hura artean bizirik omen zen, eta geratzen ziren hontza guztiengan hezur-mamitzen zen".

2. Ahari sakratuaren hilkintza

Ikusi dugun errito kaliforniar zakarrak bere parekoa du Egipto zaharreko erlijioan. Tebastarrek eta Amon jainko tebastarra gurtzen zuten beste egiptoar guztiek sakratutzat zeuzkatzen ahariak, eta ez zituzten sakrifikatzen. Baina urtean behin, Amonen jaian, aharia hiltzen zuten, larrutu eta jainkoaren estatuari larrua janzen zioten. Gero hileta egiten zioten ahariari, eta hilobi sakratu batean ehorzten zuten. Ohitura hori istorio batez

esplikatzzen zen: behin Zeus ahari baten larrua eta burua jantzita agertu omen zitzaion Herkulesi. Aharia, kasu honetan, Tebasko abere jainkoa zen noski, otsoa Likopolisko abere jainkoa, eta ahuntza Mendeko abere jainkoa ziren bezala. Bestela esan, aharia Amon bera zen. Monumentuetan, egia da, Amon erdi-gizaki itxuran ageri da, giza gorputza eta ahari-burua dituelarik. Baina horrek haxe besterik ez du erakusten, ohiko pupa-egoeran zegoela, egoera hartatik pasatzen baitziren pizti jainkoak giza itxura osoz agertu baino lehen. Aharia, beraz, ez zuten hiltzen Amoni opagai gisa eskaintzeko, jainkoa bera zelakoan baizik: Amonen eta piztiaren arteko identitatea argi eta garbi erakusten du haren estatua hildako ahariaren larruaz jantzeko ohiturak. Ahari-jainkoa urtero hiltzeko arrazoa nik jainko bat hiltzeko usadio orokorra eta jainkozko putrea hiltzeko usadio kaliforniar berezia esplikatzen eman dudana bera dateke. Egiptori aplikatuta, Apis zezen jainkoaren analogiak eusten dio azalpen horri: hari ez zioten uzten hainbeste urte baino gehiago bizitzen. Giza jainkoen biziari muga bat jartzeko arrazoa, azaldu dudana bezala, adinaren ahulezia eta ajeetatik gordetzea zen. Arrazoibide berak esplikatuko luke piztia jainkoa urtero hiltzeko ohitura -zaharragoa seguruenik-, Tebasko aharia bezala.

Tebasko erritualeko puntu batek -jainkoaren irudiari larrua jartzeak- arreta berezia merezi du. Baldin eta hasiera batean jainkoa ahari bizia bazen, geroagokoa izango zen hura irudi batez adieraztea. Baina nola sortu zen geroagoko hori? Galdera horren erantzun bat, behar bada, jainko delakoan hiltzen duten animalien larrua gordetzeko usadioak ematen digu. Kaliforniarrek, ikusi dugunez, putrearen larrua gordetzen zuten; eta ahuntzaren larrua ere, labore-izpirituaren ordezkoko gisa hiltzen baitute uzta-soroan, hainbat xede superstiziotsurengatik gordetzen da. Larrua jainkoaren oroigarritzat gordeko zen, edota jainkoaren biziaren parte bat zeukalakoan, eta hura bete edo zuraje baten gainean zabaldu besterik ez zegoen haren irudi bihurtzeko. Lehenik, urtero berrikuntza zen halako irudi bat, irudi berria hildako animalien larruaz eginez. Baina urteroko irudietatik betiko irudietara pasatzea gauza erraza da. Ikusi dugunez, urtero maiatz-arbola berria mozteko usadio zaharrarekin batera maiatzeko haga iraunkorra jartzeko usadioa ezarri zen; urtero jantzten zuten hosto eta lore hezez, are zuhaitz gazte bat ere jartzen ziotelarik gainean. Era berean, betetako larruaren ordezkoko gisa, egurrez, harriz edo metalez egindako irudi iraunkorra jarri zutenean, irudi iraunkorra urtero jantziko zuten hildako animalien larru berriaz. Maila hori lortu zenean, aharia hiltzeko ohitura irudiari eskainitako sakrifiziozat interpretatzen hasiko ziren oharkabean, eta Amon eta Herkulesena bezalako istorio baten bidez azalduko zuten.

3. Suge sakratuen hilakintza

Afrikako mendebaldeak beste adibide bat ematen digu animalia sakratua urtero hiltzeaz eta larrua gordetzeaz. Issapuko beltzek, Fernando Pooko irlan, beren jainko babesleatzat daukate kobra; on edo gaitz egin diezaike; aberastu egin ditzake, edo gaixotasuna eta heriotza ekar diezazkieke. Urteroko zeremonia batean narrasti horietako baten larrua esekitzen dute, isatsa behera duela, herriko plazako zuhaitz garaienetik. Zeremonia amaitu bezain laster, aurreko urtean jaiotako haur guztiak eramaten dituzte, sugearen larruaren isatsa beren eskuz uki dezaten. Ohitura hori haurrak tribuko jainkoaren babespean jartzeko modu bat da argi eta garbi. Era berean, Senegambian pitoi suge batek bisita egiten omen die haur guztiei, jaio eta zortzi egunen barruan; eta Psylliek -antzinako Afrikako sugearen klan bat ziren- sugeei jartzen zizkieten beren haurrak, sinetsiz benetan klan hartan jaiotako haurrei ez zietela kalterik egingo.

4. Dortoka sakratuen hilakintza

Kalifornia, Egipto eta Fernando Pooko ohituretan ez dirudi animalia bat gurtzeak nekazaritzarekin zerikusirik duenik eta, beraz, gizartea ehiztari eta artzainen mailan

zegoeneko garaitik datorke. Gauza bera esan daiteke segidako usadioaz, nahiz Mexiko Berriko zuñi indiarrek, usadio hori dutenak, herri edo hiri hesitu berezi batzuetan bizi diren, eta nekazaritzan, buztzingintzan eta ehungintzan jarduten duten. Baina zuñien ohituraren hainbat ezaugarrikerik zerbait desberdintzen dute aurreko kasuetatik. Egoki dateke, beraz, bere luzera osoan deskribatzea, lekuko baten hitzak aldatuz.

"Uda-udan beroa askoz handiagoa egin zen. Nire anaia (hau da, anaiatzat hartutako indiar bat) eta biok egunero esertzen ginen gure etxeko sotoan -hura burdingintza bitxietara emanda, lanabes trauskilekin, mexikar txanponak zirgilo, gerriko, belarritako, botoi eta zer ez bihurtuz, basatien apainduratarako. Nahiz haren lanabesak izugarri trauskilak izan, egiten zuen lana nabarmen ederra zen, pazientziaz eta trebetasunez jarduteari esker. Egun batez, hari begira nengoela, berrogeita hamar gizon jaitsi ziren presaka muinotik, eta mendebaldera jo zuten zabalduan zehar. Apaiz margotu eta maskorrez apaindutako bat zuten gidari itzaltsu, eta Shu-lu-wit-si edo Suaren jainkoa zuten atzetik, zuzia zeramala. Haiek desagertu ondoren, galdetu nion anaia zaharrari zer esan nahi zuen hark guztiak.

"Ka-ka hirira doaz" esan zidan, "gure besteen etxera".

"Lau egun geroago, arrasbehera aldera, bide beretik itzuli ziren ilaran, Ka-k'ok-shi edo "dantza onaren" parafernaliala ederraz mozorrotuta, bakoitzak saski bat zeramalarik besoetan dortoka bizi eta mugikorrez beteta, ama batek bere haurra eramango lukeen bezain samur begiratu eta kontu eginez. Narrasti zorigaiztoko batzuk zapi biguinetan bilduta zeuden, buruak eta aurreko hankak agerian zituztela -eta lumaz apaindutako erromesen bizkarretan, haurren karikatura irrigarri baina itzaltsuak ziren jarrera hartan. Arrats hartan, ni goiko solairuan afaltzen ari nintzen bitartean, gobernadorearen koinatua etorri zen. Familiak ongi etorria egin zion, zerutik etorritako mezularia bailitzan. Dortoka gaizki erabili eta errebelde haletako bat zuen atzamar ikaratietan. Artean pintura zuen eskuetan eta oin hutsetan itsatsita, eta hortik atera nuen segizio sakratu hartan ibilitakoa zela.

"Beraz, Ka-thlu-el-lon-era joan zara, ezta?" galdetu nion.

"Bai!" erantzun zidan gizon nekatuak, luze kantatzeagatik erlastutako ahotsez, erabat jota etzan zenean berarentzat jarritako larru-pila baten gainean, eta samurki utzi zuen dortoka bat zoruan. Izaki hark bere burua libre ikusi bezain laster, ihes egiten saiatu zen hanka motzek uzten zioten abiadurarik handienera. Ados jarrita bezala, familia osoak utzi platerak, koilarak eta edalontziak eta irinontzi batetik eskutada osoak hartuz, bizkor jarraitu zioten dortokari gelan zehar, zoko ilunetan, uraren pitxerren inguruan, metalen atzean eta atzera gelaren erdian, otoitz eginez eta oskol gainean irina botaz. Azkenez, esatea bitxia bada ere, animalia ekarri zuen gizon nekatuarengana hurbildu zen.

"Ene!" egin zuen hark hunkituta, "begira nola datorren nigana berriro; a!, zenbat on agindu didaten denon arbasoek gaurko egun honetan", eta, eskua animalia etzanaren gainetik pasatuz, esku-ahurretik hats hartu zuen luze eta sakon, aldi berean jainkoen aldekoetzari dei eginez. Gero kokotsa esku gainean pausatu zuen eta begiak zabal-zabalik eta diz-diz, katibu itsusiari begiratu zion hura etzanda zegoelarik, begi irinez estaliak kliskaka eta lur lauan aztarka bere berezko elementuaz oroituz edo. Une hartan galdera bat egin nuen:

"Zergatik ez diozue uzten joaten? Eman ur pixka bat, sikiera".

"Poliki, gizonak nigana itzuli zituen begiak, aurpegian oinazea, haserre eta errukia nahasian ageri zituela, familiak laborri santuz begiratzen zidalarik.

"Anaia gazte gizajoa!" esan zidan azkenez, "ez al dakizu zein preziatua den? Hil egingo dela? Ez da hilko; hara zer diotsudan, ezin da hil".

"Baina hil egingo da jaten eta edaten ematen ez badiozue".

"Esaten dizut ezin dela hil; etxez aldatuko da bihar, horra guztia, eta bere anaien etxera joango da. A!, tira! Nola jakingo zenuen ba zuk hori?" esan zuen pentsati. Atzera

dortoka itsutuarengana itzuliz: "A! nire haur edo guraso joana, nire arreba edo anaia izan bide zinena! Nork daki? Beharbada neure berraitona edo berramona!". Eta hori esatean negarrari eman zion saminki eta, negar-zotinka eta ikara batean, emakume eta haurrek bezala, aurpegia eskuetan ezkutatu zuen. Neuk ere, hain triste ikusten nuenez samurtuta, nahiz oker zegoela jakin, hartu nuen dortoka eta musu eman nion oskol hotzean; gero lurrean utzi nuen, eta bizkor aldegin nuen familia penatua bere saminarekin utziz. Biharamunean, otoitz eta konjuru samurrekin, luma eta eskaintzekin, dortoka koitadua hil egin zuten, eta haren haragia eta hezurak errekan utzi zituzten, "berriro betiereko bizitzara itzul zedin, beren kideen artera, hildakoen lakuko ur ilunetara". Oskolaz, kontu handiz garbitu eta lehortuta, dantzarako txintzarria egin zuten eta, orein-larru puska batez estalita, oraindik ere nire anaiaren etxeko habe keztatuetatik zintzilik dago. Behin navajo indiar batek erosi egin nahi izan zuen urontzia egiteko; agiraka eta suminez hartu zuten, eta etxetik bota. Inork iradokiko balie dortoka jadanik ez zela bizi, negar-malkotan utziko zituen denak, eta gogoratuko zioten etxez aldatu zela eta "gure zenduen etxera" betiko bizitzera joana zela".

Usadio horretan erarik argienean aurkitzen dugu adierazita giza arima dortoken gorputzetara aldatzen delako sinestea. Transmigrazioaren teoriari eusten diote moqui indiarrek, zuñien arraza berekoek. Moquiak totem-klanetan banatuta daude: hartzaren klana, oreinaren klana, otsoaren klana, erbiaren klana eta abar; sinesten dute klanen arbasoak hartz, orein, otso, erbi eta abar zirela; eta klan bakoitzeko kideak hiltzean hartz, orein eta abar bihurtzen direla, zein klanetakoak diren. Zuñiak ere klanetan banatuta daude, eta klanon totemak bat datoz erabat moquienekin, eta totemetako bat dortoka da. Beraz, dortokarekiko transmigrazioaren sinestea totemen fedearen arauetako bat dateke. Horrenbestez, zer esan nahi ote du ustez senide den dortoka hiltzeak? Irudi luke xedea beste munduarekin komunikazioa izatea dela, han baitaude zendutako arimak dortoka-itxuran bilduta. Sineste orokorra da hildakoen izpirituak noizbehinka beren etxe izandakoetara itzuli ohi direla; eta horren arabera, ikusi gabeko bisitariei ongi etorria egiten diete biziak, eta gero beren bidetik bidaltzen dituzte. Zuñien zeremonian hildakoak dortoka-itxuran bidaltzen dira etxera, eta dortokak hiltzea da atzera arimak izpirituen lurraldera bidaltzeko era. Beraz, ez dirudi jainko bat hiltzeko usadioaz gorago eman dugun azalpena zuñien usadioari aplikatu dakiokeenik; usadio horren benetako esanahia ilun samarra baita. Eta auzi horren iluntasuna ez du erabat desagertzen iritsi zaigun kontakizun beranduagoko eta osoago batek, zeremoniari buruzkoak. Kontakizun horretatik dakigunez, zeremonia indiar horiek udako solstizioan ereinentzat euri ugari izateko egiten den erritual landuaren parte bat dira. Mandatariak bidaltzen dira "beste berberak, dortokak", Kothluwalawa laku sakratutik ekartzera, hara aldegiten omen dute eta hildakoen arimek. Izakiok zuñien artera handikiro ekartzen dituztenean, urontzi batean jartzen dituzte, eta hartarako jantzitako gizonak dantza egiten dute haien ondoan, jainko eta jainkosen ordeko. "Zeremoniaren ondoren, dortokak etxera eramaten dituzte harrapatu dituztenek, eta lepotik zintzilikatzen dituzte habeetatik goizera arte, eta orduan ur irakinetara botatzen dituzte. Arrautzak kutixia handitzat hartzen dira. Haragia gutxitan ukitzen da, azaleko gaixotasunentzako sendagaia egiteko ez bada. Haragiaren parte bat ibaira botatzen da kohakwa (maskor txurien ilarak) eta turkesa-ilarekin batera, Jainkoen Biltzarrearentzako eskaintza gisa". Kontakizun honek berretsi egiten du dortokak gizaki hil berriz hezur-mamituak direlako ustea, zuñien "beste berberak" deitzen baitaie; izan ere, zer egon daiteke dortoken gorputzetan hildakoen arimaz besterik, ikusirik laku sakratutik etortzen direla? Udako zeremonia horietan egindako otoitz eta dantzen xede nagusia ereinentzat ura lortzea omen denez, baliteke dortokak zuñiengana ekartzearen eta haien aurrean dantza egitearen xedea arbasoen izpirituei

eskaera egitea izatea, animalia haietan gorpuztuak izaki, arren beren ahala erabil dezatela zeruetako uren gainean, lurrean bizi diren ondorengoen mesedetan.

5. Hartz sakratuaren hilkintza

Halaber, zalantzazkoa da lehen begiratuan aino edo ainuek -Yezo edo Yesso irla japoniarrean eta Sakhalin eta Kuril irletako hegoaldean bizi den herri primitibo bat- eskaintzen duten hartzaren sakrifizioaren esanahia. Ez da oso erraza ainoek hartzari buruz duten jarrera definitzea. Batetik, kamui izendatzen dute, "jainko", alegia; baina arrotzei ere hitz bera ematen dietenez, baliteke gizagaineko edota ohiz kanpoko ahalak dituen izaki bat besterik ez adieraztea. Orobat, "hartz aomen da haien jainko nagusia"; "ainoen erlijioan hartzak leku nabarmena du"; "animalien artean hartzari diote idolatriazko begiramena"; "beren erara gurtzen dute"; "ezbairik gabe, basapiztia hark naturako indar bizigabeek baino gurtza-sentimendu gehiago sorrazten ditu, eta ainoak hartz-gurtzaile apartak dira". Bestetik, ordea, ahal duten guztietan akabatzen dute hartz a: "Joandako urteetan ainuek gizonak denbora emateko duen modurik egokien eta baliagarrientzat zeukaten hartzaren ehiza"; "gizonek udazkena, negua eta udaberria ematen dituzte oreinak eta hartzak ehizatzen. Beren zergen parte bat larrutan ordaintzen dute, eta ondutako okelari esker bizi dira"; hartzaren okela oinarritzko jakia dute; hil berritan eta gatzatuta, bietara jaten dute; eta hartz-larruak jantzitarako baliatzen dituzte. Hain zuzen, gai honi buruz idatzi dutenek aipatzen duten gurtza, hildako animalia egiten zaio batez ere. Hala, hartz a ahal duten guztietan akabatu arren, "eskeletoa garbitzerakoan ordezkaria hil dioten jainkoarekin bakeak egiten saiatzen dira, omenaldi eta erregu landuak eginez"; "hartz bat hil ondoren, ainoek eseri eta miretsi egiten dute, makurtu egiten zaizkio, gurtu egiten dute, eta inao-opariak eskaintzen dizkiote"; "hartz a tranpa batean harrapatu edo gezi batez zauritzen dutenean, ehiztariek zeremonia barkamenezko edo eztiarazleari ekiten diote". Hildako hartzen burezurrek ohorezko lekua izaten dute haien etxoletan, edo zutarrien gainean jartzen dituzte etxolen kanpoaldean, eta begirune handiz tratatzen dituzte, artatxikiaren ardoa eta sake izeneko pattar mozkorrazlea eskainiz; eta "jainkozko babesle" deitzen diete, edo "jainko bikain". Azerien burezurak ere zutarri sakratuetatik esekitzen dituzte etxolen kanpoaldean; izpiritu gaiztoen kontrako xarmatzat dauzkate, eta orakulu gisa kontsultatzen dituzte. Ordea, argi eta garbi esaten denez, "azeri biziari hartz biziari bezain begirune gutxi diote; ahal duten heinean itzuri egiten diote, animalia tranpatia delakoan". Beraz, nekez har daiteke hartz a ainoen animalia sakratu gisa, ezta totem gisa ere; ez baitiete beren buruei hartz deitzen, eta libreki hiltzen eta jaten baitute animalia. Hala ere, badute kondaira bat, hartz batengandik umea izan zuen emakume batena; eta mendialdean bizi diren askok hartz batengandik jaioak direla esaten dute harro-harro. Halakoei "hartzaren ondorengoak" deitzen zaie (Kimun Kamui sanikiri), eta harro-harro esango dizute: "Mendietako jainkoaren haurra naiz ni; mendietan nagusi den jainkozko harengandik nator ni", eta "mendietako jainkoa" esatean hartz a esan nahi dute. Beraz, baliteke, gure autoritate nagusia den J. Batchelor elizgizonak uste duen bezala, hartz a ainoen klan baten totema izatea noizbait; baina hori horrela izatera ere, ez luke esplikaturko ainoen herri osoak animalia gana erakusten duen begirunea.

Baina ainoen hartzaren jaia interesatzen zaigu guri. Negua amaitzear dagoelarik, hartz gazte bat harrapatu eta herrira ekartzen dute. Oso txikia bada, emakume aino batek ematen dio titia, baina titia emateko emakumerik ez balego, piztiatxoari eskuz ematen diote jaten. Egunean zehar jolasean ibiltzen da hurrekin etxolan, eta xera handiz tratatzen dute. Baina hartz gaztea jendeari bere besarkada edo atzaparkadez min emateko adina haztean, egurrezko kaiola handi batean sartzen dute, eta han egoten da bizpahiru urtez, arrainez eta artatxikizko morokilez bazkatuta, harik eta hura hiltzeko eta jateko garaia etorri arte. Baina "gauza bitxi eta harrigarria da hartz gaztea ez dutela

edukitzen otordu on bat egiteko bakarrik; fetitxe gisa hartzen eta ohoratzen dute, edo izaki handiagoren bat bailitzan". Yezon jaia irailean edo urrian izaten da gehienetan. Hura baino lehen, ainoek barkamena eskatzen diete jainkoei, esanez hartza ondo tratatu dutela ahal izan duten bitartean, eta ezin dutela bazkatu gehiago eta hiltzera behartuta daudela. Hartzaren oturuntza egiten duenak senide eta lagunak gonbidatzen ditu; herri txiki batean ia herritar guztiek hartzen dute parte; urruneko herrietakoak ere gonbidatzen dituzte, eta gehienetan haiek etorri egiten dira, doan mozkortzeko paradak bultzatuta. Gonbidapena honelakoa izan ohi da gutxi gora-behera: "Ni, halako, mendietan bizi den jainkozko izaki txikia sakrifikatzekotan naiz. Nire lagun eta jaunok, zatozte oturuntzara; jainkoari agur esateko plazer handian bilduko gara. Zatozte". Jende guztia kaiolaren aurrean bildutakoan, hartarako aukeratutako hizlari bat hartzari zuzentzen zaio eta esaten dio arbasoengana bidali behar dutela. Egingo diotenagatik barkatzeko erregutzen dio, ez dadila haserre, eta kontsolatu egiten du animalia, esanez ziritxo landu sakratu asko (inao) eta opil eta ardo ugari bidaliko dituztela berarekin batera bidaia luzerako. Honelako hitzaldia aditu zuen Batchelor jaunak: "Oi zu!, jainkozko hori, guk ehiza zaitzagun bidali zintuzten mundura. Oi zu!, jainkotxo preziatu, gurtu egiten zaitugu; arren adi ezazu gure otoitza. Jaten eman dizugu eta hazi egin zaitugu hainbat neke eta penarekin, maite zaitugulako. Orain, handi egin zarenean, zure aita-amengana bidaliko zaitugu. Haiengana iristen zarenean, arren ondo hitz egiezu gutaz, eta esaiezu zeinen ondo hartu zaitugun; arren, zatoz berriz guregana sakrifika zaitzagun". Sokeaz ondo lotu ondoren, kaiolatik ateratzen dute eta gezi kamutsen zaparrada jaurtitzen diote haserre dadin. Zalapartaka indar guztiak galtzen dituenean, zutoin batean lotzen dute, muturrekoa ezarri eta irato egiten dute, lepoa bi makilaren artean jarrita bortizki indar eginez. Jende guztiak pozik hartzen du parte animalia lepoa hil arte sakatzen. Gezi bat ere jaurtitzen dio bihotzera arkulari on batek, baina odolik isuri gabe, uste baitute zoritxarrekoa litzatekeela odol-tantarik lurrera erortzea. Alabaina, batzuetan gizonek edan egiten dute hartzaren odol epela, "adorea eta hark dituen beste bertute batzuk haiengana pasa daitezen"; eta batzuetan beren buruak eta arropak lardasten dituzte odolaz, ehizan zortea izateko. Animalia iratotakoan, larrutu eta lepoa mozten diote, eta burua etxeko ekialdeko leihoan ipintzen dute, eta bere haragi-puska bat jartzen diote muturpean, haragi egosia, artatxikizko opil batzuk eta arrain lehorra dituen ontzi batekin batera. Gero otoitz egiten zaio hildako animalia; besteak beste, batzuetan gonbidatu egiten dute, bere aita-amengana joan ondoren, atzera mundura itzuli eta berriro sakrifizioarako hazi ahal dezaten. Hartzak bere haragia jaten amaitu duela jotzen dutenean, oturuntzan buru den gizonak haragi egosia duen ontzia hartzen du, agurtu eta ontzikoak pertsona heldu guztien artean partitzen ditu; pertsona guztiek probatu behar dute pixka bat, gazteek bezala zaharrek. Ontziari "eskaintearen ontzia" deitzen zaio, hildako hartzari eskaini zaiolako. Beste okela guztia egosi ondoren, berdin partitzen da jendearen artean, denek jaten dutelarik puxkatxo bat besterik ez bada ere; hartatik ez jatea eskomikua bezalakoa litzateke, halakorik egingo lukeen bilaua ainoen lagunartetik kanporatzea. Lehenago hartzaren pusketa guztiak, hezurak ezik, jan behar izaten ziren oturuntzan, baina arau hori lasatu egin da. Burua larrutik bereizten dutenean, haga luze baten gainean jartzen dute ziri sakratuen (inao) ondoan, etxearen kanpoaldean, eta han geratzen da burezurra osorik zuritu arte. Hala ipinitako burezurak, jaialdi garaian ezezik, irauten duten artean ere gurtzen dituzte. Ainoek esan zioten Batchelor jaunari benetan sinesten dutela gurtutako animalien izpirituek burezurretan dutela egoitza; horregatik zuzentzen omen zaizkie "jainkozko babesle" eta "jainko preziatu" deiturez.

Hartza hiltzearen zeremoniaren lekuko izan zen B. Scheube doktorea abuztuaren hamarrean Kunnuin, Yezo edo Yesso irlako Sumendiaren badiako herri batean, alegia.

Erritoaren deskribapenean goiko kontakizunean aipatu ez diren zenbait xehetasun interesgarri ematen direnez, merezi du bera laburbiltzea.

Etxolara sartzean hogeita hamar bat aino aurkitu zituen, gizon, emakume eta haur, denak ere beren onenez jantzita. Etxeko nagusiak lehenik edari-eskaintza egin zion sutondoan suaren jainkoari, eta gonbidatuek haren etsenplua jarraitu zuten. Gero edari-eskaintza aurkeztu zitzaion etxeko jainkoari etxolako izkina sakratuan. Bitartean, etxekoandrea, hartza hazi zuena, bakarrik egon zen eserita, isilik eta triste, noizean behin malkoak isuriz. Haren tristura benetakoa zen, bistakoa zenez, eta handiagotuz zihoan jaia aurreratu ahala. Ondoren, etxeko nagusia eta zenbait gonbidatu etxolatik irten ziren eta edari-eskaintzak egin zituzten hartzaren kaiola aurrean. Tanta batzuk aurkeztu zitzaizkion hartzari platertxo batean, eta hark irauli egin zuen atzaparkada batez. Gero andre eta neskek dantzan egin zuten kaiolaren aurrean, aurpegia hari emanik, belaunak pixka bat makur, hanka-puntetan saltoka. Dantza egitearekin batera, eskuez txalo egiten zuten kanta monotonoa kantatu ahala. Etxekoandreak eta atso batzuek, hainbat hartz hazitakoak izango ziren haiek ere, negarrez egiten zuten dantza, besoak luzatuz hartzarengana, eta hitz samurrak esanez. Gazte-jendea ez zegoen hain hunkituta: barre egiten zuten kantatzean. Zaratotsak gogaituta, hartza kaiolan zalapartaka eta uluka hasi zen. Gero edari-eskaintzak egin ziren ainoen etxola baten kanpoaldean zeuden inao (inabo) edo ziritxo sakratuetan. Ziritxo horiek pare bat oin garai izaten dira, eta ebaki espiralezkoetan landuta izaten dute punta. Beste bost ziritxo, banbu-hostoak erantsita zituztenak, jarriak ziren jairako. Halaxe egin ohi da hartza hiltzen dutenean; hostoek esan nahi dute animalia atzera bizitzara itzul daitekeela. Gero hartza kaiolatik atera zuten, soka bat jaurti zioten lepora eta etxolaren inguruan erabili zuten. Hori egin bitartean gizonak, buruzagiaren esanera, gezi zur-puskaz kamustuak jaurti zizkieten. Scheube doktoreak ere halaxe egin behar izan zuen. Gero hartza ziritxo sakratuen aurrera eraman zuten, makila bat jarri zioten ahoan, bederatzi gizon belaunikatu zitzaizkion gainean eta lepoa estutu zioten habe baten kontra. Bost minuturen buruan animaliak bere azken hatsa bota zuen txintik atera gabe. Bitartean, andre eta neskek gizonen atzean hartua zuten lekua, eta han dantzan, lantuka eta gizonei joka aritu ziren haiek hartza hil bitartean. Hartzaren eskeletoa zirria baten gainean jarri zuten ziri sakratuen aurrean; eta ezpata eta buiraka, zirietatik hartuak, jarri zizkieten hartzari zintzilik lepotik. Hartz emea zenez, idunekoz eta belarritakoz ere apaindu zuten. Gero janaria eta edaria eskaini zizkieten, artatxikizko zopa, artatxikizko opilak eta basokada bat sake. Gizonak zirria batzuen gainean eseri ziren hartz hilaren aurrean, edari-eskaintzak egin zizkieten, eta gogotik edan zuten. Bitartean, andre eta neskek ahaztuak zituzten tristura-traza guztiak eta alaiki ari ziren dantzan, atsoak beste inor baino alaiago. Festa bere onenean zegoenean, hartza kaiolatik atera zuten bi gazte ainoek etxola gainera igo eta artatxikizko opilak bota zizkieten besteei, eta denak aritu ziren zalapartaka, adin nahiz sexuzko bereizketarik gabe. Ondoren hartza larrutu eta erraiak kendu zizkieten, eta burua enborretik bereizi zioten, larrua burutik zintzilik geratu zelarik. Gizonak irrikaz irentsi zuten odola, edalontzietan jasota. Emakume eta haurretako inork ez zuen odola edan, nahiz usadioak ez zien halakorik debekatzen. Gibela puska txikietan ebaki eta gordinik jan zuten, gatzarekin, emakume eta haurrek ere beren partea izan zutelarik. Haragia eta beste erraiak etxera sartu zituzten hurrengo bi egunetan gorde eta jaian izandako pertsonen artean banatzeko. Scheube doktoreari ere eskaini zizkieten odola eta gibela. Hartzari sabela irekitzen zioten bitartean, andre eta neskek hasieran dantzatutako dantza bera egin zuten; ez ordea kaiolaren inguruan, ziri sakratuen aurrean baizik. Dantza hartan emakume zaharrak, ordura arte alai egon baziren ere, berriro hasi ziren malko-jario. Hartzari burmuina atera eta gatza botata irentsi ondoren, burezurra, larrututa, haga batetik zintzilikatu zuten ziri sakratuen

ondoan. Hartzari ahoan jarritako makila ere hagatik eseki zuten, baita ezpata eta buiraka ere. Azken biak ordubeteren ondoren kendu zituzten, baina besteak han geratu ziren. Jende guztiak, gizonak eta emakumeak, zaratatsu egin zuten dantzan hagaren aurrean; eta beste edanaldi batek eman zion amaia jaiari, oraingoan emakumeak ere edan zutelarik.

Beharbada ainoen hartzaren jaiaren lehen kontakizun argitaratua idazle japoniar batek eman zion munduari 1652an. Frantsesera itzulita dago, eta honela dio: "Hartz gazte bat aurkitzen dutenean, etxera eramaten dute, eta emazteak titia ematen dio. Hazten denean arraina eta hegaztiak ematen dizkiote jaten, eta neguan hiltzen dute, gibelagatik, sendagaitzat baitaukate pozoia kontra, beherakoaren kontra, zizareen kontra eta urdaileko gaitzen kontra. Oso keru mikatzekoa da, eta ez du balio ezertarako hartza udan hila bada. Hilakintza japoniarren lehen hilean hasten da. Hartarako, animalia berrak bi makila luzeren artean jartzen dute, eta berrogeita hamar edo hirurogei lagun artean, gizon eta emakume, estutzen dituzte. Hartza hildakoa, okela jaten diote, gibela sendagaitzarako gordetzen dute, eta larrua saldu egiten dute; larrua beltza eta gehienetan sei oin izaten da luzean, baina luzeenak hamabi oin ere hartzen dituzte. Larrutu bezain laster, piztiari jaten eman dioten pertsonak lantua jotzen hasten zaizkio; gero opiltxoak egiten dituzte lagundu dietenei opari egiteko".

Sakhalingo ainoek antzeko zeremoniez hazten dituzte hartz gazteak. Esan zaigunez, hartza ez daukate jainkotzat, mezularitzat baizik: basoko jainkoagana bidaltzen omen dute zenbait mandaturekin. Animalia pare bat urtez edukitzen dute kaiolan, eta gero hil egiten dute jai-egunean; neguan eta gauez hiltzen dute beti. Sakrifizio-egunaren bezpera lanturako izaten da: emakume zaharrak txandakatzen dira hartzaren kaiolaren aurrean negarrez eta adiaka. Gauerdia aldera edo goizean oso goiz, hizlari batek hitzaldi luzea egiten dio piztiari, gogoratuz nola zaindu duten, nola eman dioten jaten, nola bainatu duten ibaian, eta nola bero eta eroso eduki duten. "Orain", esaten dio, "jai handia ospatu behar dugu zure omenez. Ez izan beldur. Ez dizugu minik egingo. Hil egingo zaitugu, besterik ez, eta maite zaituen basoko jainkoagana bidaliko zaitugu. Aurki otordu ona emango dizugu, inoiz izan duzunik onena, eta denok batera egingo dugu negar zuregatik. Hilko zaituen ainoa gure arteko gezilaririk onena da. Hor duzu, negarrez dago eta barkatzeko eskatzen dizu; ez duzu ezertxo ere sentituko, oso emeki egingo du egitekoa. Ezin zaitugu bazkatu beti, ulertuko duzunez. Asko egin dugu zure alde; orain zuk egin behar duzu gure alde. Eskaiozu Jainkoari neguan igarabak eta lephoriak bidal diezazkigula, eta udan fokak eta arraina ugari. Ez ahaztu gure mezuak, oso maite zaitugu, eta gure haurrek ez zaituzte inoiz ahaztuko". Hartzak bere azken otordua egin ondoren, ikusle guztiak hunkituta dituelarik, emakume zaharrak berriz ere negarrez eta gizonak zotinei eutsi ezinik, lotu egiten dute, ez zailtasunik eta arriskurik gabe, eta kaiolatik atera eta oinez edo herrestan eramaten dute, nolako aldarteaz dagoen, lehenik hiru bider kaiolaren inguruan, gero nagusiaren etxearen inguruan, eta azkenez hizlariaren etxearen inguruan. Segidan ohiko ziri sakratu landuez (inao) apaindutako zuhaitz batean lotzen dute; eta hizlariak hitzaldi luzea egiten dio berriz, batzuetan egunsentira arte irauten duena. "Gogoan izan!" oihukatzen dio, "Gogoan izan! Bizi osoa eta egin dizkizugun faboreak gogorazten dizkizut. Orain zeuk egin behar duzu zeure egitekoa. Ez ahaztu eskatu dizudana. Esaiezu jainkoei aberastasunak emateko guri, gure ehiztariak larru bitxiz eta jateko onak diren animaliaz zamatuta itzul daitezela basotik; gure arrantzaleek foka-saldoak aurki ditzatela hondartzan eta itsasoan, eta sareak lehertu beharrean izan ditzatela arrantzaren pisuagatik. Zuregan bakarrik dugu itxaropena. Izpiritu gaiztoek barre egiten digute, eta oso sarritan onik ez baina kalte egiten digute; zuri, ordea, men egingo dizute. Janaria eta alaitasuna eta osasuna eman dizkizugu; orain hil egingo zaitugu, trukean aberastasunak bidal diezazkiguzun guri eta gure haurrei". Hitzaldi hau sinesmen handirik gabe aditzen du hartzak, gero eta

urduriago eta haserreago; zuhaitzari jira eta bira ibiltzen da, uluka, harik eta, eguzkiaren lehen errainuek eszena argitzearekin batera, arkulari batek gezi bat bihotzera jaurtitzen dion arte. Hori egin bezain laster, tiratzailea bota arkua eta bera ere lurrean etzaten da, eta beste agure eta atsoek gauza bera egiten dute, negar-zotinka. Gero arroza eta basapatatak eskaintzen dizkiote piztia hilari, eta erruki-hitzak esan ondoren, eta egin eta sufritu duenagatik eskerrak eman ondoren, lepoa eta atzaparrak moztzen dizkiote, eta gauza sakratuak direlakoan gordetzen dituzte. Segidan okela eta odolaren oturuntza etortzen da. Lehenago emakumeek ez zuten parte hartzen, baina orain gizonezkoekin batera aritzen dira. Odola bero edaten dute bertan diren guztiek; okela egosi egiten da, usadioak debekatu egiten baitu erretzea. Eta hartzaren erlikiak ezin baitira etxean atetik sartu, eta ainoen etxeek ez baitute leihorik Sakhalin irlan, gizon bat teilatura igo eta tximiniatik jaisten ditu okela, burua eta larrua. Arroza eta basapatatak eskaintzen zaizkio buruari, eta pipa bat, tabakoa eta pospoloak ipintzen zaizkio ondoan. Usadioak agintzen duenez, gonbidatuek animalia osoa jan behar dute aldegin baino lehen; debekatua dago gatz eta pipermina erabiltzea otorduan; eta zakurrei ezin zaie okela-puskarik eman. Oturuntza amaitutakoan, burua baso barrenera eramanez, eta hartzen burezurren pila batean uzten da: iraganeko egindako antzeko jaien erlikia zuritu eta hautseztatuak dira.

Gilyakek -Siberiako ekialdeko herri tunguziar bat- hartzaren jai berdintsua izaten dute urtean behin, urtarrilean. "Hartzari arretarik handiena eskaintzen dio herri osoak, eta animalia horrek parte nagusia du haien zeremonia erlijiosoetan". Hartz eme zahar bat hil eta kumea hazten dute herrian, baina titirik eman gabe. Hartza nahikoa hazten denean, bere kaiolatik atera eta herrian zehar erabiltzen dute. Baina lehenik ibai-ertzera eramaten dute, uste baita arrain ugari ekarriko diela familia guztiei. Gero etxez etxe erabiltzen dute herrian, eta arraina, pattarra eta abar eskaintzen dizkiote. Zenbait pertsona ahozpeztatu jartzen zaizkio aurrean. Hura etxe batean sartzeak bedeinkazioa omen dakar; eta eskaintzen zaion jana usnatzen badu, hori ere bedeinkazioa da. Alabaina, handik ziri eta hemendik zizta, batek kilima eta besteak atximur, ez dute bakean uzten animalia, eta muker eta haserre ibiltzen da. Gisa horretan etxe guztietara eramanez, zutabe batean lotu eta geziz hiltzen dute. Lepoa moztzen diote, txirbilez apaindu eta oturuntzarako mahai gainean jartzen dute. Han barkamena eskatu eta gurtu egiten dute. Gero haragia erre eta jan egiten dute zurezko ontzi fin landu eta berezi batzuetan. Ez dute okela gordinik jaten, ez odolik edaten, ainoek bezala. Burmuina eta erraiak jaten dira azken; eta burezurra, artean txirbilez apainduta, zuhaitz batean ipintzen dute etxetik gertu. Gero, jendeak kantatu egiten du eta, gizon eta emakumeek, hartzek bezala egiten dute dantzan denek, ilaretan.

Hartzen jai horietako baten lekuko izan ziren L. von Schrenck errusiar bidaiaria eta bere lagunak Tebachen, gilyaken herri batean, 1856ko urtarrilean. Zeremoniaren deskribapen xehe honetatik, hainbat berezitasun atera genitzake, orain arte laburbildu ditudan kontakizun laburragoetan agertzen ez direnak. Hartzak, hala diosku bidaiariak, munta handia du Amur eskualdeko eta Kamtxatkaraino bizi diren siberiar herrien bizitzan, baina ezeinen artean ez du garrantzi handiagorik gilyaken artean baino. Amur ibaiaren haranean animaliak hartzen duen tamaina izugarria, haren uzutasuna goseak amorratzen duenean, eta hainbestetan agertzea, denak batzen dira hura herrialdeko piztia harraparirik izugarriena izan dadin. Ez da harritzekoa, beraz, hark gilyaken irudimena betetzea eta, hala bizitzan nola heriotzan, beldur superstiziotsu moduko batez inguratzea. Hala, esate baterako, uste da gilyak bat hartz batekin borrokan hiltzen bada, arima piztiaren gorputzera aldatzen dela. Hala ere, animalia okela oso erakargarria da gilyaken ahorako, batez ere animalia denbora batez katibu eduki eta arrainez bazkatu denean; horrek keru gozo berezia ematen dio okelari, gilyaken iritzi. Baina janari

eder hori batere beldurrik gabe jan ahal izateko, uste dute hainbat zeremonia luze egin behar direla, begirunea erakutsiz hartz bizia engainatzeko eta hildako animaliairen sumina ematzeko, haren izpiritu joanari omen eginez. Begirune-erakutsiak piztia atxitu bezain laster hasten dira. Garaitzape-hotsean eramaten dute etxera, kaiola batean sartzen dute, eta herriko guztiak txandakatzen dira hari jaten emateko. Izan ere, gizon batek ehizatu edo harrapatu arren, herri osoarena baita nolabait. Haren okelak denentzako oturruntza hornituko du, eta horregatik denek lagundu behar dute bizirik dagoeno mantentzen. Katibu edukitzeko denbora adinaren arabera izaten da. Hartz zaharrak hilabete batzuetan edukitzen dira; umeak erabat hazi bitartean. Hartz katibuaren gantz lodiak adierazten du jaia noiz egin; neguan izaten da beti, gehienetan abenduan, baina inoiz urtarril-otsailen ere bai. Aipatu errusiar bidaiariek ikusitako jaiak hainbat egun iraun zuen eta hiru hartz hil eta jan ziren. Behin baino gehiagotan eraman zituzten prozesioan, eta herriko etxe guztietan sarrarazi zituzten; han jaten eman zieten etxekoei ohore egiten zitzaientza erakusteko, eta ongi etorriak zirela adierazteko. Baina piztiek bisiten erronda amaitu baino lehen, gilyakak soka-saltoan jolastu ziren haien aurrean, eta agian, L. von Schrenckek uste zuenez, baita haien ohoretan ere. Hil aurreko gauean, hiru hartzak ilargi-argitan eraman zituzten bide luzean ibai izoztu baten izotz-gainera. Gau hartan herrian inork ez zuen lorik egin. Biharamunean, animaliak atzera ibaiertzera ekarri eta gero, eta hiru bira eman ondoren herriko emakumeek ura ateratzeko izotzean eginga zuten zuloari, jakineko leku batera eraman, herritik gertu, eta geziz hil zituzten. Sakrifizio edo exekuzioaren lekua santu gisa geratu zen markatuta ziri zorrotzen hesi batez, zeinen puntetatik txirbil kiribilduak zeuden zintzilik. Ziri haiek, gilyaken artean, ainoen artean bezala, zeremonia erlijioso guztietako sinboloak dira.

Etxea hartzak hartzeko jaso eta apaindutakoan, haien larruak eta buruak barrura sartzen dira, baina ez atetik, leihotik baizik, eta gero okela egosiko den supazterraren parean dagoen oholza moduko batetik esekitzen dute. Hartzen okela egostea gizon zaharrenek egiten dute gilyaken artean; haien pribilegioa da; emakumeek eta haurrek, gizon gazteek eta mutilek ez dute parte hartzen hartan. Zeregin hori poliki eta kontu handiz burutzen da, halako solemnetasun batez. Errusiar bidaiariek deskribatutako abagunean, pertza txirbilez egindako koroa lodi batez inguratu zen lehenik, eta gero elurrez bete zuten, ura erabiltzea debekatua baita hartzaren haragia egosteko. Bitartean, zuraska bat, arabeskoz eta era guztietako irudiz landua, berehala eseki zuten hartzen muturren azpian; zuraskak erliebez landutako hartz bat zeukan alde batean, beste aldean apoa. Animaliak zehatzean, hanka bakoitza ebaki eta zoruan ipini zieten, buruen aurrean, baimen-eske bezala, pertzean ipini aurretik; eta okela egosia burdinazko gako batez atera zuten pertzetik, eta zuraskan ipini zuten hartzen aurrean, haiek lehenak izan zitezen beren haragia probatzen. Azkenez, piztien erraiak zehatu eta ontzi txikietan jarri zituzten. Aldi berean, emakumeek zerrendak egin zituzten zapi koloreanitzez, eta eguzkia sartzean zerrenda haiek lotu zituzten hartzen muturren bueltan, begien azpitik, "haien begietatik isurtzen ziren malkoak xukatzeko".

Hartz koitaduen malkoak xukatzeko zeremonia egin bezain laster, bildutako gilyakek gogotik ekin zioten okela jateari. Haragia egostean ateratako salda aurretik banatua zuten. Gilyakek halako abaguneetan salda eta okela hartzeko erabiltzen dituzten zurezko katilu, erratilu eta koilarak abagune hartarakoxe bereziki eginak izaten dira; hartzei edo jaiari buruzko irudi landuz fin apainduta egoten dira, eta jendeak superstiziozko beldur handia dio haiek desegiteari. Hezurak garbitu ondoren, okela egosteko erabilitako pertzean ipini zituzten. Eta oturruntza amaitutakoan, agure bat etxeko atean jarri eskuan izai-abarra zuela eta, jendea irten ahala, kolpetxoa ematen zion hartzaren haragia edo gantza jana zen bakoitzari, beharbada zigor gisa animalia gurgarria era hartan tratatzeagatik. Arratsaldean emakumeek dantza bitxia egin zuten. Emakume bakar bat

dantzatu zen aldiko, gerritik gora jarrerarik arraroenetan jarritz, eskuetan izai-abarra edo zurezko kriskitin moduko batzuk zituela. Beste emakumeek, bien bitartean, lagundu egiten zioten makilez etxeko habeak joz. Von Schrenckek uste zuen hartzaren haragia jan ondoren hezurak eta burezurra basoko leku batera eramaten dituztela zaharrenek, herritik ez urrun. Han hezur guztiak, burezurra izan ezik, ehorzten dituzte. Hori egin ondoren, zuhaitz gaztea mozten da lurretik hatz batzuetara, motxondoa zulatu eta zuloan burezurra sartzen da. Belarrak leku hura estaltzen duenean, burezurra desagertu egiten da eta halaxe amaitzen dira hartzarekikoak.

Leo Stenberg jaunak gilyakek egiten duten hartz-jaiaren beste deskribapen bat eman digu. Funtsean bat dator aurreko kontakizunekin, baina baditu bereizgarri batzuk. Stenberg jaunaren arabera, jaia hildako senideren baten omenez egin ohi da: seniderik hurbilenak hartz gaztea erosi edo harrapatu du, eta bizpahiru urtez hazten du, harik eta sakrifizioarako gertu dagoen arte. Gonbidatu berezi batzuek (Narch-en) baizik ez dute izaten hartzaren okelatik jateko pribilegioa, baina gonbidatzaileak eta beronen klanekoek okelaz egindako salda hartzen dute; salda asko egiten eta hartzen da abagune horretan. Gonbidatzailearen alabak eta klan horretako beste emakume batzuk zer klanetakorekin ezkondu diren, klan horretakoak izan behar dute ohorezko gonbidatuak (Narch-en); gonbidatu horietako bati, gehienetan gonbidatzailearen suhiari, hartza gezi batez hiltzeko eginkizuna ematen zaio. Hartzaren larrua, burua eta haragia, atetik ez baizik eta tximiniatik sartzen dira etxean; geziz betetako zorroa jartzen zaio buru azpian, eta ondoan tabakoa, azukrea eta beste jaki batzuk. Hartzaren arimak berekin eramaten omen ditu gauza horien arimak bere bidaia luzean. Ontzi berezia erabiltzen da hartzaren okela egosteko, eta sua sukarrari eta altzairuzko tresna sakratu batez piztu behar izaten da. Klanak gordetzen du tresna hori, eta belaunaldiz belaunaldi pasatzen da, baina inoiz ez da erabiltzen sua pizteko, halako abagune itzaltsuetan ez bada. Bildutakoentzat maneaturako jaki guztietatik, puska bat ontzi berezi batera atera eta hartzaren buruaren aurrean jartzen da; horri "buruari jaten ematea" deitzen zaio. Hartza hil ondoren, zakurrak sakrifikatzen dira binaka, arra eta emea. Irato baino lehen, jaten ematen zaie, eta mendi garaieneko jaunarengana joateko gonbita egiten, larruak aldatu eta hurrengo urtean hartz-itxuran etor daitezen. Hildako hartzaren arima ere jaun horrexegana joaten da, lehen oihaneko jaunarengana, alegia; egin zaizkion eskaintzez zamatuta abiatzen da, zakurren arimak eta ziri landu sakratuen arimak lagun dituela. Zirioak leku nabarmena izaten dute jaietan.

Goldiek, gilyaken auzoek, oso berdintsu tratatzen dute hartza. Ehizatu eta hil egiten dute; baina batzuetan hartz bizia harrapatu eta kaiola batean gordetzen dute, jaten ematen diote, eta seme eta anaia deitzen. Gero, jai handi batean, kaiolatik atera, begiramen nabarmenez paseatu, eta hil eta jan egiten dute. "Burezurra, masailezurak eta belarriak zuhaitz batetik zintzilik jartzen dituzte, izpiritu gaiztoentzako antidoto gisa; baina okela gogo handiz jaten dute, sinesten baitute hartatik jaten duen orok ehizarako joera hartzen duela, eta bulartsu bilakatzen dela".

Orotxiek -Amur aldeko beste herri tunguziar bat- era beretsuko hartz-jaiak izaten dituzte. Hartz gaztea harrapatzen duen orok bere eginbeharra izaten du hiru bat urtez kaiola batean haztea, denbora horren buruan jendaurrean hil eta haragia lagunekin jateko. Jaiak publikoak izaki, banakoek antolatu arren, jendea urtero jai bat egiten saiatzen da orotxien herri guztietan, txandaka. Hartza kaiolatik ateratzen dutenean, sokaz lotuta eramaten dute etxola guztietara, jende lantzaz, arkuz eta geziz armatua lagun duela. Etxola bakoitzean hartza eta eramaleak onetik jatera eta edatera gonbidatzen dituzte. Horrek zenbait egun irauten du, harik eta, herri horretako etxolak ezezik, ondokoak ere bisitatu arte. Egun horiek kirolekin eta alaitasun zarzatzuan ematen dira. Gero hartza zuhaitz batean edo zurezko zutoin batean lotu eta geziz hiltzen

du jendetzak, eta ondoren haragia erre eta jan egiten du. Tundja ibaiko orotxien artean, emakumeek parte hartzen dute hartzen jaietan; Vi ibaiko orotxien artean, aldiz, emakumeek inoiz ez dute ukitzen hartz-okelarik.

Tribu hauek hartz katibua tratatzeko duten eran, zenbait ezaugarrik gurtzaren antz osoa dute. Hala, adibidez, bizirik eta hil ondoren eskaintzen zaizkion otoitzak; animalia burrezuraren aurrean utzitako janari-eskaintzak, bere haragiarenak barne; eta gilyaken usadioa, piztia bizia ibaira eramatekoa arrantza ona izateko, eta etxez etxe eramatekoa familia guztiek haren bedeinkazioa jaso ahal dezaten, European maiatz-arbola edo zuhaitz-izpirituaren ordezkari pertsonala eramaten zen bezala, atez ate udaberrian, ernetzen ari zen naturaren indar berriak denengana zabaltzeko. Orobat, haragi-odolak jateko eta edateko usadio itzaltsuak, eta bereziki ainoen usadioak -piztia hilaren aurrean jarritz sagaratutako edalontzitik parte bat hartzea- sakramentuaren itxura guztiak dituzte. Eta horixe pentsarazten dute gilyaken honako ohitura hauek ere: haragiarentzat ontzi bereziak gordetzeak, eta abagune erlijioso horietan bakarrik erabiltzen den tresna sakratu batez piztutako sutan egosteak. Hain zuzen, ainoen erlijioaren gure aditu nagusiak, John Batchelor elizgizonak, gurtza gisa deskribatzen du argi eta garbi ainoek hartzari dioten begirunea, eta zera dio, animalia hori haien jainkoetako bat dela ez bairik gabe. Izan ere, ainoek jainko esateko duten hitza (kamui) libreki erabiltzen dute hartza izendatzeko; baina, Batchelor jaunak berak argitzen duenez, hitz hori hainbat ñabardura desberdinez erabiltzen da, eta gauza askotaz hitz egitean; beraz, hartza izendatzeko erabiltzen delako ez daukagu ondorioztatzetik animalia benetan jainkotzat zeukatenik. Izan ere, argi eta garbi esaten zaigu Sakhalingo ainoek ez dutela hartza jainkotzat hartzen, jainkoen mezularitzat baizik, eta animalia hiltzean ematen dioten mezuak adierazpen hori jasotzen du. Nonbait, gilyakek ere Mendiko Jaunari -hots, herriaren ongizatea bere eskuetan duenari- bidalitako opariz zamatutako mandatari gisa ikusten dute hartza. Aldi berean, gizonaz gaindiko izakitzat daukate animalia, jainkoxkatzat-edo; hura herrian eduki, zaindu eta jaten ematen dioten aldian, onurak zabaltzen ditu, bereziki izpiritu gaiztoen saldoak urruntzen ditu, etengabe aritzen baitira jendearen zelatan, ondasunak lapurtuz eta gorputzak gaixotasunen bitartez hondatuz. Horrez gainera, hartzaren haragia, odola edo salda hartuz, gilyakak, ainoak eta goldiak animalia bote ahaltzen parte bat bereganatzen dutelakoan daude, batez ere haren adorea eta indarra. Ez da harritzekoa, beraz, hain ongile handia begirune handienaz eta xeratsu hartzea.

Argi pixka bat egin liteke ainoek hartzengana duten jarrera anbiguoaren gainean, hain zuzen beste animalia batzuk nola tratatzen dituzten konparatuz. Adibidez, jainko ontzat daukate hontza handia, bere uluez gizonak izpiritu beldurgarrietatik babesten dituelako; horregatik maite dute, fido dira hartaz, eta jaieraz gurtzen dute jainkoetako ararteko gisa, beren eta Sortzailearen artean. Ematen dizkioten izenek jainkotasuna eta arartekotza, biak adierazten dituzte. Aukerarik dutenean, jainkoetako txori horietako bat harrapatu eta kaiolan gordetzen dute, eta han titulu xerazkoaz agurtzen dute, hala nola "Jainko maite" eta "Jainkotxo laztana". Hala ere, denbora baten buruan jainkotxo hori irato eta bidali egiten dute ararteko gisa, goragoko jainkoei edota Sortzaileari berari mezua eramatera. Honelakoa da hontza handiari zuzendutako otoitza, sakrifikatzaera doazenean: "Jainko maite, maite zaitugulako hazi zaitugu, eta orain zure aitarengana bidaliko zaitugu. Bidenabar, janaria, inaoa, ardoa eta opilak eskaintzen dizkizugu; har itzazu eta eramanez aitari, eta oso poztuko da bera. Harengana iristean, hauxe esaiotzu: "Denbora luzean bizi izan naiz ainoen artean, aita aino batek eta ama aino batek zaindu naute. Orain zuregana nator. Hainbat gauza on ekarri dizkizut. Ainoen lurraldean bizi izan naizenean hainbat eta hainbat hondamendi ikusi ditut. Ikusi dut zenbait pertsona deabruak hartuta zeudela, beste zenbait basapiztiek zauritu dituztela, beste batzuk lur-eratsiek harrapatu dituztela,

beste batzuk itsasoan hondatu direla, eta beste asko gaixotasunak jota zeudela. Herri hura behar gorrian da. Aita nirea, entzun iezadazu, eta arren begira itzazu laster ainoak, eta lagun iezaezu". Horrela egiten baduzu, zure aitak lagundu egingo digu".

Orobat, ainoek arranoak gordetzen dituzte karioletan, jainkoak bailiran gurtzen dituzte, eta gaitzetik gorde ditzatela eskatzen diete. Hala ere, sakrifikatu egiten dute hegaztia, eta hala egitera doazenean honela egiten diote otoitz: "Oi jainko preziatu hori, oi jainkozko txori, arren entzun itzazu nire hitzak. Zu ez zara mundu honetakoa, zure etxea Sortzailearen eta urrezko arranoenean baita. Hori horrela denez, hemen aurkeztzen dizkizut inaoa eta opilak eta beste gauza eder batzuk. Zoaz inaoaren gainean eta igo zaitez zeru loriazkoetan duzun etxera. Hara iritsitakoan, bil zaitez zeu bezalako jainkoekin eta emaezu eskerrak gure partetik mundua gobernatu dutelako. Zatoz gero berriz, hala erregutzen dizut, eta goberna gaitzazu. Oi ene preziatu hori, zoaz poliki". Era berean, belatzak ere jauresten dituzte ainoek; karioletan gordetzen dituzte, eta sakrifizioan eskaintzen. Haietako bat hiltzeko garaian, honako otoitz hau zuzendu behar zaio hegaztiari: "Oi jainkozko belatz, ehiztari trebea zara, arren egizu zure argitasun hori niregana jaits dadin". Baldin eta belatz bat ondo tratatzen bada katibu denean, eta horrela otoitz egiten bazaio hil behar dutenean, lagundu egingo omen dio ehiztariari.

Hortaz, ainoak hainbat eratako onurak ateratzea espero du jainkozkotzat tratatu eta hala ere hil egiten dituen izakiongandik. Espero du goi-munduko arbasoei edo jainkoei mezuak eramango dizkietela; espero du haien bertute batzuk jasotzea gorputz-zatiak jatearen bitartez edo bestela; eta, dirudienez, uste du animalioek mundu honetan atzera berpiztu egingo direla, eta berriro harrapatu eta hil ahalko dituela, eta berriro bilduko dituela haiek hilda jasotako onura guztiak. Izan ere, hartz gurgarriari eta arrano gurgarriari zuzendutako otoitz guztietan, buruan jo eta akabatu baino lehen, izakiok berriz itzultzera gonbidatzen dituzte. Horrek argi eta garbi adierazten du piztueran sinesten dutela. Puntu horretan zalantzarik balitz, erabat deuseztuko du Batchelor jaunaren datu batek. Jaun honek esaten digunez, ainoak "guztiz sinetsita daude ehizan hildako edo sakrifizioan eskainitako txori eta animalien izpirituak berriro bizi izaten direla lurrean, gorputz bat hartuta; eta sinesten dute, gainera, gizonei on egiteko agertzen direla, bereziki ehiztari ainoei". Ainoek, hala diosku Batchelor jaunak, "aitortzen dute hildakoen ordeztatu beste batzuk etor daitezen hil eta jaten dituztela piztiak, beste horiek ere berdin tratatzeko asmoz"; eta izakiak sakrifikatzeko garaian, "otoitzak esaten zaizkie, arren berriz itzul daitezela, eta beste oturuntza baterako jaki izan daitezela, haientzat ohorea eta plazerra bailitzan gisa hartan hilak eta janak izatea. Horixe baita herriarren ideia". Azken oharrok, testuingurutik atera daitekeenez, hartzen sakrifizioari dagozkio bereziki.

Beraz, ainoek gurtzen dituzten animaliak hilda jaso espero dituzten onuren artean, ez da txikiena haien okelaz eta odolaz lepo egitea, bai orduan eta bai geroago ere beste hainbat abagunetan; eta ikuspegi atsegin hori beren fede sendotik datorkie, hildako animaliak izpirituz hilezkorrak eta gorputzez piztekoak direla sinestetik. Antzeko fedea dute ehiztari basati askok munduko hainbat aldetan, eta usadio bitxi ugari sortu ditu fede horrek. Batzuk hemen deskribatuko ditugu. Bien bitartean, bere garrantzia du honetaz ohartzeak: ainoen, gilyaken eta beste tribu batzuen jaialdi itzaltsu horiek - zeinetan hartz bezatu eta kaiolaratuak hiltzen dituzten begirune eta tristurazko agerpenak eginez- antzeko erritoen hedapena edo loriatzea besterik ez direla; ehiztariak edozein hartz basatirekin egiten baititu halakoak, basoan hiltzeko zoria izaten badu. Hain zuzen, gilyakei dagokienez, argi gaztigatu zaigu hori horrela dela. Gilyaken erritualaren esanahia ulertzekotan, dio Sternberg jaunak, "batez ere gogoratu behar dugu hartzaren jaiak ez direla ospatzen, gehienetan baina oker esan ohi den bezala, etxeko hartz bat hiltzean bakarrik, baizik eta gilyak batek ehizan hartza hiltzeko zoria

duen abagune guztietan egiten direla. Egia da halakoetan jaia ez dela hainbestekoa izaten, baina funtsean berdina da. Hildako hartzaren burua eta larrua herrira ekartzean, harrera handia egiten zaie, musikaz eta zeremonia larritz. Burua oholtza sagaratu batean uzten da, jaten ematen zaio, eta eskaintzak egiten zaizkio, etxeko hartz bat hiltzean bezalaxe; eta ohorezko gonbidatuak (Narch-en) biltzen dira halaber. Era berean, zakurrak sakrifikatzen dira, eta hartzaren hezurak etxeko hartz baten hezurren leku berean eta begirunezko seinale berdinez gordetzen dira. Horregatik, neguko jai handia edozein hartz hiltzean egiten den erritoaren hedapena besterik ez da".

Hala, tribu horiek beren praktiketan itxuraz duten kontraesana, alegia, jauretsi eta ia jainko bihurtzen dituztela ehizatu, hil eta jan ohi dituzten animaliak, ez da lehen begiratuan iruditzen zaigun bezain nabarmena: jende haiek beren arrazoiak dituzte, oso arrazoi praktikoak gero, jarduten duten bezala jarduteko. Izan ere, basatia ez da inolaz ere behatzaile azalekoei iruditzen bezain ilogiko eta praktikotasunik gabea; sakon pentsatu izan du berari hurbiletik dagozkion arazoez, haien gainean arrazoitu du, eta nahiz beraren konklusioak askotan gureen guztiz bestelakoak izan, ez diogu ukatu behar giza izatearen funtsezko arazo zenbaiten gainean gogoeta pazientziatsu eta luzea egin izana. Kasu honetan, hartzak oro har giza premien zerbitzupean dauden izaki gisa tratatzen baditu, eta hala ere, espezie horretako zenbait banako bereizten baditu omentzeko eta ia jainkotzeko, horregatik ez dugu berehala irrazionaltzat eta burugabetzat jo behar; haren ikuspuntuan jartzen saiatu beharko dugu, gauzak hark ikusten dituen bezala ikusten, eta biluztu egin beharko ditugu geure buruak munduaz ditugun ikuspegiak hain sakon tindatzen dituzten aurriritziez. Hala eginez gero, beharbada aurkituko dugu ezen, guri basatiaren jokamoldea burugabea iruditzen arren, berak, hala ere, bere esperientzia mugatuko egintzekin harmonian dirudien arrazoibideaz jarduten duela gehienetan. Horixe frogatzeko asmoa dut hurrengo kapituluan. Hauxe saiatuko naiz erakusten, ainoek eta Asiako iparrekialdeko beste tribu batzuek duten hartzaren jaiaren zeremonial itzaltsua basatiak hiltzen eta jaten dituen animaliei ohi dien begirunearen adibide bereziki harrigarria baino ez dela, bere filosofia zakarraren printzipioetan oinarritzen dena.

lii

Ehiztariek animalia basatiak propiziatzea

Basatiak ez du uste gizakiek bakarrik dutenik arima hilezkorra; sorkari animatu guztiek dutela uste du. Hala pentsatzean, gizon zibilizatuak baino liberalagoa da, agian baita logikoagoa ere: zibilizatuak gehienetan ukatu egiten baitie animaliei hilezkortasunaren pribilegioa, bere buruarentzat aldarrikatzen badu ere. Basatia ez da hain harroa; gehienetan sinesten du animaliak gizonenak bezalako sentimenduz eta adimenez hornituta daudela eta, gizonak bezala, haien gorputzak hil ondoren ere bizirik irauten duten arimak dituztela, gorputzik gabeko izpiritu gisa batera eta bestera noraezean ibiltzeko, edota atzera animali itxuran jaiotzeko.

Hortaz, basatiak gizonaren berdin ikusten baitu bizidun oro, harentzat eta guretzat oso desberdina izan behar du animalia bat hiltzeak eta jateak, guk animalien inteligentzia geurea baino askoz beheragoko jotzen baitugu, eta arima hilezkorra izatea ukatzen baitiegu. Horregatik, bere filosofia zakarraren printzipioen arabera, animalia bat hiltzen duen ehiztari primitiboak sinesten du haren izpiritu gorputzgabearen edota espezie bereko animalia guztien mendekuaren arriskupean dagoela, animalioak ere, gizonak bezala, senidetatasunaren lokarritz eta odolaren zorraz behartuta jotzen baititu eta, beraz, beren arteko bati egindako kalteagatik haserretzera behartuta. Horren arabera, basatiak arautzat dauka akabatzekeko motiborik ez duen animalien bizia errespetatzea, gutxienez beren arteko baten hilketagatik mendeku odoltsua hartzeko gai diren animalia oldarkor eta arriskutsuena. Krokodiloak klase horretako animaliak dira. Herrialde beroetan

bakarrik bizi dira. Oro har, janaria ugari izaten da han eta, beraz, gizon primitiboak ez du haiek hiltzeko arrazoirik, haragi gogorra eta keru txarrekoa izaki. Horregatik, zenbait basatiren usadioa da krokodiloak errespetatzea, edota odol-zorraren legeari men egiteko bakarrik hiltzea, hau da, mendeku gisa, krokodiloek gizonen bat hil dutelako. Adibidez, Borneoko daiak ez dute krokodiloric hiltzen, baldin eta krokodilo batek aurrez gizonik hil ez badu. "Izan ere" diote, "zergatik egin halako erasorik, piztiak eta bere kideek hain ordain erraza har badezakete? Baina kaimanak gizon bati bizia kenduz gero, mendekua eginkizun sakratua bilakatzen zaie senide bizidunei; justiziagile batek kriminalari jazartzen dion setaz harrapatuko dute gizajalea. Beste batzuek, orduan ere, atzera egiten dute, berei ez dagokien liskar batean nahasi nahi ezta. Irudi luke Nemesis zuzenzale batek jazartzen duela kaiman gizajalea; eta bat harrapatzen dutenean, erabat sinetsita egoten dira erruduna dela, edota errudunaren laguntzailea".

Daiak bezala, Madagaskarkoek inoiz ez dute krokodiloric akabatzen "salbu eta ordainetan, krokodiloren batek kideren bat hil badie. Sinesten dute narrasti horietako bat nolanahi suntsituz gero, giza biziren bat galduko dela, lex talionis delako printzipioaren arabera". Itasy lakuaren ondoan bizi den jendeak, Madagaskarren, aldarrikapen bat egin ohi die urtero krokodiloek, iragarri beren lagunetako batzuen heriotza mendekatuko dutela, ordainetan beste hainbat krokodilo akabatuz, eta abisu emanez borondate oneko krokodiloek urrun ibiltzeko, ez dutela-eta beraiekin sesiorik nahi, giza bizia hartu duten senide gaiztoekin baizik. Madagaskarko zenbait tribuk sinesten dute jatorriz krokodiloetatik datozela; beraz, narrasti ezkatatsu hori gizaki eta anaia gisa hartzen dute, asmo eta xede guztietarako. Baldin eta animalietako batek, bere buruaz ahaztuta, giza senide bat jango balu, tribuko burua, edo hura ez balitz tribuko usadioak ezagutzen dituen gizon zahar bat, herritarren buru jarri eta ur-ertzera abiatuko da, eta han eskatuko dio errudunaren familiari entrega diezaiotela hura justiziari. Gako bati beita jarri eta ibaian edo lakuan uzten da. Biharamunean erruduna, edo haren familiako bat, lehorrera ateratzen dute eta, galdeketa zehatz baten bidez krimena guztiz argitu ondoren, heriotza-zigorra ezarri eta exekutatu egiten dute. Justizi eskakizunak hala beterik, eta legearen gorentasuna erabat bere lekuan jarriarik, hildako krokodiloagatik dolua egin eta senidea balute bezala ehorzten dute; lur-tontorra eraikitzen da haren hondarren gainean, eta harri batek markatzen du buruaren lekua.

Tigrea ere beste piztia arriskutsu bat da, eta basatiak nahiago izaten du bakean utzi, bat hilez gero besteen etsaigoa piztuko lukeelakoan. Sumatrarra ez du inolako arazoik behartuko tigrea ehizatzen edo zauritzen, bere buruaren defentsan ez bada, edo tigreren batek laguna edo senidea hil duelako. Europar batek tigreetzako tranpak jarri izan ditutenean, inguruetako jendea joan izan da inoiz gauez leku hartara animaliei azaltzen tranpa haiek ez direla berek jarriak, ezta beren oniritziz ere. Rajamahall inguruetako menditarrak, Bengalan, tigreak hiltzearen oso kontra daude, salbu eta piztia horietako batek beren artekoen bat hiltzen duenean. Halakoetan, tigreen ehizara abiatzen dira; eta lortzen dutenean, hildako animalia gainean uzten dituzte beren arku eta geziak, eta Jainkoari dei egiten diote, deklaratu beretako baten galeraren ordainetan hil dutela animalia. Mendekua hala harturik, zin egiten dute ez diotela beste tigreren bati erasoko, antzeko beste erronkarik ez bada.

Carolinako indiarrek bakean uzten dituzte sugeak ondok pasatzen; bidean aldeztatzen dira, sugeren bat hilko balute sugaren familiakoek senide edo lagun batzuk suntsituko lituzketelakoan. Seminolek, kasu, errespetatu egiten zuten kriskitinsugea, beldur baitziren hildako kriskitinsugearen arimak mendeku hartzen bultzatuko lituzkeela bere senideak. Cherokeeek sugen tribuko burutza daukate kriskitinsugea, eta horregatik beldurra eta begirunea diote. Cherokeeak ez dira menturatuko kriskitinsugea kalitzen, salbu eta besterik ezin egin badute, eta orduan ere ordaindu egingo dute beren

krimenagatik, sugereen izpirituari barkamena eskatuz, berek zuzenean edo apaiz baten bitartez, formula jakin baten arabera. Neurri horiek hartuko ez balira, hildako sugereen senideek beretako bat bidaliko lukete odoleko mendekari gisa, eta hark hiltzailea jazarri eta hozka eginda hilko luke. Cherokee arruntak ez dira ausartzen otsoa hiltzen, halakorik egitea saihestu ahal badute; sinesten baitute hildako piztiaren odolekoek haren heriotzaren mendekua hartuko luketela, eta arma hiltzaileak ez duela balioko aurrerakoan, osagin batek garbitzen eta exorzizatzen ez badu. Ordea, halako krimen batentzako barkamenezko errito egokiak ezagutzen dituzten zenbait pertsonak badaukate otsoa hiltzea, eta beren aziendetan edo arrantza-tranpetan otsoen kalteak jasan dituen jendeak alokatu egiten ditu. Jebel-Nuban, Sudango ekialdeko eskualde batean, debekatuta dago gure txoribeltzen antza duten txori beltz batzuen espezieko habiak ukitzea edo txorikumeak hartzea, zeren eta jendeak uste baitu txori gurasoek mendeku hartuko dutela haize-zirimola eraginez eta ereinak suntsituz.

Baina basatiak, bistan da, ezin die barkatu animalia guztiei. Batzuk jan egin beharko ditu, goseak egon nahi ez badu. Auzia horrela planteatzen denean, alegia, bera ala animalia, behartuta egongo da bere eskrupulu superstiziotsuak gainditu eta piztiari bizia kentzera. Aldi berean, ahal duen guztia egiten du biktimak eta biktimen senideak ematzeko. Are haiek hiltzerakoan ere, begirunea agertzen die, heriotzan parte hartzeagatik aitzakiak jarritz edo are hori ezkutatzuz, eta agintzen dio ohorez tratatuko duela gorpua. Hala, heriotzari beldurgarritik duena kenduz, espero du biktimek beren patua onez hartuko dutela, eta kideak berdin hiltzera erakarriko dituztela. Adibidez, Kamtxakakoek printzipio bat zeukaten, inoiz ez zuten hiltzen lehorreko edo itsasoko animaliarik aurrez barkamena eskatu gabe eta gaizki har ez zezala erregutu gabe. Zedroaren intxaurrak eta abar ere eskaintzen zizkioten, pentsa zezan ez zela biktima, oturuntzara gonbidatua baizik. Uste zuten hartara espezie bereko beste animalia batzuek ez zietela muzin egingo. Adibidez, hartza hil eta haragiarekin oturuntza egin ondoren, gonbidatzaileak bildutakoen aurrera ekarriko zuen hartzaren burua, belarretan bilduta, eta hainbat gozoki oparituko zizkion. Hartzaren heriotzaren errua errusiarrei egotziko zien, piztiak bere sumina haien gainera bota zezan. Era berean, beste hartzei zeinen ondo tratatu zuten jakinarazteko eskatzen zion hartzari, haiek ere beldurrik gabe etor zitezen. Begirune zeremoniatsu berberaz tratatzen zituzten kamtxatkarrek fokak, itsas lehoiak eta beste animalia batzuk. Horrez gainera, gurbitzaren antza zuen landare baten kimuak jartzen zituzten ehizatutako animalien ahoetan; ondoren, beldurrik ez izateko eskatzen zieten irribarre lazgarritzko burezurrei, eta kideei etor zitezela esatera joateko, harrapatu eta abegi on egingo zietela eta. Ostiakek hartza ehizatu eta hiltzen dutenean, lepoa moztu eta zuhaitz batetik esekitzen dute. Gero, biribilean biltzen dira eta jainkoari dagozkion ohoreak egiten dizkiote. Ondoren, gorpua ondo joaten dira korrika, lantu eginez eta esanez: "Nork hil zaitu? Errusiar batek. Nork moztu dizu lepoa? Errusiar aizkorak. Nork larrutu zaitu? Errusiar batek egindako labanak". Azaltzen dute, halaber, geziari hegaldia arintzen dioten lumak txori arraro baten hegotik hartuak direla, eta berek geziari joaten utzi besterik ez dutela egin. Hau dena egiten dute, uste dutelako hildako hartzaren izpiritu erraria ematzeko ez balute, eraso egingo liekeela lehen aukera izan orduko. Edo albitzez betetzen dute hildako hartzaren larrua; eta garaitzapena txantxa eta irainezko kanteekin ospatu ondoren, tu egin eta jo ondoren, atzeko hanken gainean jartzen dute, "eta orduan denbora luze samar batez, jainko zaindari bati zor zaizkion gurtza guztiak egiten dizkiote". Koryak-talde batek hartza edo otsoa hildakoan, piztia larrutu eta beren arteko bat janzten dute larruaz. Gero larruaz jantzitako gizonaren inguruan egiten dute dantza, esanez berek ez dutela hil, beste norbaitek baizik, gehienetan errusiar batek. Azeria hiltzen dutenean, larrutu egiten dute, gorputza belarretan bildu eta bere kideen artera joateko eskatzen diote, zeinen ondo hartu duten

esatera, eta nola larru berria hartu duen zaharraren orde. Koryaken zeremonien kontakizun luzeagoa eman digu orainagoko idazle batek. Kontatzen digu hildako hartza etxera ekartzen dutenean, emakumeak irten eta zuzi irazekiez eta dantzan biltzen zaizkiola. Hartzari larrua buruarekin batera kentzen zaio; eta emakumeetako bat larrua jantzi eta dantzan hasten da, eta erregutzen dio hartzari arren ez izateko haserre, atsegin izateko jendearekin. Aldi berean, haragia eskaintzen diote zurezko erratilu batean, esanez: "Jan ezazu, lagun". Ondoren, zeremonia bat egiten da hildako hartza, edota haren izpiritua, etxera bueltan bidaltzeko. Hornizioak ematen dizkiote bidaiarako, opiltxoak eta oreinkia, belarrezko poltsa batean bilduta. Larrua belarrez bete eta etxearen biran eramaten dute, eta segidan egusentiko eguzkirantz abiatzen omen da. Zeremonien asmoa jendea hildako hartzaren eta haren senideen suminetik babestea da, eta hartara aurrerantzean ere arrakasta izatea hartzaren ehizan. Finlandiarrak hildako hartz bati berek ez zutela hil sinestarazten saiatzzen ziren, zuhaitz batetik erori zela, edota beste nolabait hil zela; gainera, hileta egiten zioten, eta hura amaitzean koplariak aritzen ziren haren omenez, arren eskatuz jakinaraz ziezaiela beste hartzei zeinen ondo tratatu zuten, haiek ere, hildakoa bezala, etor zitezen. Laponiarrek hartza berek minik hartu gabe hiltzea lortzen zutenean, eskerrak ematen zizkioten minik eman ez zielako, eta makila eta lantza zaurigileak ez hausteagatik; eta erregutzen zioten ez zezala mendeku hartu beren gainean, ekaitzak bidaliz edo beste nolabait. Ondoren, hartzaren okelaz oturuntza egiten zuten.

Ehiztariak hil eta jaten duten hartzari dioten begiramena Mundu Zaharreko iparralde osoan zehar atzeman daiteke, Bering itsasartetik Laponiaraino. Antzeratsu agertzen da Iparramerikan ere. Amerikako indiarrentzat hartza ehizatzea garrantzitsua zen, eta barau luzeak eta arazketak eginez prestatzen ziren hartarako. Abiatu baino lehen, propiziatzeko sakrifizioak eskaintzen zizkieten aurreko ehizaldietan hildako hartzei, eta arren ehiztarien alde egiteko eskatzen zieten. Hartza hildakoan, ehiztariak pipa pizten zuen, eta hartzaren ezpain artean jarrita, ontzi-antzekotik putz egin eta kez betetzen zuen hartzaren ahoa. Gero erregutzen zion ez izateko haserre hala hil zuelako, eta ez jartzeko trabarik ehizan. Gorpua osorik erretzen eta jaten zen; okela-pusketarik txikiena ere ezin zen utzi. Burua, gorriz eta urdinez margotuta, zutabe batetik zintzilik jartzen zen, eta hizlariak gorespen handiak egiten zizkioten. Otawa tribuko hartzaren klaneko gizonek hartza hiltzen zutenean, bere haragia eskaintzen zioten, eta honela zuzentzen zitzaizkion: "Arren ez iezaguzu begikorik izan hil zaitugulako. Izazu zentzuna; ikusten duzu gure haurrak goseak daudela. Maite zaituzte eta beren gorputzetan hartu nahi zaituzte. Ez al da loriatsua buruzagi baten hurren janari izatea?". Britainiar Columbiako nootka indiarren artean, hartza hiltzen zutenean, buruzagi nagusiaren aurrean jartzen zuten zutik, irudiz landutako buruzagi-kapelua buruan zuela, eta larru gainean lumatxa zuriak. Jakiz betetako erratiluak jartzen zioten aurrean, eta hitzez eta keinuz arren jan zezan gonbidatzen zuten. Ondoren, animalia larrutu, egosi eta jan egiten zuten.

Antzeko begirunea eskaintzen diete ehiztariak jazarri eta hil egin ohi dituzten beste izaki batzuei ere. Ehiztari kafreek elefante bati lantzak jaurtitzen dizkiotenean, esaten diote: "Ez gaitzazu hil, kapitain handi horrek; ez eraso edo hankapean erabili, buruzagi ahaltsu horrek". Hiltzen dutenean, barkamena eskatzen diote, esanez halabehar hutsez hil dela. Begirunea erakusteko, tronpa ehorzten dute zeremonia larri batean; esaten baitute "elefantea jaun handia dela; tronpa eskua du". Amaxosa kafreek elefante bati eraso aurretik, egin behar duten hilketagatik barkatzeko eskatzen diote oihuka, begiramen handia erakutsiz eta argi azalduz zenbateraino behar dituzten haren letaginak, haiei esker idunekoa egin eta beren premiak ase ahal izateko. Hil ondoren, tronparen muturrarekin batera, boliaren truke lortu dituzten zenbait gauza ehorzten dituzte, hartara

beren gainera eror litekeen zorigaitzen bat saihestuko dutelakoan. Afrikako ekialdeko zenbait tributakoek lehoia hiltzen dutenean, erregearen aurrera eramaten dute piztia hila, eta hark omendu egiten du aurrean ahozpezz jarritz eta aurpegia piztiaren muturrean igurtziz. Afrikako mendebaldeko zenbait aldetan, baldin eta beltz batek leopardoak hiltzen badu, preso hartzen dute eta buruzagien aurrera eramaten, beren kidekoa hil duela eta. Gizonak bere alde egiten du, argudiatuz leopardoak basoko buruzagia dela eta, beraz, arrotza. Gero askatu eta saritu egiten dute. Baina hildako leopardoak herrian jartzen dute, buruzagi baten kapeluaz apainduta, eta gau osoan aritzen dira dantzan haren ohoretan. Bagandek beldur handia diete hil dituzten bufaloen izpirituei, eta beti eztitzen dituzte izpiritu arriskutsu haiek. Inolaz ere ez dute eramango hildako bufalo baten burua herri barrura edo platanoen baratza batera; landa zabalean jaten dute beti buruko haragia. Gero, burezurra hartarakoxe egindako etxola txiki batean ipintzen dute, eta garagardoa isurtzen dute, izpirituarentzako eskaintza gisa, dagoen lekuan gera dadin eta kalterik egin ez diezaien.

Beste piztia izugarri bat balea da: basatiak pozez baina beldurrez eta ikaraz kentzen dio bizia. Balea hil ondoren, Siberiako iparrekialdeko koryak itsastarrek herri-jaia egiten dute; jai horren parterik funtsezkoenak "ikusmolde hau du oinarri, alegia, hildako balea bisitan etorri dela herrira; aldi baterako geratu dela, eta aldi horretan begirune handiz tratatzen dutela; gero itsasora itzultzen dela hurrengo urtean berriz bisitan etortzeko asmoz; bere senideak erakarriko dituela, zein harrera ona egin zaion kontatuta. Koryaken ideien arabera, baleek, beste animalia guztiek bezala, tribua osatzen dute, edota banakoen familia bat, beren herrietan bizi dena, koryakak bezala. Mendekatu egiten dute beretako baten hilketa, eta esker ona agertzen dute egiten zaien xera onarengatik". Saint Mary uharteko biztanleek, Madagaskarko iparraldean, balearen arrantzara joaten direnean, eraso beharreko balea gazteak banakatzen dituzte, eta "umilki eskatzen diote barkamena amari, adieraziz umeak hiltzera behartuta daudela, eta errekerituz mesedez behean gera dadila berek beren lana egin bitartean, bere ama-sentimenduak min ez daitezen, hain gauza samingarria ikusita". Ehiztari ajumba batek hipopotamo emea hil zuen Azyingo lakuan, Afrikako mendebaldean; animalia lepoa moztu, zatikatu eta erraiak atera zizkion. Gero ehiztaria, biluzik, saihetsezurren arteko barrunbean sartu zen eta, odol-putzuan belaunikatuz, bere gorputza garbitu zuen animaliaaren odoletan eta iraizkinetan, otoitz eginez hipopotamoaren arimari, arren ez izateko bekaitzik hil egin zuelako eta ama izateko itxaropenak zapuztu zizkiolako; eta gainera eskatu zion izpirituari beste hipopotamoak mendeku hartzera ez bultzatzeko, bere kanoari talka egin eta irauliz.

Elur-panterari, leopardoaren antzeko izaki bati, beldur handia diote Brasilgo indiarrek, egiten dituen kalteengatik. Animalia horietako bat tranpan harrapatzen dutenean, hil eta herrira eramaten dute. Han emakumeek kolore askotako lumaz apaintzen dute gorpua, aroak jartzen dizkiote zangoetan, eta negar egiten dute gainean, esanez: "Arren eskatzen dizut, ez dezazula mendeku har gure txikien gainean, zeure ezjakinagatik atxitu eta hil zaitugu eta. Ez zaitugu geuk engainatu, zeuk engainatu duzu zeure burua. Gure senarrek jateko onak diren animaliak harrapatzeko tranpa jarri dute, besterik ez; ez zuten uste zeu harrapatuko zintuztenik. Beraz, zure arimak ez biezaie aholka kideei hilketagatik geure txikien gainean mendeku hartzeko!". Blackfoot indiar batek tranpa batean arranoak harrapatu eta hiltzen ditutenean, etxera eramanez eta esparru berezi batean jartzen ditu, arranoen esparrua deritzanean; herritik kanpo prestatua izaten da. Han ilaran jartzen ditu hegaztiak lurrian, eta buruak makila batez tente jarritz, okela lehorraren puska bana jartzen die ahoan, hildako arranoen izpirituek beste arranoei esan diezaieten zeinen ondo tratatu dituzten indiarrek. Hala, Orinoko aldeko indiar ehiztariak animalia bati hiltzen dutenean, ahoa irekitzen diote eta aldean eramanez ohi duten

pattarraren tanta batzuk isurtzen dizkiote, zertarako eta hildako piztiaren arimak bere kideei jakinaraz diezaien nolako ongi etorria egin zaion, eta haiek ere, pozik gisa hartako harrera ona egingo zaielakoan, bizkor etor daitezten hiltzera. Indiar teton bat bidean denean eta armiarma gris batekin edo armiarma hanka-hori batekin topo egiten duenean, akabatu egiten du, bestela gaitzen bat etorriko litzaiokeelako. Baina kontu handia izaten du armiarmak nork hil duen jakin ez dezan; izan ere, armiarmak jakitera, haren arimak beste armiarmeiei esango lieke, eta haietako batek kidearen hilketa mendekatuko luke seguruenik. Beraz, intsektua zanpatzean, indiarrek esaten du: "Oi armiarma aitajaun, trumoi-izakiek hil zaituzte". Eta segidan armiarma zanpatzen du, eta hartara honek sinetsi egiten du esan zaiona. Arima seguruenik beste armiarmeiei esatera joango da trumoi-izakiek hil dutela; baina hortik ez da kalterik etortzen. Izan ere, zer egin diezaiekete armiarma grisek edo hanka-horiek trumoi-izakiei?

Baina basatiak ez du bakean egon nahi izaten izaki arriskutsuekin bakarrik. Egia da piztia basatiei dien begirunea haien indarraren eta ozartasunaren arabera izan ohi dela gutxi-asko. Hala, Kanbodiako stien basatiek, sinetsiz animalia guztiek dituztela arimak eta hil ondoren errari ibili ohi direla, animalia bat hiltzen dutenean barkamena eskatzen diote, haren arima etorri eta oinazetu ez ditzan. Sakrifizioak ere eskaintzen dizkiote, baina animaliaaren tamaina eta indarraren proportzioko sakrifizioak. Elefantea hildakoan egiten dituzten zeremoniak arranditsuak izaten dira, eta zazpi egun irauten dute. Antzeko bereizketak egiten dituzte Iparramerikako indiarrek ere. "Hartza, bufaloa eta kastorea manituak (jainkoak) dira, jatekoak. Hartza izugarria da, oso ona jateko. Zeremoniak eskaintzen dizkiote, arren erregutuz utz diezaiela jaten, nahiz badakiten hori ez dela haren gogoko. "Hil egin zaitugu, baina ez zara ezereztu". Burua eta atzaparrak omendu egiten dituzte... Beste animalia batzuk berdintsu tratatzen dituzte antzeko arrazoientatik... Animalia manitu asko, ez baitira arriskutsuak, mesprezioz tratatzen dituzte askotan; hala apoarmatua, erbinudea, ipurtatsa, e.a.". Bereizketa hori oso argigarria da. Animalia beldurgarriak, edo jateko onak direnak, edo biak batera direnak, zeremoniazko begirunez tratatzen dituzte; ez izugarri, ez jateko on direnak, berriz, mesprezatu egiten dituzte. Eman ditugu animalia beldurgarri eta jangarriei dieten begirunearen adibideak. Orain beste haxe azaltzea geratzen zaigu, antzeko begirunea erakusten zaiela beldurgarri izan gabe jaten edo larru baliotsuak dituzten animaliei.

Siberiako lepahori-ehiztariek lepahoria harrapatzen dutenean, inori ez diote uzten hura ikusten, eta pentsatzen dute harrapatutako lepahoriaz onik nahiz txarrik esango balitz, ez luketela beste lepahoririk harrapatuko. Ehiztari batek esan omen zuen sinetsita zegoela lepahoriek berei buruz Moskun esandakoa ere entzun zezaketela. Lepahoriaren ehiza orain hain urria izatearen arrazoi magusia, zioen berak, zenbait lepahori Moskuraino bizirik eraman izana omen zen. Han animalia arraro gisa ikusi omen zituen jendeak, harrituta, eta lepahoriek ezin dute halakorik ametitu. Lepahoriak gutxiago harrapatzearen beste arrazoi bat, txikiagoa baina -zioen hark-, zera omen zen, mundua lehen baino askoz gaiztoagoa dela, eta gaur egun ehiztari batek batzuetan ezkutatu egiten duela harrapatu duen lepahoria, denen harrapakinekin jarri orde. Hori ere, -zioen hark- ezin dute ametitu lepahoriek. Alaskako ehiztariek urtebetez gordetzen dituzte lepahorien eta kastoreen hezurak zakurrek har ez ditzaten, eta gero kontu handiz ehorzten dituzte, "kastoreak eta lepahoriak babesten dituzten izpirituek ez dezaten pentsa mesprezioz begiratzen diegula eta, ondorioz, besterik hil edo harrapatzea ezinezko bihur ez dadin". Kanadako indiarrek ere arta handia izaten zuten beren zakurrek kastoreen hezurak, edo hezur jakin batzuk bederen, hozka ez zituzten. Nekerik handienak hartzen zituzten hezurrok bildu eta gordetzeko eta, kastorea sarean harrapatzen zutenean, hezur haiek ibaira botatzen zituzten. Josulagun bati, argudiatu zienean kastoreek seguruenik ez zekitela beren hezurrei zer gertatzen zitzaion, honela

erantzun omen zioten indiarrek: "Zuk ez dakizu ezer kastoreak harrapatzeaz, eta hala ere, hor ari zara horretaz kalakan. Kastorea harri hil bihurtu baino lehen, haren arimak osteratxoia egiten du hil duen gizonaren etxolatik, eta arreta handiz begiratzen du bere hezurrekin zer egiten duten. Hezurak zakurrei ematen bazaizkie, beste kastoreek horren berri izango dute eta ez dute utziko harrapa ditzaten. Hezurak sutara edo ibaira jaurtitzen badira, berriz, oso pozik geratzen dira; eta ondorio ona izaten du batez ere haiek harrapatu dituen sareak". Kastorea ehizatu aurretik, otoitz itzaltsua egiten zitzaion Kastore Handiari, eta tabakoa oparitzen zitzaion; eta ehiza amaitutakoan, hizlari batek hil-otoitza egiten zuen hildako kastoreengatik. Haien izpiritua eta zuhurtzia goستن zituen. "Ez duzue gehiago entzungo", esaten zuen, "zuen buruzagien ahotsa, zein aukeratu baitituzue kastore gerrari guztien artetik zuei legeak eman diezazkizueten. Zuen hizkuntza, osaginak guztiz ondo aditzen duena, ez da gehiago entzungo lakuaren hondarrean. Ez zarete gehiago borrokatuko igarabekin, zuen etsai krudelekin. Ez, kastoreok! Baina zuen larruak armak erosteko baliatuko zaizkigu; zuen urdaiazpiko keztatuak eramango dizkiegu gure haurrei; zakurrei ez diegu utziko zuen hezurak jaten, oso gogorak baitira".

Antilopea, oreina eta altzea begirune handi berberaz tratatzen zituzten amerindiarrek, eta arrazoi berberagatik. Hezurak ez zitzaizkien ematen zakurrei, ezta sutara botatzen ere, eta gantza ere ez zen sutan jartzen, sinesten baitzen hildako animalien arimek ikusi egiten zutela beren gorputzei egiten zitzaiena, eta beste piztiei, bizi nahiz hilei, kontatuko zietela. Horregatik, gorputzak gaizki erabiltzen baziren, espezie haietako animaliek ez zuten utziko harrapa zitzaten, ez mundu honetan, ez etortzeko den munduan. Paraguayko txikitoen artean, osaginak galdetuko dio gizon gaixoari ea ez duen oreinaren edo dortokaren okelarik bota, eta hark baietz erantzunez gero, osaginak esango dio: "Horretxek egiten dizu gaitz. Oreinaren edo dortokaren arima gorputzean sartu zaizu, egin diozun kalteagatik mendeku hartzeko". Kanadako indiarrek ez dute jango altzearen umekirik, ehiza-sasoia amaitzean ez bada; bestela altze amak susmati bihurtuko lirake, eta ez lukete utziko harrapa litzaten.

Indiar Artxipelagoko Timor-laut irletan, arrantzale batek harrapatutako dortoka guztien burezurak zintzilikatzen ditu bere etxearen azpian. Beste bat harrapatzera abiatu baino lehen, hil duen azken dortokaren burezurrari zuzentzen zaio eta, masailezurren artean betela jarrita, otoitz egiten dio hildako animalari, itsasoko senideak erakar ditzan, berak harrapatu ahal izateko. Celebes erdialdeko Poso eskualdean ehiztariek gorde egiten dituzte akabatutako orein eta basurdeen masailezurak, eta etxeetan esekitzen dituzte sutondoan. Gero esaten diete masailezurrei: "Oihuka iezaiezue zuen kideei, zuen aitonek, ilobek edo haurrek aldegin ez dezaten". Beren ustea da hildako orein eta urdeen arimak gelditu egiten direla masailezurren ondoan eta orein eta urde bizien arimak erakartzen dituztela, eta hartara ehiztariaren tranpetara eramaten dituztela. Beraz, basatiak hildako animaliak erabiltzen ditu abata gisa, animalia biziak beren galbidera eramateko.

Gran Chacoko lingua indiarrek ostruka ehizatzea maite dute, baina hegazti horietako bat hil eta gorpua herrira daramatenean, neurriak hartzen dituzte biktimaren izpiritu suminduari aurea hartzeko. Uste dute heriotzaren lehen kolpea iragandakoan, ostrukaren izpiritua bere onera etorri eta bere gorputzaz jabetzen saiatzen dela. Kalkulu zuhur horren arabera jardunez, indiarrek lumak erauzten dituzte hegaztiaren bularraldetik, eta bidean zehar barreiatzen dituzte tarteka. Luma-eskutada bakoitza aurkitzean, izpiritua gelditu egiten da pentsati: "Hau nire gorputz osoa da ala parte bat besterik ez?". Zalantzak geldiarazi egiten du, eta azkenean, eskutada guztien aurrean erabakia hartu duenez, eta denbora asko alferrik galdu duenez sigi-sagan korrika batetik

bestera, ehiztariak etxean izaten dira ordurako, eta izpiritu txuliatua alferrik geratuko da herri-inguruetan biraka, herabe baita sartzeko.

Bering itsasarteko eskimalek sinesten dute hildako itsas piztien arimek, hala nola foka, mortsa eta baleenek, beren maskuriei atxikita jarraitzen dutela, eta maskuriak itsasora itzuliz arimak gorputz berrietan sarraraz ditzaketela, eta hartara ugaltu egin dezaketela ehiztariak jazartzen eta hiltzen duten ehizakina. Sineste horren arabera jardunez, ehiztari guztiek hiltzen dituzten itsas animalia guztien maskuriak kendu eta gorde egiten dituzte; eta urtero neguan egiten den jai itzaltsu batean, maskuri horiek, urtean zehar hil dituzten itsas piztien arima guztiak dauzkatenak, dantza eta janari-eskaintzaz ohoratzen dituzte bileren areto publikoan, eta ondoren izotzetara eraman eta zuloetatik uretara botatzen dituzte; izan ere, eskimal xaloeak imajinatzen dute animalien arimak, umore onez hain ondo tratatu dituztelako, atzera ere foka, mortsa eta balea jaioko direla, eta itxura horretan ibiliko direla saldotan, ehiztariak arpoiz sastakatu edo beste nolabait hil ditzaten.

Antzeko arrazoiengatik, bere bizibidea, batez ere edo partez, arrantzatik ateratzen duen tribu batek kontu handia izango du arrainak ohore eta begirunezko marka guztiez tratatzeko. Peruko indiarrek "ugarien hartzen zuten arraina gurtzen zuten; ziotenez, goiko munduan (hala deitzen zioten zeruari) egindako lehen arrainetik sortuak omen ziren espezie hartako beste arrain guztiak, eta beren ume asko bidaltzen arduratzen omen ziren tribuari jaten emateko. Hori dela eta, eskualde batean sardinak gurtzen zituzten, halakoak beste edozein arrain baino gehiago hartzen zutelako; beste eskualde batean, arraia; beste batean, gelba; beste batean, urre-arraina bere edertasunagatik; beste batean, otarraina; beste batean, jainko handiagoen ezean, karramarroak, beste arrainik ez zegoelako, edo egonik ere nola harrapatu ez zekitelako. Laburki, gehien baliatzen zitzaizkien arrainak zituzten jainkotzat". Britainiar Columbiako kwakiutl indiarrek pentsatzen dute ezen, izokina hiltzen denean, hildakoaren arima izokinen herrialdera itzultzen dela. Horregatik, kontua izaten dute hezurak eta hondarrak itsasora botatzeko, arimak biziara ahal ditzan izokina berpizteko orduan. Hezurak erreko balituzte, aldiz, arima galdu egingo litzateke, eta ezinezkoa litzateke izokinarentzat hildakoen artetik jaikitzea. Era beretsuan, Kanadako otawa indiarrek, sinetsiz hildako arrainen arimak beste arrain batzuen gorputzetara pasatzen zirela, inoiz ez zituzten erretzen hezurak, arrainen arimak gogaitu eta gehiago sareetara gabe geratuko ote ziren beldurrez. Huroiek ere ez zituzten arrain-hezurak botatzen sutara, arrainen arimek abisu eman ez ziezaieten beste arrainei beren buruak harrapatzen ez uzteko, huroiek hezurak erretzen zituztela eta. Horrez gainera, arrainei predikatzen zieten gizonak zituzten, sareetara zitezen konbentzitzen zituztenak. Predikari on bat oso estimu handitan zeukaten, pentsatuz gizon argi baten hitzaldiak eragin handia zuela arrainak sareetaratzeko. Sagard misiolari frantsesa bizitzen jarritako arrantzale huroien herrian, arrainen predikaria harro zegoen berbalau elederra zelako. Arratsero, afalondoan, ikustean jende guztia bere etxeetan zegoela eta isiltasun osoa zela nagusi, arrainei predikatzen zien. Esaten zien huroiek ez dituztela erretzen arrain-hezurak. "Gai horren inguruan jaieraz luzatuz, arrainei eskatzen eta erregutzen zien, gonbidatzen eta konjuratzen zituen, arren etor zitezela berek harrapa zitzaten, eta ausartak izan zitezela, ez zezatela beldurrik izan, dena bere lagunaren mesedetan zela, berak ohoratzen eta beren hezurak erretzen ez zituzten lagunaren mesedetan". Duke of York irlakoek urtero apaintzen dute kanoa bat lorez eta garoz, maskorren txanpenez zamatzen dute, edo zamatzen dutela egiten dute, eta jitoan uzten dute, harrapatu eta jan dituzten arrainengatik, hala beste arrainei ordaintzen dietelakoan. Nahitaezkoa da harrapatutako lehen arrainak begirunez tratatzea, zertarako eta beste arrain guztiak eztitzeko, harrapatutako lehenei egindako harrerak haiengan eragina izango duelakoan. Horren arabera, maoriek beti botatzen dute

itsasora harrapatutako lehen arraina, "erregutuz arren saia dadila beste arrain batzuk erakartzen".

Are neurri estuagoak hartzen dira arrainak arrantza-sasoiko lehenak direnean. Izokin-ibaietan, arrainak udaberrian ibaietan gora hasten direnean, begiramen handiz hartzen dituzte arrainari esker bizi diren tribuek, hala nola Iparramerikako Ozeano Bareko kostaldean bizi diren indiarrek. Britainiar Columbian, indiarrek lehen arrainekin topo egitera irteten ziren haiek ibaian gora abiatzen zirenean: "Limurtu egiten zituzten, honela hitz eginez: "aizue, arrainok, aizue arrainok; denak zarete buruzagiak, denak; den-denak zarete buruzagiak". Alaskako tlingiten artean, sasoiko lehen halibuta kontu handiz tratatzen dute, buruzagi bati bezala hitz egiten diotelarik; eta jaia ospatzen da haren ohorez, eta ondoren hasten da arrantza. Udaberrian, haizeak hegoaldetik emeki jotzen duenean eta izokina Klamath ibaian gora hasten denean, Kaliforniako karokek dantza egiten diote izokinari, arrantza ona izateko. Indiarretako bat, kareya edo giza jainko deritzana, mendietara erretiratzen da eta barau egiten du hamar egunez. Itzultzen denean jendeak ihes egiten dio, eta bera ibaira joaten da, hartzen du lehen izokina sareetatik, jaten du hartatik, eta geratzen zaion hondarraz su sakratua pizten du izerdi-etxean. "Indiar bakar batek ere ez du hartzen izokinik dantza hori egin bitartean, ezta ondorengo hamar egunetan ere, nahiz eta familia goseak egon". Karokek sinesten dute arrantzale batek ez duela izokinik harrapatuko sastakatzeko postua egiteko erabilitako makilak izokina lehen aldiz ikusitako lekuan hartuak badira. Makilok mendirik garaienaren tontorretik hartu behar dira. Arrantzalea alferrik arituko da hurrengo urtean makila horiek erabiltzen baditu bere postu edo zehar-sareetan, "zeren eta izokin zaharrak horren berri emango baitie gazteei". Bada ainoen gogokoena den arrain bat, ibaietan maiatza eta ekaina aldera ageri ohi dena. Ainoak zeremoniazko garbitasun-arauak betez prestatzen dira arrantzarako, eta arrantzara abiatutakoan, emakumeek isil-isilik egon behar dute etxean; bestela arrainek entzun eta alde egingo lukete. Lehen arraina harrapatutakoan, etxera eramane eta etxolaren hondoko zirritu batetik sartzen dute, ez atetik; izan ere, atetik sartuz gero, "beste arrainek hura ikusi eta alde egingo lukete". Horrek esplikatuko luke, aldez, beste basati batzuek duten usadioa, alegia, ehiza atetik ez baina leihotik, tximiniatik edo etxolaren zoruko zirritu berezi batetik sartzekoa. Zenbait basatiren artean, ehizaren eta, oro har, jaten dituzten animalien hezurak errespetatzeko arrazoi bat sineste hauxe da, alegia, hezurak gordetzen badira, denboraren harian haragiz jantziko direla berriz, eta hartara animalia berpiztu egingo dela. Bistan denez, ehiztariaren interesa da hezurak ukitu gabe uztea, desegiteak aurrerago ehiza gutxitzea ekarriko bailuke. Minnetari indiar askok "sinesten dute hil eta haragiz biluztu dituzten bisonteen hezurak berriro jaikitzen direla haragi-berrituta eta bizirik, eta gizendu eta hurrengo ekainean ehizagai izateko prest izaten direla". Horregatik, Amerikako mendebaldeko belardietan, bufaloen burezurak ikus daitezke biribiletan eta pila simetrikoetan jarrita, piztueraren zain. Zakurra jan ondoren, dakotek kontu handiz biltzen dituzte hezurak, eta zuritu, garbitu eta ehortzi egiten dituzte, "aldez, esan ohi den bezala, zakurren espezieari adierazteko haietako bat jatea ez dela haientzako begirune-falta, eta aldez animalia hezurak jaiki eta beste bat sorraraziko dutela sinesten dutelako". Animalia bat sakrifikatzean, laponiarrek alde batera uzten dituzte hezurak, begiak, belarriak, bihotza, biriak, zakila-barrabilak (animalia arra bada) eta ezpain bakoitzaren haragi-pusketa bat. Gero, geratu den okela guztia jan ondoren, hezurak eta beste guztia hilkutxa batean jartzen dituzte ordena anatomikoan, eta ohiko erritoez ehortzen dituzte, sinetsiz animalia sakrifizioan eskaini zaion jainkoak berriro jantziko dituela hezurak haragiz eta animalia bizitzara ekarriko duela Jabme-Aimon, hildakoen lurrazpiko munduan. Batzuetan, hartza jan ondoren esate batera, aski izaten omen dute hezurak ehortztearekin. Adibidez, laponiarrek espero zuten hildako

animalia beste mundu batean piztuko zela, alde honetatik kamtxatkarren antza dutelarik: hauek sinesten zuten izaki oro, are eulirik txikiena ere, hildakoen artetik jaiki eta lurrazpian biziko zela. Iparramerikako indiarrek, berriz, uste zuten animaliak mundu honetan berpizten zirela. Bereziki Mongoliako herrien artean ikusitako usadio batek -sakrifikatutako animalia baten larrua bete edo eskeleto bati egokitzeak- bigarren mota horretako piztuera sinesten dutela iradokiko luke. Herri primitiboak jan edo sakrifikatu dituzten animalien hezurak haustearen kontra egotea, edo sineste batean oinarritua da, alegia, animaliak berpiztu egiten direla, edota beldur batean, espezie bereko beste izaki batzuk atzentzeko eta hildako animalien izpirituak iraintzeko beldurrean. Iparramerikako indiarrek eta eskimalek zakurrei animalien hezurak hozkatzen ez uztea, hezurak ez hausteko neurri bat dateke.

Baina esanak esan, hildako ehiza pizteak bere eragozpenak izan ditzake eta, ondorioz, zenbait ehiztarik neurriak hartzen dituzte horien kontra, nola eta animalari aztalak ebakiz, berari edo beraren izpirituari jaiki eta aldegitia galarazteko. Arrazoi horixe ematen dute Laosko koui ehiztariek beren ohitura azaltzeko; pentsatzen dute ehizan esaten dituzten araoek galdu egin dezaketela beren magia eta, hartara, hildako animaliak berpiztu eta ihes egin dezakeela. Hondamendi horri aurea hartzeko, piztiaren aztalak ebakitzen dituzte hura zehatzen hasi bezain laster. Alaskako eskimal batek azeria hiltzen duenean, kontu handiz ebakitzen dizkie tendoiak animalia hanka guztiei, zertarako eta izpirituek gorputza bizkortuta hanka egiten ez dezaten. Baina gorpua aztalak ebakitzea ez da basati zuhurak biktimaren izpiritua elbarritzeko hartzen duen neurri bakarra. Aspaldi batean, ainoek ehizara abiatu eta lehen azeria akabatzen zutenean, haren ahoa ondo lotzeaz arduratzen ziren, zertarako eta animalia izpirituari aldegin eta kideei ehiztaria bazetorrela abisatzea galarazteko. Amur ibaiko gilyakek begiak ateratzen dizkiete hil dituzten fokei, animalia izpirituek hiltzaileak ezagut ez ditzaten eta foken ehiza hondatuz mendeku har ez dezaten.

Gizon primitiboak beren indarra eta ozartasunagatik beldurra dien animaliez eta onurak espero dituelako errespetatzen dituen ez gainera, bada beste izaki-mota bat, batzuetan gurtze edo sakrifizioen bidez ematu behar izaten duena: soroak eta aziendak hondatzen dizkieten zomorroak. Etsai hondatzaile horietatik libratzeko hainbat bitarteko superstizioetara jotzen du; batzuk zomorroak desegiteko edo atzerarazteko badira ere, beste batzuek haiek ezitzea eta erabidez limurtzea dute helburu, lurreko igaliak eta aziendak errespetatu ditzaten. Hala, estoniar nekazariak, Oeselko irlan, sekulako izu-ikara diote zakur-arkakusoari, alearentzat guztiz kaltegarria den intsektu bati. Izen fin bat ematen diote, eta haur bat zakur-arkakuso bat akabatzea doala ikusten badute, esaten diote: "Ez ezazu hori egin; zenbat eta min gehiago egin guk berari, hainbat min gehiago egingo digu berak". Zakur-arkakuso bat aurkitzen badute, lurperatu egiten dute akabatu orde. Batzuek harri baten azpian jartzen dute soroan, eta alea eskaintzen diote. Pentsatzen dute hala lasaitu eta kalte gutxiago egiten duela. Trantsilvaniako saxoniarren artean, txolarreak laborera hurbil ez daitezen, ereileak atzealdera jaurti ohi du lehen eskutada bere buru gaintetik, esanez: "Hau zuentzat da, txolarreok". Laborea zomorroen erasoetatik babesteko, begiak ixten ditu eta hiru olo-eskutada botatzen ditu batera eta bestera. Zomorroi eskaintza hori egin ondoren, seguru izaten da haiek laborea errespetatuko dutela. Trantsilvanian, ereinak txori, piztia eta intsektuetatik babesteko modu bat, honako hau da: ereitea amaitutakoan, ereileak berriro zeharkatzen du soro osoa punta batetik bestera, ereiteko keinua eginez, baina eskua hutsik duela. Hori egin ahala, esaten du: "Hau animalientzat ereiten dut; hau hegan eta herrestan dabilen ororentzat, oinez dabilen eta geldi dagoen ororentzat, kantatu eta salto egiten duen ororentzat ereiten dut, Aitaren eta Semearen...". Segidakoa alemaniarrek lorategia beldarrez garbitzeko duten modu bat da. Eguzkia sartutakoan edo gauerdian,

etxeoandrea edo familiako beste emakumeren bat lorategian zehar ibiltzen da, erratza herrestan eramanez. Ez dauka atzera begiratzetik, eta hauxe esan behar du ahopeka: "Arratsalde on, ama beldar, senarrarekin batera joango zara elizara". Lorategiko atea zabalik uzten da hurrengo goizera arte.

Batzuetan, zomorroekin ari dela, baserritarrek erdibidea aurkitu nahi izaten du gehiegizko gogortasunaren eta barkamenaren artean; atsegin baina tinko, gogortasuna barkamenarekin orekatzen du. Nekazaritzako tratatu greko baten arabera, bere lurrak arratoiz garbitu nahi lukeen nekazariak honela jardun behar du: "Hartu paper-orri bat eta idatzi honako hau: "Nik konjuratzen zaituztet, hemen zareten arratoiok, kalterik egin ez diezadazuen, eta beste arratoiren bati niri halakorik egiten utz ez diezaiozuen. Soro hau ematen dizuet" (soroa zein den zehaztuko du); "baina inoiz hemen harrapatzen bazaituztet, Jainkoen Amagatik zazpi puskatan zatituko zaituztet". Hori idatzitakoan, eta papera eguzkia sartu aurretik soroko edozein harriren gainean jarritakoan, kontu izan idatzitakoa gora begira uzteko". Ardenetan diotenez, arratoietatik libratzeko, honako hitzok esan behar omen dira: "Erat verbum, apud Deum, Deum vestrum. Arratoi arrok eta emeok, nik konjuratzen zaituztet, Jainko handiaren izenean, nire etxetik irten zaitezten, nire jabetza guztietatik, eta halako eta halako lekutara joan zaitezten, eta han pasa ditzazuen zuen egun guztiak. Decretis, reversis et desembarassis virgo potens, clemens, justitiae". Gero idatzi hitz berberok paper-pusketan, tolestu eta jarri bat arratoien zuloan, eta beste bat hartuko duten bidean. Exorzismo hori eguna urratzean egin behar da. Orain urte batzuk amerikar nekazari batek gutun adeitsua idatzi omen zien arratoiei, esanez bere uzta oso urria zela, ez zeukala neguan haiek mantentzerik, oso ondo jokaturia zela berekin, eta beren mesedetan pentsatzen zuela hobe zutela handik aldegin eta auzokoren batenera joan, ale gehiago izango zutela eta. Agiri hura zutabe batean josi zuen aletagian, arratoiek irakur zezaten.

Batzuetan uste izaten da nahi den hori espezie gorrotatuko ale aukeratu bat edo bi sotilki tratatuz lortzen dela, nahiz beste guztiei errukigabe jarzari. Indiako ekialdeko Bali irlan, arroz-sailak hondatzen dituzten arratoiak pilaka harrapatzen dituzte, eta hildako pertsonak ehorzten diren bezala ehorzten. Baina harrapatutako bi sagu bizirik uzten dira, eta arropa zurizko paketetxoan ematen zaie. Gero jendea ahozpeztan jartzen zaie, jainkoak bailiran, eta joaten uzten die. Sarawakeko ibanen edo itsas daiaken etxaldeak txori eta intsektuen izurriteak jota daudenean, zomorro-klase bakoitzetik bat hartzen dute (txolarre bat, matxinsalto bat e.a.), arbola-azalezko ontzitzoan jartzen dituzte, jakiz ondo hornituta, eta itsasontzitzoan eta pasaiari gorrotatuak ibaian behera jaregiten dituzte. Horrek ez badu izurritea eramaten, daiak xede bera lortzeko modu eraginkorragotzat daukatenera jotzen dute. Buztinezko krokodilo bat egiten dute, benetakoa bezain handia, eta soroetan uzten dute; janaria, arroz-pattarra eta jantziak eskaintzen dizkiote, eta hegaztia eta zerria sakrifikatzen dituzte haren aurrean. Begirunezko erakutsiok biguindurik, animalia ozarrak laster irensten ditu uztak jaten ari diren izaki guztiak. Albanian, otiak edo kakalardoak soroak edo mahastiak hondatzen ari badira, emakume batzuk bilduko dira, ileak nahasita, intsektu horietako batzuk harrapatuko dituzte, eta haiekin joango dira prozesioan iturri edo erreka batera, eta bertan iratoko dituzte izakiok. Gero emakume batek honela kantatzen du: "Oi oti eta kakalardook, atsekabetuta utzi gaituzuenok", eta emakume guztiek ekiten diote hilkantari eta errepikatzen dute batera. Hala, oti eta kakalardo banaka batzuen hiletak ospatuz, beste guztiak hilko direla uste dute. Sirian, beldarrek mahasti edo soro bat hartzen zutenean, birjinak bildu, beldar bat hartu eta beren arteko bat haren ama egiten zuten. Gero, lantuz ehorzten zuten. Ondoren, beldarrak zeuden lekura eramaten zuten "ama", kontsolatuz, beste beldar guztiek baratzatik aldegin zezaten.

Animali sakramentuen motak

1. Egiptoarren eta ainoen sakramentu-motak

Orain uler dezakegu ainoek eta gilyakek hartzaren aurrean duten jokabide anbiguoak. Erakutsi dugunez, basatiek ez dituzte bereizten gizakiak eta animaliak guk bereizten ditugun bezala. Haientzat animalia asko beren parean edo are gorago daude, indarrean ezezik, baita adimenean ere; eta halabeharrak edo premiak haiei bizia kentzera eramaten baditu, behartuta sentitzen dira, berak salbu eta onik jartzeaz gainera, hori kalerik txikienaz egitera, ez bakarrik animalia biziarentzat, baizik eta haren izpirituarentzat eta espezie bereko animalia guztientzat; izan ere, animalioek beren arteko bati egindako iraintzat hartuko lukete, basatien tribu batek beren arteko bati egin irain edo kaltea mendekatuko lukeen bezalaxe. Ikusi dugunez, basatiak animalia biktimei egin kaltea pekatzeko erabiltzen dituen bitarteko ugarien artean, bat espezie horretako banako gutxi batzuei begiramen nabarmena erakustea da, jokabide horrek eskua ematen diolakoan espezieko beste kide guztiak akabatzeko, harrapatzen baditu. Printzipio horrek argituko luke ainoek hartzaren aurrean duten jarrera, lehen begiratuan harrigarri eta kontraesankorra dirudiena. Hartzaren haragiak eta larruak jana eta jantzia ematen dizkiete; baina hartza animalia inteligente eta ahaltsua denez, beharrezkoa da hartzaren espeziari atsegin ematea edo pekamena eskaintzea, bere kide asko hiltzeak dakarkion galeragatik. Atsegin emate edo pekamen eskaintze hori hartz gazteak harrapatuz, begirunez haziz eta tristezia eta jaiera-adierazpen izugarri hilez egiten dute. Hartara, beste hartzak ematu egiten dira, eta ez diote erantzuten beretako baten hilketari hiltzaileei eraso eginez edo lurralde hartatik aldeginenez, horrek beren bizibideetako batez gabetuko bailituzke ainoak.

Beraz, animalien gurtza primitiboa bi eratakoa da, eta bi era horiek elkarri kontrajarriak dira hainbat aldetatik. Batetik, animaliak gurtu egiten dituzte eta, beraz, inoiz ez dituzte hiltzen eta jaten. Bestetik, animaliak hiltzen eta jaten dituztelako gurtzen dituzte. Bi gurtza-motetan basatiak animalia gandik jasotzea espero duen onura batengatik jauresten du hura, onura positiboa edo negatiboagatik. Lehen gurtzan onura modu positiboan ageri da: animaliak gizonari ematen dion babes, aholku edo laguntza gisa; edota modu negatiboan: animaliak egin ahal ditzakeen kalteetatik libratzeko. Bigarren gurtzan onura materiala da: animalia okela eta larrua. Bi gurtza-motak antitetikoak dira neurri batez: batean, animalia gurtzen dutelako ez dute jaten; bestean, jaten dutelako gurtzen dute. Baina herri batek biak praktika ditzake, Iparramerikako indiarren kasuan ikusi dugun bezala. Haiek, beren animalia totemak jauretsi eta gurtu egiten badituzte ere, bizibidea ematen dieten animalia eta arrainak ere jauresten dituzte. Australiako aborigenek ezaguna zaigun formarik primitiboenean dute totemismoa; baina ez da froga argiegirik haiek ere, Iparramerikako indiarrek bezala, hiltzen eta jaten dituzten animaliak ezitzen saiatzen direnik. Australiarrek ehiza ugaria segurtatzeko erabiltzen dituzten bitartekoak, nonbait, ez daude oinarrituta ezitzean, sinpatiazko magian baizik, hots, Iparramerikako indiarrek ere xede berberaz erabiltzen duten printzipioan. Horregatik, australiarrak, ezbairik gabe, Amerikako indiarrek baino giza aurrerapenaren etapa goiztiarrago eta traukilagoan daudenez, irudi luke ehiztariek, ehiza ugari izateko bide gisa, ehiza gurtzea pentsatu aurretik, helburu bera sinpatiazko magiaren bidez lortzen saiatzen direla. Horrek erakutsiko luke -arrazoi onak daude hala dela sinesteko-sinpatiazko magia bitarteko goiztiarrenetako bat izan zela gizonak naturaren obrak bere premietara egokitzen saiatzeko.

Animali gurtzaren bi mota desberdinen parez pare, jainko animalia hiltzeko usadioaren bi mota desberdin ditugu. Batetik, animalia jauretsia errespetatu ohi denean, hala ere, abagune bakan eta itzaltsu batzuetan hil egiten dute -baita jan ere batzuetan-. Usadio horren adibideak eman ditugu lehenago, baita berorien azalpen bat ere. Bestetik,

animalia jauretsia hil ohi dutenean, espezieko edozein kideren hilketak jainkoa hiltzea du berekin, eta hantxe bertan eskatzen diote barkamena eta eskaintzen sakrifizioa, batez ere animalia ahaltsua eta arriskutsua denean; eta ohiko eta eguneroko pekamen horrez gainera, urtean behin egiten den pekamen berezi batean, espezie horretako kide bat hiltzen dute begirune eta jaierazko erakutsi izugarritz. Bistan denez, hilketa sakramentalaren bi motak -egiptoarren eta ainoen motak, horrela deituko diegu bereizteko- konfunditu egin ditzake behatzaile batek; eta adibide jakin bat zein motatakoa den esan aurretik, beharrezkoa da argitzea ea sakramentuz hildako animalia errespetatu ohi den espezie batekoa den, ala tribuak hil ohi duen batekoa. Lehen kasuan, adibidea egiptoar motako sakramentuarena da, eta bigarrenean ainoen motakoarena.

Artzain-tribuen usadioek bi sakramentu-motetako adibideak emango lituzkete. "Artzain-tribuak" dio Adolf Bastianek, "batzuetan behartuta izaten direnez beren aziendak arrotzei saltzera, eta arrotz horiek aziendan hezurak begirunerik gabe erabil litzaketenez, halako sakrilegio batek leharkeen arriskua saihesten saiatzen dira; nola, eta azienda bat gurtzagai gisa sagaratuz, sakramentuz jabez familian, ateak itxita, eta gero hezurak zeremoniazko begirune osoaz tratatuz. Zehazki hitz eginda, ganadu-buru bakoitzari zor zaio hori, baina animalia ordezkari bati egiten zaio bakarrik, eta denei egiten zaiela jotzen da. Halako famili oturuntzak hainbat herritan aurkitu dira, bereziki Kaukasokoetan. Abkhaziar artzainek, adibidez, denen arteko bazkaria egiten dute udaberrian gerrialdea estu-estu lotuta eta artzain-makila eskuan dutela; hau bai sakramentutzat eta bai elkar laguntzeko zinegitezat har daiteke. Izan ere, zinegite zorrotzena gai sakraturen bat jabez egindakoa da: zin-hausleak ezin egingo dio ihes gorputzean hartu eta bereganatu duen jainkoaren mendekuari". Sakramentu-mota hori ainoen sakramentuaren motakoa da -pekamenezkoa, alegia-, espeziea pekatzen duelako, kideak gaizki erabil litezkeela eta. Kalmukek ere pekamena eskaintzen diete ardiei, printzipioz antzekoa baina xehetasunetan desberdina, ardikia oinarritzko jaki baitute. Kalmuk aberatsek ahari zuria sagaratu ohi dute "zeruko aharia" edo "izpirituaren aharia" izenez. Animalia horri inoiz ez diote ilerik mozten, ez dute inoiz saltzen; baina zahartzen denean eta jabeak beste bat sagaratu nahi duenean, ahari zaharra hil eta oturuntza batean jan beharra dago, auzokoak ere gonbidatzen direlarik. Halako egun zorioneko batean -gehienetan udazkenean, ardiak gizen egoten baitira orduan-, sorgin batek hil egiten du aharia, esnez zipriztindu ondoren. Okela jan egiten da; eskeletoa, gantzaren parte batekin batera, erre egiten da belarrezko aldare batean; eta larrua eseki egiten dute, burua eta oinekin batera.

Egiptoko sakramentu-motaren adibide bat todek ematen digute. Indiako hegoaldeko artzain-herria da hau, hein handi batean bufalo-esneaz elikatzen dena. Haien artean "bufaloa neurri batez sakratua da" eta "xera handiz tratatzen dute, gurtu ere bai ia". Inoiz ez dute jaten bufalo emearen okelarik, eta arraren okela ere gutxitan. Bigarren kasu horretan salbuespen bakar bat dute. Urtean behin, herriko gizonezko heldu guztiak biltzen dira zeremonia batean txekor gazte-gaztea -hilabetekoa edo, nonbait- hil eta jateko. Herriko baso barrenera eramaten dute animalia, eta han toden zuhaitz sakratutik (Millingtonia du izena) hartutako makila batez hiltzen dute. Ziriak igurtziz su sakratua piztu ondoren, zuhaitz jakin batzuen errautsetan erretzen dute txekorraren okela, eta gizonek bakarrik jaten dute, emakumeak bileratik kanpo geratzen baitira. Hori da todek bufalo-okela jan ohi duten abagune bakarra. Afrikako erdialdeko Madi edo Moru tribukoek -aberastasun nagusia ganadua baitute, nekazaritza ere lantzen duten arren- arkumea hiltzen dute sakramentuz halako abagune itzaltsu batzuetan. Ohitura hori honela deskribatzen digu Felkin doktoreak: "Usadio aipagarri bat dute sasoi jakin batzuetan (urtean behin, nik uste). Ezin izan dut atera zer esanahi duen zehazki. Nolanahi ere, badirudi jendearen gogoak bizkortzen duela, aurrez tristura handia

erakusten baitute, eta oso pozik agertzen dira zeremonia erabat burututakoan. Hauxe izaten da: adin guztietako jende-multzo handia bildu eta harrespil baten inguruan esertzen dira; harrespila bide-bazter batean egoten da (bidezidor estu batean, egia esan). Arkume aukeratu bat ekartzen du mutil batek, eta lau bira emanarazten dizkio bildutako jendearen inguruan. Pasatzean, jendeak ile-xerloak erauzten dizkio tiraka, eta nork bere ile artean edo gorputzeko beste edozein aldetan jartzen ditu. Arkumea harri gainean jarri eta apaiz-leinuko gizon batek hiltzen du; odol pixka bat hartu eta lau bider ziprztintzen du jendea. Gero, banan-banan ezartzen die odola. Haurrei odolezko biribiltxoak egiten die bularrezurraren beheko muturrean; andre eta neskei, titien gainean egiten die seinalea, eta gizonak bi sorbaldetan ukitzen ditu. Gero zeremoniaren azalpena emateari ekiten dio, jendeari xeratasuna erakusteko eskatuz... Hitzaldia amaitutakoan -batzuetan oso luzea izaten da-, jendea jaiki egiten da, bakoitzak hosto bat ipintzen du harrien biribilean, eta gero alde egiten du alaitasun handia erakutsiz. Arkumearen burezorra harrien ondoko zuhaitz batetik zintzilik uzten dute, eta okela pobreek jaten dute. Beste abagune batzuetan ere burutzen dute zeremonia hori, maila apalagoan. Familia batek arazo handiak baditu, hala nola gaixotasuna edo galera handiren bat, lagun eta auzokoek bildu eta arkumea hiltzen dute; horrek kalte handiagoak urruntzen omen ditu. Usadio berbera burutzen da zendutako lagunaren hilobian ere, eta abagune alaietan, hala nola seme bat aldi luze batez kanpoan ibili ondoren etxeratzean". Jendeak arkumea urtero hiltzean erakusten duen tristurak azalduko luke arkume hila animalia sakratu edo jainkozkoa dela, eta beraren heriotzagatik dolu egiten dutela gurtzaileek, kaliforniarrek putre sakratuaren heriotzagatik dolu egiten zuten bezala, eta egiptoarrek Tebasko ahari sakratuagatik. Gurtzaile bakoitza arkumearen odolaz igurtzitzea jainkoarekiko komunio-modu bat da; jainkozko biziaren bidea -odola- kanpotik ematen da, barruratu gabe (odola edan edo okela jan gabe, alegia).

2. Prozesioak animalia sakratuekin

Animalia etxez etxe eramanez burutzen den komunio-moduaz, denek izan dezaten haren jainkozko eragina, gilyaken usadio batek ematen digu adibide bat: hartza herrian zehar eramatea hil aurrean. Punjabeko tribu batek antzeko komunio-modua du suge sakratuarekin. Urtean behin, irailean, bederatzi egunez bakarrik, sugea gurtzen dute kasta eta erlijio guztiek. Abuztuaren azkenean mirasanek, bereziki Suge tribukoek, orezko sugea egiten dute; beltzez eta gorriz margotu, eta alea haizatzeko saski batean jartzen dute. Saski hori eramaten dute herrian zehar, eta etxeren batean sartzean hauxe esaten dute: "Jainkoa bedi zuekin! Kalte oro urrun bedi! Gizen bedi gure patroiarren (Guggaren) hitza!". Gero saskia eta sugea aurkezten dituzte, esanez: "Irinezko opiltxo bat; gurin pittin bat; sugeari obeditzen badiozue, zuek eta zuek dituzuenak gizendu egingo zarete!". Zehazki hitz eginez, opila eta gurina eman behar lirateke, baina gutxitan egiten da halakorik. Hala ere, denek ematen dute zerbait, gehienetan ore-eskutada bat edo ale pixka bat. Andregai berria den etxeetan, edo andregai batek ezkontzean utzitako etxeetan, edo haur bat jaio denetan, rupia eta laurden ematea da ohitura, edo arroparen bat. Batzuetan suge-eramaleek kantatu egiten dute:

"Eman sugeari arropa, eta berak andregai bizkorra bidaliko dizue!"

Etxe guztiak bisitatu ondoren, orezko sugea ehorzten dute, eta hilobi txiki bat eraikitzen dute gainean. Iraileko bederatzi egunetan zehar emakumeak gurtzera joaten zaizkio. Katilukada bat gaztanbera eramaten dute, eta horren parte txiki bat eskaintzen dute sugearen hilobian, lurrean belaunikatuz eta lurra bekokiaz ukituz. Gero etxera joaten dira, eta geratu den gaztanbera haurren artean banatzen dute. Kasu honetan orezko sugea benetako suge baten ordezt dago, bistan da. Hain zuzen, sugeak ugariak diren eskualdeetan gurtza ez da egiten orezko sugearen hilobian, baizik eta sugeak dabilztan basoetan. Jende guztiak egiten duen urteroko gurtza horrez gainera, Suge tribukoek

ilberriaren ondoren goizero gurtzen dute. Sugearen tribua ez da arraroa Punjaben. Tribu horretako kideek ez dute hilko sugerik, eta diotenez, sugeen hozkak ez omen die minik egiten. Sugea hilda aurkitzen dutenean, zapiak jartzen dizkiote gainean, eta hileta egiten diote.

Indiako sugearen gurtza horren oso antzeko zeremoniek iraun dute Europan ia oraintsu arte, eta oso antzinako paganotasunetik datoz ezbairik gabe. Adibiderik ezagunena "txepetxaren ehiza" da. Europako herri askok -antzinako greko eta erromatarrek, eta geroagoko italiar, espainiar, frantziar, alemaniar, holandar, daniar, suediar, ingeles eta galestarrek- errege izendatu dute txepetxa, erregetxo, txorien errege, hesietako errege eta abar, eta akabatuz gero oso zori txarra ekarri ohi duten txori horien arteko jotzen dute. Ingalaterran uste dutenez, norbaitek txepetxen bat hil edo habia hondatzen badio, hezurren bat hautsiko omen du derrigor, edo zorigaitz beldurgarriren bat izango omen du urtearen barruan; batzuetan pentsatzen da behiek esne odoldua emango dutela. Eskozian txepetxari "Zeruetako Anderearen hegaztia" deitzen diote, eta mutikoek esaten dute:

"Madarikatua, madarikatua hamar bider baino gehiago,
Zeruetako Anderearen hegaztiari kalte egiten diona!"

Bretainiako Saint Donanen jendeak sinesten du ezen, hurrek txepetx gazteak habian ukitzen badituzte, San Lorentzoren suak joko dituela, alegia, zuldarrak aterako zaizkiela aurpegian, hanketan eta abarretan. Frantziako beste alde batzuetan pentsatzen da norbaitek txepetxa hiltzen badu edo habia hondatzen badio, tximistak joko diola etxea, edo okerra egiteko erabilitako hatzak ihartu edo gutxienez bihurritu egingo zaizkiola, edo ganaduak mina izango duela hanketan.

Halako sinesteak eta guzti, urtero txepetxa hiltzeko usadioak zabal iraun du bai herrialde horretan eta bai Frantzian. Man irlan, hemezortzigarren mendera arte, usadioa Gabon egunean edo Eguberri goizean betetzen zen. Abenduaren hogeita lauan, arratsaldean, zerbitzari guztiek egiten zuten opor; gau osoan ez ziren oheratzen; parrandan ibiltzen ziren eliza guztietako kanpaiek gauerdian jo arte. Otoitzak amaitutuakoa, txepetxa ehizatza joaten ziren, eta txori horietako bat aurkitutakoa, akabatu eta haga luze baten puntatik esekitzen zuten, hegoak zabalik. Hala garraiatzen zuten etxez etxe prozesioan, honako kopla hauek abestuz:

"Txepetxa harrapatu dugu Robin the Bobbinentzat,
Txepetxa harrapatu dugu Jack of the Canentzat,
Txepetxa harrapatu dugu Robin the Bobbinentzat,
Txepetxa harrapatu dugu denentzat".

Ettxerik etxe ibili eta ahal izan zuten diru guztia bildu ondoren, anda batzuetan etzaten zuten txepetxa, eta prozesioan eramaten zuten elizako kanposantura, eta han hilobia egin eta ehortzi egiten zuten "handikero, Man uharteko hizkuntzan eresiak kantatuz, haiek beren hil-kanta deitzen dituztenak; horren ondoren, Eguberria hasten da". Ehorzketa amaitutakoa, kanposantutik irten eta jendeak biribilean jarri eta musikarekin dantza egiten zuen.

Hemezortzigarren mendeko idazle batek dioenez, Irlandan txepetxa "ehizatu eta hil egiten dute oraindik ere nekazariak Eguberri egunean, eta biharamunean (San Esteban egunean) batera eta bestera erabiltzen dute, hanka batetik zintzilik, elkarrekin katigatutako bi uztairen erdian, eta prozesioa egiten da herri guztietan, gizon, emakume eta hurrek, denek ere irlandar aire bat abesten dutelarik, hura txori guztien errege dela dioena". Gaur egun ere "txepetxaren ehiza" izaten da Leinster eta Connaughteko alde batzuetan. Eguberri egunean edo San Esteban egunean mutilek txepetx bat harrapatu eta hil egiten dute; lotu gorosti eta huntz-pila batean, erratz-makila baten puntan, eta San Esteban egunean ettxerik etxe ibiltzen dira, kantatuz:

"Txepetxa, txepetxa, txori guztien erregea,
San Esteban egunez ote artean harrapatua;
Txikia den arren, familia handikoa,
Arren eskatzen dizut, etxekoandre on hori, emaiguzu saria".
Dirua edo janaria (ogia, gurina, arrautzak, e.a.) ematen zitzaizkien, eta huraxe afaltzen zuten arratsean.

Hemeretzigarren mendearen lehen erdian antzeko ohiturak gordetzen ziren artean Frantziako hegoaldeko zenbait aldetan. Hala, Carcassonen, urtero, abenduaren lehen igandean, San Joan kaleko gazte-jendea hiritik irten ohi zen makilaz armatuta, eta haiekin zuhaixka eta sasiak jotzen zituzten, txepetx bila. Txori horietako bat lurreratzen zuen lehena errege izendatzen zuten. Gero hirira itzultzen ziren prozesioan, erregea buru zutela; honek haga batean ekartzen zuen txepetxa. Urteko azken egunaren arratsaldean, erregea eta txepetxa harrapatutako guztiak hiriko kaleetan zehar ibiltzen ziren zuzien argitan, aurrean danbor eta xirula-joleak zituztela. Etxe guztien atean gelditzen ziren, eta haietako batek igeltsuz idazten zuen atean vive le roi!, hasteko zegoen urtearen zenbakiarekin batera. Hamabigarren egunaren goizean erregea prozesioan joaten zen dotore, koroa eta longain urdina jantzita, eta aginte-makila zeramala. Haren aurrean txepetxa eramaten zuten, haga baten puntan loturik, oliba edo haritz-sorta heze batez apainduta, eta batzuetan haritzean hazitako mihuraz. San Bizenteko parrokiaren meza nagusia entzun ondoren, ofizial eta goardiez inguratuta, erregeak apezpikua, alkatea, magistratuak eta herritar puntakoenak bisitatzen zituen, eta dirua biltzen zuen erret oturuntzaren gastuak ordaintzeko. Oturuntza hori arratsean izaten zen, eta dantzaldi batez amaitzen zen.

"Txepetxa ehizatze" usadio horren eta lehenago ikusi ditugun batzuen arteko paralelismoak -batez ere, gilyakek hartzarekin egiten zuten prozesioa eta Indiako sugearrena-, handiegia dirudi denak ideia beretsuen bueltan dabilatzala zalantzan jartzeko. Animalia gurgarria ospe bereziz hiltzen dute urtean behin; eta hil aurrean edo ondoren aterik ate eramaten dute, gurtzaile bakoitzak jainko hilari omen darion jainkozko bertutearen parte bat jaso ahal dezan. Horrelako prozesio erlijiosoen leku handia izango zuten Europako herrien erritualean historiaurreko garaietan, herri-ohituretan iraun duten hain arrasto ugarietatik atera dezakegunez. Adibidez, urteko azken egunean -Hogmanay deitzen zioten-, ohikoa zen Eskoziako Highlandsen gizon bat behi-larruz jantzea, eta gisa hartan etxez etxe joatea, kide gazteekin batera, haietako bakoitzak estrabe bat zuela larru-pusketa batekin. Etxe guztien inguruan hiru bira ematen zituen larruz jantzitako gizonak, deiseal, alegia, eguzkiaren nondik-norakoaren arabera, etxea eskuinaldean zuelarik; bitartean, besteek jazarri egiten zuten, larrua estrabeez joz eta hartara zarata handia ateraz, danborra jotzean bezala. Prozesio iskanbilatsu hartan etxearen hormak ere jotzen zituzten. Sarbidea ematen zitzaizkion, taldeko batek, atalaurrean jarrita, hitz hauekin bedeinkatzen zuen familia: "Jainkoak bedeinka beza etxe hau eta bertako guztiak, ganadua, harriak eta zurak! Haragi, ohe eta arropa ugari izan bitzate, eta bertakoen osasuna ere ona izan bedi!". Gero, taldekide bakoitzak estrabeari lotutako larru-pusketa erretzen zuen sutan; eta hori egin ondoren, larru errearen pertsona eta animalia guztien sudurrean jartzen zuen. Horrek gaixotasunetik eta beste zorigaitzetatik babesten omen zituen, bereziki sorginkeriatik, hurrengo urte osoan. Zeremonia osoari calluin deitzen zioten, larrua kolpatzean ateratako zarata handiagatik. Hebridetan, Santa Kilda barne, hemezortzigarren mendearen bigarren erdira arte gutxienez egiten zen hau, eta badirudi hemeretzigarren mendean ere bizirik zegoela.

lv

Gaitzaren transferentzia

1. Bizigabeetarako transferentzia

Orain arte jainko bat hiltzeko duten ohitura deskribatu dut, ehiztari, artzain eta nekazarien gizarteetan; eta saiatu naiz azaltzen gizakiek usadio bitxi hori izateko arrazoiak. Usadio horren alderdi bat ezagutzeke dugu oraindik. Jende guztiaren zorigaitz eta bekatu metatuak hiltzen den jainkoaren gainera pasatzen dira batzuetan, eta hark betiko hartzen bide ditu bere gain, herritarrek errugabe eta zoriontsu utziz. Ideia hau, alegia, gure errua eta sufrikarioak beste norbaiti alda diezazkiokegula eta hark bere gain hartuko dituela gure ordeztu, ezaguna zaio basatiaren gogoari. Bistan den nahastetik sortua da, gauza fisikoak eta mentalak, materialak eta ez-materialak nahastetik. Egur, harri edo beste edozeren karga geure bizkarretik inoren bizkar gainera alda daitekeenez, basatiak imajinatzen du halaberean alda daitekeela norberaren neke eta penen karga inorengana, eta hark norberaren ordeztu jasango duela. Ideia horren arabera jarduten du, eta hortik kontu ezin ahala modu gaizto sortzen ditu, zertarako eta gizakiak beregandik aldendu nahi duen kalte guztia inori bizkarreratzeko. Labur esanda, inoren bizkar hartutako sufrimenduen printzipioa ulertzen eta praktikatzeko dute kultura sozial eta intelektualaren maila apalean dauden arrazek. Ondorengo orrialdeetan teoria eta praktika agertuko ditut, basatien artean beren sinpletasun hutsean ageri diren bezala, metafisikaren fineziek eta teologiaren sotiltasunek mozorrotu gabe.

Basati maltzur eta berekoia bere burua auzokoaren bizkar lasaitzeko baliatzen dituen bitartekoak, askotarikoak dira; asko eta askoren artean hartutako adibide batzuk besterik ez ditugu aipatuko. Hasteko, esan beharra dago gizon batek beragandik urrundu nahi duen gaitza ez dagoela nahitaez pertsona bati pasatu beharrik; animalia edo gauza bati ere berdina pasa dakioke. Hala ere, gauza bati pasatzen zaionean, gauza hori bide bat izan ohi da askotan, ukituko duen lehen pertsonari pasatuko zaio kaltea. Indiako ekialdeko irla batzuetan, epilepsia sendatzeko, gaixoari zuhaitz jakin batzuen hostoez igurtzitzen diote aurpegia, eta gero hostoak bota egiten dituzte. Gaixotasuna hostoetara pasatzen omen da, eta haiekin batera aldegiten omen du. Haginetako mina sendatzeko, australiar beltz batzuek lantza-jaurtigailua berotu eta masailan ezartzen dute. Lantza-jaurtigailua bota egiten da gero, baita haginetako mina ere berarekin batera, karriitch izeneko harri beltz baten itxuran. Era horretako harriak muino zaharretan eta dunetan aurkitzen dituzte. Kontu handiz bildu eta etsaien aldera jaurtitzen dituzte, haginetako mina haiei bidaltzeko. Bahimek -Ugandako artzain-herri batek- askotan izaten dituzte oso zorne-zorro sakonak; "horren sendabidea gaixotasuna beste norbaiti pasatzea izaten da, osaginarengandik belarrak eskuratuz, handitua duten lekua haiekin igurtziz eta gero belarrak jende asko pasatu ohi den bide batean ehortziz; ehortzitako belar horien gaina zapaltzen duen lehen pertsonak hartuko du gaixotasuna, eta ordura arte gaixorik zegoena sendatu egingo da".

Batzuetan gaixotasuna irudi bati transferitzen zaio gizaki bati pasatu aurretik. Hala, baganden artean, osaginak batzuetan gaixoaren erdua egiten zuen buztinez; gero senide batek gorputzaren kontra igurtzitzen zion irudia gaixoari, eta bidean ehortzen, edo bide-bazterreko belar artean ezkututzen zuen. Irudiaren gainetik edo ondotik pasatzen zen lehen pertsonak harrapatuko zuen gaixotasuna. Batzuetan irudia platano-lore batez egiten zen, pertsona baten antza emanez lotzen zelarik; buztinezko irudia bezala erabiltzen zen. Baina irudiak xede gaizto horretarako erabiltzea krimen larria zen; inor haietako bat bide publikoan ehortzen harrapatuz gero, heriotza-zigorra emango zioten. Timor irlako mendebaldeko eskualdean, gizon edo emakumeek ibili luzeak egiten dituztenean, abar hostotsuz haizeztatzen dira, eta gero leku jakin batzuetara botatzen dituzte, arbasoek ere botatzen zituztenetara. Nekea hostoetara pasatu dela jotzen dute, eta han uzten dutela. Beste batzuek harriak erabiltzen dituzte hostoen ordeztu. Era berean, Babar artxipelagoan jende nekatuak harriez kolpatzen du bere burua, sinetsiz hartara harrietara pasarazten duela gorputzean sentitzen duen ahulezia. Gero hartarakoxe

bakarrik diren lekuetara botatzen dituzte harriok. Antzeko sinesteak eta ohiturak cairn izeneko makila eta hostoen pila horiek sorrarazi dituzte munduko hainbat eta hainbat lekutan, bidaiariek bide-bazterrean maiz ikusi ohi dituztenak. Pasatzen diren natibo guztiek osatzen dituzte harria, makila edo hostoak botaz. Solomon eta Banks irletakoek, adibidez, makilak, harriak edo hostoak bota ohi dituzte pila batera aldapa den lekuren batean, edo bide zaila hasten den lekuan, esanez: "Hor doa nire nekea". Ekintza hori ez da errito erlijiosoa, pilara botatako gauza ez delako botere izpiritualei egindako eskaintza, eta ekintzarekin batera doazen hitzak ez dira otoitza. Magiazko zeremonia bat besterik ez da hori, nekeaz libratzeko, basati xaloak imajinatzen baitu nekea makila, hosto edo harri batean sartu eta beregandik jaurti dezakeela.

2. Animalienganako transferentzia

Sarritan animaliak erabiltzen dira gaitza urruntzeko edo pasarazteko bide gisa. Mairu batek buruko mina duenean, batzuetan bildotsa edo ahuntza hartu eta kolpeka hasiko zaio lurrera erortzen den arte, hartara buruko mina animalia gana pasatuko delakoan. Marokon, mairu aberatsenak basurdea edukitzen dute ukuiluetan, zertarako eta jinn edo izpiritu gaiztoak zaldiak bakean utzi eta basurdeagan sar daitezen. Afrikako hegoaldeko kafreen artean, beste erremedio batzuek huts egin dutenean, "bertakoek batzuetan ahuntza hartu eta gaixorik dadgoenaren aurrera eramateko ohitura dute, eta etxeko bekatuak animalia ganean aitortzeko. Batzuetan gaixoak odol-tanta batzuk isurtzen ditu ahuntzaren buru gainera, eta gero hau paraje morturen batera eramaten dute. Gaixotasuna animalia gana pasatu dela jotzen da, eta basamortuan galdu dela". Arabian, izurriteak jotzen duenean, jendeak batzuetan gamelua eramaten du hiriko auzune guztietan zehar, animalia kutsa dadin. Gero irato egiten dute leku sakratu batean, eta imajinatzen dute gameluaz eta izurriaz, biez batera libratu direla. Baztangak jotzen duenean, Formosako basatiek zerreme batengana bideratzen omen dute gaixotasunaren deabrua, eta gero abereari belarriak moztu eta berauek edota animalia osorik erretzen dituzte, sinetsiz hartara izurritik libratzen direla.

Malgatxeen artean, gaitzak kanporatzeko bideari faditra deitzen zaio. "Faditra sikidyak (aztien biltzarrak) hautatutako edozer da, zertarako eta norbaiten zorionerako, bakerako edo ongizaterako kaltegarri gerta daitezkeen gaitz edo gaixotasun guztiak urrunarazteko. Faditra errautsak izan daitezke, edota txanpon ebakiak, ardi bat, kalabaza bat, edo sikidyak aholkatutako beste edozer. Gauza jakin hori seinalatutakoan, apaizak haren gainera botatzen ditu pertsonarentzat kaltegarri gerta daitezkeen gaitz guztiak, eta betiko eraman ditzala esaten dio faditrari. Faditra errautsak izanez gero, haizatu egiten dira, haizeak eraman ditzan. Txanpon ebakiak izanez gero, ur sakonetara botatzen dira, edo inolaz ere hartu ezin diren toki batera. Ardia bada, gizon batek urrun eramaten du sorbalden gainean, gau osoan, joan ahala hitzak murdukatzen dituelarik, daramatzan gaitzengatik faditraren kontra haserre bizian bailegoen. Kalabaza balitz, sorbaldetan eramaten da distantzia txiki batera, eta lurrera botatzen da haserre eta sumina erakutsiz". Azti batek gaztigatu zion malgatxe bati heriotza odoltsua izango zuela, baina bazeukala patu hari ihes egitea errito jakin bat burutuz gero. Idi baten bizkar gainera igo behar zen ontzitzo bat odolez beteta buru gainean ekarriz; hala eserita, odola idiaren buru gainera isuri behar zuen, eta gero animalia basamortura bidali, handik inoiz itzul ez zedin.

Sumatrako batakek "madarikazioa hegaldaraztea" deitzen diote zeremonia bati. Emakume bat haurgabea denean, sakrifizioa eskaintzen zaie hiru matxinsaltoren jainkoei; abelgorri bat, bufalo bat eta zaldi bat ordezkatzeko dituzte. Gero enara bat jaregiten dute, otoitz eginez madarikazioak txoria harrapa dezan eta berarekin batera hegaldada dadin. "Gizakien egoitzetan izaten ez den animalia ganean bat etxean sartzea zorigaitz-erakarle jotzen dute malakarrekin. Basoko txori bat etxean sartzen bada hegan,

kontu handiz harrapatu eta olioiz igurtzi behar da, eta gero jaregin, formula bat esanez etxekoen zoritxar eta ezbehar guztiekin batera hegaldia dadin". Antzinatean emakume grekoek gauza bera egiten omen zuten etxean harrapatzen zituzten enarekin; olioia isurtzen zieten gainera, eta gero askatu egiten zituzten, zorigaitza etxetik aienarazteko xedez, nonbait. Karpatoetako huzulek imajinatzen dute udaberrian ikusten duten lehen enarari pasa diezazkioketela beren orinak, baldin eta aurpegiak korronte batean garbitu bitartean honako hau esaten badute: "Enara, enara, hartu nire orinak eta emaizkidazu masaila gorriak".

Indiako hegoaldeko Neilgherry mendietako badagen artean, norbait hil denean, hildakoaren bekatuak bufalo gazte bati pasarazten zaizkio. Horretarako, jendea gorpuaren inguruan bildu eta herritik kanpora eramaten dute. Han tribuko agure batek, gorpuaren buru ondoan jarrita, bekatuaren zerrenda luze bat esaten edo kantatzen du, badaga batek egin ditzakeen guztiak, eta jendeak esaldi bakoitzaren azken hitzak errepikatzen ditu haren ondotik. Bekatuaren aitortza hiru bider egiten da. "Esan ohi den bezala, gizon batek egin ditzakeen bekatu guztiak mila eta hirurehun omen dira. Hildakoak horiek denak egin dituela emanez gero, agureak ozenki oihukatzen du: "Ez oztopatu haien hegaldia Jainkoaren oin garbietaraino". Berak amaitzean, bildutako guztiek kantatzen dute ozenki: "Ez oztopatu haien hegaldia". Agureak berriro ekiten die xehetasunei, eta oihu egiten du: "Suge herrestaria hil zuen. Hori bekatu da". Azken hitza esan orduko, jende guztiak oihukatzen du "hori bekatu da". Oihuka ari diren bitartean, agureak bufalo gaztearen gainean izaten du eskua. Bekatua bufaloagana pasatzen da. Beraz, zerrenda osoa esaten da era zirrargarri horretan. Baina hori ez da aski. Azken oihua, "ondo izan bedi dena", esan ondoren, agureak beste norbaiti uzten dio bere lekua, eta berriro egiten da aitortza, eta jende guztiak oihukatzen du "hori bekatu da". Hirugarren aldiz ere egiten da. Gero, artean isiltasun osoz, bufaloa libre uzten dute. Juduen aker erru-jasalea bezala, ganadu hori ezin da lan arruntetan erabili". A. C. Clayton apaizak ikusitako badagen hileta batean, bufalo gazteari hiru bira emanarazi zizkioten hilkutxaren inguruan, gizon hilaren eskua buruan jarrita zuela. "Egintza haren bitartez, bufaloak hildakoaren bekatu guztiak jaso omen zituen. Gero urrun batera eramane zuten, inor kutsa ez zezan, eta inoiz ez omen zuten saldu; animalia sakratu eskainitzat eduki zuten". "Zeremonia horren xedea hildakoaren bekatuak bufaloagan sartzea da, edo gizonari barkatzeko zeregina haren gainean uztea. Maiz desagertu egiten omen da bufaloa, eta handik aurrera inork ez omen du inoiz haren berririk izaten".

3. Gizakienganako transferentzia

Gizakiek ere egiten dute aker erru-jasalearena, berengana erakarritz besteak mehatxatzen dituzten kalteak. Zingales bat oso gaixorik dagoenean, eta sendagileek ezer egin ezin dutenean, deabruaren dantzari bati deitzen diote, eta hark, deabruai eskaintzak eginez eta hartarako egoki diren moztaroz jantzita dantzatuz, gaixotasunaren deabruak konjuratzen ditu, bat bestearen ondotik, gizon gaixoagandik kanporatu eta beregan hartzeko. Gaixotasunaren kausa hala bereganaturik, dantzari iaioa hilkutxa batean etzaten da, eta hildakoarena eginez, herritik kanpoko leku zabal batera eramaten dute. Han, bakarrik utzita, laster itzultzen da berriro bizira, eta bizkor joaten da bere sariaren bila. 1590ean, sorgin eskoziar bat, Agnes Sampson izenekoa, errudun deklaratu zuten Robert Kers izeneko bat sendatu zuelako, "mendebaldeko sorgin batek Dumfriesen zegoelarik ezarritako gaixotasun batetik, eta gaixotasun hura beregan hartu zuelako eta zarata handiz eta sufrikarioz eduki zuelako goizera arte; eta denboraldi hartan abarrots handia entzun zen etxean". Zarata hori sorginak egiten zuen, gaixotasuna, arropen bitartez, beragandik katu edo zakur batengana pasatzeko. Zoritxarrez, saioa aldeztu gaizki ateratu zen. Gaixotasunak ez zuen jo animalia, Dalkeithen Alexander Douglas baizik: hau ahuldu eta hil egin zen, lehen gaixoa, Robert Kers, osatu zen bitartean.

"Zeelanda Berriko alde batean, beharrezkotzat zeukaten bekatuengatik pekamena; zeremonia bat egiten zen gizabanako baten gainean, eta tribuko bekatu guztiak harengana pasatzen omen ziren: lehenik garo-zurtoin bat lotzen zioten, eta ibaira egiten zuen jauzi, eta han garoa askatu eta itsasorako bidean uzten zuen, berarekin batera bekatu guztiak eramaten zituelarik". Larrialdi handietan Manipurko rajaren bekatuak beste norbaiti pasatzen zitzaizkion, gehienetan kriminal bati; rajaren ordezkariak pairatutako sufrimenduen ordezkariak eskuratzen zuen. Transferentzia egiteko, raja eta emaztea, arropa finez jantzita, plazan eraikitako oholtza baten gainean bainatzen ziren, kriminala haien azpian makurtuta zegoelarik. Isurtzen zen urarekin batera erortzen ziren bekatuak ere, eta aker erru-jasalearena egiten zuen gizaki hark hartzen zituen. Transferentzia osatzeko, rajak eta emazteak ordezkariak ematen zitzioten beren jantziak, eta berak, beste berri batzuk jantzita, jende artean geratzen ziren arratsaldera arte. Travancoren, raja hilzorian dagoenean, brahman santu bat bilatzen dute, hiltzeko dagoenaren bekatuak hamar mila rupiaren truke bere gain hartzea onartzen duena. Hala, bere burua eginkizunaren aldarean eskaintzeko prest, santua heriotza-kameran sartzen dute, eta estu-estu besarkatzen du hiltzen ari den raja, esanez: "Oi errege, berorren bekatu eta gaixotasun guztiak neure gain onartzen ditut. Luze bizi bedi, Gorentasun hori, eta zoriontsu erreina beza". Gaixoaren bekatuak bere gain harturik, herrialdetik urrun bidaltzen dute, eta ez dauka inoiz itzultzerik. Turkestango Utch Kurganen, Schuyler jaunak bizimodua hildakoen bekatuak bere gain hartuz ateratzen zuen agure bat ezagutu zuen; bere bizia haien arimen alde otoitz egiten ematen zuen.

Ugandan, armada gerratik itzultakoan, jainkoek, orakuluen bitartez, jakinarazten ziotenean erregeari soldaduei gaitzen bat erantsi zitzaizela, emakume esklaboa aukeratu ohi zuten katibuen artean, baita harrapakinetik behi, ahuntz, hegazti eta zakur bana ere, eta atzera etorritako bidetik bidaltzen zituzten, ondo zainduta, etorritako herrialdeko mugetaraino. Han besoak eta zangoak hausten zitzioten, eta hala uzten zituzten; elbarrituegi baitzeuden berriz Ugandaraino herrestan joateko. Gaitza ordezkariak haletara alda zedin, belar-eskutadez igurtzitzen zuten jendea eta ganadua, eta gero belarrok biktimei lotzen zitzioten. Horren ondoren, armada garbi zegoela aldarrikatzen zuten, eta beren hiriburura itzultzen uzten zitzairen. Hala, Ugandako errege berri bat tronuratzean, gizon bat zauritu eta urrun bidaltzen zuen Bunyorora, aker erru-jasale gisa, erregeari edo erregeari erantsitako lohi oro berekin eramanez.

4. Gaitzaren transferentzia European

Orain arte, herri basati edo barbaroen usadioetatik atera ditugu gaitzaren transferentziaz emandako adibideak. Baina gaixotasun, zorigaitz eta bekatuen zama norberarengandik inorengana, edo animalia batengana gauza batera pasatzeko antzeko saioak, gauza arrunta izan dira Europako nazio zibilizatueta ere, bai antzina eta bai garai modernoetan. Erromatarrek sukarrarentzat zuten sendabide bat gaixoaren azkazalak moztean zen, eta moztutako azkazal-zatiak auzoko baten atean argizariz itsastea eguzkia atera baino lehen; sukarra gaixoagandik auzokoagana pasatzen zen. Antzeko bideak hartu zituzten grekoek ere; izan ere, Platonek, estatu idealerako legeak ematen zituelarik, pentsatzen du gehiegi eskatzea dela gizonak ez ikaratzea argizarizko irudiak beren ateetan edo arbasoen hilobietan edota bidegurutzeetan itsatsita aurkitzean. Gure aroko laugarren mendean, Bordeleko Martzelok garatxoak sendatzeko modu bat eman zuen, oraindik ere Europako hainbat aldetan puri-purian dagoena superstiziotsuen artean. Hainbat harritxo ukitu behar dituzu zure garatxoak; gero bildu harriak huntz-hosto batean eta jaurti herribidean. Jaso ditzanak hartuko ditu garatxoak, eta zu haiez libratuko zara. Orkadar irletako jendeak zenbait aldiz garbitzen du gaixoa, eta gero atakaren batean isurtzen dute ura, gaixotasuna gaixo harengandik aldegin eta ataka hartatik pasatuko den lehen pertsonarengana aldatuko delakoan. Bavarian, sukarra

sendatzeko modu bat paper batean haxe idaztea da: "Sukar, zaude urrun, ez naiz etxean", eta papera inoren poltsikoan jartzea. Papera duena sukartuko da, eta gaixorik zegoena sukarrak libratuko. Gaixotasun berorretaz sendatzeko beste modu bat, Bohemian, honako hau da: hartu lapiko huts bat, joan berarekin bidegurutze batera, bota han eta hanka egin. Hura joko duen lehen pertsonak hartuko du zure sukarra, eta zu sendatu egingo zara.

Europar, basatien artean bezala, gaitza edo gaixotasuna gizakiagandik animalia gana pasarazteko saioak maiz egin izan dira. Antzinateko idazle serioek gomendatzen zuten, baldin eta eskorpioi batek norbait ziztatzaren bazuen, norbait horrek asto baten gainean eseri behar omen zuen, aurpegia isatsari begira, edota haxe esan behar zion animalari belarrira: "Eskorpioi batek ziztatu nau"; batera zein bestera -hala pentsatzen zuten-, gaitza gizakiarengandik astoaren gana pasatzen zen. Martzelok honelako sendaketa asko jaso ditu. Adibidez, segidako hau hagineko minarentzako erremedioa omen da. Aire zabalean, zutik eta botak jantzita, hartu igel bat burutik, tu egin ahoan, eskatu mina eramateko, eta gero jaregin. Baina zeremonia zorioneko egun batean egin behar da, eta zorioneko ordu batean. Cheshiren, aheria edo sukar aftosoa izeneko ondoeza, gehienetan hurren ahoan edo eztarrian sortzen dena, era berdinean tratatzen da maiz. Igel gazte bat edukitzen da une batzuetan gaixoaren aho barruan, eta hura sendatu eta igelak jasotzen omen du gaixotasuna. "Benetan diotsut" zioen halako sendaketak maiz egindako atso batek, "hurrengo egunetan zirri-zorro eta eztulka aditzen genuen igel gajoa, herio batean; bihotza erdibituko zizun haur koitadu hura baratzen bezala eztulka entzuteak". Northamptonshire, Devonshire eta Galesen eztularentzat duten sendabide bat haxe da: gaixoaren buruko ile bat gurindutako bi ogipuskaren artean jartzea, eta ogitarteko hori zakur bati ematea. Aberea hasiko da eztulka, eta gaixoa sendatu egingo da. Batzuetan, animalia batekin jana erdibituta, ondoeza animaliarengana pasarazten da. Hala, Oldenburgen, sukarra izanez gero, katilukada bat esne gozo jartzen zaio zakur bati aurrean, esanez: "Zorte on, zakur! Gaixotu zaitez zu eta senda nadin ni!". Gero zakurrak esne pixka bat miazkatu duenean, tragoxka bat jo behar da katilutik; eta ondoren zakurrak miazkatzen du berriz, eta gero norberak beste trago bat; eta norberak eta zakurrak hori hiru aldiz egin ondoren, animaliak jasoko du sukarra, eta gaixoa sendatu egingo da.

Bohemian sukarra sendatzeko era bat eguzkia irten aurretik basora joan eta istingorhabia bat bilatzea da. Hura aurkitu ondoren, txorikume bat hartu eta hiru egunez gorde behar da. Gero atzera basora joan eta istingorra jaregin behar da. Sukarrak bertan behera utziko zaitu, istingorrak eraman baitu. Veden garaian ere, aspaldiko hinduek erlatxori batez sendatzen zuten bularreria. Esaten zuten: "Oi bularreria, zoaz hemendik, zoaz hemendik erlatxoriarekin! Ekaitzarekin eta haize-erauntsiekin, zoaz hemendik!". Galesko Llandegla herrixkan bada eliza bat, Santa Tekla birjina martiriari eskainia, non epilepsia sendatzen den, edo sendatzen zen, hegazti bati pasatuz. Lehenik gaixoak besoak eta zangoak garbitzen zituen ondoko iturri sakratu batean, txanpona botatzen zuen bertara eskaintza gisa, hiru bira ematen zizkion iturriari, eta hiru bider errepikatzen zuen Jaunaren otoitza. Gero hegaztia -gaixoa gizona bazen, oilarra, eta emakumea bazen, oiloa- saski batean ipini eta lehenik iturriaren jiran eta gero elizaren jiran eramaten zuten. Ondoren gaixoa elizan sartu eta aldarearen azpian etzaten zen eguna argitu arte. Ondoren, beste txanpon bat eskaini eta alde egiten zuen, hegaztia elizan utziz. Txoria hiltzen bazen, gaixotasuna gizon edo emaztearengandik harengana pasatua zen seinale. 1855. urtean herriko sakristau zaharrak oso ondo gogoratzen zuen txoriak zabuka ikusi izana beraiei pasarazitako gaitzen ondorioz.

Sarritan gaixoak gauza bizigaberen bati pasatu nahi izaten dio bere ondoeza edo zorigaitza. Atenasen bada San Joan Bataiatzailearen kaperatxo bat, zutarri zahar baten

kontra eraikia. Gaixo sukartuek bertara jotzen dute etsi-etsian, hari argizariztatua zutarriaren barruko aldeari lotuta sukarra beraiengandik zutabera pasatuko delakoan. Brandenburgeko markan diotenez, zorabioak izanez gero, biluztu eta hiru bira eman behar zaizkio liho-sail bati eguzkia sartu ondoren; hartara lihoak jasoko omen ditu zorabioak, eta norbera haietaz libratuko omen da.

Baina beharbada European zuhaitz edo zuhaixka bat erabiliko da gehien era guztietako gaixotasun eta gaitzak har ditzan. Bulgarian, sukarra sendatzeko sendabide bat eguzkiaren irteeran sahats bati hiru bira ematea da, oihuka: "Sukarrak hotzikarak emango dizkizu, eta eguzkiak berotu egingo nau". Karpatosko irla grekoan apaizak hari gorria lotzen du pertsona gaixo baten lepo inguruan. Hurrengo goizean gaixoaren lagunak haria kendu eta mendialdera joaten dira, eta han zuhaitz batean lotzen dute haria, pentsatuz hartara zuhaitzari pasatzen diotela gaitza. Italiarrak antzera saiatzen dira sukarra sendatzen, zuhaitz bati lotuz. Gaixoak haria lotzen du ezkerreko eskuturraren bueltan, gauean, eta biharamun goizean haria zuhaitz batetik zintzilik jartzen du. Sukarra zuhaitzari lotuta geratzen omen da hala, eta gaixoa hartaz libratzen da; baina kontuz ibili beharko du zuhaitz horren ondotik berriro ez pasatzeko, bestela sukarrak bere lokarriak hautsi eta berriro erasoko lioke eta. Flandesen sendabide hau dute hotzikararentzat: goizean goiz sahats batera joan behar da, hiru korapilo egiten dira abar batean, hitzok esanez: "Egun on, zaharra, hemen uzten dizut katarroa; egun on, zaharra"; eta gero jiratu eta atzera begiratu gabe itzuli behar da. Sonnenbergen, hezueritik libratu nahi izanez gero, izai gazte batera joan eta korapiloa egin behar da abartxo batean, esanez "Jainkoak eskertuko dizu, izai noble hori. Nire hezueria ematen dizut. Hemen lotuko dut korapilo bat eta bertan utziko dut nire hezueria. Aitaren, Semearen..." e.a.

Hezueria gizaki batengandik zuhaitz batera pasatzeko beste modu bat honako hau da. Gaixoaren atzamarretako azkazalak moztu eta zangoetatik ile batzuk kendu. Zulatu haritz bat, sartu zuloan azkazal-puskak eta ileak, estali zuloa berriz, eta igurtzi behigorrotez. Baldin eta hurrengo hiru hilabeteetan, gaixoari hezueria sendatzen bazaio, seguru esan daiteke haritzak duela haren orde. Cheshiren, garatxoetatik libratu nahi izanez gero, hirugiharre-puska batez igurtzi besterik ez da egin behar, egin zirritu bat lizar baten azalean eta lerratu hirugiharrea azal azpira. Laster desagertuko dira garatxoak eskutik, eta zuhaitzaren azalean agertuko dira handitu edo adabegi gisa. Hertfordshireko Berkhampteaden, zenbait haritz oso ospetsuak ziren hotzikarak sendatzen zituztelako. Gaixotasuna arbolari pasatzea sinplea baina mingarria zen. Gaixoaren bilo bat lotzen zen haritzean; gero, bat-batean tirakada bat egin eta ilea eta hotzikarak uzten ziren zuhaitzean.

lvi

Gaitza publikoki kanporatzea

1. Deabruak nonahi ageri

Aurreko kapituluan gaitzak beste norbaiti, beste animalia edo gauza bati pasaraztearen printzipio primitiboa azaldu dugu, eta adibideak ere eman ditugu. Baina antzeko bideak erabili dira komunitate osoari erasotzen dioten hainbat gaitzetatik libratzeko. Jendearen tristura guztiak batera kentzeko saio horiek ez dira bitxikeriak, ez dira salbuespenak; aitzitik, lurralde askotan egin izan dira, eta hasieran noizbehinkako baziren ere, sasoi jakineko edo urteroko bilakatu dira.

Ahalegindu beharra dago saio horiek sorraziti dituen gogo-egituraz ohartzeko. Natura nortasunez biluztu duen eta gure zentzuetan jasotzen ditugun inpresio ordenatuen kausa ezezagunera mugatzen duen filosofian heziak garelarik, oso zaila da guretzat geure buruak basatiaren lekuan jartzea, hari inpresio horiek izpiritu gisa edo izpirituen egintza gisa agertzen baitzaizkio. Urteetan eta urteetan izpirituen osteak, behinola hain hurbil

izan genuenak, atzera eta atzera egin du guregandik, zientziaren ziritxo magikoak etxeko sutondotik, ziega hondatuetatik eta dorre huntzeztatuetatik iraitzita, laku sorginduetatik eta itsaso bakartitik, tximistak jaurtitzen dituen hodei beltzetik, eta zilarrezko ilargiaren kuxinak diren edo urrezko eguzki-sartzea distira gorrimenez brodatzen duten laino ederrago horietatik. Izpirituak aldeginak dira are zeruko azken gotorlekutik ere: arku urdina jadanik ez da, haurrentzat salbu, begi hilkorrei hitz zerutiarraren loriak ezkututzen dizkien pantaila. Poeten ametsetan edo oratoriaren hegaldi lirikoetan baizik ez da atzematen erretiratzen diren izpirituen banderen azken kulunkaren arrastoa, entzun daiteke haien hego ikustezinen zurrumurrua, haien barre trufarien hotsa, edo aingeruen musikaren oihartzuna, urrunean hiltzen delarik. Oso bestela gertatzen zaio basatiari. Haren irudimenarentzat, mundua oraindik ere beteta dago izaki ugari horietaz, filosofia zentzuzkoago batek baztertu dituen arren. Maitagarriak eta iratxoak, izpirituak eta deabruak, hor dabilzkio hegaldaka bera esna nahiz lotan dagoenean. Basatiaren urratsei jarraitzen diete, sentimenak iluntzen dizkiote, berarengan sartzen dira, jazarri eta engainatu eta atsekabetu egiten dute mila modu gaiztotan. Gertatzen zaizkion zorigaitzak, izaten dituen kalteak, pairatu behar dituen nahigabeak, gehienetan izpirituen haserreari edo suminari edo apetari egozten dizkie, etsaien magiari ez bada. Haien presentzia etengabeak nekatu egiten du, haien gaiztotasun atergabeak bere onetik ateratzen; horiez guztiez batera libratu nahi luke esan ere ezinezko gogoz, eta noizean behin, hesiturik, pazientzia erabat agorturik, erasotzaileei jazartzen zaie eta ahalegin desesperatua egiten du haiek denak bere lurretik bidaltzeko, airea horiez guztiez garbitzeko, aldi batez bederen arnasa libreago hartu eta bere bideari trabarik gabe jarraitzeko. Hala, gertatu ohi da primitiboek beren arazoak garbitzeko egiten duten ahaleginak deabruen eta izpirituen ehizaldi handiaren eta kanporatzearen itxura hartzen duela. Pentsatzen dute tormentu-emaila horiek astintzen badituzte, berriro hasiko direla bizitzen, zoriontsu eta inozente; Edeneko ipuinak eta poeten urrezko aro zaharra egia bihurtuko direla berriro.

2. Gaitza noizbehinka kanporatzea

Horrenbestez, uler dezakegu zergatik basatiak noizean behin egiten dituen gaitzaren garbiketa orokor horiek, deabruen derrigorrezko iraitzearen itxura hartzen duten. Izpiritu gaizto horietan gizaki primitiboak bere arazo askoren kausa ikusten du -arazo guztiena ez bada-, eta imajinatzen du ezen, haietatik libratuko balitz, gauzak hobeto joango litzaizkiokeela. Komunitate osoaren gaitz guztiak kanporatzeko saio publikoak bitan sailka daitezke, kanporatutako gaitzak inmaterialak eta ikustezinak diren, ala materialen edo aker erru-jasale batean gorpuztuak. Lehenari gaitzen iraitze zuzena edo berezkoa dei dakioke; bigarrenari, berriz, zeharkako edo bitartezko iraitzea, edo aker erru-jasalearen bidezko iraitzea. Lehenaren adibideak emango ditugu, hasteko.

Rook uhartean -Ginea Berriaren eta Britainia Berriaren artean- zorigaitzen bat gertatzen denean, jende guztia bildu eta garrasika, madarikazioka, txilioka eta aireari makilazoka hasten da, kalte horren egilezat daukan deabrua botatzeko. Kaltea gertatutako lekutik itsasora eramaten dute urratsez urrats, eta itsasertzera iritsitakoan, indar handiagoz ekiten diote garrasika eta kolpeka, hura uhartetik botatzeko. Gehinetan itsasora edo Lottin irlara urrundu ohi da. Britainia Berrikoek izpiritu gaiztoek eragindakotzat dauzkate gaixotasuna, lehortea, uzta txarrak eta, oro har, zorigaitz guztiak. Beraz, jende asko gaixotu eta hiltzen den aldietan, euriteen hasieran, eskualde bateko biztanle guztiak, abarrez eta makilaz armatuta, soroetara joaten dira ilargiaren argitan, eta han lurra jo eta ostikatu egiten dute goizera arte oihuka, ustez hartara deabruak uxatuko dituztela; eta xede berberaz, korrika ibiltzen dira herrian zehar zuzi irazekiekin. Kaledonia Berrikoek sinesten omen dute gaitz guztiak izpiritu indartsu eta gaizto batek eraginak direla; horregatik, hartatik libratzeko, aldian behin zulo handi bat egiten dute,

eta haren inguruan biltzen da tribu osoa. Deabrua madarikatu ondoren, lurrez betetzen dute zuloa, eta zanpatu egiten dute oihu larriak jaurtiz. Horri izpiritu gaiztoa ehorztea deitzen diote. Australiako erdialdeko Dieri tribuan, kalte handiren bat gertatzen denean, osaginak kanpamendu barruko eta inguruko zorua kanguru-isats disekatu batez kolpatuz iraitzen du Cootchie edo deabrua, kanpamendutik urrunarazten duten arte.

Hondamendiek edo izurrite larriren batek herrixka bat bisitatzeko dutenean, Celebesko Minahassako biztanleek herria bete duten deabruari egozten diete hori, eta haiek kanporatzera behartzen dira. Beraz, goiz batez jende guztiak, gizon, emakume eta haurrek, etxeetatik aldegitzen du etxeko gauzak hartuta, eta aldi baterako herritik kanpo eraikitako etxola batzuetan jartzen dira bizitzen. Han zenbait egun ematen dituzte, sakrifizioak eskainiz eta azken zeremoniarako prestatzen. Azkenean gizonak, batzuk maskarak jantzita, beste batzuk aurpegiak belztuta, baina denak ezpataz, eskopetaz, pikatxoiz edo erratzez armatuta, isil-isilik eta kontuz itzultzen dira utzitako herrira. Gero, apaizaren seinale batera, kalean gora eta beheara korrika hasten dira, etxeetara eta etxe azpietara sartzen txilioka (zutarrien gainean eraikita baitaude), eta paretak, ateak eta leihoak jotzen, deabruak botatzeko. Ondoren, apaiza eta jende guztia su santuarekin etorri eta bederatzi bira ematen dizkiote etxe bakoitzari, eta hiru bira etxeko eskailerari, sua daramatelarik. Gero sukaldean sartzen dute sua, eta han hiru egunez egon behar du piztuta. Bota dituzte deabruak, eta poz handia izaten dute denek.

Halmaherako alfurek beste herrietatik etorritako deabruari egozten dizkiete izurriteak. Hala, herria gaixotasunetik libratze aldera, sorginak bota egiten du deabrua. Herritar guztiengandik arropa dotore eta garestia hartu eta lau ontzitan ipintzen du, eta basora eraman eta deabrua omen dagoen lekuan uzten du. Gero, txantxazko hitzez, leku hartatik aldegitako eskatzen dio deabruari. Kei irletan, Ginea Berriko hegomendebaldean, izpiritu gaiztoek -ez dute zerikusirik hildakoen arimekin, oso desberdinak dira-, oste ahaltsua osatzen dute. Ia arbola eta haitzulo guztiak dira jeinu horietakoren baten bizileku; oso suminkorrak dira izpirituok, eta hutsa behar dute haserretzeko. Gaixotasuna eta beste kalte batzuk bidaliz adierazten dute beren sumina. Horregatik, zorigaitzaldietan, hala nola izurriteetan, beste erremedio guztiek huts egin dutenean, herritar guztiak, apaiza buruan dutela, herritik aparteko leku batera joaten dira. Han, eguzkia sartzean, bi haga eraikitzen dituzte, haga batetik bestera habea jarri eta arroz-zakuak, zurezko kanoiak, gongoak, eskuturrekoak eta abar lotzen dizkiote. Gero, denek hagetan beren lekua hartu dutenean eta hildakoen isiltasuna egin denean, apaizak bere ahotsa goratzen du eta izpirituei zuzentzen zaie beren hizkuntzan, honela: "Ho! Ho! Ho!, zuek, zuhaitzetan bizi zareten izpiritu gaiztook, hartzuloetan bizi zareten izpiritu gaiztook, lurlean bizi zareten izpiritu gaiztook, zuei ematen dizkizuegu zurezko kanoiok, gongo hauek, e.a. Geldiaraz ezazue gaixotasuna, hainbeste jende hil ez dadin". Gero etxera abiatzen dira denak lasterka, zangoen ahal guztian.

Niasko irlan, norbait oso gaixorik dagoenean eta beste erremedioak alferrikako gertatu direnean, gaixotasun hori ekarri duen deabrua exorzizatzeari ekiten dio sorginak. Haga bat jartzen da zutik etxearen aurrean, eta hagaren puntatik palma-hostozko soka luzatzen da etxearen teilaturaino. Gero sorgina igotzen da teilatura zerri batekin, eta han zerria hil eta teilatutik lurrera erortzen uzten dio. Deabrua, zerria harrapatu nahian, bizkor jaisten da teilatutik palma-hostozko sokatik, eta sorginak deitutako izpiritu on batek ez dio uzten berriro igotzen. Erremedio horrek huts egiten badu, etxean beste deabru batzuk ezkututzen diren seinale. Beraz, denak hasten dira haiek ehizatzen. Etxeko ate eta leiho guztiak ixten dira, teilatuko leihatilatxo bakar bat salbu. Gizonak jo eta ke aritzen dira etxe barruan, ezpataz kolpe batera eta kolpe bestera, gongoak joz eta danborren tarrapataz. Eraso gogor horrek beldurtuta, deabruak ihes egiten dute leihatilatik, eta palma-hostozko sokatik jaisten dira. Ate eta leiho guztiak, teilatukoa

salbu, itxita daudenez, deabruak ezin izaten dute berriz etxean sartu. Izurritea denean, berdintsu egiten da. Herriko ate guztiak ixten dira, bat ezik; denak oihuka hasten dira, gongo eta danbor guztiak joka, ezpata guztiak dantzatzuz. Deabruak atera egiten dira eta azken atea ixten da haien atzetik. Ondorengo zortzi egunetan herria setiatuta egoten da, eta inork ezin izaten du bertan sartu.

Birmaniako herrixka batean, kolera hedatu denean, gauza diren gizonak teilatuetara igotzen dira, eta han etzaten dira banbu eta makilekin, beste herritar guztiak, zahar zein gazte, behean geratzen direlarik, danborrak joz, tronpetei puzka, oihuka, txilioka, zorua, hormak, eltzeak eta zaratotsa ateratzen duen oro joz. Zaratots hori hiru gauzez etengabe ateratzeak berebiziko eragina omen du koleraren deabruak urrunarazteko. Indiako hegoekialdeko kumien artean baztanga lehen aldiz agertu zenean, pentsatu zuten Aracandik etorritako deabrua zela. Herriak setio-egoeran jarri ziren, inori ez zitzaion uzten sartzen edo irteten. Tximino bat hil zuten lurraren kontra zanpatuz, eta haren gorpua herriko atetik zintzilik utzi zuten. Odola, harbiltxoekin nahastuta, etxeak ziprizzintzeko erabili zuten, etxe guztietako larrainak garbitu zituzten tximinoaren isatsaz, eta arren aldegitako erregutu zioten jeinuari.

Izurrite batek Afrikako mendebaldeko Urre-kosta jotzen duenean, jendea batzuetan kanpora irteten da, makilaz eta zuziz armatuta, izpiritu gaiztoak botatzera. Seinale bat emanda, jende guztia hasten da orro beldurgarriak etxeetako bazter guztiak jotzen, eta gero eroak bezala joaten dira kaleetan korrika zuziak eskuetan dituztela eta heriosuhar airea kolpatuz. Zaratotsak horrela irauten du, harik eta norbaitek deabru izutuak hiri edo herriko ateran batetik hanka egin dutela jakinarazten duen arte; jendea atzetik joaten zaie, basoan sartu arte jazartzen die, eta erne ibiltzen da berriz inoiz itzul ez daitezen. Deabruak iraitzi ondoren, herri edo hiriko oilar guztiak sarraskitzen dira, aldendutako deabruak beren etxe ohietarako norabidea erakuts ez diezaieten kukurrukuez. Huroien herrixka batean gaixotasun bat nagusitzen zenean, eta beste erremedio guztiak alferrik zirenean, indiarrek Lonouyroya izeneko zeremonia egiten zuten, "asmakizun nagusia eta biderik egokiena baita, nolabait esan, hiri edo herritik deabru eta izpiritu gaiztoak botatzeko, gorputz-gogoetan nozitzen dituzten gaixotasun eta ondoez guztiak eragiten eta ekartzen baitituzte haiek". Beraz, arratsalde batez gizonak eroen pare hasiko ziren lasterrean herrian zehar, etxoletan aurkitzen zuten guztia hautsi eta itzulipurdikatuz. Sua eta abar irazekiak jaurtitzen zituzten kaleetan, eta gau osoan ibiltzen ziren oihuka eta kantuan etengabe. Gero zer bait ikusten zuten ametsetan, labana, zakurra, larrua edo beste zer bait, eta goiza etortzean etxolaz etxola joaten ziren opari eske. Isilik hartzen zituzten opariok, harik eta ametsean ikusitako gauza huraxe ematen zitzaien arte. Hura jasotzean, alaitasunezko garrasia jaurtitzen zuten eta etxolatik irteten ziren, han ziren guztiek zoriontzen zituztelarik. Ametsean ikusitakoa jasotzen zutenek osasuna ona izango omen zuten; aldiz, nahi zutena jasotzen ez zutenak sinetsita egoten ziren patu txarra izango zutela.

Batzuetan, gaixotasunaren deabrua beren etxeetatik bota ordez, basatiek nahiago izaten dute bakean uztea hango jaun eta jabe; berek hanka egiten dute, eta haiek atzetik etor ez daitezen saiatzen dira. Patagoniarrei baztangak erasotzen zienean, adibidez, izpiritu gaiztoren baten jukutriei egozten baitzieten hori, beren gaixoak bertan utzi eta hanka egiten zuten, airea armez sastakatuz eta ingurura ura jaurtiz, erasotzaile beldurgarri hura aparte edukitzeko; eta hainbat eguneko bidearen ondotik haren eskumenetik kanpo zeudela egiten zutenean, prekaudio gisa, beren arma zorrotz guztiak gora begira ezartzen zituzten, aho zorrotzak haiek etorri beharko zuketan aldera begira, zalditeriaren eraso bati aurre egiteko moduan. Era berean, Chaco Handiko indiar lule edo tonocoteei izurriteak erasotzen zienean, hanka egin nahi izaten zioten gehienetan, baina bide zuzenetik gabe, ibilbide bihurri batetik egiten zuten ihes beti; hartara, gaixotasuna atzetik etorriz gero, nekatu egingo omen zen bidearen

jirabirengatik, eta inoiz ez omen zen gai izango berenganaino iristeko. Mexiko Berriko indiarrek baztangak edo beste gaitz kutsakorren batek hebaintzen zituenean, egunero aldatu ohi zituzten beren kanpamenduak, mendialdeko lekuri urrunenetaraino atzeratuz eta aurki zitzaketen basotzarik arantzatsuenak aukeratuz, baztanga beldur izango zelakoan arantza artean urratuak egiteko. Zenbait txinatar Rangunera bisitari etorri eta kolerak jo zituenean, batera eta bestera ibili ziren ezpatak eskutan hartuta deabrua ikaratu nahiz, eta zuhaixka azpietan eman zuten eguna, deabruak aurki ez zituzten.

3. Gaitzak sasoi jakin batean kanporatzea

Gaitzak noizbehinka kanporatzea sasoi jakin bateko eginkizun bihurtzen da. Azkenean desiragarri bihurtzen da garai jakinetan izpiritu gaizto guztietarik batera libratzea, gehienetan urtean behin, zertarako eta jendeak bizitza berriari hasiera eman diezaion, gainean metatuz joan zaizkion eragin gaizto guztietatik libratuta. Australiar beltz batzuek urtero botatzen zituzten hildakoen izpirituak beren lurretatik. Zeremonia hori W. Ridley elizgizonak ikusi zuen Barwan ibaiaren bazterretan. "Hogei laguneko koroa, zahar eta gazte, kantuan eta bumerangekin kolpeak jotzen aritu ziren aldi batez... Halako batean, zuhaitz-azalaren puska baten azpitik gizon bat agertu zen, gorputza kaolinez zurituta, burua eta aurpegia marra gorri eta horiz, eta luma-kukurra ziri batez finkatua zuelarik pare bat oin buruko kalparraren gainetik. Hogei bat minutuz geldi-geldi egon zen, gora begira. Gure ondoan zegoen bertako batek esan zidan hildakoen izpirituen bila ari zela. Azkenean oso poliki mugitzen hasi zen, eta bat-batean batera eta bestera korrika hasi zen habailan, abar bat eskutan zuela, guk ikusten ez genituen etsaiak urrunarazi nahian bezala. Uste nuenean pantomima hura amaitzear zegoela, beste hamar lagun, berdin apainduta, agertu ziren bat-batean zuhaitzen atzetik, eta talde osoa borroka bizian aritu zen beren erasotzaile misteriotsuekin... Azkenean, beren indar guztiak ahitu arte jardun ondoren, utzi egin zioten zeregin kitzikagarri hari, gau osoan eta eguzkia irtenez geroztik zenbait orduz aritu ondoren; gustura ziruditen beste hamabi hilabeterako izpirituak urrunduak zirelako. Zeremonia hura ibai-ertzeko postu guztietan burutu zuten, eta esan didatenez urteroko ohitura da".

Urteko sasoi jakin batzuk izaten dira egokienak deabru guztiak kanporatzeko. Halako une bat arktiar neguaren amaieran izaten da, eguzkia berriro horizontean agertzen denean, asteetan edo hiletan ezkutuan egon ondoren. Beraz, Point Barrowen, Alaskako eta ia Amerika osoko mutur iparraldekoenean, eskimalek eguzkia berriro agertzen den unea aukeratzen dute etxe guztietan Tuña izpiritu gaiztoa ehizatzeke. Estatu Batuek Polora antolatutako espedizioak zeremonia horren lekuko izan ziren, Point Barrowen negua pasatu zutenean. Herri hartakoek udaletxearen aurrean sua piztu eta atso bat jarri zuten etxe bakoitzaren sarreran. Gizonak udaletxe inguruan bildu ziren, emakume gazteek eta neskek beren labanez izpiritua etxe guztietatik ateratzen zuten bitartean, oholtza azpiak eta orein-larruak amorrusaz sastakatuz, eta Tuñari aldegin zezan oihuka. Zoko eta bazter guztietatik atera zutela etsi zutenean, zoruko zulora behartu zuten, eta kanporatu egin zuten oihu latzez eta keinu eroz. Bitartean, etxeko sarrerako atsoa airea sastakatzen aritu zen labana luze batez, izpiritua atzera sar ez zedin. Talde bakoitzak sutarantz eraman zuen izpiritua eta han sartzeko esan zion. Ordurako denak zeuden biribilean jarrita suaren inguruan, eta gizon printzipalenetako batzuek salaketa jakin batzuk egin zituzten izpirituaren kontra; eta bakoitzak, bere hitzaldiaren ondoren, jantziak urratu zituen bortxaz, eta esan zion izpirituari bera uzteko eta sutan sartzeko. Bi gizon aurreratu ziren kartutxo hutsez kargatutako rifleekin, eta beste batek gurnuz betetako ontzia ekarri eta garretara isuri zuen. Aldi berean, gizonetako batek tiro egin zion suari; eta lurrina altxatzean beste tiro bat bota zioten, eta orduan Tuña hil zutela jo zuten.

Udazkena aurreratua denean, ekaitzek lurra astintzen eta itsasoa apenas estaltzen duten izotz-geruzak hausten dituztenean, izotz-puska eskerak elkar jo eta hots izugarritz hausten direnean, eta izotzezko opilak bata bestearen gainean pilatzen direnean, Baffin lurraldeko eskimalek imajinatzen dute gaiztakeriaz kargatutako airea betetzen duten izpirituen ahotsak entzuten dituztela. Gero hildakoen arimek etxoletako ateak jotzen dituzte gogor, ezin baitira sartu, eta zoritxarrekoa harrapatzen dutena; laster gaixotu eta hilko da. Gero zakurtzar ilegabe baten fantasmak benetako zakurrei jazartzen die, eta haiek dardarizoka eta karranpak hartuta hiltzen dira hura ikustean. Gaitzaren izpirituak ezin konta ahala hedatzen dira, eskimalei gaixotasunak eta heriotza, eguraldi txarra eta arrantza eskasa ekartzen saiatuz. Bisitari mamuzko horien guztien artean, Sednak -azpiko munduko andereak- eta haren aitak -hildako eskimalez arduratzen denak- eragiten dute beldurrik handiena. Gainerako izpirituek airea eta ura betetzen badute ere, andere hori lur azpitik irteten da. Lan handiko garaia izaten da orduan sorginentzat. Etxe guztietan entzuten dira kantuak eta otoitzak, izpirituak konjuratzen dituzten bitartean, etxolaren atzealdean iluntasun mistikoan eserita, su txikiz piztutako lanpara baten argi motelean. Lan horietan guztietan astunena Sedna botatzea da, eta sorgin ahaltsuenak izaten du zeregin hori. Soka bat biltzen dute etxola handi baten zoru gainean, goialdean zirritutxo bat duela, fokak arnasa hartzeko duen zuloaren antzekoa. Bi sorgin jartzen dira ondoan, bat lantza eskuan duela, neguan foka-zulo bati begira bailegoen, eta bestea arpoiaren sokari eutsiz. Hirugarren sorgin bat etxolaren atzealdean esertzen da kanta magikoa kantatuz Sedna leku hartara erakartzeko. Halako batean, aditu dute badatorrela etxolaren zorupera, arnasa astun hartuz; orain atera da zulotik; jaurti diote arpoia, eta haserre eta bizkor hondoratzen da, arpoia berekin herrestatuz, bi gizonek indar guztiaz sokari eusten dioten bitartean. Borroka latza izaten da, baina azkenean tirakada zakar batez arpoia erauzi eta Adlivungo bizilekura itzultzen da. Arpoia zulotik ateratzen dutenean, odoleztatuta aurkitzen dute, eta sorginek harro erakusten dute beren balentriaren froga gisa. Halaxe botatzen dituzte azkenean Sedna eta beste izpiritu gaiztoak, eta biharamunean jai handia ospatzen dute zahar eta gazteek gertaera hori dela eta. Artean, ordea, kontuz ibili behar izaten dute, zeren eta Sedna, zaurituta, haserre baita, eta harrapatu egingo baitu bere etxolatik kanpora aurkitzen duena; beraz, denek izaten dituzte amuletoak txanoen puntan, haren kontra babesteko. Amuleto horiek jaiotzean jantzitako lehen arropen zatiak izaten dira.

Irokesek "ametsen jaialdi" batez inauguratzen zuten urtea urtarrilean, otsailean edo martxoan (aldatu egiten zen urtetik urtera), huroiek abagune berezietan egiten zuten bezalako jaialdiaz. Zeremonia guztiek hainbat egun, asteak ere bai, irauten zuten, eta Saturnaliak modukoak ziren. Gizonak eta emakumeak, era askotara moztortuta, dendaz denda ibiltzen ziren, zer aurkitu, dena puskatuz eta lurrera botaz. Sasoi hartan dena izaten zen zilegi; jendea bere onetik irtenda zegoela jotzen zen, eta egiten zuena egiten zuela, ez zuela erantzukizunik. Beraz, askok zor zaharrak kitatzeko aukerari heltzen zioten, gorroto zituzten pertsonak makilatuz, ur hotzez blaituz eta ilintiz edo errauts beroz estaliz. Beste batzuek hartu abar edo ikatz irazekiak, eta aurkitzen zituzten lehen lagunei jaurtitzen zizkieten burura. Jazarle haiei ihes egiteko modu bakarra haiek amestutakoa asmatzea zen. Jai haietako egun batean izpiritu gaiztoak herritik botatzeko zeremonia izaten zen. Gizonak, piztilarruz jantzita, aurpegiak maskara beldurgarritz estalita eta eskuak dortoka baten oskolez, etxolaz etxola ibiltzen ziren zaratots lazgarria ateraz; etxola bakoitzean, hartu erregaia sutatik eta ilintiak eta errautsak zoruan zehar barreiatzen zituzten eskuez. Jaialdiaren aurretik izaten zen bekatuen aitortza orokorra, seguruenik, eragin gaiztoak kanporatzeko prestaketa izango zen; jendea beren nahigabe moralez arintzeko modu bat zen, nahigabeak bildu eta ezabatzeko modu bat.

Irailean Peruko inkek Situa izeneko jaialdia ospatzen zuten; jaialdi hori hiriburutik eta inguruetatik gaixotasun eta kalte oro atzerriratzeko izaten zen. Irailean izaten zen, garai horretan hasten baitzen euri-sasoia, eta lehen euriekin batera gaixotasun asko izaten baitziren. Jaialdirako prestakuntza gisa, jendeak barau egiten zuen udazkeneko ekinozioaren ondorengo ilargiaren lehen egunean. Egun hartan barau egin ondoren, eta gaua etortzean, artozko ore lakar bat laberatzen zuten. Ore hura bi klasetakoa izaten zen. Bat bost eta hamar urteko haurren odolaz oretzen zen; odola hurrei bekainen artetik ateratzen zitzairen. Ore-mota biak aparte laberatzen ziren, zertarako desberdinak baitzituzten. Familia bakoitza anaia zaharrenaren etxean biltzen zen jaia ospatzeko; eta anaia zaharrik ez zutenak senide zaharrenaren etxera joaten ziren. Gau hartan, bada, eguna barauan emandako guztiek beren gorputzak garbitzen zituzten, eta odolez oretutako masa pixka bat hartuta, buruan, aurpegian, bularraldean, sorbaldeetan, besoetan eta zangoetan igurtzitzen zuten. Oreak beren ahuldade guztiak eraman zitzaizkien egiten zuten hori. Ondoren, familiburuak ore berberaz igurtzitzen zuen larraina, eta han uzten zuen etxekeok beren garbiketarako egin zituztelako frogatzat. Bitartean, apaiz nagusiak zeremonia berberak egiten zituen Eguzkiaren tenpluan. Eguzkia atera bezain laster, jende guztiak gurtzen zuen eta gaitz guztiak hiritik eramateko erregutzen zion, eta odolik gabe egindako oreaz hausten zuten baraua. Gurtza egin eta baraua hautsi ondoren -ordu jakin batean egiten zuten hori, denek gizon bakarra bailiran gur zezaten eguzkia-, errege-odoleko inka bat etortzen zen gotorlekutik, eguzkiaren mezulari, aberats jantzita, longaina gorputz inguruan bildurik eta eskuan lantza zuela. Lantza ñabardura askotako eta urrezko eraztunez lotutako lumaz apainduta edukitzen zuen mutur batetik besteraino. Gotorlekutik lasterka jaisten zen lantza eskuan zuela, plaza handiaren erdira iritsi arte; han urrezko kutxa bat egoten zen, iturri baten gisakoa, artoaren muztio hartziaren sakrifizioarako erabiltzen zena. Errege-odoleko beste lau inka izaten zituen zain, nork bere lantza eskuan zuela, eta longaina bilduta korrika egiteko. Mezulariak haien lau lantzak ukitzen zituen bereaz, eta esaten zien Eguzkiak agintzen ziela, haren mezulari zirenez, gaitzak hiritik kanporatzeko. Lau inkak hiritik munduko lau aldeetara begira zeuden lau errepedetatik abiatzen ziren antxitxika. Korrika egin ahala, jende guztia, handi zein txiki, etxeetako ateetara irteten zen alaitasunezko oihu handiak eginez, eta beren arropak astintzen zituzten pozik, hautsa kentzeko bezala, esanez: "Utzi gaitzei joaten. Zein irrikaz egon garen jaialdi honen zain. Oi gauza guztien Egile hori, emaiguzu beste urtebete, honelako beste festa bat ikus ahal dezagun". Arropak astindu ondoren, eskuez burua, aurpegia, besoak eta zangoak igurtzitzen zituzten, garbitzeko bezala. Hura guztia gaitzak etxeetatik botatzeko egiten zen, Eguzkiaren mezulariek gaitzok hiritik kanpora zitzaten; eta hura, inkak zihoazen kaleetan ezezik, hiriko auzo guztietan egiten zen. Gainera, denek egiten zuten dantza, Inka nagusiak berak ere bai, eta erreka eta iturrietan bainatzen ziren, esanez gaixotasunek alde egiten zietela. Gero sokaz lotutako lastaira handiak hartzen zituzten. Piztu eta elkarri ematen zizkieten, haiekin elkar joz, eta esanez: "Utzi joaten gaitz orori". Bitartean korrikalariak hiritik legoa laurden bateraino joaten ziren beren lantzekin; han beste lau inka aurkitzen zituzten prest, eta haiek ere lantzak lehenengoan eskuetatik jaso eta korrika abiatzen ziren. Hala, korrikalariak bost edo sei legoataraino garraiatzen zituzten lantzak, errelebutan, eta han beren buruak eta armak errekan garbitu eta zutik uzten zituzten lantzak, muga seinalatzeko, iraitzitako gaitzak itzul ez zitezen.

Gineako beltzek urtero botatzen dute deabrua beren hirietatik, zeremonia handiz, hartarako seinalatutako sasoian. Urre-kostako Aximen, zortzi eguneko jaialdia ospatzen da urteroko iraizte horren aurretik; alaitasuna eta bozkarioa, saltoak, dantzak eta kantak izaten dira nagusi, eta "edonori ziria sartzeko askatasun osoa uzten da, eta eskandalua hainbesteraino goresten non beren goikoen nahiz behekoen hutsegite,

gaiztakeria eta iruzur guztiez kanta baitezakete, zigorrik jaso gabe, ezta etenik ñimiñoena ere". Zortzigarren egunean deabrua ehizatzen dute alarau goibelez, atzetik jazarrit eta makilaz, harriz eta eskutan hartzen duten edozertaz joz. Hiritik urrunera uxatu dutenean, itzuli egiten dira. Era hartan botatzen dute ehun herri baino gehiagotatik batera. Atzera etxera itzuliko ez zaiela seguru izateko, emakumeek zurezko eta lurrezko ontzi guztiak garbitzen eta fregatzen dituzte, "orban orotarik eta deabruagandik jaregiteko".

Cape Coast Castlen, Urre-kostan alegia, ingeles bat zeremonia horren lekuko izan zen 1844ko urriaren bederatziko gauean. Honela deskribatu digu: "Gaur gauean burutu da izpiritu gaiztoa, Abonsam, hiritik uxatzeko urtero egin ohi duten zeremonia. Zortzietako kanoiak gotorlekuan tiroa jo bezain laster, jendea mosketez tiroka hasi da etxeetan, hornizio guztiak ateetatik jaurtitzen, geletako zoko guztiak makilaz jotzen e.a., eta ahal bezain ozenki oihuka, deabrua beldurtzeko. Etxeetatik atera ondoren -hala imajinatzen dute eurek-, kaleetara irten dira, zuzi irazekiak botaz, garrasika, oihuka, makilak kolpatuz, lapiko zaharrak joz, zaratotsik beldurgarriena ateraz, hura hiritik atera eta itsasora botatzeko. Zeremonia honen aurretik isiltasun osoko lau aste izaten dira; ez dago tiro egiterik, ez danborrik jotzerik, ez eztabaidan aritzerik. Baldin eta, aste horietan zehar, bertako bi lagunek ados jarri ez eta hirian zaratarik aterako balute, berehala eramango lituzkete erregearen aurrera, eta isun astuna jarriko lieke hark. Baldin eta zakur, zerri, ardi edo ahuntzen bat kalean solte aurkitzen badute, akabatu egin dezakete, edota edonork har dezake, ordura arteko jabeari ez baitzaio uzten inolako preziorik eskatzen. Isiltasun hori Abonsami iruzur egiteko da: erne ez dagoelarik, ustekabeen harrapa dezakete, eta beldurtu eta hiritik bota. Isilaldi horretan inor hilko balitz, senideei ez zaie uzten dolua egiten harik eta lau asteok iragan arte".

Batzuetan, deabruak urtero iraitzeko data nekazaritzako sasoiaren arabera finkatuta egon ohi da. Hala, Togolandiako hosen artean, Afrikako mendebaldean, deabru-iraitzea jendeak ñame berriak probatu aurretik egiten da urtero. Buruzagiek apaizak eta magia-gizonak biltzen dituzte, eta esaten diete jendeak ñame berriak jan behar dituela eta bozkarioa izango duela, eta, beraz, herria garbitu eta gaitzak egotzi behar dituztela. Beraz, izpiritu gaiztoak, sorginak eta herria hartuta daukaten gaitz guztiak konjuratzen dituzte hosto eta aihen-multzoetan sar daitezen; hagetan lotzen dituzte, eta gero hiritik kanpora eraman eta lurrean landatuta uzten dituzte errepideetan. Hurrengo gauean ez dago surik egiterik edo ezer jaterik. Biharamun goizean emakumeek sutegiak eta etxeak garbitzen dituzte, eta bildutako hondarrak zurezko plater hautsietan uzten. Gero jendeak honela errezatzen du: "Zuek, gaixotasun guztiok, gorputza zafratzen diguzuenok, gaur kanpora botako zaituztegu". Ondoren, beren ahal osoan lasterka joaten dira Adaklu mendirantz, ahoak kolpatuz eta orroka: "Kanpora gaur! Kanpora gaur! Denak hiltzen dituen hori, kanpora gaur! Zuek, izpiritu gaiztook, kanpora gaur! Eta buruko mina ematen diguna, kanpora gaur! Anlora eta Adaklura joango dira gaitz guztiak!". Adaklu mendiko zuhaitz jakin batera iristen direnean, dena jaurtitzen dute eta etxera itzultzen dira.

Kiriwinan, Ginea Berriko hegoekialdean, ñame berriak biltzen zirenean, jendeak festa eta dantza egiten zuen egun askotan, eta beren jabetzako gauza asko, hala nola besokoak, txanponak eta abar, hartarako eraikitako tranpaldo baten gainean zabaltzen zituzten. Jaiak amaitutakoan, jende guztia bildu eta izpirituak botatzen zituzten herritik, orroka, etxeetako zutabeak joz eta izpiritu gaiztoren baten ezkutaleku izan zitekeen edozer hankaz gora jarrit. Jendeak azalpen hauxe eman zion misiolari bati: izpirituei entretenimendua eta atsegina eman zieten, eta ondasunak ere bai, eta aldegitako garaia omen zuten. Ez al zituzten ikusi dantzak, eta aditu kantuak eta ez al ziren ase ñameen arimez, eta ez al ziren jabetu diruaren arimaz eta tranpaldo gainean zabaldutako gauza

fin haiez guztiez? Zer besterik nahi zuten, bada, izpirituak? Derrigor aldegin beharrak ziren, beraz.

Indiako iparrekialdeko hosen artean urteko jaialdi handia "uzta-etxea" da, urtarrilean egiten dena, aletegiak alez beteta daudenean, eta jendea, beren esamoldez esateko, deabrukeriaz beteta. "Ideia arraro bat dute, aldi horretan gizonak eta emakumeak hain daudela gaiztorakoz zamatuta, non aldi batez behintzat presioa jaitsi beharra baitago, pertsonaren osasunerako, horretarako grinak jareginez". Herriko jainkoari sakrifizioa eskainiz hasten dira zeremoniak: hiru hegazti, oilar bat eta bi oilo, bat beltza derrigor. Horiekin batera palas (*Butea frondosa*) arbolaren loreak eskaintzen dituzte, arroz-irinez egindako ogia, eta sesamo-hazia. Eskaintzok herriko apaizak aurkezten ditu, eta otoitz egiten du, hastear den urtean eurak eta euren haurrak zorigaitz eta gaixotasun orotarik salbu izan daitezen, eta euria garaiz etorri eta uzta onak izan ditzaten. Zenbait lekutan hildakoen arimen alde ere errezatzen da. Garai horretan leku hura izpiritu gaizto batek hartu duela jotzen da, eta hartaz libratzeko, gizon, emakume eta haurrak prozesioan ibiltzen dira herrian zehar, eskuetan makilak dituztela, ehizagairen baten bila bezala, kanta basatia kantatuz, eta oihi handiak eginez, harik eta izpiritu gaiztoak alde egin duela seguru egon arte. Orduan atseginera eta arroz-ardoa edatera ematen dira, segidan etorriko den lasakeria erorako aldarlean egoteko. Orduan jaia "saturnalia bihurtzen da, zeinetan zerbitzariak beren nagusiekiko egitekoak ahazten dituzten, haurrek gurasoenganako begirunea, gizonak emakumeenganakoa, eta emakumeak apaltasun, adeitasun eta eztitasun guztia; grina guztiei emandako bakante bihurtzen dira". Hosak lasaiak eta begiratuak izan ohi dira beren jokamoldeetan, eratsuak eta jentilak emakumeekin. Baina jai haietan "izaera aldatu egiten zaie aldi batez. Seme-alabek irain egiten diete gurasoei hizkera itsusiz, eta gurasoek haurrei; gizonak eta emakumeak animalien pare bihurtzen dira amodio-irrikeri jareginda". Mundariek ere, hosen senide eta auzokoak, oso antzeko jaia egiten dute. "Saturnalien antz oso-oso du, jai horietan etxaldeko nagusiek beren langileei jaia eskaintzen baitiete, eta hizketan askatasunik handiena ematen diete berekin jarduteko. Hau da uzta-etxearen jaia; urtebeteko nekearen amaia eta atsedeen arina, berriro ekin baino lehen".

Hindu Kusheko zenbait triburen artean, hosen eta mundarien artean bezala, deabruak iraitzea uztaroan izaten da. Udazkeneko azken uzta etxeratutakoan, izpiritu gaiztoak aletegietatik uxatu behar direla uste izaten dute. Morokil modukoa jaten da, eta familiburuak bere mosketea hartu eta lurrera tiro egiten du. Gero, kanpora irtenda, zeregin horri ekiten dio, kargatu eta tiro, harik eta bolbora-adarra hustu arte, auzokoek ere gauza bera egiten dute. Biharamuna festan ematen da. Chitralen jai horri "deabruak botatzea" deitzen zaio. Indiako khondek, ordea, ereiteko sasoian kanporatzen dituzte deabruak, ez uztaroan. Garai horretan Pitteri Penu gurtzen dute, era guztietako hazkundearen eta irabazien jainkoa. Lehen jai-egunean gurdi zarpaila egiten dute makila batzuen gainean jarritako saski batez, gurgiltzat banbuzko diskoak dituen. Apaizak tribuko oinordetzazko buruzagiaren etxera eramaten du lehenik gurdi hori, hari ematen baitzaio lehentasuna nekazaritzarekin zerikusia duten zeremonia guztietan. Han hazi-mota bakoitzetik pixka bat eta luma batzuk jasotzen ditu buruzagiak. Gero herriko beste etxe guztietara eramaten du gurdia, eta bakoitzean gauza berberak ematen dizkiote. Azkenez, gurdia herritik kanpoko soro batera eramaten dute mutil gazte guztiek, elkar joka eta airea bortizki makilatzen dutelarik. Hala eramandako haziari "izpiritu gaiztoen, hazi-hondatzaileen" parte esaten zaio. Izpiritu horiek gurdiarekin batera atera dituztela etsitzen dute; eta gurdia eta gurdiak dauzkan guztiak uzten dizkiete, hartara beste haziarekin nahasteko aitzakiarik ez dutelarik".

Balitarrek -Javaren ekialdean dagoen irla batekoek, alegia- deabru-iraitze handiak izaten dituzte aldian-aldian. Gehienetan, bederatzigarren hilabeteko "ilargi ilunaren" eguna

izan ohi da irazitako aukeratutako sasoia. Deabruak denbora luzez bakean utzi dituztenean, esan ohi da herrialdea "bero" dagoela, eta apaizak aginduak ematen ditu haiek bortxaz botatzeko, bestela Bali osoan ez legokeela-eta bizitzerik. Esandako egunean, herri edo eskualdeko jendea tenplu nagusian biltzen da. Han, bidegurutze batean, eskaintzak uzten dira deabruentzat. Apaizek otoitzak esan ondoren, adar-hotsez deitzen zaie deabrueri, beraientzako otordu batean parte hartzera etor daitezen. Aldi berean, gizon batzuk aurreratzen dira eta apaiz nagusiaren aurrean irazekita dagoen lanpara santuan pizten dituzte beren zuziak. Segidan, han daudenekin batera, alde guztietara barreiatzen dira, kaleetan zehar oihuka: "Alde! Zoazte hemendik!". Pasatzen diren leku guztietan, etxeetan dagoen jendea ere deabruak irazitzen parte hartzen du, ate, habe, arroz-errotatxo eta abarretan egundoko kolpeak joz. Etxeetatik hala botata, jeinuek beraientzako antolatutako otordura aldegiten dute; han, ordea, araoak esanez hartzen ditu apaiz batek, eta azkenean alde egiten dute. Azken deabruak aldegingindakoan, erabateko isiltasunak hartzen du zaratsaren lekua, eta biharamunean ere halaxe irauten du. Deabruak, hala pentsatzen dute, irrikitan egoten dira beren lehengo etxeetara itzultzeko eta, Bali ez dela Bali pentsa dezaten, irla deserturen bat baizik, inork ez dauka bere etxetik irteterik hogeita lau ordutan. Etxeko lan arrunta ere, sukaldekoa barne, eten egiten da. Begiraleek bestek ezin dute agertu kaleetan. Arantza eta hostozko sortak esekitzen dira sarrera guztietan, arrotzei herrira ez sartzeko abisatzeko. Hirugarren egunera arte ez da amaitzen setio-egoera hau, eta orduan ere debeku izaten dute arroz-sailetan lan egitea edo merkatuan salerosketan jardutea. Jenderik gehiena artean etxean geratzen da, denbora emateko karta eta dadoetara jokoan eginez.

Tonkinen, urtean behin egin ohi zen tehkydaw edo izpiritu gaiztoen irazte orokorra, batez ere gizon asko hiltzen zirenean, edota jeneralaren ukuiluko elefante edo zaldiak, edo herrialdeko aziendak, hiltzen zirenean, "horren kausa izpiritu maltzurak direlarik, hots, traizioagatik, matxinadagatik eta erregea, jenerala edo printzeak hiltzeko konspiratzeagatik heriotzara kondenatutako gizonen izpiritu maltzurak direlarik; nozitu duten zigor horren mendekua hartzeko, dena suntsitzeko eta bortizkeria izugarriak egiteko prest baitaude. Hori saihesteko, haien superstizioak thekydaw izeneko ospakizun hori ezartzea iradoki die, bide egokia delako deabrua botatzeko, eta herrialdea izpiritu gaiztoetatik garbitzeko". Zeremoniarako seinalatutako eguna otsailaren hogeita bosta izan ohi zen gehienetan, urte berria hasi eta handik hilabetera, urte berria urtarilaren hogeita bostean izaten baita. Tarteko hilabete hori jai-giroan, era guztietako atseginetan eta edozertarako baimena zutela pasatzen zuten. Hilabete osoan zehar, zigilu handia kaxa batean gordetzen zen, behera begira, eta legea, nolabait, lotan uzten zen. Justizi epaitegi guztiak ixten ziren; ez zegoen zordunak atxitzerik; krimen txikiak, hala nola lapurretak eta liskarrak, zigorrik gabe geratzen ziren; traizioa eta hilketak besterik ez ziren hartzen kontuan, eta gaizkileak atxitura edukitzen ziren zigilu handia berriro lanean hasi arte. Saturnaliak amaitzean, izpiritu zitalak bota egiten ziren. Tropa eta artilleria ugari lerro-lerro jarri ondoren, denak koloretsu eta gerrako dotorezia osoaz, "jenerala jakiak eskaintzen hasten zaie deabru kriminalei eta izpiritu gaiztoei (horrelaxe egiten baita haien artean, kondenatuei oturuntza eskaintzen zaie exekuzioaren aurretik), jatera eta edatera gonbidatuz, eta ondoren salatu egiten dituen hizkera arraroan, metaforaz, irudi erretorikoz eta abarrez betean, laido eta krimen asko egin dituztela-eta, hala nola herrialdeko bakea hautsi, elefanteak eta zaldiak hil e.a., eta horren guztiagatik zigorra eta herrialdetik egozte merkezi dutela. Ondotik, hiru kanoi handi dispartzen dituzten azken seinale gisa. Segidan, artilleria eta moskete guztiak deskargatzen dira, zarats izugarri hartan deabruak kanporatzeko; eta hain daude itsututa, non benetan ihesean jartzen dituztela sinesten baitute".

Kanboian izpiritu gaiztoen iraitzea martxoan izaten zen. Estatua eta harri hautsien puskak, deabruen egoitza zirelakoan, bildu eta hiriburura eramaten ziren. Han ahal beste elefante biltzen zituzten. Ilbeteko arratsaldean Mosketeriako deskargak disparatzen zituzten, eta elefanteak oldarrean abiatzen ziren deabruak ihesean jartzeko. Zeremonia hiru egunetan egiten zen hurrenez hurren. Siamen deabruak botatzea Urte Zahar egunean burutu ohi da urtero. Eskopeta bat disparatzen da jauregitik seinale gisa; hurrengo postutik erantzuten zaio, eta horrela postuz postu, harik eta tiroketa hiriko azken ateraino iritsi arte. Horrela, deabruak urratsez urrats botatzen dira. Hori egin bezain laster, sagarututako soka bat lotzen da hiriko harresien jiran, botatako deabruak itzultzerik izan ez dezaten. Soka hori askimotz lodiz eginga izaten da, eta zerrenda gorri, hori eta urdinetan margotua.

Deabruak, sorginak edo eragin gaiztoak urtero iraitzea gauza arrunta izan da, nonbait, Europako paganoen artean, halako usadioek ondorengoetan gaur arte utzi dituzten aztarnei kasu egiten badiegu. Hala, wotyak paganoen artean -Errusiako ekialdeko herri finlandiar bat-, herriko neska gazte guztiak bildu egiten dira urtearen azken egunean edo Urte Berri egunean, makilaz armatuta, makilen muturrak bederatzi lekutan zartatuta dituztelarik. Horietaz baliatuz etxe eta atari guztietako kantoiak jotzen dituzte, esanez: "Herritik kanpo botatzen ari gara Satan". Gero makilak erreka botatzen dituzte herria pasatu eta aurrerago, eta urak eramaten dituztelarik, Satan ere haiekin joaten da hurrengo herriraino, eta handik ere kanporatu egin behar izaten dute. Herri batzuetan, iraitzea bestela egiten da. Gizon ezkongabeek ertirina, okela eta pattarra hartzen dituzte herriko etxe guztietan. Soroetara eramaten dituzte, sua egiten dute izai baten azpian, ertirina egosi eta eramandako janariak jaten dituzte, hitz hauek esan ondoren: "Zoaz basamortura, ez sartu etxean". Gero herrira itzuli eta neska gazteak diren etxe guztietara sartzen dira. Heldu neska gazteei eta elurretara botatzen dituzte, esanez: "Gaixotasunaren izpirituek bakean utz diezazutela". Ertirinarekin eta beste janariaren hondarrak etxe guztietan banatzen dira, bakoitzak emandakoaren proportzioan, eta familia bakoitzak bere parte jaten du. Malmiz eskualdeko wotyak baten arabera, gizon gazteek etxeetan aurkitzen dituzten pertsona guztiak botatzen dituzte elurretara, eta horri "Satan botatzea" esaten omen zaio; gainera, egositako ertirin pixka bat sutara botatzen da hitz hauekin: "Oi Jainkoa, ez bidali guri gaixotasunik eta izurriterik, ez gaitzazu eman basoko izpirituen ehizatarako". Baina zeremonia horren formarik zaharrena Kasango wotyakek gordetzen dute. Lehenik, eguerdian, sakrifizioa eskaintzen zaio deabruari. Gero gizon guztiak zaldi gainean biltzen dira herriaren erdian, eta zein etxetatik hasi erabakitzen dute. Askotan liskar beroak sortu ohi dituen arazo hori erabaki ondoren, hesian lotzen dituzte zaldiak eta zartailuz, limoiondo-zurezko makilaz eta abartxo irazekizko sortaz armatzen dira. Abartxo irazekiek izuikararik handiena sorrarazten omen diote Satani. Hala armatuta, garrasi lazgarriak jaurtiz ekiten diote etxe eta atariko izkina guztiak jotzeari; gero atea itxi eta botatako deabruari tu egiten diote. Halaxe ibiltzen dira etxez etxe, harik eta deabrua etxe guzti-guztietatik bota arte. Ondoren, zaldietara igo eta herritik kanpora joaten dira, oihu basatiz eta makilak alde guztietara luzatuz. Herritik kanpora makilak bota eta berriz ere tu egiten diote deabruari. Txeremissek -Errusiako ekialdeko beste herri finlandiar bat- hormak limoiondoaren hagapuruaz jotzen botatzen dute Satan beren etxebizitzetatik. Xede horretarako, eskopetak disparatzen dituzte, lurra labanaz sastakatu eta egur-puska irazekiak sartzen dituzte arrailetan. Halaber, sutzarren gainetik salto egiten dute, hori egitean beren arropak astinduz; eta eskualde batzuetan limoiondo-azalezko turutei putz egiten diete deabrua ikartzeko. Basora hanka egiten duenean, oturuntzarako hornizio ziren gazta-opilak eta arrautzak jaurtitzen dizkiete zuhaitzei.

Europa kristauan, garai modernoetara arte iraun du urteko zenbait garaitan gaitzaren ahalmenak irazitako ohitura pagano zaharrak. Hala, Calabriako herri batzuetan, martxoari sorginen iraitzearekin ematen zaio hasiera. Gauean izaten da, elizako kanpai hotsekin batera. Jendea korrika eta "iritsi da martxoa" oihuka ibiltzen da kaleetan zehar. Martxoan sorginak batera eta bestera ibiltzen omen dira, eta zeremonia ostiral arrats guztietan errepikatzen da hilabete horretan. Lehenago esan dugun bezala, errito pagano zahar asko elizaren jaialdiei erantsi zaie. Albanian, Larunbat Santuan, gazte-jendeak erretxina-zuziak irazekitzen ditu eta prozesioan ibiltzen da, haiek astinduz, herrian zehar. Azkenean ibaira botatzen dituzte zuziok, oihuka: "Ei, Kore! Ibaira botatzen zaitugu, zuzi hauek bezala, inoiz itzul ez zaitezen". Silesiako nekazarien ustez, Ostiral Santuan sorginek beren errondak egiten dituzte, eta ahalmen handia dute gaiztorako. Horregatik, Oels ondoan, Strehlitzetik gertu, jendea erratz zaharrez armatuta ibiltzen da egun horretan, eta etxez etxe botatzen dituzte sorginak, etxaldez etxalde eta ukuiluz ukuilu, zarataka, kolpeka eta bazterrak harrotuz hori egitean.

Europako erdialdean, Walpurgisen gaua dute, edo zuten, sorginak kanporatzeko sasoirik gogokoena, alegia, maiatzaren lehenaren bezpera; izaki gaizto horien botereak beren gorenean egoten omen dira orduan. Tirolen, adibidez, beste leku batzuetan bezala, sasoi horretan gaitzaren ahalmenak iraitzeari "sorginak erretzea" deitzen zaio. Maiatzaren lehenean izaten da, baina aurreko egunetan jendea oso lanpetuta ibiltzen da prestaketetan. Ostegun gauerdian, sortatxoak egiten dira ezpal erretxinadunez, beltzez eta gorriz pintarkaturiko izaiz, tartikuz, erramuz eta elorri beltzaren abartxo. Horiek gorde eta Maiatzaren lehenean erretzen dituzte aurrez Elizaren barkamen osoa hartu duten gizonek. Apirilaren azken hiru egunetan etxe guztiak garbitzen eta fumigatzen dira ipuru-alez eta errudaz. Maiatzaren lehenean, ilunabarrean arratsaldeko kanpaiak jotakoan, "sorginak erretzea" hasten da. Gizonek eta mutilek ardaila handia egiten dute zartailuz, kanpaiz, lapikoz eta eltzez; emakumeek intsentsontziak eramaten dituzte; zakurrak kateatik jaregiten dituzte, eta zaunka eta uluka ibiltzen dira. Elizako kanpaiak jotzen hasi bezain laster, hagetan lotutako abartxo-sortei su ematen zaie, eta intsentsua erretzen da. Gero etxeetako kanpai eta ezkila guztiak jotzen dituzte, baita lapiko eta eltzeak ere; zakurrek ere zaunka egiten dute; denek atera behar dute zarata. Eta burrunba horren guztiaren artean, eztarria lehertu arte egiten dute denek garrasi:

"Sorginok, alde, alde hemendik, bestela gaizki behar duzue".

Gero zazpi bira egiten diete etxeei, atariei eta herriari. Hala, sorginak ketu eta beren ezkutalekueetatik botatzen dituzte. Sorginak Walpurgisen gauean botatzeko ohitura gordetzen da oraindik, edo gordetzen zen orain urte batzuk arte, Bavariako zenbait aldetan eta Bohemiako alemaniarren artean. Hala, Bohmerwaldeko mendietan, herriko mutil gazte guztiak biltzen dira ilunabarrean tontor jakin batean, bidegurutzeren batean bereziki, eta denbora batez zartailuak astintzen dituzte denek batera indar guztiaz. Horrek sorginak urruntzen omen ditu; izan ere, zartailu-hotsa entzuten den lekuetan, izaki gaizkile haiek ez daukate gaitzik egiterik. Leku batzuetan, mutil gazteak beren zartailuak astintzen ari direnean, artzainek adarrei egiten diete putz, eta adarren nota luze horiek, gauaren isilean oso urruneraino entzuten baitira, oso eraginkorrak omen dira sorginak irazitako.

Beste garai sorgindu bat Eguberrien eta Errege egunaren arteko hamabi egunak izaten dira. Horregatik, Silesiako zenbait aldetan jendeak pinuaren erretxina erretzen du gauero Eguberrien eta Urte Berri egunaren artean, ke sarkorrak sorginak eta izpiritu gaiztoak urrun ditzan etxetik eta etxaldeetatik; eta Eguberri bezperan eta Urte Berri bezperan tiroak jotzen dituzte soro eta zelaietan, zuhaixka eta zuhaitzak tirokatzen dituzte, eta lastoa lotzen dute frutarbolen biran, izpirituek kalterik egin ez diezaieten. Urte Berri

bezperan -San Silbestre egunean, alegia-, Bohemiako mutilak, eskopetaz armatuta, biribilean jartzen dira, eta hiru bider egiten dute tiro airera. Horri "sorginei tiro egitea" esaten zaio, eta sorginak beldurtu eta ihesean jartzen omen ditu. Hamabi egun sakratu horien azken eguna Epifania da, Hamabigarrena, eta Europako hainbat aldetan sasoi egokitzen jo izan da gaiztorakoak irazitako. Brunnenen, esate baterako -Luzernako lakuaren ertzean-, mutilak prozesioan joaten dira Hamabigarren gauean, zuziak eramanez eta adar, txintzarri, zartailu eta abarrekin zarata handia ateraz, basoko bi izpiritu eme, Strudeli eta Strateli, urruntzeko. Jendearen ustetan, nahikoa zarata ateratzen ez badute, fruitu gutxi izango omen da urte horretan. Orobat, Labrugièren, Frantziako hegoaldeko kantonamendu batean, Hamabigarren egunaren bezperan jendea kaleetan korrika ibiltzen da, txintzarriei eraginez, lapikoak joz eta zernahi eginez zaratotsa ateratzeko. Gero, zuzien eta egur-azaoen argitan, sekulako iskanbila ateratzen dute, belarriak zultzeko moduko abarrotsa, pentsatuz hartara inguruetan dabilzan izpiritu eta deabruak herritik botako dituztela.

lvii

Aker erru-jasale publikoak

1. Gorpuztutako gaitzak kanporatzea

Orain artean gaitzen irazte orokorraz jardun dugu, nik zuzen edo berehalako deitu diodanaz. Kasu horietan gaitzok ikustezinak dira, begi arruntentzat behinik behin, eta haietatik libratzeko modua airea kolpatzea eta egundoko zalaparta ateratzea izaten da gehienetan, izpiritu gaizkileak ikaratu eta ihesean jartzeko. Bigarren irazte-mota erakutsi behar dugu orain. Honetan, eragin gaiztoak ikusi egin daitezke, edo bitarteko material batengan daudela jotzen da gutxienez. Gaiztorako guztiak jendearengandik, herrixka edo herritik botatzeko jarduten du bitarteko horrek.

Kaliforniako pomoek zazpi urtez behin ospatzen dute deabruen iraztea. Abagune horretan, gizon moztortuak irudikatzen dituzte deabruak. "Hogei edo hogeita hamar gizon jantzi eta margo nabarrez prestatzen dira, eta bikedun ontziak jartzen dituzte buru gainean; ondoren, ezkutuan, ingurueta mendietara joaten dira. Horiexek egingo dute deabruena. Mezulari bat igotzen da bilera-etxearen gorenera, eta hitzaldia egiten dio jendetzari. Arratsaldean erabakitako seinale batera, moztortuak mendietatik etortzen dira, bikedun ontziak buru gainean garretan dituztelarik, eta zarata, mugimendu eta jantzien aldetik beldurgarri, basatiaren gogoak deabruak irudikatzeko asma ditzakeen arabera. Emakume eta haur ikaratuek ihes egiten dute bizia salbatzeko; gizonak biribil baten barruan sartzen dituzte deabruak eta, deabruaren kontra suaz borrokatzeko printzipioan oinarrituta, ilinti irazekiak jasotzen dituzte airean, garrasi egiten dute, alarauak botatzen dituzte, eta estropozo egiten dute deabru odolzaleekin, sekulako ikuskizuna sortuz, eta bildutako ehundaka emakumeen bihotzetan beldur handia eraginez; emakumeok beren babesleen atzean egoten dira, garrasika eta kordea galdu beharrean. Azkenez, deabruak bilera-etxean sartzea lortzen dute, eta gizonetan ausartena sartu eta haiekin hizketatzen da. Fartsa osoaren amaiera gisa, beren adore osoa bildu eta deabruak bilera-etxetik botatzen dituzte, eta txantxetako borrokaldi ikusgarriaz botatzen dituzte mendialderantz". Udaberrian, ibaiertzeko sahatsak hostoz bete bezain laster, mandan indiarrek urteroko jaialdi handia ospatzen zuten Jaialdiaren ezaugarri bat deabrua iraztea izan ohi zen. Gizon bat, beltzez margotuta deabruarena egiteko, herrian sartzen zen belazeetatik, emakumeei jazartzen zien eta beldurtu egiten zituen, eta bufaloarena egiten zuen bufaloaren dantzan. Dantzaren xedea hurrengo urterako bufalo ugari segurtatzea izaten zen. Azkenez, herritik botatzen zuten, emakumeek txistuka eta irainka jarraitzen ziotelarik, makilaz kolpatu eta lokatz-puskak botatzen zizkiotelarik.

Queensland erdialdeko zenbait tribuk sinesten dute badela Molonga izeneko izaki gaizto ikustezin bat, gizonak hil eta emakumeak bortxatuko lituzkeena, baldin eta zeremonia

batzuk egingo ez balira. Zeremonia horiek bost gau irauten dute, zeinetan gizonak, ikusgarri margotuta eta apainduta, dantzan egiten duten. Bosgarren gauean Molonga bera, okre gorri eta pinturaz jantzitako gizon batek pertsonifikatuta eta puntan lumak dituen lantza bat daramala, ilunetik irteten da lasterka ikusleengana eta haiek sastakatzeko keinua egiten du. Ikara handia izaten da, garrasi eta oihu handiak, baina beste txantxetako eraso baten ondoren, deabrua ilunean desagertzen da. Urteko azken gauean Kanboiako erregeen jauregia deabruz garbitzen dute. Deabruak bezala margotutako gizonen atzetik ibiltzen dira elefanteak jauregiko patioetan. Haiek kanpora bota ondoren, kotoizko hari sagaratu bat lotzen dute jauregiaren jiran, deabruak kanpoan gera daitezen. Munzerabaden -Indiako hegoaldeko Mysoreko barruti bat da hau-, kolerak edo baztangak herrixka bat jotzen duenean, biztanleek bildu eta gaixotasunaren deabrua konjuratzen dute zurezko irudi batean; hurrengo herrixkara eraman ohi dute, gauez gehienetan. Herrixka horretako biztanleek ere berdin pasatzen diete irudia auzokoei, eta hala deabrua herri herri botatzen dute, ibai baten ertzerara heldu arte; azkenean, hara botatzen dute.

Sarriago, ordea, bota behar diren deabruak ez dira irudikatzen inola ere; haiek eramaten dituen ageriko bitarteko materialean daudela jotzen da. Hemen ere noizbehinkako eta sasoi jakineko irazteak bereizi beharko dira. Lehenengoekin hasiko gara.

2. Gaitzak bitarteko bidez noizbehinka kanporatzea

Deabruak eramaten dituen bitartekoa hainbat motatakoa izan daiteke. Arruntenetako bat itsasontzi txikia edo txalupa izaten da. Hala, Ceram irlako hegoaldeko barrutian, gaixotasunak herri osoa mendea duenean, itsasontzi txikia egin eta herriar guztiek emandako arroz, tabako, arrautzak eta abarrez betetzen dute. Belatxoak altxatzen dute itsasontzian. Dena prest dagoenean, gizon batek esaten du ozen-ozen: "Oi zuek gaixotasunok, zuek baztangok, sukarrok, elgorriok e.a., hain luze bisitatu eta hain latz jo gaituzuenok, baina orain aldegingo duzuenok, zuentzat prestatu dugu itsasontzi hau, eta nahikoa hornizio jarri dizuegu bidaiarako. Ez duzue izango janari faltarik, ez betel-hostoen edo areka-intxaurren edo tabakoaren premiarik. Abia zaitezte, eta zoazte guregandik berehala; inoiz ez itzuli guregana; zoazte hemendik urrun dagoen lurralde batera. Utzi itsasaldiak eta haizeek bizkor eraman zaitzaten haraino, etorkizunean gu onik izan gaitzen, eta inoiz ikus ez dezagun eguzkia zuen gainean irteten berriro". Gero hamar edo hamabi gizonak itsasertzerara eramaten dute ontzia, eta jitoan uzten dute lehorretik jotzen duen haizetara, erabat sinetsita betiko libratu direla gaixotasunetik, edo hurrengo aldira arte behinik behin. Gaixotasunak berriz harrapatzen baditu, seguru izaten dira ez dela lehengo gaixotasun bera, beste bat baizik, hurrengoan era berdinean kanporatuko dutena. Deabruz zamatutako barkua bistaz galdutakoan, garraiatzaileak herrira itzultzen dira, eta han gizon batek esaten du oihuka: "Gaixotasunak joanak dira, ezabatuak, kanporatuak, itsasoan urrun". Hori entzutean jende guztia irteten da korrika etxeetatik, alaitasun handiz, gongoak eta tresnak jo, albiste ona elkarri jakinaraziz.

Antzeko zeremoniez baliatzen dira Indiako ekialdeko beste irla batzuetan. Hala, Timor-lauten, gaixotasuna eragiten ari diren deabruak engainatzeko, prao txiki bat, gizon baten irudia daukana eta bidaia luze baterako hornituta, jitoan uzten dute haizeak eta itsasaldiak eraman dezaten. Hura uretaratzerakoan, jendeak oihukatzen du: "Oi gaixotasun, zoaz hemendik; itzul zaitez; zer ari zara lur errukarri honetan?". Zeremonia hori baino hiru egun geroago zerria hiltzen dute, eta haragiaren parte bat eguzkian bizi den Dudilaa-ri eskaintzen zaio. Gizon zaharrenetako batek esaten du: "Jaun zahar hori, arren eskatzen dizut on egin diezaiezula bilobei, seme-alabei, emakume eta gizoni, zerria eta arroza jan, eta palma-ardoa edan ahal dezagun. Nik agindutakoari eutsiko diot. Jan ezazu zeure parte, eta egiozu on herriko jende guztiari". Praoak inor bizi ez den lekuren batean jotzen badu hondoa, gaixotasuna han zabalduko da. Horregatik, hondoa

jotako prao batek alarma handia sortzen du kostaldeko biztanleen artean, eta berehala erretzen dute, deabruak ihes egiten diotelako suari. Buru irlan gaixotasunaren deabruak urrunera eramaten dituen praoa hogeit bat oin luze izaten da, belaz, arraunez, ainguraz eta abarrez apailatua eta hornizioz ondo bete. Egun eta gau oso batez jendeak gongoak eta danborrak jotzen ditu, eta korrika ibiltzen da deabruak ikartzeko. Biharamun goizean hamar gizon gazte sasoikok jendea jotzen dute abarrez, abarrok aurrez ura duen lurrezko ontzi batean sartu ondoren. Hori egin bezain laster, hondartzara joaten dira korrika, jarri abarrak praoaren gainean, uretaratu beste ontzi bat bizkor, eta gaixotasunez betetako barkua atoian eramaten dute itsasoan barrena. Han uzten dute, eta haietako batek esaten du: "Baztanga aitona, zoaz urrun, zoaz urrun zeure borondatez; zoaz beste lurralderen bat bisitatzeraz; nahikoa janari eman dizugu bidaiarako, ez dugu beste ezer zuri emateko". Lehorreratzen direnean, jende guztia batera bainatzen da itsasoan. Zeremonia horretan argi dago jendea gaixotasunaren deabruak libratzeko jotzen dutela abarrez; deabruak abarretara aldatzen omen dira horrela. Horregatik jartzen dituzte bizkor abarrak praoan eta eramaten dute atoian itsasora. Hala, Ceramgo barrualdeko eskualdeetan, baztangak edo beste gaixotasunen batek astintzen dituenen, apaizak etxe guztiak jotzen ditu sagaratutako abarrez, eta gero abarrok ibaira botatzen ditu, urak itsasora eramane dituzte. Errusiako wotyakek ere gauza bera egiten dute: deabruak botatzeko erabili diren makilak ibaira botatzen dira, korronteak zorigaiztoko zama hura urrun eramane dezan. Ontzian panpinak jartzea, gaixoak irudikatzen, deabruak atzetik joan daitezen, ez da gauza arraroa. Adibidez, Borneoko itsasertzeko tribu pagano gehienek honela urrunarazi nahi izaten dituzte izurriteak. Giza irudi traukil samarrak lantzen dituzte sago palmondoaren muinez, eta ontzitzo edo txalupa batean jartzen dituzte, edota osorik apailatutako itsasontzi malakar batean, arrozarekin eta beste jaki batzuekin. Txalupa areka palmondoaren lorez eta hostoz egindako sortaz apaintzen dute, eta hala eramane dute itsasora itsasbeheran; jendea erabat sinetsita egoten da, edo espero izaten du, txalupak gaixotasuna eramango duela.

Askotan, komunitate oso baten deabru edo gaitz bilduak urrunera eramane dituen bitartekoa animalia edo aker erru-jasale bat izan ohi da. Indiako erdialdeko probintzietan, herri batean kolera hedatzen denean, denak erretiratzen dira etxera eguzkia sartu ondoren. Apaizek kaleetan desfilatzen dute, etxe bakoitzeko teilatutik lastoa hartuz, eta erre egiten dute herriko ekialdean den kapera batean, arroza, koipea eta kurkuma eskainiz. Buztingorritz lohitutako oilaskoak urrunarazten dituzte kearen norabidean, gaixotasuna berekin eramane dutelakoan. Horrek huts egiten badu, ahuntzekin egiten da proba, eta azkenean zerri guztiekin. Indiako bhar, mallan eta kurmien artean kolera sortzen denean, ahuntza edo bufaloa hartzen dute -bata nahiz bestea izan, animaliak emea izan behar du, eta ahal den beltzena- eta bizkar gaineko zapi hori batean ale, iltze eta lugorri pixka bat lotu ondoren, atzera herrira itzultzen dira. Animalia hori mugetatik kanpora eramane da eta ez zaio uzten itzultzen. Batzuetan bufaloa tinte gorritz markatzen da, eta ondoko herrira eramane, izurria berekin daramala.

Dinken artean -Nilo Zuriko artzain-herri bat-, familia bakoitzak badu bere behi sakratua. Lurralde hura gerrak, goseteak edo beste hondamendiren batek mehatxatzen badu, herriko buruzagiek behi sakratua emateko eskatzen diote familia bati, aker erru-jasale gisa baliatzeko. Abere hori emakumeek eramane dute ibai ertzera; ibaia zeharkatu eta han mortuan uzten dute noraezean piztiekin jan dezaten. Gero emakumeak isilik itzultzen dira, atzera begiratzeko; begiradaxo bat egingo balute atzealdera, zeremonia horrek ez omen luke ondoriorik. 1857an, izurrite batek Bolivia eta Peruko aimara indiarrek jo zituenen, llama beltz bat zamatu zuten izurriak jotako jendearen arrokekin, pattarra

isuri zuten arropen gainera, eta animalia mendian jaregin zuten, izurritea berekin eramango zuelakoan.

Batzuetan aker erru-jasalea gizakia izaten da. Adibidez, noizean behin jainkoek Ugandako erregeari abisatzen omen zioten banyorotar etsaiak magia egiten ari zirela beraren eta Ugandako herritarren kontra, gaixorik hil zitezen. Halako hondamendiari izuri egiteko, erregeak aker erru-jasale bat bidaltzen zuen Bunyoroko mugara, etsaien lurrera. Aker erru-jasalea gizona eta mutila edota emakumea eta beraren haurra izaten ziren, gorputzeko akats edo markaren bat zutelako aukeratuak, jainkoek seinalatutako biktimak zirelako, alegia. Giza biktimekin batera behia, ahuntza, hegaztia eta zakurra bidaltzen ziren; eta goardia indartsu batek laguntzen zien jainkoak seinalatutako parajera. Han biktimei besoak eta zangoak hausten zizkien eta poliki-poliki hiltzen uzten zien etsaien lurraldean, hebainguegi baitzeuden atzera Ugandara herrestatzeko. Gaixotasuna edo izurritea biktimengana pasatzen omen zen, eta haien bidez atzera sortua zen lekura itzultzen.

Txinako tribu batzuek, izurritearen kontrako babes gisa, indar handiko gizon bat aukeratzeko aker erru-jasalearena egiteko. Aurpegia pinturaz igurtzi ondoren, salto eta brinko batzuk egiten ditu, eragin gaizto eta izurritzko guztiek berari ez besteri eraso diezaioten asmoz. Apaiz batek laguntzen dio. Azkenez, aker erru-jasalea laster batean eramaten dute herritik kanpora, gizon eta emakumeak atzetik dituela, gongoak eta danborrak joz haserre. Punjaben, epizootia (animalien gaitz bat) sendatzeko, txamar kastako gizona alokatzen dute; herritik kanpora begira jarri, markatu sutan goritutako igitai batez, eta oihanean barrena joaten uzten diote, gaitza berekin daramala. Gizon horrek ez du atzera begiratu behar.

3. Gaitzak bitarteko bidez sasoi jakinean kanporatzea

Deabruak, aker erru-jasale baten edo beste bitarteko materialen baten bidez iraitzek, iraitzeko beste moduak -ikustezinak- bezala, aldikakoa bihurtzera jo ohi du, eta antzeko arrazoi batengatik. Esate baterako, Leti, Moa eta Lakorkoek -Indiar artxipelagoko irlak dira hauek-, urtero, gehienetan martxoan, itsasora bidaltzen dituzte beren gaixoak. Sei oin luze den praoa egiten dute; belak, arraunak, lema eta bestelakoak jartzen dizkiote, eta familia guztiek uzten dute bertan arroza, fruituak, hegazti bat, bi arrautza, soroak kaltetzen dituzten intsektuak eta abar. Gero jitoan uzten dute itsasoan, esanez: "Bihoaz hemendik gaixotasun-mota guztiak, bihoaz beste irla batzuetara, beste lurralde batzuetara, bana bitez eguzkia irteten den aldera dauden lurretan". Borneoko biadjatarrak urtero bidaltzen dute itsasora itsasontzi txiki bat, jendearen bekatu eta zorigaitzoez zamatuta. Itsasoan barku zorigaitzekoarekin topo egiten duen itsasontziko eskifaiak hura zamatzen duten gaitz guztiak jasango ditu. Antzeko ohitura dute urtero Borneo Britainiarreko iparraldean den Tuaran eskualdeko dusunek. Zeremonia hori urteko garrantzitsuena da. Hurrengo urtean, herrira zorte ona ekartzea du xede, azken hamabi hilabeteetan zehar hango etxeetan bildu bide diren izpiritu gaizto guztiak handikiro botaz. Deabruak garaitzeko eta botatzeko zeregina emakumeei dagokie batez ere. Beren jantzi onenez apainduta, prozesioan ibiltzen dira herrian zehar. Emakume batek txerrikumea eramaten du bizkarrean saski batean; eta beste guztiek ziritxoak izaten dituzte, eta behar denean haiekin jotzen dute txerrikumea; animalia kurrinkek noraezean dabilzan izpirituak erakartzen dituzte. Etxe guztietan, emakumeek dantzan eta kantuan egiten dute, kriskitinak edo brontzezko zinbaloak klaskatuz eta brontzezko txintzarri-sortak astinduz bi eskuetan. Hori etxe guztietan egindakoan, ibaira joaten da prozesioa, eta izpiritu gaizto guztiak, jokalariek etxeetatik atera dituztenak, atzetik joaten zaizkio ur ertzera. Han baltsa bat izaten da prest ertzean, janariz, arropaz, sukaldeko ontziz eta eskainitako ezpataz zamatuta; eta baltsa-gaina gizonen, emakumeen, animalien eta txorien irudiz beteta egoten da, denak ere sago

palmondoaren hostoz eginak. Izpiritu gaiztoak baltsara igotzen dira, eta denak bertan direnean, bultza egiten zaio eta korronteak herresta dezan uzten da, deabruak daramatzala. Baltsak herritik gertu hondoa joz gero, bultza egiten zaio bizkor, bidaiari ikustezinek lehorreratzeko eta herrira itzultzeko aukera aprobeitza ez dezaten. Azkenez, txerrikumearen sufrikarioari, haren kurrinkek erakarri baitituzte deabruak beren ezkutalekueetatik, heriotzak jartzen dio azkena: hil eta bota egiten dute.

Urtero, sasoi lehorraren hasieran, Nicobar uharteetako biztanleek itsasontzi baten modeloa eramaten dute beren herrietan zehar. Deabruak etxoleetatik atera eta itsasontzitzora eramaten dituzte, eta hura itsasoratu eta haizearekin nabigatzen uzten zaio. Katekista batek deskribatu du zeremonia, 1897ko uztailean lekuko izan baitzen Car Nicobarren. Hiru egunetan jendea oso lanpetuta ibili zen kanoa-itxurako bi ontzi oso handi prestatzen, beladunak, eta deabruak botatzeko balio zuten hosto jakin batzuekin zamatatuak. Gazte-jendea hartan ari zen bitartean, araolariak eta zaharrak etxe batean zeuden eserita, kantuan txandaka ari zirelarik; baina sarritan irten, makilaz armatuta hondartzara joan eta debekatu egiten zioten deabruari herrira sartzea. Jaialdi hartako laugarren egunaren izenak "deabrua nabigatzera botatzea" esan nahi du. Arratsaldean herritar guztiak bildu ziren, emakumeek errauts-saskiak eta deabruak botatzeko hosto-sortak zeramatzatela. Hosto haiek denen artean banatu ziren, gazteen zein zaharren artean. Dena prest zegoenean, gizon indartsuz osatutako saldo batek, araolarien zaintzaile bat lagun zutela, itsasora eramane zuen ontzietako bat, herriko hilerriaren eskuinaldean, eta uretan utzi zuen jitoan. Itzuli bezain laster, beste gizon-saldo batek hondartzara eramane zuen beste ontzia, eta berdin utzi zuen uretan, hilerriaren ezker aldean. Deabruz zamatutako barkuak itsasoratutakoan, emakumeek errautsak bota zituzten ertzetik, eta jende guztia oihuka hasi zen: "Alde hemendik, deabru, alde hemendik eta ez itzuli inoiz!". Haizea eta itsasaldia alde izanik, kanoak bizkor urrunduz ziren; eta gau hartan jende guztiak elkarrekin afaldu zuten alaitasun handiz, deabrua Chowrarantz aldeginaz zelako. Antzeko deabru-iraizteak izaten da urtean behin Nicobarko beste herri batzuetan; baina zeremoniak sasoi eta leku desberdinetan izaten dira.

Txinako tribu askok jaialdi handia ospatzen dute urtero hirugarren hilabetean. Festa handia egiten da, joandako hamabi hilabeteetako gaitzak erabat deusezte aldera. Suntsiketa, segidan adieraziko den bezala izaten omen da. Lozazko pitxer handi bat lurperatzen dute, bolboraz, harriz eta burdina-puskaz beteta. Bolbora-arrasto bat uzten da pitxerrerraino; pospolo bat piztu, eta pitxerra eta pitxerrak dauzkanak leherrarazten dira. Harriek eta burdina-puskek aurreko urteko gaitz eta hondamendiak irudikatzen dituzte, eta leherketak haiek barreiatutakoan, gaitz eta hondamendiok ezabatu egiten omen dira. Jaialdian orgia eta mozkor galantak izaten dira.

Calabar zaharrean, Gineako kostan, bi urtez behin kanporatzen dira, edo ziren, publikoki, deabru eta izpirituak. Beren gordelekuetatik hala botatako izpirituen artean hiriko azken arazketatik aurrera hildako jende guztiaren arimak daude. Iraiztea baino hiru aste edo hilabete lehenago -kontakizun baten arabera, azaroan izaten da hau-, gizaki eta animalien irudi zarpailak -krokodilo, leopardo, elefante, zezen eta txorienak- egiten dira zumitzez edo zurez, eta zapien hariz lotu eta purtzileriaz apaindu ondoren, etxe guztien aurrean ipintzen dira. Goizaldeko hirurak aldera, zeremoniarako seinalatutako egunean, jende guztia irteten da kaleetara. Zaratots izugarritz eta egundoko asalduraz, ezkutuan diren deabru eta izpirituak irudietara eramane hasten dira, zertarako eta irudiekin batera botatzeko beren etxebizitzetatik. Hartarako, jende-saldoak ibiltzen dira kaleetan zehar, ate-joka, armak disparatzen, danborrak jotzen, adarrei puzka, txintzarriak astintzen, lapikoak eta sartaginak jotzen, orroka eta oihuka beren ahal osoan, hots, ahalik eta zaratarik handiena ateraz deabruak haizatzeko. Zalapartak

egunsentia hurbildu arte irauten du, eta orduan ematen hasten da, eguzkia irtetea erabat amaitu arte. Garai horretarako, etxeak erabat garbitu dira, eta izpiritu ikaratu guztiak irudietan edo irudien jantzetan sartu direla jotzen da. Etxeetako hautsak eta bezperako suen errautsak ere zumitzezko irudi horietan uzten dira. Deabruz betetako irudiak bizkor hartu, prozesio oldetsuan ibai ertzera eramane eta uretara botatzen dituzte danborren tarrapata artean. Itsasbeherak itsasoan barrualdera eramaten ditu, eta hartara hiria izpirituz eta deabruz garbituta geratzen da beste bi urterako.

Gorpuztutako gaitzak urtero iraitzea ez da ezezaguna Europan. Larunbat Santuaren arratsaldean, Europako hegoaldeko ijitoek zurezko ontzia hartzen dute, sonbreroentzako kaxa baten antzekoa, zurezko bi zati gurutzaturen gainean sehaska baten gisan dagoena. Han jartzen dituzte belar sinpleak, baita hildako suge edo musker ihartua ere, bertan diren guztiek aurrez beren hatzez ukitu behar dutena. Ontzia kotoi zuri-gorritan biltzen dute, eta gizon zaharrenek eramaten dute dendaz denda, eta azkenean erreka batera botatzen dute; ez, ordea, taldeko kide guztiek behin tu egin gabe, eta sorginak arao batzuk jaurti gabe. Sinestea dute zeremonia hori eginez ezabatu egiten dituztela bestela urtean zehar izango lituzketen gaitz guztiak; eta inork ontzia aurkitu eta jakinminak eramanda irekitzen badu, beste herritarrek bisitatuko ez dituzten gaixotasun guztiek bisitatuko omen dute bera eta bere ingurukoak.

Aker erru-jasalea, zeinen bitartez urte osoan metatutako gaitzak publikoki botatzen diren, animalia izaten da batzuetan. Adibidez, Assamgo garoen artean, "norbanakoen gaixotasunentzako sakrifizioez gainera, badira urtean behin komunitate edo herri oso batek egiten dituen zenbait zeremonia, hurrengo hamabi hilabeteetan komunitate edo herri horretako kideak basoko arrisku, gaixotasun eta zorigaitzetatik babesteko. Zeremonia horietan nagusia Asongtata izenekoa da. Herri handi guztietako alderrien ondoan hainbat harri ikusten dira, lurtean sartuta, itxuraz ordena edo taxu jakinik gabe. Asong deritze, eta horien gainean eskaintzen da Asongtatak eskatzen duen sakrifizioa. Ahuntz baten sakrifizioa izaten da, eta handik hilabetera langur batena (Entellus tximinoa) edo banbuetako arratoi batena jotzen da beharrezko. Aukeratutako animaliak soka bat izaten du lepo inguruan, eta bi gizonak eramaten dute, alde banatatik, herriko etxe guztietara. Txandaka, etxe guztietan sartzen dute eta, bitartean, bildutako herritarrek hormak kolpatzen dituzte kanpoaldetik, bertan egoitza hartuta dauden izpiritu gaizto guztiak ikaratu eta kanporatzeko. Herri-jira egin ondoren, tximinoa edo arratoia herriko alderrietara eramaten da, eta dao-kolpe batez erraiak aterata akabatzen dute, eta gero lurtean jarritako banbuen gainean gurutziltzatzen dute. Gurutziltzatutako animalia inguruan banbuzko hesola zorrotzak jartzen dira biran, chevaux de frise-ak bailiran. Hauek herrien jiran giza etsaiak kanpo uzteko gisa honetako defentsak zeudeneko garaia gogorazten dute, eta orain basoko piztietatik datozkeen gaixotasunetatik eta bizitzako arriskuetatik gordetzeko sinboloak dira. Horretarako behar den langurra egun batzuk lehenago ehizatzen da, baina hori ezinezkoa balitz, tximino nabar batek har dezake haren lekua; ezin da erabili giboimotako tximinorik". Horrelakoetan, gurutziltzatutako tximinoa edo arratoia aker erru-jasale publikoa da; beraren sufrimenduei eta heriotzari esker, jendea gaixotasun eta zorigaitz orotarik libratzen da hurrengo urtebetean.

Orobat, urteko egun jakin batean Juharko bhotiyek, Himalaiako mendebaldean, zakur bat hartu, pattarrez eta bang edo kalamuz mozortu eta gozokiak jaten emane ondoren, herri inguruetara eramane eta han jaregiten dute. Gero atzetik joane eta hil egiten dute makilaz eta harrika, eta sinesten dute ezen, hori egin ondoren, gaixotasun edo zorigaitzek ez dutela bisitatuko herria urtean zehar. Breadalbaneko zenbait aldetan Urte Berri eguneko usadioa zen antzina zakur bat ateondora eramane, ogi-pusketa eman eta kanpora ateratzea, esanez: "Alde hemendik, zakurra! Etxe honetan aurten inork hil edo

ganaduak galdu beharko balu, gainera eror bekik dena!". Pekamen-egunean - zazpigarren hilabeteko hamargarren egunean, alegia-, juduen apaiz nagusiak ahuntz bizi baten buru gainean ezartzen zituen eskuak, haren gainean aitortzen zituen Israelgo seme-alaben bekatu guztiak, eta hala jendearen bekatuak abereagana aldatuta, basamortura bidaltzen zuen.

Gizaki bat ere izan daiteke jendearen bekatuak aldika bere gain hartzen dituen aker erru-jasalea. Onitshan, Niger ibaiaren ondoan, bi gizaki sakrifikatzen zituzten urtero herrialdeko bekatuak garbitzeko. Biktimak jendeak jarritako diruaz erosten ziren. Aurreko urtean bekatu larriak egindako pertsona guztiek, hala nola erreketak, lapurretak, ezkontza-haustek, sorginkeriak eta abar, 28 nguga, bi libra inguru, eman behar izaten zuten. Hala bildutako dirua herrialdean barrualdera eraman eta bi pertsona ahul erosteko erabiltzen zen, "sakrifiziotan eskainiak izateko krimen nardagarri guztiengatik; bat lurrarentzat eta bestea ibaiarentzat". Auzo-herriko gizon bat kontratatzen zuten haiek hiltzeko. 1858ko otsailaren hogeita zazpian J. C. Taylor elizgizona halako biktima baten sakrifizioaren lekuko izan zen. Koitadua hemeretzi-hogei urte inguruko emakumea zen. Bizirik eraman zuten lurretik herrestan, ahozpe, erregearen etxetik ibaira, hiru kilometroko tartean; jendeak oihu egiten zion: "Gaiztakeria! gaiztakeria!". Xedea "lurraldeko gaiztakeriak garbitzea zen. Gorputza errukirik gabe herrestatu zuten, beren gaiztakeria guztien pisua eramango bailuten". Antzeko usadioak praktikatzen omen dituzte oraindik ere urtero Niger ibaiaren deltako tribu askok, britainiar gobernuaren begiraletza eta guzti. Afrikako mendebaldeko yoruben artean, "sakrifiziorako aukeratutako giza biktimari (libre jaiotakoa nahiz esklaboa, jatorri noble edo aberatseko pertsona nahiz jaiotza apalekoa izan daiteke), Oluwo deitzen zaio hartarako aukeratu eta markatu eta gero. Ondo ematen diote jaten, eta nahi duen guztia ematen diote bere itxialdian. Sakrifikatua izateko eguna etorritakoan, gehienetan erregearen hiriko kaleetan zehar erabiltzen dute batera eta bestera; honek bere gobernuaren eta menpeko familia eta norbanako guztien mesedetan sakrifikatzen du, denen bekatu, erru, zorigaitz eta heriotzak eraman ditzan, guzti-guztiak. Errautsak eta igeltsua erabiltzen dira nor den ezkutatzeke, lehena buru gainera erruz botatz, eta bigarrena aurpegia margotzeko. Herritarrak beren etxeetatik korrika irteten eta eskuak gainean ezartzen dizkiote beren bekatu, erru, arazo eta heriotzak hari pasaratzeke". Desfile hori amaitutakoan, hiri barruko jainkotegi batera eraman eta lepoa mozteten diote. Azken hitzak edo orroak entzundakoan, kanpoan bildutako jendearen artean alaitasuna lehertzen da, sinesten baita sakrifizioa onartua izan dela eta jainkoen haserrea ematu dela.

Siamen, urteko egun batean, usadioa zen galdukeriak zafratutako emakume bat aukeratzea, eta andetan eramatea kaleetan zehar danborren eta oboeen musikaz. Jendetzak iraindu eta gorotza jaurtitzen zion; eta hiri osoan zehar garraiatu ondoren, goroztegi batean edo arantza artean botatzen zuten hiriko harresiez kanpoaldean, eta atzera barrura sartzea debekatzen zioten. Uste zuten emakume hark bere gain hartzen zituela aireko eta izpiritu gaiztoen eraginak. Sumatrako batakek zaldi gorria edo bufaloa eskaintzen dute sakrifizio publiko gisa, lurraldea arazteko eta jainkoen faborea lortzeko. Lehenago gizon bat lotzen omen zuten bufaloaren haga berean, eta animalia hiltzen zutenean gizona iraitzi egiten zuten; inork ez zezakeen etxean har, harekin hitz egin edo hari janaria eman. Zalantzarik gabe, jendearen bekatuak eta zorigaitzak berekin zeramatzala jotzen zuten.

Batzuetan aker erru-jasalea jainkozko animalia bat izaten da. Malabarko jendeak hinduek dioten begiramen berbera dio behiari; behia hil eta jatea "gizakia erailteza bezain krimen izugarritzat jotzen dute". Hala ere, "brahmanek behi bat edo gehiagorengana aldatzen dituzte jendearen bekatuak, eta urrun eramaten dituzte, hala

behiak nola bekatuen zama, brahmanak aurrez seinalatutako lekura". Antzinako egiptoarrek zezena sakrifikatzen zutenean, bestela beraien edo Egiptoko lurraren gainera eror zitezkeen gaitz guztiei egiten zieten dei animaliairen baitan sar zitezen, eta ondoren grekoei saltzen zieten zezenaren burua, edo ibaira jaurtitzen zuten. Ez dago esaterik ezagunak zaizkigun garaietan egiptoarrek oro har zezenak gurtzen zituztela, arrunki hil eta jan egiten baitzituzten, dirudienez. Baina zirkunstantzia askok aditzera ematen dutenez, hasieran egiptoarrek sakratutzat zeuzkaten ganadu guztiak, hala zezenak nola behiak. Izan ere, behiak sakratutzat eduki eta inoiz ez sakrifikatzeaz gainera, zezenak ere ezin sakrifika zitezkeen berezko marka jakin batzuk ez bazituzten; apaiz batek zezen guztiak aztertzen zituen sakrifikatu aurretik; animaliak marka haiek bazituen, bere zigilua jartzen zion gainean, sakrifikatua izan zitekeelako seinale; eta norbaitek zigilatu gabeko zezena sakrifikatzen bazuen, hil egiten zuten. Gainera, Apis eta Mnevis zezen beltzen gurtzak, batez ere lehenarenak, leku nabarmena zuen Egiptoko erlijioan; berez hiltzen ziren zezen guztiak kontu handiz ehorzten zituzten hirietako alderrietan, eta haien hezurak Egiptoko alde guztietatik bildu eta leku bakar batean lurperatzen zituzten; eta Isisen errito handietan, zezena sakrifikatzerakoan, gurtzaile guztiak bular-kolpeka eta lantuka aritzen ziren. Oro har, beraz, ondorio hauxe atera genezake: zezenak jatorriz, behiak bezala, sakratutzat jotzen zituztela egiptoarrek, eta jendearen zorigaitzak bere gain hartzen zituen zezen hila jainkozko aker erru-jasalea izan zela behinola. Baliteke Afrikako erdialdeko madiak urtero hiltzen duten arkumea ere jainkozko aker erru-jasalea izatea; eta uste berberak esplikatu luke zuniak dortoka sakrifikatzea.

Bukatzeko, aker erru-jasalea izan daiteke jainkozko gizona ere. Adibidez, azaroan, Indiako gondek Ghabsyam Deo gurtzen dute, ereinen zaindaria, eta jaialdi horretan jainkoa bera jaisten omen da bere gurtzaileetako baten buru gainera; gurtzailea halako dardarizo batek hartzen du eta, zabuka hasita, oihanean barrentzen da lasterka; bere kasa utziz gero, erotuta hilko omen litzateke. Atzera ekarri egiten dute, ordea, baina egun bat edo bitan ez da bere onera etortzen. Jendeak pentsatzen du gizon hura besteengandik bereizita geratzen dela herritar guztien bekatuengatik aker erru-jasale izateko. Ilargiaren tenpluan, Kaukasoko ekialdeko albaniarrek esklabo sakratuak izaten zituzten, asko eta asko goi-arnasak hartuak eta iragarpenak egiten zituztenak. Haietako batek goi-arnasak hartuta zegoelako edo eromenaren ohi baino seinale gehiago erakusten zuenean, eta basoetan zehar batera eta bestera bakarrik alderrai ibiltzen zenean, gondak oihanean bezala, apaiz nagusiak katea sakratuz lotu eta urtebetez modurik onenean mantentzen zuen. Urtea amaitutakoan ukenduz igurtzi eta sakrifikatzera eramaten zuten. Ogibidea giza biktimak haiek hiltzea zuen gizon batek, arituaren poderioz ondo trebatuta, jendartetik aurreratu eta lantza sakratua jaurtitzen zion, eta bihotzean zatzatzen zuen. Hildako gizona erortzeko eratik aztiapenak ateratzen ziren denen ongizateaz. Gero leku batera eramaten zuten gorpua, eta jende guztia egoten zen haren aurrean zutik, arazteko zeremonia gisa. Azken zirkunstantzia honek argi eta garbi adierazten du jendearen bekatuak biktimari pasatzen zitzaizkiola, apaiz juduak jendearen bekatuak aker erru-jasaleari pasatzen zizkion bezalaxe, eskuak animaliairen buru gainean ezarritik; eta gizona jainkozko izpirituak hartuta zegoela sinesten zenez, hortxe dugu adibide segurua, giza jainkoa jendearen bekatuak eta zorigaitzak aienatzeko nola hiltzen zuten.

Tibeten aker erru-jasalearen zeremoniak baditu zenbait ezaugarri azpimarragarri. Tibetar Urte Berria otsailaren hamabosta inguruan agertzen den ilargi berriarekin batera hasten da. Ondorengo hogeita hiru egunetan, Lhasa hiriburuko gobernua ohiko gobernarien eskuetatik kendu eta Debangeko monastegiko monako bati ematen zaio, pribilegio horregatik dirutzarik handiena eskaintzen duenari. Enkantea irabazitakoari Jalnoa deitzen diote, eta hark berak iragartzen du boterera igotzea, eskuan zilarrezko makila duela dabilelarik Lhasako kaleetan zehar. Inguruko monastegi guztietako

monakoak biltzen dira hari gorazarre egiteko. Jalnoak bere apeta eta aldarteen arabera erabiltzen du agintea erabat, bere mesedetan, ezartzen dituen isun guztiak beretzat hartzen baititu. Ateratzen dituen irabazi guztiak enkantean ordaindutakoa baino hamar aldiz handiagoak izaten dira. Haren gizonak kaleetan zehar ibiltzen dira, biztanleen jokabidean akatsen bat noiz aurkituko. Lhasako etxe guztiei ezartzen zaizkie zergak, eta hutsegiterik arinenagatik isunik gogorrenak ordaindu behar izaten dira. Jalnoaren zorrozatasun honen kausaz, langile-jendeak hiritik aldegiten du hogeita hiru egunak pasatu bitartean. Baina herritarrek alde egiten badute ere, elizgizonak etortzen dira. Herrialde hartako monastegi budista guztiek ateak irekitzen dituzte, eta bertan bizi direnak kanporatzen. Inguruetako mendietatik Lhasara doazen bide guztiak monakoz betetzen dira, hiriburura presaka, batzuk oinez, beste batzuk zaldiz, beste batzuk astoz edo idi marrumariz, denak ere bere otoitz-liburuak eta jateko tresnak aldean dituztela. Hainbestekoa da jendearen emana, non hiriko kale eta plazak mukuru betetzen baitituzte haien longaina gorriek. Anabasa eta nahasmena ezin esateko modukoak izaten dira. Gizon santu haien saldoak kaleetan zehar ibiltzen dira otoitzak kantatuz edo garrasi latzak jaurtiz. Batu, jostatu, liskartu, borrokatu egiten dira. Sudurrak odoletan, begiak beztuta eta buruak hautsita, horra hango hartu-emanen ondorioak. Halaber, egun osoan zehar, egunsentitik ilundu arte, monako jantzigorri haiek elizkizunak izaten dituzte Lhasako katedrala den Machindranatheko tenpluan, intsentsu-keen artean; eta hara joaten dira egunean hirutan, tea, zopa eta dirua limosnatan jasotzera. Katedrala eraikin handia da, hiriaren erdi-erdian dagoena, eta bazarez eta dendaz inguratua. Bertako idoloak urrez eta harribitxiz titakatuta daude.

Jalnoak bere agintea galdu eta hogeita lau egunera, berriro hartzen du, eta beste hamar egunez aurrez bezala, bere apeta eta aldarteen arabera erabiltzen du. Hamar egun horien lehenengoan apaizak katedralean biltzen dira, jainkoei errezatzen diete jendeak gaixotasunik eta beste kalterik izan ez dezan, "eta, bake-eskaintza gisa, gizon bat sakrifikatzen dute. Gizon hori ez dute nahitaez hiltzen, baina jasaten duen zeremonian maiz gertatzen da hiltzea. Alea jaurtitzen diote burura, eta aurpegi erdia zuri eta beste erdia beltz margotuta izaten du". Hala moztortuta, eta larruzko berokia besoan duela, Urteen Errege izendatzen dute, eta merkatuko plazan eserita egoten da egunez, nahi duena eginez eta batetik bestera ibiliz, jendearen gainean jak baten buztana astinduz, hala besteen zorte txarra bereganatzen duelarik. Hamargarren egunean, Lhasako tropa guztiak tenplu handira joaten dira eta lerro-lerro paratzen dira haren aurrean. Urteen Erregea tenplutik ateratzen da eta opari txikiak egiten dizkio. Berak Jalnoa barregarri uzteari ekiten dio, esanez: "Bost sentimenetatik jasotzen duguna ez da irudipen hutsa. Zuk irakasten duzun guztia gezurra da", eta horrelakoak. Jalnoak, etortzeko den Lama Handiaren ordezkari baita, iritzi heretiko haiei erantzuten die; eztabaida berotuz joaten da, eta azkenean biak ados jartzen dira auzia dadoetara erabakitzeko; Jalnoak tiraldietan galtzen badu, lekuak trukatzeko eskaintzen dio aker erru-jasaleari. Urteen Erregeak irabazten badu, gaitz asko etorriko diren seinale; baina Jalnoak irabazten badu, hango bozkarioa!, horrek frogatzen baitu jainkoek onartu egin dutela arerioa, Lhasako biztanleen bekatu guztiak bere gain hartzeko. Fortuna, ordea, beti Jalnoaren alde agertzen da: seiak ateratzen ditu behin eta berriz, kontrakoak berriz bata besterik ez. Ez da harritzekoa, lehen begiratuan hala badirudi ere: Jalnoaren dadoek seiak besterik ez baitute markatuta, eta bestearenek bata besterik ez. Probidentziaren hatza hain argi eta garbi beraren kontra ageri dela ikusten duenean, izuikarak hartzen du Urteen Erregea, eta zaldi zuri baten gainean egiten du hanka, zakur zuri bat, txori zuri bat, gatza eta abar berekin daramatzalarik, denak ere gobernuak emanak. Aurpegia erdia zuri eta erdia beltz izaten du orduan ere, eta larruzko jantzia izaten du soinean. Jendetza guztia joaten zaio atzetik, garrasika eta oihuka, eta balarik gabe tirokatuz. Hiritik hala botata, zazpi

egunez atxilotzen dute izugarrikerien kamera handian, Samyasko monastegian, mustroz eta deabruen irudi beldurgarritz, sugetzarren eta piztien larruz inguratuta. Gero Chetangeko mendietara abiatzen da, eta han legez kanpo geratu behar izaten du hainbat hilabetez edo urtebetez kobazulo estu batean; baina bizirik irteten bada, itzul daiteke Lhasara, hurrengo urtean berriz ere aker erru-jasalearen partea jokatzera.

Zeremonia arraro hori urtero egiten da oraindik ere budismoaren hiriburu isolatuan - Asiako Erroman-, eta interesgarria da, hainbat gauza erakusten dituelako, argi markatutako estratifikazio erlijiosoan: salbatzaileak salbatuta, sakrifizio bikarioak era bikarioz eskainita, jainkoak fosilizazio-prozesua jasaten -hots, pribilejioei eusten dietelarik, baina jainkotasunaren neke eta lanen zamatik libratu direlarik-. Jalnoari batere nekerik gabe antzematen diogu aldi baterako erregeen ondorengoa dela, beren biziaren truke botere eta loria pixka bat lortzen zuten jainko hilkor haiena. Egia da Lama Handiaren aldi baterako ordezkoa dela; jendearen aker erru-jasale gisa jardun beharra duela -edo behinola zuela- ere egia hurbil dago, benetako aker erru-jasalearekin -Urteen Erregearekin-, dagoen epaia kontra gertatzera, lekuak trukatzeko eskaintzak erakusten duenez. Egia da gaur egun arazoa ausaz konpontzeko jarritako baldintzek forma huts bihurtu dutela eskaintza hori. Baina forma horiek ez dira perretxikoak bezala agertu, ez dira gauetik goizera sortu. Orain bizirik gabeko formalitateak badira, esanahirik gabeko azal hutsa, seguru egon gaitezke behinola bizia eta esanahia zituztela; gaur egun inora ez doazen bideitsuak badira ere, aspaldiko egunetan norabait iristeko bideak ziren; heriotzara, besterik ezean. Tibeteko aker erru-jasaleak, merkatuko plazan aldi labur bat izan ondoren, heriotza zuela zain, arrazoibidea bere alde duen aierua da. Analogiak iradokitzen digu: balarik gabeko tiroek, zeremoniak askotan heriotza ekartzen ziola dioen aipuak, haren heriotza iragarpen ona delako sinesteak, denek baieztan dute hori. Ez da harritzekoa, beraz, Jalnoak, aste batzuetan jainko gisa aritzea hain garesti ordaindu ondoren, nahiago izatea besteren bidez hiltzea, bera hiltzea baino, denbora hori etortzean. Beraz, betebeharrak mingarri baina nahitaezkoa gizajoren bati gaineratzen zioten, gizartearen arauak kanpokoren bati, biziak gogor tratatutako zorigabekoren bati; halako batek laster onartuko zuen bere bizia egun gutxi batzuen buruan akabatzea, bitarte horretan bere apetak asetzea libre bazuen. Ohar bedi jatorrizko ordezkariari -Jalnoari- ematen zitzaion denbora asteka neurtzen zela, eta ordezkariaren ordezkariari, berriz, egunka: hamar egun zituen, aditu baten arabera; zazpi egun, beste baten arabera. Hain soka motza, ez bairik gabe, nahikoa luze jotzen zen hain ardi beltz edo ahularentzat; hain hondar-ale gutxi hain bizkor erortzen, hareazko erlojuak, aski ziren hainbeste urte eder alferrik galduak zituen batentzat. Horregatik, Lhasako azokan mozturro bitxiz ibiltzen zen bufoiagan, zorigaitza jak beltz baten buztanaz garbituz, erraz ikus genezake ordezkariaren ordezkaria, bere bizkar gainean zama astuna hartzen zuena, sorbalda nobleagoak arintzeko. Baina giltza, dena ondo jarraitu badugu, ez da geratzen Jalnoagan; Lhasako aita santuagana garamatza zuzenean, Lama Handiarengana, Jalnoa haren aldi baterako ordezkaria besterik ez baita. Lurralde askotako usadio askoren arteko analogiak ondorio honetara garamatza: giza jainko horrek apaldu eta aldi batez botere izpirituala ordezkariaren baten esku uzten badu, hori ez da, edo behinola ez zen, ordezkariaren horrek beraren ordezkari hil behar duelako baino. Hala, mendetako ganduaren artetik, historiaren lanparak argitu gabe, Budismoaren aita santuaren -Jainkoaren ordezkaria Asian- irudi tragikoa triste eta goibel ageri da jendearen oinazeak bere gain hartzen dituen giza jainko gisa, bere bizia ardiengatik ematen duen Artzain On gisa.

4. Aker erru-jasaleez, oro har

Herri, hiri edo lurralde batean pilatutako gaitzak publikoki irazitako usadioari egin diogun begiradak zenbait ohar egitera garamatza.

Lehenik, batere zalantzarik gabe esan daiteke nik gaitzak berehala iraztea eta gaitzak bitarteko batez irazitzea deitu ditudanak berdinak direla asmoz; bestela esan, gaitzak ikustezin nahiz forma material batean gorpuztuta sumatzea, zeremoniaren helburu nagusiaren mende dagoen zirkunstantzia dela. Helburu nagusi hori herria kaltetu duten gaitz guztiez erabat garbitzea da. Bi irazite-motak lotzeko lokarriren bat bilatu beharko balitz, gaitzak anda batzuetan edo itsasontzi batean irazitako ohiturak emango liguke lokarri hori. Izan ere, batetik gaitzak ikustezin eta ukiezin dira; eta bestetik, ikus eta uki daitekeen bitartekoa dugu haiek urrunarazteko. Eta aker erru-jasalea ere horretarako bitarteko bat besterik ez da.

Bigarren, gaitzen garbiketa orokorra aldika-aldika egiten denean, zeremonia batetik besterako tartea urtebetekoa izan ohi da, eta zeremoniaren sasoia, gehienetan, urtarokaldaketa zehatz batekin batera izaten da, hala nola neguaren hasiera edo bukaerarekin lurralde arktiar eta epeletan, eta euriteen hasiera edo bukaerarekin tropikoetan. Klima-aldaketa horiek ekar ditzaketen heriotza ugariak, batez ere gaizki elikatu, gaizki jantzi eta etxe kaxkarretan bizi diren basatien artean, deabruen jardunari egozten dizkio lehen gizonak eta, beraz, kanpora bota beharrekoak dira. Horregatik, Britainia Berriko eta Peruko lurralde tropikaletan, euri-sasoien hasieran botatzen dituzte edo zituzten deabruak; horregatik, halaber, Baffin Landeko kostalde mortuetan, negu arktiar gogorra hurbiltzean iraitzen dituzte. Tribu bat nekazaritzara emana bada, deabruak irazitako denbora nekazal urtearen sasoi handietako batekin batera izaten da: erein-arokan edo uztaroan; baina sasoi horiek berez urtaroen aldaketarekin batera izaten direnez, ehiztarien edo artzainen bizitzatik nekazarien bizitzara aldatzeak ez dakar berez inolako aldakuntzarik urteroko errito handia ospatzeko uneari dagokionean. India eta Hindu Kusheko zenbait nekazal komunitatek, ikusi dugunez, uztaroan egiten dute deabruen garbiketa orokorra; beste batzuek, berriz, ereiteko sasoiak. Baina urtearen zeinahi sasoiaren egiten delarik ere, deabruen irazite orokorrak urte berriaren hasiera seinalatzen du gehienetan. Izan ere, urte berri batean sartu aurretik, jendea desiratzen egoten da iraganean astindu duten arazoetatik libratzeko; horregatik, hainbeste komunitatetan, izpiritu gaiztoen kanporatze itzaltsu eta publikoarekin ematen diote hasiera urte berriari. Hirugarren, kontuan izan behar da deabruen irazite publiko eta aldikako horren aurretik edo atzetik laxokeria orokorreko aldia izaten dela; gizartearen ohiko loturak alde batera baztertzen dira, eta arau-hauste guztiak, larrienak salbu, zigorrik gabe uzten dira. Ginean eta Tonkinen laxoaldia deabruen irazite publikoaren aurretik izaten da; eta Lhasan, aker erru-jasalea iraitzi aurretik ohiko gobernua etetea, laxokeria orokorrerako antzeko aldi baten aztarna dateke. Indiako hosen artean laxoaldia deabrua iraitzi ondoren izaten da. Irokesen artean apenas antzeman dakiokkeen deabruak kanporatzearen aurretik ala ondotik izaten zen. Nolanahi ere, halako abaguneetan ohiko jokamoldeak haustea, horren aurretik edo ondoren izaten den deabru-garbiketa orokorrak esplikatzeko du ezberdintasun gabe. Batetik, deabruetatik libratzea eta bekatu guztien barkamen orokorra gertu direnean, gizonak beren grina guztiak jaregiten dituzte, zeremonia horretan erruz egiten dituzten zorrak kitatuko dituztelakoan. Bestetik, zeremonia gertatu berri denean, gizonen gogoia arinduta geratzen da deabruz betetako ingurunean ari direlako sentipen astunetik, normalki halako giroan jarduten baitute; eta lehen alaitasun-kolpean gainditu egiten dituzte usadioak eta moralitateak ezarri ohi dituzten mugak. Zeremonia uztaroan gertatzen denean, janari ugariak eragindako ongizate fisikoaren egoerak areagotu egiten du sentimenduen jaregitea.

Laugarren, aker erru-jasale gisa gizon edo animalia jainkozko bat erabiltzeari erreparatu behar zaio bereziki; izan ere, hemen gaitzak irazitako usadioak ari gara, baina bakarrik gaitz horiek ondoren hilko duten jainko bati pasatzen zaizkiola sinesten den neurrian. Susmatzekoa da gizon edo animalia jainkozkoa aker erru-jasale gisa erabiltzeko usadioa

askoz hedatuagoa dela aipatu adibideek adierazten dutena baino. Izan ere, seinalatu den bezala, jainko bat erailtzeko usadioa hain dator gizakien historiaren antzina-antzinatik non, gerora, are usadio horrek bizirik irauten duenetan ere, gaizki interpreta daitekeen. Animalia edo gizonaren jainkozko izatea ahaztu egiten da, eta biktima arrunta bailitzan hartzen da. Horixe gertatzen bide da bereziki jainkozko gizon bat hiltzen dutenean. Nazio bat zibilizatzen denean, giza sakrifizioak bertan behera uzten ez baditu ere, gutxienez hautatu egiten ditu opagaitarakoak, nolanahi ere hilko liratekeen zorigabekoen artean bakarrik. Bide honetatik, jainko bat erailtzea batzuetan kriminal bat exekutatzearekin nahas daiteke.

Galdetuko bagenu zergatik aukeratu behar den hiltzen den jainko bat jendearen bekatuak eta nahigabeak bere gain hartu eta eraman ditzan, esan liteke jainkoa aker erru-jasale gisa erabiltzeko ohituran bi usadioren konbinazioa ikusi dugula, behinola desberdinak eta bereiziak ziren bi usadioren konbinazioa, alegia. Batetik, ikusi dugu giza edo animali jainkoa erailtzeko ohitura izan dela, haren jainkozko bizia urteen joanak dakarren ahultzetik salbatzeko. Bestetik, ikusi dugu urtean behin gaitzen eta bekatuen iraitze orokorra egiteko ohitura izan dela. Eta jendeari bi ohitura horiek konbinatzea bururatu bazitzaion, ondorioa hiltzen zen jainkoa aker erru-jasale gisa erabiltzea izango zen. Hasieran ez zuten hiltzen bekatua kanporatzeko, baizik eta jainkozko bizia zahardadearen hondamenetik salbatzeko; baina, nolanahi ere hil beharra baitzen, jendeak pentsatu bide zuen aukera hura balia zezaketela sufrikario eta bekatuen zama osoa hari leporatzeko, zertarako eta berekin batera eraman zezan hilobi azpiko mundu ezezagunera.

Jainkoa aker erru-jasale gisa erabiltzeak argitu egiten ditu "Herio iraitzeko" europar herri-ohituran ageri diren ilunak, ikusi dugunez. Bada oinarriarik sinesteko zeremonia honetan Herio deitua jatorriz landaretzaren izpiritua zela, urtero udaberrian erailtzen zutena, zertarako eta atzera bizira gaztetasunaren indar betean etor zedin. Baina, seinalatu dudanez, badira zenbait ezaugarri zeremonia hartan, hipotesi honen bidez besterik gabe azal ez daitezkeenak. Esate baterako, Herioren irudia ehorzteko edo erretzeko garraiatzerakoan izaten diren alaitasun-seinaleak batetik, eta eramaleek erakusten dituzten beldurra eta higuina bestetik. Baina ezaugarriok ulergarri bihurtzen dira berehala, baldin eta ematen badugu Herio ez zela hiltzen zen landaretzaren jainkoa soilik, aker erru-jasale publikoa ere bazela, eta berari leporatzen zitzaizkiola iragandako urtean jendeak izandako gaitz guztiak. Halako abagune batean berezkoa eta egokia da alaitasuna erakustea; eta hiltzen den jainkoari beldurra eta higuina izatea, nahiz beldur eta higuin horiek berez berari ez, baizik eta bera zamatzen duten bekatu eta zorigaitzei dagozkien, hori eramalea eta zama bereiztea, edo gutxienez bereizketa hori seinalatzea zaila delako gertatzen da. Zama zerbait txarra bada, eramaleari beldurra izango zaio, bera tasun arriskutsu horiez jantziko litzatekeelakoan, bitarteko bakarra bera izaki. Era berean, ikusi dugu gaixotasunez eta bekatuz zamatutako barkuen beldur eta ihesi izaten direla Indiako ekialdeko herriak. Orobat, herri-ohitura horietan Herio bai aker erru-jasalea eta bai landaretzaren izpirituaren ordezkaria izateari, nolabaiteko oinarriren bat ematen dio Herioren iraitzea beti udaberrian eta batez ere herri eslaviarrek ospatzeak. Izan ere, eslaviar urtea udaberrian hasten baitzen eta, beraz, urte berrian sartu aurretik "Herio kanporatzeko" zeremonia, bere alderdi batean, urte zaharrean pilatutako gaitzak botatzeko usadio hedatuaren adibidea litzateke.

lviii

Gizakiak aker erru-jasale antzinate klasikoan

1. Gizakia aker erru-jasale Erroma zaharrean

Orain prest gara antzinate klasikoan giza aker erru-jasalea nola erabiltzen zuten ikusteko. Urtero, martxoaren hamalauan, larruz jantzitako gizon bat eramaten zuten

Erromako kaleetan zehar, makila zuri luzez kolpeka, eta hiritik kanpora botatzen zuten. Mamurius Veturius deitzen zioten, hau da, "Martitz zaharra", eta zeremonia hori antzinako erromatar urteko (martxoaren lehenean hasten zen hau) lehen ilbetearen aurreko egunean izaten zenez, larruz jantzitako gizonak iragan urteko Martitz irudikatuko zuen, urte berriaren hasieran kanporatzen zutena. Baina Martitz jatorriz ez zen gerraren jainkoa, landaretzarena baino. Izan ere, Martitzi errezatzen zioten erromatar nekazariak beren labore eta mahastien alde, beren frutarbola eta basotxoan alde; Martitzi eta ez beste inori zuzentzen zizkion bere eskariak Arval anaien apaiz-elkargoak, zeregintzat ereindakoak haz zitezen sakrifizioak eskaintzea zuenak; eta Martitzi sakrifikatzen zioten urrian zaldia, ikusi dugunez, uzta oparoa segurtatzeko. Gainera, Martitzi eskaintzen zizkieten nekazariak sakrifizioak, "basoetako Martitz" titulupean, beren ganaduaren ongizatearen alde. Ikusi dugunez, uste zabaldua da ganadua zuhaitz-jainkoen zaindaritza bereziaren pean dagoela. Horrez gainera, martxoko hilabetea Martitzi eskaintzeak ernaberritzen den landaretzaren jainkotzat seinalatuko luke. Beraz, Erromako usadioa, Martitz zaharra urte berriaren hasieran - udaberrian, alegia- kanporatzekoa, "Herio iraitzeko" eslaviar usadioaren berdina da, bigarren honetaz dugun ikuspegia zuzena izatera. Erromatar eta eslaviar usadioen antza seinalatua dute hainbat autorek, baina urte zaharraren ordezkartzat hartu dituzte Mamurius Veturius eta eslaviar zeremonietako irudiak, eta ez landaretzaren jainko zaharraren ordezkartzat. Beharbada gerora honelako zeremoniak praktikatzen zituzten herriek berek ere horrela interpretatuko zituzten. Baina denboraldi bat nortzea abstraktuegia da primitiboa izateko. Badirudi Erromako zeremonian, eslaviarren bezala, jainkoaren ordezkaria, landaretzaren jainko gisa ezezik, aker erru-jasale gisa ere tratatu zutela. Hura iraitzeak horixe adierazten du. Izan ere, ez da arrazoirik landaretzaren jainko bat hiritik iraitzeko, baina besterik da hura aker erru-jasalea izanez gero; orduan beharrezko gertatzen baita mugez kanpora botatzea, bere zorigaiztoko zama beste lurralde batzuetara eraman ahal dezan. Eta egia esan, badirudi Mamurius Veturius oskanoen lurretara botatzen zutela, Erromaren etsaien lurretara, alegia.

2. Gizakia aker erru-jasale Grezia zaharrean

Antzinako grekoek ere erabili ohi zuten giza aker erru-jasalea. Plutarkoren jaioterrian, Keronean, honelako zeremonia bat egiten zuen hiriko etxean agintari nagusiak, baita etxajaun bakoitzak ere bere etxean. "Gosea iraitzea" deitzen zitzaion. Esklabo bat makilatzen zuten sahats-makilaz, eta atez kanpora botatzen zuten hitz hauekin: "Kanpora gosea, eta barrura aberastasuna eta osasuna". Plutarkok bere jaioterriko agintari nagusiaren kargua izan zuenean, zeremonia hau burutu zuen hiriko etxean, eta berak eman digu usadioak gerora sorrarazi zuen eztabaidaren berri.

Baina Grezia zibilizatuan, aker erru-jasalearen usadioak Plutarko xeratsu eta bihozberak burututako errito inozentearenak baino itxura ilunagoa hartu zuen. Marseillan, kolonia greko ospetsu eta distiratsuenetako batean, izurriteren batek hiria jotzen zuenean, txiroenen arteko gizon batek bere burua eskaintzen zuen aker erru-jasaletarako. Urtebetez herri-diruz mantentzen zuten, jakirik hautatu eta aukerakoenez. Urtea amaitzean jantzi sakratuak janzen zizkieten, abar santuz apaintzen zuten, eta hiri osoan zehar eramaten, errezoen artean jendearen gaitzak haren gainera eror zitezen. Gero hiritik bota edo harrika hiltzen zuten, harresiez kanpo. Atenastarrek gizagalduta eta alfer pila bat mantentzen zuten herri-diruz; eta hondamendiren batek, hala nola izurriak, lehorteak edo goseak, hiria hartzen zuenean, legez kanpoko haietako bi sakrifikatzen zituzten aker erru-jasale gisa. Biktima bat gizonen alde eta bestea emakumeen alde sakrifikatzen zituzten. Lehenak piku beltzen sorta eramaten zuen lepo inguruan, eta bigarrenak piku zuriena. Batzuetan, dirudienek, emakumeen alde hildako biktima emakumea izaten zen. Hirian zehar eramaten zituzten sakrifikatu aurretik; nonbait,

harrika hiltzen zituzten hiritik kanpora. Baina halako sakrifizioak ez ziren izaten hondamendi publikoa zeneko abaguneetan bakarrik; badirudi urtero, maiatzeko Targelien jaialdian, bi biktima ateratzen zituztela Atenastik, bat gizonentzat eta bestea emakumeentzat, eta harrika hiltzen zituztela. Abderako hiria, Trazian, urtean behin arazten zuten, eta hartarako aukeratutako hiritar bat harrika hiltzen zuten, aker erru-jasale gisa, beste guztien biziaren truke. Hura erail baino sei egun lehenago inkomunikatu egiten zuten, "jende guztiaren bekatuak bere gain har zitzan".

Leukaskoek urtero bota ohi zuten kriminal bat itsasora, aker erru-jasale gisa, maitaleen urjauzitik, beren irlako hegoaldeko muturrean zegoen malkar zuri batetik, alegia. Baina eroria ematzeko, txori biziak eta lumak lotzen zizkioten, eta txalupatxo pila bat egoten zen zain behean, hura hartu eta mugaz kanpora eramateko. Beharbada neurri haiek lehenagoko usadio apaldua ziren, aker erru-jasalea ito zedin itsasora botatzekoa. Leukadiar zeremonia Apolori sakrifizioa eskaintzeko garaian izaten zen, hantxe baitzuen tenplu edo jainkotegia. Beste leku batzuetan gizon gaztea bota ohi zuten itsasora, otoitz honekin: "Izan zaitez zeu gure hondakina". Zeremonia hark jendea bere gaitzetatik libratzen omen zuen, edo, beste interpretazio apur bat desberdin baten arabera, itsasoko jainkoari zor ziotena kitatuz salbatzen zituen. Asia Txikiko grekoek, gure aro aurreko seigarren mendean, honelaxe burutzen zuten aker erru-jasalearen usadioa. Hiri bat izurriteak, goseteak edo beste hondamendi publikoren batek hartzen zuenean, pertsona zatar edo itxuragabetu bat hautatzen zuten, bere gain har zezan komunitatea zigortzen zuen gaitza. Leku egoki batera eramaten zuten, eta han piku lehorrak, garagar-ogia eta gazta jartzen zizkioten eskuan. Haiek jaten zituen. Gero zazpi bider jotzen zuten sexu-organoetan astapikuaren abarrez eta beste zuhaitz makatz batzuez, xirulez doinu jakin bat jotzen zuten bitartean. Ondoren, basoko zuhaitzen egurrez egindako meta batean erretzen zuten; eta errautsak itsasora jaurtitzen zituzten. Antzeko usadioa egiten bide zuten urtero Asiako grekoek uztaroko Targelien jaialdian. Deskribatu dugun erritual horretan biktima astatipulaz, astapikondoaren abarrez eta horrelakoez jotzea ez zen izango haren sufrikarioa areagotzeko; hartarako, edozein makila-mota izango zen egokia. Zeremoniaren parte horren benetako esanahia W. Mannhardtek azaldu digu. Berak dioenez, antzinakoek ahalmen magikoa egozten zieten astatipulei, eragin gaiztoak uxatzekoa, eta, beraz, etxeetako ateetatik zintzilik uzten omen zituzten, eta arazteko erritoetan erabiltzen. Horregatik, Panen irudia jaialdi batean edo ehiztariak esku-hutsik itzultzen zirenean, astatipulaz zigorkatzeko arkadiar usadioa ez zen jainkoa zigortzeko izango, eragin kaltegarrietatik garbitzeko baino; alegia, bere jainkozko egitekoak burutzea galarazten ziotenetatik, ehiztariari ehiza ematen zion jainkoa izaki. Era berean, giza aker erru-jasalea sexu-organoetan astatipulaz eta abarrez jotzearen helburua haren indar ernatzailea lotura edo arao orotarik libratzea izango zen, deabrukeriaz edo bestelako gaiztakeriaz halakoen azpian geratuak baziren; eta Targeliak -jai haietan sakrifikatzen zuten urtero aker erru-jasalea-, maiatzean ospatzen ziren uzta-jaialdi goiztiarrak zirenez, landaretzaren jainko sortzaile eta ernatzailearen ordezkariatz hartu behar dugu. Jainkoaren ordezkaria urtero hiltzen zuten esan dudan xedez, alegia, jainkozko bizia bere indar betean mantentzeko, urteen ahuleziak hondatu baino lehen; eta erail aurretik ez zen naturaz kontrakoa haren indar ernatzaileak kitzikatzea, hain zuzen beren jardun betean pasa zitezen ondorengoengana, jainko berriagana edo jainko zahar berriro gorpuztuagana, ezbairik gabe hildakoaren lekua hartzen zuelakoan. Antzeko arrazoiketaren haritik, pentsa liteke abagune berezietan ere, hala nola lehorte edo goseteetan, aker erru-jasalea antzera tratatzen zutela. Uzta ez bazen nekazariak espero bezalakoa, lurraren igaliak sortzeko eginkizuna zuen jainkoaren ahalmen sortzailean akatsen bat zegoela etsiko zuten haiek. Pentsatuko zuten araoren baten eraginpean zegoela, edo zahartzen eta ahultzen ari zela. Ondorioz, hil egiten zuten bere

ordezkariaren pertsonan, jadanik deskribatu ditugun zeremonia guztiekin, zertarako eta, artean nahikoa gazte, bere indar gazte osoa naturaren indar etenei txerta ziezaien. Printzipio berberaren arabera uler dezakegu zergatik makilatzen zuten Mamurius Veturius, zergatik Keroneako zeremonian esklaboa agnus castusaren (propietate magikoak egozten zizkioten arbolaren) makilaz jotzen zuten, zergatik Europako zenbait aldetan Herioren irudia makilaz eta harrika hartzen duten, eta zergatik Babilonian jainkoarena egiten zuen kriminala, gurutziltzatu aurretik, zigortu egiten zuten. Zigortzearen xedea ez zen jainkozko gajoaren agonia areagotzea, kontrakoa baizik, eragin gaizto orotarik askatzea, eraginok hura azken unean harrapa zezaketelakoan.

Orain arte onartu dut Targelietako giza biktimek landaretzaren izpirituak ordezten zituztela oro har, baina W. R. Paton jaunak seinالاتu duenez, gizagajo haiek pikondoen izpiritu gisa mozorrotzen ziren zehazki. Berak seinالاتzen duenez, kaprifikazio-prozesua deritzana, hots, landatutako pikondoak artifizialki ernaltzea, abarren artean astapiku-sortak zintzilikatuz, ekainean gertatzen omen da Grezian eta Asia Txikian, Targelien egunetik hilabetera-edo, eta iradokitzen digu bi giza biktimen lepo inguruan piku beltzak eta zuriak zintzilikatzea, beltzek gizonak irudikatzen zituztelarik eta zuriek emakumeak, kaprifikazio-prozesuaren imitazio zuzena zatekeela, pikondoei ernaltzen laguntzeko asmatua, imitaziozko magiaren printzipioaren arabera. Eta kaprifikazioa berez pikondo arraren eta emearen arteko ezkontza denez, Paton jaunak ematen du gainera zuhaitzen maitasunak antzezten bide zirela, antzeko magiaren printzipio berberaren arabera, bi giza biktimen arteko ezkontza txantxazko edo benetakoaren bidez, bietako bat batzuetan emakumea izaten baitzen. Ikuspegi horretatik, giza biktimak astapikondoen abarrez eta astatipulaz sexu-organoetan jotzeko ohitura xarma bat zen, gizonaren eta emakumearen sormen-indarrak ernetzeko xedez egina. Gizonak eta emakumeak pikondo arra eta emea nortzen zituzten hurrenez hurren, eta benetan nahiz alegiaz batzen zirenean, zuhaitzei fruitua ematen laguntzen zietela sinesten zen.

Hainbat analogiak bermatzen dute nik giza aker erru-jasalea landare jakin batzuez jotzeko usadioaz onartu dudana interpretazioa. Esate baterako, Ginea Berri Alemaniarrereko kaian artean, gizon batek banana landatu berriek laster eman dezaten nahi duenean, fruitua eman duen bananondo batetik moztutako makilaz kolpatzen ditu. Kasu horretan argi dago sinestea: emankortasuna arbola emankor batetik moztutako makilan datzala, eta bananondo gazteei ukituz kutsatzen zaiela. Era berean, Kaledonia Berrian, gizon batek abar batez joko ditu emeki bere taro landareak, hori egitean hauxe esaten duelarik: "Taro hau haz dadin jotzen dut", eta horren ondoren abarra aldatuko du soroaren bazterrean. Brasilen, Amazonas ibaiaren bokaleko indiarren artean, gizon batek bere sexu-organoen tamaina handitu nahi duenean, uretako landare zuri baten fruituaz jotzen du; aninga deritza, eta ibaiaren ertzetan hazten da oparo. Fruitua ez da jateko, banana baten antza du eta, bistan denez, itxura horrexetarik aukeratu da hartarako. Zeremonia ilberria baino hiru egun lehenago edo hiru egun geroago burutu behar da. Bekesko lurraldean, Hungarian, emakume antzuak emankortzeko, zakurrak ernaltze-lanetan ari zirelarik bereizteko erabilitako makilaz ukitzen dituzte. Kasu horretan, ernaltzeko bertutea makilan datzala uste da argi eta garbi, eta ukituz emakumeetara pasatzen dela. Celebesko erdialdeko toradjek pentsatzen dute Dracaena terminalis landareak arima indartsua duela, mozten denean atzera berriro laster hazten delako. Horregatik, gizon bat gaixorik dagoenean, lagunek batzuetan Dracaenaren hostoez jotzen dute buruko kalparrean, landarearen arima indartsuaz haren arima ahula indartzeko.

Analogia hauek, beraz, bermatu egiten dute nire interpretazioa, W. Mannhardt eta W. R. Paton jaunei jarraituz Targelietako uzta-jaialdi grekoan giza biktimei ematen zitzairen zigorraz eman dudana. Biktimen sexu-organoak ernatzaileei landare hezez eta abarrez

zigortzea, erarik naturalenean esplikatzen da gizon eta emakumeen indar sortzaileak handitzeko xarma dela esanda, dela haiei landare eta abarren emankortasuna komunikatzen zaielako, dela haiek eragin gaiztoez libratzen direlako; eta bi biktimek bi sexuak ordezkatzeko interpretazio hori berresten du, biktima bat gizonen ordezkari baitzen, oro har, eta bestea emakumeen ordezkari. Zeremonia uztaroan burutzea egoki datorkio erritoak nekazal esanahia zuelako teoriari. Gainera, batez ere pikondoak ernaltzeko zela iradokitzen digute bai indarrez biktimen lepo inguruan zintzilikatzen ziren piku beltz eta zurien sortek, bai haien sexu-organoei astapikondo baten abarrez ematen zitzaizkien kolpeek ere; izan ere, prozedura horrek antz handia du Greziako lurretan nekazari zaharrek eta modernoek beren pikondoak emankortzeko erabili duten prozedurarekin. Gogoratzen dugunean zelako garrantzia izan bide zuen palmondoen datilaren ernaltze artifizialak, nekazaritzan ezezik Mesopotamiako erlijioan, ez dirudi arrazoirik dagoenik pikondoa artifizialki ernaltzeak ere Greziako erlijioaren erritual itzaltsuan leku bat eskatu izana zalantzan jartzeko.

Kontsiderook zuzenak badira, ondorio hau atera behar genuke: Targelietako giza biktimak aker erru-jasale publiko gisa agertzen baziren ere -jende guztiaren bekatuak, zorigaitzak eta ondoezak berekin eramanez-, are lehenago landarediaren gorpuztetzat hartuko zituztela, agian laborearen baina batez ere pikondoen gorpuztetzat; eta jasotzen zituzten zigorrak eta heriotza landareen ahalak indartzeko eta berritzeko zirela, orduan hasten baitziren zimeltzen landareak Greziako udako bero saparen pean.

Greziako aker erru-jasaleaz dugun ikuspegia zuzena bada, liburu honen argudio nagusiaren kontra jar litekeen "baina" bat indargabetzen du. Ariciako apaiza zuhaiztiko izpirituaren ordezkari zen aldetik hiltzen zutelako teoriari zera kontrajar lekiok, alegia, halako usadio batek ez duela parekorik antzinate klasikoan. Baina orain arrazoiak eman ditugu Asiako grekoek aldika-aldika eta noizean behin hiltzen zuten gizakia landaretzaren jainko gorpuztu gisa tratatu ohi zutela sinesteko. Baliteke atenastarrek ere jainkozko bailiran tratatzea sakrifizioetarako gordetzen zituzten pertsonak. Gizarteak onartzen ez zituenak izateak ez dio axola. Primitiboen ikuspegitik, gizon bat ez da aukeratzen bere tasun moral garaiengatik edo gizartean duen mailagatik jainko baten interpretea edo gorpuztea izateko. Jainko-hatsa berdin jaisten da onengana nahiz txarregana, garaiengana zein baxuengana. Beraz, Asiako eta Atenasko greko zibilizatuek jainko haragiztatutzat zeuzkaten gizonak sakrifikatzen bazituzten, litekeena da latindar barbaroek ere antzeko usadio bat izatea historiaren egunsentian, Ariciako zuhaiztian.

Baina argudioa biribiltzeko, zera frogatu beharko genuke, jainkoaren giza ordezkaria erailtzeko usadioa beste leku batzuetan ere praktikatzen zela antzinako Italian, ez Ariciako zuhaiztian bakarrik. Froga hori oraintxe azalduko dut.

3. Erromako Saturnaliak

Ikusi dugu herri askok izan dutela urteroko laxoaldia: legearen eta moralitatearen ohiko loturak bazter uzten ziren, jende guztia alaitasun eta bozkario eroenera ematen zen, eta grinarik ilunenei ematen zitzaien arnasbidea, ohiko bizitza arruntean inolaz ere utziko ez zitzaien bezala. Giza izaeraren indar erreprimituen leherketa horiek, maizenik lizunkeriazko eta krimenezko orgia basa bihurtzen zirenak, urtearen azken aldera izaten ziren gehienetan, eta nekazal sasoi batekin edo bestearekin lotzen ziren, seinالاتu dudan bezala, batez ere erein-aroarekin edo uztaroarekin. Saturnaliak dira laxoaldi guztien artean ezagunenak, eta hizkuntza modernoetan beste guztiei bere izena eman dietenak. Jaialdi ospetsu hau abenduan izaten zen, erromatar urtearen azken hilean, eta uste zabaldua zen Saturno, ereitearen eta nekazaritzaren jainkoaren erregealdi zoriontsua gogoratzeko zela. Antzina batean, lurrean bizi omen zen Italiako errege zuzen ongile gisa. Hark menditar zakar eta barreiatuak erakarri zituen, lurra lantzen irakatsi zien,

legeak eman zizkien, eta bakean gobernatu zituen. Haren erreinua fabulako Urrezko Aroa izan zen: lurrak oparo ematen zuen; mundu zoriontsu hartan ez zen gerra edo liskar-hotsik; aberasteko grina gaiztoek ez zituzten hartzen, pozoiak bezala, nekazari langile eta zoriontsuak. Esklabotza eta jabego pribatua ere ezezagunak ziren; gizon guztiek denenak zituzten gauzak. Azkenean jainko ona, errege arraitsu hura, bat-batean desagertu zen, baina haren oroitzapena askoz geroagoko garaira iritsi zen; kaperak eraiki ziren haren ohoretan, eta mendi eta leku garai askok hartu zuten haren izena Italian. Baina laino goibel batek itzal egin zion haren erregealdiaren oroitzapenari: haren aldareak giza biktimen odolez gorrituak omen ziren, gerora urte zoriontsuagoetan giza irudiek ordezkatu bazituzten ere. Jainkoaren erlijioaren alderdi goibel horretaz apenas dagoen arrastorik antzinako idazleek Saturnaliez utzi dizkiguten deskribapenetan. Oturuntza eta mozkorraldiak, eta plazerrezko egintza ero guztiak omen ziren antzinateko ihauteri horren ezaugarri berezia; zazpi egun irauten zuen Erroma zaharreko kale, plaza eta etxeetan, abenduaren hamazazpitik hogeita hirura.

Baina jaialdi hartako ezaugarrien artean, ez dago gauza azpimarragarriagorik, ez dirudi antzinakoak berak beste ezerk gehiago inarrosi zituenik, aldi hartan esklaboei onartzen zitzaien laxoaldiak baino. Klase libreen eta zerbitzarien arteko bereizketa ezabatu egiten zen egun haietan. Esklaboek beren ugazaba irain zezaketen, nagusiak bezala mozkor zitezkeen, beraiekin eseri mahaian, eta ez zegoen haiei errieta-hitzik ateratzerik, beste edozein sasotik makilatuz, atxilotuz edo hilez zigortuko zuten jokabidea izateagatik. Are gehiago, nagusiek esklaboen lekua hartzen zuten, eta mahaian zerbitzatzen zituzten; eta jopuak jaten eta edaten amaitu bitartean, ez zen mahaia jasotzen eta nagusiarentzako otordua atontzen. Hainbestearinokoa zen maila-aldaketa hori, non etxe bakoitza alegiazko errepublika bihurtzen baitzen aldi batez, estatuko kargu garaiak esklaboen esku zeudelarik, beren aginduak emateko eta legea indargabe uzteko, kontsulatuaren, pretoretzaren eta magistratuaren duintasun osoaz jantzita baileuden. Saturnalietan jopuei emandako boterearen islada motelaren antzekoa zen gizon libreek zotzetara jotzen zuten trufazko erregetza. Garaile ateratzen zen pertsonak errege titulua hartzen zuen, eta agindu alai eta xelebreak ematen zizkien menpekoei. Bati esango zion ardoa uraz nahasteko, beste bati edateko edo kantatzeko edo dantzatzeko; beste bati bere buruaren kontra hitzaldia egiteko, beste bati neska xirulari bat bizkarrean hartuta etxeari bira emateko.

Horrenbestez, gogoratzen dugunean esklaboei festa-garai hartan emandako askatasuna Saturnoren garaiko gizarte-egoeraren imitaziotzat jotzen zela, eta oro har Saturnaliak ospatzea errege zoriontsu haren erregealdia egun batzuetan berritzea edo berrezartzea besterik ez zela, pentsa liteke farra haietan buru zen txantxazko erregeak Saturno bera irudikatuko zuela jatorriz. Aieru hori kontakizun oso bitxi eta interesgarri batek berresten du, guztiz seguru ezartzen ez badu ere. Danubion zeuden erromatar soldaduek, Maximiano eta Dioklezianoren agintealdietan, Saturnaliak ospatzeko zuten moduaren berri ematen digu. Kontakizuna San Dasioren martiritzaren narrazioan gorde da; Parisko liburutegiko eskuizkribu greko batetik ateratakoa da, eta Ganteko Franz Cumont profesoreak argitaratu zuen. Gertakizunaren eta usadioaren beste deskribapen laburrago bi datoz Milan eta Berlingo beste eskuizkribu batzuetan; batek 1727an ikusi zuen argia, Urbinon publikatutako liburu batean, baina Erromako erlijioarentzat, hala antzinakoarentzat nola modernoarentzat, duen garrantzia ezkutuan geratu bide zen harik eta Cumont profesoreak adituen arreta hiru kontakizun horietara eraman zuen arte. Hirurak batera argitaratu zituen handik zenbait urtetara. Kontakizun horien arabera -eta hirurek dirudite benetakoak, luzeena beharbada agiri ofizialetan oinarritua dagokeelarik-, Behe Moesiako Durostorumen zeuden erromatar soldaduek segidako eran ospatzen omen zituzten Saturnaliak urtero. Jaia baino hogeita hamar egun lehenago, zotzetara

aukeratzen zuten beren arteko gizon gazte eder bat, eta errege-arropak janzten zizkioten Saturnoren antza izan zezan. Hala jantzita, eta soldadu askoren laguntzaz, jende artean ibiltzen zen bere grina guztiak asetzeko eta plazer guztiak probatzeko baimen osoaz, baita baxuenak edo lotsagarrienak ere. Baina haren erregealdia zoriontsua bezain laburra izaten zen, eta amaiera tragikoa izaten zuen; hogeita hamar egunak iraganda Saturnoren jaia etortzean, bere lepoa moztu zuen berak irudikatzen zuen jainkoaren aldarean. Gure aroko 303. urtean Dasio soldadu kristaua atera zen zotzetara, baina ukatu egin zen jainko paganoarena egitera eta bere azken egunak lizunkeria xahutuz. Bassus bere ofizialaren mehatxu eta argudioek ez zioten burubidea aldatu, eta Joan izeneko soldadu batek lepoa moztu zion, martirologista kristauak guztizko xehetasunez jasotzen duenez: azaroaren hogeian, ilargiaren hogeita laugarren egunean, laugarren orduan.

Cumont profesoreak narrazio hori argitaratu ondoren, berorren izaera historikoak berrespen sendoa jaso zuen aurkikuntza interesgarri bati esker, ordura arte zalantzan jarri edo ukatu bazen ere. Anconako muinoari gaina ematen dion katedraleko kriptan, antzinako beste gauza azpimarragarri batzuen artean, Justinianoren garaiko eran idatzitako grekozko inskripzioa duen marmolezko sarkofago zuri bat gordetzen da. Honela dio: "Hemen datza Dasio martiri santua, Durostorumetik ekarria". Sarkofagoa 1848an aldatu zuten San Pellegrinoren elizatik katedraleko kriptara; eliza horretako aldare nagusiaren azpian, igeltseritza-lanen azpiko inskripzio latindar batek adierazten digunez, martiriaren hezurak daude, beste bi santurenekin batera. Ez dakigu sarkofagoa noiztik egon zen San Pellegrinoko elizan; baina 1650. urtean han omen zegoen, hainbat lekukotzaren arabera. Pentsa genezake santuaren erlikiak segurtasunagatik aldatu zituztela Anconara, martiritzaren ondorengo mende nahasietako batean, Moesia inbaditzaile barbaroen saldoek behin eta berriz okupatua eta soildua izan zenean. Nolanahi ere den, egia dirudi, elkar berresten duten eta independenteak diren frogak eta monumentuen arabera, Dasio ez zela santu mitiko hutsa izan, benetako gizona baizik, bere fedeagatik hil zutena Durostorumen, kristau aroko lehen mendeetako batean. Martirologista izengabearen narrazioa egia delakoan bere egintza nagusiari -hots, Dasioaren martiritzari- dagokionean, martiritzaren moduez eta kausaz ere onar genezake haren lekukotza, batez ere narrazioa zehatza, zertzeladaz betea eta mirarizko elementurik batere ez duena delako. Beraz, hauxe da nik ateratako ondorioa, erromatar soldaduen artean ospatzen zen Saturnaliez ematen duen kontakizuna fidagarria dela.

Kontakizun horrek era berri eta harrigarri batez argitzen du Saturnalietako erregearen kargua, alegia, Erroman, Horazio eta Tazitoren garaian, neguko farretan buru izaten zen anabasaren jaun zaharrarena. Hauxe frogatuko luke kontakizunak: zeregin hori ez dela beti izan arlekin edo bufoi batena, eginkizuntzat farra bere onenean eta txantxak gero eta gehiago eta bizkor mantentzea izango zuena, sua suteagian gartzen eta pindarkatzen zen bitartean, kaleak festagileez mukurru zeudelarik, eta aire garbi hotzean, iparraldean urrun, Soracte mendiak bere elurrezko koroa erakusten zuelarik. Metropoli alai eta zibilizatuko trufa-errege hori Danubioko kanpamendu zakarrean zuen pareko goibel ikaragarriarekin konparatzen dugunean, eta gogoratzen dugunean antzeko irudiak ugari izan direla beste garai eta beste lurralde batzuetan; gogoratzen dugunean ordu edo egun bakan batzuetan beren aziotxoak egin dituztela, txantxazko koroekin eta erregezko hila-atorretan bilduta, eta gero heriotza bortitza izaten zutela, ez daukagu zalantza egiterik: Erromako Saturnalietako erregea, idazle klasikoek deskribatu bezala, original haren kopia ahul eta zikiratua dugu. Haren ezaugarri gogorak, zorionez, San Dasioaren martiritzaren egile ilunari esker iritsi zaizkigu. Bestela esan, martirologistak Saturnaliez egiten duen kontakizuna hain dator bat beste alde batzuetako antzeko erritoen kontakizunekin, haiek ezagutzea ezinezkoa zitzaien arren, non haren deskribapenaren

funtsezko zehaztasuna ontzat eman behar den; eta gainera, txantxazko erregea jainko baten ordezkari gisa erailteza ezin sor zitekeenez hura farraldi bateko buru aukeratzeko ohituratik aparte, baina alderantzizkoa gertatzea posible denez, eskubide osoz onar dezakegu garai lehenagoko eta barbaroagoetan ohitura orokorra zela antzinako Italian, Saturnoren gurtzak iraun zuen lekuetan, gizon bat aukeratzeko Saturnorena egiteko, eta aldi batez, haren pribilegio tradizional guztiez gozatzeko, eta gero hiltzea, bere eskuz edo besteren eskuz, labanaz edo sutan edo urkamendian, munduarengatik bizia ematen zuen jainko ona bailitzan. Erroman bertan eta beste hiri handi batzuetan, zibilizazioa aurreratzean, ematu egingo zen usadio anker hura Augustoren garaia baino askoz lehenago, eta idazle klasikoen idatzietan, Saturnalietako opor-erregearen berri ematen dutenean ageri duen itxura inozentea hartuko zuen. Baina eskualde urrunagoetan luze iraungo zuen ohitura zaharrago eta gogorragoak; eta Italia bat egin ondoren Erromako gobernuak usadio barbaroa debekatu bazuen ere, nekazariak gorde egingo zuten oroitzapena, eta noizean behin ohitura hura berpiztu egingo zen, oraindik gure artean ere gertatzen den bezala superstizioaren formarik baxuenekin. Batez ere inperioaren bazterraldeetako soldadu zakarren artean berpiztuko zen, haien gain Erromako esku behinola burdinazkoa hasita baitzegoen atzaparrak biguintzen.

Antzinako Saturnalien eta Italia modernoko ihauterien arteko antza askotan aipatu izan da; baina gure aurrean agertu diren datu hauen guztien argitan, galde genezake ea, antzekoak ezezik, gauza bera ez ote diren. Ikusi dugu Italian, Espainian eta Frantzian, hots, Erromaren eragina sakonena eta iraupen luzeenekoa izan den herrialdeetan, ihauterietako ezaugarri behinenetako bat festen sasoiaren nortzen duen txantxazko irudia dela, aintza eta laxokeriazko aldi laburraren ondoren jendaurrean trokatu, erre edo bestela suntsitzen dutena, jendetzaren gezurrezko tristuraz edo benetako bozkarioz. Hemen ihauteriez proposatutako ikuspegia zuzena bada, pertsonaia iragarri hori Saturnalietako errege zaharraren ondorengo peto-petoa da, barreen nagusia, Saturno nortzen zuen benetako gizona eta, barreak amaitutakoan, benetako heriotza izaten zuena, bereganatutako izaera zela eta. Hamabigarren eguneko babaren erregea eta Erdi Aroko eroen artzapezkikua, desarrazoiaren abadea eta desgobernuaren jauna, era honetako irudiak dira, eta agian jatorri berdintsukoak. Hori horrela izan nahiz ez, ondorio hau atera genezake probabilitate handiz, alegia, Ariciako Basoko Erregea oihaneko jainko baten haragiztapen gisa bizi eta hiltzen bazen, pareko bat izan zuela aspaldidanik Erroman: urtez urte, ereitearen eta hazi ernalduaren jainko zen Saturno erregea bailitzan, hiltzen zuten gizona.

lix

Jainkoaren hilketak Mexikon

Munduan ez da herririk izan jainko baten giza ordezkaria sakrifikatzeke usadioa Mexiko zaharreko aztekek hainbat, eta hainbesteko itzalez, erabili duenik. Sakrifizio nabarmen hauen erritualak oso ezaguna zaigu, ondo deskribatu baitzituzten hamaseigarren mendean Mexiko konkistatu zuten espainiarrek; jakinmina piztu zien urruneko lurralde haietan aurkitutako erlijio barbaro eta ankerrak, beren elizaren doktrinarekin eta erritualarekin hainbat analogia bitxi zituelako. "Katibu bat aukeratzeko zuten" diosku Acosta josulagunak, "eta beren idoloen azpian sakrifikatu aurretik, zein idolori sakrifikatuko zioten, idolo harexen izena ematen zioten, eta idoloaren jantzi berdinez apaintzen zuten, esanez idoloa bera ordeztu zuela. Eta ordezkariak hark irauten zuen denboran -jaialdi batzuetan urtebete, beste batzuetan sei hilabete eta beste batzuetan gutxiago- jaiera erakusten zioten eta idoloa bezalaxe gurtzen zuten; eta bitartean hura jan, edan eta zoriontsu bizi izaten zen. Kaleetan zehar ibiltzen zenean, jendea etorri eta gurtu egiten zuen, eta denek ematen zizkieten limosnak; haurrak eta gaixoak ekartzen zizkieten, eta hark bedeinkatu egiten zituen, nahi zituen gauza guztiak

ametitzen zizkiotelarik; hamar edo hamabi gizon izaten zituen lagun, ihes egin ez zezan. Eta batzuetan xirulatxo bat jotzen zuen, jendeak bera pasatzean jaiara erakuts ziezaion. Jaieguna etortzean, gizen-gizena egoten zen; sakrifizio itzaltsuan, hil, zabaldu eta jan egiten zuten".

Usadioaren deskribapen orokor honen adibide batzuk emango ditugu. Esate baterako, Toxcatl izeneko jaialdian -mexikar urteko jaialdi handienez, alegia-, gizon gazte bat sakrifikatzen zuten urtero, Tezcatlipoca - "jainkoen jainkoa"- zelakoan, urtebetez jainko hura bera bailitzan mantendu eta gurtu ondoren. Sahagun frantziskotar fraidearen arabera -azteken erlijioan dugun aditurik handiena da bera-, giza jainkoaren sakrifizioa Aste Santuan edo egun batzuk geroxeago izaten zen; beraz, hura zuzen badabil, dataz eta izaeraz bat etorriko litzateke Salbatzailearen heriotza eta berpizkundearen jai kristauarekin. Zehazkiago, hark diosku sakrifizioa azteken bosgarren hilabetearen lehen egunean izaten zela; eta hilabete hori, berak dioskunez, apirilaren hogeita hiruan edo hogeita zazpian hasten omen zen.

Jaialdi hartan jainko handia giza ordezkari baten pertsonan hiltzen zen, eta berriro pizten zen beste pertsona batengan; beste hau ere patuak ekarritako ohoreaz goatzera behartuta zegoen urtebetez, eta bere denbora amaitzean hiltzera, aurreko guztiak bezala. Hartarako hartutako gizon gaztea kontu handiz aukeratzen zen katibuen artean, edertasunaren arabera. Odol garbikoa izan behar zuen, kanabera bezain zalua eta zutabea bezain zuzena; ez garaiegia, ez laburegia. Bizimodu ederrean gehiegi gizentzen bazen, argaltzera behartzen zuten gatz-ura edanez. Eta bere postu garaian graziaz beterik eta duintasunez aritzeko, kontu handiz trebatzen zuten goren graduako jaun batek bezala joka zezan, zuzen eta dotore hitz eginez, xirula joz, zigarroak errez eta loreak halako aire fin batez usnatuz. Ohore artean hartzen zuen ostatu tenpluan, eta nobleek zerbitzatzen zuten eta omen egiten zioten, janaria eramanez eta printze bati bezala zerbitzatuz. Erregeak berak ere begiratzen zuen jantzi dotoreak eramanez zitzan, "jainkotzat zeukalako jadanik". Arrano-lumatxak eta oilar-lumak itsasten zizkioten buruan, eta ilea gerriraino erortzen zitzaion. Arto txigortua bezalako lore-sorta bat izaten zuen lokietan, eta halako loreen beste sorta bat pasatzen zitzaion sorbalden gainetik eta galtzarbeetatik. Urrezko apaingarriak izaten zituen sudurretik zintzilik, urrezko besauztaiek apaintzen zizkioten besoak, urrezko txintzarriek zangoak, urrats bakoitzean hotsa ateraz. Turkesazko belarritakoak zintzilik belarrietan, turkesazko besauztaiek eskuturretan; maskorrez egindako idunekoa lepoko-inguruan eta bular gainean. Sarezko longaina izaten zuen, eta erdian gerriko gainloratua. Ezin dotoreago apainduta ibiltzen zen kaleetan zehar, xirula joz, zigarroa errez eta lore-sorta bat usnatuz, eta topatzen zuen jendea ahozpeztartean jartzen zitzaion aurrean, eta hasperenka eta malkotan errezatzen zion, hautsa eskutan hartuz eta ahora eramanez, umiltasun eta menpekotasun handienaren seinale. Emakumeak beren hurrekin etorri eta aurrean jartzen zizkioten, jainkoa bailitzan agurtuz. Izan ere, "gure Jainko Jauna bailitzan hartzen zuten; jendeak Jaun gisa hartzen zuen". Pasatzean, itzalez eta begiramenez agurtzen zituen gurtzen zuten guztiak. Ihes egin ez zezan, zortzi laguneko goardiak laguntzen zion beti, erret uniformeztartean jantzita, hura noranahi zihoala; haietako lauk buruko kalparraldean soilduta izaten zuten, jauregiko esklaboek bezala, eta beste laurek txima luzeak, gerrariak bezala; eta ihes egitea lortzen bazuen, goardiako kapitainak haren lekua hartu behar izaten zuen jainkoaren ordezkari gisa, eta haren ordeztartean hil behar izaten zuen. Hil baino hogeita egun lehenago, aldatu egiten zioten jantzia, eta lau andereño, oso ondo heziak eta lau jainkosaren izenak zituztenak -loreen jainkosa, arto gaztearen jainkosa, "gure ama uretako" jainkosa eta gatzaren jainkosa- ematen zitzaizkion emaztetzat, eta ezkondu egiten ziren. Azken bost egunetan jainkozko ohore ugari isurtzen zizkioten aukeratutako biktimari. Erregea bere jauregian geratzen zen,

gorte osoa giza jainkoaren atzetik ibiltzen zelarik. Oturuntza eta dantza larriak bata bestearen atzetik izaten ziren, leku aukeratuetan. Azken egunean gizon gaztea, emazteak eta laguntzaileak aldean zituela, zerudun kanoa batean sartzen zen, eta lakuan zehar eramaten zuten ur ertzeko muino batera. Banantzearen mendia deitzen zioten, emazteek han egiten ziotelako azken agurra. Gero, bere pajeak beste lagunik ez zuela, bide ondoko tenplu txiki eta bakarti batean sartzen zen. Mexikoko tenpluak oro har bezala, piramide-itxurakoa zen; eta gizon gazteak eskailerak igo ahala, urrats bakoitzean loriazko egunetan jotako xiruletako bat hausten zuen. Gainera iritsitakoan, apaizek hartu eta ahoz gora jartzen zuten harri-kosko baten gainean, eta haietako batek bularra ireki, sartu eskua zaurian eta bihotza erauzten zion eguzkiari eskainitako sakrifizio gisa. Hildako jainkoaren gorpua ez zen jaurtitzen eskaileretan behera, biktima arrunten gorpuak bezala; oineraino jaisten zuten, eta han lepoa moztu eta burua zikai batean sartzen zuten. Halakoxea izaten zen Mexikoko panteoiko jainkorik handiena nortzen zuen gizonaren azkena.

Aldi labur batez jainko baten gisa bizitzeko eta heriotza bortitza izateko ohorea ez zen gizonezkoena bakarrik Mexikon; emakumeei ere uzten zitzairen, edo behartu egiten zituzten, loria eta patu hori izatera jainkosen ordezkari gisa. Iraileko jai handi batean, aurretik zazpi eguneko baraua izan ondoren, neska gazte esklaboa sakrifikatzen zuten, hamabi edo hamahiru urtekoa, artoaren jainkosa Chicomecohuatl irudikatzeko aurkitzen zuten politena. Jainkosaren apaingarriez janzten zuten, mitra ezartzen zioten buruan eta artaburuak lepo inguruan eta eskuetan, eta buru gainean luma berde batzuk tente, artaburu baten antzera. Hau jai hartarako artoa ia umotua baina artean samurra zegoela adierazteko egiten omen zuten, alegia, urte gutxiko neska aukeratzeko zuten artoaren jainkosarena egiteko. Egun osoan zehar bere jantzi dotoreetan jantzita eramaten zuten haur gajoa, luma berdea buru gainean uhinka, etxez etxe alaiki dantzan, jendea bizkortzeko barauaren tristura eta gabezien ondotik.

Arratsean jende guztia biltzen zen tenpluan, inguruak linterna eta kandela ugariz argituta egoten zirelarik. Han lorik egin gabe ematen zuten gaua, eta gau erdian, turutek, xirulek eta adarrek musika itzaltsua jotzen zuten bitartean, gurdi edo palankina ekartzen zuten, artaburu-sortaz eta piperminez apaindua eta mota guztietako haziz betea. Eramaleek jainkosaren zurezko irudia zegoen kameraren atean uzten zuten hura. Kamera hori artaburu-sortaz, piperminez, kalabazaz, arrosaz eta mota guztietako haziz apainduta izaten zen kanpotik eta barrutik, dena ere ikusgarri; zoru osoa egoten zen gurtzaileen eskaintza heze haiez estalia. Musika amaitzen zenean, apaiz eta agintarien prozesio itzaltsua hasten zen, argi distiratsuz eta intsentsontzi ketsuz, erdian jainkosarena egiten zuen neska zeramatelarik. Gurditxora igoarazten zuten, eta han jartzen zen zutik artoaren eta piperminen eta kalabazen gainean, eskuak bi heldulekutan zituela ez erortzeko. Apaizek intsentsontziak kulunkatzen zituzten haren inguruan; musika berriro hasten zen, eta bitartean tenpluko agintari handi bat aurreratzen zen bat-batean labana eskutan zuela, eta trebeki ebakitzen zion buru gainean zeraman luma berdea, baita hari eusten zion biloa ere, ileak errotik moztuz. Luma eta ilea jainkosaren zurezko irudiari aurkezten zizkion zeremonia itzaltsu eta landuan, negarrez eta eskerrak emanez lurraren igaliengatik, eta urte hartan jendearei emandako uzta ugariengatik; eta hark negar eta otoitz egin bitartean, jende guztiak, tenplu inguruetan zegoelarik, berarekin egiten zuen negar eta otoitz. Zeremonia hura amaitutakoan, neska gurditxotik jaisten zen eta plazara laguntzen zioten, eta han eman behar izaten zuen gau osoa. Baina jende guztia geratzen zen tenpluaren inguruetan, zuzien argitan, eguna urratu arte.

Goiza etortzean, eta tenpluaren inguruak artean jendetzak betetzen zituelarik - sakrilegioa etsiko baitzioten barruti haietatik aldegiteari-, apaizek berriro ateratzen zuten andereñoa, jainkosa jantzian, mitra buruan eta artaburuak lepoan zituela. Berriz ere

gurditxora igo eta zutik geratzen zen, eskuez heldulekuei eutsiz. Gero tenpluko zaharrenek sorbaldetan hartzen zuten gurditxoa, eta batzuek intsentsontziei eraginez eta besteek musika jo edo kantatzen zuten bitartean, prozesioan eramaten zuten patio handian zehar Huitzilopochtli jainkoaren gelara, eta han berriz ere artoaren jainkosaren irudi zurezkoa zegoen kamerara, huraxe nortzen baitzuen neskak. Han neska gurditxotik jaitzarazi eta kamera sakratuaren zoruan ugari zabaldutako arto eta barazki pilen gainean jartzen zuten. Neska han zegoen bitartean, zaharrak eta nobleak ilaran sartzen ziren, bata bestearen atzetik, beren belarrietatik bildutako odol gatzatuaz betetako platertxoak zeramatzatela, zazpi barau-egunetan penitentzian atera ondoren. Banan-banan kokoriko jartzen ziren haren aurrean, alegia, gu belauniko jarriko bagina bezala, eta odol-geruza platertxotik arraskatuz haren aurrera botatzen zuten, eskaintza gisa hark egindako onurengatik, artoaren jainkosa gorpuztua izaki. Gizonek jainkosaren giza ordezkariari beren odola umilki eskaini ondoren, emakumeek, ilara luzea eratuz, beste hainbeste egiten zuten: bakoitza kokoriko jarri neskaren aurrean eta bere odola platertxotik arraskatu. Zeremoniak luze irauten zuen, zeren eta handi eta txiki, gazte zein zaharrek, den-denek, salbuespenik gabe pasa behar izaten baitzuten jainkosa haragiztatuaren aurretik bere eskaintza egiteko. Hura amaitutakoan, jendea etxeratu egiten zen, bihotza pozik, haragia eta era guztietako jakiak hartzeko; kristauak Aste Santuan, Garizumako barau luzearen ondoren, haragia jaten duten bezain pozik, nonbait. Eta ase arte jan eta edan ondoren, eta beilan emandako gauaren ondotik atseden hartu eta gero, atzera tenplura itzultzen ziren jaiaren amaiera ikustera. Eta amaiera honelakoa izaten zen. Jendetza bildutakoan, apaizek intsentsua ematen zioten jainkosa nortzen zuen neskari; gero arto eta hazien gainera ahoz gora bota, lepoa moztu, hartu borborka zerion odola azpil batean, eta dena ziprztintzen zuten odolaz: jainkosaren zurezko irudia, kamerako hormak eta kamera betetzen zuten arto, pipermin, kalabaza, hazi eta barazkien eskaintzak. Ondoren, larrutu egiten zuten bururik gabeko gorpua, eta apaiz bat larru odolduaren barruan sartzen zen. Hura egin ondoren, beste apaizek neskak erabilitako arropak jantzen zizkieten: mitra buruan, artaburu horizko idunekoa lepo inguruan, luma eta urrezko artaburuak eskuetan. Eta hala jantzita, jendaurrera ateratzen zuten, denak ere dantzan danborren hotsean, hura ilarako buru aritzen zelarik, saltoka eta zalapartaka ahal bezain bizi. Izan ere, neskaren larrua atezuan eta lika zituenez, jantziak bezala -gizon heldu batentzat txikiegiak izaki, deseroso joaten baitzen.

Aurreko usadio horretan neska gaztea erabat identifikatzen da artoaren jainkosarekin. Lepo inguruan artaburu horiak eramaten zituen; eskuetan artaburu artifizialak eramaten zituen; ilean, artaburu berde baten antzo izaten zituen ezarrita luma berdeak. Horiek denek laborearen izpirituaren pertsonifikazioa zela erakusten dute; eta espreski jakinarazten zaigu neska gaztea aukeratzen zela arto gaztea nortzeko, jaialdiaren sasoian alea artean erabat heldu gabe zegoelako. Gainera, laborearekiko eta laborearen jainkosarekiko identifikazioa argi eta garbi adierazten zuen hura arto-pilen gainean ezartzeak eta han jende guztiaren omena eta odol-eskaintzak hartzeak, hala eskertzen zizkiotelarik jainkosa zen aldetik eman omen zizkien onurak. Orobat, lepoa arto-pila baten eta hazien gainean mozteak, eta odolaz dena ziprztintzea, -artoaren jainkosaren irudia ezezik, artoa, pipermina, kalabazak, haziak eta barazkiak-, zertarako izango zen, laboreak eta lurraren igaliak oro har bizkortzeko eta indartzeko baino, haien lagin batzuen gainera artoaren jainkosaren beraren odola isuriz. Mexikoko sakrifizio honen analogiak, esanahia ezin argiagoa baita, indartu egingo luke uztaren alde eskainitako beste giza sakrifizioez eman dudan interpretazioa. Baldin eta mexikar neskak, zeinen odola arto gainera isurtzen baitzen, artoaren jainkosa nortzen bazuen, guztiz litekeena da pawnee indiarrek ere artoaren hazitara isurtzen zuten odolaren jabeak, neskak,

laborearen izpiritu emea nortzea; beste horrenbeste esan daiteke beste herri batzuek ereinen hazkundera bizkortzeko hil izan dituzten gizakiez ere.

Azkenez, drama sakratuaren azken ekitaldia, alegia, hildako artoaren jainkosaren gorpua larrutu eta haren larrua, bere ezaugarri sakratu guztiekin batera, gizon batek janzea, eta ondoren dantza egitea soineko beldurgarri hartan, honako hipotesi honen bidez azal daiteke: jainkoaren heriotzaren ondo-ondotik piztuera etor zedin segurtatzea zuela xedetzat. Hori horrela izatera, pentsa genezake, ia erabateko segurantzaz, jainko baten giza ordezkaria hiltzeko ohitura jainkoazko indarrak gaztetasunaren betean, adinaren ahuleziak eta makaltasunak ukitu baino lehen betierekotezko bitarteko huts gisa hartu izan dela eskuarki, agian beti; aje horien ondorioak jasango baitzituzten baldin eta jainkoari berez hiltzen utzi izan baliote.

Mexikoko errito horiek aski dira frogatzeko Arician izan bide ziren sakrifizioak eskaintzen zituen jendeak, hain zuzen, ez zuela Italiako beste herriek zutena baino kultur maila apalagoa, garaiagoa baizik, Ariciako apaizgoaren hasierako garai goiztar haietan. Munduko alde batean sakrifizio haiek bazirelako frogara argi eta erabatekoak indartu egingo luke beste leku batzuetan ere izateko probabilitatea, frogak ilunagoak eta ez hain fidagarriak izan arren. Denak batera hartuta, ikusi ditugun egintzek zera erakusten digute, gurtzaileek jainkoazkotzat dituzten gizonak erailtzeko usadioa munduko alde askotan izan dela.

lx

Zeruaren eta Lurraren artean

1. Lurra ukitu gabe

Liburu honen hasieran bi galdera jarri ditugu erantzuteko: zergatik hil behar zuen Ariciako apaizak bere aurrekoa? Eta zergatik, hori egin aurretik, erauzi behar zuen Urrezko Abarra? Bi galdera horietarik lehenari erantzun diogu jadanik. Ariciako apaiza, zuzen banago, errege sakratu edo giza jainkoa zen, bizia -hala uste zen- komunitatearen ongizatearekin eta naturaren ibilerarekin oro har estu lotuta zuena. Ez dirudi halako ahaltsu izpiritualaren menpeko edo gurtzaileek harekiko erlazioaz oso ideia garbirik zutenik; beharbada horretaz zituzten ideiak ilunak eta aldakorak ziren, eta oker geundeke erlazio hori zehaztasun logikoz definitzen saiatuko bagina. Jendeak zekien guztia, edo imajinatzen zuena, hauxe zen: nola edo hala berak, beren ganadua eta beren uztak, misterioz lotuta zeudela jainkoazko erregearekin, hala non, hura ondo ala gaizki egon, komunitatea osasuntsu ala gaixorik egongo zen, ganadu eta aziendak gizendu ala gaixotu eta argaldu egingo ziren, eta soroek uzta oparoa ala eskasa emango zuten. Burura zezaketen gaitzik okerrera gobernaria berez hiltzea zen, gaixorik edo zahardadez hiltzea; jarraitzaileen iritziz, hala hiltzeak ondoriorik txarrenak ekarriko zizkien berei eta beren ondasunei; izurri gaiztoek garbituko zituzten gizakiak nahiz abereak; lurra ez luke emango, are gehiago, naturaren egitura osoa desegingo litzateke. Hondamendi horietatik babesteko, beharrezkoa da erregea bere jainkoazko gizatasunaren sasoi betean dagoen bitartean hiltzea, zertarako eta haren bizi sakratuak, ondorengoari batere akatsik gabe transmitituta, gaztetasuna berri dezan, eta hala, hurrenez hurreneko transmisioen bidez, haragiztatze indartsuen segida etengabea, beti berri eta gazte iraun dezan. Gizakiak eta abereak ere, belaunaldiak etengabe elkarri jarraituz, era berean berrituko direlako berme da, eta erein-aroak eta uztaroak, udak eta neguak, euriak eta eguzkiak inoiz huts egingo ez dutelako berme. Nire aieruak zuzenak badira, horrexegatik hil behar izaten zuen Ariciako apaizak, Nemiko Basoko Erregeak, bere ondorengoaren ezpatapean.

Baina oraindik galdetu beharra dugu: zer zen Urrezko Abarra? Eta zergatik erauzi behar zuen hura Ariciako apaizgorako kandidatu bakoitzak apaiza hil aurretik? Galdera hauei erantzuten saiatuko naiz.

Egokia litzateke, hasteko, bi arau edo tabu aipatzea, jainkozko errege edo apaiz horien bizia erregulatzen dituzten horietakoak, ikusi dugunez. Irakurleari begien aurrean jarriko diodan lehen araua da jainkozko pertsonaiak ezin duela zorua ukitu bere oinez. Arau hau gordetzen zuen Mexikoko zapoteken pontifize nagusiak; bere santutasuna orbaintzen omen zuen zorua oinaz ukituz gero. Moctezuma, Mexikoko enperadoreak, inoiz ez zuen oinik jartzen lurlean; nobleen sorbalden gainean eramaten zuten beti, eta nonbait lurreratzen bazen, tapizeria ederra hedatzen zuten gainetik ibil zedin. Japoniako Mikadoarentzat lurra oinaz ukitzea lotsagarria zen; hamaseigarren mendean aski zen hori hura bere kargutik kentzeko. Jauregitik kanpora gizonen sorbaldetan eramaten zuten; barruan, ederki landutako zirrien gainean ibiltzen zen. Tahitiko errege-erreginek ezin zuten lurrik inon ukitu, beren jabegoetan izan ezik; inon oinez zoru gainean ibiltzen baziren, lur hura sakratu bihurtzen zen. Leku batetik bestera bidaiatzeko, gizon sakratuen sorbaldetan joaten ziren. Laguntzaile santutu haietako zenbait pare izaten zituzten beti berekin; eta eramaleak aldatu beharra gertatzen zenean, erregeak eta erreginak beste eramale batzuen sorbalda gainera egiten zuten salto, oinik lurlean ezarri gabe. Seinale txarra zen Dosumako erregeak lurra ukitzea, eta pekamenezko zeremonia burutu behar izaten zuen hori gertatuz gero. Jauregi barruan, Persiako erregea beste inork zapal ez zitzakeen alfonbren gainean ibiltzen zen; kanpoan inoiz ez zuten ikusten oinez, gurditxoan edo zaldi gainean baizik. Antzina, Siamgo erregeak inoiz ez zuen oinik ezartzen lurlean, urrezko tronu batean garraiatzen zuten batetik bestera. Lehenago, ez Ugandako erregeak, ez haien amak, ez erreginak ibil zitezkeen oinez beren egoitza zabalez kanpo. Noranahi zihoazela, bufaloaren klaneko gizonen sorbalden gainean garraiatzen zituzten; haietako batzuek laguntzen zieten errege-familiako pertsonaiei txangoetan, eta txandaka hartzen zituzten gainean. Erregea zangalatraba jartzen zen eramalearen lepagainean, zango bat sorbalda bakoitzean eta oinak galtzarbeetan. Garraialari haietako bat nekatzen zenean, beste baten bizkarrera pasatzen zuen erregea, erregearen oinek lurra ukitzen utzi gabe. Era hartan, martxa handian ibiltzen ziren erregearen bidaietan, distantzia luzeak eginez egun batean. Eramaleek etxola berezia zuten erregearenean, zertarako eta haien beharra zenean eskura izateko. Bakuba, edo hobe Bushongo tribukoen artean -Kongoko hegoaldeko nazio bat da hau-, orain urte gutxi batzuk arte, errege-odoleko pertsonak debekatua zuten lurra ukitzea; larru edo aulki baten gainean, edo lauhankan jarritako esklabo baten bizkar gainean eseri behar izaten zuten; oinak besteren oinen gainean jartzen zituzten. Bidaiari zirenean, gizonak sorbaldan eramaten zituzten; baina erregeak andetan bidaiatzen zuen. Awka inguruko iboen artean -Nigeriako hegoaldean-, Lurraren apaizak tabu asko gorde behar izaten ditu; adibidez, ezin du gorpurik ikusi, eta bidean bat aurkitzen badu begiak estali behar izaten ditu bere eskuturrekoaz. Janari asko ezin ditu jan, hala nola arrautzak, era guztietako hegaztiak, aharikia, zakurkia, basauntza eta abar. Ez dauka maskararik jantzi edo ukitzerik, eta maskaratutako inork ez dauka haren etxean sartzerik. Zakurren bat etxean sartzen bazaio, akabatu eta kanpora botatzen dute. Lurraren apaiz den aldetik, ez dauka lurlean besterik gabe esertzerik, ez lurrera eroritako gauzak jaterik, eta ezin zaio lurrik bota. Brahmanen antzinako erritualaren arabera, erregea koroatzen zutenan, tigre baten larruaren eta urrezko plater baten gainean ibili behar izaten zuen. Suge-larruzko oinetakoak janzen zizkioten, eta bizi zen artean ezin egon zitezkeen hanka-hutsik zoru gainean.

Baina etengabe sakratu edo tabututa dauden eta, beraz, lurra oinez ukitzea etengabe debekatua duten pertsonak gainera, badira beste batzuk abagune jakin batzuetan bakarrik hartzen dutenak santutasun edo tabu izaera. Hortaz, debeku hori sasoi jakin batzuetan tokatzen zaie bakarrik, santu-urrina darienean. Hala, Borneoko erdialdeko kayan edo bahausen artean, emakume apaiza errito jakin batzuk burutzen ari denean, ez

dauka lurrean oinik jartzerik, eta oholak jartzen zaizkio ibil dadin. Gerrariak ere, gerran dabiltzanean, tabu-giroak inguratzen ditu, nolabait esan; horregatik, Iparramerikako zenbait indiarrek ez zeukaten lurrean esertzerik gerra-espedizio batean zirenean. Laosen, elefanteen ehizak tabu asko sorrazten ditu; baten arabera, ehiztarien buru doanak ezin du lurrik ukitu bere oinez. Beraz, bere elefantetik jaisten denean, besteek hostozko alfonbra zabaltzen diote azpian.

Dirudienez, santutasuna, bertute magikoa, tabua edo nolanahi deitzen diogula pertsona sakratu edo tabutuak hartzen omen dituen tasun misteriotsu horri, gai fisiko edo jariakin gisa sumatzen du filosofo primitiboak; gai horretaz beteta dago gizon sakratua, Leydengo botila bat elektrizitatez beteta dagoen bezela; eta botilako elektrizitatea, eroale ona ukituz gero, deskarga daitekeen bezalaxe, halaxe gizonaren santutasun edo bertute magikoa ere, deskargatu eta ezabatu egin daiteke lurra ukituz gero, teoria horren arabera lurra eroale bikaina baita jariakin magikoarentzat. Horregatik, karga alferrik gal ez dadin, pertsonaia sakratu edo tabutuak ezin du inolaz ere lurrik ukitu; elektrizitate-hizkeraz esanda, isolatuta behar du, erredoma bat bezala ia gainezka egiteraino betetzen duen gai edo jariakin preziatu horretaz hustuko ez bada. Eta kasu askotan tabututako pertsonak isolatzea gomendatzen da, beren mesedetan ezezik, besteenetan ere bai; izan ere, santutasunaren edo tabuaren bertutea, nolabait esan, lehergai indartsua denez, ukitu txikienak lehartaraz dezakeena, beharrezkoa da, denen mesedetan, ondo babestuta edukitzea, askatuz gero zapart egin eta ukitzen duen oro desegin ez dezan.

2. Eguzkia ikusi gabe

Aipatu beharreko bigarren araua da eguzkiak ezin duela distira egin jainkozko pertsonaren gainean. Arau hori gordetzen zuten bai Mikadoak eta bai zapoteken pontifizeak. Bigarren hau "jainkotzat zeukaten, eta lurra ez zen gai hari eusteko, ezta eguzkia ere argi egiteko". Japoniarrek Mikadoari ez zioten uzten bere pertsona sakratua aire zabalean ager zezan, eta eguzkia ez zen duin hura buru gainean jotzeko. Granadako indiarrek, Hegoamerikan, "hartzen zituzten buruzagi edo agintari izan behar zutenak, gizon nahiz emakume, eta giltzapean edukitzen zituzten zenbait urtez haurrak zirenean, batzuk baita zazpi urtez ere, eguzkia ere ikusi gabe, halakorik gertatuz gero galdu egiten baitzuten jaurgorako eskubidea, eta janari jakin batzuk besterik ez zituzten jaten; eta batzuetan zaindarien haien presondegian sartu eta gogor zigortzen zituzten". Hala, adibidez, Bogotako tronurako oinordekoak -erregearen semea ez baina erregearen arrebaren semea izaten zen- trebaketa latza jasan behar izaten zuen haurretatik: erretiro osoan bizi izaten zen tenplu batean; ez zeukan ez eguzkia ikusterik, ez gatza jaterik, ez emakumeekin hitz egiterik; zaindariz inguratuta egoten zen, jokabidea behatzen eta egiten zituen guztiak kontuan hartzen zizkiotelarik; berarentzat ezarritako arau bakar bat hausten bazuen, doilortzat jotzen zuten, eta tronurako eskubide guztiak galtzen zituen. Orobat, Dogamosoko erresumako oinordekoak, koroa bereganatu aurretik, zazpi urteko baraua egin behar izaten zuen tenpluan, giltzapetuta eguzkiaren argia ikustea uzten ez zitzaizlarik. Peruko Inka nagusi bihurtuko zen printzeak ere hilabeteko baraua egin behar izaten zuen, argirik ikusi gabe.

3. Neskak giltzapean pubertatean

Azpmarratzekoa da aipatu bi arauok -lurra ez ukitzea eta eguzkia ez ikustea- biak batera nahiz bereizita, neskek betetzen dituztela munduko alde askotan. Hala, Loangoko beltzen artean, neskak etxola bereizi batzuetan sartzen dituzte pubertatean, eta ez daukate lurrik ukitzerik gorputzeko ezein parte biluziz. Hegoafrikako zuluen eta inguruko beste tribu batzuen artean, pubertatearen lehen arrastoak ageri direnean "neska bat oinez doalarik, egurra biltzen edo soroan lanean ari dela, korrika joaten da ibaira, eta han ezkututzen da kanaberen artean egun osoan, gizonek ikus ez dezaten. Burua kontu handiz estaltzen du bere mantaz, eguzkiak jo eta eskeleto zimel bilaka ez

dezan, horixe gertatuko bailitzateke eguzkiaren errainuen pean jarritz gero. Ilundutakoan etxeratzen da, eta giltzapean sartzen dute "etxola batean denboraldi batez. Awan-kondeen artean -Nyassa lakuko iparraldeko tribu bat- araua da lehen hilekoaren ondoren neska etxe ilun batean aparte jartzea, bere sexuko lagun batzuekin. Zorua banana-hostoz estalita egoten da, baina ezin da surik piztu etxe hartan; "awasunguen etxea" deitzen zaio, hau da, "bihotzik ez duten neskena".

Irlanda Berrian neskak lauzpabost urtez edukitzen dituzte kaiolatxoetan, ilunean eta oinik lurrean jartzen uzten ez dietelarik. Usadioa honelaxe deskribatu zuen lekuko batek. "Irakasle batek jakinarazi zidan bazela usadio bitxi bat, hango neska gazte batzuei zegokiena, eta haiek zeuden etxera eraman nintzala eskatu nion buruzagiari. Etxea hogeita bost bat oin zen luzean, eta kanabera eta banbuzko itxitura baten barruan zegoen; sarreran belar ihartu eskutada bat zegoen zintzilik, hura "tabu" zela adierazten. Etxe barruan hiru egitura koniko zeuden, zazpi edo zortzi oin garai, eta hamar edo hamabi oin biribilean zorutik lau bat oineko altueraraino, handik sabairaino estutuz zihoazelarik. Kaiola haiek pandanus arbolaren hosto zabalez eginda zeuden, oso trinko josita ez argirik ez ainerik sartu ahal zedin. Kaiola bakoitzak sarbidea zuen albo batean, kokondoaren eta pandanus arbolaren hosto txirikordatuz egindako ate bikoitz batez itxita. Lurretik hiru bat oinetara, banbuzko plataforma batek eratzen zuen zorua. Kaiolatxo bakoitzean emakume gazte bat omen zegoen. Gutxienez bost bat urtez egon beharra zen han, inoiz ere kanpora irteterik ez zeukalarik. Lanak izan nituen sinesten hura aditu nuenean; izugarriegia zirudien egia izateko. Esan nion buruzagiari kaiolen barrualdea ikusi nahi nuela, baita neskak ere, puxtarri batzuk oparitzeko. Hark erantzun zidan hori "tabu" zela, gizonak debekatua zutela haiei begiratzea, senideak izan ezean; baina agindutako puxtarriek, nik uste, hartara makurtu zuten, eta emakume zahar baten bila bidali zuen norbait; nesken ardura omen zuen, eta berak bestek ez zitzakeen ireki ateak. Zain geunden bitartean, buruzagiarekin hizketan aditu genien neskei, kexuka bezala, konforme ez baileuden edo beldurra adierazten bezala. Halako batean, etorri zen emakume zahar hori eta, egia esan, ez zirudien oso gartzelazain edo zaindari gozoa; eta ez zirudien buruzagiaren eskaria -guri neskak ikusten uztea, alegia- oso ondo hartu zuenik, ez zigun-eta batere gozo begiratu. Hala ere, atea ireki behar izan zuen buruzagiak hala egiteko esan zionean, eta orduan neskek begiratu egin ziguten, eta hala egiteko esan zitzaieanean, eskuak luzatu zituzten puxtarrien bila. Ni, ordea, berariaz eseri nintzen aparte samar, eta ozta-ozta luzatu nizekien puxtarriak, ahalik gehien aterarazi nahi baintuen, kaiolen barrualdea begiztatu ahal izateko. Nire nahi hark beste zailtasun bat ekarri zuen, neska haiek ez baitzeukaten oinak lurrean jartzerik han barruan egon bitartean. Hala ere, puxtarriak hartu nahi zituzten, eta emakume zaharrak kanpora irten behar izan zuen egur-zati batzuk biltzera; zatiok zoruan jarri eta neska batengana joan eta jaisten lagundu zion, eskutik helduta, eta egur-zati batetik bestera joaten, nik luzatzen nizekion puxtarriak hartzeko adina hurbildu arte. Orduan hustutako kaiolaren barrualdea aztertzen hasi nintzen, baina apenas sartu ahal izan nuen burua, hango giroa oso epela eta itogarria baitzen. Garbi zegoen, eta ez zeukan ezer, ura edukitzeko banbuzka batzuk ezik. Neska eserita edo etzanda eta hankak bilduta egoteko bestetarako ez zegoen lekurik banbuzko plataforman, eta ateak itxita zeudenean oso ilun egon behar zuen han. Neskei inoiz ez zitzaien uzten irteten, egunean behin baizik, kaiola bakoitzaren ondoan jarritako zurezko ontzi batean bainatzeko. Izerdi patsetan egoten omen dira. Oso gazte direnean jartzen dituzte kaiola itogarri haietan, eta han egon behar izaten dute emakume gazte bihurtu harte; orduan atera egiten dituzte, eta bakoitzari ezkontzako oturuntza handia eskaintzen zaio. Neska haietako bat hamalau edo hamabost urtekoa zen, eta buruzagiak esan zigun bost urtez egona zela barruan, baina laster

irtengo zela. Beste biak zortzi eta zazpi urtekoak ziren, eta zenbait urtez egon beharrak ziren".

Kabadin, Britainiar Ginea Berriko eskualde batean, "buruzagien alabak, hamabi-hamahiru urtera iristen direnean, etxe barruan atxilotzen dituzte bizpahiru urtez, eta inoiz ez zaie uzten etxetik irteten, dena dela arrazoa; etxea ilun-ilun egoten da, ez dute eguzki-izpirik hartzen". Bukaua eta yabimek -Ginea Berriko iparraldeko kostaldean bizi diren bi tribu auzoko eta senide dira-, neska bat pubertatera iristean, bospasei astez sartzen dute etxearen barrualdeko toki batean; baina ez dauka zoruan esertzerik, beraren -neskaren- garbiezak orbain ez dezan, eta enborra jartzen zaio han kokoriko jar dadin. Gainera, ez dauka zorua oinez ukitzerik; horregatik, aldi labur baterako etxetik irten beharra badu, zirrietan biltzen dute eta bi koko-azal erdiren gainean ibiltzen da, aihenez sandalien gisan lotuta. Borneoko ot danomek, neskek zortzi edo hamar urte dituztenean, etxeko gelatxo batean sartzen dituzte, eta munduarekiko harremanak eteten dizkiete aldi luze batez. Gelatxoa, etxeko beste alde guztiak bezala, zutarri batzuen gainean egoten da, eta leihotxo bat besterik ez du, hala non neska ia erabateko ilunean egoten den. Ez dauka inolaz ere gelatik irteterik, ezta beharrenezkoetarako ere. Familiako inork ez dezake ikus han sartuta dagoen denbora guztian; emakume esklabo bakar bat aukeratzen dute hura zaintzeko. Bere itxialdi bakarti hartan, -batzuetan zazpi urte ere irauten du-, neskak zirriak ehuntzen edo bestelako esku-lanak egiten ematen du denbora. Gorputza, ariketarik ezean, ez zaio behar bezala hazten, eta andre bihurtzean ateratzen dutenean, itxura zurbila izaten du, argizari-kolorea. Orduan eguzkia, lurra, ura, zuhaitzak eta loreak erakusten zaizkio, berriro jaio bailitzan. Gero oturuntza handia egiten da, esklabo bat hil eta neska haren odolaz igurtzitzen dute. Ceramen, neskak pubertatera iristean, etxola ilun batean isolatzen zituzten. Yapen, Karolinetako irla batean, neskaren bat lehen hilekoak kalean harrapatuko balu, ez dauka lurrean esertzerik, koko-azal bat eskatu behar du azpian jartzeko. Egun batzuetan etxolatxo batean sartzen dute, gurasoen etxetik aparte, eta gero hilekoarekin dauden emakumeentzat egindako etxe berezietako batean lo egin behar izaten du ehun bat egunez.

Torres itsasarteko Mabuiag irlan, neska bati pubertatearen zantzuak agertzen zaizkionean, biribil bat egiten da zuhaixkaz eta abarrez etxearen bazter ilun batean. Han, uhalez, besauztaiz, belaunpeko eta orkatilako aroz apainduta, buruan koroatxoa duela, eta belarri, bular eta bizkarrean maskorrak, zuhaixken artean jartzen da kokoriko, burua besterik ageri ez duelarik. Itxitura hartan egon beharko du hiru hilabetez. Denbora hartan guztian eguzkiak ezin du jo, baina gauez etxolatik irteten uzten zaio, eta hesitzen duten zuhaixkak orduan aldatu egiten dira. Ez dauka bere eskuz jaterik, emakume zahar batek edo bik ematen diote jaten, neska zaintzeko egiteko berezia duten amaren aldeko izebek. Emakume horietako batek atontzen du jana basoan egindako su berezi batean. Neskak debekatua du dortokaren haragia edo arrautzak jatea, dortokak umeak hazten ari diren sasoian; baina barazkirik ez zaio ukatzen. Gizonak ezin dira sartu etxean, ezta aita ere, itxialdiak iraun bitartean; aita denboraldi horretan ikusiko balu, zori txarra izango luke ezbairik gabe arrantzan, eta seguruenik kanoa hautsiko luke hurrengo abialdian. Hiru hilabeteen ondoren errekatxo batera eramaten dute bi laguntzaileek, bizkar gainean hartuta, neskaren oinek lurrik uki ez dezaten. Bitartean tribuko emakumeak beraren inguruan jartzen dira, eta hondartzara laguntzen diote. Hara heldutakoan, apaingarri guztiak kentzen dizkiete, eta eramaleak ere berarekin batera sartzen dira errekan, eta murgildu egiten dute. Beste emakume guztiek ura botatzen diete neskari eta bi eramaleei. Uretatik irteten direnean, laguntzaile batek belar-pilatxoa egiten du neska kokoriko jar dadin. Beste laguntzailea haitz artera joaten da korrika, hartzen du karramarro txiki bat, kentzen dizkio pintzak eta atzera bizkor etortzen da errekarara. Han, bitartean sua piztu baitute, bertan erretzen dituzte pintzak. Laguntzaileek pintzok

ematen dizkiote neskari, jan ditzan. Gero berriz apaintzen dute, eta talde osoa herrira itzultzen da ilara bakarrean, bi izeba zaharrek neska erdian daramatelarik eskuturretatik helduta. Izeben senarrek hartzen dute eta haietako baten etxera eramaten dute; han jatordua egiten dute, eta neskari utzi egiten zaio bere eskuz, ohi bezala jan dezan. Gero dantza dator: neskak parte hartzen du, erretiroan zaindu duten bi izeben senarren artean dantzatzuz.

Cape York penintsulako Yaraikanna tribukoen artean, Queenslandeko iparraldean, neskak pubertatean bere kabuz bizi behar izaten du hilabetez edo sei astez; gizonek ez dezakete ikus, baina emakumeek bai. Berarentzat bereziki egindako etxola edo aterbe batean egoten da, zoruan ahoz gora etzanda. Ezin du eguzkirik ikusi, eta arrasbehera aldera begiak itxi behar izaten ditu eguzkia ezkutatu arte, bestela sudurra gaixotuko omen litzaioke eta. Itxialdian zehar ez dauka jaterik ur gazitan bizi den ezer, suge batek hilko luke bestela. Emakume zahar batek zaintzen du, eta sustraiak, ñameak eta ura eramaten dizkio. Australiako tribu batzuek, sasoi horretan, ehortzi egiten dituzte beren neskak, sakon samar ehortzi ere, beharbada eguzkiaren argitik ezkutatzeko.

Kaliforniako indiarren artean, lehen hilekoa zuen neskak "naturaz gaindiko boterea zuela jotzen zen, eta hori ez zen beti ikusten gauza txar edo gaiztotzat. Sarritan, ordea, sentimendu bortitza izaten zen egoera hari zegokion botere gaiztoaz. Familiatik eta komunitatetik aparte uzteaz gainera, mundua ere harengandik apartatzeko saioa egiten zen. Ezartzen zitzaizkion betebeharrak sendoenetako bat ingurura ez begiratzea zen. Burua makur izaten zuen, eta debekatua zuen mundua eta eguzkia ikustea. Tribu batzuetan manta batez estaltzen zioten burua. Alde horretatik, usadio askok Ozeano Bareko ipar kostaldekoen usadioen antza dute, hala nola neskak debeku izatea burua ukitzea edo eskuaz hazka egitea, horretarako tresna berezi bat ematen zitzaizolarik. Batzuetan, inork jaten ematen zionean elikatzen zen, bestela barau egin behar izaten zuen".

Chinook indiarren artean -Washingtongo estatuko kostaldean bizi ziren hauek- buruzagi baten alaba pubertatera iristen zenean, ezkutatu egiten zuten bost egunez jendearen begiradetatik; ez zeukan ez haiei, ez zerura begiratzerik, ezta fruiturik biltzerik ere. Zerura begiratzuz gero, eguraldi txarra etorriko omen zen; fruituak bilduz gero, euria egingo omen zuen; eta zedro-azalezko xukadera izai batetik zintzilikatuz gero, zuhaitza ihartu egingo omen zen bat-batean. Ate berezi batetik irteten zen etxetik, eta herriatik urruneko erreka batean bainatzen zen. Barau egiten zuen zenbait egunez, eta beste egun askotan ez zeukan janari freskorik hartzerik.

Vancouver irlako aht edo nootka indiarren artean, neskak pubertatera iristen direnean, etxeko galeria moduko batean jartzen dituzte, "eta zirriaz inguratzen dituzte erabat, ez eguzkia, ez inongo surik ikus dezaten. Kaiola hartan zenbait egun igarotzen dituzte. Ura ematen zaie, baina jakirik ez. Zenbat eta luzeago iraun neska batek erretiro hartan, hainbat eta ohore handiagoa gurasoentzat; baina bizi den artean zorigaiztoko izango da inork jakiten badu inimiziazko-proba hartan sua edo eguzkia ikusi dituela". Trumoi-txori mitikoaren irudiak izaten dituzte pintatuta neska ezkutatzeko duten pantailek. Itxialdian zehar ez dauka inora aldegerik ez etzaterik; kokoriko egon behar du beti. Ez dauka eskuez ilea ukitzerik, baina uzten zaio buruari hazka egiten, hartarako orrazi edo hezurrezko pieza batez. Gorputzari hazka egitea ere debeku du, hazkaldi bakoitzak orbaina utziko liokeelakoan. Pertsona heldu bihurtu eta zortzi hilabetez, ez dauka jaki freskorik hartzerik, batez ere izokia; gainera, bere eskuz jan behar du, eta bere edalontzia eta platera erabili behar ditu.

Britainiar Columbiako Tsetsaut tribuan, neska batek, pubertatera iristean, larruzko kapela zabala janzten du, aurpegia estaltzen diona eta eguzkitik babesten duena. Aurpegia eguzkiari edo ortziari emango balie, euria egingo omen luke. Kapelak sutatik ere babesten dio aurpegia, hark ere ez baitu argitu behar; eskuak babesteko, eskularruak

janzten ditu. Ahoan animalia baten hortza izaten du, bere hortzak txantxarretik gordetzeko. Urtebetez ez dauka odolik ikusterik aurpegia belztuta ez badu; bestela, itsutu egingo litzateke. Bi urtez janzten du kapela eta bere kabuz bizi izaten da etxola batean, jendea ikustea badaukan arren. Bi urteren buruan, gizon batek burutik kentzen dio kapela eta bota egiten du. Britainiar Columbiako Bilqula edo Bella Coola tribuan, neska bat pubertatera iristen denean, logelatarako erabiltzen duen estalpean egon behar izaten du, han beretzako sutegia duela. Ez zaio uzten etxeko alde nagusira jaisten, eta ez dauka familiaren sutondoan esertzerik. Lau egunez mugitu gabe eserita egon behar izaten du. Egunez barau egiten du, baina goizean goiz jan-edan pixka bat har dezake. Lau eguneko itxialdiaren ondoren, irten daiteke gelatik, baina zoruan egindako zulotik bakarrik, etxeak zutabeen gainean eraikita egoten baitira. Artean ez dauka gela nagusian sartzerik. Etxetik aldegiten duenean kapela zabal bat janzten du aurpegia eguzkiaren errainuetatik babesteko. Eguzkiak aurpegian joko balu, begiak minduko omen litzazkioke. Badauka mendiko fruituak biltzea, baina urtebetez ezin da hurbildu ibai baten ertzerara edo itsasora. Izoki freskoa jango balu, bere sentimenak galduko lituzke, edo ahoa moko luze bihurtuko litzaioke.

Alaskako tlingit edo kolosh indiarren artean, neska bati emakumetasun-seinaleak antzematen zitzaizkionean, zulotxo bat besterik ez zuen kaiola moduko batean sartzen zuten. Leku ilun eta zikin hartan iraun behar izaten zuen urtebete, ez surik, ez soinarik edo antzekorik eginez. Amak eta emakume esklabo batek bakarrik ematen zioten jaten. Janaria leihotxo batean jartzen zitzaion; arrano buruzuri baten hegalezurretik edan behar izaten zuen. Gerora, itxialdia sei edo hiru hilabetera murriztu zen zenbait lekutan, edo are gutxiago. Kapelu modukoa jantzi behar izaten zuen, hegala luzekoa, begiradaz ortzia orbain ez zezan; neska ez baitzen duin eguzki-errainuak hartzeko, eta pentsatzen zen haren begiradak hondatu egingo zuela ehiztari, arrantzale edo jokalaria baten zortea, gauzak harri bihurtu eta beste gaitz batzuk egingo zituela. Itxialdia amaitzean, arropa zaharrak erre eta berriak egiten zizkieten, eta oturuntza batean ebakitzea egiten zioten beheko ezpainean, ahoaren paraleloan, eta zur-puska bat edo maskorra txertatzen zioten zauria itxi ez zedin. Koniagarren artean -Alaskako herri eskimal bat da hau-, neska pubertatera iristean etxolatxo batean jartzen zuten, eta han eskuen eta oinen gainean iraun behar izaten zuen sei hilabetez; gero etxola handitu egiten zen pixka bat, bizkarra luzatzeko beste, baina jarrera hartan egon behar izaten zuen beste sei hilabetez. Denbora osoan inorekin traturik izan ez zezakeen izaki lohitzat hartzen zuten.

Neska batengan pubertatearen zantzuak lehenengo aldiz agertzen zirenean, Brasilgo hegoaldeko guaraniek, Paraguayko mugaldean, bere hamakan josten zuten neska, eta zulotxo bat besterik ez zioten uzten arnasa har zezan. Egoera hartan, gorpu baten gisan bilduta eta jantzita, bizpahiru egunez-edo edukitzen zuten, sintomak iraun bitartean, eta denboraldi hartan baraurik zorrotzena egin behar izaten zuen. Ondoren, andre baten eskuetan uzten zuten; hark ilea mozten zion, eta harik eta ilea belarriak estaltzeko adina luzatu arte inolako haragirik ez jateko agintzen zion. Antzeko abaguneetan, Boliviako hegoekialdeko chiriguanoek sabairaino jasotzen zuten neska bere hamakan, eta han hilabete iraun behar izaten zuen; bigarren hilabetean hamaka erdiraino jaisten zuten; eta hirugarrenean emakume zaharrak, makilaz armatuta, etxolan sartu eta batetik bestera lasterrean ibiltzen ziren, aurkitzen zuten guztia kolpatuz, esanez neska zauritu zuen sugaaren ehizan ari zirela.

Mataco edo mataguayoen artean -Chaco Handiko indiar tribu bat-, neskek, pubertatera iritsitakoan, itxialdia jasan behar izaten dute aldi batez. Etzanda egoten dira, abarrez eta beste gauza batzuez estalita, etxolaren bazter batean, inor ikusi gabe eta inorekin hitz egin gabe, eta denbora hartan ez daukate haragirik edo arrainik jaterik. Bitartean, gizon

batek danborra jotzen du etxe aurrean. Yuracareen artean -Boliviako ekialdeko tribu indiar bat-, neska batek pubertatearen arrastoei antzematen dienean, aitak etxola txiki bat eraikitzen du palmondo-hostoz etxetik gertu. Etxola hartan sartzen du alaba, argirik ez ikusteko moduan, eta han geratzen da neska, barau zorrotza eginez, lau egunez.

Britainiar Gineako macusien artean, neska bati pubertatearen lehen arrastoak nabari zaizkionean, hamaka batean zintzilikatzen dute etxolako puntu garaienetik. Lehen egunetan egun argiz ez dauka hamakatik aldegitetik, baina gauean bai, sua piztu eta gaua sutondoan iragan dezake; bestela, bikorrez beteko litzaizkioke lepoa, eztarria eta gorputzeko beste alde batzuk. Hamar bat egunera edo, magia-gizona etorri eta araoa desegiten du xarmak murduskatuz eta neskari eta neskak ukitutako gauzarik baliotsuenei putz eginez. Neskak erabilitako lapiko eta edalontziak hautsi egiten dira, eta puskak lurperatu. Lehen bainuaren ondoren, neskak oihurik atera gabe jasan behar izaten du amak zumitzez zigorka dezan. Bigarren hilekoa amaitzean berriro zigorkatzen dute, baina ondorengoetan ez. Orduan "garbi" geratzen da, eta besteekin nahas daiteke. Guianako beste indiar batzuek, neska hilabetez bere hamakan etxolaren sabaitik zintzilik eduki ondoren, oso hozkada mingarriko inurri handi batzuen mende uzten dute. Batzuetan, inurriek hozka egiteaz gainera, gajoak gauez eta egunez egin behar izaten du barau, hamakan zintzilik dagoen bitartean, eta jaisten dutenean eskeleto huts bihurtuta egoten da.

Neska hindu bat sexu-heldutasunera iristen denean, gela ilun batean ixten dute lau egunez, eta debeku izaten du eguzkia ikustea. Lohitzat jotzen dute; inork ezin izaten du ukitu. Haren jakiak arroz egosia, esnea, gaztanbera eta gatzik gabeko tamarindoa izaten dira. Bosgarren egunaren goizean auzoko urmael batera joaten da, senarrak bizi dituzten bost emakumez lagundurik. Ur turmerikoz igurtzita, denak bainatu eta etxera itzultzen dira, eta gelan dauden zerriak eta beste gauzak botatzen dituzte. Bengalako Rarhi brahmanek bakarrik bizitzera behartzen dute neska pubertatera iristen denean, eta ez diote uzten inolako arren aurpegirik ikusten. Hiru egunez gela ilun batean egoten da neska, eta zenbait penitentzia jasan behar izaten du. Debeku izaten ditu arraina, haragia eta gozokiak; arroz ez eta gurin urtuz bizi behar izaten du. Malabarko tiyanen artean, neska bat satsutzat jotzen da lehen hilekoaren ondorengo lau egunetan. Denbora horretan etxearen iparraldera begira egon behar izaten du, eta belar jakin batez egindako zirria baten gainean egiten du lo, koko-hosto gazteen sortaz apaindutako gela batean. Beste neska bat izaten du lagun, berarekin lo eginez, baina hartaz kanpo ezin du beste inor ukitu, ezta zuhaitz edo landaririk ere. Gainera, ez dauka ortzia ikusterik, eta errukarria bera bele edo katuren bat ikusten badu! Jaki guztiek landare-fruituak izan behar dute, gatzik gabe, tamarindorik edo piperminik gabe. Labana bat izaten du zerria gainean edo aldean, izpiritu gaiztoen kontra.

Kanboian, neska pubertatera iritsitakoan, ohean sartzen dute eltxoentzako sare baten azpian, eta han egon behar izaten du ehun bat egunez. Gehienetan, orde, aski izaten dira lau, bost, hamar edo hogeia egun; horiek ere, bero-bero sare sarriaren azpian egonda, nahikotzat jotzen dira. Beste kontakizun baten arabera, kanboiar neska, pubertatean, "itzalean sartzen omen da". Erretiroan zehar -famiaren mailaren arabera, egun bakan batzuk edota zenbait urte iraun dezake-, hainbat arau gorde behar izaten ditu: gizon arrotzek ez dute ikusi behar, ezin du haragirik edo arrainik jan, eta abar. Ez da inora joaten, ezta pagodara ere. Baina itxialdi hori eten egiten da eklipseetan. Halakoetan, irten egiten da, eta bere jaiera erakusten dio eklipseak ortziko gorputzak hortzen artean ezkutatuz eragiten omen dituen mustroari. Eklipsean erretiroaren araua hausteko eta kanpoan agertzeko baimen horrek erakutsiko luke zein literalki interpretatzen den andre bihurtzen diren neskei eguzkiari begiratzea debekatzen dien gebena.

Pentsatzekoa da honelako superstizio batek, hain zabal barreiatuak, bere arrastoak utziko zituela elezahar eta herri-ipuinetan. Eta hala gertatu da. Danaeren istorio greko zaharra -aitak lurpeko kamera batean edo brontzezko dorre batean sartu zuen, baina Zeusek izorra utzi zuen urrezko zaparrada baten itxura hartuta-, beharbada honelako ipuinetakoa da. Bere parekoa du Siberiako kirgizek arbasoez kontatzen duten elezaharrean. Delako khan batek alaba eder bat zuen, eta burdinazko etxe ilun batean gorde zuen gizonek ikus ez zezaten. Emakume zahar batek zaintzen zuen; eta neska andre bihurtu zenean, hala galdetu omen zion emakume zaharrari: "Nora joaten zara hain maiz?". "Haurra" erantzun omen zion andre zaharrak, "hor bada mundu distiratsu bat. Mundu distiratsu horretan bizi dira zure aita eta ama, baita era guztietako jendea ere. Hara joaten naiz". Neskak esan zion: "Ama on hori, ez diot inori esango, baina erakutsiezadazu mundu distiratsu hori". Hala, emakume zaharrak burdinazko etxetik atera zuen neska. Baina hark mundu distiratsua ikusi zuenean, neska zabuka hasi eta kordea galdu zuen; eta Jainkoaren begia harengana etorri eta haurdun geratu zen. Aita haserretuak urrezko saski batean jarri eta itsaso zabalean zehar bidali zuen (ipuinetako urreak flotatu egiten baitu ipuinen munduan). Urrezko zaparrada istorio grekoan, eta Jainkoaren begia elezahar kirgizean, beharbada eguzkiaren eta eguzki-errainuen ordezkotik dira. Eguzkiak emakumeakernal ditzakeelako ideia ez da hain arraroa elezaharretan, eta badira horren arrastoak are ezkontza-usadioetan ere.

4. Neskak pubertatean giltzaperatzeko arrazoiak

Neskei pubertatean horrexegatik ezartzen zaizkie mugatze edo betebeharrak horiek: gizon primitiboak hileko odolari, nonahi, muineraino sartutako beldurra diolako. Hileko guztiei die beldurra, baina batez ere lehenengoari; horregatik, emakumeek lehen hilekoan izaten dituzten mugak estuagoak izaten dira hurrengo isurketa misterioetsuetan izaten dituztenak baino. Beldur horren eta berorretan oinarritutako usadioen zenbait frogak aipatu dira lehenago lan honetan; baina fenomenoak aldi-aldi basatiaren gogoan sortzen duen beldurra haren bizitza eta instituzioak oso sakon eragin dituzenez, ondo etorriko da arazoa beste adibide batzuek ilustratzea.

Hala, Australiako hegoaldeko Encounter badiako tribuan bada, edo bazen "emakumea kanpamendutik aldentzera behartzen duen superstizio bat, hileroko gaixoa aldi etortzean: gizon gazte edo mutilen bat hurbilduz gero, oihu egiten dio, eta mutilak ingurubira egiten du neska saihesteko. Neskak horretan laxo jokatzen badu, errieta egingo zaio, eta batzuetan jo ere egingo du senarrak edo senide hurbilenak, zeren eta mutilei umetatik esan baitzaie odola ikusten badute goiz urdinduko zaiela ilea, eta laster galduko dutela indarra". Australiako erdialdeko dieriek sinesten dute ezen, emakumeek aldi horietan arraina jango balute edo ibaian bainatuko balira, arrain guztia akabatuko litzatekeela eta ura ere agortu egingo litzatekeela. Lurralde hartako aruntek debekatu egiten diete irriakura erraboiak biltzea hilekoarekin dauden emakumeei. Baina gizonek eta bai emakumeek, oinarritzko janaria dute arrain-mota hori. Emakume batek arau hori hautsiko balu, erraboiak faltako omen lirateke.

Australiako tribu batzuetan hilekoarekin zeuden emakumeak giltzapean jartzea are estuagoa zen, eta errieta egitea edo jotzea baino zigor larriagoz indartzen zen. Esate baterako, "bada kanpamenduei buruzko arau bat Wakelbura tribuan, emakumeei kanpamendura gizonen bide beretik sartzea debekatzen diena. Arau hori kanpamendu handi batean haustea heriotza-zigorra ekarriko luke. Emakumeen hilekoari beldur handia diotelako da hori horrela. Denboraldi horretan, emakumea kanpamendutik aparte egoten da, kilometro batera edo. Hala dagoen emakumeak bere totemeko zuhaitz baten abarrak gerri inguruan lotuta izaten ditu, eta etengabe begiratzen eta zaintzen dute, pentsatzen baita gizonezkoren bat emakume hori ikusteko bezain zorigaitzokoa balitz, hil egingo litzatekeela. Emakume horrek bera ikusten utziko balio gizonen bati, hil

egingo lukete seguruenik. Emakumea oneratzten denean, zuri-gorri margotzen dute, burua lumaz estaltzen diote eta kanpamendura itzultzen da".

Muralugen, Torres itsasarteko irla batean, hilekoarekin dagoen emakumeak ezin du jan itsasoan bizi den ezer, bestela arrantza guztiak huts egingo omen luke eta. Galelan, Ginea Berriko mendebaldean, emakumeak ezin dira sartu tabako-sailetan hilekoarekin daudenean, landareak gaitzak joko lituzke eta. Sumatrako minangkabauerrak sinestuta daude emakumea egoera horretan arroz-sail batera hurbilduko balitz, uzta galdu egingo litzatekeela.

Afrikako hegoaldeko boskimanoek pentsatzen dute ezen, neska batek guztiz gordeta behar lukeenean so eginez gero, gizonak finko geratuko liratekeela zeuden jarreraren zeudela, zutena zutela esku artean, eta zuhaitz hiztun bihurtuko liratekeela. Afrikako hegoaldeko tribu ganaduzaleek uste dute ganadua hil egingo litzatekeela, haren esnea hilekoa duen emakume batek edango balu; eta hondamendi berorren beldur dira emakumearen odol-tanta bat lurrera erori eta idiak gainetik pasatuko balira. Halako gaitzetik gordetzeko, emakumeek oro har, ez bakarrik hilekoarekin daudenek, debekatua dute ganaduaren ukuiluetan sartzea; are gehiago, ez daukate bide arruntetatik ibiltzerik herrira sartzeko edo etxola batetik bestera joateko. Behartuta daude etxolen atzealdeko zeharbideetatik ibiltzera, zertarako eta ganadua egoten den herri barruko lurra saihesteko. Emakumeen bide horiek kafreen edozein herritan ikus daitezke. Baganden artean ere, hilekoarekin dagoen emakumeak ez dauka esnea edaterik edo esne-ontziren bat ukitzerik; eta ezin du ukitu senarraren ezer, ez haren zirriaren gainean eseri, ez haren janaririk jan. Aldi horretan senarraren edozer gauza ukituko balu, hori senarra hiltzea desiatzearen pareko litzateke, edo senarraren kaltetan magia egitea. Gizonaren gauzaren bat hartuko balu, gizona seguruenik gaixotu egingo litzateke; armak ukituko balizkio, senarra hil egingo litzateke hurrengo batailan. Gainera, bagandek ez diote uzten iturri batera joaten hilekoarekin dagoen emakumeari; halakorik eginez gero, beldur dira ura agortuko ote litzatekeen, eta emakumea bera ere gaixotu eta hil egingo ote litzatekeen, baldin eta bere hutsegitea aitortu eta osaginak beraren aldeko pekamenen bat egingo ez balu. Ekialdeko Afrika Britainiarreko akikuyuen artean, herri batean etxola berria egin eta etxe hartan sua lehen aldiz pizten den egunean emazteak hilekoa izango balu, etxola hautsi eta bota egin beharko litzateke biharamunean bertan. Emakumeak ezingo luke inolaz ere bigarren gaua bertan pasatu; madarikatuta geratuko lirateke bai emakumea eta bai etxea.

Talmudaren arabera, emakumea hilekoaren hasieran bi gizonen artetik pasatzen bada, bietako bat hilko du hori eginda. Libanoko nekazariak pentsatzen dute hilekoarekin dauden emakumeek zorigaitz asko ekartzen dituztela; haien itzalak loreak zimeltzen eta zuhaitzak ihartzen ditu; sugegorriei ere mugitzea galarazten die; hala dagoen emakumea zaldi gainera igoz gero, animalia hil egingo litzateke, edo gutxienez ondoeztu egingo litzateke denbora luzerako.

Orinokoko guayquiriek sinesten dute ezen, emakumea hilekoarekin dagoenean, ibiltzean zapaltzen duen oro hilko dela, eta gizon batek haren urratsak zapaltzen baditu, hankak handitu egingo zaizkiola berehala. Costa Ricako bri-bri indiarren artean, emakume ezkonduak banana-hostoak besterik ez ditu erabiltzen plater gisa hilekoarekin dagoenean, eta erabili ondoren, leku apartatu batean botatzen ditu; izan ere, behi batek aurkitu eta jango balitu, ondoeztu eta hil egingo omen litzateke. Edan ere ontzi berezi batetik egiten du, zeren eta haren ondotik ontzi beretik edango lukeena ahuldu eta hil egingo bailitzateke erremediorik gabe.

Iparramerikako indiarren tribu gehienetan ohitura zen hilekoarekin zeuden emakumeak kanpamendu edo herritik erretiratzea eta beren lohialdiak iraun bitartean hartarako egoki ziren etxola edo aterbe berezi batzuetan bizitzea. Han bizi izaten ziren aparte janez eta

lo eginez, berek egindako sutan berotuz, eta gizonezkoekiko batere komunikaziorik gabe; gizonek izkin egiten zieten, izurriak jota baileuden.

Adibideak emateko, Estatu Batuetako creek eta hurbileko beste indiarrek etxola apartatueta bizitzera behartzen zituzten hilekoarekin zeuden emakumeak, herritik tarte batera. Han egon behar izaten zuten emakumeek, etsaien eskuz hiltzeko arriskuan. "Lohikeria handiena eta arriskutsuena" zen aldi horietan emakumeen ondora joatea; eta arriskua etsaietara ere hedatzen zen: emakumeak hiltzen bazituzten, beren buruak garbitu beharra izaten zuten, belar eta sustrai sakratu jakin batzuen bitartez. Britainiar Columbiako stseelis indiarrek imajinatzen zuten hilekoarekin zegoen emakumea gezi-pila baten gainetik ibiltzen bazen, geziek ez zutela balio eta are jabearen heriotza ere ekar zezaketela; eta era berean, emakumea arma zeraman ehiztari baten paretik pasatuz gero, arma hark ez zuela inoiz tiro zuzenik egingo. Chippewek eta Hudson badiako beste indiar batzuek kanpamendutik kanpora ateratzen dituzte hilekoarekin dauden emakumeak, eta emakumeok abarrez egindako etxoletan hartzen dute egoitza. Txano luzeak janzten dituzte, burua eta bularra estaltzerainokoak. Ez daukate etxeko tresnarik ukiterik, ezta gizonek erabiltzen dituzten objektuak ere; haien ukituak "hondatu egiten omen ditu, eta ondoren erabiliz gero, kalte edo gaitzen bat etorriko litzateke", hala nola gaixotasuna edo heriotza. Beltxarga-hezur batetik edan behar izaten dute. Ezin dute ibili ohiko bideetatik, ezin dute gurutzatu animalien bidezidorrik. "Inoiz ez zaie uzten ibai edo lakuetan izotz gainetik ibiltzen, edota gizonak kastoreak ehizatzen ari diren aldeetatik gertu, edo arrantza-sarea zabaltu den lekuan, ehiza urrunduko duten beldurrez. Debekatua dute, halaber, edozein animalia baten burua jatea, baita orein, basauntz, kastore eta beste animalia askoren buruak garraiatutako bidetik ibiltzea edo zeharkatzea ere, nahiz trineoan nahiz bizkarrean. Arau hori haustea oso larritzat jotzen da; uste sendoa baitute hartara ehiztariak ez lukeela halako arrakastarik izango hurrengo txangoetan". Laponiarrek ere debekatu egiten diete ur-ertzetik ibiltzea hilekoarekin dauden emakumeei, arrantzaleak arrantza ateratzen ari direnean; eta Bering itsasarteko eskimalek sinesten dute ehiztariak hilekoarekin dauden emakumeei hurbilduko balitzaizkie, ez luketela ezer ehizatuko. Antzeko arrazoi batengatik, carrier indiarrek ez dute ametitzen hilekoarekin dagoen emakume batek animalien bidezidorrak gurutza ditzan; beharrezko balitz, gainetik garraiatzen dute. Pentsatzen dute erreka edo lakua ibituko balu, arrainak hil egingo liratekeela.

Europako nazio zibilizatuen artean, emakumearen izatearen alderdi misterioitsu horren inguruan biltzen diren superstizioak basatien artean iraun dutenak bezain bitxiak dira. Den entziklopediarik zaharrenean -Plinioren Historia Naturala delakoan-, hilekotik etor daitezkeen arriskuen zerrenda barbaroek berek zekartena baino luzeagoa da. Plinioren arabera, hilekoarekin zegoen emakume baten ukituak ardoa ozpin bihurtzen zuen, uztak herdoiltzen zituen, mintegiak hiltzen, baratzak zomorroz betetzen, fruituak arboletatik eraisten, ispiluak lausotzen, labanak kamusten, burdina eta latorria herdoiltzen (batez ere ilbeheran), erleak akabatzen edota gutxienez beren erlategietatik kanporatzen, behorrek umea galtzea eragiten zuen, eta abar. Era berean, Europako zenbait partetan, oraindik ere sinesten da hilekoarekin dagoen emakumea bodega batean sartuz gero garagardoa garraztu egingo dela; hark garagardoa, ardoa, ozpina edo esnea ukituz gero, hondatu egingo direla; kontserbak egiten baditu, galdu egingo direla; behor baten gainera igotzen bada, behorrek umea galduko duela; lore-kuskuak ukitzen baditu, zimeldu egingo direla; gereziando batera igotzen bada, ihartu egingo dela. Brunswicken jendeak pentsatzen du hilekoarekin dagoen emakumea zerri-hilketan bada, zerrikoa usteldu egingo dela. Kalimnos irla grekoan emakumea sasoi horretan ezin izaten da joan ur bila, ezin izaten du errekarik zeharkatu, ez itsasoan sartu. Itsasontzi batean badago, enbatak ekartzen omen ditu.

Beraz, haiengandik etortzen omen diren eragin arriskutsuak indargetzeko bereizten dira emakumeak hilekoarekin daudenean. Arrisku handiena lehen hilekoan izaten dela, neskatoak krisi horretan isolatzeko hartzen diren neurri bereziek erakusten dute. Neurri horietako biren adibideak eman ditugu gorago, hots, neskak ezin zuela lurrik ukitu, ez eguzkia ikusi. Arau horien ondorio orokorra, nolabait esan, zeruaren eta lurraren artean zintzilikatzea da. Dela bere hamakan bilduta eta sabaitik esekita, Hegoamerikan bezala, dela zorua baino gorago kaiola ilun estu batean, Irlanda Berrian bezala, esan daiteke gaitz egiteko biderik gabe jartzen dela, zeren eta, bai lurretik bai eguzkitik aparte izaki, ezin baititu kutsatu biziaren bi iturri handi horiek. Laburki, kaltegabeko bihurtzen dute horrela isolatuz. Baina isolatzeko hartutako neurriak bai neskaren beraren mesedetan, bai besteen mesedetan hartzen dira. Izan ere, pentsatzen baita berak ere sufritu egingo lukeela aginduta duen erregimenari kasu egingo ez balio. Hala, neska zuluak, ikusi dugunez, sinesten dute hezur-huts geratuko liratekeela pubertatean eguzkiak joko balitu, eta makusiek imajinatzen dute ezen, emakume gazte batek arauak hautsiko balitu, bikorrak sortuko litzaizkiokeela gorputzeko hainbat aldetan. Laburki, neska indar ahaltsu batez kargatuta dagoela jotzen da; muga batzuen barruan edukitzen ez badute, indar horrek suntsitu egin ditzake bera eta berak ukitzen duen guztia. Horixe da tabu horien helburua, indar hori beharrezko diren mugen barruan edukitzea, denen onerako.

Azalpen berak balio du jainkozko erregeek eta apaizek ere arau berberak gordetzea dela eta. Neskek pubertatean duten lohitasuna -hala deitzen zaio- eta gizon santuen santutasuna ez dira gauza desberdinak. Energia misteriotsu beraren agerpide desberdinak dira: beste energiak bezala, berez ez da ona edo txarra, erabilerak bihurtzen du onuragarri edo kaltegarri. Beraz, baldin eta, neskek pubertatean bezala, jainkozko pertsonaiek ezin badute lurra ukitu ez eguzkia ikusi, arrazoia hauxe da: batetik beldurra, haien jainkotasuna, lurra edo zerua ukitzean, bortizkeria hilgarritz deskargatuko ote den bataren edo bestearen kontra; eta bestetik kezka bat, jainkozko izaki hori, bere bertute ortzikoaz gabetua, ez ote den ezgaituta geratuko hainbat betekizun magiko burutzeko; betekizun horiek burutzearen gora-beheran baitago, hala sinesten da, jendearen ongizatea, eta are munduarena berarena ere. Beraz, arau horiek liburu honetan lehenago aztertu ditugun tabuen sailekoak dira; jainkozko pertsonaren bizia gordetzea dute xede, eta pertsona horrekin batera, menpeko eta gurtzaileena. Bizi preziatu baina arriskutsu hori inon ez da izango hain seguru eta hain kaltegabeko, hala da ustea, ez zeruan ez lurrean dagoenean baino, hots, bien artean esekita dagoenean baino.

lxi

Balderren mitoa

Balder jainko norvegiar on eta ederrak ez zeruan ez lurrean, bien artean baizik, omen zuen bizia. Odin jainko handiaren semea zen, hilezkor guztien artean argiena, maitagarriena eta maitatuena. Hona hemen haren heriotzaren istorioa, Edda modernoak hitz lauz kontatzen duen bezala. Behin batean Balderrek heriotza iragartzen bide zion amesgaiztoa izan zuen. Beraz, jainkoak batzarrean bildu ziren, eta erabaki zuten hura arrisku orotarik babestea. Hala, Frigg jainkosak zin eginarazi zien suari eta urari, burdinari eta metal guztiei, harriei eta lurrari, zuhaitz, gaixotasun eta pozoiei, baita lau hankako animalia, txori eta herrestari guztiei ere, ez ziotela kalterik egingo Balderri. Hori egin ondoren, zaurituezintzat jo zuten Balder; eta jainkoek atsegin hartzen zuten: hura denen erdian jarri eta batzuek geziak jaurtitzen zizkioten, beste batzuek ezpataz zauritzen zuten, eta beste batzuek harrika egiten zioten. Baina zernahi egiten ziotelarik ere, ezerk ez zuen mintzen; eta denak pozik zeuden horregatik. Denak, Loki izan ezik: gaitz-egilea ez zegoen pozik, eta atso baten itxura hartuta Friggengana joan zen, eta honek esan zion jainkoen armek ezin zutela zauritu Balder, berak zin eginarazi ziela ez ziotela kalterik egingo. Orduan Lokik galdetu zion: "Gauza guztiek

zin egin al dute Balder errespetatzea?". Besteak erantzun zion: "Walhallaren ekialdean bada landare bat, mihura izenekoa; gazteegia iruditu zitzaidan zin egiteko". Loki joan eta mihura erauzi eta jainkoen bilerara eraman zuen. Han aurkitu zuen Hother jainko itsua, biribiletik aparte. Lokik galdetu zion: "Zergatik ez diozu disparatzen Balderri?". Hotherrek erantzun zion: "Ez dudalako ikusten non dagoen; gainera, ez dut armarik". Orduan Lokik esan zion: "Egizu besteak bezala, ohora ezazu Balder, denek bezala. Nik esango dizut non den, eta jaurti iezaiozu abartxo hau". Hotherrek hartu zuen mihura eta Balderri jaurti zion, Lokik esandako lekura. Mihurak Balder jo eta alderik alde zeharkatu zuen, eta hura zerraldo erori zen. Eta horixe izan zen sekula jainkoei eta gizonei gertaturiko zorigaitzik handiena. Une batez jainkoak hitzik gabe geratu ziren, eta gero heiagora eta negar saminak egin zituzten. Hartu zuten Balderren gorpua eta itsasertzera eraman zuten. Han zegoen Balderren ontzia; Ringhorn deitzen zioten, eta ontzi guztietan handiena zen. Jainkoek ontzia uretara nahi zuten, Balderren gorpua bertan erretzeko, baina ontzia ez zen mugitzen. Beraz, Hyrrockin izeneko emakume erraldoi bati deitu zioten. Hura otso baten gainean etorri eta halako bultzada eman zion ontziari, non suak subilak erre zituen eta lur guztia ikaratu zen. Hartu Balderren gorpua eta hiletarako pilaren gainean jarri zuten, ontzian. Nanna emazteak hura ikustean, tristurak bihotza itota hil egin zen. Beraz, hura ere hiletarako pilaren gainean ezarri zuten senarrarekin batera, eta su eman zioten. Balderren zaldia ere, bere tresna eta uhal guztiekin, pila hartan erre zuten.

Benetako pertsonaia nahiz mitokoa besterik ez izan, kontua da Balder gurtu egiten zutela Norvegian. Norvegiako mendi larrien sakonetan barrena sartzen den Sogne fjord ederreko badia batean, pinudi itzaltsuen eta behe-beheko fjordeko ur ilunera iritsi baino lehen aparretan desegiten diren urjauzi garaien artean, jainkotegi handia zuen Balderrek. Balderren zuhaiztia zeritzan. Oholesi batek ixten zuen lur sagaratua, eta barruan tenplu zabal bat zegoen, jainko askoren irudiekin, baina haietako inor ez zuten gurtzen Balder bezain jaieratsu. Hainbestekoa zen paganoek leku hartan erakusten zuten begirunea, non inork ez baitzezakeen inor zauritu han, ez ganadurik lapurtu, ez bere burua emakumeekin nahastu. Baina emakumeek zaintzen zituzten tenpluko jainkoen irudiak; sutondoan berotu, olioztatu eta zapiz lehortzen zituzten.

Balderren elezaharrean, mitoaren oskol barruan muin historikoa badela pentsatuta ere, istorioaren xehetasunek iradokitzen dute erritual gisa dramatizatu diren mito horietakoa dela edo, bestela esanez, zeremonia magiko gisa burutu diren horietakoa dela, zertarako eta hizkuntza figuratiboan deskribatzen dituen ondorio natural horiexek eragiteko. Mito bat orduantxe izaten da grafikoena eta zehatzena xehetasunetan, errito sakratua burutzen dutenek esaten eta jokatzten dituzten hitzen liburu denean, nolabait esan. Balderren norvegiar istorioa era honetako mitoa litzateke, baldin eta frogatuko bagenu norvegiarrek eta Europako beste herri batzuek ipuin horretako pasadizoen antzeko zeremoniak burutu dituztela. Eta ipuineko pasadizo nagusiak bi dira: lehena, mihura erauztea, eta bigarrena, jainkoaren heriotza eta erreketak; eta beharbada aurkituko dugu biek ere beren parekoak izan dituztela Europako hainbat aldetan, banaka edo batera, urtero egiten ziren hainbat erritotan. Errito horiek deskribatu eta eztabaidatuko ditugu datozen kapituluetan. Suaren urteroko jaialdiekin hasiko gara, eta aurreragorako utziko dugu mihura erauztearena.

lxii

Europako su-jaiak

1. Su-jaiak oro har

Europa osoan zehar, urteko egun jakin batzuetan, nekazariak betidanik izan dute suak pizteko eta suaren inguruan dantza egiteko edo gainetik salto egiteko usadioa. Horrelako usadioen froga historikoak aurki daitezke Erdi Aroan, eta antzinateko antzeko

usadioekin duten analogiak frogatuko luke, barne-froga indartsuz, jatorria kristautasuna hedatu baino askoz lehenagoko aldi batean dutela. Hain zuzen, Europako iparraldean su horiek bazirelako daturik goiztiarrena, sinodo kristauek zortzigarren mendean, errito paganoak zirela eta, ezabatzeke egindako saioak dira. Ez zen arraroa su haietan irudiak erretzea, eta pertsona biziak erretzen zirelako plantak eginez; eta bada arrazoirik sinesteko antzina batean, halako abaguneetan, gizakiak benetan erretzen zituztela. Usadio horiei egindako gainbegirada laburrak giza sakrifizioaren arrastoak azaleratuko ditu, eta aldi berean argi egingo digu beren esanahiaz.

Suak piztu ohi diren urte-sasoi arruntenak udaberria eta uda dira, baina leku batzuetan udazkenaren azken aldera edo neguan zehar ere pizten dira, bereziki Santu Guztien bezperan (urriaren hogeita hamaikan), Eguberri egunean eta Errege-egunaren bezperan. Leku-faltak galarazten dit jai horiek guztiak luze deskribatzea; adibide bakan batzuek balioko dute horien izaera orokorra argitzeko. Udaberriko su-jaiekin hasiko gara, Garizumako lehen igandean (Quadragesima edo invocavit), Bazko bezperan eta maiatzaren lehenean tokatu ohi direnekin.

2. Garizumako suak

Garizumako lehen igandean sutzarrak pizteko usadioa gorde egin da Belgikan, Frantziako iparraldean eta Alemaniako hainbat aldetan. Hala, Belgikako Ardenetan, "su handiaren eguna" -halaxe deitzen diote- baino astebete edo hamabost egun lehenago, haurrak etxaldez etxalde joaten dira erregai bila. Gran Halleuxen, eskari horri muzin egiten dioten guztiak jazartzen dituzte haurrek bihamunean, itzalitako suaren errautsez aurpegia belzten saiatuz. Eguna etortzean, txaparrak ebakitzen dituzte, batez ere ipurua eta isats arrunta, eta arratsean sutzar handiak agertzen dira muino guztietan. Esan ohi da zazpi sutzar ikusi behar direla herria suteetatik libre izateko. Garai horretan Mosa ibaia oso izoztuta badago, izotz gainean ere pizten dira suak. Gran Halleuxen makral -sorgina- deritzan haga bat eraikitzen dute metaren erdian, eta herrian azkena ezkonduetako gizonak pizten du sua. Morlanwlzen inguruetan lastozko gizon bat erretzen dute. Gazte-jendea eta haurrak dantzan eta kantuan aritzen dira sutzarraren inguruan, eta ilintien gainetik jauzika, urte horretan uzta ona edo ezkontza zoriontsua izateko, edota beren buruak sabelekotik libratzeko. Brabanten, igande horretan, hemeretzigarren mendearen hasierara arte, andreak eta gizonezkoak, emakumez moztortuta, soroetara joan ohi ziren zuzi irazekiekin, eta han dantza eta kanta barregarriak egiten zituzten, zertarako eta, berek aitortu bezala, egun horretako ebanjelioan aipatzen den "ereile gaiztoa" aienatzeko. 1840 aldera ohitura horrek Escouvion edo Scouvion zuen izena Pâturagesen, Hainauteko probintzian. Urtero, Garizumako lehen igandean -Escouvion txikiaren eguna zeritzan-, gazte eta haurrek lasterka egin ohi zuten zuzi irazekiekin baratzetan zehar. Lasterrean zihoazela, ahalik ozenen oihukatzen zuten:

"Eraman sagarrak, eramán madariak eta gerezi beltz-beltzak

Escouvioni!"

Hitz horiek esatean zuzia zeramanak itzulikatu egiten zuen bere abar gartua eta sagarrondoan, madariondoan eta gereziondoan abarren artetik jaurtitzen zuen. Hurrengo igandeari Escouvion handiaren eguna zeritzan, eta arratsaldean, ilunabarra arte, lasterka berdina egiten zen zuzi irazekiekin, baratzetako arbolan artean.

Frantziako Ardenetan herri osoak egiten zuen dantza eta kanta Garizumako lehen igandean pizten ziren sutzarren inguruan. Han ere azkena ezkonduetako pertsonak -batzuetan gizonezkoa eta besteetan emakumea- pizten zuen sua. Usadioak irautean du oraindik ere eskualde hartan. Katuak erretzen zituzten sutan, edota suaren gainean edukitzen zituzten hil arte; eta haiek erre bitartean, artzainek beren aziendak pasarazten zituzten kearen eta garren artetik, modu segurua zelakoan gaixotasunaren eta

sorginkeriaren kontra babesteko. Herrixka batzuetan sinesten zuten zenbat eta biziago egin dantza suaren inguruan, hainbat hobeia izango zela urte hartan.

Franche-Comtéko probintzia frantsesean, Jura mendien mendebaldera, Garizumako lehen igandeari ilintien (brandons) igandea deitzen diote, egun horretan piztu ohi diren suak direla eta. Larunbatean edo igandean gurdi batean uztartzen dira herriko mutilak, eta kalerik kale ibiltzen dira, neskak bizi diren etxeetako ateetan geldituz eta abar-pilak eskatuz. Nahikoa dutenean, herritik kanpora dagoen leku batera eramaten dute erregaia, meta egin eta su ematen diote. Herriko jende guztia joaten da sua ikustera. Herri batzuetan, angeluseko kanpaiek jotakoan, usadio hura burutzeko seinalea ematen da, oihuka: "Sutzarrera! Sutzarrera!". Neska-mutilek eta hurrek suaren inguruan egiten dute dantzan, eta suak itzaltzen direnean norgehiagokan aritzen dira, ilintien gainetik saltoka. Bere arropak erre gabe salto egiten duena urte horren barruan ezkonduko da. Gazte-jendeak zuzi irazekiak garraiatzen ditu kale edo soroetan zehar, eta baratza batetik pasatzean oihuka esaten dute: "Hostoak baino fruitu gehiago!" Azken urteotaraino, Lavironen, Doubseko eskualdean, urtean ezkonduko bikote gazteak arduratzen ziren sutzarrez. Sutzarraren erdian haga bat eraikitzen zuten, puntan zurezko oilar baten irudia zuela lotuta. Gero lasterketak egiten ziren, eta irabazleak oilarra jasotzen zuen saritan.

Auvernien suak nonahi pizten dira Garizumako lehen igande arratsaldean. Herri, herrixka, auzo edo baserri bakar bakoitzak izaten du bere sutzarra edo figoa, hala deitzen diote, gauaren itzalak zabaldu ahala distiratzeko dena. Suak mendi-puntetan eta lautadetan ikus daitezke; jendeak kantuan eta dantzan egiten du haien inguruan, eta garren artetik egiten du salto. Gero Grannas-mias zeremoniari ekiten diote. Granno-mio bat haga baten puntan lotutako lastozko zuzia da. Su-meta erdi erre dagoenean, bertaratuek zuziak piztu azken garrez eta ondoko baratza eta soroetara eramaten dituzte, frutarbolak diren lekuetara. Hara bidean, beren eztarrien ahal osoan kantatzen dute: "Granno ene laguna, Granno ene aita, Granno ene ama". Gero arbola guztien abarpeetatik pasatzen dituzte zuzi irazekiak, kantuan:

"Brando, brandounci tsaque brantso, in plan panei!,
hau da, "ilintiak erre; abar bakoitzak saskia bete!". Herri batzuetan jendea ereindako soroetan zehar korrika ibiltzen da, eta zuzien errautsak lurrean zehar barreiatzen ditu. Hegaztien habietan ere jartzen dituzte errautsak, oiloek arrautza ugari errun dezaten urtean zehar. Zeremonia horiek guztiak burutu ondoren, denak etxera joan eta oturuntza egiten dute. Arratseko plater bereziak frijiturak eta opilak izaten dira. Kasu honetan sua frutarbolei, ereindako soroei eta hegaztien habiei aplikatzea, emankortasuna ekartzeko xedez egindako xarma da argi eta garbi; eta dei egiten dioten Granno hori, zuziei izena ematen diena, Pommerol doktoreak iradoki bezala, alegia, Grannus jainko zelta zaharra besterik ez dateke, erromatarrek Apolorekin identifikatzen zutena. Frantzian ezezik, Eskozian eta Danubio aldean ere aurkitutako inskripzioek frogatu dute jainko hori gurtzen zutela.

Dirudienez, Frantzian gauza arrunta izan da Garizumako lehen igandean lastozko zuziak (brandons) baratza eta soroetan zehar eramateko usadioa, lurra emankortzeko, batzuetan sutzarrak pizteko ohiturarekin batera eta beste batzuetan hori gabe. Hala, Pikardiako probintzian, "Garizumako lehen igandean jendeak zuziak eramaten zituen soroetan zehar, saguen, irakaren eta gorrinaren kontrako konjurio gisa. Imajinatzen zuten hartara on egiten zirela baratzei eta tipulak handi etortzen zirela. Haurrak soroetan zehar lasterkatzen ziren, zuzia eskutan, lurra emankorragotzeko". Vergesen -Jura eta Combe d'Ainen arteko herri batean-, zuziak mendi baten puntan pizten ziren sasoi horretan, eta eramaleak herriko etxe guztietara joaten ziren, ilar erreen eske eta urte hartan ezkonduko bikoteak dantzatzera behartuz. Berryn -Frantziako erdialdeko eskualde

batean-, egun horretan ez da pizten sutzarrik, nonbait, baina eguzkia sartutakoan herrietako jende guztia, lastozko zuzi irazekiz armatuta, bazter guztietan zehar sakabanatzen da: soroetan, mahastietan eta baratzetan barrena. Urrunetik ikusita, argi mugikari ugari haiek, ilunean ikara, argi-txakurrak dirudite elkarri jazarka ordeketan, mendi-mazeletan eta haranetan zehar. Gizonek beren zuziak frutarbolen abarpeetatik pasatzen dituzten bitartean, emakumeek eta hurrek gari-lastozko zerrendak lotzen dituzte zuhaitzen enborren jiran. Zeremoniaren ondorioa zera omen da, lurraren igaliek jasan ditzaketen izurrietatik libratzea; eta zuhaitzen enborren jiran lotutako lastozko zerrendek emankor bihurtzen omen dituzte zuhaitzok.

Alemanian, Austrian eta Suitzan antzeko usadioek iraun dute sasoi horretan. Hala, Renaniar Prusiako Eifel mendietan, Garizumako lehen igandean, gazte-jendeak lastoa eta abarrak biltzen zituen etxez etxe. Gain batera eramanez eta pago luze lerden baten inguruan pilatzen zituzten, eta egur-puska bat lotzen zioten angelu zuzenean gurutzera eratzeko. Egitura hura "etxola" edo "gaztelua" izenez zen ezaguna. Su ematen zioten eta gazte-jendea "gaztelu" gartuaren inguruan ibiltzen zen, burua estalkirik gabe, bakoitzak zuzi irazeki bat eramanez eta ozenki errezatuz. Batzuetan lastozko gizona erretzen zuten "etxolan". Jendea begira egoten zen keak zein aldetara jotzen zuen. Soroetara jotzen bazuen, uzta ugaria izango zen seinale. Egun hartan, Eifelgo zenbait aldetan, gurgil handi bat egiten zuten lastoz, eta hiru zaldik eramaten zuten muino baten gainera. Hara joaten ziren herriko mutilak iluntzean, eta maldan beheara botatzen zuten. Oberstattfelden azkena ezkonduetako gizon gazteak hornitu behar izaten zuten gurgila. Echternach inguruan, Luxemburgen, zeremonia horri "sorgina erretzea" deitzen diote. Voralbergen -Tirolen, alegia-, Garizumako lehen igandean izai gazte lerden bat lasto eta egur-pila batean biltzen dute. Zuhaitz-puntan giza irudia lotzen dute, "sorgina", arropa zaharrez eginga eta bolboraz bete. Gauean su ematen zaio guztiari, eta neska-mutilek dantzari egiten dute biran, zuziak astinduz eta koplak abestuz; koplak horietan "laborea, haizatzeko saskian; goldea, lurrean" hitzak adi daitezke. Suabian, Garizumako lehen igandean, "sorgina" edo "emazte zaharra" edo "neguko amona" deritzan irudia egiten dute arropaz, eta haga batean lotzen. Haga hau egur-pila baten erdian ezartzen dute, eta su ematen zaio. "Sorgina" erretzen den bitartean, gazte-jendeak disko gartuak jaurtitzen ditu airera. Diskoak zur-puska mehe biribilak izaten dira, hatz batzuetako diametrokoak, ertz marratuekin eguzkiaren edo izarren izpiak imitatzen. Zuloa dute erdian, eta horrela lotzen zaizkio ziri baten muturrari. Diskoa jaurti baino lehen, sutan jartzen dute, ziria batera eta bestera astintzen dute, eta diskoari hala emandako indarra handitu egiten da makila ohol makur baten kontra joz. Disko irazekia bota egiten dute, eta airean gora igoz, suzko kurba luzea egiten du atzera lurreratu baino lehen. Erretako "sorginaren" eta diskoen ilinti ikaztuak etxera eramanez eta liho-soroetan aldatzen dituzte gau hartantxe, zomorroak soroetatik urrunduko dituztelakoan. Hesse eta Bavariako mugetako Rhon mendietan, jendeak tontor batera jo ohi zuen Garizumako lehen igandean. Hurrek eta mutil gazteek zuziak, bikeztaturiko erratzak eta lastotan bildutako hagak eramanez zituzten. Erregaitan bildutako gurgil bat piztu eta muinotik beheara botatzen zuten bueltara; eta gazte-jendea soroetan korrika ibiltzen zen bere zuzi eta erratz irazekiekin. Azkenez, haiekin meta bat egin eta, inguruan jarrita, herri-kanta bat kantatzen zuten. Soroetan zuzi irazekiekin korrika ibiltzearen xedea, "ereile gaiztoa botatzea" izaten zen. Edo birjinaren ohoretan egiten zen, urtean zehar lurreko igaliek babes eta bedeinka zitzaizkien. Hesse inguruko herrietan, Rhon eta Vogel mendien artean, pentsatzen da suzko gurgilak dabilzan lekuetan, soroak libre izango direla txingorretik eta ekaitzetik.

Suitzan ere, ohitura da -edo zen- suak leku garaietan piztea Garizumako lehen igande arratsaldean, eta, beraz, egun hari txingarren eguna esaten dio herriak. Usadio horrek

iraun zuen, adibidez, Luzernako kantoian. Mutilak etxez etxe joaten ziren egur eta lasto eske, eta gero mendi edo muino nabarmen batean pilatzen zuten erregaia, haga baten inguruan; hagak "sorgina" zeritzan irudia izaten zuen. Iluntzean su ematen zioten meta hari, eta gazte-jendeak dantza eta dantza egiten zuen inguruan, batzuek zartailuak astinduz edo txintzarriak joz; eta sua jaisten zenean, gainetik egiten zuten salto. Hari "sorgina erretzea" deitzen zioten. Kantoiko zenbait aldetan, gurpil zaharrak lastoz eta sasiz bildu, su eman eta muinoan behera bota ohi zituzten garretan. Zenbat eta su gehiago ikusi pindarka ilunean, hainbat emankorrako izango omen zen urtea; eta zenbat eta gorago salto egin dantzariak suaren ondotik edo gainetik, gehiago haziko omen zen lihoa. Eskualde batzuetan azkena ezkonduko gizonak edo emakumeak piztu behar izaten zuen sua.

Ez dirudi su hauek, Garizumako lehen igandean piztutakoak, eta garai horretan, "Herio kanporatzea" izeneko zeremonian, Herio izeneko irudia erretzen zuten suak bereiz daitezkeenik. Ikusi dugunez, Spachendorfen, Austriako Silesian, San Ruperto egunaren goizean (ihaute-asteartean?), lastozko gizon bat uzten dute zulo batean herritik kanpo, larruzko longaina eta larruzko txanoa jantzita dituela, eta erre egiten dute, eta erretzen ari den bitartean denek nahi izaten dute puska bat hartu, beren baratzako arbola garaieneko abar batean lotzeko, edo soroan ehorzteko, hartara ereindakoa hobeto haziko delakoan. Zeremonia hori "Herio ehorzte" izenez da ezaguna. Lastozko gizonari Herio deitzen ez diotenean ere, usadioaren esanahia berbera dateke; izan ere, Herio izenak, erakusten saiatu naizenez, ez du adierazten zeremoniaren jatorrizko xedea. Cobernen, Eifel mendietan, mutilek lastozko gizona egiten dute ihaute-asteartean. Irudia epaitu eta iragan urtean inguruetan egin diren lapurretak guztien erruduntzat jotzen dute. Heriotzara kondenatu ondoren, lastozko gizona herrian zehar eramaten dute, eta gero tirokatu eta meta batean erretzen dute. Dantzan egiten dute suaren inguruan, eta azkena ezkonduko senargaiak gainetik salto egin behar izaten du. Oldenburgen, ihaute-astearteko arratsean, jendeak lastozko sorta luzeak egiten zituen, su ematen zieten eta gero soroetan zehar korrika ibiltzen ziren, haiek astinduz, garrasika eta kanta zaharrak kantatuz. Azkenez, lastozko gizon bat erretzen zuten soroan. Düsseldorfeko eskualdean, ihaute-asteartean erretzen zen lastozko gizona jo gabeko labore-azao batez egiten zen. Udaberriko ekinozioaren ondorengo lehen astelehenean, Zuricheko mutikoek lastozko gizona herrestatzen dute gurditxo batean kalerik kale, aldi berean neskek maiatz-arbola bat garraiatzen duten bitartean. Bezperetako kanpaiak jotzen dituztenean, lastozko gizona erre egiten dute. Aachengo eskualdean, Hauster egunean, gizona sartzen zuten ilar-lastozko armazoi batean, eta leku jakin batera eramaten zuten. Han oharkabean lerratzen zen lastozko kaxatik kanpora, eta hau erre egiten zuten; haurrek uste izaten zuten gizona erretzen zutela. Val di Ledron (Tirolen), ihauterietako azken egunean, irudia egiten dute lastoz eta abarrez, eta gero erre egiten dute. Irudiari emakume zaharra deitzen diote, eta zeremoniari "emakume zaharra erretzea".

3. Bazko-suak

Su-jai hauek izaten dira Bazko bezperan ere, Bazkoko igandearen aurreko larunbatean, alegia. Egun horretan ohitura izan da herrialde katolikoetan elizetako argi guztiak itzaltzea eta su berria egitea, batzuetan sukarriz eta drundaz, beste batzuetan lентeez. Su horretan pizten da Bazkoko kandela, eta gero elizako argi itzali guztiak berriro pizteko erabiltzen da. Sagaratu egiten da, eta jendeak haritz, intxaurrondo eta pagoen makilatxoak ekartzen ditu; sutan erre eta gero etxera eramaten ditu. Ziri erre horietako batzuk etxean ere erretzen dira su berrian, otoitz eginez Jainkoak etxea suteetatik, tximistatik eta txingorretik gorde dezan. Hortaz, etxe guztiek hartzen dute "su berria". Ziri batzuk urte osoan gordetzen dira, ekaitz trumoisua denean sutondoan jartzeko, etxea tximistaren batek jo ez dezan, edota sabaian txertatzen dira xede berberaz. Beste

batzuk soroetan, baratzetan eta belardietan jartzen dituzte, otoitz egiten delarik Jainkoak herdoiletik eta txingorretik gorde ditzan. Soro eta baratza horiek besteei baino gehiago ematen omen dute; horietan etortzen diren alea eta landareak ez ditu txingorrek jotzen, ez saguek, zomorroek eta kakalardoek jaten; sorginek ez diete kalte egiten, eta artaburuak sarriak eta beteak izaten dira. Goldeari ere jartzen zaizkio ikaztutako ziriak. Bazkoko suaren errautsak, palmondo-abar sagaratuen errautsekin batera, haziarekin nahasten dira ereintean. Judas izeneko irudi zurezkoa erretzen da batzuetan sutzar sagaratuan, eta usadio hori desagertu den zenbait lekutan ere sutzarrari berari “Judas erretzea” deitzen diote”.

Bazkoko su-jaien jatorri paganoa argi ageri da bai nekazariak ospatzeko duten moduan eta bai harekin lotzen dituzten sineste superstiziotsuetan. Alemaniako iparralde eta erdialde osoan, hasi Altmark eta Anhaltetik, ekialdean, eta Brunswick, Hannover, Oldenburg, Harz eskualdea eta Hesseetik zehar Westfaliaraino, Bazkoko suak oraindik ere batera distiratzten dute mendi gainetan. Berrogei ere konta daitezke batzuetan begibistan batera. Bazkoa baino askoz lehenagotik, gazte-jendeak gogor egiten du lan egur-bilketan; baserritar denek ematen dute zerbeit, eta bike-upelek, petrolio-ontziek eta abarrek gizentzen dute meta. Elkarren auzo diren herriak lehian aritzen dira, ea zeinek atera garrik handienak. Suak mendi berean pizten dira beti, urtez urte, eta hori dela eta, mendi horiei Bazkoko mendia deritze. Oso ikuskizun polita izaten da mendigainen batetik inguruko muinoetan suak nola pizten diren ikustea, bat bestearen ondotik. Argia zenbat eta urrunago iritsi, hainbat eta emankorrago izango omen dira soroak, halaxe sinesten dute nekazariak, eta argitzen dituzten etxeak libre izango dira sute edo gaixotasunetatik. Volkmarsenen eta Hesseko beste leku batzuetan, jendeak haizeak nondik jotzen zuen erreparatzen zion, eta norabide hartan ereiten zuten lihoa, ondo etorriko zelako konfidantzan. Sutzarretatik hartutako ilintiek tximistatik babesten omen dituzte etxeak; eta errautsek areagotu egiten omen dute soroen emankortasuna, saguen kontra babesten dituzte, eta ganaduarentzako urarekin nahastuta, aziendak ugaltzen eta izurrietatik babesten dituzte. Garra apaltzean, gazte eta zaharrek jauzi egiten dute gainetik, eta batzuetan ganaduak ere eramaten dituzte ilinti ketsuen artetik. Leku batzuetan bikezko upelak edo lastoz bildutako gupilak ematen zizkieten suari, eta gero mendi-mazelan behera botazen zituzten jira-biraka. Beste batzuetan mutilek zuziak eta lastargiak pizten zituzten sutzarretan, eta lasterka ibiltzen ziren batetik bestera haiek eskuetan zituztela.

Münsterlanden, Bazkoko suak beti pizten dira mendi jakin batzuen gainetan, eta horregatik deitzen diete Bazkoko mendiak. Herri osoa biltzen da su inguruan. Mutilak eta neskak suaren biran ibiltzen dira, Bazkoko kantuak kantatuz, harik eta garra apaltzen diren arte. Gero neskek su gainetik egiten dute salto ilaran, bata bestearen atzetik, bina mutilek, eskuetatik helduta eta ondoan lasterka eginez, laguntzen dietelarik. Ilunabarrean, mutilak, lastargi irazekiak eskuetan, soroetan zehar ibiltzen dira haiek emankortzeko. Oldenburgeko Delmenhorsten, ohitura zen bi zuhaitz botatzea, elkarren ondoan landatzea eta hamabi bike-upela pilatzea zuhaitz bakoitzaren kontra. Sasiak pilatzen ziren gero zuhaitzen inguruan, eta Bazko larunbateko arratsean mutilek, baba-hesola irazekiekin batera eta bestera korrika ibili ondoren, sua ematen zioten denari. Zeremoniaren amaieran mutil koxkorrek elkarri aurpegiak eta helduen arropak belzten saiatzen ziren. Altmarkeko eskualdean sinesten da Bazkoko suaren garra zenbat eta urrunagotik ikusi, hainbat eta hobeto haziko dela laborea urte horretan, eta suterik ez dela izango. Harz mendietako Braunroden, usadioa Bazkoko suan katagorriak erretzea zen. Altmarken, hezurak erretzen ziren bertan.

Frankonia Garaian, Forchheimetik gertu, Judas esaten zioten lastozko gizon bat erretzen zuten elizatarietan bazko larunbatean. Herri osoak jartzen zuen egurra metarako, eta han

hiltzen zen hura, eta makila ikaztuak gorde eta soroetan landatzen zituzten Walpurgis egunean (maiatzaren lehenean), garia herdoiletik gordetzeko. Orain ehun bat urte edo gehiago, honako hauxe zen Bavaria Garaiko Althemmebergeko usadioa. Bazko larunbateko arratsaldean mutilek egurra biltzen zuten, soro batean pilatu eta zurezko gurutze luzea ezartzen zuten metaren erdian, dena lastotan bildua. Arratsaldeko elizkizunaren ondoren, lastargiak pizten zituzten elizako kandela sagaratuaz, eta haiek eskutan zituztela, korrika abiatzen ziren metara, nor lehenago iritsiko. Lehena iristen zenak ematen zion su metari. Andre eta neskak ezin izaten ziren hurbildu sutzarrera, baina bazeukaten urrunetik begiratzea. Garrak goratu ahala, gizon eta mutilek egundoko festa egiten zuten: "Judas erretzen ari gara!". Su-metara lehena iritsi eta su emandako gizonezkoari saria ematen zioten emakumeek Bazko igandean: arrautza margotuak ematen zizkioten elizako atean. Zeremonia osoaren xedea txingorra urrunaraztea zen. Bavaria Garaiko beste herri batzuetan, zeremoniari -Bazko igandean, gaueko bederatzia eta hamarrak bitartean izaten zen- "Bazko gizona erretzea" deitzen zioten. Herritik kilometro t´erdira-edo zegoen tontor batean, gazteek lastotan bildutako gurutzea jartzen zuten zutik, besoak zabal-zabal zituen gizona zirudielarik. Huraxe zen Bazko gizona. Hemezortzi urtetik beherako mutilek ez zeukaten zeremonian parte hartzerik. Mutiletako bat Bazko gizonaren ondoan jartzen zen, eskuan kandela sagaratu zuela, elizatik ekarri eta piztua. Besteak biribil handi batean jartzen ziren gurutzearen inguruan, elkarren artean tarte berdinak utzita. Seinale batera, hiru bira ematen zizkioten korrika biribilari, eta gero, bigarren seinale batera, gurutzer a eta ondoan kandela eskuetan zuela zegoen mutilagana joaten ziren lasterka; helmugara lehena iristen zenak bazko gizonari su emateko eskubidea izaten zuen. Egundoko bozkarioa izaten zen gizona erre bitartean. Garretan desegiten zenean, hiru mutil aukeratzen zituzten denen artetik, eta bakoitzak biribil bat marrazten zuen zoruan ziri batez, hiru bira emanaz errautsen inguruan. Gero denek aldegiten zuten handik. Bazko astelehenean herritarrek errautsak bildu eta soroetan barreiatzen zituzten; era berean, Erramu-egunean sagaratutako palmondo-abarrak eta ostiral santuan erretako makilak landatzen zituzten soroetan, dena zertarako eta soroak txingor-jasetatik babesteko. Suabiako zenbait aldetan, Bazkoko suak ezin dira burdinaz, altzairuz edo sukarriz piztu, egurra igurtziz baizik.

Bazkoko suen ohiturak Alemaniako erdialdean eta mendebalde osoan iraun du, iparraldetik hegoalderaino. Holandan ere aurkitu dugu. Han ere gainaldeetan pizten zituzten; jendeak dantza egiten zuen inguruan, eta gar artetik edo ilintien gainetik egiten zuen jauzi. Han ere, Alemanian bezala, sutarako erregaiak aterik ate biltzen zituen gazte-jendeak. Suediako hainbat aldetan suzko armak disparatzen dira norabide guztietan Bazko bezperan, eta sutzar handiak pizten dira muino eta gainaldeetan. Zenbaitek pentsatzen du xedea Troll eta beste izpiritu gaiztoak urrunaraztea dela, sasoi horretan oso bizi izaten baitira.

4. Beltaneko suak

Eskoziako Highlandseko erdialdean, Beltaneko suak zeritzen maiatzaren lehenean zeremonia handiz pizten zituzten sutzarrei, eta giza sakrifizioen arrastoak oso garbiak eta ezbairik gabeak zituzten. Suak pizteko usadioak XV. mendera arte iraun zuen hainbat lekutan, eta garai hartako idazleek zeremonia hartaz egindako deskribapenek gure herrian bertan irauten zuen antzinako paganotasunaren berri bitxi eta interesgarria eskaintzen digute. Egileen beren hitzetan aldatuko ditut hona. Deskribapenik osoena John Ramsay, Crieftik gertuko Ochertyreko jaunak utzitakoa da. Burns poetaren ugazaba eta Sir Walter Scotten laguna zen. Honela dio: "Baina druiden jaialdietan behinena Beltane edo maiatzaren lehenekoa da; azken aldian sekulako zeremoniez burutzen zen mendialdeko hainbat lekutan... Druiden beste gurtza publikoak bezala,

Beltaneko jaia muino edo gainaldeetan egiten bide zen. Ez zuten duintzat jotzen tenplutzat unibertsoa bera duen hura giza eskuz egindako etxeren batean bizi zela pentsatzea. Beraz, aire zabalean eskaintzen zituzten beren sakrifizioak, muino gainetan maiz; naturaren ikusmira izugarriekin, eta berotasunaren eta ordenaren sorgune zenetik hurbilen. Eta tradizioak dioenez, azken ehun urte honetan haxe izan da jai hau ospatzeko modua mendialdean. Baina superstizioak gainbehera egin duenez geroztik, herrixka bakoitzeko jendeak muino edo gainalderen batean ospatu izan du, bere ganadua larratzen zen lekuan. Haraino abiatzen ziren gazteak goizean, eta lubakia irekitzen zuten, eta haren gainean belarrezko jarlekua eratzen zen konpainiarentzat. Erdian egur-pila edo beste erregairen bat jartzen zuten, eta antzinatek tein-eiginaz -alegia, larrialdietako su berriaz- pizten zuten. Nahiz eta urte askoan su arruntarekin konformatu diren, hala ere prozedura deskribatuko dugu, zeren eta, aurrerago ikusiko denez, baliabide horretara -tein-eiginera, alegia- jotzen baitzuten ohituraz kanpoko abaguneetan.

"Aurreko gauean herrialdeko su guztiak itzaltzen ziren kontu handiz, eta biharamun goizean su sakratu hura pizteko erregaiak preparatzen ziren. Metodirik primitiboena, dirudienek, Skye, Mull eta Tiree irletan erabilitakoa omen zen. Haritz-ohol ondo lehortua hartu eta erdian zuloa egiten zioten. Ondoren zur bereko daratulua ezartzen zioten, muturra zuloaren neurri berdinekoa zuena. Baina barrualdeko zenbait aldetan ariera desberdina zen. Zur hezezeko zati bat erabiltzen zuten, karratua, erdian ardatza zuena. Leku batzuetan hiru laguni hiru bider, beste batzuetan bederatzi laguni hiru bider, eskatzen zitzairen ardatza edo daratulua txandaka birarazteko. Haietako norbait hilketak, adulterioa, lapurreta edo beste krimen izugarriren bat eginga bazen, imajinatzen zen sua ez zela piztuko, edota ez zuela ohiko bertuterik izango. Igurtzi bortitzaren ondorioz txinparta batzuk atera orduko, urki zaharretan sortzen den eta oso sukorra den ondoko bat botatzen zioten. Su hark zerutik etorritako itxura zuen, eta bertute ugari omen zituen. Sorginkeriatik gordetzen zuela uste zuten, eta erremedio bikaina zela hala gizakien nola ganaduaren gaixotasun txarrentzat; eta beraren bidez, pozoirik bortitzenak indargabetu egiten omen ziren.

"Sutzarra tein-eiginaren bidez piztu ondoren, bildutakoek beren jakiak prestatzen zituzten. Eta jaten amaitu bezain laster, atsegin pixka bat hartzen zuten kantuan eta suaren inguruan dantzan. Atseginaldia amaitzerakoan, jaiaren buru egiten zuen pertsonak arrautza-opil handia egiten zuen, ertzetan txigortua, am bonnach bela-tine zeritzana -hots, Beltaneko opila. Puska asko egiten ziren, eta handikiro banatzen bildutako guztien artean. Puska jakin bat hartzen zuenari cailleach bela-tine deitzen zioten, hots, Beltaneko carlinea, lotsabide handiko izena. Hura jakiten zenean, bildutako batzuek hari heldu eta sutara botako zutelakoa egiten zuten; baina gehienak tartean jarri eta erreskatatu egiten zuten. Eta zenbait lekutan lurtean etzaten zuten, zatikatzeko bezala. Ondoren, arrautza-azalak jaurtitzen zizkieten, eta urte osoan izen nardagarri hura izaten zuen. Eta jendeak jaia gogoan zuen bitartean, hilda bailegoen hitz egiten zuten cailleach bela-tineaz".

Callanderko parrokiaren -Perthshireko mendebaldeko eskualde eder batean-, Beltaneko usadioa indarrean zegoen hemezortzigarren mendearen azken aldera. Honela deskribatu zuen garai hartako parrokoak: "Maiatzaren lehenean -Beltan edo Baltein eguna deritza egun horri- herri edo herrixka bateko mutiko guztiak biltzen dira eremuetan. Mahai biribila egiten dute belarretan, nola eta lurtean lubaki biribila eginez, denak esertzeko adinakoa. Sua pizten dute, eta arrautzaz eta esnez egindako ahia prestatzen dute. Olorinezko opil bat oretu eta ilinti artean jarritako harri baten gainean erretzen dute. Ahia jan ondoren, puska askotan banatzen dute opila - zenbat lagun bildu diren, hainbeste puska-, denak ere ahalik eta berdinenak tamainaz eta formaz. Puska horietako bat

ikatzek belzten dute erabat. Zati guztiak kapelu batean sartzen dituzte. Banan-banan eta begiak estalita, zati bana ateratzen dute denek. Kapeluari eusten dionak hartu behar izaten du azken puska. Puska beltza ateratzen duena eskaini beharko zaio sakrifizioan Baali; Baal horri eskatzen diote urte ugaria eman diezaiela gizaki eta abereentzako mantenutan. Ez da zalantzarik lurralde hartan behinola giza sakrifizioak eskaini zirela, ekialdean bezala, nahiz eta gaur egun sakrifizioaren ekintzara iristen ez diren, eskainitako pertsona garren gainetik hiru bider jauzi egitera bestetara ez baitute behartzen; horrekin amaitzen dira jaialdi honetako zeremoniak".

Thomas Pennantek, Perthshiren zehar baitzebilan bidaiari 1769an, hauxe kontatzen digu: "Maiatzaren lehenean, herri guztietako artzainek Bela-tinea izaten dute, nekazal sakrifizio bat. Lubaki karratua egiten dute lurrean, erdian belarra uzten dutelarik; han sua pizten dute egurrez, eta bertan arrautzaz, gurinez, lo-irinez eta esnez egindako bizkorgarri handia egiten dute; eta bizkorgarri horren osagaiez gainera, garagardo eta whisky ugari eramaten dute; izan ere, hara bildutako bakoitzak zerbait eramane behar izaten du. Erritoei hasiera emateko, bizkorgarriaren pixka bat lurrera isurtzen dute, eskaintza gisa; gero denek hartzen dute olo-irinezko opil bat, gainean bederatzi kozkor karratu dituen, bakoitza izaki jakin bati eskainia, alegia, ganadu eta artalde bakesle omen denari, edo haiek hondatzen dituen animalia jakinen bati; pertsona bakoitza suari begira jartzen da, hausten du kozkor bat eta, bizkar gainetik jaurtiz, esaten du: "Hau ematen dizut, gorde itzazu nire zaldiak; hau zuretzat, gorde nire ardiak; eta abar". Horren ondoren, zeremonia berdina egiten dute animalia kaltegarrientzat ere: "Hau ematen dizut, oi azeri! Errespeta itzazu nire arkumeak. Hau zuri, oi bele txanodun! Hau zuri, oi arrano!". Zeremonia amaitutakoan, jan egiten dute bizkorgarria; eta jaia amaitutakoan, hartarako izendatutako bi lagunek sobratutakoa biltzen dute. Hurrengo igandean berriro biltzen dira, eta lehen askariaren hondarrak jaten dituzte".

Hemezortzigarren mendeko beste idazle batek ere deskribatu du Beltaneko jaia, Perthshireko Logieraiteko parrokiaren egiten zen bezala. Honela dio: "Maiatzaren lehenean, usadio zaharrean, Beltan izeneko jaia egiten dute urtero. Batez ere unaiek ospatzen dute; talde handitan bildu landetan, eta afaria prestatzen dute, esne egosia eta arrautzak. Horrekin batera, egun hartarako egindako opil-mota bat jaten dute, gainean ditiburu itxurako kozkorak dituen". Azken kontakizun honetan ez da aipatzen sutzarrik, baina piztuko ziren, seguruenik. Izan ere, garaiko beste idazle batek gaztigatzen digunez, Kirkmichaelgo parrokiaren -Logieraiteko parrokiaren mugaide da ekialdetik-, maiatzaren lehenean soroetan sua pizteko eta sagaratutako opila egiteko usadioa ez omen zen guztiz desagertua garai hartan. Pentsa genezake kozkordun opila "Beltaneko carline" delakoa, alegia, suari eman beharrekoa, nor izango erabakitzeke erabiliko zela lehenago. Usadio horren arrasto batek iraun zuen, agian, mota berezi bateko olo-irinezko opilak egin eta mendian behera biraka botatzeko ohituran, maiatzaren lehenaren eguerdian; pentsatzen zen norbaiti jirabiraka botatutako opila hausten bazitzaion, pertsona hori hil egingo zela edo zorigaitzekoa izango zela urte hartan zehar. Opil horiek -bannock-ak, Eskozian esaten diegun bezala- ohiko moduan egiten ziren, baina arrautza irabiatuz, esne edo gurinez eta olo-irin pixka batez egindako oreka ematen zitzaion gainetik. Usadio hau gorde egin da Kingussie inguruan, Inverness-shiren.

Eskoziako iparrekialdean, Beltaneko suak artean egiten ziren hemezortzigarren mendearen bigarren erdian; hainbat etxaldetako unaiek egur iharra biltzen zuten, piztu eta hiru aldiz dantzatzen zuten, "hegoaldera begira", meta irazekiaren ondoan. Baina eskualde hartan, beranduagoko idazle batek dioenez, Beltaneko suak maiatzaren lehenean ez baina bigarrenaren pizten ziren usadio zaharrean. Hezur-suak esaten zitzaion. Jendeak sinesten zuen arrats eta gau hartan sorginak kanpoan ibiltzen zirela

lanpetuta, ganaduari araoak egiten eta behiei esnea osten. Haien gaiztakeriei kontra egiteko, urki-abarrak eta atxaparrak, baina batez ere urki-abarrak, jartzen ziren ukuiluetako ate gainetan, eta baserritar eta herritar guztiek egiten zuten sua. Haga zaharrak, lastoa, otea, edo isats arrunta pilatu eta su ematen zitzaaien eguzkia sartu eta geroxeago. Batzuek sugarrei eragiten jarduten zuten bitartean, beste batzuek gartutako puskak hartzen zituzten sarde edo hagetan, eta batetik bestera ibiltzen ziren korrika, ahalik eta gehien eusten saiatuz. Bitartean, gazte-jendeak dantzan egiten zuen su inguruan, edo ke artean lasterkatzen zen, oihuka: "Su! Gar zaitez eta erre sorginak. Su! Su! Erre sorginak!". Eskualde batzuetan oloz edo garagarrez egindako opil handi biribil bat botatzen zuten biraka errautsen artetik. Erregai guztia agortzen zenean, jendeak hantxan hantxan barreiatzen zituen errautsak, eta guztiz ilundu arte korrika jarraitzen zuten batera eta bestera, oihuka: "Su! Erre sorginak!".

Hebridetan "Beltaneko bannocka San Michaelen egindakoa baino txikiagoa da, baina modu berean egiten da; jadanik ez da egiten Uisten, baina aita Allanek gogoan du bere amona bat egiten ikusi izana orain hogeita bost urte. Gazta bat ere egiten zen, gehienetan maiatzaren lehenean, hurrengo Beltanekora arte gordetzen zena, esne-produkzioa ez sorgintzeko xarma gisa. Beltaneko usadioak berdina izan bide dira nonahi. Su guztiak itzaltzen ziren eta beste handi bat pizten zen mendi-gain batean, eta ganadua biraka erabiltzen zen eguzki aldera (dessil), ardi-baztanga urrunarazteko. Gizon guztiek hartzen zuten sua handik, etxean pizteko".

Galesen ere gordetzen zen maiatzaren hasieran Beltaneko suak pizteko ohitura, baina pizteko eguna aldatu egin ohi zen, maiatzaren lehenetik hirura bitarte. Batzuetan bi haritz-puska igurtziz ateratzen zen garra, ondoko deskribapen honetan ageri denez. "Sua honela egiten zen. Bederatzi gizonen barrukoz kanpora jartzen zituzten poltsikoak, txanponik edo metal-puskarik ez zutela erakusteko. Gero gizon haiek hurbileko basoetan sartu eta bederatzi motatako makilak biltzen zituzten. Sua egin beharreko lekura ekartzen zituzten. Han biribil bat ebakitzen zuten belarretan, eta makilak gurutzatuta jartzen zituzten. Biribilaren inguru osoan jartzen zen jendea, eginkizunei begira. Gizonetarik batek bi haritz-puska hartu eta elkarren kontra igurtzitzen zituen garra sortu arte. Makilei ematen zitzaaien, eta laster su handia sortzen zen. Batzuetan bi su egiten ziren bata bestearen ondoan. Su haiei, bat izan nahiz bi izan, coekcerth edo sutzar deitzen zieten. Olo-irinezko eta irin nabarrezko opil biribilak lau zati egiten ziren, eta irin-zaku batean sartzen, eta bertaratutako denek atera behar izaten zuten zati bat. Zakuko azken zatia zakuari eusten zionari zegokion. Irin nabarrezko opilaren puska bat ateratzen zutenak hiru aldiz garren gainetik salto egitera behartzen zituzten, edota hiru aldiz bi suen artetik pasatzera, eta hartara jendeak pentsatzen zuen uzta oparoa izango zutela. Proba hura jasan behar zutenen garrasiak eta orroak urrunera entzuten ziren, eta olo-irinezko puskak ateratzen zituztenek kantuan eta dantzan egiten zuten, txaloka, puska nabardunek gar artetik hiru aldiz salto egindakoa, edo bi suen artetik hiru aldiz pasatutakoa".

Kontuan hartzekoa da sineste hori, sutzarren gainetik hiru aldiz salto eginez gero uzta oparoa izango zutela. Ondorio hori nola lortzen zen adierazten digu Galesko folkloreko beste idazle batek. Idazle honen arabera, ustea zen "maiatzean edo udan piztutako sutzarrek sorginkerietatik babesten zituztela lurrak, eta uzta onak etortzen zirela. Errautsek ere xarma gisa balio izaten omen zuten". Horregatik, nonbait, sutzarren beroak emankortu egiten omen zituen soroak, ez zuzenean lurreko haziak bizkortuz, baizik eta sorginkerien eragin gaiztoari kontra eginez edo agian sorginak berak errez.

Irlandan ere pizten omen ziren Beltaneko suak. Cormacek, "edo beste norbaitek haren izenean, zera dio, belltainek -maiatzaren lehenak, alegia- Eringo druidek egun hartan sorginkeria handiekin egiten zuten "zorte onaren sutik" edo "bi suetatik" hartzen zuela

izen hori; eta ganadua, eransten du, su haietara eramaten zuten, edo haien artetik pasarazten, urteko gaixotasunen kontrako babesgarri gisa". Oraindik bizi dira Irlandan maiatzaren lehenean edo bezperan ganadua su artetik edo bi suren artetik eramateko usadioa gogoratzen dutenak.

Maiatzaren lehena herri-jai handia da Suediako erdialde eta hegoalde osoan. Jaiaren bezperan, bi sukarri elkarren kontra joz piztutako sutzar handiek distiratzten dute muino eta gain guztietan. Herrixka handi samar guztiek dute beren sua, eta gazte-jendeak dantzaz egiten du haren inguruan biribilean. Zaharrek garra iparraldera ala hegoaldera makurtzen diren erreparatzen diote. Lehen kasuan, udaberria hotza eta berantiarra izango da; bigarrenean, leuna eta gozoa. Bohemian, maiatzaren lehenaren bezperan, gazte-jendeak suak egiten ditu muino eta gainaldeetan, bidegurutzeetan eta larreetan, eta dantza egiten du inguruan. Ilintien gainetik edo garren artetik egiten dute jauzi. Zeremoniari "sorginak erretzea" deritza. Leku batzuetan sorgin baten irudia erretzen zuten sutzarrean. Gogoratu behar da maiatzaren lehena Walpurgisen gau ezaguna dela, sorginak nonahi ibiltzen direla, ikustezin, airean hegan, beren ibili ifernutarretan. Sorgin-gau horretan Voigtlandeko haurrek ere sutzarrak pizten dituzte muinoetan, eta gainetik egiten dute jauzi. Gainera, erratz irazekiak astindu edo airera jaurtitzen dituzte. Sutzarren argia noraino iristen den, haraino iritsiko da bedeinkazioa. Walpurgisen gauean suak egiteari "sorginak botatzeta" deritza. Maiatzaren lehenean (Walpurgisen gauean), sorginak erretzeko xedez, sua egiteko ohitura oso hedatuta dago Tirolen, Moravian, Saxonian eta Silesian.

5. Udaburuko suak

Baina su-jai horiek udako solstizioan egin izan dira batez ere Europa osoan, alegia, udan sartzeko bezperan (ekainaren hogeita hiruan), edo udako lehen egunean (ekainaren hogeita lauan). Halako kristautasun kutsu bat eman zaie udako lehen eguna San Joan Bataiatzailearen eguna izendatuz, baina ez da zalantzarik ospakizun hori gure aroa baino lehenagoko garaitik datorrela. Udako solstizioa, edo udaburuko eguna, une nagusia da eguzkiaren ibilian: egunez egun ortzian gero eta garaiago igo ondoren, argizaria geratu eta handik aurrera atzera behera hasten da zeruetako bidean. Halako une bat ezin larririk sentitu gabe ikusi lehen gizonak, zeruko gangan zehar argi handien ibiliei erreparatzen eta neurtzen hasi zen bezain laster; eta artean naturaren aldaketa zikliko izugarrien aurrean bere ezdeusa ikasteko zuenez, imajinatu bide zuen lagundu egin ziezaiokeela eguzkiari gainbeheran; eutsi egin ziezaiokeela beherakoan, eta bere esku ahulaz berriro pitz zezakeela lanpara gorri haren garra. Halako pentsakizunetatik sortu bide ziren Europako nekazarien udako jaiak. Dena dela jaion jatorria, nagusitu egin dira munduko alderdi honetan, hasi Irlandatik, mendebaldean, eta Errusiaraino, ekialdean, eta Norvegia eta Suediatik, iparraldean, Espainia eta Greziaraino, hegoaldean. Erdi Aroko idazle baten arabera, udako ospakizunaren hiru ezaugarri handiak sutzarrak, soroen bueltan zuziekin egindako prozesioa eta gorpila jirabiraka botatzeko usadioa izan ziren. Idazle horrek dioskunez, mutikoek hezurak eta hainbat eratako zakarrak erretzen zituzten ke zikina ateratzeko, eta ke hark sugetzar kaltegarri batzuk urrunarazten omen zituen; izan ere, garai hartan, udako beroak aztoratuta, airean kopulatzen omen zuten eta iturri eta ibaiak pozoitzen omen zituzten beren hazia haietara botaz. Gorpila biraka botatzeko usadioa ere azaltzen du: esan nahi omen du eguzkia, bere ekliptikan punturik altuena iritsi ondoren, beherako bidean hasten dela.

Udako su-jaiaren ezaugarri nagusiak suaren udaberriko jaienen antzekoak dira -ikusitugu-. Bi zeremonia-multzo hauen antzak argi eta garbi agertuko ditugu ondorengo adibideotan.

Hamaseigarren mendearen bigarren erdiko idazle batek jakinarazten digunez, Alemaniako ia herri eta hiri guztietan pizten ziren San Joan egunaren bezperan, eta

zahar eta gazte, gizon eta emakume, biltzen ziren haien inguruan, eta dantzan eta kantuan ematen zuten denbora. Abagune hartan jendeak artemisia minezko eta berbena-belarrezko txanoak janzen zituen, eta eskuetan zituen zorri-belar sorten artetik begiratzen zion suari, ustez hartara begiak osasuntsu mantenduko zituztela urte osoan zehar. Alde egiterakoan, sutara botatzen zituzten artemisia mina eta berbena-belarra, esanez: "Doala nire zorte txar guztia horiekin, eta erre bedi". Lower Konzen -mazela batean Mosela ibaiari begira dagoen herri bat da hau-, udako jaia honela ospatzen zen. Lasto-pila bat biltzen zen Strombergeko mendi gainean. Bizilagun guztiek, edota etxajaun guztiek behinik behin, jarri behar zuten beren lasto-partea metan. Ilunabarrean gizonezko guztiak, gizon eta mutil, biltzen ziren mendi gainean; andreek eta neskek ez zeukaten haiekin egotarik, mazela erdian zegoen iturri batean egon behar zuten. Tontorrean gurpil eskerga bat egoten zen, herritarrek emandako lastotan osorik bilduta; geratzen zen lastoaz zuziak egiten ziren. Gurpilaren alde banatatik hiru bat oin irteten zen ardatza, hura goitik behera eramanez behar zuten mutilek heldulekua izan zezaten. Sierkeko auzo-herriko alkateak ematen zuen seinalea, eta saskikada bat gerezi jasotzen zuen beti bere zerbitzuengatik; zuzi irazekia hurbiltzen zitzaion gurpilari, eta hura gartzean, bi mutil beso gihartsu eta oin arinekok, heltzen zieten heldulekuei eta aldapan behera hasten ziren korrika. Jendea garrasika hasten zen. Gizon eta mutil guztiek zuzi irazeki bana astintzen zuten airean, eta piztuta mantentzen saiatzen ziren gurpila mendian behera zihoan biartean. Gurpila gidatzen zuten bi gazteen xedea hura sutan zela Moselako ibaietan sartzea izaten zen; baina gutxitan lortzen zuten hori, ia aldapa osoa hartzen duten mahastiek oztopatu egiten zituztelako, eta gurpila ibaira iritsi baino lehen erretzen zen maiz. Andre eta neskak zeuden lekutik pasatzean, emakumeek alaitasunezko oihuak jaurtitzen zituzten, eta mendi gaineko gizonek erantzun egiten zieten; eta oihu haiei oihartzun egiten zien auzo-herrietako jendeak Mosela ibaiaren beste aldetik, beren muinoetatik ikuskizunari begira egoten baitziren. Gurpil handia ibai ertzeraino eramanez eta uretan itzaltzen bazen, jendeak mahaste oparoa espero izaten zuen urte hartarako, eta Konzeko biztanleek gurdikada bat ardo zuri eskatzeko eskubidea zuten inguruetakoa mahastietatik. Bestalde, sinetsita zeuden ezen, zeremoniarik ez egitera, ganaduak amurria eta ikarak izango zituela, eta urduri egongo zela ukuiluetan. Bavaria Garaian, hemeretzigarren mendearen erdialderaino behintzat pizten ziren udako suak. Batez ere mendietan egiten zituzten, baina baita behealdeetan ere, han-hemenka, eta kontatu zaigunez, gauaren ilun narean ikustekoak izaten ziren taldeak mugitzen, garren distira ikaratiak argituta. Ganadua su artetik eramanez zen, abere gaixoak sendatzeko eta osasuntsuak izurriteetatik eta era guztietako gaitzetatik gordetzeko urtean zehar. Etxajaun askok itzaltzen zuten etxeko sua, eta berriro pizten zuten udako sutzarretik hartutako ilinti batez. Jendeak kontuak ateratzen zituen urte hartan lihoa noraino haziko zen, sutzarraren garrek hartzen zuten altueraren arabera; eta sutan zen metaren gainetik jauzi egiten zuena seguru egon zitekeen ez zuela bizkarreko minik izango uztaroan laboreak ebakitzen. Bavariako alde askotan sineste hau zuten: gazte-jendeak noraino salto egiten zuen suaren gainetik, hainbeste haziko zela lihoa. Beste leku batzuetan ilinti itzali bat jartzen zen etxearen teilatu gainean, suterik ez izateko. Wurzburg inguruko hirietan, merkatu-plazetan egiten ziren sutzarrak, eta gainetik salto egiten zuen gazte-jendeak lore-sortak janzen zituen, batez ere artemisia minezko eta berbena-belarrezkoak, eta zorri-belarraren izpi batzuk eramanez zituen eskuetan. Pentsatzen zuten suari begiratu gero zorri-belar pixka bat aurpegi aurrean edukita, ez zutela begietako gaixotasunik izango urte osoan zehar. Gainera, Wurzburgen, hamaseigarren mendean, gotzainaren jarraitzaileek zurezko disko irazekiak jaurtitzen zituzten airera hiri ondoko mendi batetik. Diskoak zume zaluen bidez jaurtitzen ziren, eta ilunean egiten zuten hegaldian sugetzar beldurgarrien itxura hartzen zuten.

Era berean Suabian ere, neska-mutilek, elkarri eskutik helduta, udako sutzarraren gainetik egiten dute salto, kalamua hiru kana garai haz dadin eskatuz, eta lastozko gurplei su eman eta mendian behera botatzen dituzte. Batzuetan, jendeak udako suaren gainetik salto egitean, oihu egiten du: "Liho, liho! Haz dadila aurtengo lihoa zazpi kana garai!". Rottenburgen, gizon aingerua zeritzan giza itxurako irudi trauskila loretan biltzen zuten; udako sutan erretzen zuten mutikoez, eta ondoren ilinti gartuen gainetik egiten zuten salto.

Badenen ere hurrek erregaia biltzen zuten etxez etxe San Joan gaueko sutzarrerako; eta neska-mutilek salto egiten zuten suaren gainetik binaka. Kasu honetan, beste batzuetan bezala, lotura estua egiten zen sutarren eta uztaren artean. Leku batzuetan pentsatzen zen suaren gainetik salto egiten zutenek ez zutela bizkarreko minik izango sega-garaian. Batzuetan, gazte-jendeak garren gainetik salto egitean, oihu egiten zuen: "Hazi, kalamua hiru kana garai izan dadin!". Ideia hori, alegia, kalamua edo laborea garrak bezain altu haziko zirela, edo jendeak salto egin hainbat, oso zabaldua bide zegoen Badenen. Suaren gainetik gehien salto egiten zuten gazteen gurasoek uztarik oparoena izango omen zuten; eta bestetik, gizon batek ez bazuen ezer ematen sutzarrerako, haren ereinek ez omen zuten onik izango, eta haren kalamua bereziki ez zen haziko. Ederslebenen, Sangerhausenetik gertu, haga luze bat ezartzen zen lurrian, eta bike-upela bat esekitzen zen handik, lurreraino iristen zen katea batez. Upelari sua ematen zioten, eta hagaren biran bueltaka erabiltzen zuten, alaitasun-oihuen artean.

Danimarkan eta Norvegian ere udako suak egiten ziren San Joan bezperan bide, zabalune eta muinoetan. Norvegiako jendeak pentsatzen zuen suak urrundu egiten zituela gaixotasunak ganaduagandik. Oraindik ere pizten omen dira suak Norvegia osoan udaburuaren bezperan. Sorginak urrun edukitzeko egiten dira, gau horretan alde guztietatik joaten baitira hegan Blocksbergera, sorgin handiaren bizilekura. Suedian San Joan bezpera (San Hans) urte osoko gaurik alaiena da. Herrialde hartako alde guztietan, batez ere Bohus eta Scania probintzietan, eta Norvegiako muga ondoko eskualdeetan, suzko armak disparatuz eta sutzar handiak eginez ospatzen da. Lehenago Balderen hezur-suak (Balder's Balar) esaten zitzairen; ilunabarrean pizten dira muino eta gainaldeetan, eta beren distiraz argitzen dituzte inguruak. Jendeak suaren biran egiten du dantzari, eta gainetik edo artetik egiten du salto. Norrlandeko alde batzuetan, San Joan bezperan, bidegurutzetan egiten dira sutzarrak. Erregaia bederatzi zur-mota desberdinek osatzen dute, eta ikusleek ondoko pozoitsuen mota bat (Baran) jaurtitzen dute garretara, zertarako eta trolen eta beste izpiritu gaizto batzuen indarrari kontra egiteko, gau horretan kanpoan izaten omen direla eta; sasoi mistiko horretan mendiak ireki egiten baitira, eta haien barrunbeetatik irteten dira bertako biztanle beldurgarriak, aldi batez dantzari egitera eta jostatzerara. Nekazariak sinesten dute inguruan trolen bat ibiliko balitz, bere burua agertaraziko lukeela; eta baldin eta abereren bat, akerra edo ahuntza esate baterako, meta gartu eta txingartsuaren inguruan ikusten bada, nekazariak erabat etsita egoten dira deabrua bera baino ez dela. Gainera, merezi du aipatzea San Joan bezpera uraren jaia ere badela Suedian, suarena izateaz gainera; zenbait iturri santu sendatzeko bertute miresgarriaz janzten omen dira orduan, eta gaixoez bertara jotzen omen dute beren gaixotasunak sendatzera.

Austrian, udaburuko ohitura eta superstizioak Alemaniako antzekoak dira. Adibidez, Tiroleko zenbait aldetan sutzarrak egiten dira eta disko irazekiak jaurtitzen dira airera. Inn ibaiaren haraneko behealdean irudi zarpail bat eramaten dute gurdi batean, herrian zehar, udako lehen egunean, eta gero erre egiten dute. Lotter deritza, baina izen hori Luther bihurtu dute. Ambrasen, Martin Lutherren irudia erre ohi duten herri batean diotenez, San Joan gaueko hamaikak eta hamabiak artean herrian zehar ibili eta norberaren burua hiru iturritan garbituz gero, hurrengo urtean hilko diren guztiak

ikusten omen dira. Gratzen, San Joan bezperan (ekainaren hogeita hiruan) herri xeheak panpina bat egiten zuen, Tatermann zeritzana. Lurreko hautsetan ibiltzen zuten, eta erratz irazekiak jaurtitzen zizkioten gartzen zen arte. Tirolgo Reutten, jendea sinetsita zegoen berek udako sutzarrean salto egiten zuten bezain garai haziko zela lihoa, eta hartu egur errearen zatiak sutatik eta liho-sailetan ezartzen zituzten gau hartan bertan, eta han uzten zituzten harik eta lihoa biltzeko garaia etorri arte. Austria Beherean sutzarrak pizten dira goialdeetan, eta mutikoak salto eta brinko ibiltzen dira inguruan, bikeztaturiko zuzi irazekiak eskuetan dituztela. Su artetik hirutan salto egiten duenak ez du sukarrrik izango urtean zehar. Sarritan gurdi-gurpilak bikez igurtzi, su eman eta mazeletan behera botatzen dituzte bueltaka, garretan.

Udaburuko egunaren bezperan sutzarrak egiten dira Bohemia osoan. Arratsaldean mutikoak ibiltzen dira orgatilekin etxerik etxe, erregaia biltzen eta ezer eman nahi ez duten zekenak ondorio latzez mehatxatzen. Batzuetan gazteek izai luze zuzena botatzen dute basoan; muino baten gainean ezartzen dute, eta neskek lore-sortaz, hostoz eta zinta gorritz apaintzen dute. Gero sasiak pilatzen dituzte haren kontra, eta ilunabarrean su ematen diote metari. Garrak hartu bitartean, gizon gazteak zuhaitzean gora igotzen dira eta neskek han ipinitako sortak hartzen dituzte. Ondoren, neskak eta mutilak elkarri begira jartzen dira suaren alde banatan, sorten artetik, ikusteko ea elkarri leial izango zaizkion eta urte horretan ezkonduko diren. Halaberean, neskek sortak jaurtitzen dizkiete garren artetik gizoni, eta baldarra halakoa bere maiteak botatako sorta harrapatzen asmatzen ez duen senargaia. Garrak ematutakoan, bikote bakoitzak, eskutik helduta, hiru aldiz egiten du salto suaren gainetik. Hala egiten duenak ez du izango sukarrrik urte osoan zehar, eta lihoa gazte-jendeak salto egin bezain garai haziko da. Udaburukoaren bezperan bederatzi su ikusten dituen neska urtea amaitu baino lehen ezkonduko da. Ekaitza denean, sortaren puska bat erretzen da sutegian, otoitz batekin; pixka bat ematen zaie gaixorik edo umea egiteko dauden behiei, eta beste pixka bat etxea eta ukuilua keztatzeko erabiltzen da, gizakiak eta abereak osasuntsu eta ongi izan daitezen. Batzuetan gurdi-gurpil zaharra erretxinez igurtzi, su eman eta muinoan behera botatzen da jirabiraka. Sarritan mutikoek eskura ditzaketen erratz zahar guztiak biltzen dituzte, bikeztatu eta, su eman ondoren, airean astindu edo gora jaurtitzen dituzte. Edota mendi-mazelan behera abiatzen dira lasterka tropelean, erratz irazekiak eskutan eta orroka. Erratzen kintenak eta ilintiak gorde eta baratzetan ezartzen dira azak harretatik eta etxe-eltxoetatik babesteko. Zenbaitek udako sutzarraren makila ikaztuak eta errautsak ezartzen dituzte beren soro eta belardietan, baratzetan eta etxeen teilatu gainetan, tximistaren eta eguraldi txarraren kontrako talisman gisa; edota imajinatzen dute teilatuan botatako errautsek babestuko dutela etxea suteetatik. Eskualde batzuetan artemisia minez koroatzen dira batzuk udako suak dirauen bitartean, pentsatzen baita izpiritu, sorgin eta gaixotasunen kontrako babesa dela; bereziki, artemisia minezko sorta bat babes segurua da begietako gaitzentzat. Batzuetan neskek sasi-loreen sorten artetik begiratzen diete sutzarrei, suari eskatuz begiak eta betazalak indar diezazkietela. Hori hiru bider egiten duenak ez du izango begi eskelik urte osoan zehar. Bohemiako zenbait aldetan udako suaren artetik pasarazten zituzten behiak, sorginkerietatik gordetzeko.

Herrialde eslaviarretan, udaburuko jaia antzeko erritoez ospatzen da. Ikusi dugu Errusian, San Joan bezperan, neska-mutilek bikoteka egiten dutela salto suaren gainetik, Kupaloren lastozko irudia besoetan daramatela. Errusiako zenbait aldetan Kupaloren irudia erre edo errekarra jaurtitzen dute San Joan gauean. Orobat, Errusiako zenbait eskualdetan gazte-jendeak lore-sortak eta belar santuz egindako koroak janzten ditu gar artetik jauzi egiten duenean; eta batzuetan ganadua ere pasarazten dute sutatik sorginengandik babesteko, hauek esnearen irrikaz izaten baitira. Errusia Txikian hesola sartzen dute lurrean San Joan gauean, lastotan bildua, eta su ematen diote. Garrak

haizatu bitartean, emakume nekazariak urki-abarrak botatzen dituzte bertara, esanez: "Haz dadila nire lihoa abar hau bezain luze!". Rutenian egurrak igurtzita ateratako garraz pizten dituzte sutzarrak. Taldeko zaharrenak horretan ari diren bitartean, beste guztiak isilik egoten dira begiramenez; baina egurretik garra ateratzen denean, kanta alaiei ekiten diete. Sutzarra piztu bezain laster, gazte-jendeak elkarri eskutik heldu eta binaka egiten dute salto kearen edota garren artetik; eta ondoren ganadua pasazten dute.

Prusia eta Lituaniako alde askotan su handiak egiten dira udaburukoaren bezperan. Goialde guztiek distirutzen dute, begiak ikus dezakeeneraino. Suak sorginkeria, trumoi, txingorra eta ganaduen gaixotasunen kontrako babesaren omen dira, batez ere biharamun goizean ganadua sua egindako lekuetara eramaten bada. Sutzarrek sorginen jokoetatik babesten dute batez ere baserritarra, behiei esnea lapurtzen saiatzen baitira xarma eta araoen bidez. Horregatik, biharamun goizean mutil gazteak ikusten dira sutzarra piztu eta etxez etxe dabiltzala, eta trukean esnez betetako pitxerrak hartuz. Eta horregatixe ezartzen dituzte sasiak eta artemisia mina ate gainean edo ganadua larratzera sartzeko erromararen gainean, zeren eta babesgarriak baitira sorginkeriaren kontra. Masurenen - poloniarrek bizi diren Prusiako ekialdeko eskualde bat da hau-, udako lehen eguneko arratsaldean ohitura da herriko su guztiak itzaltzea. Gero haritz-hesol bat sartzen da lurrean, eta gorpila ezartzen da bertan, ardatz batean bezala. Herritarrek, txandaka jardunez, ahalik eta bizkorren birarazten dute gorpil hori, harik eta igurtziaren igurtziz sua sortzen den arte. Denek eramaten dute ilinti gartu bat etxera, eta harekin pizten dute etxeko sua. Serbian, udaburukoaren bezperan, artzain eta unaiek urki-azalezko zuziak pizten dituzte, eta eskorta eta ukuiluen inguruan ibiltzen dira; gero mendi gainetara igo eta han uzten dituzte zuziak itzali arte.

Hungariako magiarren artean, udako su-jaiak Europako hainbeste aldetan aurkitu ditugun ezaugarri berberak ditu. Udaburukoaren bezperan, leku askotan, ohitura da goialdeetan sutzarrak egin eta gainetik salto egitea, eta gazte-jendeak salto egiteko moduaren arabera, bertaratuek auresaten dute haiek laster ezkonduko diren ala ez. Egun horretan hungariar zerrizain askok sua pizten dute gorpil bat kalamutan bildutako zurezko ardatz baten inguruan biraraziz, eta hala egindako suaren artetik pasazten dituzte beren zerriak, gaixotasunetik babesteko.

Errusiako estoniarrek ere -magiarrak bezala, turaniar enda handikoak dira haiek ere- ohiko moduan ospatzen dute udako solstizioa. Pentsatzen dute San Joan suak urrundu egiten dituela sorginak ganadutik, eta hara joaten ez denari karduz beteko omen zaio garagarra, eta oloa irakaz. Oeselgo irla estoniarrean, udako sutara erregaia botatzean, honela egiten dute: "Irakak sutara, lihoa sorora", edota hiru egur botatzen dituzte garretara, esanez: "Luze haz bedi lihoa!". Eta makila ikaztuak sutatik hartu eta etxera eramaten dituzte, eta ganadua gizen dadin gordetzen. Irla hartako leku askotan sasiak eta bestelako erregaiak zuhaitz baten inguruan pilatuz egiten dute sutzarra, gainean bandera uhinkari bat jarrita. Erre aurretik, bandera haga batez ukitzen duenak zorte ona izango du. Lehenago, jaiak egunsentira arte irauten zuen, eta lizunkeriak izaten ziren amaian, udako goiza argitu ahala are okaztagarriago zirenak.

Europako ekialdetik mendebaldera pasatzen bagara, aurkituko dugu udako solstizioa, oro har, izaera bereko errituen bidez ospatzen zela. Hemeretzigarren mendearen erdialdera arte, sutzarrak egiteko usadioa gauza arrunta zen Frantzian, apenas omen zegoen herri edo herrixkarik hori egiten ez zuenik. Jendeak dantza egiten zuen inguruan, eta gainetik egiten zuen jauzi, eta ziri ikaztuak hartzen zituen sutzarretik etxera eramateko, etxeak tximistatik, suteetatik eta araoetatik babesteko.

Bretainian, nonbait, udako sutzarren usadioak gaur arte iraun du. Garra ematu direnean, bertan diren guztiak biltzen dira sutzarren inguruan, eta gizon zahar batek

ozenki egiten du otoitz. Gero denak jaiki eta hiru bira ematen dizkiote suari; hirugarren bira emandakoan gelditu eta bakoitzak harri bat hartu eta sutara botatzen du. Ondoren, sakabanatu egiten dira. Bretainian eta Berryn sinesten dute bederatzi sutzarren inguruan dantza egiten duen neska urte horretan bertan ezkonduko dela. Orne haranean usadioa zen sutzarra eguzkiak horizonte atzean ezkutatu behar zuen unean piztea; eta nekazariak su artetik eramaten zuten ganadua, sorginkerietatik, batez ere esnea eta gurina ostu nahi zituzten sorginen araoetatik, babesteko. Normandiako Jumiègesen, hemeretzigarren mendearen lehen erdira arte, udako jaiak ezaugarri berezi batzuk zituen, oso antzinatik zetorrelako itxura ematen ziotenak. Urtero, ekainaren hogeita hiruan -San Joan bezperan, alegia-, otso berdearen anaigoak beste buruzagi edo nagusi bat hautatzen zuen, beti Conihout herrixkatik aukeratu beharrekoa. Hautatutakoan, anaigoaren buru berriak otso berde titulua hartzen zuen, eta arropa berezi batzuk janzten zituen: longain luze berdea eta hegali gabeko txano berde luze-luzea. Hala jantzita, anaien buruan joaten zen, San Joanen himnoa kantatuz, denen aurrean gurutzea eta zutoihal santua zirela, Chouquet izeneko leku batera. Han apaizak, txantreek eta koruak bat egiten zuten prozesioarekin, eta elizara eramaten zuten anaigoa. Meza entzun ondoren, taldea otso berdearen etxera joaten zen, mokadutxo hartzera. Gauean mutil batek eta neska batek sutzarra egiten zuten txintxarri-hotsean, biak ere lorez apainduta. Gero otso berdeak eta anaiek, txanoak bizkarrera atzeratuta eta elkarri eskua emanda, suaren biran korritzen zuten hurrengo urtean otso berdea izateko hautatutako gizonaren atzetik. Nahiz kateako lehen eta azken gizonak bakarrik izan esku bat libre, otso berde izango zena hiru aldiz harrapatu behar zuten; hark, ihes egiteko ahaleginetan, zume luze batez jotzen zituen anaiak. Azkenean harrapatzea lortzen zutenean, sutzarrera eramane eta bertara botatzeko plantak egiten zituzten. Zeremonia hura amaitutakoan, otso berdearen etxera itzultzen ziren; han afaria zerbitzatzen zitzaienten, oso arina hura ere. Gau erdira arte halako erlijiozko giro itzaltsua izaten zen nagusi. Baina hamabiak jotakoan dena aldatzen zen. Barru-giroa lasaikeria bihurtzen zen; kantu jaierratsuen ordeztu bakanaletako kantak abesten hasten ziren, eta herriko bibolin-jolearen nota kirrinkari ikaratiak apenas entzuten ziren otso berdearen anaigo alaiak ateratako zaratsaren gainetik. Biharamuna, ekainaren hogeita laua -udako solstizio eguna, alegia- pertsonaia haiek bozkario zaratsa berberaz ospatzen zuten. Zeremonia bat ogi sagaratu eskerga bat kalerik kale eramatea izaten zen, eskopeten hots artean, gainean zintaz apaindutako barazkiak zituela. Ondoren, aldarearen oinean utzitako txintxarri santuak ematen zitzaizkion, bere karguaren adierazgarri, hurrengo urtean otso berdea izango zen gizonari.

Aisneko departamentuko Château-Thierryn, udako San Joan jaietan sutzarrak piztu eta inguruan dantzatzeko usadioak, 1850era arte-edo iraun zuen; bereziki ekaina euritsua zenean pizten ziren suak, eta jendeak pentsatzen zuen sutzarrak piztuta atertu egingo zuela. Vosgeetan oraindik ohitura da udaburuko bezperan sutzarrak egitea muino gainetan; jendeak sinesten du suak lurreko igaliak gordetzen laguntzen dutela, eta uzta onak ekartzen dituztela.

Poitouko ia herrixka guztietan pizten ziren sutzarrak San Joan bezperan. Jendeak hiru bira ematen zien, intxaur-abarra eskuan zuela. Emakume artzainek eta beren haurrek apo-belarraren zurtoinak (verbascum) eta intxaurrak pasatzen zituzten gar artetik; intxaurrek hagineko mina sendatzen omen zuten, eta apo-belarrak gaixotasunetik eta sorginkeriatik babesten omen zuen ganadua. Sua ematen zenean, jendeak errauts pixka bat hartzen zuen, trumoiaren babesgarritarako etxean gordetzeko, edo soroetan barreiatuta beltxatak eta irakak desegiteko. Poitoun usadioa zen, halaber, San Joan bezperan su emandako gurgil lastotan bildua soroetan zehar erabiltzea, lurra emankortzeko.

Commingesko mendialdean -Frantziako hegoaldeko probintzia batean, alegia-, udako sua egiteko zuhaitz garai baten enborrari luzetara ebakia egin eta arraildura hura txirbilez betetzen dute, eta denari sua ematen diote. Lore-sorta bat lotzen da zuhaitzaren puntan, eta sua pizteko unean azkena ezkonduko gizonak eskailera batetik igo eta loreak eraitsi behar ditu. Eskualde hartako lautadan udako sutzarren materialak ohiko eran metatutako erregeaia izaten dira; baina azken udako jaiaz geroztik ezkonduko gizonak pilatu behar dituzte, eta ezkonberri horietako bakoitza behartuta dago metaren puntan lore-sorta bat ipintzera.

Probentzan ere oraindik ezagunak dira udako suak. Haurrak etxez etxe ibiltzen dira erregai eske, eta apenas inork bidaltzen dituen ezer gabe. Lehenago apaiza, alkatea eta zinegotziak joan ohi ziren prozesioan sutzarreraino, eta piztu ere egiten zuten; ondoren, bildutakoek hiru bira ematen zioten meta sutuari. Aixen txoriei harrika egiten trebea zen gazte bat aukeratzen zuten errege, eta hura izaten zen buru udako jaiaren. Bere ofizialak aukeratzen zituen, eta segizio distiratsua lagun zuela joaten zen sutzarrera, hura piztu eta bera izaten zen lehena haren biran dantzan egiten. Biharamunean opariak banatzen zituen segiziokoaren artean. Haren erregealdia urtebetekoa izaten zen, eta denboraldi horretan zehar zenbait pribilegio zeuzkan. San Joanen zaldunen komandanteak San Joan egunean emandako mezara joaten uzten zitzaion; ehizarako eskubidea ematen zitzaion, eta soldaduek ez zeukaten haren etxean ostatu hartzerik. Marseilan ere, egun hartan, gremioetako batek badache edo aizkora bikoitzaren erregea aukeratzen zuen; baina ez dirudi sua pizten zuenik; prefetak eta beste agintari batzuek pizten omen zuten zeremonia handiz.

Belgikan udako sutzarrak egiteko usadioa aspaldi desagertu zen iri handietatik, baina oraindik irauten du baserri eta herri txikietan. Herrialde hartan San Pedroren bezpera (ekainaren hogeita bederatzia) ospatzen dute sutzarrak eta dantzak eginez, San Joan bezpera ospatzeko egiten den bezalaxe. Zenbaitek diote San Pedro suak, San Joan suak bezala, sugetzarrak urrunarazteko egiten direla. Flades frantsesean, 1789ra arte, lastozko giza irudia erretzen zuten beti udako sutzarrean, eta emakume baten irudia erretzen zuten San Pedro egunean, ekainaren hogeita bederatzian. Belgikan jendeak udako sutzarren gainetik egiten zuen salto tripako minik ez izateko, eta etxean gordetzen zituen errautsak suterik izan ez zedin.

Gure herrialdeko leku askotan izan da udan sutzarrak egiteko usadioa, eta jendeak haien inguruan dantza eta gainetik salto egiten zuen. Galesen hiru edo bederatzia egur-mota eta egur-sorta ikaztu gordetzen ziren kontu handiz aurreko udatik, eta beharrezkotzat jotzen ziren sutzarra egiteko; gehienetan goialdeetan egiten zen. Glamorgan haranean lastotan bildutako gurdi-gurpil bati su eman, eta muinoan behera bueltaka botazen zuten. Bide osoan piztuta iraun eta luze distiratsen bazuen, uzta oparoa izango omen zen. Udaburukoaren bezperan Man irlako jendeak sua pizten zuen haize alde soro bakoitzean, kea laborearen gainetik pasa zedin; eta ganadua han sartu eta irazekitako otea edo ote zuria eramaten zuten bueltan zenbait aldiz. Irlandan ganadua eramaten zuten udako suen artetik, batez ere ganadu antzua, eta errautsak soroetan botatzen zituzten lurra emankortzeko, edo ilinti sutuak eramaten zituzten bertara herdoilaren kontra. Eskozian udako suen arrasto gutxi da; baina sasoi horretan Perthshireko mendialdean unaiek hiru bira ematen zizkieten beren eskortei, eguzkiaren norabidean, zuzi irazekiak eskuan hartuta. Ganadua eta artaldeak arazteko eta gaixo ez zitezen egiten zuten hori.

Udaburukoaren bezperan sutzarrak pizteko eta gainetik salto egiteko usadioa oso zabalduta da, edo zen aspaldi ez dela, Espainia osoan eta Italia eta Greziako zenbait aldetan. Maltan su handiak egiten dira herri eta herrixketako kale eta plazetan, San Joan bezperan (udaburukoaren bezperan); lehenago San Joanen ordenako Maisu Handiak

Ospitale sakratuaren aurrean metatutako bikezko upela-pila bati ematen zion su arrats horretan. Grezian ere, San Joan bezperan suak pizteko eta gainetik salto egiteko usadioa nonahi egiten omen zen. Horretarako ematen zen arrazoi bat, besteak beste, arkakusoetatik ihes egiteko desira zen. Beste kontakizun baten arabera, emakumeek oihu egiten dute suaren gainetik salto egitean: "Neure atzean uzten ditut bekatuak". Lesbosen San Joan bezperako suak hirunaka egin ohi dira, eta jendeak hiru bider egiten du salto gainetik, bakoitzak harri bat daramalarik buru gainean, esanez: "Erbiaren su gainetik egiten dut jauzi; nire burua, harria!". Kalimnosen, udako suak hurrengo urtea oparoa izango dela segurtatzen omen du, baita arkakusoetatik libratzea ere. Jendeak suen inguruan egiten du dantzan, kantuan, buru gainean harriak dituela, eta gero garren edo ilintien gainetik egiten du jauzi. Sua ematen denean, bertara botatzen dituzte harriak; eta ia itzalita dagoenean, gurutzeak egin zangoetan eta zuzen-zuzen joaten dira itsasoan bainatzera.

Udaburu egunean edo bezperan sutzarrak egiteko usadioa oso hedatuta dago Afrikako iparraldeko herri mahomatarretan, batez ere Marokon eta Algerian; bereberek eta tribu arabiarrek edo arabieraz hitz egiten dutenek ere ezaguna dute. Herrialde horietan udaburu egunari (ekainaren hogeita laua, era zaharrean) l'ansara deitzen diote. Suak patioetan, bidegurutzeetan, soroetan eta batzuetan larrainetan pizten dira. Erretzean ke lodia eta urrin gozoa ematen duten landareak oso preziatuak dira halakoetan erregai gisa; horretarako erabiltzen diren landareak dira, besteak beste, mihilu erraldoia, ezkaia, erruda, apoperrexila, kamamila, gerania eta txortaloa. Jendea ketan jartzen da, batez ere haurrak jartzen ditu, eta baratzetara eta ereinetara bideratzen du kea. Halaber, suen gainetik egiten dute salto; leku batzuetan zazpi aldiz egin behar izaten dute denek. Gainera, sutatik ilinti irazekiak hartu eta etxerik etxe eramaten dituzte, keztatzeko. Gauzak pasatzen dituzte sutatik, eta haiekin gaixoak ukitzen dituzte, senda daitezen otoitz eginez. Sutzarretako errautsek ere propietate onuragarriak omen dituzte; horregatik, leku batzuetan jendeak ilea edo gorputza igurtzitzen ditu haiekin. Leku batzuetan pentsatzen dute suaren gainetik salto eginez zorigaitz orotarik libratzen direla, eta haurrik gabeko bikoteek haurrak izango dituztela. Rif probintziako bereberek, Marokoko iparraldean, su asko erabiltzen dituzte udaburuan pertsonen, ganaduen eta frutarbolen mesedetan. Sutzarren gainetik egiten dute jauzi, sinetsiz hartara osasun ona izango dutela, eta sua egiten dute frutarbolen azpian, fruitua garaia baino lehen eror ez dadin. Imajinatzen dute errautsez egindako oreka ilean igurtzita, burua ez zaiela soilduko. Marokoko usadio horietan guztietan, ondorio onuragarria keari egozten omen diote erabat; ahalmen magikoa omen du, gizon, abere, frutarbola eta uzta, denetarik zorigaitza urrunarazteko.

Mahomatar herriek udako jaia ospatzea bereziki azpimarragarria da, zeren eta mahomatar egutegiak, ilargiaren arabera eta tartekatze bidez zuzendu gabea izanik, ez ditu kontuan hartzen eguzki-urtean une jakinak hartzen dituzten jaiak; mahomatar jai huts direnak, ilargiari lotuta izaki, aldatuz joaten dira gradualki argizari horrekin batera Lurra Eguzkiaren inguruan ematen duen biraren aldi osoan zehar. Gertaera honexek frogatuko luke ezen, Afrikako iparraldeko herri mahomatarren artean, Europako herri kristauen artean bezala, udaburuko jaia ez dagoela lotuta jendeak publikoki duen erlijioarekin, eta askoz zaharragoa den paganotasunaren erlikia dela.

6. Santu Guztien bezperako suak

Aurreko begiradatik zera atera dezakegu, Europako herrien arbaso paganoen artean urteko su-jai ezagunena eta zabalduena udaburuaren bezpera edo udaburu eguna zela. Jai hori udako solstizioarekin bat etortzea ez dateke halabehar hutsa. Aldiz, pentsa genezake gure arbaso paganoek apropos jarri zutela lurrean suaren zeremonia eguzkia ortzian egiten duen ibilian bere gorenera iristearekin batera. Hori horrela izatera, berez

dator ondorio hau: udaburuko erritoen sortzaileek behatu egiten zituztela solstizioak edo eguzkiak ortzian ustez egiten duen ibiliko une nagusiak eta, beraz, jaien egutegia neurri batez kontsidero astronomikoen bidez arautzen zutela.

Baina hau honela izanda ere kontinenteko parte handi batean jatorriz bertakotzat jo genitzakeenen artean, ez dirudi hala izan denik Europako Lurraren Azkenean, hots, iparmendebaldean atlantiar ozeanoko irla eta lurmuturretan bizi ziren herri zeltentzat. Zelten su-jai nagusiak -garai modernoetara eta are gaur egun arte iraun dutenak, nahiz barruti mugatu batean eta indar asko galduta- eguzkiak ortzian zuen posizioari inolako arretarik jarri gabe ezarri bide ziren. Bi ziren, eta sei hileko tartea zegoen bien artean: bat maiatzaren lehenaren bezperan ospatzen zen, eta bestea Allhallow Even edo Halloween (halaxe deitzen diote gaur egun) egunean, hau da, urriaren hogeita hamaikan, Santu Guztien bezperan. Data horiek ez datoz bat eguzki-urtearen erro diren lau datekin, hau da, solstizio eta ekinozioekin. Ez datoz bat nekazal urteko sasoi nagusiekin ere: udaberriko ereitearekin eta udazkeneko epai-aroarekin. Izan ere, maiatzaren lehena etortzen denerako, hazia aspaldi lurreratua da; eta azaroa hasten denerako, uzta aspaldi epaitu eta aletegiratuta dago; soroak biluzik ageri dira, frutarbolak ere bai, eta hosto horiak bizkor hegaldatzen dira lurrera. Hala eta guztiz ere, maiatzaren lehena eta azaroaren lehena urtearen une nagusiak dira European: bata udako beroaren ea landaretza oparoaren aintzindari da; besteak neguko hotza eta antzutasuna iragartzen ditu, edota jadanik berekin izaten ditu. Urteko bi une jakin horiek, idazle jantzi eta azkar batek ondo seinlatu duen bezala, europar nekazarientzat garrantzi gutxikoak izan arren, munta handia dute europar artzain eta unaientzat; izan ere, uda hurbiltzean eramaten ditu hark ganaduak kanpora belar hezetan larratzera, eta negua hurbiltzean ekartzen ditu ukuiluko babes eta estalpera. Beraz, baliteke zeltek egiten zuten urtearen erdibitza, maiatzaren hasieran eta azaroaren hasieran, zeltak artzain-herria ziren garaitik etortzea, ganadu eta aziendak bizibidetzat zituzten garaitik, eta beraz, urteko une nagusiak ganadua ukuilu eta eskortetatik ateratzen zen eguna -udaren hurbilean-, eta bertara itzultzen zen eguna -ia neguan- izatea. Are Europako erdialdean ere, zeltek orain hartzen duten lurraldetik urrun egon arren, antzeko erdibitza nabari da argi eta garbi: batetik, maiatzaren lehena eta honen bezpera (Walpurgisen gaua), eta bestetik, Arima Guztien eguna azaroaren hasieran, oihal kristau mehearen azpian hildakoen jai paganoa ezkututzen duena. Horregatik, pentsa genezake Europa osoan zehar, urtea ortziaren arabera -solstizioetan- erdibitu aurretik, lurraren arabera -halaxe esan genezake- erdibitzen zela: udaren hasieran eta neguaren hasieran.

Nolanahi ere den, bi jai zelta handiek, maiatzaren lehenak eta azaroaren lehenak, edo zehatzago esateko, bi egun horien bezperak, elkarren antz handia dute ospatzeko moduan eta beroriekin lotutako superstizioetan. Aldi berean, biek nabari duten zahar kutsuak adierazten du jatorri pagano hutsekoak direla. Jadanik deskribatu dugu maiatzaren leheneko jaia, edo Beltane, halaxe deitzen zioten zeltek, udaren aitzindaria; orain zer bait esan beharrean gara Hallowe'en jaiaz, neguaren etorrera iragartzen zuenaz. Bi jaietarik Santu Guztien bezpera zen antzinatik garrantzitsuena; zeltek hura hartzen zuten urte berriaren hasieratzat, ez Beltane. Man irlan, hots, zelten hizkuntzak eta folkloreak inbaditzaile saxoniarren kontra luzeen iraun duten gotorlekuetako batean, azaroaren lehena, molde zaharrean, urte berri eguntzat hartu izan da ia oraintsu arte. Man irlakoak kantuan joan ohi ziren mozorrotuta Santu Guztien egunean honela hasten den ganbon-kanta moduko bat kantatuz bertako hizkuntzan: "Gau hau da Urte Berri gaua, Hogunnaa!". Irlanda zaharrean su berria pizten zen urtero Santu Guztien bezperan edo Samhain bezperan, eta gar sakratu hartatik pizten ziren su guztiak Irlandan. Horrelako ohiturak nabarmen seinalatzen du Samhain edo Santu Guztien eguna (azaroaren lehena) Urte Berri eguntzat; su berria urtero piztea guztiz berezkoa baita

urtearen hasieran, zertarako eta su berriaren eragin onuragarriak hamabi hiletan zehar iraun dezan. Zeltek beren urtea azaroaren lehenetik kontatzen hasten zirelako beste froga bat ematen digute herri zeltek Santu Guztien bezperan erabili ohi zituzten igartze-modu anitzek, zertarako eta beren patua asmatzeko, batez ere hurrengo urtean izango zuten zortea; izan ere, noiz jar daitezke egokiago praktikan etorkizunari begiratua emateko era horiek urtearen hasieran baino? Geroaren zantzuak eta aztarrenak ateratzeko sasoia zen aldetik, Santu Guztien bezpera Beltane baino askoz gehiago izango zen zelten irudimenean; hortik atera dezakegu Santu Guztien bezperatik hasten zirela kontatzen urte berria, ez Beltanetik. Garrantzi handiko beste zertzelada bat, ondorio berera garamatzana, hildakoek Santu Guztien bezperarekin duten lotura da. Zelten artean ezezik, Europa osoan izan zen Santu Guztien bezpera, udazkenetik negurako aldaketa markatzen duen gaua, zenduen arimak beren etxeetara itzultzen omen ziren garaia, zertarako eta sutondoan berotzeko eta bizkortzeko, senide maiteenak sualdean edo salan egiten zieten harrera xeratsuekin. Beraz, bidezkoa zen pentsatzea neguaren etorrerak erakarriko zituela izpiritu gajo ikarati gosetuak eremu eta baso hostogabeetatik etxeko babesera eta sutondora. Ez al zen bada orduantxe itzultzen saldo marrumakaria udako belardietatik, mendigain eta basoetatik ukuiluetara, haize gorriak abartza astinduen eta zulo elurrez beteen artetik txistu egiten zuelarik? Eta nola ukatuko zieten bada etxajaun eta etxeakoandre zintzoek beren hildakoen izpirituei behiei egiten zieten ongi etorria?

Baina zenduen arimak bakarrik ez omen dira hegaldatzen egun horretan, "udazkenak neguari urte zurbila uzten diorean". Sorginek ere orduan areagotzen omen dituzte beren gaiztorakoak, batzuek erratzen gainean airez, beste batzuek katemeen gainean bideetan zehar, katemeok abagune horietan zaldi beltz bihurtu ondoren. Maitagarriak ere libre ibiltzen dira, baita era guztietako iratxoak ere, noraezean batetik bestera.

Nahiz eta nekazari zeltek halako misterio eta beldur-kutsua izan dioten beti Santu Guztien bezperari, jai horren herri-ospakizunetan, garai modernoetan bederen, ez da inolaz ere nagusitu ñabardura triste hori; aitzitik, ezaugarri bitxiak eta denborapasa alaiak izan ditu berekin, urteko gaurik alaiena izateraino. Eskoziako Highlandsen jaia edertasun erromantikoz janzten laguntzen zuten, besteak beste, sutzarrek, gainaldeetan tarte sarrietan distiratz. "Udazkeneko azken egunean hurrek garoa, bike-upelak, gainisgi izeneko zurtoin luze meheak eta sutzarra egiteko on zen guztia biltzen zuten. Pila batean jartzen zituzten, etxetik gertuko gainen batean, eta arratsean su ematen zioten. Suei Samhnagan zeritzen. Su bat izaten zen etxe bakoitzeko, eta norgehiagoka izaten zen, nork handiagoa egingo. Eskualde osoak egoten ziren distiratsu sutzarrekin, eta gain askotatik mendialdeko lakuren batean islatzen zirenean, ikuskizun paregabea izaten zen". Maiatzaren lehenean Beltaneko suak bezala, Santu Guztien bezperako sutzarrak ere Perthshireko mendialdean egin bide ziren batez ere. Callanderko parrokiari, artean pizten zituzten hemeretzigarren mendearen hondarrean. Sua itzaltzen zenean, errautsak biribila eratuz biltzen ziren kontu handiz, eta harri bat jartzen zen barruan, biribiletik gertu, sutzarrean parte hartutako familietako kide bakoitzeko. Biharamunean, harri haietakoren bat lekuz aldatuta edo hondatuta agertzen bazen, jendeak egiten zuen hark ordezkatzeko zuen pertsona fey edo eskainia zela, eta ez zela biziko beste hamabi hilabetez egun hartatik hasita. Balquhiddelren, hemeretzigarren mendeko hondarrera arte, etxe bakoitzak bere sutzarra egiten zuen Santu Guztien bezperan, baina usadioa haurren kontua zen batez ere. Suak etxetik gertuko muinoren batean egiten ziren; ez zen dantzarik izaten inguruan. Eskoziako iparraldeko eskualdeetan ere Santu Guztien bezperako suak egiten ziren, hala Buchananen. Herriarrek zein etxaldetarrek beren sua egin behar izaten zuten. Herriarrek mutikoak etxez etxe ibiltzen ziren, zohikatzak eskatzen zioten etxajaun bakoitzari, hitz hauekin gehienetan:

"Emaiguzu zohikatz sorginak erretzeko". Nahikoa zohikatz bildutakoan, pila bat egiten zuten lasto, sasi eta beste erregaiekin batera, eta su ematen zioten. Gero gazteak, banan-banan, bata bestearen ondoren, lurrean etzaten ziren, sutatik ahalik eta gertuen, kea beraren gainetik pasa zedin. Besteak ke artetik abiatzen ziren korrika, eta etzandako lagunaren gainetik egiten zuten salto. Pila erretakoan, errautsak barreiatzen zituzten, eta lehia izaten zen nork gehiago barreiatuko.

Galesko iparraldean ohikoa zen familia guztiek, Santu Guztien bezperan, Coel Coeth zeritzan beren sutzar handia egitea. Sua etxe inguruko lekurik garaienean pizten zen; eta ia itzaltzeaz zegoenean, harri zuri bat botatzen zuten denek errautsetara, aurrez markatu ondoren. Gero, otoitzak su inguruan esanda, oheratu egiten ziren. Biharamun goizean, jaiki orduko, harrien bila joaten ziren, eta baten bat falta bazen, jotzen zuten hura botatako pertsona hurrengo Santu Guztien bezpera ikusi baino lehenago hilko zela. Sir Jonh Rhysen arabera, Santu Guztien bezpera muinoetan sutzarrak eginez ospatzeko usadioa ez dateke desagertua Galesen, eta oraindik bizi diren gizonak gogoan izango dute agian, nola sutzarrera biltzen zen jendeak azken txinparta itzali arte itxaroten zuen, eta nola orduan lasterrari ematen zioten, beren ahotsik gorenaz oihuka: "Zerrama beltz buztanluzeak azkena harrapa dezala!". Esaera horrek, Sir John Rhysek ondo dioenez, argi uzten du noizbait taldekide bat benetan hiltzen zutela. Gaur egun ere esaera hori arrunta da Carnarvonshiren; zerrama beltz buztanluzearen aitamenak egiten dira oraindik ere noizbehinka haurrak ikartzeko. Orain uler dezakegu zergatik Britainia Beherean pertsona orok jaurtitzen duen harri bat udako sutzarrera. Ezbairik gabe, han ere, Galesen eta Eskoziako Highlandsen bezala, bizitzari eta heriotzari buruzko iragarpenak egingo ziren noizbait harrien kokaeraren eta egoeraren arabera, Santu Guztien egunaren goizean. Ohitura, zelden enborreko hiru adar berezitan aurkitua, adarrok barreiatu aurreko garai batetik datorke, edota gutxienez artean herri arrotzek hiruren artean ziri bereizleak sartu gabeak zituzten garai batetik.

Man irlan ere -beste herrialde zelta batean, alegia-, Santu Guztien bezpera sua eginez ospatu izan da garai modernoetara arte, maitagarrien eta sorginen eragin gaiztotik libratzeko asmatutako ohiko zeremonia guztiekin batera.

7. Neguburuko suak

Europa zaharreko paganoek udaburua su-jai handi batez ospatzen bazuten -eta badugu arrazoirik hori sinesteko, su-jai horren arrastoei leku askotan iraun baitute gure garaira arte-, berez dator pentsatzea antzeko erritoak egingo zituztela neguburuan ere; izan ere, udaburua eta neguburua, edota, hizkuntza teknikoagoz, udako solstizioa eta neguko solstizioa, eguzkiak ortzian zehar ustez egiten duen ibiliaren bi puntu nagusiak dira, eta lehen gizonaren ikuspuntutik ez zegoen gauza egokiagorik bi une haietan lurrean sua egitea baino, zeruko argizagi handiaren sua eta beroa ahultzen edo indartzen hasten zirenean.

Kristautasun modernoan, neguko solstizioko antzinako su-jaiak hor dirau, edota iraun du orain urte batzuk arte, Eguberriko subilaren usadio zaharrean. Usadio hori Europa osoan zabalduta zegoen, baina batez ere Ingalaterran, Frantzia eta hegoaldeko eslaviarren artean loratu zen; usadioaren kontakizunik aberatsenak alde horietatik datozkigu bederen. John Brand arkeologo ingelesak aspaldi seinalatu zuen Eguberriko subila udako sutzarraren parekoa besterik ez zela, etxe barruan piztua eta ez aire zabalean, urtaro horretako eguraldi txarraren eta hotzaren kariaz; eta ikuspegi horren oinarri dira Eguberriko subilaren inguruko superstizio bitxi ugariak, kristautasunarekin ageriko loturarik ez dutenak, hau da, beren jatorri paganoa argi eta garbi ageri dutenak. Baina solstizioetako bi ospakizunak su-jaiak izanda ere, neguko ospakizuna etxe barruan gorde nahiak edo beharrak jai pribatu edo etxeakoaren izaera ematen dio, udako ospakizunaren publikotasunarekiko kontraste bortitzean; udakoan jendea zabalune edo

gainalderen batean biltzen zen, denen artean pizten zuten sutzarra, eta suaren inguruan dantzan eta jolasean egiten zuten.

Eguberriko subilaren errito zaharrak hemeretzigarren mendearen erdialdera arte-edo iraun zuen Alemaniako erdialdeko zenbait aldetan. Hala, Sieg eta Lahn ibaien haranetan, Eguberriko subila -haritz-enbor astun bat-, ezartzen zuten etxeko suan, eta han, nahiz erre, nekez errausten zen urtean zehar. Hurrengo urtean subil berria jartzen zenean, zaharraren hondarrak erraustu eta soroetan zabaltzen ziren Hamabi Gaueetan, horrek ereindakoen hazkundera bizkortzen zuelakoan. Westfaliako zenbait herrixkatan Eguberriko subila (Christbrand) erretiratu egiten zen sutatik, pittin bat ikazten hasi orduko; kontu handiz gordetzen zen, ekaitz trumoitsua izaten zenean berriro sutan jartzeko, zeren eta jendeak sinesten baitzuen tximistek ez zutela etxea joko Eguberriko subila erretzen ari bazen. Westfaliako beste herrixka batzuetan ohitura zaharra zen Eguberrietako subila uztaroan ebakitako azken azaoan lotzea.

Frantziako zenbait probintziatan, eta bereziki Proventzan, Eguberriko subilaren edo tréfoiraren -halaxe deitzen zioten leku askotan- ohiturak luze iraun zuen. Hamazazpigarren mendeko idazle frantses batek superstiziotzat jotzen du "tréfoir edo Eguberriko enborra deritzan subil batek, Gabon gauean hasi eta Erregeenetara arte egunero aldi batez sutan jartzen denak, etxea sute eta trumoietatik babes dezakeela urte osoan, ohepean gordez gero; etxekoek neguan ez dutela ospelik izango hari esker; ganaduari gaixotasunak senda diezazkiokeela; behiek edaten duten uretan egur horren pusketa bat sartuz gero, txekorra egingo dutela; eta azkenez, subilaren erraustak soroetan zabalduz gero, garia herdoiletik gorde ditzaketela".

Flandesko eta Frantziako zenbait aldetan Eguberriko subilaren hondarrak etxean gordetzen ziren, ohepean, trumoiaren eta tximisten kontrako babes gisa; Berryn, trumoi-hotsa entzutean, familiako batek subil-puska bat hartu eta sutara botatzen zuen, hartara tximistak saihesten zirelakoan. Orobat, Perigorden, ikatz xehea eta erraustak kontu handiz bildu eta handituak sendatzeko gordetzen dira; erre gabe geratutako enborraldea goldearen endaitza egiteko erabiltzen dute goldatzaileek, hartara hazia gizenago etortzen omen delako; eta emakumeek puskak gordetzen dituzte Erregeenetara arte, horrek oilaskoei on egiten dielakoan. Zenbaitek imajinatzen dute subilaren ilintiak astintzean zenbat txinparta ateratzen diren, hainbat oilasko izango dituztela; beste batzuek ohepean jartzen dituzte ilinti itzaliak, zomorroak urruntzeko. Frantziako hainbat aldetan sinesten denez, subil ikaztuak sorginkerietatik eta tximistetatik babesten omen du etxea.

Ingalaterran Eguberriko subilari buruzko usadio eta sinesteak antzekoak ziren. Gabon gauean, dio John Brand arkeologoak, "gure arbasoek ohi baino kandela handiagoak pizten zituzten -Eguberriko kandelak, alegia-, eta subil bat jartzen zuten sutan, Eguberriko subila edo enborra, etxea argitzeko eta, nolabait esan, gaua egun bihurtzeko". Ohitura zaharra zen Eguberriko subila aurrekoaren puska batez irazekitzea, urte osoan hartarako gorde ondoren; hala gordetzen zen lekuetan, deabruak ez omen zeukaten gaitzik egiterik. Subilaren hondarrek ere suteetatik eta tximistetatik babesten omen zuten etxea.

Gaur egun Eguberriko subila etxeratzeko erritoa begirune handiz gordetzen dute hegoaldeko eslaviarrek, batez ere serbiarrek. Subila haritz-mokor bat izan ohi da, batzuetan baita olibondo edo pagoarena ere. Nonbait, pentsatzen dute ezen, zenbat eta txinparta gehiago atera erretzen den subiletik, hainbat eta txekor, arkume, txerrikume eta antxume gehiago izango dituztela. Zenbaitek subil-puska bat eramaten dute soroetara, haiek txingorretik babesteko. Albanian, azken urteotara arte, ohitura zen Eguberrietan subila erretzea, eta erraustak soroetan zabaltzen ziren lurra emankortzeko.

Huzulek -Karpatoetako herri eslaviar bat- egurra igurtziz egiten dute sua Gabon gauean (molde zaharrean, urtarilaren bostean) eta Erregeenetara arte erretzen dute.

Azpimarratzekoa da zein zabaldua izan den sineste hau, alegia, Eguberrietako subilak, urte osoan zehar gordez gero, etxea suaren eta, batez ere, tximisten kontra babesteko ahalmena zuela. Eguberriko subila askotan haritza izaten zenez, baliteke sineste hori ariarren sinesmen zaharraren arrastoa izatea, haritza trumoiaren jainkoarekin lotzen baitzuten. Kontuan hartzea merezi duen arazoa da ea Eguberriko subilaren errautsei egotzitako bertuteak ere (ganadua eta gizonak sendatzea, behiak umea egiteko gaitzea eta lurraren emankortasuna areagotzea), antzinako iturri beretik ote datozen.

8. Laguntza-sua

Orain arte deskribatutako su-jaiak aldika ospatzen dira denak, urteko sasoi jakin batzuetan. Baina ospakizun erregularri errepikatu horiez gainera, Europako alde askotako nekazariak tarte irregularrez jo izan dute suaren erritual batera, oroitzapen arrastorik utzi ez duen garaitik, hondamendiak eta izurriteak ziren sasoietan, batez ere gaixotasun epidemiko batek ganaduari erasotzen zionean. Europako su-jai herritarren kontakizunak, osoa izango bada, errito aipagarri horien berri eman beharko du; indartsu erakartzen dute gure arreta, beste su-jai guztien iturri eta jatorritzat har litezkeelako, agian; aspaldi-aspaldikoak dirateke ezbairik gabe. Herri teutoien artean hartu duten izena laguntza-sua da. Batzuetan laguntza-suari "su basati" ere deitu izan zaio, ezbairik gabe modu arruntagoz egiten zen etxeko sutik bereizteko. Herri eslaviarretan "su bizi" deitzen zaio.

Usadioaren historia Erdi Aroaren hasieratik, eliza kristauak paganoen superstizio gisa salatu zuenetik, hemeretzigarren mendeko lehen erdira arte jarrai daiteke; garai horretan artean praktikatzen baitzen batzuetan Alemania, Ingalaterra, Eskozia eta Irlandako hainbat aldetan. Eslaviar herrien artean badirudi are luzeago iraun duela. Errittoa izurritaren bat edo ganaduaren gaixotasunen bat agertzen zenean egiten zen; halakoetan laguntza-sua huts egiten ez zuen erremediotzat jotzen zen. Animalia mota hauei aplikatzen zitzairen: behiei, zerriei, zaldiei eta, batzuetan, antzarei ere bai. Laguntza-sua piztu aurretik, inguruetako beste su eta argi guztiak itzali behar ziren derrigor, txinparta bakar bat ere utzi gabe; izan ere, etxeren batean gaueko suren bat piztuta utziz gero, laguntza-sua ezin piztuko omen zen. Batzuetan nahikoa izaten zen herrixkako su guztiak itzaltzea; baina beste batzuetan auzo-herriko edota parrokiaren barruti osoak itzali behar izaten ziren. Eskoziako Highlandseko zenbait aldetan araua hauxe izaten zen: seinalatutako egunean bi erreka hurbilenen artean bizi ziren etxajaun guztiek itzali behar izaten zituzten argi eta su guztiak. Gehienetan laguntza-sua aire zabalean egiten zen, baina Serbiako zenbait aldetan gela ilun batean pizten zuten; batzuetan lekua bidegurutzea edo bideko zulo bat izaten zen. Eskoziako Highlandsen mendi-bizkarretan edo ibaietako uharrizetan burutzen zen errittoa.

Laguntza-sua egiteko ohiko era bi egur-zati igurtzitzea izaten zen; ez zegoen sukarria altzairuaren kontra kolpatuz egiterik. Irakurri dugunez, behin edo behin, hegoaldeko eslaviar batzuek, burdina-puska bat ingude baten kontra joz pizten omen zuten. Zer egur erabiltzen zen zehazten denean, haritza aipatzen da gehienetan; baina Rhinen behealdean sua haritz-egurra eta izai-egurra igurtziz pizten omen zen. Eslaviar herrialdeetan lertxunaren, madariondoaren eta zuhandorraren egurra ere erabili izan omen zuten hartarako. Sarritan, materiala bi egur-puska ihartu zirela besterik ez da esaten. Batzuetan bederatzi egur-mota jotzen ziren beharrezko, baina hori sutzarrean erretzeko izango zen, ez elkarrekin igurtzi eta sua bera pizteko. Laguntza-sua egiteko modua desberdina zen leku batetik bestera. Hona hemen modu arrunt bat. Bi haga sartzen ziren lurrean, bien artean oin t'erdiko tartea utzita. Haga bakoitzak hutsune bat izaten zuen besteari begiratzen zion aldean, eta bertan sartuta azal-zuritutako langa bat.

Hutsuneak zapiz bete eta langaren bi muturrak ondo tinkatzen ziren hutsuneetan. Sukoiago egiteko, langa bikez igurtzitzen zen sarritan. Soka bat lotzen zen langaren inguruan, eta bi lagunek edo gehiagok heltzen zioten bi aldeetako mutur libreetatik; hauek, soka batera eta bestera bultzatuz, langa bizkor-bizkor birarazten zuten, harik eta igurtziaren poderioz hutsuneetako zapiek su hartzen zuten arte. Txinpartak berehala jasotzen ziren iztupa edo ardagaitan, eta biribilean astintzen ziren harik eta gartzen ziren arte; orduan lastoa ematen zitzaion, eta lasto irazekiaz pizten zen sutzarra egiteko pilatutako erregaia. Sarritan gorpila, batzuetan gurdi-gorpila edota baita goru-gorpila ere, izaten zuen tresna hark; Aberdeenshiren "goru-gurpil handia" deitzen zioten; Mull irlan gorpila ekialdetik mendebaldera birarazten zuten haritz-egurraren bederatzi ardatzen gainean. Batzuetan ez zaigu besterik esaten, bi egur-puska elkarren kontra igurtzitzen zirela baino. Zenbaitetan sua egiteko erabilitako gurdi-gurpilak eta beronen ardatzak berriak izan behar zuten biek. Era berean, langa birarazten zuen sokak ere berria izan behar omen zuen. Ahal izanez gero, norbait urkatzeko erabilitako sokaz egina behar zuen izan, baina hori gauzak are hobetzeko aholkua zen, ez zen guztiz beharrezkoa.

Zenbait arau ezarri izan ziren laguntza-sua egin behar zuten pertsonez. Batzuetan esaten zen langa bihurtzeko zuen sokari eragiten zioten bi pertsonek anaiak izan behar zutela, edo gutxienez ponteko izen bera izan behar zutela; beste batzuetan aski jotzen zen gizon gazte garbiak izatea. Brunswickeko zenbait herrixkatan jendeak pentsatzen zuen ezen, baldin eta sua egiten laguntzen zuten guztiek ez bazuten ponteko izen berbera, alferrik arituko zirela lanean. Silesian, bi anaia bikik botatzen zuten sutzarra egiteko erabilitako zuhaitza. Eskoziako mendebaldeko irlan laurogeita bat gizon ezkonduak pizten zuten sua: bi egur-puska handi igurtzitzen zituzten elkarren kontra, bederatzi laguneko taldeetan txandaka jardunez; North Uisten, sua egiten zuten bederatzi bederatzikoetan denak izaten ziren primuak, baina ez zaigu esan ezkonduak izaten ziren ala ezkongabeak. Serbiarren artean, batzuetan hamaika eta hamalau urte bitarteko mutil batek eta neska batek pizten dute laguntza-sua, gela ilun batean ia erabat biluzik jardunez; batzuetan agure batek eta atso batek egiten dute, ilunean hauek ere. Bulgarian ere, laguntza-sua egiten dutenek arropak erantzten dituzte; Caithnessen aldean zituzten metal-mota guztiak erantzten zituzten. Baldin eta egurra luze igurtzi ondoren surik sortzen ez bazen, etsitzen zuten artean suren bat zegoela piztuta herrixkan; beraz, bilaketa estua egiten zen etxerik etxe, eta aurkitzen ziren su guztiak itzaltzen ziren, eta etxajaun laxoari zigorra jarri edo errietan ematen zitzaion; isun gogorra izaten zuen.

Azkenean laguntza-sua pizten zenean, sutzarra ere haren bidez pizten zen, eta garrak pixka bat ematen zirenean, animalia gaixoak ilinti irazekien gainetik pasarazten zituzten, batzuetan ordena jakin batean: lehenik zerriak, ondoren behiak, eta azken-azkenean zaldiak. Batzuetan bi edo hiru aldiz eramaten zituzten ke eta garren artetik, eta inoiz batzuk erreta hil ere egin izan ziren. Abere guztiak pasatu ondoren, gazte-jendea lasterka joaten zen errauts eta hausberoetara, eta elkarri jaurtika belzten ziren; gehien belztutakoak garaile joaten ziren ganaduaren atzetik herrixkan zehar, eta denbora luze batez ez zuten beren burua garbitzen. Sutzarretik jendeak ilinti irazekiak etxeratzen zituen, eta etxeetako suak berriro pizteko erabiltzen zituzten. Ilinti haiek, uretan itzali ondoren, ganaduaren asketan ipintzen zituzten, eta han edukitzen denboraldi batez. Soroetan ere zabaltzen ziren laguntza-suaren errautsak, ereinak zomorroetatik babesteko; batzuetan etxera eramaten zituzten, gaixoardietan erremedio gisa erabiltzeko; gaixoari mina zuen aldean zabaltzen zitzaizkion, edota urarekin nahastuta edaten zituen. Eskoziako mendebaldeko irlan eta ondoko britainiar kostan, etxeko sute giko sua laguntza-suaz berpiztu bezain laster, urez betetako lapikoa jartzen zen gainean, eta hala berotutako ura izurriren bat zuen jendearen edo baztangak jotako ganaduaren gainean

zipriztintzen zen gero. Bertute berezia egozten zitzaion sutzarraren keari; Suedian frutarbolak eta sareak keztatzen zituzten, arbolek asko eman eta sareek arrain ugari harrapa zezaten. Eskoziako Highlandsen laguntza-sua erremedio bikaintzat zeukaten sorginkeriaaren kontra. Mull irlan, sua baztanga sendatzeko pizten zutenean, entzuna dugu erritoarekin batera txekor gaixo bat sakrifikatzen zutela, eta gero zatikatu eta erre egiten zutela. Nekazari eslaviarrek eta bulgariarrek uste dute ganadu-izurria deabru edo banpiro nazkagarri bat dela, eta urrun edukitzeko, beraren eta azienden artean suzko barrera bat jarri behar dela. Antzeko pentsamoldea izango zen agian hasiera batean laguntza-suaren erabileraren azpian, baztangaren kontrako erremedio gisa. Badirudi Alemaniako zenbait aldetan jendea ez zela zain egoten izurriren bat noiz etorriko; aldiz, aurre hartu eta laguntza-sua pizten zuen urtero hondamenditik libratzeko. Era berean, Poloniako nekazariak suak egiten omen dituzte urtero herrixketako kaleetan San Rokeren egunean, eta hiru bider pasarazten dute ganadua bertatik, abereak baztangaren kontra babesteko. Ikusi dugu Hebridetan ganadua berdin eramaten zutela urtero Beltaneko suen inguruan, xede berberaz. Suitzako zenbait kantoitan haurrek oraindik laguntza-sua pizten dute egurra igurtziz, behelainoa garbitzeko.

Lxiii

Su-jaien interpretazioa

1. Su-jaietz, oro har

Europako su-jai herrikoiei eman diegun begirada honek zenbait ohar iradokitzen dizkigu. Lehenik, ezin harritu gabe geratu zeremoniek, urteko zeinahi sasotian eta Europako zeinahi aldetan, elkarrekin ageri duten antzagatik. Sutzar handiak egitea, gainetik salto egitea eta ganadua tartetik edo ingurutik eramatea Europa osoko ohiturak ziren, eta gauza bera esan liteke zuzi irazekiekin soro, baratza, belardi edo ukuiluen biran egiten ziren prozesio eta lasterraldiez. Beste usadio batzuk, hala nola disko sutuak airera jaurtitzea eta gupil gartua muino batetik behera biraka botatzea, ez dira hain zabalduak. Eguberriko subilaren zeremonia berezi egiten da beste su-jaietatik, pribatuagoa eta etxeagoa delako; baina bereizketa hori neguko eguraldi latzari zor zaioke besterik gabe. Izan ere, jendarteko bilkura aire zabalean deserosoa gertatzeaz gainera, bilkuraren xedea bera desegingo bailuke, euri-jasak edo elurte batek su ezin garrantzitsuagoa itzaliz gero. Tokian tokiko edo sasotian sasotiko desberdintasun horiez gainera, su-jaien arteko antza, urteko une guztietan eta leku orotan, handi samarra da. Eta zeremoniek berek elkarren antza duten bezala, baita jendeak haien bidez jasotzea espero dituen onurek ere. Leku jakin batzuetan piztutako su gisa edo batetik bestera eramaten diren zuzi gisa, edo erregaiaren meta ketsutik hartutako ilinti eta errauts gisa, sinesten da suak ereinen hazkundera eta gizon nahiz abereen ongizatea ekartzen dituela, dela positiboki, haiek bizkortuz, dela negatiboki, haiek mehatxatzen dituzten arriskuak eta kalamitateak urrunaraziz, hala trumoi eta tximistetatik, nola sute, herdoil, iraka, zomorro, gaixotasun eta, horiek denak bezainbat, sorginkerietatik.

Baina galdera hau datorkigu ezinbestean: nolatan pentsa liteke hain onura handi eta askotarikoak hain bitarteko sinpleen bidez lor zitezkeela? Zein modutan imajinatzen zuen jendeak hainbeste on lor zezakeela edo hainbeste kalte saiheztu zezakeela sua eta kea, iintziak eta errautsak erabilita? Su-jaien bi azalpen eman dituzte aztertzaile modernoek. Batetik, esan izan da eguzki-xarmak direla, eguzkiak behar beste jo zezan egindako zeremonia magikoak, imitaziozko magiaren printzipioaren arabera, gizon, abere eta landareentzat, zeruko argi eta bero-iturri dena lurrean imitatuz. Horixe zen Wilhelm Mannhardten ikuspuntua. Eguzki-teoria dei dakioke horri. Bestetik, esan izan da su zeremonialek ez dutela berez eguzkiarekiko loturarik, arazteko xedea dutela besterik gabe, eragin kaltegarri oro erre eta desegiteko asmatuak direla, eta eragin kaltegarri horiek nor gisa -hala nola sorgin, deabru eta mustro gisa-, edo inbertsonalki -

airearen kutsatze edo usteltze gisa- sumatzen direla. Hauxe da Edward Westermarck doktorearen ikuspuntua; baita, nonbait, Eugen Mogk profesorearena ere. Arazte-teoria dei dakioke bigarren horri. Bistan denez, bi teoriak erritoetan leku nagusia duen suaren bi ikusmolde oso desberdin dituzte oinarrian. Batetik, sua, gure latitudean eguzkia bezala, indar sortzaile pizgarria da, landareen hazkundera, eta osasuna eta zoriona dakarren ororen garapena bultzatzen dituen; beste ikuspuntutik, sua indar hondatzaile bortitza da, elementu kaltegarri guztiak kiskali eta erretzen dituen, izpiritualak zein materialak, gizonen, abereen eta landaren bizia mehatxatzen duena. Teoria baten arabera, sua pizgarria da; bestearen arabera, garbitzailea. Ikuspuntu batetik bertute positiboa du; bestetik, berriz, negatiboa.

Bi azalpenok, desberdinak izanik ere suari egozten dioten izaerari dagokionean, ez dirateke erabat elkarrezinak. Jai haietan egiten ziren suak eguzkiaren argia eta beroa imitatzeke egiten zirela onartuz gero, ez ote daitezke har arazteko eta garbitzeko tasunak, herri-iritziak horixe egotzi baitie, eguzki-izpien tasun garbitzaile eta araztaileetatik datozen tasuntzat? Era horretan, ondorio hau atera genezake, alegia, zeremonia haietan lehenengoa eta behinena eguzki-izpiak imitatzea bazen ere, haiei egotzitako arazte-ahalmena horren ondoriozkoa zela. Ondorio horixe, bi teoria kontrajarrien erdibidean, eta biei egiaren zati bat onartzen dielarik, hartu nuen nik lan honen lehen argitalpenetan; baina bitartean Westermarck doktoreak argudio indartsuak ekarri ditu teoria garbitzailearen alde, eta esan beharrean naiz argudio horiek pisu handikoak direla eta, egintzen ikuspegi osoagoaz, frogak haren alde daudela nire iritziz. Hala ere, auzia ez da eguzki-teoria eztabaidarik gabe baztertzeko bezain argia eta, beraz, beraren aldeko kontsideroak azaltzeko asmoa dut, kontrakoen berri emateari ekin aurretik. W. Manhardt bezalako ikertzaile jantzi eta zuhurak defendatzen duen teoria batek merezi du hainbesteko arreta.

2. Su-jaien eguzki-teoria

Lehenago ikusi dugunez, basagizonek xarmetara jotzen dute eguzkia ager dadin, eta ez litzateke batere harritzekoa Europako lehen gizonak ere gauza bera egin izana. Hain zuzen, kontuan hartzen badugu European zelako klima hotza eta hodeitsua egiten duen urtearen zati handi batean, berezkoa irudituko zaigu eguzki-xarmek askoz garrantzi handiago izatea Europako herrien praktika superstiziotsuetan, ekuatoretik gertu bizi diren basatietan baino; izan ere, hauek nahi baino eguzki gehiago izaten baitute. Jaien ikuspuntu hau hainbat argudiok sostengatzen dute: partez datetatik ateratako zenbait argudiok, partez erritoen izaeratik ateratakoek, eta partez eguraldiaren eta landaretzaren gainean ustez duten eraginetik ateratakoek.

Lehenik, jaien datei begira, ezin kasualitate hutsa izan bi jai garrantzitsu eta gehien zabalduenetakoak udako eta neguko solstizioekin bat etortzea, hau da, eguzkiak ortzian zehar ustez egiten duen ibiliko bi puntu nagusiekin, bi une horietan gehien eta gutxien goratzen baita, hurrenez hurren, eguerdian. Hain zuzen, Eguberriak neguaren sarreran ospatzeari dagokion bezainbatean ez dugu batere dudarik: antzinakoen testigantza argi eta garbiari esker dakigu eliza kristauak ezarri zuela eguzkiaren jaiotzaren jai pagano zahar baten gainean; itxuraz, urteko egunik laburrenean jaiotzen omen zen berriz, eta haren ondotik argia eta beroa haziz joaten ziren, harik eta udaburuan beren heldutasun osoa lortzen zuten arte. Beraz, ez da burugabekeria pentsatzea Eguberriko subilak, Eguberrietako herri-ospakizunetan hain leku aparta hartzen duenak, jatorriz neguko eguzki erditzen ari zenari bere argi itxuraz erdi hila indartzen laguntzea zuela xede.

Zenbait jairen datak ezezik, ospatzeko moduak ere eguzkia ohartuki imitatzen dela iradokitzen du. Gorpil bat mendian behera bueltaka botatzeko usadioa, zeremonia hauetan askotan ikusi ohi dena, eguzkiak ortzian egiten duen ibiliaren imitaziotzat har liteke ondo asko, eta imitazio hori udako solstizioeko egunean litzateke batez ere egokia,

eguzkiaren gainbehera hasten denean. Hain zuzen, halaxe interpretatu izan dute usadio hori berorren berri eman duten zenbaitek. Hori bezain adierazgarria litzateke eguzkiak itxuraz egiten duen bira, bike-upela bat haga baten inguruan biraraziz imitatzea. Orobat, jaiotan disko irazekiak jaurtitzeko ohitura arrunta ere -batzuetan argi eta garbi esaten da eguzki-itxurakoak direla- antzeko magiaren parte bat litzateke. Kasu horietan, beste askotan bezala, indar magikoa antz edo sinpatiaren bidez sortuko litzateke; desiratzen den emaitza imitatuz, gertarazi egiten da: eguzkiak zeruan zehar egiten duen ibilia kopiatuz, lagundu egiten zaio argizagiari bere zeruko bidaia dagokion garaian eta behar bezala buru dezan. "Zeruko sua", herriak udako suari batzuetan eman ohi dion izenak, lurreko eta zeruko garren arteko loturaren kontzientzia adierazten du argi eta garbi.

Orobat, hasieran sua, halako abaguneetan, ustez pizten zen modua aipatu izan da froga gisa, eguzkiaren imitazioa zelako ikuspegiaren alde. Zenbait ikertzailek erreparatu bezala, oso litekeena da antzina, jaien sasoian, sua bi egur-zati elkarren kontra igurtziz egitea. Halaxe egiten da oraindik ere zenbait lekutan, bai Aste Santuko eta bai udako jaietan, eta argi eta garbi esaten da halaxe egiten zela Beltaneko ospakizunean, Eskozian eta Galesen. Baina laguntza-suaren analogiak ia erabat segurtatzen du horixe zela noizbait sua egiteko modu beti-berdina: laguntza-sua beti egin izan da egurra igurtziz, eta batzuetan gurpil bat biraraziz. Pentsa liteke hartarako erabiltzen zen gurpilak eguzkia irudikatzen zuela, eta antzina berdin egiten bazen suak aldika erregularki berretzen ziren ospakizunetan, hori eguzki-xarmak zirelako ikuspuntuaren berrespentzat har liteke. Izan ere, Kuhnek seinالات bezala, bada udako sua jatorriz halaxe egiten zela erakusten duen frogarik. Ikusi dugu Hungariako zerrizain askok udako solstizioaren bezperan egiten dutela sua, gurpil bat kalamutan bildutako egurrezko ardatz baten inguruan biraraziz, eta hala egindako suaren artetik pasarazten dituztela zerriak. Suabiako Obermedlingenen, San Vitoren egunean (ekainaren hamabostean) egiten zen "zeruko sua", halaxe deitzen zioten, gurdi-gurpil bati su emanez; bikez igurtzita eta lastoz estalita, hamabi oin altu zen haga baten gainean lotzen zen, eta hagaren muturra gurpil baten ardatz-begian sartzen. Su hori mendi baten gainean egiten zen, eta garrak goratu ahala, jendeak hitz-andana jakin bat esaten zuen, begiak eta besoak zerurantz altxatuta. Kasu honetan gurpila haga batean tinkatu eta su emateak iradokitzen du jatorrian sua, laguntza-suaren kasuan bezala, gurpil bat birarazita egiten zela. Zeremonia horren eguna (ekainaren hamabosta) udako solstiziotik hurbil da; eta ikusi dugu Masurenen, udako solstizioa egunean, haritz-haga baten inguruan gurpil bat bizkor biraraziz egiten dela, edo egiten zela sua, nahiz ez den argitzen hala lortutako su berria sutzarra pizteko erabiltzen den ala ez. Hala ere, gogoan izan behar dugu kasu horietan guztietan gurpila erabiltzea sua egiteko errazbide mekanikoa besterik ez dela agian; hau da, igurtzia areagotzen duela, besterik gabe; ez du derrigor izan behar esanahi sinbolikorik.

Gainera, su horiek, aldika-aldikakoak zein noizbehinkakoek, eguraldian eta landareetan omen duten eragina aipa daiteke eguzki-xarmak direlako ikuspuntuaren alde, beroriei egozten zaizkien ondorioak eguzkiarenak bezalakoak direnez. Adibidez, frantsesen sineste batek, alegia, ekain euritsuan udako sutzarrak eginda atertu egingo duela, onartuko luke suok hodei beltzak barreia ditzaketela eta eguzkia bere eder osoan agertaraz dezaketela, lur hezeak eta zuhaitz blaituak lehortuz. Era berean, suitzar haurrek behelainoa garbitzeko laguntza-sua erabiltzea oso modu naturalean interpreta daiteke eguzki-xarma gisa. Vosge mendietan jendeak sinesten du udako suak lurraren igaliak gorde eta uzta ona segurtatzen dutela. Suedian, hurrengo urtaroan bero ala hotz egingo duen jakiteko, haizeak maiatz-egunean egindako sutzarraren garrak zein norabidetan eramaten dituen erreparatzen diote: hegoaldera eramaten baditu, bero izango da; iparraldera eramaten baditu, berriz, hotz. Ezbairik gabe, gaur egun garren

norantza eguraldia iragartzeko bide bat besterik ez da, ez eguraldiaren gainean eragina izateko modu bat. Baina seguru izan gaitezke kasu horretan ere, beste batzuetan bezala, magia azti-lan bihurtu dela. Hala, Eifel mendietan, kea soroetarantz doanean, hori uzta ugaria izango delako iragarpena omen da. Baina ikuspegi zaharragoa ez bide zen keak eta garrek hori iragartzen zutela, baizik eta uzta oparoa erakarri egiten zutela, garren beroak eguzkiarenak bezalako eragina zeukalako laborean. Agian ikuspegi horrekin pizten du Man irlako jendeak sua haize alde beren soroetan, keak haietara jo dezan. Hala, Hegoafrikan, apirila aldera, matabeleek sutzar eskergak egiten dituzte haize alde baratzen ondoan, "uste dutelako keak, ereinen gainetik pasatuz, lagundu egingo diela fruituei heltzen". Zuluen artean ere "sendagaia baratza ondoan haize alde egindako sutan erretzen da, eta ondorioz landareek hartzen duten keak uzta hobetzen omen du". Orobat, gure nekazari europarren ideia, alegia, laborea ondo etorriko dela sutzarren garrak ikus daitezkeen lekuetan, sutzarrek duten ahalmen bizkortzaile eta ernatzailearen sinestearen arrasto gisa interpreta daiteke. Sinesmen bera ageri da, hala esan liteke, sutzarretatik hartu eta soroetan sartutako ilintiek ereinen haztea bizkortuko dutelako ideian, eta pentsa liteke beste usadio hauen azpian ere sineste hori datzala: liho-hazia garren norantzan ereitea, errautsak labore-haziarekin nahastea, errautsak soroan zehar zabaltzea lurra emankortzeko, eta Eguberriko subilaren puska bat goldean ezartzea haziak gizen daitezen. Lihoa edo kalamua garren altueraraino edo jendeak salto egiten duen altueraraino haziko direlako iritzia ere sail berekoa da argi eta garbi. Orobat, Konzen, Moselaren ertzetan, mendi-mazelan behera botatzen zen gurpil gartua itzali gabe iristen bazen ibaira, hori mahatsa ugaria izango frogatzat hartzen zen. Hain zen sendoa sineste hori, non zeremonia arrakastaz burutzeak bide ematen baitzien herritarrei inguruetakoa mahasti-sailen jabeei zerga bat ezartzeko. Kasu honetan gurpil itzali gabea hodeiek estali gabeko eguzkia dela egin liteke, mahats ugari ekarriko lukeena. Beraz, herritarrek inguruetakoa mahastien jabeengandik jasotzen zuten gurdikada bat ardo zuri ere mahatsarentzat lortua zuten eguzkiaren ordaintzat har zitekeen. Era berean, Glamorgan haranean, gurpil gartua botatzen zuten mendian behera udako solstizioko egunean, eta sua gurpila mendi-oinera iritsi baino lehen itzaltzen bazen, jendeak uzta txarra espero izaten zuen; aldiz, gurpilak piztuta jarraitzen bazuen beherako bidean eta artean garretan segitzen bazuen denbora luzean, baserritarrek uzta handia espero izaten zuten uda hartan. Kasu honetan ere berezkoa da pentsatzea nekazarien gogoak lotura zuzena aurkitzen zuela gurpilaren suaren eta uzta dakarren eguzkiaren suaren artean.

Herri-sinesteetan, sutzarren eragin bizkortzaile eta ernatzailea ez da mugatzen landareen mundura; animalietara ere iristen da. Hau argi eta garbi ageri da orain arte aipatutakoetan: irlandar usadioan -alegia, ganadu antzua udako suen artetik eramaten dute-, frantziar sinestean -Eguberriko subila uhaskan uzteak behiak txahala egiten laguntzen du-, Frantziako eta Serbiako ideia batean -Eguberriko subiletik zenbat txinparta atera, hainbat oilasko, txahal, arkume eta antxume izango direla-, sutzarren errautsak oiloen habietan jartzeko frantziar usadioan -oiloez arrautzak errun dezaten-, eta sutzarren errautsak ganaduarentzako urarekin nahasteko alemaniar usadioan, zertarako eta animaliak gizen daitezen. Gainera, argi samar ageri da are giza jaiotzak ere bultzatu egiten dituela suen bero bizigarriak. Marokon jendeak pentsatzen du haurrik gabeko bikoteek, udako sutzarraren gainetik salto eginda, izan dezaketela ondorengorik. Bada irlandar sineste bat, bi neskak udako sutzarraren gainetik hiru bider salto eginez gero, laster ezkondu eta haur askoren ama izango direla; Flandesen emakumeek udako suen gainetik egiten dute salto, hurgite eroso izateko; Frantziako zenbait aldetan pentsatzen da neska batek bederatzi suren inguruan dantza eginez gero, urtebeteren barruan ezkonduko dela, eta Bohemian imajinatzen dute hori egiteko nahikoa izango

duela bederatzi sutzar ikustea. Bestalde, Lechraingo jendeak esaten du neska-mutil batzuek udako suaren gainetik batera salto egin eta ezer erre gabe aterako balira, emakume gazte hori ez litzatekeela ama izango hurrengo hamabi hilabeteen barruan, garrek ez ukitu eta, beraz, ez ernaltzeagatik. Suitza eta Frantziako zenbait aldetan Eguberriko subila piztearekin batera otoitz bat egiten da, emakumeek haurrak izan ditzaten, ahuntzek antxumeak eta ardiek arkumeak. Zenbait lekutan duten arauak, alegia, sutzarra azkena ezkonduetako pertsonak piztu behar duela, sail bereko ideia dirudi, dela pertsona horrek sutik hartzen omen duelako ernaltzeko ahalmena, dela berak ematen dizkiolako suari horiek. Maitaleek eskutik helduta suen gainetik salto egiteko usadio zabalduak honako ideia hau luke sorburu: alegia, haien ezkontzak seme-alaben bedeinkazioa izango zuela; eta antzeko motiboak esplikatuko luke urte barruan ezkonduetako bikoteak zuzien argitan dantzan egitera behartzen dituen usadioa ere. Eta estoniarren artean udako ospakizunean izaten omen ziren lizunkeriazko eszenak, baita gure artean maiatzaren lehenaren ospakizunean izaten zirenak ere, ez ziren sortuko festagileen laxokeria hutsetik, baizik eta orgia haiek lotura misterioetsuren batek justifikatzen zituelako ideiatik, derrigortzen ez bazituen ere: gizonaren biziaren eta zeruko mugimenduen arteko loturak, urteko une kritiko honetan.

Aztertzen ari garen jaietan, sutzarrak egiteko usadioa zuziak soro, baratza eta belardietan zehar azienden artean eramateko usadioarekin dago lotuta; eta, ezbairik gabe, bi usadioak gauza bera lortzeko bi modu desberdin besterik ez dira, hots, suak omen dakartzan onurak lortzeko, dela geldirik dela batetik bestera eramanez. Beraz, sutzarren eguzki-teoria onartuz gero, behartuta geundeke teoria hori zuziei ere aplikatzera. Pentsatu beharko genuke landan zehar zuzi irazekiekin ibiltzeko edo lasterkatzeko ohitura eguzkiaren eragin suspengarria han eta hemen barreiatzeko modu bat besterik ez dela, gar ikaratiak imitazio ahula liratekeelarik. Ikuspuntu honen alde esan behar da batzuetan zuziak soroak emankortzeko xede jakinaz eramaten direla, eta intentzio horrekin jartzen dira batzuetan sutzarretatik hartutako ikatz goriak soroetan, herdoilaren kontra. Errege egunaren bezperan, Normandian, gizonak, emakumeak eta haurrak eromenean lasterkatzen dira soro eta baratzetan zehar zuzi irazekiekin, zuziak frutarbolan abarren artetik astinduz eta enborren kontra kolpatuz goroldioa erretzeko eta satorrak eta saguak uxatzeko. "Sinesten dute zeremoniak helburu bikoitza duela, zomorroa exorzizatzea, ugalduko balira benetako kaltea lekarketelako, eta arbolak, soroak eta ganadua bera ere emankortzea"; eta imajinatzen dute ezen, zenbat eta luzeago egin zeremonia, hainbat handiagoa izango dela fruta-bilketa hurrengo udazkenean. Bohemian diote laborea airera jaurtitako erratz irazekiak bezain garai haziko dela. Eta ideia horiek ez dira Europakoak bakarrik. Korean, Urte Berriko jaia baino egun batzuk lehenago, jauregiko eunukoek zuzi irazekiak botatzen dituzte hots egin bitartean, eta horrek uzta ezin hobea ekarriko omen du hurrengo urtarotan. Pentsa liteke soroetan gorpil irazekia jirabiraka botatzeko usadioa, Poitoun soroak emankortzeko xede argi eta garbiaz egiten zen bezala, ideia beraren ildotik lihoakeela, are modu grafikoagoan; izan ere, zuziek irudikatzen duten eguzkiaren argia eta beroa ezezik, ustezko eguzkia bera pasarazten baita lur gainetik, lurak beraren eragin suspertzaile eta onuragarria har dezan. Era berean, abar irazekiak ganaduaren inguruan eramateko usadioa abereak sutzarraren artetik pasaraztearen parekoa da argi eta garbi; eta sutzarra eguzki-xarma bada, zuziak ere beste horrenbeste.

3. Su-jaiak garbitzaile direlako teoria

Orain arte europar su-jaietan sua xarma gisa pizten dela dioen teoria ikusi dugu, alegia, gizon eta abereentzat, labore eta fruituentzat nahikoa eguzki izan dadin lortzeko. Orain beste eginkizun hau dugu, teoria horren kontra eta beste ikuspuntuaren alde zer esan daitekeen ikustea. Beste ikuspuntu honen arabera, errito horietan sua ez da erabiltzen

agente sortzaile gisa, baizik eta garbitzaile gisa; gizakiak eta landareak arazten ditu, bizidun guztiak gaixotasunaz eta heriotzaz mehatxatzen dituzten elementu kaltegarriak, materialak nahiz izpiritualak errez.

Lehenik, bada, ohartu behar da suaren ohiturak gorde dituen jendeak inoiz ez duela aipatzen eguzki-teoriarik haiek esplikatzeke; garbitzearen teoria, berriz, askotan eta indarrez aipatzen dute. Hori argudio indartsua da garbitzearen teoriaren alde eta eguzki-teoriaren aurka; izan ere, herri-usadio batez herriak berak emandako azalpena inoiz ez da baztertu behar, arrazoi larriren bat tartean izan ezik. Eta kasu honetan ez dirudi baztertzeko arrazoi egokirik dagoenik. Sua agente suntsitzailatzat hartzea, gauza txarrak ezabatzeko erabil daitekeen agentetzat, hain da sinplea eta bistakoa, non ez zitzaion oharkabean pasatuko jai horiek sortu zituen nekazari zakarrenen gogoari ere. Bestetik, sua eguzkiaren emanazio gisa hartzea, edota sinpatia fisikoz berorrekin lotuta bailegoen, ez da hain sinple eta bistakoa inondik ere; eta sua eguzkia ager dadin xarma gisa erabiltzen dela ukaezina badirudi ere, halaz guztiz, herri usadioen azalpenak bilatzerakoan, sekula ez genuke jo behar ideia ilunago batera beste sinpleago bat eskura izanez gero, eta jendeak berak emandako testigantza argiek eusten badiote. Eta su-jaien kasuan jendeak behin eta berriz azpimarratzen du suaren alderdi suntsitzailea; eta oso esanguratsua da suaren bidez borrokatu beharreko kalte handia sorginkeria izatea. Behin eta berriz esaten zaigu suak sorginak erretzeko edo urruntzeko direla; eta batzuetan asmoa ezin argiago adierazten da sorgin baten irudia suari emanez. Horregatik, gogoratzen dugunean sorginkeria beldurrak nolako kezka sorrarazi duen garai guztietan Europako herri-gogoan, susma genezake su-jai horien guztien lehen asmoa sorginak suntsitzea edo nolanahi ere sorginez libratzea besterik ez zela, gizonei, aziendei eta uztei gainera erortzen zitzaizkien zorigaitz eta kalamitate ia-ia guztien kausatzat hartzen baitziren.

Susmo hori berretsi egiten da zera aztertzen dugunean: zein kalterentzako erremedioa ziren, ustez, sutzarrak eta zuziak. Kalte horietan lehena, beharbada, ganadua gaixotzea liteke; eta sorginek egiten omen dituzten gaitz guztien artean baliteke aipatuena aziendei egiten dieten kaltea izatea, batez ere behiei esnea lapurtuz. Eta esanahi handikoa da laguntza-sua, aldikako su-jaien gurasotzat har litekeena, beste ezer baino lehen baztangaren edo ganaduaren beste gaixotasun batzuentzako erremedio gisa piztu izatea; eta zer horrek iradokitzen du -eta oso litekeena dirudi, oro har- laguntza-sua egiteko usadioa aspaldi batekoa dela, Europako herriak batez ere beren azienden produktuei esker bizi zirenekoa, nekazaritzak artean beren bizitzetan hainbeste pisu ez zuen garaikoa. Europako alde askotan, sorginak eta otsoak dira oraindik ere artzainak ikaratzen dituzten bi etsaiak; eta ez da harritzekoa suetara jotzea, biak urruntzeko bitarteko indartsua bailiran. Eslaviar herrien artean badirudi suak borrokatzen dituen etsaiak, sorginak baino, banpiroak eta beste izpiritu gaizto batzuk direla, eta zeremoniaren xedea izaki gaizto horiek uxatzea dela, ez garretan erretzea. Baina orain dugun asmorako, bereizketa horrek ez du muntarik. Kontuan hartu beharrekoa zera da, eslaviarren artean laguntza-sua, orain aztertzen ari garen su-zeremonia guztien artean jatorrena datekeena, ez dela eguzki-xarma bat, baizik eta gizakiak eta abereak izaki gaizkileen erasoetatik babesteko bitartekoa besterik ez, argi eta garbi; nekazariak pentsatzen du suaren beroaz erre edo beldurtu egiten dituela izaki gaizkileok, piztiak erre edo beldurtuko lituzkeen bezalaxe.

Orobat, uste zabaldua da sutzarrek txingorraren kontra babesten dituztela soroak, eta etxea trumoiaren eta tximisten kontra babesten dutela. Baina uste zabaldua da, halaber, hala txingorra nola ekaitza sorginek sortzen dituztela; horregatik, sorginak uxatzen dituen suak berdin balio behar, derrigor, txingorraren, trumoiaren eta tximistaren kontra. Gainera, sutzarretatik hartutako ilintiak etxeetan edukitzen dira arrunki, suteetatik

gordetzeko hain zuzen; eta hori homeopatiatzko magiaren printzipioaren arabera egin badaiteke ere, alegia, su bat beste baten kontrako babesa dela pentsatzen delako, baliteke, halaber, asmoa sorgin suegileak urrun mantentzea izatea. Orobat, jendeak tripako minen kontra egiten du salto sutzarren gainetik, eta begiak osasuntsu izateko egoten da garrei begira-begira; eta bai tripako mina eta bai begi ezkelak, sorginen trikimailuen ondorio jotzen dituzte Alemanian eta beste leku batzuetan. Berebat, udako suen gainetik salto egitea edo haien jiran ibiltzea babes ona omen da uztaroan bizkarreko minik ez izateko; eta Alemanian "sorgin-kolpeak" deitzen diete gaitz horiei, hau da, sorginkeriaren alorreko jotzen dira.

Baina su-jaietako sutzarrak eta zuziak, beste ezeren aurretik, sorginen kontra zuzendutako armatzat hartu behar badira, litekeena da azalpen berorrek balio izatea, bai airera jaurtitzen diren disko gartuentzat eta bai abagune horietan mendian behera botatzen diren gurpil sutuentzat ere; diskoak eta gurpilak, pentsa genezake, airean hegan edo soroetan, baratzetan eta mendi-mazeletako mahastietan zehar ikustezin dabilzan sorginak erretzeko izango lirateke. Izan ere, beti pentsatu ohi da sorginak erratz-makilen gainean ibiltzen direla airean, edota beste antzeko ibilgailuetan; eta hala egiten badute, nola harrapatu haiek jaurtigai irazekien bidez baino hobeto, hau da, disko, zuzi edo makilen bidez, gure buruen gainetik ilunean hegan pasatzen direnean? Hegoaldeko eslaviar nekazariak sinesten du sorginak txingor-laino beltzetan ibiltzen direla eta, beraz, tiro egiten die lainoei haiek botatzeko, honela madarikaten dituelarik: "Madarikatua, madarikatua Herodias; zure ama fedegabea zen, Jainkoak kondenatua eta Salbatzailearen odolak kateatua". Orobat, egur-ikatz goriz betetako potea ateratzen du, olio santua, erramu-hostoak eta asentsio-belarra botata kea egiteko. Ke horrek lainoetara igo eta sorginak sorgortzen omen ditu, eta hala lurrera erortzen omen dira. Eta biguina eror ez daitezen, alegia, ahalik eta minik handiena har dezaten, baserritarrek laster aterako du aulki bat eta hankaz gora jarriko, zertarako eta sorginak erortzean, hankak aulkiaren hanken kontra hauts ditzan. Hori baino okerragoa, ankerki uzten ditu segak, sardeak eta beste arma izugarri batzuk ahoa eta puntak gora begira, gajo miserable haiek lainoetatik erortzen direnean ebaki eta zehatzeko.

Ikuspegi honetatik, sua sutzar, zuzi, disko, gurpil eta abarren itxuran erabiltzeak omen dakarren emankortasuna ere, ez da sumatzen eguzki-beroa gehitzeak dakarrela zuzenean; landare eta animalien emankortasuna sorginkerien oztopoetatik jareginez lortzen den emaitza da. Eta landareen eta animalien ugaltzeaz egia denak balio dezake giza sexuen emankortasunarentzat ere. Sutzarrek ezkontzak sustatzen omen dituzte, eta haurrak ematen dizkiete haurrik ez duten bikoteei. Ondorio zorioneko horrek ez dauka zertan etorri suaren indar bizkortzaile eta ernatzailetik; zeharbidez etor daiteke, suak oztopo horiek -alegia, sorginen araoek gizon eta emakumeen batzeari nabarmenki jartzen dizkieten oztopoak- kentzeari esker.

Oro har, beraz, su zeremonialen bertute garbitzailearen teoriak beste teoria -alegia, eguzkiarekin duten loturarena- baino litekeenagoa eta datuekin hobeto datorrena dirudi.

lxiv

Gizakiak suetan erretzea

1. Irudiak suetan erretzea

Oraindik galdetu beharrean gara: zer esanahi du jai horietan irudiak suetan erretzeak? Aurreko ikerketaren ondoren, erraza dirudi galdera horri erantzutea. Suak askotan sorginak erretzeko xedez egiten direla esaten denez, eta erretako irudiari batzuetan "sorgina" deitzen zaionez, berez doake ondorio hau ateratzea, alegia, abagune horietan garretan erretako imajina guztiek sorginak irudikatzen dituztela, eta horiek erretzeko ohitura gizon eta emakume gaizto horiek berak erretzearen ordezkoa besterik ez dela;

izan ere, homeopatiatzko edo antzezko magiaren printzipioaren arabera, sorgina bera suntsitzen da beraren irudia suntsitzean.

Baina baliteke azalpen hori egokia ez izatea kasu guztientzat, eta batzuek beste interpretazio bat onartzea eta are eskatzea. Izan ere, hala erretako irudiak, lehenago seinatu dudanez, ezin baitira bereizi udaberrian erretzen edo beste moduren batez desegiten diren Herioren irudietarik; eta eman dira datuak Herioren irudi deritzen horiek benetan zuhaitzen izpirituaren edo landareen izpirituaren ordezkariatzat hartzeko. Beste irudiek ere, udaberriko eta udako sutzarretan erretzen direnek, azalpen berbera ametitzen al dute? Hala dirudi. Izan ere, Herio deritzan horren puskak soroetan ezartzen diren bezala, ereinak etor daitezen, halaxe udaberriko sutzarretan erretako irudiaren hondar ikaztuak ere, batzuetan soroetan zabaltzen dira pentsatuz zomorroak uztatik aldenduko dituztela. Orobat, ihaute motzean lastozko gizona erretzen denean, azkena ezkonduak neskak suaren gainetik jauzi egin behar duelako araua, hura emankor bihurtzeko da seguruenik. Baina, ikusi dugunez, emakumeei haurrak emateko ahalmena zuhaitzen izpirituen tasun berezi bat da; beraz, pentsatzekoa da emaztegaiak gainetik salto egin beharreko sua ere zuhaitzen izpiritu edo landareen izpiritu ernatzailearen ordezkaria izatea. Irudiaren izaera hori -landareen izpirituaren ordezkari, alegia- garbi-garbi ageri da irudia laborearen azao jo gabeko batek osatzen duenean, edo burutik oinetara lorez estalita dagoenean. Orobat, seinatu beharrekoa da ezen, panpina baten ordeztu, batzuetan zuhaitzak erretzen direla udaberriko eta udako suetan, zutik daudenak nahiz botatakoak. Kontuan izanik zuhaitzen izpirituak zein maiz irudikatu ohi den giza itxuran, ez da burugabekeria pentsatzea ezen, su horietan batzuetan zuhaitza eta beste batzuetan irudia erretzen denez, irudia eta zuhaitza elkarren parekotzat jotzen direla, bakoitza zuhaitz-izpirituaren ordezkaria delarik. Bi datuk berresten dute hau: lehenik, erre behar den irudia batzuetan maiatz-arbolarekin batera erabiltzen dute batetik bestera, lehena mutilek eramaten dutelarik, eta bigarrena neskek; eta bigarren, irudia batzuetan zutik dagoen zuhaitz bati lotuta egoten da, eta berarekin batera erretzen da. Kasu horietan, ez dago zalantza handirik egiterik, zuhaitzen izpirituak bi ordezkari izaten ditu, lehenago ikusi dugun bezala: zuhaitza eta irudia. Oso naturala da irudiaren benetako izaera -landareen izpiritu ongarriaren ordezkari, alegia- inoiz ahaztu izana. Izan ere, jainko ongarri bat erretzeko usadioa arrotzegia egiten baitzaie orainagoko pentsaerei, interpretazio okerra ez emateko. Denboraren harian, irudia erretzen jarraitzen zuen jendeak gaizki ikusten zituen pertsonen irudiekin identifikatuko zuen: Judas Iskarioterekin, Lutherrekin, sorginekin.

Jainko bat edo beraren ordezkaria hiltzeko arrazoi orokorrak aurreko kapitulu batean aztertu dira. Baina jainko hori landaretzaren jainkoa denean, badira arrazoi bereziak zergatik sutan hil behar duen esplikatzeko. Izan ere, argia eta beroa nahitaezkoak dituzte landareek, haziko badira; eta sinpatiazko magiaren printzipioaren arabera, landaretzaren norbanako ordezkaria haien eraginpean ezarritu, zuhaitz eta ereinek nahitaezko horietarik nahikoa izango dutela segurtatzen da. Bestela esan, landareen izpirituak eguzkia irudikatzen duen sutan erreta, segurtatu egiten da, denboraldi batez bederen, landareek nahikoa eguzki izango dutela. Horren kontra beste arrazoi hau jar daiteke, alegia, asmoa landareentzat nahikoa eguzki segurtatzea bada, hori hobeto lor daitekeela, sinpatiazko magiaren arabera, landaretzaren ordezkaria sutatik pasatuz besterik gabe, ez bertan errez. Eta egin ere egiten da halakorik batzuetan. Rusian, ikusi dugunez, Kupaloren lastozko irudia ez da erretzen udako suan; atzera eta aurrera erabiltzen dute suaren erditik. Baina, eman ditugun arrazoiengatik, jainkoak hil beharra du; beraz, biharamunean Kupalo bere apaingarriez gabetu eta erreka batera botatzen dute. Errusiako usadio horretan irudia sutan zehar pasatzea, arazte hutsa ez bada, eguzkixarma dateke; jainkoa hiltzea egintza berezia da, eta hura hiltzeko modua -iratota- euri-

xarma dateke. Baina jendeak gehienetan ez du pentsatu izan halako bereizketa finak egitea beharrezkoa denik; jadanik emandako arrazoiak arabera, mesederako omen da, hala pentsatzen dute, landareen jainkoa bero handitan jartzea, eta mesederako da, halaber, hura hiltzea; beraz, bi abantailok prozedura bakar batean konbinatu eta erre egiten dute, besterik gabe.

2. Gizakiak eta animaliak suetan erretzea

Europako su-jaiakin lotutako herri-usadioetan, badira zenbait ezaugarri behinola giza sakrifizioak egin ohi zirela seinalatzen dutenak. Ikusi ditugu honako hau sinesteko arrazoiak, Europan pertsona biziak hartu direla askotan zuhaitzaren izpirituaren eta laborearen izpirituaren ordezkariatzat, eta horrenbestez heriotza eman zaiela. Nola ez pentsatu, beraz, erretzen zituztela, haiek era horretan hilez abantaila bereziren bat lortzen bazen? Giza sufrimendua ez da aintzakotzat hartzen lehen gizakiaren kalkuluetan. Bestetik, aztertzen ari garen su-jaietan, jendea erretzeko plantak batzuetan hain muturreraino eramaten dira, non arrazoizko dirudien haiek benetan erretzeko usadio zaharrago baten aztarna ematutzat hartzea. Hala, Akisgranen, ikusi dugunez, ilarlastoz jantzitako gizonak hain trebe jarduten du, non hurrek benetan sinesten duten hura erretzen ari direla. Normandiako Jumiègesen, berriz, kideek jazarri egiten zuten dena belarrez jantzitako gizona, otso berdea titulua izaten zuena, eta harrapatzen zutenean udako sutzarrera botatzen zutelakoa egiten zuten. Era berean, Beltaneko suetan, Eskozian, delako biktima harrapatu eta garretara botatzen zutelako plantak egiten zituzten, eta handik aurrera, aldi batez, jendea hartaz hilda balego bezala mintzatzen zen. Orobat, Eskoziako iparrekialdeko Hallowe'ngo sutzarretan, antzeko zerbeit suma genezake mutil bat sutatik ahalik eta gertuen etzan, eta beste mutilei gainetik salto egin dezaten uzteko usadioan. Aixko errege titularrak -urtebeteko erregealdia izaten zuen eta lehen dantza udako sutzarraren biran dantzatzen zuen-, baliteke aspaldi batean zeregin ez hain atsegina burutu izana, alegia, gerora berak piztu besterik egiten ez zuen sutarako erregai izatea. Austriako Wolfecken, udaburu egunean, goitik behera izai-adar hezez jantzitako mutil bat etxez etxe ibili ohi da, segizio zaratatsua lagun duela, sutzarrerako egurra biltzen. Basora iritsitakoan, honela kantatzen du:

"Basoko zuhaitzak nahi ditut,
Esne garrazturik ez niretzat,
Garagardoa eta ardoa baizik,
Basoko gizona alai eta pozik egon dadin".

Bavariako zenbait aldetan ere, udako sutzarrerako etxerik etxe erregaia biltzen ibiltzen diren mutikoek burutik oinetara estaltzen dute beretako bat izai-abar hezez, eta soka batetik eramaten dute herri osoan zehar. Wurtembergeko Moosheimen, San Joanen su-jaiak hamalau egun irauten zuen, udaburu ondorengo bigarren igandean amaitzen zelarik. Azken egun hartan haurren zaingopean uzten zen sutzarra, eta helduak basora erretiratzen ziren. Han hosto eta abartxotan biltzen zuten mutil gazte bat eta hura, hala mozorrotuta, sutzarrera joan eta ilintiak barreiatu eta sua zapaldu egiten zuen. Bertan ziren guztiek alde egiten zuten hura ikustean.

Baina badago harantzago joaterik. Halako abaguneetan eskainitako giza sakrifizioen arrastorik dudagabekoenak, ikusi dugunez, Eskoziako Highlandsen orain ehun bat urte artean egiten ziren Beltaneko suak dira, hau da, Europako bazter urrun batean zegoen herri zelta hark egiten zituenak, ia erabat isolatuta kanpoko eraginetatik; Europako mendebaldeko beste edozein herri baino hobeto gorde zuen ordura arte bere paganotasun zaharra. Beraz, horrek esan nahi du, froga ukaezinak baitaude, zeltek sistematikoki egin izan dituztela suaren bidezko giza sakrifizioak. Sakrifizio horietako lehen deskribapena Julio Zesarrek eman digu. Ordura arte libre bizi ziren Galiako zelten

konkistatzaile izan zen aldetik, Zesarrek aukera handiak izan zituen zelten erlijio nazionala eta ohiturak behatzeko, artean bizi-bizi eta jatorrizko distiraz zirenean, erromatar zibilizazioaren arragoan urtu gabe. Zesarrek, nonbait, esploratzaile greko baten oharrak erantsi zizkion bereei. Posidonio zuen izena greko horrek, eta Zesarrek erromatar armak Mantxako kanalerara eramane baino berrogeita hamar bat urte lehenago ibilia zen Galian. Estrabon geografo grekoak eta Diodoro historialariak ere Posidonioren lanetik atera bide zituzten zelten sakrifizioez egin zituzten deskribapenak, baina nork bere aldetik, eta Zesar ere alde bat utzita, zeren eta bakoitzaren kontakizunak beste bietan ageri ez diren xehetasunak baitakartza. Hirurak konbinatuz, beraz, Posidonioren jatorrizko kontakizuna berrosa genezake eta, hartara, Galiako zeltek gure aroaz aurreko bigarren mendean eskaintzen zituzten sakrifizioen irudi bat osa genezake. Badirudi hauetxek izan zirela usadioaren zantzu nagusiak. Zeltek kondenatutako kriminalak gordetzen zituzten jainkoei sakrifikatzeko, bost urtez behin izaten zen jaialdi handi batean. Zenbat eta biktima haietarik gehiago izan, hainbat eta ugariago emango omen zuen lurrak. Baldin eta nahikoa kriminal ez bazen, gerrako katibuak hartzen zituzten sakrifikatzeko. Eguna etorrita, druida edo apaizek sakrifikatzen zituzten biktimak. Batzuk geziz hiltzen zituzten, beste batzuk paldoan sartuta, eta beste batzuk bizirik erretzen zituzten honako modu honetan: estatua eskerga batzuk egiten zituzten zumez edo zurez eta belarrez; ondoren, gizon biziz, ganaduz eta era guztietako animaliaz betetzen zituzten; su ematen zitzaien estatua haiei, eta barruko izaki bizidunekin batera erretzen zituzten.

Halakoak ziren bost urtez behin egiten ziren jai handiak. Baina hain eskala handian eta hainbeste giza biziren zarrastelkeriaz ospatzen ziren jaiak gainera, arrazoizkoa dirudi pentsatzea era bereko jaiak, baina eskala txikiagoan, egiten zirela urtero, eta urteroko haietatik etorri direla oraindik ere, urtez urte, Europako alde askotan ospatzen diren su-jaietako batzuk bederen, beren giza sakrifizioen arrastoekin. Zumez eraikitako edo belarrez estalitako estatua erraldoiek, zeinetan druidek beren biktimak sartzen baitzituzten, zuhaitz-izpirituaren giza ordezkaria oraindik ere maiz gordetzen duen egitura hostotsua gogorazten digute. Horregatik, ikusiz lurraren emankortasuna, itxuraz, sakrifizio horiek egitearen menpean zegoela, Mannhardtek zuhaitzen edo landareen izpirituaren ordezkarietat hartzen zituen zelten biktima zume edo belarretan bilduak.

Druiden zumezko erraldoi horiek beren ordezkariak izan dituzte berandu batera arte, gaur arte ez bada, Europa modernoko udaberriko eta udako jaietan. Douayn, hemeretzigarren mendearen hasierara arte bederen, prozesioa izaten zen uztailaren zazpitik gertueneko igandean. Prozesioaren ezaugarri nagusia irudi eskerga bat izaten zen, hogeitaz edo hogeita hamar bat oin garai, zumez egina eta "erraldoia" izenekoa, subilen eta soken bitartez kaleetan zehar eramaten zutena, irudiaren barruan gordetako gizonen maneiatzen zutelarik. Irudia zaldun baten gisan apainduta joaten zen, lantza eta ezpata, buru-oskola eta ezkutua zituela. Atzetik emaztea eta hiru haurrak joaten ziren, denak ere berdinean eginak, baina txikiagoak. Dunkerkeko erraldoien prozesioa udaburu egunean izaten zen, ekainaren hogeita lauan. Jaiak folies de Dunkerque zuen izena, eta ikusle ugari erakartzen zituen. Erraldoia zumezko iruditza izaten zen, maiz berrogeita bost oinetik gora garai, oinetaraino iristen zitzaion eta xingola urte-koloreak zituen soineko urdin luze batez jantzita. Hamabi gizon edo gehiago ezkutatzen zituen barruan, dantzazteko eta buruaz ikusleei agur egiteko. Iruditza hark Papa Reuss zuen izena, eta haur eskerga bat eramaten zuen poltsikoan. Atzetik erraldoiaren alaba joaten zen, hura ere aita bezala egina, zumez, eta pittin bat txikiagoa neurriz. Brabante eta Flandesko herri eta are herrixka gehienek dituzte, edo zituzten, antzeko zumezko erraldoiak; urtero ateratzen zituzten herritarren atseginerako, oso maite baitzituzten irudi barregarri haiek, eta bozkario aberkoiz hitz egiten zuten haietaz, eta inoiz ez ziren

nekatzen haiei begira egoten. Antwerpen, erraldoia hain zen handia, non hirian ez baitzen hura pasatzeko bezain ate handirik; horregatik, ez zeukan auzo-herrietako senide erraldoiak bisitatzerik, Belgikako beste erraldoiek hain abagune itzaltsuetan egin ohi zuten bezala.

Ingalaterran badirudi erraldoi artifizialak udako jai guztietako ezaugarria izan direla. Hamaseigarren mendeko idazle batek dioenez, "Londresko udako prozesioetan, jendea harritzeko, erraldoi handi eta itsusiak ateratzen dituzte, bizirik baleude bezala dabiltzanak, leporaino armatuta, baina barrutik paper latzez eta iztupaz beteta; mutiko bihurriek, azpitik begiratuta, trikimailua aurkitzen dute, eta orduan izaten dira barreak eta algarak". Chester-udaburu bezperan urtero egiten zen prozesioan, lau erraldoiren irudiak izaten ziren, animaliekin, kartoizko zaldiekin eta beste panpina batzuekin batera. Coventryn badirudi erraldoiaren emaztea joaten zela haren aldamenean. Oxfordshireko Burforden, udaburu bezpera alaitasun handiz ospatzen zen, erraldoi bat eta sugetzar bat garraiatzen zituztelarik herrian gora eta behera. Ingalaterrako erraldoi ibiltari hauetan azkena 1844 urteraino iritsi zen, Salisburyn; antikuario batek aurkitu zuen, usteltzen, Sastreen Areto abandonatuko sarreran. Gorputzaldearen egitura estrabez eta uztaiiz eginga zuen, Jack-in-the-Green delakoak maiatzaren lehenean soinean izaten zuena bezala.

Kasu horietan erraldoiak prozesioetan agertu besterik ez ziren egiten. Baina batzuetan udako sutzarretan ere erretzen zituzten. Hala, Parisko Rue aux Ourseko jendeak zumezko irudi handia egin ohi zuen urtero, soldadu bat bezala jantzitakoa, eta kaleetan zehar erabiltzen zuten zenbait egunez, eta handikiro erretzen zuten uztailaren hiruan, ikusle guztiek Salve Regina kantatzen zuten bitartean. Errege titulua zuen pertsonaia bat izaten zen zeremonian buru, eskuan zuzi irazekia zuela. Irudiaren pusketa erreak jendearen artean barreiatzen ziren, eta han lehiatzen ziren denak pusketok jaso nahian. Usadio horrek 1743ra arte iraun zuen. Brien, Isle de Francen, hemezortzi oin garai zen zumezko erraldoia erretzen zuten urtero udaburu bezperan.

Orobat, druidek zuten ohiturak -animalia biziak zumezkoetan sartu eta erretzea-, bere parekoa du udaberriko eta udako jaietan. Luchonen, Pirinioetan, udaburu bezperan, "zume gogorrez egindako zutabe barren-huts bat altxatzen dute hirurogei bat oineko altueraraino auzo nagusiaren erdian, goiko puntaraino hostaje hezea txirikordatuta duela; lor daitezkeen lorerik ederrenak eta zuhaixkak jartzen dira behealdean artistikoki, eszenari fondo ederra egiteko. Zutabea erregaiz betetzen da orduan, su emateko gertu. Ordu jakin batean -arratseko zortziak aldera- elizgizonek osatutako prozesio bat, atzetik dotore jantzitako neska-mutilak dituela, hiritik abiatzen da himnoak kantatuz, eta zutabearen inguruan jartzen dira denak. Bitartean, sutzarrak pizten dira inguruetakoa muinoetan, efektu ederra eginez. Ahal diren suge guztiak bildu eta zutabe barrura botatzen dira, eta zuziez baliatuz su ematen zaio oinarriari; zuzi horiez armatuta, berrogeita hamar bat gizon eta mutil gaztek dantza egiten dute biran herio batean. Sugeak, garretatik ihesi, gorenera igotzen dira herrestan, eta han ikusten dira denak nahasian, harik eta azkenez erortzen diren arte; haien bizitzeko ahaleginek egundoko bozkarioa sortzen dute biran jarritako ikusleen artean. Hau urteroko zeremonia gogokoenetakoa da Luchongo eta inguruetakoa biztanleentzat, eta bertako tradizioaren arabera, jatorri paganokoa da". Parisko Place de Grève delakoan egiten ziren udako suetan, katuz betetako saskia, upela edo zakua erretzeko ohitura zegoen, sutzarraren erdiko masta garai baten puntatik eseki ondoren; batzuetan azeria erretzen zen. Jendeak ilintiak eta errautsak bildu eta etxera eramaten zituen, zorte ona zekartelakoan. Frantziako erregeak askotan izan ziren ikuskizun haietan, baita sutzarra piztu ere beren eskuz. 1648an Luis XIV.ak, arrosaz koroatuta eta eskuan ere arrosa-sorta bat zeramalarik, sua piztu, dantza egin eta udaletxean egindako oturuntzan parte hartu zuen. Baina huraxe izan zen azken aldia errege bat Parisen udako sutzarrean buru izan zena.

Metzen, udako suak handikiro pizten ziren zabaldian, eta dozena bat katu erretzen zituzten bizirik, zumezko kutxetan sartuta, jendearen dibertsiorako. Era berean, Gapen, Alpe Garaien departamentuan, katuak erretzen ziren udako sutzarrean. Russian oilar zuria erretzen zen batzuetan udako sutzarrean; Meissenen edo Turingian zaldi-burua botatzen zen sutara. Batzuetan udaberriko suetan ere erretzen dira animaliak. Vosgeetan katuak erretzen zituzten astearte-ihautean; Alsazian Bazkoko sutzarrera botatzen zituzten. Ardenetako departamentuan katuak ematen zitzaizkion suari Garizumako lehen igandean; batzuetan, ankerkeriarik finenaz, suaren gainetik zintzilikatzen ziren haga baten puntatik, bizirik erre zitezen. "Katuak, deabrua ordeztzen baitzuen, inoiz ez zezakeen nahikoa sufri". Izaki haiek garretan hiltzen ziren bitartean, artzainek su gainetik salto egitera behartzen zituzten beren ganaduak, hura modu ezin hobea zelakoan haiek gaixotasunetik eta sorginkieratik gordetzeko. Ikusi dugu batzuetan katagorriak ere erretzen zituztela Bazko igandeko sutan.

Beraz, badirudi antzinako Galiako zelten errito sakrifizialen arrastoak aurkitzen direla Europa modernoko herri-jaietan. Frantzian, edo hobe esan, Galia zaharreko mugek hartzen zuten lurralde zabalagoan, utzi dituzte errito horiek aztarnarik argienak, zumezko erraldoiak eta zumezko saskietan sartutako animaliak erretzeko usadioetan. Usadio horiek, irakurlea honezkero ohartu denez, udaburukoak edo egun horren ingurukoak izaten dira. Hortik atera genezake horien aurreko errito jatorrak udaburuan egiten zirela. Inferentzia hori ondo egokitzen zaio Europako herri-usadioen ikuspegi orokor batek iradokitako ondorioari, alegia, udako solstizioko jaia, oro har, lehen ariarrek Europan ospatutako urteroko jaietan hedatuena eta hotsandikoena izan zela. Aldi berean, gogoan izan behar dugu britainiar zelten artean urteko su-jai nagusiak, ezbairik gabe, Beltanekoak (maiatzaren lehenean) eta Hallowe'engoak (urriaren azken egunean) izan zirela; eta horrek zalantza sorrarazten du, ea Galiako zeltek ere ez ote zituzten ospatu beren su-errito nagusiak, giza eta animalien erre-opariak barne, maiatzaren lehenean edo azaroaren hasieran, eta ez udaburuan.

Oraindik galdetu beharrean gara: zer esan nahi ote dute sakrifizio horiek? Zergatik erretzen zituzten gizonak eta animaliak jai horietan? Zuzen bagabiltza Europako su-jai modernoak interpretatzerakoan -alegia, sorginkieriaren ahalmena hausteko saio gisa, sorginak errez edo ihesian jarritz-, badirudi zelten giza sakrifizioak ere modu berean esplikatzen beharko genituzkeela; hau da, pentsatu behar dugu druidek zumezko irudien barruan erretzen zituzten gizakiak sorginak zirelako kondenatzen zituztela heriotzara, eta sutan hiltzea aukeratzen zutela bizirik erretzea modurik seguruarentzat zeukatelako izaki kaltegarri eta arriskutsu haietatik libratzeko. Azalpen berberak balio lezake zeltek gizakiekin batera erretzen zituzten ganadu eta era guztietako animalientzat ere. Haiek ere, pentsa genezake, sorginduta bide zeuden edota sorginak zirela jotzen zen, eta beren buruak animalia bihurtu zituztela, zertarako eta kideen ongizatearen kontra beren asmo ifernukoak burutzeko. Aieru hau berretsi egiten digu ikusteak sutzar modernoetan gehien erretzen ziren animaliak katuak zirela, eta hain zuzen katu bihurtzen omen ziren batez ere, beste edozein animalia baino areago -erbiak salbu-. Orobat, ikusi dugu batzuetan sugeak eta azeriak erretzen zituztela udako suetan; eta sorgin galestar eta alemaniarrek azerien eta sugeen itxura hartzen omen zuten. Labur esanda, gogoratzen dugunean zenbat animalien itxura har dezaketen sorginek nahierara, hipotesi horren gainean erraza dirudi jaietan erre diren bizidunen aniztasuna esplikatzea, bai Galia zaharrean eta bai Europa modernoan; biktima horiek guztiak, eman genezake, ez zitzaizkion ematen suari animaliak zirelako, baizik eta sorginak zirelakoan, beren asmo gaiztoak betetzeko animalien itxura hartutako sorginak. Zelten antzinako sakrifizioak horrela esplikatzeak abantaila hori du: azalpen koherentea ematen zaio Europak sorginei eman dien tratamenduari, hasi lehen garaietatik eta orain bi mende arte, alegia,

razionalismoaren eragin gero eta handiagoak sorginetan sinestea indargetu eta sorginak erretzeko usadioari amaia eman zitzaion garaira arte. Nolanahi ere den, beharbada orain ulertuko dugu zergatik sinesten zuten druidek ezen, zenbat eta pertsona gehiagori eman heriotza-epaia, hainbat eta emankorragoa izango zela lurra. Irakurle moderno batentzat lotura hori, borreroaren jardunaren eta lurraren emankortasunaren artekoa, ez dateke hain nabaria lehen begiratuan, baina gogoeta txiki batek lasaituko du: sutan edo urkamendian hiltzen ziren kriminalak sorginak zirenean, alegia, beren plazerra baserritarraren laboreak herdoildu edo txingor-ekaitzen azpian abailtzea zuten izakiak, donge haien exekuzioa horretarakoxe zegoen kalkulatuta, alegia, uzta oparoa segurtatzeko. Nola? Nekazariaren ahaleginak geldiarazten eta itxaropenak zapuzten dituzten kausa nagusietako bat ezabatuz.

W. Mannhardtek beste modu batez esplikatu zituen aztertzen ari garen druiden sakrifizioak. Hark pentsatzen zuen druidek zumezko irudietan erretzen zituzten gizakiek landareen izpirituak ordeztu zituztela eta, beraz, haiek erretzeko usadioa zeremonia magikoa zela, ereinentzako nahikoa eguzki segurtatzeko egina. Beste ikuspegi honen alde ere agertu da, nonbait, alegia, sutzarretan erretzen zituzten animaliek laborearen izpiritua ordeztu zutela. Lan honetan lehenago ikusi dugun bezala, askotan pentsatu izan da izpiritu horrek animalia baten itxura hartzen zuela. Teoria hori kontuan hartzekoa da, ezbairik gabe, eta W. Mannhardten itzalak bide ematen digu oso aintzakotzat hartzeko. Nik ere onartu nuen liburu honek orain arte izandako argitaraldietan; baina berriz kontsideratuta, iruditzen zait ezen, oro har, ez dela suetan erretako gizonak eta animaliak sorginak ziren aldetik hiltzen zituztelako teoria bezain probablea. Azken ikuspegi honi sendo eusten dio su-jaiak ospatzen dituen jendearen lekukotzak: suak egiteko usadioaren herri-izen bat "sorginak erretzea" da, eta sorginen irudiak ematen dira batzuetan garretara, eta jotzen da suek, ilintiek edo errautsek sorginkeriaaren kontrako babesa ematen dutela. Aldiz, ezin esan daiteke jendeak suetan erretako animaliak landareen izpirituaren ordezkariatzat hartzen dituenik, eta sutzarrak eguzki-xarmak direnik. Suguei dagokien bezainbatean -Luchonen erretzen zituzten udako suan-, ez dut uste Europan sugueak zuhaitzen izpirituaren edo laborearen izpirituaren gorpuztetzat hartu izan direlako frogarik denik, nahiz munduko beste alde batzuetan, dirudienez, horrelako pentsabiderik izan den. Aldiz, herriak sorginak animalia bihurtzen zirela sinetsi izana hain da zabaldua eta sakon errotua, eta hain da handia izaki misterioitsu horiei zaien beldurra, non seguruago baitirudien pentsatzeak katuak eta sutan erretzen ziren beste animaliak sorginen gorpuzteak ziren aldetik akabatzen zituztela, ez landareen izpirituen ordezkari ziren aldetik.

lxv

Balder eta mihura

Irakurleak gogoratuko du Balder izeneko norvegiar jainkoaren mitoak iradoki digula orain arte egin dugun Europako su-jaien kontakizuna: mihuradun abar batek hil omen zuen hura, eta su handi batean erre omen zuten. Orain, ikusi ditugun usadioek mitoa zenbateraino argitzen duten aztertu behar dugu. Azterketa horretan mihuratik hastea komeni da, Balder hiltzeko bitartekotik, alegia.

Mihura antzina-antzinatik gurtu izan da superstizioz Europan. Druidiek gurtzen omen zuten, Plinioren pasarte famatu batean ikus dezakegunez. Mihuraren motak aipatu ondoren, honela darrai: "Gai honi dagokion bezainbatean, ez genuke aipatu gabe utzi behar zein mirespen handia duten Galia osoan mihurarentzat. Druidiek, halaxe deitzen baitiete beren sorginei, gauza guztien artean sakratuentzat jotzen dituzte mihura eta berau dagoen zuhaitza, baldin eta zuhaitz hori haritza bada. Baina horrez gainera, hariztiak aukeratzen dituzte beren zuhaitzi sakratutarako, eta ez dute errito sakraturik egiten haritz-hostorik gabe; eta druiden izena bera ere haritzaren gurtzatik eratorritako

deitura grekoa da. Izan ere, sinesten dute zuhaitz horietan sortzen den edozer zerutik datorrela, eta jainkoak berak aukeratu duelako seinale izaten dela. Mihura oso gutxitan sortzen da zuhaitz horietan; baina han aurkitzen dutenean, zeremonia larri batean biltzen dute. Batez ere ilargiaren seigarren egunean egiten dute hori, egun horretan hasten baitira haien hilabeteak, urteak eta hogeita hamar urteko zikloak, zeren eta seigarren egunetik aurrera ilargiak indar osoa izaten baitu, eta oraindik ez du bere ibiliaren erdia egina izaten. Zuhaitzaren azpian sakrifizio bat eta oturuntza egiteko behar diren prestaketak egin ondoren, gaitz ororen sendagarri aldarrikatzen dute, eta bi zezen zuri ekartzen dituzte bertara, aurrez adarrak inoiz lotu gabe izan dituztenak. Zuri jantzitako apaiz bat zuhaitzean gora igotzen da eta mihura ebakitzen du urrezko igitai batez, eta zapi zuri batean biltzen. Gero biktimak sakrifikatzen dituzte, otoitz eginez jainkoak bere oparia hobe dezan eta opari hori jaso dutenei on egin diezaien. Sinesten dute mihuraz egindako edabe bati esker animalia antzuek umeak egingo dituztela, eta landarea pozoi guztien kontrako erremedioa dela".

Beste pasarte batean Pliniok kontatzen digu medikuntzan oso eragingarritzat jotzen zela haritz batean sortzen den mihura, eta haren eragina are handiagoa omen zela, jende superstiziotsuaren ustetan, baldin eta landarea ilargiaren lehen egunean eta burdinarik erabili gabe biltzen bazen, eta biltzean lurrik ukitzen ez bazuen. Hala hartutako haritz-mihura epilepsiarentzako sendagaia omen zen; emakumeek eramaten bazuten, haurgintzan laguntzen zien; eta oso ondo sendatzen omen zituen zauriak baldin eta zaurituak landare-pusketa bat mastekatu eta beste pusketak bat zaurian uzten bazuen. Gainera, dio berak, mihura, sua itzaltzeko bitarteko bikaina omen zen, ozpina eta arrautza bat bezala.

Baldin eta azken pasarte horietan Pliniok bere denboran Italian arruntak ziren sinesteak kontatzen baditu, eta hala dirudi, ondorio hau atera daiteke, alegia, druidak eta italiarrak bat zetoze la neurri batez haritz batean hazten zen mihurak zituen propietate baliosez. Batzuek eta besteek erremedio eragingarritzat jotzen zuten hainbat gaitzentzat, eta batzuek zein besteek egozten zioten bertute bizkorgarria: druidek sinesten zuten mihuraz atondutako edabeak emankor bihurtzen zuela ganadu antzua; italiarrek, berriz, emakume batek mihura-pusketa bat aldean eramanez gero, errazago geratuko zela haurdun. Gainera, batzuek eta besteek pentsatzen zuten landarea, sendagai izatekotan, modu eta garai jakin batzuetan bildu behar zela. Ezin zen burdinaz ebaki eta, horregatik, druidek urrez ebakitzen zuten; eta ezin zuen lurrik ukitu eta, horregatik, druidek zapi zuri batean jasotzen zuten. Landarean biltzeko garaia aukeratzekoan, ilargia izaten zuten kontuan batzuek eta besteek; ilargiaren eguna desberdina zuten, ordea: italiarrek lehena zuten nahiago, eta druidek seigarrena.

Antzinako galiarrek eta italiarrek mihuraren sendagarritasun miresgarriaz zituzten sineste hauekin konpara daitezke Japoniako aino modernoek dituzten zenbait sineste. Irakurri dugunez, haiek ere, "iparraldeko jatorria duten hainbat naziok bezala, begiramen handia ageri diote mihurari. Ia gaixotasun guztientzat balio duen sendagaitzat daukate, eta batzuetan janariekin batera, eta beste batzuetan bera bakarrik egosita hartzen dute. Hostoak erabiltzen dituzte, ez aleak, hauek likaegiak direlako orokorrean erabiltzeko... Baina askok uste dute landare honek erruz ugaltzen dituela baratzetako fruituak. Horretarako erabiltzen denean, hostoak txiki-txiki egiten dira eta, gainean otoitz egin ondoren, artatxikiarekin eta beste haziarekin ereiten da, beste pixka bat janariekin jaten delarik. Emakume antzuek ere jaten omen dute mihura, haurrak izateko. Sahatsetan sortzen den mihura oso eragingarria omen da. Horregatik jotzen dute sahasa zuhaitz bereziki sakratutzat.

Beraz, ainoak bat datoz druidekin mihura ia gaixotasun guztientzako sendagaitzat hartzean, eta bat datoz antzinako italiarrekin ere, emakumeei emanez gero haurrak

izaten laguntzen dielakoan. Orobat, druiden ideia, alegia, mihura "zernahitarako sendagaia" edo panazea zelakoa, Senegambiako waloek duten ideia batekin konpara daiteke. Herri horrek "begiramen handia erakusten dio tob deitzen dioten mihura-antzeko bati; gerrarakoan aldean eramaten dituzte haren hostoak, zaurien kontrako babes gisa, benetako talismanak (gris-gris) baliraxe". Ohitura horren berri ematen duen idazle frantsesak hauxe eranstean du: "Ez al da bitxia Afrikako alde horretan ere mihura galiarren superstizioetan zen gauza bera izatea? Bi herriotan ageri den aurritzi horrek sorburu bera duke; ezbairik gabe, beltzek eta zuriek ikusiko zuten, nork bere aldetik, sustraiak lurrean luzatu gabe hazten eta loratzen den landare batek naturaz gaindiko zerbaiz zuela. Ez ote zuten sinetsiko zerutik eroritako landarea zela, jainkoaren oparia?" Superstizioaren sorburuari buruzko iradokizun hori erabat berresten du Pliniok aditzera emandako druiden sinesteak, alegia, haritz batean sortzen den edozer zerutik bidalia zela, eta horrek adierazten zuela zuhaitz hura jainkoak berak aukeratu izana. Halako sineste batek azaltzen du zergatik mozten zuten druidek mihura labana arrunt batez ez baina urrezko igitaiaz, eta zergatik moztean ez zioten uzten lurra ukitzen; beharbada sinetsiko zuten landare zerutiarra orbandu egingo zela eta bere bertute harrigarria galduko zuela lurra ukituta. Druiden mihura mozteko burututako erritualarekin konpara genezake Kanboian antzeko kasuan aginduta dagoen errituala. Diotenez, tamarindo batean parasito gisa hazten den orkideo bat ikusten duenak zuri jantzi beharra dauka; hartu buztinezko ontzi bat, igo zuhaitzera eguerdian, erauzi landarea, jarri ontzian eta ontzia lurrera erortzen utzi behar du. Horren ondoren, egin daiteke zauri guztien kontrako erremedioa den egosketa bat ontzian. Horrela, Afrikan landare parasito baten hostoek eramalea zauriezin bihurtzen duten bezala, Kanboian ere, beste landare parasito batez egindako edabeak onura berbera omen dakarkio hartaz baliatzen denari, edateko nahiz garbitzeko. Pentsa genezake bi tokietakoei landarearen kokaerak iradoki diela zaurtezintasunaren ideia: lurra baino goragoko lekua leku segurua izanik, antzeko segurtasuna aginduko lioke hartaz jabetuko litzatekeen zorionekoari, lurrean gizonaren bizia mehatxatzen duten gaixotasunen kontra. Ikusiak ditugu hainbat adibide, lehen gizonaren gogoak halako abantailei egozten dien balioaz.

Zeinahi delarik ere mihurari buruzko sineste eta ohituren jatorria, egia da horietako batzuek beren analogiak dituztela Europa modernoko nekazarien folkloean. Adibidez, Europako zenbait aldetan arautzat daukate mihura ezin dela ebaki modu arruntean; aldiz, tiroka edo harrika bota behar dela zuhaitzetik. Hala, Aargauko kantoit suitzarrean, nekazal jendeak zentzuren batean santutzat dauzka "landare parasito guztiak, baina batez ere haritz batean hazitako mihura. Ahalmen handiak egozten dizkiote, baina ez dute ebakitzen edozein modutan. Honela eskuratzen dute. Eguzkia Saggitariusen dagoenean eta ilargia ilbeheraren erdian, ilberriaren aurreko lehen, hirugarren edo laugarren egunean, gezi batez bota behar da haritz bateko mihura, eta esku ezkerrez hartu behar da erortzerakoan. Mihura hori haurren gaitz guztietarako erremedioa da". Kasu honetan ere, Suitzako nekazarien artean, antzinako druiden artean bezala, bertute berezi bat egozten zaio haritzean sortutako mihurari: ez dago hura modu arruntean ebakitzetik; lurrera erortzerakoan hartu behar da; eta gaixotasun guztien kontrako sendakaitzat jotzen da, haurrekin bederen. Suedian ere herri-superstizioa da ezen, mihurak bere bertute berezia izatekotan, tiroka edo harrika bota behar dela haritzetik. Era berean, "hemeretzigarren mendearen hasieran, hara zein berandu, artean hainbat galestarrek sinesten zuten ezen, mihurak ahalmenen bat izango bazuen, tiroka edo harrika bota behar zela zuhaitzetik".

Orobat, mihuraren sendagarritasunari dagokion bezainbatean, nekazari modernoan iritzia, baita jende ikasiarena ere, bat etorri da zaharrenarekin, neurri batean behintzat. Druiden "oro-sendaki" deitzen omen zioten landareari, edota hura hazitako zuhaitzari

beharbada; eta "oro-sendaki" omen da oraindik ere mihuraren izena Britainia, Gales, Irlanda eta Eskoziako zelteran. San Joan eguneko goizean (udako solstizioko goizean) Piamonte eta Lombardiako nekazariak "San Joanen olioarentzako" haritz-hostoak biltzera irteten dira, tresna zorrotzez egindako zauri guztiak sendatzen dituela eta. Hasiera batean, agian, "San Joanen olio" mihura bera izango zen, edota harekin egindako egosketa bat. Holsteinen, mihura, batez ere haritzetik hartutako mihura, oro-sendakitzat daukate zauri berrietarako, eta ehizan arrakasta izateko xarma segurutzat; eta Lacanen, Frantziako hegoaldean, druidek zuten fedea, alegia, mihura pozoi guztien kontrako antidotoa zela, oraindik ere bizirik dago nekazarien artean; gaixoaren urdail gainean jartzen dute landarea, edota harekin egindako edabea ematen diote edatera. Orobat, mihura epilepsiaren sendagaia delako sineste zaharrak iraun egin du garai modernoetan, ezjakinen artean ezezik, ikasien artean ere. Hala, Suedian, epileptikoek uste dute gaixotasunaren erasoak saihestu ditzaketela baldin eta heldulekua haritz-mihurazkoa duen labana aldean badaramate; eta Alemanian, xede horretarako, mihura-puskak jartzen zitzaizkien haurrei lepotik zintzilik. Frantziako Bourbonnaisko probintzian, epilepsiarentzako erremedio ezaguna da San Joan egunez haritz batetik jasotako mihura eta zekale-irina egosita egindako edabea. Lincolnshireko Bottesforden ere, mihuraren salda gaixotasun izugarri horrentzako sendagaia omen da. Ingalaterra eta Holandako sendagileek, hamabosgarren mendera arte, mihura gomendatzen zuten, halaber, epilepsiaren kontrako erremedio gisa.

Hala ere, sendagileek mihuraren sendagaitasunaz duten iritzia errotik aldatu da. Druidek mihurak edozer sendatzen zuela pentsatzen bazuten ere, mediku modernoek ez bide dute uste ezer sendatzen duenik. Zuzen badaude, atera behar dugu mihuraren sendagaitasunean izandako fede zahar zabaldua superstizio hutsa dela, ezjakintasunak landarearen izate parasitoan oinarrituz sortutakoa: zuhaitz baten abar batean agertzen dela-eta, landareak eta animaliak lurrazalean dituzten arriskuetatik babestuko lituzke. Ikuspuntu horretatik, beharbada uler dezakegu zergatik agindu izan den mihura, hain aspalditik eta hain setatsu, epilepsiarentzako sendagai gisa. Mihura lurrera erori ezin daitekeenez lurra baino askoz gorago zuhaitz baten abarrean errotuta dagoelako, horren nahitaezko ondorioa litzateke gaixo epileptikoak ere ez lukeela izango ondoezaldirik poltsikoan mihura-puska bat edo urdailean mihura-salda eramanez gero. Halako arrazoibidea oraindik ere fidagarritzat daukate gizaki askok eta askok.

Orobat, italiarren aspaldiko iritzia, mihurak sua itzaltzen duela, suediar nekazariak ere izango lukete, haritz-mihurazko sortak esekitzen baitituzte beren geletako sabaietan, kalteen kontrako babes gisa, oro har, eta bereziki suteen kontra. "Trumoi-erratz" deiturak bide bat emango liguke mihurak tasun hori nola bereganatzen duen argitzeko. Izan ere, trumoi-erratza zuhaitzei abarretan sortzen zaien kozkor iletsu eta nahasia da, herriaren ustez tximistargiak eragiten duena; horregatik, Bohemian trumoi-erratz sutan erreka etxea babesten du oinaztarrietatik. Bera ere tximistaren emaria izaki, tximisten kontrako babes gisa balio du printzipio homeopatikoen arabera, tximistorratz gisa, alegia. Horregatik, Suedian, mihurak etxeetatik urrundu beharreko sua, tximistak jota sortutako sua litzateke; baina ezbairik gabe, landareak berdin balio du sute ororen kontra.

Orobat, mihurak, tximistorratzetarako bezala balio omen du giltza nagusi gisa; sarraila guztiak irekitzen omen ditu. Baina agian mihuraren bertute guztietan preziatuena beste hau da, sorginkerien eta magiaren kontrako babesa ematen duela. Horrexegatik uzten dute Austrian mihura-abartxo bat larrainean amesgaiztoen kontra; eta horrexegatik, halaber, esaten dute Ingalaterrako iparraldean ezen, baldin eta esne-etxaldeak aurrera egingo badu, mihura-sortatxoa eman behar zaiola Urte Berri egunaren ondoren umea egiten duen lehen behiari, ondo jakina baita esne-gurinentzat ez dagoela sorginkeria

baino gauza okerragorik. Era berean, Galesen, esne-etxaldeak zorte ona izan zezan, jendeak mihura-abarra ematen zion Urte Berri eguneko lehen orduaren ondotik umea egiten zuen lehen behiari; eta Galesko baserrialdeetan, mihura ugari izaten baita han, beti izaten zen nahikoa etxalde guztietan. Mihura eskas zenean, Galesko baserritarrek hala esan ohi zuten: "Mihurarik ez bada, zorte onik ere ez"; baina mihura asko biltzen bazen, uzta ona espero izaten zen. Suedian mihuraren bila aritzen dira arretaz San Joan bezperan, jendeak "sinesten duelarik hark, gradu handian, tasun mistikoak dituela; eta haren ernamuin bat etxebizitzaren sabaiari, edo zaltegiari, edo ukuiluari atxikitzen bazaio, trola ez dela gauza izango gizaki nahiz abereei gaitzik egiteko".

Mihura bildu beharreko garaia dagokionean, iritzi desberdinak ditugu. Druidek ilargiaren seigarren egunean biltzen zuten batez ere; antzinako italiarrek, berriz, ilargiaren lehen egunean. Garai modernoetan batzuek nahiago izan dute martxoko ilbetea, eta beste batzuek neguko ilbehera, eguzkia Sagittariusen dagoenean. Baina badirudi garairik gogokoena, nonbait, udako solstizioaren bezpera edo udako solstizio eguna bera direla. Ikusi dugu bai Frantzian eta bai Suedian bertute bereziak egozten zaizkiola udako solstizioan bildutako mihurari. Suedian haxe da araua: "mihura udako solstizioaren bezperako gauean ebaki behar da, eguzkia eta ilargia beren ahalaren zeinuan direnean". Orobat, Galesen sinesten zuten San Joan bezperan (udako solstizioaren bezperan) edo fruituak agertu baino lehen edozein unetan bildutako mihura-abartxoek iragarpen-ametsak eragiten zituztela, onak nahiz txarrak, baldin eta hura lotan zenaren burkoaren azpian jartzen bazen. Hala, mihura da bere bertute sendagarri edo magikoak urteko egunik luzeenean, eguzkia gorenera iristen den unean, lortzen dituen landare ugarietako bat. Horregatik, bidezkoa dirudi pentsatzea druiden begietara ere, landarea hainbesteko jaietaz gurtzen baitzuten, mihura sakratuak bere tasun mistikoen bi halako lortzen bide zituela ekaineko solstizioan eta, beraz, zeremonia itzaltsu batean ebakiko zutela beti udaburu bezperan.

Nolanahi ere den, kontua da mihura -Balder hiltzeko bitartekoa, alegia- bere tasun mistikoengatik bildu izan dutela beti udako solstizioaren bezperan Eskandinavian, Balderren etxean. Landarea madariondo, haritz eta beste zuhaitz batzuetan aurkitu ohi da, baso sarri hezeetan, Suediako alderik epelenetan. Hala, Balderren mitoaren bi gertaera nagusietako bat berregiten da Eskandinaviako udako jai handian. Baina mitoko beste gertaera handiak ere -Balderren gorpua sutzar batean erretzeak, alegia- bere parekoa du oraindik ere, edo izan du ia oraintsu arte, Danimarkan, Norvegian eta Suedian, udako solstizioaren bezperan egiten ziren sutzarretan. Ez dirudi, ez, sutzar horietan inolako irudirik erretzen dutenik; baina irudi bat erretzea erraz desager daiteke esanahia ahaztuz gero. Eta Balderren sutzarren izenak -Balder's Balar, halaxe esaten zieten Suedian udako su horiei-, ez dio batere lekuri uzten zalantzari Balderrekin zuten zerikusiaz, eta guztiz litekeena bihurtzen du behinola Balderren ordezkari bizia edo irudizkoa erretzen zutela su haietan. Udako solstizioa zen Balderri eskainitako sasoia, eta Pegner poeta suediarrek Balderren erreketan udako solstizioan kokatu zuenean, ele zahar bati jarraituko zion seguru asko. Elezahar horren arabera, udako solstizioan izan zuen jainko on hark garaiz aurreko azkena.

Erakutsi dugu Balderren mitoko gertaera behinenek beren parekoak dituztela Europako nekazarien su-jaietan; ezbairik gabe, hauek Kristautasuna sartu baino askoz lehenagoko garaietatik datoz. Zotzetara aukeratutako biktima Beltaneko suari emateko plantak, eta Normandian, udako sutzarrean, gizona, otso berdea izango zena, era beretsuan tratatzea, usadio zaharrago baten aztarna gisa har daitezke. Usadio zahar horren arabera, gizakiak erre zituzten halako abaguneetan. Eta otso berdearen jantzi berdeak, Moosheimgo udako sua zapaltzen zuen gaztearen hostozko estalkiaren parean jarrita, adieraziko luke jai horietan hiltzen ziren pertsonak zuhaitzen izpiritu edo landareen jainko ziren aldetik

hiltzen zirela. Guzti honetatik arrazoizkoa dirudi ateratzea Balderren mitoa batetik, eta su-jaiak eta mihura biltzeko usadioa bestetik, jatorrizko osotasun baten bi erdi banatu eta hautsiak ditugula, nolabait esan. Beste hitzetan, seguru samar jo genezake Balderren heriotzaren mitoa ez zela mito hutsa, hau da, fenomeno fisikoen deskribapen bat gizakien bizitzatik hartutako irudien bidez, baizik eta aldi berean jendeak kontatzen zuen istorioa zela, zertarako eta esplikatzeko zergatik erretzen zuten urtero jainkoaren giza ordezkari bat eta ebakitzen zuten mihura zeremonia itzaltsu batean. Zuzen banago, Balderren akabera tragikoaren istorioak, nolabait esan, urtez urte jokatzeko drama sakratuaren testua osatzen zuen; errito magiko gisa jokatzeko zen, eguzkiak jo zezan, zuhaitzak haz zitezen, ereinak etor zitezen, eta gizona eta abereak iratxo, sorgin eta abarren arte gaiztoetatik babesa izan zezaten. Ipuina, labur esanda, erritualaz osatzen diren naturako mitoen klasekoa zen; kasu honetan, beste askotan bezala, mitoaren eta magiaren arteko erlazioa teoriaren eta praktikaren artekoa zen.

Baina baldin eta, dela udaberrian dela udan, sutan hiltzen ziren biktimak -giza balderrak- zuhaitzen izpiritu edo landareen jainko gorpuztu ziren aldetik hiltzen bazituzten, irudi luke Balderrek berak ere zuhaitz-izpiritu edo landareen jainko izan behar zuela. Beraz, komeni litzateke zehaztea, ahal balitz, zein zuhaitz-motaren ordezkari pertsonala erretzen zuten su-jaietan. Izan ere, seguru gaude biktima ez zutela hiltzen landarediaren ordezkari gisa, orokorrean. Landarediaren ideia, orokorrean, abstraktuegia da primitiboa izateko. Seguruenik hasieran biktimak zuhaitz sakratu jakin bat ordeztzen zuen. Baina Europako zuhaitz bakar batek ez du haritzak baino merezimendu gehiago ariarren zuhaitz sakratutzat hartua izateko. Ikusi dugunez, haren gurtzaren aztarnak aurkitu dira Europako ariar enborraren adar nagusi guztietan; horregatik, ondorio hau atera genezake, ariarrek, barreiatu aurretik, denek batera gurtzen zutela zuhaitz hori, eta haien sorlekua hariztiz estalitako lurraldea izan behar zuela.

Hortaz, kontuan izanik Europako adar ariar guztietakoek egiten zituzten su-jaien arteko antz nabarmena, ondorio hau atera genezake hortik: jai horiek haien denen erlijio-ohikunekoak direla, eta herri ariar batzuek eta besteek berekin eraman zituztela sorlekutik mundu zabalera abiatu zirenean. Baina, zuzen banago, su-jai primitibo horien ezaugarri funtsezko bat zuhaitz-izpiritua ordezkatzeko zuen gizona erretzea zen. Eta haritzak ariarren erlijioan zuen lekua ikusirik, pentsatzekoa da su-jaietan hala ordezkatzeko zuhaitz hori haritza izango zela hasiera batean. Zelta eta lituaniarrei dagokienean, ez dago ondorio horri kontra egiterik. Baina gainera, bai horien eta bai germaniarren kasuan, erlijio zaharra gordetzeko zaletasunaren hondar nabarmen batek berresten du ondorio hori. Gizonak sua egiteko erabili zuen metodorik zaharrena bi egur-zati garra sortu arte elkarren kontra igurtzitzea izan zen; eta ikusi dugu metodo hori oraindik ere erabiltzen dela European laguntza-sua bezalako su sakratuak pizteko, eta seguruenik aztertzen ari garen su-jai guztietan ere berori erabiltzen zutela. Batzuetan, laguntza-sua, edo beste su sakraturen bat, egur-mota jakin bat igurtziz egin behar izaten da; eta egur-mota hori adierazten denean, hala nola zelten, germaniarren edo eslaviarren kasuetan, egur hori haritz-egurra izan ohi da gehienetan. Eta su sakratua haritz-egurra igurtziz pizten bazen, pentsa genezake jatorrian sua gai berorrek mantentzen zela. Hain zuzen ere, badirudi Vestaren su beti piztua, Erroman, haritz-egurrez egiten zela, eta haritz-egurra zela Lituaniako Romoveko jainkotegi handian, haritz sakratuaren azpian izaten zen su beti piztuaren erregaia. Gainera, usadio batetik ere atera daiteke agian haritz-egurra zela udako suak egiteko erregaia. Alemaniako eskualde menditsu askotan nekazariak, oraindik ere, ba omen dute usadio hori: etxeko sua haritz-txokor astun batez egitekoa udaburu egunean. Txokor hori poliki-poliki erretzeko moduan erabiltzen da, eta urtea amaitu arte ez da erabat ikazten. Gero, hurrengo udaburu egunean, txokor zaharraren hondar ikaztuak kendu eta beste bat

jartzen da, eta haiek haziarekin nahasten edo baratzen zabaltzen dira. Hartara, sukaldean atondutako janaria sorginkeriatik gordetzen omen du, etxearen zorte ona babesten, ereinen hazkundera bizkortzen, eta herdoiletik eta zomorroetatik begirutzen. Usadioa Bazko-subilaren ohituraren berdin-berdina da ia. Alemania, Frantzia, Ingalaterra, Serbia eta Eslaviako beste lurralde batzuetan subil hori haritza izaten zen. Ondorio orokor gisa, beraz, esan daiteke aldikako edo inoiz edo behingo zeremonia haietan antzinako ariarrek haritz-egur sakratuaz egiten eta mantentzen zutela sua.

Baina errito itzaltsu horietan sua haritz-egurrez egiten bazen, ondorio hau dator berez hortik: bertan zuhaitz-izpiritu nortu gisa erretzen zituzten gizonek haritza beste zuhaitzik ez zuketela ordezkatzeko. Haritz sakratua bi aldiz erretzen zen horrela; zuhaitzaren egurra erretzen zen, eta harekin batera baita gizon bizi bat ere, haritzaren izpiritu nortu gisa. Europako ariarrentzat oro har ateratako ondorioa berretsita geratzen da eskandinaviarrei bereziki aplikatzean; hain zuzen, mihuraren eta biktima udako sutan erretzearen arteko erlazioak berretsiko luke. Ikusi dugu eskandinaviarrek, ohitura gisa, udaburuan mihura biltzen zutela. Baina usadio hori ageri den bezala ageri delarik, ezerk ez du lotzen giza biktimak edo berorien irudiak erretzen zituzten udako suekin. Are sua, dirudien bezala, jatorriz beti haritz-egurrez egina izanda ere, zergatik izan behar zuen beharrezko mihura erauztea? Balderren mitoak ematen digu mihura biltzeko eta sutzarrak egiteko ohituren azken lotura; mito hori ez baitago nolanahi banantzerik jorratzen ari garen usadio hauetatik. Mitoak iradokitzen duenez, noizbait sinetsiko zen bazela loturaren bat mihuraren eta sutan erretzen zuten haritzaren giza ordezkariaren artean. Mitoaren arabera, ezerk ez zezakeen Balder hil, ez zeruko ez lurreko ezerk, mihurak baizik; eta mihurak haritzean zirauen bitartean, hilezkorra ezezik, zauritu ezina ere bazen. Mihura haritzaren biziaren kokaleku zelako ideia, oharpen batek iradokiko zien lehen jendeai: haritzak hostoak galtzen baditu ere, mihurak hosto bizkorrak dituela. Neguan haren hostaje hezea ikustean abar biluzien artean, seinale gisa hartuko zuten zuhaitzaren gurtzaileek, alegia, mihurak artean bazuela abarrek ez zuten bizia; lo dagoenaren bihotzak ere taupa egiten du, gorputza mugimendurik gabe duen arren. Horregatik, jainkoa hil behar zenean -zuhaitz sakratua erre behar zenean, alegia- derrigorrezkoa izaten zen mihura erauztea. Izan ere, mihurak bere hartan irauten zueino, haritza (hala pentsatzen bide zuen jendeak) zauritu ezina zen; ematen zitzaizkion labankada eta aizkorakada guztiek ez zuten zaurituko. Baina haritzari bere bihotz sakratua -mihura- erauziz gero, zuhaitzaren adaburuak behea joko zuen. Eta gerora haritzaren izpiritua gizon bizi batek ordezkatu zuenean, logika honen arabera derrigor pentsatuko zuten ezen, zuhaitza bera bezala, zuhaitza pertsonifikatzen zuen gizona ere inork ez zezakeela ez hil ez zauri, mihura osorik zuen bitartean. Mihura erauztea, beraz, haren heriotzaren seinalea eta kausa izaten zen, biak batera.

Ikuspuntu horretatik, zauritu ezinezko Balder mihuradun haritz nortua besterik ez da, ez gehiago ez gutxiago. Italiako sineste zahar batek -alegia, mihura ez suak ez urak suntsi dezaketela- interpretazio hori berresten du; landare parasito hori suntsiezin bada, berez doake bere suntsiezingtasun hori bera dagoen zuhaitzari ere kutsatzen diola, biak elkarrekin dauden bitartean. Edo, ideia bera itxura mitikoan jarritz, esan genezake haritzaren errege xeratsuak abarretan hazten zitzaion mihura hilezkorrean zuela bizia segurtatua; beraz, mihurak han zirauen bitartean, jainkoa bera ere hilezkor zela; eta azkenez, etsai maltzur batek, jainkoaren zauritu ezinaren sekretua ezaguturik, mihura haritzetik bereizi zuela, hartara haritz-jainkoa hilez eta, ondoren, gorputza errez; parasito errezinak bere egoitza abarren artean zuen bitartean suak ez omen ziokeen ezertxo ere egingo.

Baina bizia, zentzu batean, beregandik at duen izaki baten ideia oso arrotza egiten zaienez irakurle askori, eta oraindik ez denez onartu lehen superstizioan zuen pisua,

merezi luke istorioetatik eta usadioetatik ateratako adibide batzuk ematea. Ondorioz zera erakutsiko nuke, ideia hau Balderren eta mihuraren arteko erlazioaren azalpen gisa onartzean, lehen gizonaren gogoan sakon errotuta dagoen printzipio bat onartzen dudala.

lxvi

Kanpoko arima herri-ipuinetan

Lan honen beste parte batean ikusi dugunez, jende primitiboaren iritziz arimak alde egin dezake aldi baterako gorputzetik, heriotzarik ekarri gabe. Sarritan jotzen da arimaren aldi baterako aldegitik horiek oso arriskutsuak direla, noraezean dabilen arimak hainbat zorigaitz jasan baitezake etsaien eskuetara. Baina bada beste alderdi bat ere arima gorputzetik bereizteko ahalmen horretan. Baldin eta arimaren ongizatea aldegina den bitartean segurta badaiteke, ez da arrazoirik arima horrek aldeginde jarrai ez dezan denbora mugagabe batez; hain zuzen, gizon batek desira dezake, bere segurtasuna beste kalkulurik ez badarabil, arima inoiz ez itzultzea bere gorputzera. Bizia "sentsazioak izateko ahalbide iraunkor" gisa edo "barne-koordinazioak kanpo-harremanetara etengabe egokitze" gisa abstraktuki sumatzeko gai ez delarik, basatiak gauza material zehatz bat bailitzan pentsatzen du hartan: neurri jakin batzuk ditu, ikusi eta eskuztatu egin daiteke, kaxa edo pitxer batean gorde daiteke; eta jo, hautsi edo birrindu egin daiteke. Horrela sumatutako bizia ez da beharrezko, gizonagan izatea; gorputzetik at egon daiteke, eta halaz guztiz ere hura biziartzen segi, urrunetik urrunerako sinpatia edo ekimen baten kariaz. Gizonak bere bizi edo arima deitzen dion objektu horrek gaitzik jasan gabe dirauen bitartean, gizona bera ondo izango da; hark kaltea izanez gero, sufritu egingo du; hura deseginez gero, hil egingo da. Edo, bestela adierazteko, gizon bat gaixorik dagoenean edo hiltzen denean, egintza hori azaltzeko esaten da bizi edo arima deritzan objektu material horri, gorputzean nahiz kanpoan izan, kalte egin zaiola edo suntsitu egin dutela. Baina zenbait zirkunstantziatan, bizi edo arima hori gizonagan geratzen bada, kaltea jasateko aukera gehiago izan ditzake, harengandik aparte, leku seguru eta sekretu batean gordeta egonik baino. Beraz, halako zirkunstantzietan, gizon primitiboak gorputzetik ateratzen du arima eta leku erosoren batean ezartzen bere segurtasunerako, eta arriskua pasatutakoan atzera gorputzean hartzen du. Edota, baldin eta erabat segurua den lekuren bat aurkituko balu, pozik legoke bere arima han betiko uzteko. Horren abantaila zera da, arima berak utzitako leku hartan dagoen bitartean, kalterik jasan gabe, gizona bera ezin hilko dela; ezerk ez dezake haren gorputza hil, bizia ez baita bertan.

Zenbait herri-ipuinek sineste primitibo horren frogak ematen dituzte. Ipuin horien adibiderik ezagunena norvegiar ipuin bat dateke, "gorputzean bihotzik ez zuen erraldoia" izenekoa. Horrelako istorioak mundu osoan zehar zabaldu dira, eta beren kopurutik eta ideia nagusia emateko modu eta xehetasun ugarietatik atera dezakegunez, kanpoko arimaren ideiak sustrai sakonak izan ditu gizakien gogoan historiaren etapa goiztar batean. Izan ere, herri-ipuinek fidagarri islatzen dute nola ageri zitzaion mundua lehen gizonari; eta, batere zalantzarik gabe esan dezakegu haietan gertatzen den edozein ideia, guri gauzarik burugabeena irudituko balitzaigu ere, sineskizun arrunta izango zela behinola. Uste hori, arima gorputzetik aldi laburrago edo luzeago baterako bereizteko ahalmen horri dagokion bezainbatean, zabal berretsia geratzen da herri-ipuin horiek gaur egungo basatien sineste eta ohiturekin konparatuz gero. Berriro helduko diogu horri, ipuinen adibide batzuk eman ondoren. Adibideok ipuin-mota hauen bereizgarriak eta izan duten zabalpen handia erakusteko aukeratuko dira.

Lehenik, ariar herri guztiek kontatzen dute kanpoko arimaren istorioa, hasi Industanetik eta Hebridetaraino. Hona hemen forma zabalduenetako bat: sorgin, erraldoi edo lurralde harrigarriko beste izakiren bat zauritu ezina eta hilezkorra da arima leku sekreturen

batean, urrun, gordeta duelako; baina bere gaztelu sorginduan preso daukan printzesa eder batek sekretua ateratzen dio eta heroiari jakinarazten, eta honek sorginaren arima, bihotza, bizia edo heriotza (hainbat eratan deitzen zaio) eskuratu eta suntsituta, sorgina bera hiltzen du. Beraz, istorio hindu batek kontatzen du nola Punchkin izeneko magia-gizon batek hamabi urtez katiba zeukala erregina bat, eta berarekin ezkondu nahi zuela, baina neskak ez zuela nahi. Azkenean, erreginaren semea etorri zen ama erreskatatzera, eta biek elkar hartu zuten Punchkin hiltzeko. Beraz, erreginak gozo hitz egin zion, azkenez ezkontzera etsi balu bezala. "Eta esaidazu" esan zion, "guztiz hilezkorra al zara? Heriotzak ezin al zaitu ukitu? Eta giza sufrimenduak inoiz ez sentitzeko bezain magia-gizon handia al zara?". "Bai, hala da" erantzun zion besteak, "ni ez naiz besteak bezalakoa. Urrun, oso urrun, hemendik mila eta mila kilometrora, bada lurralde ilun bat, baso sarriak estalia. Basoaren erdian palmondo batzuk daude biribilean, eta biribilaren erdian sei balde urez beteta, bata bestearen gainean: sei baldeon azpian kutxatxo dago, eta bertan loro berde txikia; loro horren biziaren mende dago nire bizia; eta loroa hiltzen badute, ni ere hil egingo naiz. Ordea" erantsi zuen, "ezinezkoa da loroak inolako kalterik jasatea, batetik lurralde hartara ez dagoelako joaterik, eta bestetik milaka eta milaka jeinu daudelako, nik hala aginduta, palmondoen inguruan, eta hil egingo luketelako hara hurbilduko litzatekeena". Baina erreginaren seme gazteak zailtasunak oro gainditu, eta loroa eskuratu zuen. Magia-gizonaren jauregiko ateraino eraman zuen, eta jolasean hasi zen berarekin. Punchkin magia-gizonak ikusi egin zuen eta, kanpora irtenda, gaztea limurtzen saiatu zen, loroa eman ziezaion. "Emaidazu nire loroa!" esan zion oihuka. Eta mutilak heldu loroari eta hego bat erauzi zion; eta hura egitean eskuineko besoa lurrera erori zitzaion magia-gizonari. Orduan Punchkinek ezkerreko besoa luzatu zuen, esanez: "Emaidazu nire loroa!". Printzeak tira egin zuen loroaren beste hegotik, eta magia-gizonaren beste besoa lurrera erori zen. "Emaidazu nire loroa!" oihukatu zuen hark, eta belauniko jarri zen. Printzeak tira egin zion loroaren eskuin hankari, eta eskuin hanka erori zitzaion magia-gizonari; printzeak tira egin zion loroaren ezker hankari, eta ezker hanka erori zitzaion magia-gizonari. Burua eta gorputz-enborra besterik ez zitzaizkion geratzen; baina artean begiak jirabiraka zituen, eta garrasika jarraitzen zuen: "Emaidazu nire loroa!". "Har ezazu bada zure loroa", egin zuen mutilak; eta hura esatearekin batera lepoa bihurritu zion txoriari, eta magia-gizonari jaurti zion; eta hori egin ahala, Punchkinen buruak jirabira osoa egin zuen eta, orro beldurgarria botata, hil egin zen. Beste ipuin hindu batean haurjale bati galdetzen dio bere alabak: "Aitatxo, non duzu gordea arima?". "Leku honetatik hogeita bost kilometrora", erantzun hark, "zuhaitza da. Zuhaitzaren inguruan tigreak daude, eta hartzak, eta eskorpioiak eta sugeak; zuhaitzaren puntan sugetzar lodi bat dago; haren buruan, kutxatxoak; kutxatxoan, txoria; txori huraxe da nire arima". Haurjalearen azkena aurreko ipuineko magia-gizonarena bezalakoxea da. Txoriaren hegoak eta hankak erauztean, besoak eta zangoak erortzen zaizkio haurjaleari; eta burua bihurritzen diotenean, hilda erortzen da. Bengalako istorio batean esaten denez, haurjale guztiak Sri Lankan bizi omen dira, eta haien bizi guztiak limoi bakar batean omen daude. Mutiko batek limoia zatikatu, eta haurjale guztiak hiltzen dira.

Jatorria Indian bide duen Siam edo Kanbodiako istorio batean kontatzen zaigunez, Thossakan edo Ravana, Zeilango erregea, gerrara abiatu behar zuenean, gai zen magia bidez arima bere gorputzetik atera eta etxean kutxa batean uzteko. Hartara, guduan ezin izaten zuten zauritu. Behin, Ramarekin gudukatzen zihoanean, Suzko begi izeneko ermitau batekin utzi zuen arima, hark onik gordeko ziolakoan. Hala, batailan, Rama harri eta zur geratu zen ikustean bere geziek erregea jo bai baina ez zutela zauritzen. Baina Ramaren aliatuetako bat, erregearen zauritu ezinaren sekretua jakinik, erregearen antzeko bihurtu zen magiaz, eta ermitauarengana joan eta arima emateko eskatu zion.

Hura jasotakoan, Ramarengana joan zen hegan; arima zeukan kutxa altxatu eta gogor estutu zuen, eta Zeilango erregea arnasarik gabe geratu zen hilda. Bengalako istorio batean lurralde urrun batera zihoan printze batek zuhaitz bat aldatu zuen bere eskuz aitaren jauregiko baratzen, eta honelaxe hitz egin zien gurasoei: "Zuhaitz hau nire arima da. Zuhaitza heze eta bizi ikusten duzueino, jakizue ondo nagoela; ikusten baduzue zuhaitzaren alde batzuk zimeltzen hasten direla, jakizue gaixotasunen bat dudala; eta zuhaitz osoa zimeltzen dela ikusten baduzue, orduan jakizue hil eta zendu naizela". Indiako beste ipuin batean printze bat bidaian abiatu zenean, garagar-landarea utzi zuen atzean, agindu batzuk emanik, alegia, kontu handiz zaindu eta begiratu behar zutela hura. Izan ere, loratzen bazen, bera bizirik eta ondo izango zen, baina makurtzen bazen, zorigaitzen bat zuen seinale. Eta halaxe gertatu zen: printzeari lepoa moztu zioten, eta burua erortzearekin batera, garagar-landarea bitan zartatu eta garagar-burua lurrera erori zen.

Greziako ipuinetan, hala antzinako nola modernoetan, ez da gutxitan agertzen kanpoko arimaren ideia. Meleagrok zazpi egun zituenean, moirak agertu zitzaizkion amari, esanez Meleagro hil egingo zela suteagian zegoen abarra erabat erretzen zenean. Beraz, amak abarra sutatik atera eta kutxa batean gorde zuen. Baina handik urte batzuetara, semearekin amorratuta hark anaiak hil zituelako, sutara bota zuen abarra, eta Meleagro oinaze handiekin hil zen, garrek erraiak jango balizkiote bezala. Orobat, Megarako errege Nisosek ile purpura edo urre-kolore bat zuen buruaren erdian, eta iragarria zitzaion ilea erauziz gero hil egingo zela. Kretarrek Megara setiatu zutenean, erregearen alaba Eszila haien errege Minosekin maitemindu zen, eta ilea aitari burutik erauzi eta hura hil egin zen. Greziako herri-ipuin moderno batean gizon baten indarra buruko hiru ile urrezkotan datza. Amak erauzten dizkionean, hark indarra eta ausardia galtzen ditu, eta etsaiek hil egiten dute. Greziako beste istorio moderno batean, magiagile baten bizia basurde baten sabelean dautzan hiru usori lotuta dago. Lehen usoa hiltzen dutenean, magiagilea gaixotu egiten da; bigarrena hiltzen dutenean, larri-larri jartzen da bera; eta hirugarrena hiltzen dutenean, magiagilea ere hil egiten da. Antzeko beste istorio greko batean, haurjale baten indarra basurde batengan dautzan hiru txori kantarirengan datza. Heroiak bi txori hiltzen ditu, eta haurjalearen etxera joaten denean han aurkitzen du hura lurrean etzanda, min handiekin. Hirugarren txoria erakusten dio, eta haurjaleak erregutzen dio heroiari jaregin dezala txoria, edo eman diezaiola berak jan dezan. Baina heroiak lepoa bihurtzen dio txoriari, eta haurjalea bertan hilda geratzen da.

"Aladino eta lanpara harrigarria" ipuinaren erromatar bertsio moderno batean, magia-gizonak esaten dio printzesari, itsasoaren erdian ur gainean dabilen harkaitz batean baitauka katiba, bera, magia-gizona, ez dela inoiz hilko. Printzesak bere senar printzeari jakinarazten dio, emaztea erreskatatzera etorria baita. Printzeak erantzuten dio: "Hori ezinezkoa da, izan behar du gauzaren bat hura galtzeko; galde iezaiozu zer den gauza hori". Hala, printzesak galdetu zion magia-gizonari, eta honek erantzun zion basoan bazela zazpi buruko hidra bat; hidraren erdiko buruan erbikumea zegoela, erbikumearen buruan txoria, txoriaren buruan harribitxia, eta harri hura beraren burko azpian jarritz gero, hil egingo zela. Printzeak harria eskuratu zuen, eta printzesak magia-gizonaren buruko azpian utzi. Magiagileak burua burko gainean pausatu bezain laster, hiru garrasi latz egin zituen, hiru aldiz jiratu eta hil egin zen.

Era horretako istorioak ugari dira herri eslaviarretan. Hala, Errusiako istorio batek kontatzen du nola Koshtxei Hilezkorra izeneko sorgin batek printzesa bat eraman zuen bere gaztelura, eta han katiba gorde zuen. Alabaina, printze bat agertu zitzaion neskari egun batean, hau, bakarrik eta triste, gazteluko lorategian paseatzen zelarik, eta mutilarekin ihes egiteko itxaropenez, joan sorginarengana eta elexuri lausengatu zuen, esanez: "Nire lagunik minena, esaidazu arren, ez zara inoiz hilko?". "Ez, inoiz ez"

erantzun zion hark. Orduan neskak: "Eta non da bada zure heriotza? Zu bizi zaren egoitzan?". "Hala da", besteak, "ate ondoko erratzean dago". Beraz, printzesak hartu erratza eta sutara bota zuen, baina erratza erre arren, Koshtxei Hilezkorrak bizirik jarraitu zuen; ile bakar bat ere ez zitzaion erre. Lehen saioa ustel gertatu zitzaionez, maltzur hura muzindu egin zen, eta honela esan zion: "Ez nauzu benetan maite, ez didazu esan non den zure heriotza; baina ez naiz haserre, bihotz-bihotzez maite zaitut". Hitz zuri haiekin erregutu zion sorginari esan ziezaiola benetan non zuen heriotza. Hark barrez erantzun zion: "Zergatik jakin nahi duzu? Ondo da, nire maitasunaren frogagarri, esango dizut non den. Landa batean hiru haritz daude, eta haritz luzeenaren sustraien azpian har bat dago, eta inoiz har hori aurkitu eta zanpatzen badute, orduantxe bertan hilko naiz". Printzesak hitzok aditu zituenean, maitearengana joan eta dena kontatu zion; eta hau haritzen bila hasi eta, aurkitu zituenean, lurra zulatu, harra aurkitu eta zanpatu egin zuen. Gero sorginaren gaztelura presatu zen, baina printzesak jakinarazi zion sorgina bizirik zegoela artean. Balakuka eta koipetsu hasi zitzaion berriz ere Koshtxeiri, eta hark, neskaren hitz gozoak limurturik, bihotza zabaldu eta egia esan zion: "Nire heriotza hemendik urrun da, zail dago hura aurkitzea, itsaso erdian baitago. Itsaso horretan bada irla bat, eta irlan haritz heze bat, eta haritzaren azpian burdinazko kutxa, eta kutxan saskitxoa, eta saskitxoan erbia, eta erbiagan ahatea, eta ahateagan arrautza bat; eta arrautza aurkitu eta hauts dezanak, hil egingo nau aldi berean". Printzeak arrautza eskuratu, eta hura eskutan zuela aurre egin zion sorgin hilezkorriari. Mustroak hil behar zuenean, printzea arrautza esku artean sakatzen hasi zen. Orduan sorginak oihu egin zuen minez, eta printzesa gezurtiari buruz jarrita, hau pozik eta irribarretsu baitzegoen, esan zion: "Ez al nizun esan nire maitasunaren frogagarri non zen nire heriotza? Eta horrela ordaintzen didazu?". Hori esatearekin batera ezpata hartzeko keinua egin zuen, hormako gako batetik zintzilik baitzegoen; baina hartu baino lehen printzeak arrautza zanpatu zuen, eta sorgin hilezkorra une hartantxe hil zen. "Koshtxeiren heriotzaren deskribapen batean, arrautza misteriotsuaren kopetakoaz hil omen zen hura, hau da, bizia ezkutupean lotzen zion katea magikoaren azken katebegiaz. Istorio beraren beste aldaera batean, suge bati arrautza baten gorringoan aurkitutako harritxo batek jotzen dio kolpe hilgarria; arrautza ahate baten barruan dago, ahatea erbi baten barruan, erbia harri baten barruan, harria irla batean".

Adar teutoiko herrietan ez dira falta kanpoko arimaren istorioak. Trantsilvaniako saxoniarrek kontatzen duten ipuin batean esaten da gizon gazte batek tiro eta tiro egin ziola sorgin bati. Balek alderik alde pasatzen zuten sorgina, baina ez zioten minik ematen; barre eta burla egiten zion hark. "Zomorro inozo hori", oihukatzen zion, "disparatu nahi duzun guztia. Ez didazu minik ematen. Jakizu nire bizia ez datzala nigan, oso urrun baizik. Mendi batean putzua dago, putzuan ahatea igerian, ahatearen barruan arrautza, arrautzan argi bat dago piztuta; argi horixe da nire bizia. Argi hori itzaliko bazenu, nire biziaren azkena litzateke. Baina hori ez da inoiz gertatuko". Ordea, gizon gazteak arrautza bereganatzea lortu zuen; zanpatu eta argia itzali zuen, eta horrekin batera sorginaren bizia ere amaitu zen. Alemaniar istorio batean Gorputz Arimagabe izeneko kanibal batek kutxa batean gordetzen du arima; kutxa Itsaso Gorriaren erdiko harkaitz batean dago. Soldadu bat jabetzen da kutxaz eta Arimagaberengana joaten da; honek erregutzen dio soldaduari arren itzultzeko arima. Baina soldaduak kutxa ireki, atera arima eta atzealdera botatzen du buru gainetik. Une hartantxe zerraldo erori zen kanibala ere, hilda.

Alemaniko beste istorio batean sorgin zahar bat neska gazte batekin bizi da baso handi eta goibel batean. Neska beldur da sorgina, zaharra izanik, hilko ote den eta basoan bakarrik utziko ote duen. Baina gizonak lasaitu egin nahi du. "Haur maitea" esaten dio, "ni ezin naiz hil, ez dut bihotzik bular barruan". Baina arren eta arren aritu zitzaion

neska, esan ziezaiola non zuen bihotza. Eta hala esan zion gizonak: "Urrun, hemendik oso urrun, lurralde ezezagun eta bakarti batean, eliza handi bat dago. Eliza ondo babestuta dago burdinazko atekin, eta jira guztian ezpondatza sakon bat. Elizan txori bat dabil hegaka, eta txoriagan dago nire bihotza. Txoria bizi deino, ni ere biziko naiz. Berez ez daiteke hil, eta inork ez dezake atxi; beraz, ni ere ezin naiz hil, eta ez duzu larritu beharrik". Hala ere, sorginak bahitu baino lehen neskarekin ezkonduzako mutilak elizara iristea lortu zuen, baita txoria atxitu ere. Neskari eraman zion, eta honek sorginaren ohepean ezkutatu zituen mutila eta txoria. Laster etxeratu zen sorgin zaharra. Gaixorik zetorren, eta hala esan zion neskari. Neska negarrez hasi zen, esanez: "Aitatxo, oraintxe hil behar duzu; esanak esan, baduzu bihotza bular barruan". "Haurra", erantzun zion sorginak, "kontuz zure mihiarekin. Ni ezin naiz hil. Laster pasako zait". Orduan ohepean zegoen mutilak estutu bat eman zion txoriari; eta hori egitean, sorgin zaharra ondoezik sentitu, eta eseri egin zen. Gero mutilak gogorrago estutu zuen txoria, eta sorgina konorterik gabe erori zen aulkitik. "Orain, zampa ezazu hil arte", oihu egin zion neskak. Maitaleak obeditu, eta txoria hil zenean, sorgin zaharra ere hilda geratu zen lurrean.

"Gorputzean bihotzik ez zuen erraldoia" izeneko ipuin norvegiarrean, erraldoiak esaten dio printzesari: "Urrun, oso urrun, laku batean, bada irla bat; irla hartan eliza bat dago, eliza hartan iturria, iturri hartan ahatea igerian, ahate haren barruan arrautza; arrautza hartan datza nire bihotza". Ipuineko heroiak, on egin zien zenbait animalien laguntzaz, arrautza eskuratu eta estutu egin zuen, eta orduan erraldoia garrasika hasi zen erruki eske, bizia ez kentzeko eta ez kentzeko. Baina heroiak puskatu egin zuen arrautza, eta erraldoia lehertu egin zen bat-batean. Norvegiako beste istorio batean mendiko haurjale batek esaten dio printzesa katibuari inoiz ezingo dela etxera itzuli, ez badu sugetzar baten bederatzigarren buruko bederatzigarren hortzean datzan gatz-alea aurkitzen; aldiz, gatz-ale hori haurjaleak bizi diren harkaitzaren gainera itzuliko balitz, denak lehertuko lirarteke "eta harkaitza bera urrezko jauregi bihurtuko litzateke, eta lakua belaze berde". Heroiak gatz-alea aurkitu eta haurjaleak bizi diren harkaitzaren puntara eramaten du. Hala, haurjale guztiak lehertzen dira eta haurjale batek aurrez esan bezala gertatzen da dena.

Eskoziako Highlandseko mendebaldean jasotako ipuin zelta batean, erregina katiba batek galdegiten dio erraldoi bati ea non duen gordeta arima. Azkenez erraldoiak, zenbait aldiz ziria sartu ondoren, azaltzen dio zorigaitzeko sekretua: "Harlauza handi bat dago atalasearen azpian. Han zikiroa dago lauza azpian. Ahate bat dago zikiroaren sabelean, eta arrautza bat ahatearen sabelean, eta arrautzan dago nire arima". Biharamunean, erraldoia joan zenean, erreginak arrautzaz jabetzea lortu eta eskuetan zanpatu zuen, eta une hartantxe erraldoia, ilunean etxera bidean zetorrelarik, hilda erori zen. Beste ipuin zelta batean, itsas piztia batek errege baten alaba bahitu du, eta errementari zahar batek deklaritzen du piztia hura akabatzeko modu bat besterik ez dagoela. "Lakuaren erdian dagoen irlan Eillid Chaisfhion dago, oin zuriko orkatzeme zangoarin ezin bizkorragoa, eta hura harrapatuta ere, amuarrain batez erdituko litzateke, baina arrautza bat dago amuarrainaren ahoan, eta piztiaren arima arrautzan dago, eta arrautza hautsiz gero, piztia hil egingo da". Besteetan bezala, arrautza haustea lortzen dute, eta piztia hil egiten da.

Irlandar istorio batean irakurria dugu nola erraldoi batek preso zuen andere gazte bat mendi baten gaineko gaztelu batean; gaztelua zuria zen, katiba eder hura erreskatatzen alferrik saiatutako zaldun guztien hezurrek zuritua. Azkenean heroiak, erraldoiari aizkorakadak eta labankadak alferrik eman ondoren, jakin zuen hura hiltzeko modu bakarra erraldoiak eskuineko titian zuen orin bat arrautza jakin batez igurtzitzea zela; arrautza ahate batengan zegoen, ahatea kutxa batean, kutxa itsas hondarrean, ondo

giltzatuta eta lotuta. Esker oneko zenbait animaliairen laguntzaz, heroia arrautza preziatu hartaz jabetu zen eta, eskuineko titiko orinaren kontra igurtziz, hil egin zuen. Era berean, Britainiako istorio batean erraldoi bat agertzen da: suak, urak edo altzairuak ez diezaioke minik egin. Aurreko emazte guztiak erail ondoren, esaten dio berarekin ezkondu berri zen zazpigarren emazteari: "Hilezkorra naiz, eta inork ezin dit minik egin bularrean arrautza bat zanpatzen ez didan bitartean; arrautza uso baten barruan dago; usoa, erbi baten sabelean; erbia, otso baten sabelean; eta otso hori nire anaiaren sabelean dago; anaia hemendik zazpi legoara bizi da. Beraz, lasai asko nago". Soldadu batek arrautza eskuratzea lortu, eta erraldoiaren bularrean zanpatu zuen, eta hura bertan hilda geratu zen. Britainiako beste ipuin batean, erraldoi baten bizia gazteluko baratzako ezpel zahar batean dago; eta hura hiltzeko, zuhaitzaren sustrai nagusia moztu behar da, aizkorakada bakar batez eta sustrai txikiagoetako bakar bat ere ukitu gabe. Heroiak, ohi bezala, ondo betetzen du bere egitekoa, eta une hartantxe erraldoia zerraldo erortzen da hilda.

Orain arte, kanpoko arimaren ideia herri ariarrek kontatutako ipuinetan nola azaltzen den ikusi dugu, hasi Indiatik eta Irlandaraino. Oraindik erakutsi beharrean gara ideia hori eskuarki agertzen dela ariar adarrekoak ez diren herrien istorioetan ere. Egiptoko ipuin zahar batean, "Bi anaiak" izenekoan -Ramses II.aren erregealdian idatzia, K.a. 1300 aldera-, irakur daiteke nola anaietako batek sorgindu zuen bihotza eta arkazia baten lore batean jarri zuen, eta nola, emaztearen eraginez lorea moztu zutenean, bertan hilda geratu zen; baina berpiztu egin zen anaiak bihotza arkaziaren fruitu batean aurkitu eta ur freskoz betetako edalontzi batean utzi zuenean.

Seif el-Muluk-en istorioan, Mila eta bat gau obran, jeinuak esaten dio Indiako erregearen alaba katibari: "Ni jaio nintzenean, astrologoek esan zuten nire arima gizakien semeetako baten eskuz suntsituko zela. Beraz, hartu nire arima eta txolarre baten paparoan jarri nuen, eta txolarrea kaxatxo batean sartu nuen, eta hura beste kaxatxo baten barruan, eta beste hau beste zazpi kaxatxoren barruan, eta hauek ere zazpi kutxaren barruan, eta kutxak marmolezko gordailu batean, inguratzen gaituen itsasoaren baitan; alde hori gizakien beste lurraldeetatik urrun baitago, eta ezein gizakik ezin baitu honako biderik egin". Baina Seif el-Muluk txolarreaz jabetu eta irato egin zuen, eta jeinua lurrera erori zen, errauts beltz pilatxo bat bihurtuta. Kabiliar istorio batean haurjale batek aitortzen du bere patua urrun dagoela, arrautza batean; arrautza uso baten barruan dago; usoa gamelu baten barruan; gamelua, itsasoan. Heroiak arrautza eskuratu eta esku artean zanpatzen du, eta haurjalea hil egiten da. Herri-ipuin magiar batean, atso sorgin zahar batek Anbrosio izeneko printze gaztea atxituta dauka lurraren barrunbeetan. Azkenean, atsoak gaztigatzen dio basurdea daukala gordeta belaze eder batean, eta hura hilko balute, erbia aurkituko luketela barruan, eta erbiaren barruan usoa, eta usoaren barruan kaxatxoa, eta kaxatxoaren barruan bi kakalardo, bat beltza eta bestea distiratsua; kakalardo distiratsuak gordetzen zion bizia, eta beltzak, berriz, ahalmena; bi kakalardo haiek hilez gero, bere bizia ere amaitu egingo omen zen. Sorgin zaharra kanpora atera zenean, Anbrosiok hil egin zuen basurdea, eta erbia atera zuen; erbiaren baitatik usoa, usoaren baitatik kaxa, eta kaxatik bi kakalardoak atera zituen; kakalardo beltza akabatu egin zuen, baina distiratsua bizirik gorde zuen. Hala, sorgina ahalik gabe geratu zen berehala, eta etxeratu zenean, oheratu egin behar izan zuen. Atsoak jakinarazi zionean gartzelatik aire zabalera nola aldegin, Anbrosiok kakalardoa akabatu eta sorgin zaharraren izpirituak ere bere jabea utzi zuen. Kalmuken ipuin batean irakurria dugu nola khan batek erronka egin zion azti bati, honek, khanaren bizia zeukan harri bitxi bat lapurtuz, bere trebezia erakutsi zezan. Jakintsuak talismana ostea lortu zuen, khana eta goardiak lo zeudenean; baina hori askietsi beharrean, bere trebetasunaren beste froga bat eman nahi izan zuen, eta maskuri bat kapelu jarri zion lo

zegoen agintariari. Hura gehiegizkoa gertatu, ordea, khanarentzat. Biharamun goizean jakinarazi zion jakintsuari berak edozer barka zezakeela, baina kapelu gisa maskuria eramatea ez; eta lagun jostazalea bertan exekutatzeko agindu zuen. Erregearen esker gaiztoak penaturik, jakintsuak lurrera jaurti zuen artean eskuan zeukan talismana; eta une hartantxe khana odol-jario hasi zen sudurretatik, eta bere arima eman zuen.

Poema tartariar batean Ak Molok eta Bulat izeneko bi heroi hil arteko borrokan lotzen dira. Ak Molokek behin eta berriz sastakatzen du etsaia gezi batez, berarekin heldukatzen da, lurrera botatzen du, baina dena alferrik: Bulat ez zela hiltzen. Azkenean, borroka hiru urtez luzatu denean, Ak Moloken lagun batek urrezko kutxatila bat ikusten du hari zuri batetik ortzitik zintzilik, eta egiten du bere artean beharbada han dagoela Bulaten arima. Beraz, hari zuriari gezia jaurti eta kutxatila eraitsi zuen. Ireki, eta kutxatilan hamar txori zuri aurkitu zituen, eta txorietako bat zen Bulaten arima. Bulatek negar egin zuen kutxatilako arima aurkitu ziotela ikustean. Baina hala ere txoriak bata bestearen atzetik akabatu zituzten denak, eta orduan Ak Molokek erraz hil zuen etsaia. Beste poema tartariar batean, bi anaiak, beste bi anaiaren kontra borrokatzera joan aurretik, beren arimak hartu eta sei zurtoindun landare zuri baten itxuran gorde zituzten zulo sakon batean. Baina etsaietako batek ikusi egin zituen hura egiten, eta arimak zulotik atera eta ahari baten urrezko adarrean ipini zituen, eta gero ahariaren adarra gezi-ontzi batean. Arimak hala lapurtu zizkieten bi soldaduek jakin zuten ez zutela irabazteko aukerarik, eta bakeak egin zituzten etsaiekin. Beste poema tartariar batean deabru izugarri batek erronka egiten die jainko eta heroi guztiei. Azkenean gazte ausart bat deabruarekin borrokatzen da. Esku-hankak lotzen dizkio, eta zati-zati egiten du ezpataz. Baina deabrua ez da hiltzen. Beraz, gazteak galdetzen dio: "Esaidazu, non duzu gordeta arima? Gorputzean ezkutatua balitz aspaldi behar zenukeen hila". Deabruak erantzun zion: "Nire zaldiaren zelan poltsa bat dago. Poltsan, hamabi buruko sugea. Suge horren barruan dago nire arima. Sugea kalitzen duzunean, ni ere hilko nauzu". Beraz, gazteak hartu zelako poltsa zalditik eta hamabi buruko sugea kalitu zuen, eta ondoren deabrua ere hil egin zen. Beste poema tartariar batean Kok Txan izeneko heroiak neska baten esku uzten du bere indarren erdiak dauzkan urrezko eraztuna. Gerora, Kok Txan heroi batekin denbora luzez borrokan aritu eta gero, eta hil ezin duelarik, emakume batek ahora botatzen dio bere indarraren erdia daukan eraztuna eta, indarberriturik, etsaia hiltzen du.

Mongoliar istorio batean, Joro izeneko heroiak bere etsai Tschoridong lamari bere onenak kentzen dizkio honako era honetan. Lamak, magiagilea baitzen, liztor baten itxuran bidaltzen du bere arima, Joro begietan zizta dezan. Baina Jorok eskuetan harrapatzen du liztorra, eta eskua itxi-irekika, lama konortea galdu eta bere onera etorri, galdu eta oneratu, horrela edukitzen du. Poema tartariar batean bi gaztek atso sorgin baten gorputza ebaki eta erraiak ateratzen dizkiote, baina alferrik, hura artean bizirik baitago. Galdetzen diote non duen arima, eta zapata-zolaren erdian duela erantzun hark, zazpi buruko suge titadun baten itxuran. Beraz, gazteetako batek zapata-zola ireki ezpataz, atera suge titaduna, eta zazpi lepoak mozten dizkio, eta animalia hil egiten da. Beste poema tartariar batek deskribatzen du nola Kartaga heroia emakume beltzargarekin borrokatu zen. Denbora luzean borrokatu ziren. Ilargia gora eta behera, eta artean borrokan haiek; urteak joan, urteak etorri, artean borrokan beti. Baina zaldi zuri-beltzak eta zaldi beltzak jakin zuten emakume beltzargak ez zuela arima bere baitan. Lur beltzaren azpian bederatzi itsaso doaz; bederatzi itsasoek bat egiten duten lekuan, itsasoa lurrazalera agertzen da. Bederatzi itsasoen ahoan kobrezko harkaitza altxatzen da; lurraren gainazaleraino ezezik, zeru-lurren artean altxatzen da kobrezko harkaitz hori. Kobrezko harkaitzaren oinean kutxa beltz bat dago, kutxa beltzean urrezko kutxatila, eta urrezko kutxatilan dago beltzargaren arima. Zazpi txoritxo dira

emakume beltzargaren arima; txoriak akabatuz gero, emakume beltzarga ere bertan hilko da. Beraz, zaldiak kobrezko harkaitzaren oineraino lauhazkatzen dira, ireki kutxa beltza, eta urrezko kutxatila ekartzen dute. Orduan zaldi txuri-beltza gizon burubeltz bihurtu zen, ireki zuen urrezko kutxatila eta lepoa moztu zien zazpi txoriei. Halaxe hil zen emakume beltzarga. Beste poema tartariar batean, heroia arrebaren atzetik dabil neskak ganadua urrundu diolako; jazartze hari uzteko abisatzen diote, arrebak arima lapurtu diolako eta urrezko ezpatan eta urrezko gezian utzi duelako; eta jazartzen badio hil egingo omen du urrezko ezpata edo urrezko gezia jaurtiz.

Poema malaiar batek kontatzen du nola behin batean, Indrapurako hirian, bazen merkatari bat, aberats-aberatsa, baina seme-alabarik ez zuena. Egun batez, emaztearekin paseoan zebilela ibai ondoan, neskato bat aurkitu zuten, aingerua bezain polita. Hura alabatzat hartu eta Bidasari deitu zioten. Merkatariak urrezko arrain bat egiteko agindu zuen, eta arrain hartara aldarazi zuen alabaordearen arima. Gero, urez betetako urrezko kaxa batean sartu zuen urrezko arraina, eta baratza erdiko urmael batean ipini zuen. Denbora pasatu zen, eta neska hazi egin zen, baita emakume eder bihurtu ere. Indrapurako erregeak erregina gazte ederra zuen, beldurrez bizi zena erregeak beste bigarren emazte bat ez ote zuen hartuko. Hala, Bidasariren edertasunaren berri izanik, erreginak hura bidetik kentzea erabaki zuen. Neska amarruen bidez jauregira ekarri eta han ankerki torturatu zuen; baina Bidasari ezin zen hil, arima ez baitzuen bere baitan. Azkenean, tortura denbora gehiagoz eraman ezinik, esan zion erreginari: "Hil nahi banauzu, nire aitaren baratzako urmaelean dagoen kaxa ekarri beharko duzu". Hala, ekarri kaxa eta ireki egin zuten, eta han zegoen urrezko arraina uretan. Neskak esan zuen: "Nire arima arrain horretan dago. Goizetan arraina uretatik atera behar duzu, eta arratsaldean atzera uretan jarri behar duzu. Ez utzi arraina edonon, baizik eta lotu zeure lepo inguruan. Hori egiten baduzu, laster hilko naiz". Hortaz, erreginak kaxatik atera zuen arraina eta bere lepoaren jiran lotu zuen; eta hori egin bezain laster, Bidasarik konortea galdu zuen. Baina arratsaldean, erreginak arraina atzera uretan utzi zuenean, Bidasari bere onera etorri zen. Ikusiz hartara neska bere mende zuela, erreginak gurasordeen etxera bidali zuen. Neska halako pertsekuziotik libratzeko, gurasoek alaba hiritik ateratzea erabaki zuten. Beraz, leku bakarti eta mortu batean etxea eraiki eta hara eraman zuten Bidasari. Han bizi zen hura bakarrik, arima zeukan urrezko arrainaren gorabeherak jasanez. Egun osoan zehar, arraina uretatik kanpo zegoenean, konorterik gabe egoten zen; baina arratsaldean, arraina uretan uzten zutenean, berpiztu egiten zen. Egun batez erregea ehizara abiatu zen eta, Bidasari konorterik gabe zegoen lekura iritsirik, harrituta geratu zen haren edertasuna ikustean. Esnatzen saiatu zen, baina alferrik. Biharamun arratsaldean, berriro egin zion bisita, baina orduan ere korderik gabe aurkitu zuen. Ordea, ilundu zuenean, bere onera etorri eta bere biziaren sekretua kontatu zion erregeari. Hala, erregea jauregira itzuli, kendu arraina erreginari, eta uretan ipini zuen. Une hartantxe Bidasari berpiztu egin zen, eta erregeak emaztetzat hartu zuen. Kanpoko arima baten beste istorio bat Niastik datorkigu, Sumatraren mendebaldeko irla batetik. Behin batean, buruzagi bat preso hartu zuten etsaiek, eta hil egin nahi zuten, baina ezin. Urak ez zuen itotzen, suak ez zuen erretzen, eta altzairuak ez zuen zauritzen. Azkenean, emazteak jakinarazi zien sekretua: buruan kobrezko haria bezain gogorra zen ile bat zuela, eta hari hartan lotuta zuela bizia. Hala, erauzi egin zioten ilea, eta horrekin batera haren izpiritua hegaldatu egin zen.

Nigeriako hegoaldeko istorio batek kontatzen du nola errege batek txoritxo nabar batengan gordetzen zuen arima; txoritxoak tantai batean bizi zen, jauregiaren ate ondoan. Erregearen bizia harekin erabat lotuta zegoen, hala non txoria hiltzen zuenak erregea hilko baitzuen batera, eta erregetza eskuratuko zuen. Erreginak bere maitaleari jakinarazi zion sekretua, eta hark txoria gezikatu eta hala hil zuen erregea, eta hutsik

geratutako tronura igo zen. Hegoafrikako Ba-Ronga tribukoek kontatzen duten ipuin baten arabera, familia oso baten biziak katu batengan zeuden. Familiako neska bat, Titishan izenekoa, ezkondu zenean, eskatu zien gurasoei utzi ziezaiotela katu preziatu hura hartzen, etxe berrira eramateko. Baina haiek ukatu egin zioten, esanez: "Badakizu gure bizia horrenari lotuta dagoela"; eta antilopea edota are elefantea ere eskaini zioten katuaren orde. Baina hark ez zuen nahi ezer, katua besterik. Beraz, azkenean berekin eramane zuen katu hori, eta inork ikus ez zezakeen leku batean gorde zuen; senarrak berak ere ez zekien ezertxo ere hartaz. Egun batez, neska sorora lanera joan zenean, katuak ihes egin zuen bere itxituratik; sartu etxolan, jantzi senarraren gerra-tresnak eta kantuan eta dantzan hasi zen. Haur batzuk, zaratak bertaratuta, zilipurdika ikusi zuten katua, eta beren harridura agertu zutenean, animaliak areagotu egin zituen bere dantzak, eta gainera iraindu egin zituen. Beraz, haiek jabearengana joan eta esan zioten: "Norbait dantzan ari da zure etxean, eta iraindu egin gaitu". "Zaudete isilik", hark, "laster isilaraziko zaituztet bestela". Hala, joan eta ate ostean ezkutatu zen, barrualdera begira, eta hantxe zebilen katua dantza-lardaska hartan kantuan. Tiro egin zion, eta aberea akabatu zuen. Aldi berean, emaztea lurrera erori zen lanean ari zen soroan; honela esan zuen: "Etxean hil naute". Baina artean nahikoa indar izan zuen senarrari eskatzeko berekin joan zedila gurasoen herrira, katu hila estalki batean bilduta eramanez. Emakumearen senide guztiak bildu ziren, eta saminki aurpegiratu zioten aberea senarraren herrira eramaten setatu izana. Estalkia destolestu eta katua ikusi bezain laster, denak erori ziren zerraldo hilda, bat bestearen atzetik. Halaxe desegin zen katuaren klana; eta senar atsekabetuak abar batez itxi zuen herriko atea, eta etxera itzuli zen, eta kontatu zien lagunei nola katua hiltzean klan osoa hil zuen, haien biziak katuaren biziaren menpe zeudelako.

Era bereko ideiak aurkitzen ditugu Iparramerikako indiarren artean ere. Hala, navajoeek kontatzen dutenez, "hartz bihurtzen den neska" deitzen dioten izaki mitiko batek hartz bihurtzeko modua ikasi zuen belazeetako otsoagandik. Gerrari handia zen, eta ia zauriezina; gerrara joaten zenean, bere organo nagusiak beragandik atera eta ezkutatu egiten zituen, eta inork ez zezakeen hil; eta gudua amaitutakoan atzera beren lekuetan ezartzen zituen organoak. Britainiar Columbiako kwakiutl indiarrek kontatzen dute inork ezin zuela haurjale eme bat hil, bizia astaperrexil handi batean zuelako. Mutil ausart batek neskarekin topo egin zuen basoetan; burua zanpatu zion harri batez, burmuinak atera, hezurak hautsi eta uretara bota zituen. Gero, haurjale emea garbitu zuelakoan, etxeratu egin zen. Han emakume bat ikusi zuen lurrean sustraituta. Emakumeak abisu eman zion: "Ez zaitez denbora askoan geratu. Badakit haurjale emea hiltzen saiatu zarela. Laugarren aldia da inor hura hiltzen saiatzen dela. Inoiz ez da hiltzen, ordea; berehala pizten da. Han, estalitako astaperrexil handi haren abarrean du bizia. Zoaz, eta haurjale emea sartzen ikusi bezain laster, disparatu haren biziari. Orduan hilko da". Hitz egiten amaitu orduko, han zetorren haurjale emea, kantuan. Baina mutilak disparatu egin zion haren biziari, eta hura hilda erori zen.

lxvii

Kanpoko arima herri-ohituretan

1. Kanpoko arima bizigabeetan

Herri askoren ipuinetan aurkitzen dugu ideia hau, alegia, arima, denbora luzeagoz edo laburragoz, gorputzaz kanpoko leku segururen batean ezar daitekeela. Orain erakutsiko dugu ideia hori ez dela ipuina apaintzeko asmatutako zerbait, primitiboen benetako fede-artikulu baizik, usadio-multzoa sorrarazi duena.

Ipuinetan ikusi dugunez, heroiak, batzuetan, batailarako prestatzeko, gorputzetik ateratzen du arima, zertarako eta borrokan gorputza zauriezin eta hilezkor gerta dadin. Asmo horrekin ateratzen du basatiak ere bere arima gorputzetik, benetako edo

alegiatzko arriskuren bat denean. Hala, Celebesko Minahassako jendearen artean, familia bat etxe berrira aldatzen denean, apaiz batek familia osoaren arimak biltzen ditu zaku batean, eta ondoren jabeei itzultzen dizkie, zeren eta etxe berri batean sartzeko unea, ustez, naturaz gairik arriskuz beteta baitago. Celebesko hegoaldean, emakume bat haurgintzan ari denean, sendagileari edo emaginari deitzen dion mezulariak burdinazko zerbait eramaten du beti aldean, marraza bat kasu, eta sendagileari ematen dio. Sendagileak etxean gorde behar izaten du gauza hori erdiondoa amaitu arte, eta orduan itzuli egiten du, gauza horren truke dirutza bat jasoz. Marraza edo dena delakoak emakumearen arima ordezkatzeko du; une larri horretan seguruago omen dago gorputzetik kanpo gorputzean baino. Horregatik, sendagileak kontu handia izan behar du gauza horrekin; izan ere, galduko balitz, emakumearen arima ere harekin batera galduko omen litzateke.

Pinoehko daiaken artean -Borneoko hegoekialdeko eskualde batean, alegia-, haurra jaiotzen denean, magiagile bat bidaltzen dute haurraren arima koko-erdi batean konjura dezan; gero zapi batez estaltzen du koko-erdia, eta sabaitik esekitako bandeja edo erratilu karratu batean ipintzen du. Zeremonia hori ilberriro berregiten du urtebetez. Zeremonia deskribatzen duen idazleak ez du azaltzen zer xede duen, baina pentsa genezake hauxe dela: haurraren arima beraren gorputz ahula baino leku seguruagoan jartzea. Aieru hori berresten du beste nonbait, Indiar artxipelagoan, duten antzeko usadio baterako emandako arrazoiak. Kei irletan, etxe batean haur jaio berria denean, erdibitu eta atzera batutako koko huts bat ikus daiteke batzuetan arbaso baten zurezko irudi traukil baten ondoan. Haurraren arima aldi batez kokoa egoten omen da, zertarako eta izpiritu gaiztoen erasoetatik babestua egon dadin. Baina haurra hazten eta indartzen denean, arimak gorputzean hartuko dio betiko egoitza. Era berean, Alaskako eskimalen artean, haur bat gaixorik dagoenean, magia-gizonak batzuetan gorputzetik aterako dio arima, eta amuleto batean ezarriko du segurtasunaren kariaz; are segurtasun handiagoa izateko, sendagaien zakuan sartuko du amuletoa. Baliteke amuleto asko berdintsu hartu izana -arima-kaxa gisa, alegia-, hau da, jabeen arimak segurtasun handiagoaren kariaz gordetzen dituzten gordailu gisa. Emakume mang'anje zahar batek, Ertafrika Britainiarreko West Shire eskualdean, bolizko apaingarria erabili ohi zuen lepoan, barren-hutsa eta hiru bat hazbete luze; bere bizia edo arima deitzen zion. Jakina, ez zeukan hartatik banantzerik; landaketari batek erosi nahi izan zion, baina alferrik. Egun batez, James Macdonald jauna buruzagi hluhi baten etxean eserita zegoelarik gizon handi hura noiz agertuko zain, buru-belarri ari baitzen bere burua apaintzen, natibo batek idi-adar pare ederra seinalatu eta esan zion: "Ntamek adar horietan du arima". Adarrak sakrifikatutako animalia batenak ziren, eta sakratutzat zeuzkaten. Magia-gizon batek sabaian lotuak zituen etxea eta etxeak oinaztutatik babesteko. "Ideia hori" eransten du Macdonald jaunak, "ez da inolaz ere arrotza Hegoafrikako pentsaeran. Gizon baten arima etxe sabaian bizi daiteke, zuhaitz batean, iturri baten ondoan, edota mendiko harkaitzen batean". Britainia Berriko Gazelle penintsulako natiboen artean bada elkarte sekretu bat, Ingriet edo Ingiet izenekoa. Hara sartzean, gizon guztiek gizaki edo animalia baten itxurako harria hartzen dute, eta aurrerantzean beren arima harri hari nolabait lotuta geratzen dela jotzen dute. Harria haustea iragarpen txarra izango da jabearentzat; esaten dute trumoiak harria jo duela, eta harri hura daukana laster hilko dela. Halaz guztiz ere gizonak bizirik jarraitzen badu bere arima-harria hautsi eta gero, esaten da hura ez zela benetako arima-harria, eta beste bat hartzen du haren ordezt. Behin, astronomo batek jakinarazi zion Romanus Lecapenus enperadoreari Simeon Bulgariako printzearen bizia Konstantinoplako zutarri batean lotuta zegoela, eta zutarri haren kapitela mugituz gero, Simeon berehala hilko zela.

Enperadoreak, hartaz baliatuta, kapitela mugiarazi zuen, eta une hartantxe, halaxe jakin ahal izan zuen enperadoreak, Simeon bihotzekoak jota hil zen Bulgarian.

Orobat, herri-ipuinetan ikusi dugu gizon baten arima edo indarra batzuetan bere ilean lotuta bezala irudikatzen dela, eta ilea mozten duenean hil edo ahuldu egiten dela. Hala, Anboinakoez pentsatzen zuten ilean zutela indarra, eta hura moztuz gero galdu egingo zutela. Irla hartako epaimahai holandar batek kriminal bat torturapean jarri zuenean, hura bere errua ukatu eta ukatu setatu zen, harik eta ilea moztu zioten arte; orduan berehala aitortu omen zuen dena. Gizon batek, hilketa batengatik epaitu zutenean, torturatzaileen abildaderik handienak eraman zituen, harik eta zirujau bat guraize pare batekin ikusi zuen arte. Ea guraizeak zertarako ziren galdetu zuen, eta erantzun ziotenean ilea mozteko zirela, arrenka hasi zitzairen, ez zezatela halakorik egin, eta den-dena aitortu zuen. Handik aurrerako kasuetan, preso bati aitorrarazterakoan torturak huts egiten zuenean, holandar agintariak ohitura bihurtu zuten ilea mozteak.

Hemen, European, uste zen sorginek ilean zituztela bere ahalmen gaiztoak, eta ezerk ezin ziela inolako arrastorik egin gizatxar haiei ilea zuten bitartean. Horregatik, Frantzian, sorginkeri salaketa egiten zitzairen pertsonen gorputz osoko ileak moztu ohi zizkieten torturatzaileen aurrera eraman baino lehen. Millaeus lekuko izan zen nola Tolosan zenbait pertsona torturatu zituzten; ez omen zieten inolako aitorpenik atera harik eta biluztu eta erabat ilegabetu zituzten arte. Itxuraz bizimodu txukuna zeraman emakume bat ere torturatu egin zuten, sorgina zelako susmopean, eta sekulako sendotasunez eraman zituen oinaze guztiak, baina erabat ilegabetu zutenean bere errua aitortu omen zuen. Sprenger inkisidore ospetsuak askietsi egiten zuen sorgin-susmoa bereganatzen zuenari ilea mozteak; baina haren kide Cumanusek, askoz gogorragoa izaki, berrogeita zazpi emakumeren gorputzak ilegabetu zituen garretara bidali baino lehen. Aginpide osoa zuen azterketa latz hartarako, zeren eta Satanek berak, North Berwickeko elizako pulpitotik botatako sermoi batean, adoretu baitzituen bere zerbitzari ugariak, segurtatu zielarik ez zutela inolako gaitzik izango "ilea zuten bitartean, eta begietatik malkorik isurtzen ez zuten bitartean". Era berean Bastarren, Indiako probintzia batean, "gizon bat sorginkeriaz errudun dela epaitzen badute, jendetza joka hasten zaio, ilea mozten diote, gaizkirako indarra ilean daukalakoan; aurreko hortzak hausten dizkiote konjurioak murmurka ez ditzan... Sorginkeriaz susmagarri diren emakumeek froga bera jasan behar izaten dute; errudun jotzen badituzte, zigor bera ematen zaie, eta ilea moztu eta zuhaitz batean lotzen dituzte ageriko lekuren batean". Indiako bhiltarreen artean ere, emakume bati sorginkeria egozten ziotenean eta hainbat erataria limurtzen saiatu ondoren (hala nola zuhaitz batetik buruz behera esekiz eta begietan pipermina ezarriz), ile-xerloa moztu eta lurperatu egiten zioten, "emakumearen eta gaiztorako ahalen arteko lotura guztiak hautsita gera zitezen". Era beretsuan, Mexikoko azteken artean, sorginek "beren jukutriak egiten zituztenean, eta haien bizi gorrotagarriari fin emateko denbora etortzen zenean, batzuek heldu eta buruko kalparreko ilea mozten zieten, handik hartzen baitzuten sorginkeriarako eta konjurioetarako indar guztia, eta gero hil egiten zituzten haien bizitza gorrotagarriari fin emateko".

2. Kanpoko arima landareetan

Erakutsi da, halaber, herri-ipuinetan pertsona baten bizia hain lotuta egoten dela batzuetan landare baten biziarekin non, landarea zimelduz gero, pertsona berehala hilko baita, edo alderantziz, pertsona hilez gero, landarea zimeldu egingo baita. Afrikako mendebaldeko m'benzen artean, Gabon aldean, bi haur egun berean jaiotzen direnean, jendeak mota bereko bi zuhaitz landatzen ditu, eta dantza egiten du inguruan. Haur bakoitzaren bizia bi zuhaitzetako batekin lotuta dagoela sinesten dute; eta zuhaitza ihartzen bada edo botatzen badute, haurra ere laster hilko den seinale. Kamerunen ere, pertsona baten bizia sinpatiaz lotuta omen dago zuhaitz batenarekin. Calabarko Old

Towngo buruzagiak zuhaitzi sakratu batean gordetzen zuen arima, iturri baten hurbilean. Zenbait europarrek, dibertsioa izate aldera edo ezjakintasunez, hango zuhai batzuk bota zituztenean, izpiritua izugarri sumindu omen zen erregeak zioenez, eta balentria haren egileak era guztietako kalteekin mehatxatu zituen.

Papuar batzuek jaio berri baten bizia zuhaitz batenarekin lotzen dute sinpatiaz, harri-kozkor bat sartuz zuhaitzaren azal barruan. Horrek guztizko eskua ematen omen die haurraren biziaren gainean; zuhaitza botaz gero, haurra hil egingo da. Jaiotza baten ondoren, maoriek leku sakratu batean ehorzten zuten zilborrestea, eta zuhaitz gaztea landatzen zuten gainean. Zuhaitza hazten bazen, hori tohu orangea zen, haurra biziko zelako seinalea; loratzen bazen, haurra handi egingo zen; zimeltzen edo ihartzen bazen, gurasoek iragarpen txarrena ateratzen zuten txikiarentzat. Fijiko alde batzuetan mutiko baten zilborrestea landatzen dute kokondo batekin edo ogi-arbola baten aldaka batekin batera, eta pentsatzen da haurraren bizia mamiki lotuta dagoela zuhaitzarenarekin. Landak eta Tajango daiaken artean -Holandar Borneoko bi eskualde dira horiek-, usadioa da frutarbola landatzea haur bakoitzeko, eta herri-sinestearen arabera, aurrerantzean haurraren patua zuhaitzarenarekin lotuta geratzen omen da. Zuhaitza laster ernetzen bada, haurrak on izango du; baina zuhaitza erkin edo oker etortzen bada, zorigaitza besterik ez du izango haren pareko gizakiak.

Errusian, Alemanian, Ingalaterran, Frantzia eta Italian ba omen dira ohitura hori duten familiak: zuhaitz bat landatzen dute haurra jaiotakoan. Zuhaitz hori, hala espero izaten dute, haurrarekin batera haziko da, eta arreta bereziz zaintzen dute. Usadioa oso zabalduta dago oraindik Suitzako Aargau kantoian; sagarrondoa landatzen dute mutikoa jaiotzen denean, eta madariondoa neska jaiotzen denean, eta jendeak pentsatzen du haurra zuhaitzarekin batera loratu edo makalduko dela. Mecklenburgen urzorroa zuhaitz gazte baten oinean botatzen da, eta sinestea da haurra zuhaitzarekin batera haziko dela. Edinburgetik oso urrun ez dagoen Dalhousieko gaztelutik gertu, Edgewell izeneko haritz bat dago; herriak uste du lotura misteriotsu batek lotzen duela familiaren patuarekin; familiako norbait hiltzen denean, edo hiltzeaz dagoenean, abar bat erortzen omen zaio Edgewell zuhaitzari. Hala, abar handi bat zuhaitzetik erortzen ikustean, 1874ko uztailaren egun lasai batean, basozain zahar batek haxe esan omen zuen: "Kondea hil da oraintxe!", eta laster etorri ziren berriak, Fox Maule, Dalhousieko hamazazpigarren kondea, hila omen zela.

Ingalaterran batzuetan lizar zartatu batetik pasatzen dituzte haurrak, hernia edo hebaintasuna sendatzeko, eta hortik aurrera uste izaten dute sinpatiazko lotura egoten dela haien eta zuhaitzaren artean. Horretarako erabilitako lizar bat hazten zen Shirley Heathen ertzean, Hockly Housetik Birminghamera doan bidean. "Thomas Chillingworth, ondoko etxalde bateko jabearen semea, hogeita hamalau bat urte dituen, antzeko zuhaitz baten artetik pasatu zuten urtebeteko haurra zenean; oraindik ere guztiz osoa dago zuhaitz hori, eta hain kontu handiz zaintzen du, non ez dion inori utziko abar bat ukitzen, sinesten baita gaixoaren bizia zuhaitzaren biziaren menpean dagoela, eta hura moztean, gaixotasuna oso urrun egon arren, berriro egiten dela, eta handitua ere berriro eta azkenean heriotza etortzen dela; halaxe gertatu zitzaion bide hartatik gurdi bat zeraman gizon bati". "Ez da arraroa, ordea", eranstean du idazleak, "pertsonak aldi batez bizirik irautea zuhaitza erori ondoren". Sendaketa egiteko modu arrunta haxe da: lizar-aldaka gaztea luzetara zartatzen dute oin batzuen luzeran, eta haurra handik pasatzen dute biluzik, hiru bider edo hirutan hiru bider, eguzkia irtetean. Ingalaterrako mendebaldean esan ohi dutenez, pasatze hori "eguzkiaren kontra" egin behar da. Zeremonia egin bezain laster, zuhaitza gogor lotzen dute eta zartatua buztinez edo lokatzez estaltzen da. Sinestea da zuhaitzeko zartatua itxi ahala, haurraren gorputzeko haustura ere halaxe sendatzen dela; baina zuhaitzeko arrailak irekita jarraitzen badu,

haurraren hausturak ere hala jarraituko omen du, eta zuhaitza hilko balitz, ondotik haurra ere hil egingo litzateke seguruenik.

Europako beste alde batzuetan, hala nola Alemania, Frantzia, Danimarka eta Suedian, antzeko sendabidea dute hainbat gaixotasunentzat, baina batez ere hernia eta hebaintasunarentzat; baina herrialde horietan hartarako ez da erabiltzen lizarra, haritza baino; batzuetan sahats bat ere bai. Mecklenburgen, Ingalaterran bezala, zuhaitzaren eta haurraren artean ezarritako harreman hori hain estua dela pentsatzen dute non, zuhaitza ebakiz gero, haurra hil egingo baita.

3. Kanpoko arima animalienengan

Baina praktikan, herri-ipuinetan bezala, herri-ohituretan pertsona bat gauza bizigabeekin eta landareekin bakarrik ez da bat egiten sinpatia fisikozko loturaren bidez. Lotura berbera egon liteke, hala jotzen da, gizon baten eta animalia baten artean -baten ongizatea bestearen ongizatearen arabera- litzateke-, eta animalia hiltzen denean gizona ere hil egiten da. Ohituraren eta ipuinen arteko analogia oso estua da; bietan, arima gorputzetik ateratzeko eta animalia batean gordetzeko ahala sorginen pribilegio berezia izaten da askotan. Adibidez, Siberiako jakutiarrek sinesten dute shaman edo magiagile guztiek gordetzen dutela arima, edo beren arimetako bat, mundu guztiaren ezkutuan dagoen animalia batengan. "Inork ez dezake aurki nire kanpoko arima", zioen magiagile famatu batek, "ezkutuan dago urrun, Edzhiganskeko mendi harrizuetan". Urtean behin bakarrik, azken elurak urtu eta lurra belzten denean, agertzen dira magiagile horien kanpoko arimak animalien itxuran gizakien bizilekuetara. Batera eta bestera ibiltzen dira noraezean, baina inork ez ditzake ikus, magiagileek ezik. Indartsuenak orroka eta zaratatsu pasatzen dira; ahulak, berriz, isil-gordeka. Sarritan borrokatzen dira, eta orduan arima kolpatzen dioten sorgina gaixotu edo hil egiten da. Magiagile ahulen eta koldarrenak zakur-itxura hartu ohi dute, zakurrak ez baitio bakerik ematen bere giza dobleari; aldiz, bihotza hozkatu eta gorputza zehatzen dio. Magiagilerik indartsuenean arimek garaino, altze, hartz beltz, arrano edo basurdeen itxura hartzen dute. Orobat, Turukhinskeko eskualdeko samoiedoek diotenez, shaman guztiek dute basurde-itxurako izpiritu lagun bat, uhal magiko batetik lotuta eramaten dutena. Basurdea hiltzean, shamana ere hil egiten omen da; eta sorgin eta aztien arteko borroken istorioak kontatzen dira: beren izpirituak bidaltzen omen dituzte, elkarrekin buruz buru topatu aurretik borroka daitezen. Malaiarrek sinesten dute "pertsona baten arima beste norbaitengana edo animalia batengana pasa daitekeela, edota oso harreman misteriotsua sor daitekeela bien artean, bataren patua bestearen patuaren menpean egoterraino erabat".

Motako melanesiarrek -Hebrida Berrietako irla batekoek, alegia-, kanpoko arimaren ikusmoldea praktikan bizi dute egunero. Motako hizkuntzan, tamaniu hitzak "zerbait biziduna edo bizigabea" esan nahi du, norbaitek tamaniu horrek berekin estu lotutako izaera duela sinesten duelarik... Motan denek ez omen zuten beren tamaniu hori; gizon bakar batzuek imajinatzen zuten harreman horiek zituztela musker edo suge batekin, edota harri batekin; batzuetan gauza hori bilatu eta aurkitu egiten zen, nola eta hosto batzuen salda edanez eta hondarrak pilan jarritz; ondoren, pila hartan ikusten zen lehen biziduna izaten zen tamaniua. Kontuz zaintzen zuten, baina ez zuten jaten edo gurtzen; bertakoek sinesten zuten deituz gero etorri egiten zela, eta gizonaren bizia bere tamaniuaren biziarekin edo osasunarekin lotuta zegoela, hau biziduna bazen; hilez gero, edota bizigabea izanik hautsi edo galduz gero, gizona ere hil egiten zela. Horregatik, gaixorik egonez gero, norbait bidaltzen zuten ea tamaniua bizirik eta ongi zegoen ikustera".

Animalia batengan ezarritako kanpoko arimaren teoria nagusi da, dirudienez, Afrikako mendebaldean, batez ere Nigeria, Kamerun eta Gabonen. Gabongo fangen artean,

magiagile guztiek, inimizio-zeremonian, beren bizia eta piztia jakin batena batzen omen dituzte odol-ahaidegoko errito baten bidez; magiagileak odola ateratzen du animaliairen belarritik eta bere besotik, eta animalia bere odola txertatzen dio, eta bere buruari piztiarena. Hortik aurrera, hain batasun estua ezartzen da bien artean, non bata hiltzeak bestea hiltzea dakarren. Aliantza horrek ahalmen handiak ekartzen omen dizkio magiagile edo sorginari, eta bere alde erabiliko ditu hainbat modutan. Lehenik, ipuin harrigarrietako aztiak bizia beregandik kanpo uzten duen bezala, sorgile fangak ere zauriezintzat jotzen du bere burua. Gainera, odola trukaturako animalia senide bihurtu zaio, eta ematen dion edozein agindu obedituko dio; beraz, etsaiei kalte egiteko eta hiltzeko erabiltzen du. Hori dela eta, odol-ahaidegoko harremana ezartzen duen izakia inoiz ez da izaten animalia bezatu edo etxaberea, baizik eta piztia basa eta arriskutsuren bat, hala nola leopardo, suge beltza, putrea, hontza, edo gaueko beste hegaztiren bat. Kasu guztietan, aztiarekin aliantza mistikoan lotutako piztia edo txoria banakoa izan ohi da, inoiz ez espeziea; eta animalia jakin hori hiltzen denean aliantza amaitu egiten da, animaliairen heriotzak gizonarena ekartzen duela jotzen baita.

Antzeko sinesteak dituzte Cross ibaiaren haranekoek ere, Kamerungo probintzietan. Jende-taldeek, gehienetan herrixka bateko biztanleek, hainbat animalia aukeratu dituzte, eta uste dute oso harreman estu eta adiskidantza-koetan daudela haiekin. Animalia horiek, besteak beste, hipopotamoak, elefanteak, leopardoak, krokodiloak, gorilak, arrainak eta sugeak dira, denak ere oso indartsuak edota uretan nahiz basartean erraz ezkututzen dakitenak. Ezkutatzeko ahal hori ezinbesteko baldintza omen da animalia senideak aukeratzekoan, animalia lagun edo laguntzaile horrek jabearen etsaiari ekingo baitio ustekabeen eraso diezaion; esate baterako, hipopotamoa bada, uretatik bat-batean irten eta etsaiaren kanoa irauliko du. Animalien eta gizaki lagun edo senideen artean harreman sinpatiazkoa dagoela uste da: animalia hiltzen den unean bertan hiltzen da gizona ere. Era berean, gizona hilez gero, halaxe hilko da piztia. Horren ondorioa hau da, alegia, animalia senideari ezin zaiola inoiz tirorik egin edo jazarri, berorien biziarekin bat eginda dauden pertsonak hiltzeko edo zauritzeko beldurrez. Hala ere, horrek ez du esan nahi herritarrek, laguntzat elefanteak izan arren, elefanteak ehizatuko ez dituztenik. Ez dituzte errespetatzen espezie osoak, baizik eta espezieetako zenbait banako, gizon edo emakume jakin batzuekin harreman estuetan daudenak; eta imajinatzen dute beti bereiz ditzaketela beren anai-arreba elefanteak elefante huts besterik ez diren elefanteen saldotik. Ezagutze hori elkarrekikoa omen da. Laguntzat elefantea daukan ehiztariak giza elefante bat -nolabait deitzez- topatzen duenean, animalia nobleak hanka bat altxatzen omen du eta aurpegi aurrean eusten dio, modu horretan "ez tiro egin" esan nahiko balu bezala. Ehiztaria elefante horri tiro egiteko bezain gizatxarra balitz, bizia elefantearekin lotuta duen gizona gaixotu egingo litzateke.

Kamerungo balongdarrek pentsatzen dute gizon guztiek dituztela zenbait arima, bat gorputzean eta beste bat animalia batengan, hala nola elefante, basurde, leopardo edo bestelakoren batean. Gizonen bat ondoezik etxeratzen bada, "laster hilko naiz" esanez, eta ondoren hil egiten bada, jendeak esaten du haren arima bat hil dutela basurde batengan edo leopardo batengan, eta kanpoko arimaren heriotzak gorputzeko arimaren heriotza ekarri diola. Antzeko sinեսmena dute iboek ere, Nigerren deltako tribu ezagun batek, bizidunen kanpoko arimetan. Sinesten dute gizon baten izpirituak gorputzetik aldegin dezakeela aldi batez, eta animalia batengan har dezakeela egoitza. Ahalmen hori lortu nahi lukeen gizonak droga bat eskuratu aztiren bategandik eta janariekin nahasten du. Horren ondoren, arima gorputzetik irtengo da, eta animalia batengan sartuko. Gertatuko balitz animalia gizonaren arima bertan den bitartean hiltzea, gizona hil egingo litzateke; eta animalia zaurituko balute, gizonaren gorputza zornatu egingo litzateke.

Sineste horrek jokabide ilun asko eragiten ditu. Esate baterako, gizatxarren batek, ezkutuan, etsaiari droga eman liezaioke janaritan nahastuta; bestearen arima animalia batengana pasatuko litzateke; ondoren, lehen gizonak hil egin lezake izaki hori, eta izakia erekin batera bertan egoitza hartutako arimaren jabe den gizona bera.

Calabarko beltzek, Niger ibaiaren bokalean, sinesten dute pertsona orok lau arima dituela, eta horietarik bat gorputzetik kanpo bizi dela beti, basoko piztia baten itxuran. Kanpoko arima hori, basarima deitzen dio Kingsley andereñoak, ia edozein animalia izan daiteke, esate baterako leopardo, arraina edo dortoka; baina inoiz ez da izaten etxaberea edo landarea. Bigarren ikusmenaren dohainik ez badu, gizon batek ez dauka bere basarima ikusterik, baina aziti batek esango dio zer izaki-mota den, eta ondotik gizona kontuz ibiliko da espezie horretako animaliarik ez akabatzeko, eta kontra egingo dio gogor halakorik egiten duenari. Gizon batek eta bere semeek animali mota berberetako basarimak izaten dituzte, eta ama batek eta bere alabek ere bai. Baina batzuetan familia bateko seme-alaba guztiek hartzen dute aitaren animali mota basarimatza; esate baterako, aitaren kanpoko arima leopardo bada, seme eta alaba guztiek leopardoak izango dituzte beren kanpo-arimatza. Batzuetan alderantziz jokatzen dute, amaren ildotik; adibidez, amaren kanpoko arima dortoka bada, seme eta alaben kanpoko arima guztiak ere dortokak izango dira. Hain estu lotuta dago gizonaren bizi bere kanpoko arima edo basarimatza daukan animalia erekin, non animalia hiltzeak edo zauritzeak ezinbestean baitakar gizona hiltzea edo zauritzea. Eta alderantziz, gizona hiltzen denean, haren basarima atsedeen-lekurik gabe geratzen da, eta erotuta sartzen da sutan, edo jendea erasotzen dio, eta orduan buruan kolpatzen dute, eta halaxe hiltzen da.

Calabarko iparraldeko Eketetik hurbil bada laku sakratu bat; hango arraina babestuta dago, jendeak sinesten duelako beren arimak arrainetan gordeta daudela, eta hiltzen den arrain bakoitzeko giza bizi bat hilko dela aldi berean. Calabar ibaian, orain urte asko ez dela, bazen krokodilo erraldoi bat; denek uste zuten Duke Townen bizi zen buruzagi baten kanpoko arima zela. Kontsulorde kirolzaleak animalia hura ehizatza joan ohi ziren noizean behin, eta behin ofizial batek zauritzea lortu zuen. Berehalakoan, buruzagiak oheratu beharra izan zuen, hanka batean zauria egin zuela eta. Berak esaten zuen zakur batek ausiki egin ziola, baina, ez bairik gabe, zuhurrenek buruari eragin eta ez zuten onartu hain aitzakia ezdeusa. Orobat, Niger ibaiaren ertzetik zenbait tributan, Lokojaren eta deltaren artean, "sineste baten arabera, gizon batek alter egoa izan dezake krokodilo edo hipopotamo baten forman. Sinesten dute halako pertsonaren bizi animalia erekin lotuta dagoela, bati gertatzen zaionak eragin berbera duela besteagan, eta bat hiltzen bada besteak ere berehala hil beharko duela. Aspaldi ez dela, ingeles batek hipopotamo bat tirokatu zuen bertako herrixka batetik hurbil; gau hartantxe herrixkan hildako emakume baten lagunek bost libra eskatu zituzten, baita lortu ere, emakumearen hilketagatik".

Ertamerikako zapoteken artean, emakume batek haurra egin behar zuenean, senideak etxolan biltzen ziren, eta hainbat animalia irudiak egiten hasten ziren zoruan, baita berehala ezabatu ere, osatu orduko. Halaxe aritzen ziren jaiotzako unera arte, eta une hartan zoruan marraztutako irudiari haurraren tona deitzen zioten, bigarren nia, alegia. "Haurra hazten zenean, bera ordeztu zuen animaliaz jabetu eta zaindu egiten zuen, sinesten baitzuen osasuna eta bizi animalia erekin bat eginda zeudela, alegia, biak batera hilko zirela", edota animalia hiltzean bera ere hil egingo zela. Guatemala eta Hondurasko indiarren artean, nagual edo naual delakoa "gauza bizidun edo bizigabe bat da, gehienetan animalia bat, gizon batekin parez pare dagoena, hala non gizonaren ibilera guztiak nagual horren patuaren menpe egongo diren". Idazle zahar baten arabera, Guatemalako indiar asko "deabruak behartu ditu sinestera ezen beren bizi halako eta

halako piztiaren biziaren menpe dagoela (eta beren famili izpiritutzat hartzen dute), eta pentsatzen dute piztia hori hiltzean hil behar dutela berek ere; hura harrapatzen dutenean, gizonaren bihotzak pilpira egingo duela; hura korderik gabe geratzean, berak ere bai; are gehiago, hauxe gertatzen da, deabruaren engainuarengatik pizti itxuran agertzen direla (gehienetan, beren hautuz, animalia hori orein ar edo emea, lehoia, tigrea, zakurra edo arranoa izan ohi da), eta itxura horretan tirokatzen eta zauritzen dituzte". Indiarrek sinetsita zeuden beren nagualaren heriotzak berena ekarriko zuela. Elezaharrak dioenez, espainiarrekiko lehen borroketan, Quetzaltenangoko zabaldian, indiar buruzagien nagualak sugeen itxuran borrokatu omen ziren. Buruzagi gorenaren naguala zen denetan nabarmenena, lumaje berde ederreko hegazti handi baten itxura baitzuen. Pedro Alvarado jeneral espainiarrek hegaztia akabatu zuen bere lantzaz, eta aldi berean indiar buruzagia hilda erori zen lurrera.

Australiako hegoekialdean sexu bakoitzak animalia espezie jakin bat hartzen zuen, Ertamerikako indiarrek nagualtzat hartzen zutena bezala, baina alde batekin: indiarrek ezagutzen zuten, nonbait, beren biziarekin lotuta zegoen animalia indibiduala, baina australiarrek beren biziak espezie hartako animalia baten batekin lotuta zegoela besterik ez zekiten, ez zein animaliarekin. Ondorioz, jakina, gizonezko bakoitza gizonezkoen biziarekin lotuta zegoen espezieko animalia guztiak errespetatzen eta babesten zituen; eta emakume bakoitzak emakumeen biziarekin lotuta zegoen espezieko animalia guztiak errespetatzen eta babesten zituen; zeren eta inork ez baitzekien horixe besterik, alegia, beren espezieko animalia baten heriotzak berea ekarriko zuela; txori berdea hiltzearen ondotik, berehala, indiar buruzagi baten heriotza etorri zen bezala, eta loroa hiltzearen ondotik Punchkinen heriotza, ipuin harrigarria. Adibidez, Australiako hegoekialdeko Wotjobaluk tribuak "dioenez, "Ngunungunut-en (saguzararen) bizia gizon baten bizia da, eta Yartatgurk-en (zataren) bizia emakume baten bizia", eta izaki horietakoren bat hiltzen dutenean, gizon edo emakume baten bizia eteten da. Halakoetan, gizon edo emakume bakoitza beldur izaten zen, bera ote zen biktima, eta hortik borrokaldi latzak sortzen ziren tribuan. Jakin dudanez, borroka horietan, gizonak alde batean eta emakumeak bestean, ez zen garbi jakiten nortzuk ziren irabazle, zeren eta batzuetan emakumeek sekulako jipoiak ematen baitzizkieten gizonei ñamearentzako makilekin, eta beste batzuetan gizonek emakumeak zauritzen edo hiltzen zituzten lantzaz". Wotjobaluk tribukoek esaten zuten saguzarra gizonaren "anaia" zela, eta zata haren "emaztea" zela. Sexu bietakoen biziarekin lotutako animalien espezieak aldatu egiten ziren tribu batetik bestera. Hala, Wotjobaluk tribukoek artean saguzarra zen gizonena, baina Murray ibaiaren behealdeko Gubower Creeken saguzarra emakumeen animalia zen, dirudienez, zeren eta bertakoek ez baitzuten halakorik akabatzen, zergatik eta "hura akabatuz gero, lubra (emakume) bat hilko zelako ondorioz". Baina gizonezkoen eta emakumezkoen biziak izaki-mota batekin nahiz bestearekin lotuta egon, sineste horrek berak eta sinesteak sorrarazitako borrokek Australiako hegoekialdeko parte handi batean iraun omen dute, eta lehenago askoz gehiago hedatuta egon bide ziren. Sinestea oso serioa zen eta, beraz, hartatik sortzen ziren borrokak ere bai. Hala, Victoriako tribuen artean, "saguzar arrunta gizonena da, eta hauek babestu egiten dute, are horretarako beren emazteen erdiak hil beharko balituzte ere. Hontza handia edo zata emakumeena da eta, nahiz zantzu gaiztoko txoria izan, gauetan bere oihuez izua sortzen duena, ardura handiz zaintzen dute. Baldin eta gizon batek txori horietako bat hiltzen badu, beren haurra balitz bezala sumintzen dira, eta beren haga luzeez astinduko dute gizona".

Australiar gizon eta emakumeek saguzarrei eta hontzei, hurrenez hurren, ematen dieten babesak (zeren eta saguzarrak eta hontzak baitira, ohiki, bi sexuei egozten zaizkien izakiak) ez du esan nahi norberaren buruaz eta ez bestez arduratzen direnik. Gizon

bakoitzak sinesten du bere bizia ezezik, bere aitarena, anaiena, semeena eta abarrena ere saguzar batzuen biziakin lotuta dagoela, eta, beraz, saguzarren espeziea babestean bere senide gizontzako guztien biziak babesten dituela, bereaz gainera. Era berean, emakume bakoitzak sinesten du amaren, ahizpen, alaben eta abarren biziak, berea bezala, hontza jakin batzuen biziakin lotuta daudela, eta hontzaren espeziea zaintzean bere senide andrezko guztien biziak zaintzen ari dela, bereaz gainera. Hortaz, gizonen biziak animalia jakin batzuetan daudela ematen denean, bistan da animalia horiek apenas bereiz daitezkeela gizonengandik, edota gizonak animaliangandik. Nire anaia Jonen bizia saguzar batean bada, orduan, batetik saguzar hori nire anaia da, Jon bezala; eta bestetik, Jon zentzu batean saguzarra da, beraren bizia saguzar batean dagoenez gero. Era berean, baldin eta nire ahizpa Mirenen bizia hontza batean bada, orduan hontza nire ahizpa da eta Miren bera hontza da. Hau guztiz ondorio bidezkoa da, eta australiarrek zuzen atera dute. Saguzarra gizonaren animalia denean, haren anaia deitzen zaio; eta hontza emakumearen animalia denean, ahizpa deitzen zaio. Alderantziz, gizon bat hontza bati bezala zuzenduko zaio emakumeari, eta emakumea gizonari saguzar bati bezala. Beste horrenbeste esan daiteke beste tribu batzuetan sexu bakoitzari egozten zaizkion animaliei buruz ere. Adibidez, kurnaien artean, txepetx guztiak ziren gizonen "anaiak", eta gizon guztiak ziren txepetxak; eta lezkari guztiak ziren emakumeen "ahizpak", eta emakume guztiak ziren lezkariak.

Baina basatiak bere buruari animalia baten izena ematen dionean, anaia deitzen dionean eta akabatu nahi ez duenean, esaten da animalia hori haren totema dela. Beraz, aztertu ditugun Australiako hegoekialdeko tribuetan, saguzarra eta hontza, txepetxa eta lezkaria sexuen totemtzat har daitezke. Baina totema sexu bati egozteak bitxia da, eta orain artean Australian bakarrik aurkitu da halakorik. Askoz arruntagoa da totema sexu bati ez baina klan bati egozteak, eta gizontzakoan lerrotik edo emakumezkoenetik oinordetzea. Norbanakoaren eta klaneko totemaren arteko erlazioa batetik, eta norbanakoaren eta sexuaren totemaren artekoa, bestetik, berdinak dira; norbanakoak ez du akabatuko, anaiatzat hartzen du eta bere izenaz deitzen dio. Beraz, erlazioak berdinak badira, batarentzat balio duen azalpenak balio behar luke bestearentzat ere. Horrenbestez, klan batek animalien edo landareen (zeren eta landarea ere izan baitaiteke klanaren totema) espezie jakin bat errespetatzeko eta haren izena hartzeko duen arrazoia, sineste bat litzateke: klaneko norbanako bakoitzaren bizia espezie horretako animalia edo landare batekin lotuta dagoela, eta gizon edo emakume horren heriotza animalia hori akabatzearen edo landare hori desagitearen ondorio dela. Totemismoaren azalpen hau oso ondo egokitzen da George Greyk Australiako mendebaldeko totem edo kobong batez ematen duen definizioarekin. Honela dio: "Halako lotura misterioitsu bat dago familia baten eta bere kobongaren artean, hala non familia horretako kide batek inoiz ez duen akabatuko bere kobongaren espezieko animaliarik, ezta lo aurkituko balu ere; hil, beti hilko du beldurrez, eta inoiz ez ihes egiteko aukeraren bat eman gabe. Hori familiaren sineste batetik dator, alegia, espezie horretako norbanakoren bat bere lagunik minena dela, eta hura hiltzea krimen handia litzatekeela, kontu handiz saihestu beharrekoa. Era berean, kobongtzat landarea duen natibo batek ez du hura bilduko zirkunstantzia jakin batzuetan eta urteko sasoi jakin batean ez bada". Hemen ohartu beharra dago ezen, nahiz eta gizon bakoitzak espezieko animalia edo landare guztiak errespetatzen dituen, ez dituela denak neurri berean preziatzen; oso bestela da: espezie osoa ez baina banako bat bakarra du bereziki kutuna; baina kutun hori zein den ez dakenez, behartuta dago denak errespetatzera, hura zauritzeko beldurrez. Orobat, klanaren totemaz emandako azalpen hau egoki dator totem espezieko bat hiltzeak ustez dakarren ondorioarekin. "Egun batez beltzetako batek belea akabatu zuen. Handik hiruzpalau egunera Boortwa bat (bele bat) [alegia, beleen klaneko gizon bat], Larry

zeritzana, hil egin zen. Egun batzuetan gaixorik egona zen, baina bere wingonga (totema) akabatzeak heriotza bizkortu zion". Kasu honetan belea akabatzearen ondorioz beleen klaneko gizon bat hil zen, hala nola, sexuen totemen kasuan, saguzar bat akabatzearen ondorioz gizon saguzar bat hiltzen den, edo hontza bat akabatzearen ondorioz emakume hontza bat hiltzen den bezala. Era berean, naguala akabatzearen ondorioz hiltzen da Ertamerikako indiarra, zuhaitz-arima hiltzearen ondorioz hiltzen da Calabarko beltza, tamaniua hiltzearen ondorioz hiltzen da Banks irletakoa, eta erraldoiak edo sorginak bere arima gordeta daukan animalia akabatzearen ondorioz hiltzen da hura bera ere, ipuin harrigarrietan.

Hortaz, badirudi "Gorputzean bihotzik ez zuen erraldoiaren" istorioak agian giltza emango digula gizon baten eta bere totemaren artean ustez dagoen erlazio horretarako. Totema, teoria honen arabera, gizon batek bere bizia gordetzen duen ontzia da, besterik ez, Punchkinek loto batengan gordetzen zuen bizia, eta Bidasarik arrain urre-kolore batean arima. Ikuspegi horren kontra ez du balio beste argudio honek, alegia, basati batek bi totemak dituenean, sexuarena eta klanarena, haren biziak bi animalia desberdinekin lotuta egon behar duela, eta bietako bat hiltzean berak ere hil egin beharko lukeela. Gizaki batek bere gorputzean biziaren leku bat baino gehiago baditu - egiten du bere artean basatiak-, zergatik ez luke izan behar bizi-leku bat baino gehiago beregandik kanpora? Bere bizia kanpoan ezar dezakeenez gero, zergatik ez diezaioke pasa zati bat animalia bati eta beste bat beste bati? Biziaren zatigarritasuna edo, bestela esan, arima-aniztasuna, hainbat egintza arruntek iradokitzen duten ideia da, eta Platon eta beste filosofo batzuei gustatu zaie, basatiei ezezik. Arimaren ideia, hipotesi ia zientifikoa izatetik, dogma teologiko bihurtzen denean, orduantxe bakarrik ezartzen da beraren batasuna eta zatiezintasuna funtsezkotzat. Basatia dogmak katigatzen ez duenez, libre da bizitzakoak berak beharrezko irizten dion bezainbat arima onartuz esplikatzeko. Horregatik, adibidez, karibeek uste zuten arima bat zegoela buruan, beste bat bihotzean, eta beste arima batzuk zainen bateko taupa sentitzen den leku bakoitzean. Hidatsa indiarretako batzuek heriotza gradualaren fenomenoak, lehenik zangoak hiltzen direla dirudienean, honela azaltzen dute, gizonak lau arima dituela emanez, eta arima horiek bata bestearen ondotik aldegiten dutela gorputzetik, ez batera, eta laurak aldegin arte heriotza ez da osoa izaten. Borneoko daiak batzuek eta Malakako penintsulako batzuek sinesten dute gizon bakoitzak zazpi arima dituela. Celebesko Posoko alfuren iritziz, hiru ditu. Laostarrek uste dute gorputza hogeita hamar izpirituren egoitza dela, eta eskuetan, oinetan, ahoan, begietan eta beste hainbat lekutan daudela. Horregatik, primitiboen ikuspuntutik, oso litekeena da basatiak arima bat bere sexuko totemean eta beste bat klanaren totemean izatea. Hala ere, seinlatu dudak bezala, sexuaren totemak Australian bakarrik aurkitu dira; beraz, oro har, totemismoa praktikatzen duen basatiak ez dauka une batean arima bat baino gehiago eduki beharrik gorputzetik at.

Totemaren azalpen hau, alegia, gizon batek bere arima edo bere arimetako bat gordetzen duen ontzia dela, zuzena bada, orduan pentsa liteke izango dela herri totemikoren bat non gizaki orok gutxienez arima bat gorputzetik kanpo gordeko duen iraunkorki, kanpoko arima hori suntsitzeak jabearen heriotza dakarrela joko delarik. Herri hori Sumatrako batakak dira. Batakak oinordetza gizonezkoetik gizonezkora jasotzen duten klan exogamoetan banatuta daude (marga direlakoetan); eta klan bakoitzak debekatua du animalia jakin baten okela jatea. Klan batek ez dauka tigrea jaterik, beste batek tximua, beste batek krokodiloa, beste batek zakurra, beste batek katua, beste batek usoa, beste batek bufalo zuria, eta beste batek otia. Klaneko kideek animalia jakin horren okela ez jateko ematen duten arrazoia, honako hau da, alegia, espezie horretako animalietatik datozela, eta beren arimak, hil ondoren, animalia horietara aldatuko direla, edota, berak edo beren arbasoak izaki, horiekin betebeharrak batzuk dituztela. Batzuetan,

baina ez beti, klanak animalia izena izaten du. Beraz, batak totemismo oso-oso dute. Baina gainera, batak bakoitzak sinesten du berak zazpi edota, zenbaketa urriagoa eginez, hiru arima dituela. Arima horietako bat gorputzetik kanpo izaten da beti, baina hala eta guztiz ere hilko balitz, berdin dio une horretan zein urrun dagoen, gizona ere une horretantxe hilko litzateke. Sineste hori aipatzen duen idazleak ez dio ezer batak totemez; baina Australia, Ertamerika eta Afrikako frogen analogiaz, pentsa genezake kanpoko arimak, zeinen heriotzak gizonaren heriotza dakarren, animalia edo landare totemikoan duela egoitza.

Ikuspuntu honen kontra nekez argudia daiteke batakak, azaldu, ez duela azaltzen kanpoko arima totemean duenik; aitzitik, berak beste arrazoi batzuk ematen dituela bere klanaren animalia edo landare sakratua errespetatzeko. Izan ere, baldin eta basati batek benetan sinesten badu bere bizia kanpoko gauza batekin lotuta dagoela, pentsatzekoa da inola ere ez diola arrotz bati jakinaraziko bere sekretua. Bere baitako biziari eta sinesteei dagokien orotan, basatia ezin susmatiago eta erreserbatuago da. Hainbat europar urteetan bizi izan dira basatien artean, eta ez dituzte aurkitu haien fedearen artikulua nagusiak, eta azkenean aurkikuntza hori halabeharraren ondorio izan da askotan. Oroz gain, basatia sorginkeriaz hilko ote duten izuikaraz bizi da etengabe; bere zerik ñimiñoenak ere -ile eta azkazal moztuak, listua, janari-hondarrak, izena bera- horiek guztiak, hala imajinatzen du berak, bera hondatzeko erabil ditzake sorginak eta, beraz, haiek ezkutatzeko edo desegiteko ardura handia izaten du. Baina horrelako gauzetan, alegia, bere biziaren harresi eta babesgarri direnetan, hain herabe eta zuhur jokatzeko badu, zeinen ezkutuan, zeinen isilpean gordeko duen bere izatearen barne-muina, gaztelu-barrua! Ipuin harrigarriko printzesak galdetzen dionean erraldoiari ea non gordetzen duen arima, honek erantzun faltsuak ematen dizkio, edo hitz-beste egiten dio, eta ele-xurika eta lausenguka jardun ondoren bakarrik aterako dio azkenean sekretua. Bere isiltasun espatsu horretan, erraldoiak basati herabe eta isilekoaren antza du; baina istorioaren nondik-norakoak azkenean erraldoiak bere sekretua jakinaraztea eskatzen badu ere, basatiak ez du halako betebeharririk; eta zernahi eskaintzen zaiolarik ere, inolaz ere ez du bere arima arriskuan jarriko arrotz bati ezkutalekua gaztigatuz. Beraz, ez da batere harritzekoa basatiaren biziaren muineko misterioa hain luze sekretuan iraun izana, eta guk orain bere osoan eratu beharra izatea, ipuin harrigarrietan ageri diren zantzu eta puska barreiatuak bilduz.

4. Heriotza-berpizteen erritua

Totemismoaren ikusmolde honek errito erlijiosoen mota bat argitzen du; hain zuzen ere, oraingoz azalpen egokirik ez duen mota bat, nik dakidanez behintzat. Tribu basati askoren artean, batez ere totemismoa praktikatzeko dutenen artean, ohitura da mutilak pubertatean inimizazio-errito jakin batzuk jasan behar izatea; horietan arruntenetako bat mutila hil eta atzera bizitzara ekartzen delakoa da. Errito horiek ulergarri gertatzen dira baldin eta ematen badugu horien muina gazteari arima ateratzea dela, beraren totemera aldatzeko. Izan ere, arima ateratzeak hil egingo bailuke gaztea, edo gutxienez heriotzaren itxurako egoeran jarriko luke, basatiak heriotzatik beretik bereizten ez duen egoeran. Mutila bere onera etortzea, bere sistemak jaso duen txoke bortitzetik pixkanaka bizkortzeari egotziko litzaioke, edo, litekeenago, totemak emandako bizi berria harenganatzeari. Primitiboen sineste hori -halako arima-trukea gerta daitekeela- argi ageri da ehiztari euskaldun baten istorioan: hark zioen hartz batek hil zuela, baina bera hil ondoren hartzak bere arima hats eman ziola, hartzaren gorputza hilda geratu zelarik, baina bera -ehiztaria, alegia- hartza zela, eta hartzaren arimak biziartzeko baitzuen. Hildako ehiztaria hartz gisa berpizte hori, hemen iradokitzen den teorian, mutila pubertatean hil eta atzera bizitzara ekartzeko zeremonian ustez gertatzen denaren berdin-berdina da. Mutila hil egiten da gizaki gisa, eta atzera bizitzara etortzen da

animalia gisa; animaliareen arima du beregan, eta bere giza arima animalia gisa dago. Beraz, eskubide osoz deitzen dio bere buruari hartz, otso edo dena delakoa, totema zein den; eta eskubide osoz tratatzen ditu hartzak, otsoak e.a., senide balitu bezala, animalia horietan baitautza beraren eta beretarren arimak.

Hona hemen inimiziazioaren heriotza eta berpizte horien adibideak. Gales Berriko hegoaldeko kostan bizi den Wonghi edo Wonghibon tribuan, zeremonia sekretu batean iniziatzen dituzte gazteak, gizontzeko unera hurbiltzen direnean; gizon iniziatuek bakarrik ikus dezakete zeremonia hori. Besteak beste, gizongaiari hortz bat hautsi eta izen berria ematen zaio, gaztetik gizonerako aldaketa adieraziz. Hortzak hautsi bitartean, "zezen marrumaria" deritzan tresna bat, alegia, soka-mutur bati lotutako zurzati zapal ertz-horztuna, birarazten da burrunba ateratzeko. Iniziatu gabeei ez zaie uzten tresna hori ikusten. Emakumeek debeku dute zeremoniak ikustea, heriotza-zigorpean. Gazteak banan-banan topatzen omen dira Thuremlin izeneko izaki mitiko batekin (ezagunagoa da Daramulun izenaz); hark gaztea hartu eta leku batera eramaten du, hil egiten du, batzuetan baita zatikatu ere, eta ondoren bizitzara ekarri eta hortza hausten dio. Thuremlinen ahalean jarrita duten sinesmena erabatekoa omen da.

Darlin ibaiaren goialdeko ualarioitarrek esaten zuten inimiziazioan mutilak izpiritu batekin egiten zuela topo, eta honek hura hil eta atzera bizitzara ekartzen zuela gizon gazte gisa. Lachlan eta Murray ibaien behe-ibilguetako natiboek Thrumalun (Daramulun) zuten, gizongaiak hiltzen eta berpizten omen zituen. Australiako erdialdeko Unmatjera tribuan, emakumeek eta haurrek sinesten dute Twanyirika izeneko izpiritu batek gazteak hil eta ondoren bizitzara ekartzen dituela inimiziazioaldian. Besteak beste, erdaintzua eta zakila azpian ebakia egitea dira tribu horretan inimiziazio-errito batzuk, erdialdeko beste tribu batzuetan bezala; eta bigarren hori burutu bezain laster, gizon gazteak ziri sakratu bat (churinga) jasotzen du aitagandik, eta esaten zaio bere izpirituarekin harekin elkartzeko egon zela antzina batean. Bera basartean dagoen bitartean, zaurietatik osatzen, zezen marrumariari eragin behar dio, bestela ortzian bizi den izaki bat gainera abaildu eta eraman egingo baitu. Binbinga tribuan, Carpentariako golko mendebaldeko kostan, emakumeek eta haurrek sinesten dute Katajalina izeneko izpiritu batek egiten duela, inimiziazioan, zezen marrumariaren zarata; inurritegi batean bizi omen da, eta kanpora irten eta mutila jaten omen du, eta ondoren bizitzara ekartzen. Era berean, horien auzoko diren anulatarren artean, emakumeek imajinatzen dute zezen marrumariaren burrunbota Gnabaia izeneko izpiritu batek egiten duela; inimiziazioan mutilak irensten omen ditu, eta gero oka eginda botatzen ditu gizon iniziatu bihurtuta.

Gales Berriko hegoaldeko kostan bizi diren tribuetan -horien artean Murring kostako tribua har daiteke tipikotzat-, hildakoen arteko berpiztearen drama modu argi batez erakusten zitzaizkien gizongaiei inimiziazioan. Hara nola deskribatu digun lekuko batek zeremonia hori. Gizon bat, zuhaitz-azalaren zuntz zailez moztututa, hilobi batean etzan zen, abartxo eta lurrez arin estalita. Eskuan abar bat zuen, lurretik hazten zela zirudiena, eta beste abar batzuk ere landatuta zeuden, efektua handiagotzeko. Hara ekarri zituzten gizongaiak, eta hilobiaren inguruan jarri zituzten. Ondoren, zuhaitz-azalaren zuntz zailduz moztututako gizonak etorri ziren prozesioan. Bi agure gurgarri buru zituztela, osagin-talde batena egiten zuten, erromes etorriak han ehortzita zetzan osagin anaiaren hilobira. Prozesio txikia, Daramuluni kantuz erreguka, harkaitz eta zuhaitz arteko zabalunera azaldutakoan, gizongaiak zeuden hilobi ondoko bestaldean jarri ziren, bi agureak dantzarien bizkarrean kokatzen zirelarik. Aldi batez dantzari eta kantari jarraitu zuten, harik eta ustez hilobitik hazten zen zuhaitza ikara hasi zen arte. "Begira horri!" oihukatu zieten gizonak gizongaiei, hosto ikaratiak seinalatuz. Haiek begira zeudelarik, zuhaitza gero eta ikara handiagoz mugitu zen, gero bortizki astindu eta lurrera erori zen; bitartean, dantzarien dantza urduriaren eta koruaren

kantuaren artean, ustez hilda zegoen gizonak bere gaineko ziri eta hosto-pila kendu zuen eta, zutituz, hilobian bertan ekin zion dantza magikoari, ahoan Daramulunengandik hartutako gai magikoak erakusten zituelarik.

Ginea Berriko iparraldeko zenbait tribuk -Yabim, Bukaia, Kai eta Tami tribuek-Australiako tribu askok bezala, erdaintzera behartzen dituzte tribuko gizonetzko guztiak gizonen artean onartu aurretik; eta tribuko inimiziazioa, ezaugarri nagusi erdaintzuntza duena, mustro mitiko batek irentsi eta oka botako bailituen sumatzen dute haiek, Australiako zenbait tribuk bezala, mustroaren ahotsa zezen marrumariaren durundiotsean entzuten delarik. Izan ere, Ginea Berriko tribuek, sineste hori emakumeen eta haurren gogoetan josi ezezik, antzestu egiten dute inimiziazioko erritoetan bertan, zeinetan ez emakumerik ez iniziatu gabeko pertsonarik izan daitekeen. Horretarako, ehun bat oin luze den etxola eraikitzen dute herrixkan edota basoko leku bakarti batean. Mustro mitikoaren itxura ematen zaio; burua irudikatzen duen muturra garaia da, eta beheratuz doa beste muturrerantz. Betel-palmondo batek, sustrai eta guzti erauzita, izaki handiaren bizkarrezurrarena egiten du, eta zuntz ugari nahasiek ilajearena; eta antza areagotzeko, artista batek bi begi nabarmenez eta aho handi zabal batez apaintzen du eraikuntzaren mutur zabalena. Ama eta emakumeengandik malko artean bereizi eta gero hauek sinesten baitute, edo sinesten dutela egiten baitute, mustroak beren maiteak irentsiko dituela-, gizongai izutuak egitura ikaragarri haren aurrera eramaten dituzte; izaki eskerga hark marmuka zakarra botatzen du, mustroaren sabelean gordetako gizonak eragiten dituzten zezen marrumarien durundioa besterik ez dena. Irenste-prozesua bera hainbat erataria jokatzen da. Tamien artean, buru gainean zezen marrumariari eragiten dieten gizonen ilara baten aurretik pasarazten dituzte gizongaiak; kaien artean, irudikorrako, tranpaldo baten azpitik pasarazten dituzte, gainean gizon batek irensten dituelako keinua egiten duelarik, eta ur-trago bat hartzen duelarik gizongai ikarati bakoitza azpitik pasatzen zaion bakoitzean. Baina gazteen bahi gisa eskainitako zerria oparitzeak ematu egiten du mustroa, eta biktima oka botarazten dio; mustroa irudikatzen duen gizonak onartzen du ordezkoko oparia, gorgor bat aditzen da, eta irentsi berri den urak txorrotada batean bustitzen du gizongaia. Horrek esan nahi du gizon gaztea mustroaren sabeletik irten dela. Baina ondoren ebakuntza oinazetsuago eta arriskutsuagoa jasan behar du, erdaintzuntza. Ondo-ondotik izaten da hori, eta ebakitzailaren labanak egindako ebakia hozkada edo atzamarka dela ematen da, mustroak bere barrunbe zabaletik irazterakoan gizongaiari egin diona. Ebakuntza egiten ari direnean, zarata izugarria egiten dute zezen marrumariak astinduz, gizon gazteak irensten dituen izaki beldurgarriaren orroa adierazteko.

Batzuetan, gertatzen da mutilen bat hiltzea ebakuntzaren ondorioz; orduan sekretuan ehorzten dute basoan, eta ama saminduari esaten zaio mustroak zerri-urdaila ere baduela giza urdailaz gainera, eta zoritxarrez semea okerreko urdailera lerratu dela, eta handik ezinezkoa dela hura ateratzea. Erdaindu ondoren, mutilek zenbait hilabetez egon behar izaten dute giltzapean, emakumeekiko harreman orori, are ikuste hutsari, muzin eginez. Mustroaren sabela irudikatzen duen etxola luzean bizi izaten dira. Azkenean mutilak, gizon iniziatuen saileko, atzera herrira eramaten dituztenean, emakumeek jai-giroan eta alaitasunezko negar-malkoz hartzen dituzte, hilobitik atera berriak bailiran. Lehen unean gizon gazteek begiak itxi-itxita izaten dituzte, are igeltsuz zigilatuta, eta badirudi ez dutela ulertzen zaharrago batek ematen dizkien aginduak. Pixkanaka, ordea, beren onera etortzen dira, lozorro batetik esnatzean bezala, eta biharamunean bainatu eta gorputza estaltzen dien igeltsu zurizko zolda kentzen dute.

Oso esanguratsua da Ginea Berriko tribu horiek guztiek izen berbera ematea zezen marrumariari eta erdaintzuntzan gizongaiak irensten omen dituen mustroari, zeinen orro beldurgarria zurezko tresna kaltegabekoen durundioak irudikatzen duen. Gainera,

merezi du aipatzea lau hizkuntzetatik hirutan, zezen marrumariari eta mustroari ematen zaien hitz bakar horrek hildakoen izpiritu bat ere esan nahi duela; laugarren hizkuntzan (kaienean), berriz, "aitajaun" esan nahi du. Hortik atera daitekeenez, inimiziazioan gizongaiak irensten eta oka botatzen dituen izakia izpiritu edo arbasoen izpiritu indartsuren bat dela sinesten dute, eta haren izena duen zezen marrumaria haren ordezkoa dela. Horrexek argituko luke gauza sakratu hori emakumeen bistatik hainbesteko sekretuz gordetzea. Erabiltzen ez direnean, zezen marrumariak gizonen etxeetan gordetzen dira. Emakumeek ez daukate hara sartzerik. Izan ere, emakumeek edo inimiziatu gabeko pertsonak ezin diote begiratu zezen marrumari bati, heriotza-zigorraren pean. Era berean, tugeru edo kaya-kayatarren artean -Holandar Ginea Berriko hegoaldeko kostako tribu papuar handi bat da hau- zezen marrumariaren izena -haiek sosom deitzen diote- ematen diote erraldoi mitiko bati; urtero agertzen omen da hegoekialdeko monzoiarekin batera. Etortzen denean, jaia egiten da haren ohoretan, eta zezen marrumariak astintzen dira. Mutilak aurkezten zaizkio erraldoiari, eta hark hil egiten ditu, baina gero, adeitsuki, atzera bizitzara ekartzen ditu berriro.

Fiji irletako handiena den Viti Levuko zenbait eskualdetan, heriotza-berpizteen drama itzaltsuki jokatzen zen inimiziazioan gizongaien begien aurrean. Itxitura sakratu batean, gizon ustez hildakoen ilara bat erakusten zitzairen, denak lurrean etzanda, gorpuak zauriz beteta eta odolotan, erraiak agerian zituztela. Baina apaiz nagusiak oihu bat egitean, ustez hilda zeuden gizon haiek zutitu eta ibaira jaisten ziren, gorputza zikintzen zieten zerri-odol eta erraiak garbitzera. Laster itzultzen ziren itxitura sakratura, atzera berpiztu balira bezala, garbi, berriro eta lore-sortaz apainduta, gorputza himno solemne baten musikaren konpasean mugituz, eta gizongaien aurrean jartzen ziren. Horixe zen heriotza eta berpiztearen drama.

Rookeko herriak ere -Ginea Berriaren eta Britainia Berriaren arteko irla bat da hau- egiten ditu jaiak; moxorrotutako gizon bat edo bi, zurezko maskaraz estalita, dantzan joaten dira herrian zehar, beste gizon guztiak atzetik dituztela. Eskean ibiltzen dira, oraindik Marsabak (deabruak) irentsi ez dituen mutil erdainduak arren emateko. Mutilak ematen dizkiete, ikara eta txilioka, eta gizon moxorrotuen hanka artetik pasarazten dituzte. Gero atzera herrixkan zehar ibiltzen da prozesioa, eta iragartzen dute Marsabak jan dituela mutilak, eta ez dituela jaregingo baldin eta zerriak, taroa eta abar oparitzen ez bazaizkio. Beraz, herritar guztiek, ahal duten neurrian, ematen dute zerbait, eta Marsabaren izenean kontsumitzen da bildutakoa.

Zeram uharteko mendebaldean mutilak, pubertatera iristean, elkarte kaxiarrean onartzen dituzte. Idazle modernoek arrotzen dominazioari aurre egiteko sortutako liga politikotzat hartu izan dute gehienetan elkarte hori. Egia esan, xede erlijiozko eta sozial hutsak ditu, nahiz balitekeen apaizek inoiz beren ahala helburu politikoetarako erabili izana. Elkarte instituzio primitibo guztiz zabal horietako bat da, helburu nagusitzat gizon gazteen inimiziazioa duena. Azken urteotan elkarrearen benetako izaera behar bezala azaldu du J. G. F. Riedel etnologo holandar ospetsuak. Kaxiar etxea zurezko etxe luzanga bat da, basoaren bihotzean zuhaitzik ilunenen azpian kokatua, eta halako moduz egina non argiaren urriak ez baitu uzten ikusten bertan zer dagoen. Herrixka guztiek dute horrelako etxe bat. Haraxe eramaten dituzte inimiziatu beharreko gazteak, begiak estalita, atzetik gurasoak eta senideak dituztela. Mutil bakoitzari bi gizon - haren babesle edo begiraleek- heltzen diote esku banatatik, inimiziazioak irauten duen denbora osoan hartaz arduratzen direlarik. Etxe aurrean bildu ondoren, apaiz nagusiak deabruak deitzen die ozenki. Berehala orro beldurgarria aditzen da etxe barrutik. Banbuzko turutak jotzen dituzten gizonak egiten dute, atzeko ate batetik ezkutuan sartu ondoren, baina emakume eta haurrek pentsatzen dute deabruak egina dela, eta izuikaraz egoten dira. Gero apaiza sartzen da etxean, atzetik mutil guztiak batera dituela. Mutil bakoitza

barrutian desagertu ahala, ebakitze-hots sor bat aditzen da, beldur-oihua gero, eta ezpata edo lantza bat agertzen da odola dariola etxearen sabaitik. Mutilari lepoa moztu diotelako seinalea da hori, eta deabruak beste mundura eramán duelakoa, han eraberritzeko eta eraldatzeko. Hala, ezpata odoldua ikustean amek negar eta lantuei ekiten diete, deabruak haurrak hil dituela oihuka. Leku batzuetan, nonbait, krokodilo baten eztarri-zuloaren edo kasuario baten mokoaren itxurako zulotik zehar bultzatzen dituzte mutilak, eta orduan esaten da deabruak irentsi dituela. Mutilak bost edo bederatzi egunetan egoten dira itxitura horretan. Ilunean eserita, banbuzko turuten hotsa aditzen dute, eta noizean behin eskopeta batena, tiroak eta ezpata-kolpeak. Egunero bainatzen dira, eta tintura hori batez igurtzitzen dizkiete aurpegia eta gorputza, deabruak irentsi dituelako itxura emateko. Etxe kakaurrean egiten duten egonaldian, mutil bakoitzak bi gurutze izaten ditu arantzaz tatuatuta bularraldean edo besoan. Lo ez daudenean, mutilek kokoriko egon behar izaten dute, zirkinik egin gabe. Ilara batean eserita daudelarik, zangoak gurutzatuta eta eskuez belauak biltzen, buruzagiak turuta bat hartu eta ahoa mutil bakoitzaren eskuetan pausatzen du, eta tonu arraroz hitz egiten du turutatik zehar, izpirituen ahotsa imitatuz. Kakiar elkarteko arauak heriotza-zigorpean gorde behar dituztela jakinarazten die mutilei, eta inoiz ez esateko zer gertatu den kakiar etxean. Horrez gainera, apaizek esaten diete gizongaiei beren odol-senideekin ondo jokatzeko, eta tribuko tradizioak eta sekretuak irakasten dizkiete.

Bien bitartean, mutilen ama-arrebak etxera joan eta negar-lantuan egoten dira. Baina handik egun bat edo bira gizongaiei goardia edo begirale jardundako gizonak herrixkara itzultzen dira berri onekin: deabruak, buruzagiak eskariei men eginez, mutilak bizitzara ekarri dituela berriro. Berriok dakartzaten gizonak unatuta eta lokaztuta iristen dira, ifernutik iritsi berri liratekeen mezularien gisa. Kakiar etxetik aldegin baino lehen, mutil bakoitzak makila bat jasotzen du apaizagandik, bi muturretan oilarraren edo kasuarioaren lumak dituen. Makila horiek deabruak bizitzara ekarri dituen unean eman dizkiela onartzen da, eta gazteak izpirituen lurtean izan direlako frogagarria dira. Zabuka itzultzen dira etxera, eta atzeraka sartzen dira etxean, behar bezala ibiltzea ahaztua bailuten; edota atzeko atetik sartzen dira. Plater bat ematen bazaie janariekin, irauli egiten dute. Mutu irauten dute, nahi dutena keinuen bidez adieraziz. Hori guztia zertarako eta oraindik deabruaren edo izpirituen eraginpean daudela erakusteko. Begiraleek irakatsi behar izaten dizkiete bizitzako gauzarik arruntenak, haur jaio berriak bailiran. Gainera, kakiar etxetik aldegin ondoren, debekatua izaten dute zenbait fruitu jatea hurrengo errito-ospakuntza etorri arte. Eta hogeí edo hogeita hamar egunetan amek edo arrebek ezin izaten diete ilerik orraztu. Denboraldi horren buruan, apaiz nagusiak basoko leku bakarti batera eramaten ditu, eta xerlo bat moztan dio mutil bakoitzari kalparretik. Iniziazio-errito horien ondotik, mutilak gizontzat jotzen dira, eta ezkon daitezke; eskandalua litzateke aurrez ezkontzea. Kongo ibaiaren behealdean heriotza-berpizteen simulazioa egiten dute, edo egiten zuten, ndembo izeneko elkarte sekretu bateko kideek. "Ndembokoen ohitura horretan, iniaziooko magiagileek norbait lurreratzen dute ondoeza egin balitzaio bezala, eta egoera horretan eramaten dute heritik kanpora dagoen itxitura batera. Horri "ndembo hiltzea" esaten zaio. Beste batzuek gauza bera egiten dute, gehienetan neskato eta mutikoek, baina batzuetan gizon eta emakume gazteek ere bai... hilda daudela jotzen da. Baina guraso eta lagunek janaria ematen diete, eta aldi baten ondoren -usadioaren arabera, hiru hilabete eta hiru urte bitartekoa izaten da- erabakitzen dute magiagileak atzera bizitzara ekar ditzala... Magiagileari ordaindu zaionean, eta dirua (ondasunak) aurreratu dituztenean oturuntza egiteko, bizitzara ekartzen dute ndembo jendea. Hasieran, inor edo ezer ezagutuko ez balute bezala jokatzen dute; ez dakite jaten ere, eta lagunek erakutsi behar izaten diete. Iniziatu gabeko edonork daukan edozer gauzaren

apeta sortzen zaie, eta jabeak oparitzen ez badie, jo egiten dute, are irato eta hil ere bai. Ez zaie ezer gertatzen horregatik, pentsatzen baita ez dakitela zer egiten duten. Batzuetan hizkera mordoiloan aritzen dira, eta izpirituen mundutik itzuli balira bezala. Horren ondoren, beste izen bat ematen zaie, "ndembo hil direnek" ohi dutena... Ibaian gora, oso urruneraino jaso dugu usadio horren berri, urjauzien eskualderaino".

Iparramerikako tribu indiarren artean badira halako elkarte erlijioso zenbait; heriotza eta berpiztearen simulazioa jasan duten kandidatuek bakarrik dute sarbidea horietara. 1766 edo 1767an, Jonathan Carver kapitainak ikusi ahal izan zuen nola onartzen zuten kandidatu bat "Izpirituaren lagunartea" (Wakon-Kitchewah) izeneko elkartearen, laku handien eskualdeko Naudowessie izeneko tribu siux edo dakota batean. Kandidatua belaunikatu egin zen buruzagiaren aurrean, eta hark esan zion "bera izpiritu batek inarosten zuela, eta izpiritu horixe komunikatuko ziola laster; zerraldo botako zuela izpirituak, baina atzera bizitzara ekarriko zuela berehala; horri erantsi zion komunikatze hori, beldurgarria izan arren, beharrezko sarbidea zela kidetzat hartuko zuen komunitateko abantailak izango bazituen. Hura esatean, oso urduri eta egonezinez ematen zuen; azkenean emozioak hain bortitz bihurtu zitzaizkion, non aurpegia desitxuratu eta gorputz osoa dardara batean hasi baitzitzaion. Une hartan zerbait jaurti zion gizon gazteari, formaz eta kolorez baba txiki baten antzeko zerbait, eta ahoan sartu zitzaion hari, eta hantxe bertan erori zen zerraldo, tiroa jo baliote bezala". Aldi batez gizona hilda bezala geratu zen, baina kolpeka hasi zitzaizkion eta atzera oneratzen hasi zen, eta azkenik, baba txikia, edo zena zela buruzagiak jaurti ziona, ahotik jareginez berpiztu egin zen. Beste tribu batzuetan, hala nola ojiwa, winnebago, dakota eta siuxen artean, kandidatua ustez hiltzen duen bitartekoa sendagaien zakua izaten da. Zaku hori animalia baten larruaz egina da (igaraba, basakatu, suge, hartz, mapatxe, otso, hontza edo erbinude baten larruaz), animalia horren halamoduzko itxura duelarik. Elkartekide bakoitzak izaten du zaku horietako bat, eta bertan gordetzen ditu "sendagaia" edo xarmak egiteko puskak eta purtzileriak. "Sinesten dute larruzko zaku edo animalia baten sabelak daukan saski-naski hartatik izpiritu edo hats bat irteten dela, gizona jo eta hiltzeko ahala ezezik, zutiarazi eta berpizteko ahala duena". Gizona sendagai-zaku horietako batez hiltzeko, hartaz kolpatzen dute; hilda bezala erortzen da, baina zakuaren bigarren kolpe batek berpizten du.

Itsasoan galdutako John R. Jewittek Nootka Soundeko indiarren artean katibu egon zen aldian ikusitako zeremonia bat usadio-mota horietakoa da ezbairik gabe. Indiarren errege edo buruzagiak "pistola bat disparatu zuen semearen belarri ondoan, eta hau bertan erori zen zerraldo, hil-itxuran, eta etxeko emakume guztiek negarrari eman zioten, buruko ileak eskutadaka erauziz, eta printzea hila zela oihuka; aldi berean, lagun pila bat sartu zen korrika etxean, beren sastakai, eskopeta eta abarrez armatuta, galdezka zer zela-eta negar haiek. Ondotik beste bi lagun etorri ziren, otso-larruz jantzita, aurpegian animalia horren buruaren antzeko maskara bana zutela. Azkena lauhankan sartu zen, piztia bezala, eta printzea bizkar gainean hartu eta etorri bezala erretiratu zen". Beste leku batean Jewittek aipatzen du printze gazteak -hamaika urte inguruko mutilkoxxor bat- otso-buru baten itxurako maskara zeramala. Amerikako alde horretako indiarrek klanetan banatuta daudenez, eta otsoaren klana nagusietakoa denez, eta klan horretako kideek totemeko animalia baten zatiren bat jantzeko ohitura izanik, baliteke printze hura otsoaren klanekoa izatea, eta Jewittek deskribatutako zeremoniak mutikoaren heriotza irudikatzea, zertarako eta otso birjaio zedin, hala nola ehiztari euskaldunak uste zuen hil egin zutela eta atzera hartz gisa berpiztua zela.

Franz Boas doktoreak indiarren artean egindako ikerketek berretsi egin dituzte, neurri batean, zeremonia baten azalpen alde-alderako hauek, lehen aldiz eman genituenetik; hala ere, irudi luke buruzagiaren semeak modu hartan sarbidea iristen zuen elkartearen ez zela

totem-klan bat, Tlokoala izeneko elkarte sekretu bat baizik, zeinetako kideek otsoak imitatzen baitzituzten. Gauean otso-saldo bat agertu zen, otsoen larru eta maskarak zeramatzaten indiarrek irudikatua; heldu zion gizongaiari eta basora eraman zuen. Otsoak entzuten direnean herrixkaren inguruetan, gizongaiaren bila datozela, elkarteko kide guztiek belzten dituzte aurpegiak eta abesten dute: "Tribu guztietan urduritasun handia dago, ni naizelako Tlokoala". Biharamunean otsoek hilda ekartzen dute gizongaia, eta elkartekideek berpiztu egin behar izaten dute. Otsoek harri magikoa sartu omen diote gorputzean, eta hura atera beharra dago berpiztuko bada. Hori egin artean, ustez gorpu dena etxearen kanpoaldean uzten da etzanda. Bi magia-gizonek joan eta harria -kuartzo-pusketa bat- kentzen diote, eta orduan berpizten da gizongaia. Britainiar Columbiako niska indiarren artean (lau klan nagusitan banatuta daude, eta belea, otsoa, arranoa eta hartza dituzte totemak), animali totem artifizial batek ekartzen du beti gizongai iniziatu berria. Adibidez, gizon bat Olala izeneko elkarte sekretu batean iniziatzekotan zegoenean, lagunek labanaz hiltzen zutelakoa egiten zuten. Berez, aldegitzen uzten zioten, eta beraren ordeztu trebeki jarritako panpina bati moztzen zioten lepoa. Bururik gabeko panpina etzanda utzi eta estali egiten zuten, eta emakumeak negar-zotinka hasten ziren. Senideek hileta-oturuntza ematen zuten, eta handikiro erretzen zuten irudia. Labur esanda, ohiko hileta egiten zuten. Gizongaia urtebetez izaten zen kanpoan, eta elkarte sekretuko kideek bestek ez zuten hura ikusten. Baina denboraldi hori iragandakoan, itzuli egiten zen, totema ordeztzen zuen animalia artifizial batek ekarrita.

Zeremonia horietan, erritoaren muina zera izaten zen, gizongaia gizakia zen aldetik erailteza eta animali itxuran berpiztea, hau da, izpiritu zaindaria izan gabe ere aurrerakoan berarekin modu bereziki estu batean lotuta egongo zen animalia baten itxuran. Gogoratu behar da Guatemalako indiarrek, bizia animalia batenarekin elkartuta baitzuten, izaki harexen itxuran agertzeko ahalmena omen zutela, berekin sinpatiaz bat eginda izaki. Horregatik, ez dirudi arrazoiaren kontrakoa zera pentsatzea, alegia, Britainiar Columbiako indiarrek ere era beretsuan imajinatzen dutela beren bizia izaki horren biziaren menpean dagoela, usadioz beren buruak harenarekin bat egiten dutenaren menpean, alegia. Britainiar Columbiako indiarrek gaur egun hau derrigor sinetsi beharra ez badute ere, arbasoek behintzat bai iraganean, eta, beraz, lagundu egingo zien totemen klanen eta elkarte sekretuen erritoak eta zeremoniak moldatzen. Izan ere, nahiz eta bi komunitate-mota horiek desberdinak izan kidegoa lortzeko moduari dagokionean -gizon bat bere totemaren klanen jaiotzea baina bizitzan beranduago elkarte sekretu batean onartua izatea- ez dago zalantzan jartzerik oso antzekoak direla eta pentsaera berberean sustraituta daudela. Pentsaera hori, zuzen banago, hauxe da: animalia, izpiritu edo beste izaki ahaltsu batekin sinpatiazko harremanak ezartzeko posibilitatea, gizon batek animalia horrengan babesean jartzen duelarik bere arima edo arimaren parteren bat, eta ordainetan ahal magikoak jasotzen dituelarik oparitzat.

Beraz, hemen iradokitako teoriaren arabera, totemismoa aurkitzen den leku guztietan, eta gizongaia inimiziazioan hil eta atzera bizitzara ekartzeko plantak egiten diren leku guztietan, egon behar du, arima iraunkorki kanpoko zerbaitetan -animalia, landare edo beste edozertan- ezartzeko ahalbidean sinestea ezezik, hori egiteko asmoa eta deliberamendua. Hauxe galde daiteke: zergatik nahi dute gizonek beren bizia gorputzetik at ezarri? Erantzuna hauxe besterik ez daiteke izan: ipuin harrigarriko erraldoiak bezala, pentsatzen dutelako seguruagoa dela hala egitea arima aldean eramatea baino, jendeak dirua bankuan gordetzen duen bezala, aldean eraman gabe. Ikusi dugu larrialdietan bizia edo arima leku seguru batean uzten dela batzuetan aldi baterako, arriskua pasatu bitartean. Baina totemismoa bezalako instituzioetara ez da

jotzen arriskua den abagune berezietan bakarrik; denak, edo gutxienez ar guztiak, daude behartuta hartan iniziatuak izatera, bizitzako aldi jakin batean. Alabaina, gehienetan pubertatean gertatzen da inimiziazioa; eta horrek iradokitzen digu totemismoak eta antzeko sistemek saihestu nahi duten arrisku berezi hori ez dela agertzen heldutasun sexuala lortu arte; areago, sumatzen den arrisku hori sexuen arteko harremanetan dagoela jotzen dela. Erraza litzateke frogatzea, hainbat eta hainbat adibidetan oinarrituz, sexu-harremanak arrisku larri ugarirekin lotuta daudela primitiboen gogoan; baina sumatzen den arrisku horren izaera zehatza ilun samar dago oraingoz. Espero dezagun basatien pentsaera zehatzago ezagutzearekin batera, denboraz, lehen gizartearen misterio nagusi hori argitu egingo zaigula eta, beraz, totemismoaren gakoa ezezik, ezkontza-sistemaren jatorriaren gakoa ere emango digula.

lxviii

Urrezko Abarra

Beraz, Balderren bizia mihuran zegoelako ikuspegia guztiz egoki dator lehen gizonen pentsaerarekin. Kontraesana irudi luke bizia mihuran izan eta, hala ere, landare horren kolpe batez hiltzeak. Baina norbaiten bizia gauza jakin batean datzala jotzen denean, bizia gauza horren izateari era bereiztezinez lotuta dagoela, eta gauza hori desegiteak norbait horren desegitea dakarrela, orduan esan daiteke gauza hori pertsona horren bizia edo heriotza -bata zein bestea- dela, ipuin harrigarrietan gertatzen den bezala. Horregatik, gizon baten bizia gauza batean badago, guztiz naturala da gizona gauza horren kolpe batek hiltzea. Ipuin harrigarrietan, Koshtxei Hilezina bere biziaren edo heriotzaren gordeleku den arrautzaren edo harriaren kolpe batek hiltzen du; haurjaleak lehertu egiten dira hondar-ale bat -haien bizia edo heriotza duena, jakina- bizi diren haitzaren gainera eramaten zaienean; magia-gizona hil egiten da bere bizia edo heriotza datzan harria burkoaren azpian jartzen zaionean; eta heroi tartariarrari arimaren gordeleku den urrezko geziak edo urrezko ezpatak hilko duela gaztigatzen zaio.

Esan dudanez, neguan haritzean hazten den mihurak berde irauten duela eta haritza bera hostogabetu egiten dela ikusteak iradokiko zuen, seguruenik, haritzaren bizia mihuran zegoelako ideia. Eta landarearen kokalekuak -ez baitzen hazten lurretik, zuhaitzaren enborretik edo abarretatik baizik- berretsiko liguke ideia hori. Lehen gizonak pentsatzen bide zuen ezen, berak bezala, haritz-izpirituak leku seguru batean ipini nahi izan zuela bere bizia, eta horretarako ezarri zuela mihuran; izan ere, zentzu batean ez lurrean ez zeruan egonik, pentsatuko zuen ezein kaltekin ezin zuela harrapatu. Aurreko kapitulu batean ikusi dugunez, lehen gizonak lurraren eta zeruaren artean kokatuz babestu nahi izaten du giza jainkoen bizia, horixe delakoan lur gainean bizi den gizonaren bizia inguratzen duten arriskuen kontrako lekuri seguruena. Beraz, uler genezake zergatik izan den arau bat, bai herri-medikuntza zaharrean eta bai modernoan, mihurak lurra ukitu ezina: lurra ukituko balu, sendatzeko duen ahalmena galduko lukeelako. Hau superstizio zahar baten hondarra dateke: zuhaitz sakratuaren bizia datzan landarea ezin zela jarri lurra ukitzean jartzen zen arriskuan. Indiako elezahar batean, Balderren mitoaren parekoa eskaintzen baitigu, Indrak zin egin zion Namuci deabruari ez zuela hilko ez egunez, ez gauez; ez makilaz, ez geziz; ez esku-ahurrez, ez ukabilez; ez zerbait hezez, ez zerbait lehorrez. Ordea, hil egin zuen, nola eta egunsentian haren gainera itsasoko aparra isuriz. Itsasoko aparra da, hain zuzen, basatiak bizia bertan gordetzeko aukeratuko lukeen zerbait, zeren eta halako kokaleku tarteko edo deskribaezin bat baitu lurraren eta zeruaren, edo itsasoaren eta zeruaren artean, eta kokaleku horretan lehen gizonak segurtasuna ikusten baitu. Ez da harritzekoa, beraz, ibaiko aparra izatea Indiako klan baten totema.

Orobat, ideia hori, alegia, mihurak bere izate mistikoa, aldeztu, lurretik ez sortzeari zor diola, lizarrari buruzko antzeko superstizio batekin berresten du. Jutlandian, beste zuhaitz

baten gainean hazten den lizarra "ezin eragingarriagotzat jotzen da sorginkerien kontra: lurrean hazten ez delako, sorginek ezin diote ezer egin; bere indar osoa izan dezan, Igokunde egunean ebaki behar da". Horregatik jartzen da ateen gainean, sorginak sar ez daitezen. Suedia eta Norvegia ere, propietate magikoak egozten zaizkio "lizar hegalaria" bati (flogronn), hau da, lurrean hazi ordez -ohi bezala-, beste zuhaitz baten gainean, edo teilatu batean, edo haitz baten zartatu batean, hazten den lizarrari txoriek barreiatutako hazitik sortuta. Ilundutakoan kanpoan den gizonak "lizar hegalaria" puska bat eraman behar omen luke mastekatzeko; bestela, sorginduko duten arriskua du, eta leku hartatik mugitu ezinik geratzekoa. Eskandinavian lizar parasittoa sorginkerien kontrako xarmatzat hartzen den bezala, Alemanian mihura parasittoa sorginkerien kontrako babesgarri jotzen dute oraindik ere, eta Suedian, ikusi dugunez, udako solstizioaren bezperan bildutako mihura etxeko sabaian, zaltegian edo ukuiluan lotzen da, hartara Trollak ezin kalterik egingo dielakoan gizon nahiz abereei.

Mihurak Balder hil bakarrik ez, Balderren bizia gorde ere egiten zuelako ideiak Eskoziako superstizio batekiko analogia du lagungarri. Tradizioak dioenez, Errolgo Haytarren patua -Firth of Taytik gertu dagoen Perthshireko etxalde batena, alegia- haritz handi batean hazten zen mihurarekin lotuta zegoen. Hay familiako kide batek eman digu sineste zahar horren berri, honela: "Behealdeko familietan, ia ikur guztiak ahaztuta daude orain; baina eskuizkribu zahar baten arabera, eta Perthshireko zaharrek kontatzen dutenez, Haytarren ikurra mihura omen zen. Antzina, Erroldik gertu, eta Belatzarritik ez urrun, bazen haritz eskerga bat, ezinago zaharra, zeinetan mihura ugari hazten baitzen; xarma eta legenda askok omen zuten zerikusia zuhaitz harekin, eta Haytarren iraupena ere haren biziarekin lotuta omen zegoen. Sinesten zen Haytar batek Santu Guztien bezperan labana berriaz ebakitako mihura-puska bat, zuhaitzari eguzki alde hiru bira eman ondoren eta hitz jakin batzuk esanez, xarma segurua zela magia edo sorginkeria ororen kontra, eta babes osokoa borroka-egunetan. Modu horretan hartutako abartxoa jartzen zen haurren sehaskan, babesgarri, maitagarrien ordez ireluak jar ez zitezen. Azkenez, zioten, haritzaren sustraia ihartzean "belarra erneko zen Errolgo sutegian, eta erroiak jarriko ziren belatzaren habian". Hay izena zeraman norbaitek egin zitzakeen bi gauzarik zorigaitzekoenak belatz zuri bat akabatzea eta Errolgo haritzari abar bat mozte ziren. Sekula ez nuen jakin noiz suntsitu zuten zuhaitz zaharra. Hay familiak saldu egin zuen etxaldea; jakina, haritza pixka bat lehentxeago bota omen zuten". Superstizio zaharra herriak Tomas Koplariari egozten dizkion bertso batzuetan jaso da:

Mihura Errolgo haritzean ageri deino,

Eta haritz hori irmo dagoeino,

Haytarrak loratu egingo dira, eta haien belatz arre ederra

Ez du beldurtuko trumoiak.

Baina haritzaren sustraia ustel dadinean,

Eta mihura bular zimelean ihar dadinean,

Belarra haziko da Errolgo sutondoan,

Eta beleak grak egingo du belatzaren habian.

Ez da iritzi berria Urrezko Abarra mihura zela. Egia da Virgiliok ez dituela biak identifikatzen, abarra mihurarekin konparatu baino ez duela egiten. Baina hori baliabide poetikoa besterik ez dateke, landare apalaren gainera halako distira mistikoa isurtzeko. Edota, are litekeenago, haren deskribapena herri-sineste batean oinarritzen zen: aldi jakin batzuetan mihura naturaz gaindiko loria urrezkoan gartzen zela. Poetak kontatzen du nola bi uso, Eneas Urrezko Abarra hazten zen haranaren sakon itzalera gidatzerakoan, zuhaitz batean pausatu ziren, "zeinetan dizdiz egiten baitzuen urrezko isla distiratsu batek. Nola negu minean, basoan, mihura -bere zuhaitzetik sortzen ez den landarea- berde egoten baita hosto berriz, eta urre-kolorez tindatzen baititu bere fruituez

enborrak, halaxe zirudien arte itzaltsuaren gainean urre hostotsuak ere, halaxe xuxurlatzen zuten urrezko hostoek haizexka emea zebilenean". Kasu honetan Virgiliok arte batetik sortuko balitz bezala deskribatzen du Urrezko Abarra, eta mihurarekin konparatzen du. Inferentzia ezinbestekoa da: Urrezko Abarra ez zen mihura besterik, poesiaren edo herri-superstizioaren gandutan ikusia.

Nahikoa arrazoi azaldu ditugu zera pentsatzeko, Ariciako zuhaiztiko apaizak -Basoko Erregeak- Urrezko Abarra hazten zen zuhaitza pertsonifikatzen zuela. Horregatik, zuhaitz hori haritza bazen, Basoko Erregea haritz-izpiritu nortua izango zen. Beraz, erraz ulertzekoa da zergatik zen beharrezko, hura erail baino lehen, Urrezko Abarra haustea. Haritz-izpiritu zen aldetik, haren bizia edo heriotza haritzeko mihuran zegoen, eta mihurak ukitu gabe zirauen bitartean, bera, Balder bezala, ezin zen hil. Hura hiltzeko, beraz, beharrezkoa zen mihura haustea, eta beharbada, Balderren kasuan bezala, hautsitakoa berari jaurtitzea. Eta paralelotasuna osatzeko, eman beharko litzateke Basoko Erregea antzina erre egiten zutela, hilda nahiz bizirik, udako su-jaiari; ikusi dugunez, su jai hori urtero ospatzen baitzen Ariciako zuhaiztian. Zuhaizti hartan pizturik zegoen su betierekoak, Erromako Vestaren tenpluan eta Romoveko haritzaren azpian pizturik zeuden su betierekoek bezala, haritz-egur sakratua zukeen erregai; eta haritz-egurrez egindako su handi batean izango zuen antzina bere azkena Basoko Erregeak. Geroago, iradoki dudana bezala, haren urtebeteko erregealdia luzatu edo laburtu egingo zen, bere besoaren indarrak jainkoen eskubidea frogatu bitartean bizirik jarrai zezakeela zioen arauari esker. Suari ihes egin zion, baina ezpatapean erortzeko.

Hala, badirudi aspaldi batean, Italiaren bihotzean, Nemiko laku narearen ondoan, tragedia bortitz berbera jokatzen zela urtero, italiar merkatari eta soldaduek gerora beren senide zakarren, Galiako zelten artean ikusiko zuten berbera, baita erromatar arranoak Norvegiaraino hegaldatu balira, iparraldeko ariar barbaroen artean, desberdintasun txiki batzuk gora-behera, aurkituko zuten berbera ere. Erritua ariarrek antzina egiten zuten haritzaren gurtzaren ezaugarri funtsezkoa bide zen.

Hauxe galdetzea besterik ez zaigu geratzen: zergatik esaten zitzaion Urrezko Abarra mihurari? Mihuraren fruituen hori-zurixka ez dateke aski izen hori hartzeko; Virgiliok dio abarra errearen kolorekoa zela osorik, abartxoetatik hostoetaraino. Beharbada izena mihura-abar batek, moztu eta zenbait hilabetez gorde ondoren, hartzen duen urre-hori ederretik datorke; tindu distiratsua ez da mugatzen orrietara, zurtoinetara ere zabaltzen da, eta abar osoak dirudi Urrezko Abarra. Nekazari bretoiek mihura-eskutada handiak esekitzen dituzte baserri aurretan, eta ekainean eskutada horiek nabarmen izaten dira hostoen tindu urrezko distiratsuegatik. Britainiako zenbait aldetan, batez ere Mirbilhan aldean, mihura-abarrak esekitzen dituzte ukuilu eta kortetan, zaldiak eta ganadua babesteko, sorginkerien kontra seguruenik.

Abar ihartuaren kolore horikarak esplikatuko luke, aldeaz, zergatik batzuetan pentsatu den mihurak lurtean gordetako altxorak aurkitzeko ahalmena duela; izan ere, homeopatiaren magiaren printzipioen arabera, halako berezko kidego bat baitago abar hori baten eta urre horiaren artean. Iradokizun hori berresten du herri-sinesteek garo-hazi mitikoari egozten dizkioten tasun miresgarriekiko analogiak; garo-hazi hori, hala da ustea, urrea edo sua bezala loratzen da udaburu bezperan. Hala, Bohemian diotenez, "San Joan egunean garo-hazia sua bezala distiratzen duten pipil urrezkoz loratzen da". Garo-hazi horren tasun bat da udako solstizioan berori daukan edonork, edo mendi batera berori eskuan duela igotzen den edonork, urre-mea aurkituko duela edo lurteko altxorak ikusiko dituela gar urdinkara baten distiraz. Errusian diotenez, udako solstizioaren bezperan garoaren lore harrigarria hartzea lortuz gero, hura airera jaurti besterik ez da egin behar, eta izarra bezala eroriko omen da altxor bat ezkutatuta dagoen lekuan. Britainian altxor-bilatzaileek garo-hazia biltzen dute udako solstizioaren

gauerdian, eta hurrengo urteko Erramu-igandera arte gordetzen dute; orduan, altxorra gordeta dagoela uste duten lurlean zabaltzen dute hazia. Tirolgo nekazariak imajinatzen dute altxor ezkutuak ikus daitezkeela suak bezala argitzen udaburu bezperan, eta garo-haziak, sasoi mistiko horretan ohiko neurriak hartuz bilduta, lurpeko urrea azaleratzen lagunduko duela. Suitzako Friburgeko kantoian jendeak beila egiten zuen garo-landare baten ondoan San Joan gauean, altxorra aurkitzeko itxaropenez; batzuetan deabruak berak ekartzen omen zuen altxorra. Bohemian diotenez, sasoi horretan garoaren lore urrezkoa eskuratzen duenak altxor guztientzako giltza izango omen du; eta neskek zapi bat zabalduko balute lore galkorraren azpian, urre gorria eroriko litzateke bertara. Eta Tirolen eta Bohemian, diru artean garo-hazia jarritz gero, diru hori ez omen da inoiz agortuko nahi adina gastatuta ere. Batzuetan garo-hazia Gabon gauean loratzen omen da, eta hura hartzen duena aberastu egingo omen da. Estirian diote Gabon gauean garo-hazia bilduz gero, deabrua norberari diru-poltsa bat ekartzera behar daitekeela.

Beraz, "antzekoak antzekoa dakar" printzipioaren arabera, garo-haziak bera ere urrea delako aurkituko luke urrea; horregatik aberasten du jabea urre-hornizio agorrezinez. Baina garo-hazia ez da deskribatzen urre gisa bakarrik, distiratsu eta gartsu gisa ere deskribatzen da. Horregatik, kontsideratzen dugunean hazi harrigarri hori biltzeko bi egun handiak udaburua eta Eguberri eguna direla -hau da, bi solstizioak (zeren eta Eguberri eguna ez baita neguko solstizioaren ospakizun pagano zahar bat baizik)-, ezinbestean jarri behar garo-haziaren gartsu-itxura lehen tokian, eta urre-itxura bigarren tokian, edo eratorritzat. Hain zuzen, garo-hazia, eguzkiaren suaren isuria litzateke argizagi horren ibilbidearen bi puntu nagusietan, hau da, udako eta neguko solstizioetan. Alemaniako istorio batek berresten du ikuspuntu hau: ehiztari batek, udaburuko egunaren eguerdian, eguzkiari tiro eginez eskuratu omen zuen garo-hazia; hiru odol-tanta erori ziren, eta hark zapi batean jaso, eta odol-tanta haiek garo-hazia ziren. Odol hori eguzkiaren odola da argi eta garbi, eta odol horretatik dator zuzenean garo-hazia. Beraz, litekeena da garo-hazia horrexegatik hartzea urrezkotzat, eguzkiaren urrezko suaren isuria delako.

Garo-hazia bezala, mihura ere udaburuan edo Eguberrietan biltzen da -hau da, udako edo neguko solstizioan-, eta garo-haziak bezala, lurpeko altxorak non dauden erakusteko ahala omen du. Udako solstizioaren bezperan suediarrek mihurazko azti-ziriak egiten dituzte; edota lau zur-mota desberdinetakoak, lauretarik bat mihura delarik. Altxor-bilatzailleak lurlean jartzen du ziria eguzkia sartu eta gero, eta, altxor baten gain-gainean dagoenean, ziria mugitzen hasten da, bizirik bailegoen. Alabaina, baldin eta mihurak urrea aurkitzen badu, Urrezko Abarra den aldetik aurkituko du; eta solstizioetan biltzen bada, ez ote du izan behar Urrezko Abarrak, urrezko garo-haziak bezala, eguzkiaren suaren isuri bat? Galdera horri ezin erantzun dakioke bai soil batez. Ikusi dugu ariar zaharrek eguzki-xarma gisa pizten bide zituztela, aldeztu, solstizioa eta beste zeremonia batzuetako suak, hau da, eguzkia su berriz hornitzeko asmoz; eta su horiek haritz-egurra igurtziz edo errez pizten zirenez, antzinako ariarrei irudituko zitzaien eguzkiak haritz sakratuan zetzan suaz berrosatzen zuela bere sua. Bestela esan, haritza suaren jatorrizko gordeleku edo tegia irudituko zitzaion, aldian behin eguzkia elikatzeko ateratzen zen suarena. Baina haritzaren bizia mihuran zegoela sumatzen bazen, mihurak, ikuspuntu horretatik, haritzaren egurretik igurtzi bidez jaregiten zen suaren hazia edo ernamuina edukiko zuen. Hala, mihura eguzkiaren suaren isuria zela esan ordez, zuzenagoa litzateke esatea eguzkiaren sua mihuraren isuri gisa hartzen zela. Ez da batere harritzekoa, hortaz, mihurak urrezko edertasunez distiratzea, eta Urrezko Abarra deitzea. Beharbada, ordea, mihurak, garo-haziak bezala, aldi jakin horietan bakarrik hartzen bide zuen bere urre-itxura hura, batez ere udako solstizioan, sua haritzetik ateratzen zenean eguzkia pizteko. Shropshireko Pulverbatchesen, oraintsu arte,

zenbaitek sinesten zuten haritza udako solstizioan loratzen dela eta loreak egun-argia baino lehen zimeltzen direla. Neskaren batek jakin nahi bazuen zer ezkontza tokatuko zitzaion, zapi zuria zabaldu behar zuen zuhaitzaren azpian gauean, eta goizean hauts fin bat aurkituko zuen, loretik geratutako arrasto bakarra. Hondar-pixka hori burko azpian jarri behar zuen, eta hala senarra izango zuena agertuko zitzaion ametsetan. Haritzaren loratze iheskor hori, zuzen banago, mihura zatekeen Urrezko Abar gisa agerturik. Aieru hau berresten du datu batek, alegia, Galesen mihuraren abartxo bat, udako solstizioan bildua, berdintsu jartzen dutela burko azpian iragarpen-ametsak behartzeko; eta gainera haritzaren loratze imajinarioa zapi zuri batean harrapatzeko modua, hain juxtu, druidek mihura bera harrapatzeko erabiltzen zuten modu berbera da, igitai urrezkoak ebakitakoan haritzaren abarretik erortzen zenean. Shrospshireko mugetan, Galesen, haritza udako solstizioaren bezperan loratzen delako sinestea galestarra dateke hurbileko jatorriz, baina sineste hori lehen ariar sineskizunen zati bat da seguruenik. Italiako zenbait aldetan, ikusi dugunez, nekazariak haritz bila joaten dira oraindik ere udaburu goizean, "San Joanen olio" egiteko. Mihurak bezala, olio horrek ere zauri guztiak sendatzen omen ditu, eta mihura bera da agian, bere itxura loriazkoan. Horrela, erraz ulertzen da zergatik eman zaion parasito ustez ezdeus horri Urrezko Abarra izena, zuhaitzaren ohiko itxura azaltzen ez duen arren. Gainera, ikus genezake agian zergatik antzinatean mihurari sua itzaltzeko propietate aipagarria onartzen zioten, eta zergatik Suedian oraindik ere etxeetan suaren kontrako babesgarri gisa gordetzen duten. Bere suzko izaerak egiten baitu, homeopatiatzko printzipioen arabera, erreduren sendagai hoberena.

Kontsidero hauek argituko lukete, aldeez, zergatik Virgiliok eramanarazten dion Eneasi mihura-abar loriatu bat lurpeko mundu ilunera jaisten denean. Poetak deskribatzen du nola, ifernuko ateetan bertan, baso zabal eta itzaltsua hedatzen zen, eta nola heroia, hara eraman zuten bi usoren argiari jarraituz, oroiz aurreko basoaren sakonean noraezean ibili zen, harik eta, han urrunean, zuhaitzen itzalen artean, Urrezko Abarraren argi dardaratia bere buru gainean artekatutako abarrak argitzen ikusi zuen arte. Baldin eta mihurak -abar ihartu hori bat udazkeneko baso tristeetan-, suaren hazia zeukala sumatzen bazen, zer lagun hoberik har zezakeen azpimunduko itzaletan galdutako ibiltari batek, oinentzat lanpara eta eskuentzat makila edota makulu zitzaion abarra baino? Harekin armatuta, ausarki egingo die aurre, bere txango menturatsuan, bidean ager dakizkion izpiritu beldurgarriei. Horregatik, Eneas, basotik irtenda, Estigiaren ertzetara iristen denean, non biraka dabilen poliki aintzira ifernukoan, eta txalupari haserretuak bere txalupan pasatzea ukatzen dionean, Urrezko Abarra bere altzotik atera eta jaso besterik ez du egingo, eta gizon sumindua berehala ematuko da hura ikusita; umilki hartuko du heroia bere ontzian, eta ontzia uretan sakon sartuko da gizon biziaren pisu ezohikoaren pean. Oraintsuago ere, ikusi dugunez, mihura sorginen eta trollen kontrako babestzat hartu izan da, eta antzinakoek ere bertute magiko horixe onartuko zioten. Eta landare parasitoak, gure nekazari batzuek sinesten duten bezala, sarraila guztiak ireki baditzake, zergatik ez zuen balioko "ireki zaitez Sesamo" gisa Eneasen eskuetan, heriotzaren ateak ere irekitzeko?

Orain suma genezake, halaber, zergatik konfunditu zuten Virbio eguzkiarekin Nemin. Baldin eta Virbio, erakusten saiatu naizen bezala, zuhaitz-izpiritu bat bazen, Urrezko Abarra zeukan haritzaren izpiritua izan behar zuen; izan ere, tradizioak basoko lehen errege gisa aurkeztu baitu hura. Haritz-izpiritu gisa, eguzkiaren sua berpiztuko zuen aldian-aldian eta, beraz, erraz nahastuko zuten eguzkiarekin berarekin. Era berean, badaukagu azaltzerik zergatik deskribatu zuten Balder, haritz-izpiritu bat, "hain aurpegi ederreko eta hain distiratsu, non argi bat irteten baitzen beragandik", eta zergatik hartuko zuten hain sarri eguzkitzat. Eta, oro har, esan genezake lehen gizartean, sua

egiteko modu ezagun bakarra egurra igurtzitzea zenean, basatiak, ezinbestean, zuhaitzetan gordetako tasuntzat hartuko zuela sua, zuhaitzen izerdia bezala, nekez atera behar izaten baitzuen hartatik. Kaliforniako senal indiarrek "sinesten dute mundu osoa suzko globoa zela behinola, sua zuhaitzetara pasatu zela, eta orain irten egiten dela bi egur-puska elkarrekin igurtzitzean". Era berean, Kaliforniako maidu indiarrek sinesten dute "hasieran Lurra urtutako gaiez osatutako globoa zela, eta su elementua lurretik igo zela, zuhaitzen sustraietatik zehar, enbor eta abarretaraino, eta handik atera dezaketela indiarrek beren daratuluaren bitartez". Namolukun, Karolina irletako batean, jainkoek irakatsia omen da sua egiteko antzea. Olofaet-ek, garren maisu trebeak, mwi txoriari eman omen zion sua, eta agindu omen zion Lurrera eraman zezala mokoan hartuta. Hala, txoria zuhaitzez zuhaitz joan zen hegaka, eta zurean gorde zuen suaren indar ezkutua, eta handik igurtziz atera ahal izaten dute gizonek. Indiako himno vediko zaharretan kontatzen denez, suaren jainko Agni "zuretik jaioa omen da, landareen ernamuin gisa, edo landareetan banatuta. Halaber, landare guztietan sartu omen zen, edo denetan sartzen saiatu omen zen. Zuhaitzen ernamuin, edota zuhaitzen eta landareen ernamuin deitzen zaionean, baliteke zuhaitz-abarren igurtziz basoetan sortzen den sua aipatzea".

Basatiak bi edo hiru aldiz su gehiagoz kargatuta bailegoen hartzen du tximistak jotako zuhaitza; ez al du, bada, ikusi izpi indartsua enborrean sartzen bere begiez? Bide horretatik uler genitzake, behar bada, tximistak jotako zuhaitzei buruzko sineskeria ugarietako batzuk. Britainiar Columbiako thompson indiarrek etsaien etxeei su eman nahi zietenean, tximistak jotako zuhaitz batez egindako geziak jaurtitzen zizkieten, edota halako zuraren ezpalak lotuta zituztenak. Saxoniako nekazari wendek ez zuten tximistak jotako zuhaitzaren egurra erre nahi izaten beren sutegetan; erregai hura erabiliz gero, etxea erreko omen zitzairen. Era berean, Hegoafrikako thongek ez dute halako egurrik erabiliko erregaitarako, ez dira berotuko su horretan. Aitzitik, tximistak zuhaitz bat sutan jartzen duenean, Rhodesiako iparraldeko winamwangek herriko su guztiak itzaltzen dituzte, eta berriro kareztatzen dituzte suteak; jauntxoek buruzagiari bidaltzen diote tximistaren sua, eta hark otoitz egiten du suaren aurrean. Buruzagiak herri guztietara bidaltzen du su berria, eta herritarrek oparia eskertzen diete mezulariei. Horrek erakusten du begiramenez hartzen dutela tximistak irazekitako sua, eta begiramen hori ulertzekoa da, zeren eta Jainko munduratutzat baitauzkate trumoiak eta tximistak. Era berean, Kaliforniako maidu indiarrek sinesten dute gizon handi batek egin zituela mundua eta bere biztanle guztiak, eta tximista gizon handi hori bera besterik ez dela, bere beso garrezkoaz zuhaitzak eraistera zerutik bizkor jaisten dena.

Hona hemen kontuan hartzeko moduko teoria bat: Europako herri zaharrek haritzari zioten begiramena, eta zuhaitz horren eta zeruko beren jainkoaren artean ezartzen zuten lotura, tximistak haritza gure europar basoetako beste zuhaitzak baino askoz sarriago jotzen bide zuelako zirela. Haritzaren bitxitasun hori teoria mitologikorik ez duten zientzi ikertzaileek azken urteotan egindako hainbat behaketari esker ezarri da, nonbait. Edozela azaltzen dugularik ere, dela elektrizitatea errazago pasatzen delako haritz-egurreen zehar beste edozein egurretan baino, dela beste edozein modutan, kontua da gertaera horrek gure arbaso zakarren arreta erakarri zuela, Europaren zati handi bat estaltzen zuten baso zabaletan bizi baitziren; eta kontuan hartuko zuten beren pentsabide erlijioso sinplean, emanek ortziko jainko handiak, zein gurtzen baitzuten eta zeinen ahots beldurgarria entzuten baitzuten trumoiaren hotsean, basoko beste zuhaitzen gainetik maite zuela haritza, eta askotan jaisten zela laino goibetetik tximista-izpi batean, enbor zartatu belztuan eta hostotza ihartuan bere presentziaren edo pasaeraren arrastoa uzten zuelarik. Zuhaitz hura loriazko koroa batek inguratuko zuen, ortziko jainko trumoitsuaren ezarleku zelakoan. Egia da grekoek eta erromatarrek, basati askok

bezala, identifikatu egiten zutela ortziko eta haritzaren jainko handia lurra jotzen zuen tximista-izpiarekin; jotako leku haiek hesitu egiten zituzten, eta handik hara sakratutzat izaten zituzten. Ez da harritzekoa, beraz, pentsatzea zelten eta germaniarren arbasoek, Europako erdialdeko basoetan, antzeko begirunea agertzea arrazoi berdintsuengatik ihartutako haritz bati.

Ariarrek haritzari zioten begiramenaren azalpena, eta zuhaitz hori trumoiaren eta ortziko jainko handiarekin lotzearena, aspaldi iradoki zuen Jacob Grimmek, eta asko indartu du W. Warde Fowlerrek azken urteotan. Badirudi sinpleagoa eta egiantzekoagoa dela nik aurrerago ontzat emandako azalpena baino -hots, haritza gure arbaso zakarrek zuhaitz horretatik ateratzen zituzten onura ugariengatik gurtzen zutela lehenik, batez ere haren egurra igurtziz ateratzen zuten suarengatik; eta haritzaren eta ortziaren arteko lotura hortik eratorritako pentsamendu bat zela, sineste honetan oinarritua, alegia, tximista-izpia txingar bat besterik ez zela, ortziko jainkoak han goian jaregina haritz-egurrezko bi puska elkarren kontra igurtziz, hala nola gurtzaile basatiak lurrian, basoan, sua egiten zuen bezala-. Teoria horren arabera, trumoiaren eta ortziaren jainkoa haritzaren jainkotik eratorria zen; oraingo teoria honetan -eta berau dut orain nahiago- ortziaren eta trumoiaren jainkoa izan zen gure ariar arbasoen jainko handi jatorra, eta haritzarekiko lotura ondorio hutsa izan zen, tximistak haritza zeinen sarri jotzen zuen ikusiz egindakoa. Baldin eta ariarrak, hainbatek pentsatzen duen bezala, Errusiako eta Asiako erdialdeko zabaldietan zehar batetik bestera ibili baziren beren ganadu eta artaldeekin Europako basoen ilunean murgildu aurretik, ortzi urdin edo lainotuko jainkoa eta tximista gurtuko zituzten beren bizileku berrian haritz ihartuekin elkartzea otu baino askoz lehenago.

Beharbada teoria berri honek beste abantaila bat du: haritz batean hazten den mihurari egotzitako santutasun berezia argitzen duela. Haritz batean haztearen bitxitasuna bera apenas den superstizioaren hedadura eta iraupena azaltzeko nahikoa arrazoi. Benetako jatorriaren zantzu bat, Plinioren adierazpen batek emango liguke: druidek zerutik eroria zela sinesten zutelako gurtzen omen zuten landarea, eta hura hartzen zuen zuhaitza jainkoak berak aukeratua zelako seinale izateagatik. Mihura tximista-izpian erortzen zela sinesten ote zuten? Aieru hori trumoi-erratz izenak berresten du; izen hori ematen baitiote mihurari Aargaueko kantoi suitzarrean, eta deitura horrek lotura argia ezartzen du landare parasitoaren eta trumoiaren artean; hain zuzen, "trumoi-erratz" izen ezaguna da Alemanian abar batean sortutako edozein kozkor dartetsu habia itxurako izendatzeko, ezjakinek uste baitute halako muskil parasittoa oinazturaren emaria dela. Aieru horretan egi izpirik balitz, druidek mihura zeukan haritza basoko beste zuhaitz guztien gainetik gurtzeko benetako arrazoi sineste bat zen, alegia, haritz horrek, tximistak jotakoa izateaz gainera, su zerutiarraren emaria zeramala bertan; hartara, mihura errito mistikoen bidez ebakitzean, oinazturaren tasun magiko guztiak bereganatzen zituzten. Hori horrela izatera, ondorio hauxe atera behar genuke, mihura tximistaren emaritzat hartzen zela, eta ez, orain arte esan dudana bezala, udaburuko eguzkiaren emaritzat. Agian balegoke itxuraz desberdinak diren bi ikuspuntuok konbinatzerik: ariarren sinesmen zaharrean mihura tximista-izpi batean jaisten zen eguzkitik udako solstizioan. Baina halako konbinazio bat artifiziale eta, nik dakidan neurrian, frogatu gabea da. Ez daukat esaterik bi interpretazioak magiaren printzipioen arabera batera ote daitezkeen ala ez; baina bateraezinak balira ere, horrek ez lieke eragotziko gure arbaso zakarrei biak batera onartzea, sinesmen berberaz; izan ere, gizateria gehiena bezala, basatia ere logika pedante batek ezarritako traben gainetik dago. Haren pentsaera bihurriaren arrastoari jarraitzen saiatzean, ezjakintasun gorotzaren eta beldur itsuaren nahas-mahasaren artetik, gogoan izan behar dugu beti lur sorginduan zehar gabiltzala, eta erne ibili behar dugu errealitate gogortzat ez hartzeko

gure bidean aurkitzen ditugun edo ilunean zehar hegaldaka eta murduska azaltzen zaizkigun itxura lainotsuak. Ez daukagu inolaz ere jartzerik lehen gizonaren ikuspuntuan, gauzak haren begiez ikusterik, eta gure bihotza harena inarosten zuten emozioek bizkortzen dutela sentitzerik. Hari eta haren moduei buruz ditugun teoria guztiak, beraz, egiatik urrun ibiliko dira; gehienez jota ere, probabilitate-gradu handi samarra besterik ez dezakegu izan.

Azterketa hauei amaia emateko, esan dezakegu ezen, baldin eta Balder, nik proposatu bezala, mihura daukan haritzaren pertsonifikazio bazen, hura mihura-kolpe batez hiltzea tximistak jota hiltzea litzatekeela teoria berriaren argitan. Tximistaren garra ezkutatzan zuen mihurak abar artean irauten zueino, ez zitzaion kalterik gertatuko haritzaren jainko on abegitsuari, bizia ondo babestua baitzuen zeruaren eta lurraren artean parasito misteriotsu hartan; baina biziaren edo heriotzaren egoitza hura moztu eta enborraren kontra jaurtiz gero, zuhaitza tximistak jota eroriko zen -jainkoa hil egingo zen-.

Eta Balderrez kontatu duguna, Eskandinaviako hariztietan gertatzen zitzaiona, berdintsu esan daiteke -kontu handiz hala ere, hain arazo ilun eta mugikorra izaki- Dianaren apaizaz ere, Basoko Erregeaz, alegia; Arician, Italiako hariztietan bizi zenaz. Hark ere ortziko italiar jainko handia, Jupiter, hezur-mamituko zuen, tximista-izpian zerutik gizonen artera ongile jaitsia mihuran bizitzeko -trumoi-erratzean, Urrezko Abarrean-, haritz sakratuaren gainean haziz Nemiko ibarxketan. Hori horrela izatera, ez daukagu zer harriturik, apaizak abar mistikoa bere ezpata biluziaz zaintzen zuelako, abar hark jainkoaren bizia eta berea baitzeuzkan. Hark zerbitzatzen zuen eta ezkontide zuen jainkosa, zuzen banago, Zeruko Erregina bera izango zen, ortziko jainkoaren egiazko emaztea. Hark ere baso eta muinoetako bakardadea maite baitzuen, eta gau oskarbietan han goian nabigatuz zilarrezko ilargiaren itxura hartuta, plazerrez begiratuko zuen behera, bere irudi ederra lakuko gainazal leun barean, Dianaren ispiluan, ikusteko.

lxix

Agur Nemiri

Iritsi gara gure azterketaren burura, baina egiaren bilaketan maiz gertatu ohi den bezala, galdera bati erantzun badiogu ere, beste hainbat sortu zaizkigu; bide bati azkeneraino jarraitu badiogu, beste batzuetatik ere pasatu behar izan dugu, Nemiko zuhaizti sakratutik urrunera zeramaten, edo ustez zeramaten, bideetatik. Bide horietako batzuetatik, ibili gara pixka batean; beste batzuetatik, berriz, fortuna lagun, idazlea eta irakurlea elkarrekin ibiliko dira noizbait. Oraingoz nahikoa ibili gara elkarrekin, eta partitzeko tenorea da. Ordea, hori egin aurretik, galde geniezaioke geure buruari ea ez ote dagoen ondorio orokorragoren bat, ez ote dagoen ateratzerik itxaropen eta ausardiazko ikaskizunen bat, ahal balitz, liburu honetan arreta hartu diguten giza hutsegiteen eta erokerien bilduma malenkoniatsu honetatik.

Beraz, kontsideratzen badugu, batetik, gizonaren nahikunde nagusiak, nonahi eta noiznahi, funtsez berberak izan direla, eta bestetik, gizonak horiek asebetetzeko aro eta aldi desberdinetan erabili dituen bitartekoak oso desberdinak izan direla, orduan ondorio hauxe aterako genuke apika: pentsaera garaiagoaren nondik-norakoa, arrastoa jarrai diezaiokegun bezainbatean, magiatik, erlijioa bitarte, zientziarainokoa izan dela oro har. Magian gizona bere indarren menpean dago alde guztietatik zelatan dituen zailtasun eta arrisku guztiei aurre egiteko. Sinesten du badela naturaren ordena jakin bat, ordena horretan oinarri daitekeela, eta bere helburuetarako erabil dezakeela. Oker zegoela aurkitzen duenean, onartzen duenean bai berak suposatutako naturaren ordena eta bai berak haren gainean ustez zuen kontrola irudimen hutsezko zirela, orduan ez du gehiago konfiantzarik bere adimenean eta bere ahalegin antzuetan, eta naturaren beloaren atzealdean dauden halako izaki handi ikustezin batzuen besoetan etzaten da, eta haiei egozten dizkie behinola bere buruari egotzitako ahalmen handi haiek guztiak. Hala,

adimen zorrotzenetan erlijioak ordeztzen du pixkanaka magia; erlijioak azaltzen du naturako fenomenoen hurrenkera: gizona bezalakoak -nahiz askoz ahaltsuagoak- diren izaki izpiritual batzuen apeta, nahikari, grinek erregulatzen dituzte fenomenook.

Baina denbora joan ahala, azalpen horrek ere ez du aseko gizakia. Izan ere, ontzat ematen baitu gertaera naturalen hurrenkera ez dutela lege aldaezinek erabakitzen; aldiz, aldakorra eta irregularra dela. Baina uste horri ez diote eusten behaketa xeheagoek. Aitzitik, zenbat eta gehiago aztertu hurrenkera hori, hainbat gehiago harritzen gaitu naturaren jardunak, nonahi erreparatzen diogularik ere, erakusten duen uniformitate zurrinak, zehaztasun puntualak. Jakintzaren aurrerapen handi orok zabalagotu egin du ordenaren barrutia, eta horrenbestez estutu egin du itxuraz munduan den desordenaren barrutia, harik eta oraingo honetara iritsi arte: orain gai gara auresateko ezen, oraindik ere zoria eta nahasmendua nagusi direla diruditen aldeetan ere, jakintza beteago batek ustezko kaosa kosmos bihurtzen duela nonahi. Hala, adimen zorrotzagoek, unibertsoko misterioen soluzio sakonagoaren bila aurrera bultzaka, arbuia egiten dute naturaren teoria erlijiosoak, desagokitzat jotzen dute, eta neurri batean magiaren ikuspuntu zaharrera itzultzen dira, argi eta garbi postulatuak magiak inplizituki onartzen zuen zerbait, alegia, erregulartasun erabatekoa dagoela naturako gertaeren ordenan; erregulartasun horrek, kontu handiz behatuz gero, haren nondik-norakoa segurtasunez aurikusteko eta horren arabera ekiteko gaitzen gaitu. Laburki, zientziak lekua kendu dio erlijioari, naturaren azalpen gisa.

Baina zientzia eta magia, biek ere ordenari, gauza guztien azpitiko printzipio gisa, dioten fedeak batzen baditu ere, lan honen irakurleek ez dute gogorazi beharrik izango magiaren ordena eta zientziaren ordena oso desberdinak direla. Aldea berez ageri da bi ordenak lortu diren modu desberdinetan. Izan ere, magiaren oinarri den ordena ideiak gure gogoaren aurrera agertzen diren ordenaren hedapen bat besterik ez da, analogia izunez egina; aldiz, zientziaren ordena fenomenoaren beren behaketa pazientziatsua eta zehatzetik dator. Zientziak orain arte lortutako emaitzen ugaria, sendoa eta ederra egokiak dira beraren metodoaren baliagarritasunaz fido izateko. Hemen, azkenean, mendeetan eta mendeetan ilunean haztamuka ibili ondoren, gizonak labirintoko arrastoa aurkitu du, naturaren altxorreko sarraila asko irekitzen dituen urrezko giltza. Ez dateke gehiegizkoa esatea aurrerapenaren itxaropena -hala moral eta intelektuala nola materiala-, etorkizunean, zientziaren fortunarekin lotuta egongo dela, eta zientzi aurkikuntzen bidean jarritako oztopo guztiak gizateriaren kaltetan direla.

Hala ere, pentsamenduaren historiak erne jarri behar gintuzke beste ondorio hau ateratzearen kontra: munduaren teoria zientifikoa orain arte formulatutako hoberena delako, derrigor osoa eta behin-betikoa dela. Gogoratu behar dugu azken buruan zientziaren orokortzeak -edo, arrunt hitz eginez, naturaren legeak- hipotesiak besterik ez direla, guk "mundu" eta "unibertso" izen potoloen bidez duintzen ditugun pentsamenduaren fantasmagoria beti-aldakorrak esplikatzeak eratuak. Azken analisian magia, erlijioa eta zientzia pentsamenduaren teoriak besterik ez dira; eta zientziak besteak ordezkatu dituen bezala, bera ere hipotesi osatuagoek gaindi lezakete, beharbada fenomenoak ikusteko -pantailako itzalak erregistratzeko- era guztiz desberdin batek, guk belaunaldi honetan halakorik sumatu ere ezin dezakegun arren. Jakintzaren aurrerapena bide amaigabea da, beti ere harantzago dagoen xede baten atzetik. Ez dugu kexu izan behar azkenik gabeko jardun horretaz:

Fatti non foste a viver come bruti

Ma per seguir virtute e conoscenza.

Gauza handiak etorriko dira jardun horretatik, guk ikusiko ez baditugu ere. Izar distiratsuagoak goratuko dira etorkizuneko bidaiariren baten -pentsamenduaren barrutietako Ulises handiren baten- gainetik, gure gainetik distiratzen dutenak baino.

Magiaren ametsak, egunen batean, zientziaren errealitate iratzarriak izan daitezke. Baina laino beltz batek zeharkatzen du ikusmira eder horren amaiera urruna. Zeren eta, nahiz etorkizunak gizakientzat gordeta bide duen jakintza eta boterea izugarri handia izan, nekez espero daiteke geldiaraztea indar handi batzuen kolpea; alegia, unibertso izartsu hau, zeinetan gure Lurra baitabil ttantta edo hondar-ale baten gisan, osorik suntsitzeko ahalegin isil baina etengabea diharduten indarren kolpea. Etorkizunean gizona gai izango da agian haizeen eta hodeien nondik-norakoa auresateko, are kontrolatzeko ere, baina nekez izango dute ahalik haren esku txikiek indargabetuz doan gure planeta bere orbitan berriro bizkortzeko, edo hiltzen ari den eguzki-sua atzera pizteko. Alabaina, hain urruneko hondamendien ideiarekin ikaratzen den filosofoak bere burua kontsola dezake pentsatuz beldur goibel horiek, Lurra eta Eguzkia bezala, gogoak hutsetik sorrarazitako mundu gorpuzgabekoaren parte besterik ez direla, eta azti zoli horrek gaur deitu dituen fantasmak ezabatu egin daitezkeela bihar. Horiek ere, begi arruntei gotor iruditzen zaizkion beste hainbat gauza bezala, airean fundi daitezke, aire mehean.

Etorkizunean hain aurrera egin gabe, hiru hari desberdinez egindako ehun batekin konparatuz erakuts dezakegu orain arte pentsamenduak egindako ibilbidea: magiaren hari beltza, erlijioaren hari gorria eta zientziaren hari zuria (baldin eta zientziaren barruan egia sinple horiek, natura behatuz ateratakoak, sartzerik bageneuka, aro guztietako gizonek horietako asko izan baitituzte beti). Pentsamenduaren ehun hori hasieratik aztertzerik bageneuka, lehen unean laukitxo zuri-beltzak antzemango genituzke, ideia izun eta egiazkoen adabakiz osatuta, erlijioaren hari gorriaz doi tindatuta. Baina urrunago begiratzuz ohartuko ginateke ezen, laukitxo zuri-beltzek bere horretan jarraitzen duten arren, ehunaren erdialdean, erlijioa ehunduran sakonen sartu den lekuan, gorri ilunezko ttitta bat dagoela, eta ezari-ezarian argituz doala, zenbat eta zientziaren hari zuria gehiago nahasi ehunean. Hala laukitu eta ttittatutako oihala batekin konpara daiteke pentsamendu modernoaren egoera, bere helburu desberdin eta joera kontrajarri guztiekin: kolore desberdinetako hariz egina da, baina pixkanaka kolorea aldatuz doakio zenbat eta gehiago hedatu. Horrela jarraituko al du etorkizunean mendeetan eta mendeetan ezari-ezarian pentsamenduaren jitea aldatu duen mugimendu handiak? Ala erreakzioa gertatuko da, aurrerapena geldiarazi ezezik, orain arte egindako asko deseginez? Gure irudiarekin jarraituz, zein izango ote da denboraren ehundegi geldiezinean patua ehuntzen ari den oihalaren kolorea? Zuria ala gorria izango al da? Ez daukagu esaterik. Argi motel dardarti batek argitzen du ehunaren atzealdea. Hodeiek eta ilun beteak ezkututzen dute beste muturra.

Amaitu da gure ikerketa-bidaia luzea, gure ontziak eraitsi ditu azkenez belak portuan. Berriz ere Nemiko bidea hartuko dugu. Arratsaldea da, eta Via Apiako mazela luzea igo ahala, Albano mendietarantz, atzera begiratu eta ortzia oskorritzen ikusten dugu eguzkia sartzearekin batera, urrezko distira hilurren den santu baten aureola antzo geratzen delarik Erromaren gainean, eta suzko gailurraz San Pedroko kupula ukitzen duelarik. Ikuskizun hori ez dago sekula ahazterik, baina itzuli eta geure bideari lotzen gatzazkio, ilunabarrean, mendialdera, harik eta Nemira iritsi eta behera begiratu arte, sakon-sakoneko lakura, bizkor desagertzen ari baita arratseko itzaletan. Lekua ia ez da batere aldatu Dianak, harizti sakratuan, bere gurtzaileen omena jasotzen zuenetik. Oihaneko jainkosaren tenplua desagertu egin da, bai, eta Basoko Erregea ez dago zelatari Urrezko Abarraren gainean. Baina Nemiko basoak berde dirau oraindik, eta mendebaldetik ilunabarra gaineratzen zaiolarik, guregana iristen da, haizearen hegoek ekarria, Erromako eliz kanpaien hotsa Angelusa jotzen. Ave Maria! Kanpai-hots gozo itzaltsua iristen da hiri urrunetik, eta ematuz doa Campaniako paduretan barrena. Le roi est mort, vive le roi! Ave Maria!

